

JOAN ZIREN

2. ORAIN EZIN NAIZ HIL

Xabier Amuriza

ARTISTAREN GAZTETAKO ERRETRATUA

(AEKren Bilboko Kalderapekon irakurritako aurkezpena)

Nik ez diot beldurrik heriotzari, hiltzeari baizik. Liburu gabeko liburu-aurkezpen atsegina dut gaur. JOAN ZIREN zikloko bigarren liburukia: *ORAIN EZIN NAIZ HIL* deritzona. Internetean argitaratzearen arrazoia oso sinplea da: *DINOSAUROAK HORIZONTEAN* izeneko lehenengoagaz zor egin dut. Zenbatekoa ez dut argituko, baina bai beste zulo batera arriskatzeko baino handiagoa. Bestela ere, banerabilen honelako buruera zerbait, baina desausardiak atzeratzen zuena, azkenean derrigorrak aurreratu du, nire bizitzako aurrerakada gehienetan bezala. Oraingoa ere, badira ondorio ongarriak.

Lehenik, noski, zorrik ez egiteko lasaitasuna. Bigarrenik, ohiko argitaratze batek, aurretik eta ondoren, haietara behartzen zaituen atzera-aurrera eta buruhauste amaigabeen saihaspena. Azkenik, produktua eskuera librean eta doan utzirik, zabalkundea handiagoa izango den itzaropena. Badakit emaitza bera, liburu formatuan, ederra litzatekeena, arrakasta suposatuz, baina ez da kasua. Arrakastaren ondorioak kontrola nitzake, baina arrakastarik ezaren aurka defendatzeko modurik ez dakust.

Norbaitek galde lezake nola ez naizen lotsatzen neure desarrakasta aldarrikatzen. Penatu bai, baina lotsatu ez. Badakit Faulkner aterik ate ibili zela, bere nobelarik inork hartu nahi ez ziola; eta beste lan batera dedika zedin fraternalki aholkatzen ziotela. Zenbat horrelako artearen historian! Ez dakit kasu horietariko bat izango naizen, baina aurreko *Dinosauroak horizontean*, gaurko *Orain ezin naiz hil* hau, ia amaitua dudana hurrengo, eta, sano banaiz, ondoren etorriko diren besteak, osasun handian biziko dira hemendik berrehun urtera. Ikusiko dugu zenbat iristen diren haraino.

Hor duzue, beraz, sarean, *Amuriza blog Xabier*. “Eman da zabal zazu”. Doan, nahi baduzue. Borondate baten laguntzaz, merezigarri iruditzen bazaizue. Beharbada, nork jakin, baliteke mezenas handi bat agertzea, esanez: “Joño! Iluso zentzagaitz horixe babesteak zer ondorio dakarren probatu behar diat”. Mezenas txiki mordo bat ere ez letorke txarto. Ez dut itzaroten, baina behar dut itzaropena. Inspirazio apur bat dudano, ez nuke itzaropenik ere behar, baina inspirazioa ez baita egoera permanentea, kemenen ere behar da, eta horretarako nahitaezkoa da, nigan, behintzat, aldarte basiko bat, euforia puntu bat. Inspirazioak emaitza neke gutxiagoz dakar, baina ez da gutxiago sortzaile kriterioa, kemenaren bitartez aplikatu daitekeena. Kriterioak, gehi bere arnasatzat jotzen dudana senak, inspirazioari forma ederragoak damaizkio. Eta, batez ere, inspirazioak lagundu nahi ez duenean, beronek adinako kalitatea sor dezake, gehiago nekatuta bada ere.

Arrakastaz edo gabe, neurean jarraitzea baino ez daukat. Ez nago ziur arrakastak kalitatea ontzerik ekarriko lukeen. Argi dagoena da probatu gabe ezin dela jakin. Horregatik, badaezpada, nahi duenari borondate bat eskaintzeko bide bat ireki gabe ezin dut utzi. Bide hori kontu zenbaki hau da: **3035015491 1541032789**. Euskadiko Kutxa-Berriz. Ez dut esango premian nabilenik, nahiz eta bai aurreikuspen batzuetan huts handiak eginda. Ondo eta pozik bizi naiz, baina hain lan luze baten onura zerbait itzarotea ez dut uste lotsagabekeria denik. Eta baldin bada, oraintxe edo inoiz ere ez.

Bigarren liburuki honen ere marko orokorra haurtzaro-gaztaroak izaten darrai. Galdetu beharrik izan ez dezazuen, ez da, inola ere, nobela autobiografikoa, Prousten *Denbora galduaren bila* ere ez den moduan. Egia da geografia eta zenbait abiapuntu errealak direla. Inoiz, hurbilki errealak ere bai. Baina, oro har, oinarri erreal baten gaineko fikzio handi bat izan nahi du, errealitatea hobeto adierazten duena, hain zuzen. Edozein konposizio artistiko motibo baten gainean eraikitzen da. Sarritan, motiboa bera ere asmatua izan ohi da. Horrelako atalak ez dira gutxi liburu honetan. Baina motiboa edo abiapuntuak errealak direnean ere, garapena beti da konposizioa.

Nire idazkeraren oinarri handietariko bat neure limitazioak dira. Alde batetik, nire bizibidea, bizitzarik erdian, bertsolaritzaren inguruan ibili da. Bertsolaritza oso oparoa da harremanak, egoerak, giza ezagutzak pilatzeko. Baina literatura idatzian, baliabide espresiboak behar dira, lexiko ugaria, adibidez. Horretan, bertsolaritzak ezin dit askorik eman. Bat-batean, oso deigarri izan daitezkeen baliabideek –errimak, hitz-jokoek, zuzeneko erretorikak– hemen molestatu egiten naute. Bertsolaritzan, dozena batzuk adjektibogaz, bizitza osoan ibil zintezke, arrakastaz. Nik objektuak eta objektuen izenak, kontzeptuak eta kontzeptuen izenak behar ditut, asko eta zehatzak.

Behin, Bitoriano Gandiagarekin hizketan, harritu ninduen, esan zidanean: “Nik, azkenerako, beti aurkitzen dot berba egokia”. Ez nion esan, baina pentsatu nuen: “Nik baino zorte hobea daukazu, ze nik gura neukezen berbak, asko eta asko, jakin be ez dakidaz”. Maiz gertatzen zait objektu interesgarriak, sugestiboak ezagutzen ditudala; baina haiekin jokatzeko, erlazionatzeko, metaforatzeko, euren izenak falta zaizkit. Banoa gauez kalean, eta izendatzen ez dakidan gauza piloa ikusten dut. Izen horiek beste lanbide batek eman zitzakeen, beharbada. Lanketa pertsonalak ere bai, noski, baina orain, jada jubilatutik, denbora mugatuegia daukat karrera berrietan hasteko.

Beste aldetik, euskararen bertan ere, limitazio handiak aurkitzen ditut. Oraindik askatu ezinik gabiltza Mitxelenaren inguruan formulatu zen ‘erdibidearen’ tiraniatik. Edo probintzianismotik. Zer da ‘erdibide’ hori? Bi tontor edo poloren arteko hautuan, ez batera ez bestera ez iristeko modurik zuzenena? Zer esan nahi du garbikeria gaintzera zetorren erdibideak? Erdia ‘garbizaletik’ eta erdia ‘ez hain garbizaletik’ garatu behar zela? Zer da ‘ez hain garbizale’ hori? Despektiboki euskara ‘mordoiloa’ esaten zena? Baina erdibide sano bat sekula ezin daiteke atera ‘garbikeria’ eta ‘mordoilokeria’ bezalako bi eredu txarren konbinaziotik. Suaren eta kearen artean kokatzea bezalatsu. Ederra erdibidea bizirik apartatzeko! Funtsean gertatzen zena ez ote zen zorioneko erdibidea ez zela iparririk ezaren eufemismoa besterik? Sumatu genuen zoru inseguruan geundela, mugitu ginen zerbait, *atomo*, *kosmo*, *telefono*, *filosofia*, *metafisika* eta halako hitz-zerrenda topiko baten onarpenera bilduz milaka eta milaka hitzen auzia zena, eta posizio berriari izen erreberente bat eman genion. Ez genekien garbi non geunden ez norantz, baina erdibidea zen! Edo erdigunea, non amets libreria lokartu ginen, eta sonanbulu jaikirik, berriz abiatu, esteparen bakartasun harroan, norabide zabunkari eta ezberdin guztietan, harik eta, noizbait itzartzean, ohartu ginen arte elkar ez ikusteko beste urrundu ginela. “Ni hiltzen naizen gauean, behintzat, eizue lo lasai”.

Erabakia dut premisa argi batetik aurreratzea: ipar biderakusle hori mendebaldeko hizkuntzen ondare komuna da. Suizidio linguistiko probintzianoa litzateke euskaldunok ere bertakoak garen unibertso kontzeptual hori guztia hizkuntza ia agoniko batean berrizendatzen saiatzea. Askok aurreratu dugula dantzut. Ez dut ukatzen. Nik falta den zuloa dakust. Eta bitartean sortu dugun nahasmena eta inprezisia, kriterio argiago eta zehatzagoekin bakarrik gaintzi daitekeena.

Horra adibide on bat: *kriterioa*. Badakit *irizpide* existitzen dena. *Hizpide* ere bai, *arnasbide*, *bizibide*, *lanbide*, *adibide* eta abar bezala. Baina ezin ditut *irizpide* eta *kriterio* sinonimotzat jo, berdin jo ezin ditudan bezala *hizpide-hizkuntza*, *arnasbide-arnasa*, *bizibide-bizitza*, *lanbide-lan*, *adibide-adimen*... Edo *inprezisia* eta bere alderantzi *prezisia*. Zientzia, teknologia eta arte guztietan hain termino funtsezkoa denari, mendebaldeko hizkuntza guztiek konpartitzen dutenari, *zehaztugabetasuna* asmatu diogu. Eta gero, freskotasunaren izenean, ez dago erreparorik euskaraz hainbat ordain dituen *ez da preziso* bezalako lokuzio arrunt bat onartzeko. Eta, gainera, nahasmena. *Prezizio = doitasun*. *Inprezizio = zehaztugabetasun*. *Zehaztugabetasuna*. Hain hitz horriblea entzuteko sakrifizioa egin eta gero, konturatzen zara ez dakizula *inprezisia*, *indefinizioa*, *inkonkrezioa*, *indeterminazioa* ala zer ulertu behar duzun. Jo ezazu horrelako hitzak badirela 20.000tik gora, eta kalkula ezazu arazoaren tamaina.

Zorionez, ondare komunaren “ideia argi eta berezia” jarraituz, Descartesen definizio ospetsuaz baliatzearen, nire limitazio espresiboak asko zabaldu eta zehaztu dira. Badakit Prousten hizkuntzatik urrun nagoela. Edo Joycerenetik. Honek, *The Portrait of the Artist as a Young Man* nobelan, gaztelaniaz *Retrato del artista adolescente* bezala, eta nik *Artistaren gaztetako erretratua* itzuliko nukeen hartan, bere haurtzaro-gaztaroak hartzen ditu motibo nagusitzat. Ni ere, liburu honetan, adin horiexen gainean nabil. Joycerena nirea baino autobiografikoago dela esango nuke, baina horixe da gutxiena. Egia zein fikzioa izan, arazo artistikoa konposizioa da, batean zein bestean ona edo txarra izan daitekeena. Txarra maizago, ona baino.

Badakit Proustek edo Joycek, nik baino lexiko handiagoa maneiatur gainera, hizkuntza ere nirea baino potenteagoa dutela. Limitazioen barruan, oster, nik ere neure balidabideak ditut, haiengan pentsaezin ziren erlazioak, jauziak, konbinazioak eratzeko. Horri erantsiz gero euskararen gabezia estrukturalak, fatalki jasatera makurtzen jarraitu beharrean, hornitzen eta, batzuetan, gainezten ere saiatzeko askatasun sistematikora jo dudala, bideak gehiago zabaltzen dira. Azkenik, pentsamenaren ibilera amaigabeak eta dibertsoenak ere neure erara traza ditzaket. Joycek, batzuetan era traumatikoan, kasik zintzoegian, bilbatzen, satiratzan, destripatzen zituen alderdiak –diziplina, erligioa, larritasun moralak, askapen intelektuala– nik halako gaingitze baten superioritatez berreraiki ditzaket. Haren jenioak zuhaitzaren alde ageri guztiak harrigarriro astintzen baditu, nik, beste posizio intelektual batetik, sustraiak, oinarriak kolpa ditzaket.

Baita badut denbora guztiakin eta erregistro mota askogaz batera jokatzera ere, haiek pentsatu ez zuten moduan. Neure limitazioen barruan, neure armak dauzkat, inspirazioak eta kriterioak lagunduz gero, posibilitateak ugai daitezten. Inozentzia, samurtasuna, ironia, sentimendua, sarkasmoa, lirismoa, kontudentzia, fantasia, korrosioa, gogoeta xaloea, pentsaketa agresiboa... neure erara antola ditzaket, banaka eta bereiz, batzuetan; beste batzuetan, zailena denez, erregistro ezberdinen konbinazioan. Esaterako, narrazioa eta elkarrizketa era diferentean antolatuz, nahasiz, separatuz. Liburu honetan bada ordenagailuko 41 orrialde diren eta liburu formatuan 70 bat liritekeen kondaira luze bat, non ia narrazio guztia elkarrizketa hutsean garatzen den. Aspalditik niharduen pentsaketan nobela bat hainbeste astuntzen duten makulu esplikatibo etengabeak –*esan zuen, galdetu zuen, erantzun zion, gaineratu zuen, berriz ere jaulki zuen, pentsatu zuen berekiko, ohartarazi zuen...*– nola saihas zitezkeen, elementu narrazioak ere elkarrizketan diluituz. Eta, bide batez, eta batez ere, elkarrizketaren izaera eta kolore oso ezberdin bat garatuz. Antzerkia bailitzan, baina behar diren azalpen eta kokapen eszenikoak ere elkarrizketa bihurtuz. Liburuki honetan probatua eta, ustez, lortua dudana prozedura ohikoago bihurtuko da hirugarrenean.

Ez dakit Balzaci ala Flauberti, gazte bat aurkeztu ei zitzaion, literatoa izateko zer behar zuen jakin nahian, eta jenioak agindu ei zion: “Deskriba gela hauxe”. Nik esango nioke: “Hauta gela honen ezaugarri erreprestatibo bat. Ezaugarri bat, tonalitate bakoitzean: maitakorrean, goibelean, ironikoan, despektiboan, infantilean, korrosiboan... Deskribapen selektiboa gehiago interesatzen zait, Flauberten deskribapen xehatua baino, nahiz eta estimatuko nukeen haren hornidura erreferentziala, eta, nola ez, trebetasuna. Neure limitazioek baldinduriko kriterioz, neure baliabideak garatu edo asmatu behar ditut, bilatzen ditudan efektuak sortzeko.

Amaitzeko esan dezaket, liburu honetan, oinarritzko fikzio eskerga baten gainean, nire bizialdi batek, eta beragaz Euskal Herriaren aro batek, *Artistaren gaztetako erretratua* konfiguratu duela. Orain, neure haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroa erreprestatzio zirrargarri bat bezala berbizi ditzaket. Lartxo esatea ez bada, artelan bat bezala, zuek ere gozatzea desio nukeena. Sarritan, norberak idatzia berrikustean –niri, behintzat, horixe gertatzen zait–, etsia ematen du. Badirudi emaitzak sekula ez duela berdintzen zure sentimenduen kalitatea. Duela hilabete, eztula biguntzeko jarabe bat hartzen hasi nintzen, eta aldatzera ez jaistearren, astebete zorabiatu igaro nuen, erdi dilindan, ilargiko grabitatean bezala. Hain zuzen, liburu honexen azken errepasoan nenbilen, eta, seguruenik, sendagaiaren eraginpean, haluzinazio handi bat iruditu zitzaidan dena. Sentipen horixe opa nizueke... dopping gabe! Eskerrik asko.

JOAN ZIREN

2. ORAIN EZIN NAIZ HIL

Nire haurzaro-gaztaroen oroitzapena hain hunkigarria izatea egin zuten jaiotetxe Torreburu eta jaioterri Etxanori. Eguneroko ikuspegi desiatua izan nuen auzo-herri Gorozikari. Eta mundu handiaren nire lehenengo irudikapen kitzikagarria izan zen Zornotzari

Herio-orroen eskatologia honetatik ihesi beharra dago norabait. Katean edo itxian harrapaturik gelditu diren animaliak gosez hil daitezen itxaron behar badut, bi azken dauzkat: kanpoan, angustiak akaba nazala; etxean, leihorik ezin irekiz ito nadila. Hirugarren bat ere bada, noski, norbere buruarekikoa, baina nork ikusteko, denak joanak badira? Aukera hori hobe dut okasio lasaiagorako gorde, saiakera bakarra onartzen duela dirudienez gero. Etxe itxian itotzea bazterturik –bai, ezta?–, kanpoan ezin dut jarraitu animalia hil-hurrenen artean; are gutxiago, hildakoen artean. Nora ihes egin nezake? Urkiolara? Bihozkada dohatsuak, atabikoak, nerabeak, intenporalak, irresistibleak jo nau. Horixe ez al zen nire betiko irritsa, Urkiolan bizi, mundura neuk gura nuenean jaitsiz? Hasi naiz mendatea igotzen, eta bihurgune bakoitza tornu-bira bat da goiera handioserantz. Igo ahala, haitzak, egunsenti hasberriaren, gorriaren kontra –osteak argiaren jaikiera bainoago suaren imminenzia dirudi– inponentzia durdigarrian zabaltzen dira, neu igogailu naizen gotorleku inbulnerablerantz. Mundua haitzeko korola eskerga bihurtuz doa, neu, erle liluratua, Urkiola garailean, goragoko handitasunen bilgune naizela. Ai, Urkiola, Urkiola! Gaur ere merezi zenuke behinolakoa: *Askok egiten deutso San Antoniori, egun batean joanda bestean etorri*. Urkiolatik Anbotorantz, mundu eta xarma handiagoak daude beherantz baino. *Gogoan al daukazu zer egin genduen, Urkiola gaineko paguen onduen? Anbotoko Andre Mari Urrika, librerik badun suzko karrika, itzul bihotza eta nik haitza botako dinat harrika*.

Arrazoi edergarri hauen guztien azpian, oraingoan, bizi-arrazoi sakona dago. Tautologia. Ba ote da bizia baino sakonagorik, pizkundeaz fidatzen ez denarentzat? Urkiola inguruan, santutegiaz eta bost ostatetxez beste, apenas dagokeen abere lotudun etxerik, zabalera handian. Iparretik, Durangaldeko harana oso behean dago, haitzek separatua. Hegoarantz, Otxandio goitarra, hango orroak hilgarri iristeko baino harago. Urrungo ostertzak, soinuak, usainak harrigarriro aratz helarazten dituen hegoak jo dezanean, ipar maldara ezkutatzea aski salbagarri duket, lehen ere, Txakurzulotik Anbotoren gerrirantz, ingura nintzan hamaika bider utzia diodan freskuran. Land Rover-en bat badator, kirran-karran, artzainen bat, segurrenik. *Joño, champion! Zer egiten dok hemendik? – Mendilauzalea naz* darantzut, aldamenen dakarren txakur bizardoak, ardiei grazia egiteko pentsatua dirudienak, ulertzeko moduan. *Hementxe, paseatuz pentsaketan* erantzun banu, beharbada, ‘paseatu’ hitzaren inkonprentsiotz, tematu izango zen: *Hemen zer jagok zer pentsaturik?* Hasi hadi Otxandio aldetik datozen urruma agonikoetatik gordetzera etorri haizela esplikatzen, dozena bat hatzeko labana beti aldean, astebetean ezer hil gabe, miseriaren auguriotzat joko hindukeenari. Barka. Kiratsetik ihesi nabil. Land Roverrik ez dator.

Iparrak haranetik gorantz jo dezanean, apur bat hegoarantz, Otxandioko lautada berdeminarentz jaistea duket, haizea, alde zein aurka, mirarigile handia baita. Oraintxe jabetzen naiz, eskolara hasi berri, barruti baten azpi aldetik pasatzean, nola intrigatzen ninduten behien erromada kontrako aho-irekitzeek, goragotik ikusten bide zuten arriskuren bat zeinu ogrotiar haregaz abisatu guran, edo, beste gabe, burlaz. Horixe behar nuen, behi mamalek ere igartzea prakak beteko larritasunean nindoala eskolara, desesperazioa zer zen ez jakiteak bakarrik salbatzen ninduenean. Laster ikasiko nuen haizearen efektuen berri, baina ahotzar ireki haien fenomeno, kontrako haizeak ikuspen soilera biluzten zuena, desmisteriotu gabe neukan oraintxe arte, bitartean urteak adina jakintza joan bada ere. Urkiolara joango naiz, ai Urkiola! Hango muno eta arroetan, eta erreka freskoetan, karramarro eta arrankari ugari aurkituz gainera, nahikara dabilen ganaduak konpainia alaia eta, behar izanik, elikagarria emango dit. Bizitza mitikoa zoragarria da, bizitza erreala konponduta dagoenean.

Itsasora ere jo nezake, zergatik ez. *Hantxe bai ez heunkeela hil-orrerik entzungo*. Ordu erdian Lekeition naiz, Mendexako Karraspio hondartzaren jabe, behinolako gauerdia ilargitsu eta bakartietan bezala galdetuz: *Zelan daiteke, eguna elkar zapaltzen igarota, gau osoan inor ez gelditzea edertasun hau guztia gozatzen? Horrela heldu gura al jabek zorionera?* Ba, bai.

Horrelaxe. Esplikazio askoren arteko bat izan daiteke aurrerapenak ez duela ergeltasuneango komunioa hausten. Denak joandakoan, inork ez du inkarnatu nahi aulki tolesgarria ireki eta itsasoaren kontenplazio auditiboan eseri den larru arraro hartan, batek izan ezik: berak. Lekeition ere baserriak hurregi daude, ordea, Mendexa eta Gardata gain-gainean direla. Ni hara iristea nahikoa litzateke, kabanetako arrainak txilioka hasteko, behinolako abade errebeldeaz aztoraturik, etxe barruetan ezkutaturik leudekeen txakurrak eta katuak eta matxangoak jo gabe. Pilakuntza handiegia, sor litezkeen ustekabeei bakarrean jarkitzeko. Dena ez da izango ura dagoelako, ardoa edan behar, eta urik ez dagoelako, ardoa edaten jarraitu behar, Zumaian bipilki praktikatzen dutenez.

Ogella daukak han, Ipazter azpitik Bedaroa barrenera. Errepidea bertaraino heltzen da, ezein etxeren traba hurbilik gabe. Kostatik hur nekez ibil daitekeen ganadu bakana laster aldentuko da gorantz, beste isurialdera. Geratzen tematzen direnen soinu posibleak eta posibleki tristeak itsasoaren baurre etengabeak sobera irentsiko ditu. Munduan ezer gertatu ez balitz bezala, baina posibiliterik fantastikoena egiaturik. Itsasoa edertasun gisan atzeman nuen lehenik, seminariotik Sopelara txangoan, egun guztia haitzetik begira igaro nuenean. Edertasun infinitua olatuez harantz, infinituki xehea honantz, harribilen eta oinutsen neurrira. Ez dago modurik edertasun hark nire bizitza erretagaz bat egin dezan. Banabilke munduan, unibertso guztian, baina gehiago ez zait atxikiko halako inpresio totalik, ez inpresionatua izateko gauza ez naizelako, ezta lehendik pilatu zaizkidan inpresioak nire ahalmenarentzat gehiegi direlako ere, baizik inpresio batzuk ez direlako esne-hortzak bezalakoak, euren aho guria zerbitzatu ondoren, ondorengo definitiboan bultzadara otzanki erretiratzen direnak. Inpresio batzuk koralak bezalakoak dira, lehenengoaren kalitate erauztezin bera hartuz, jariatu diren haitzean haitz bihurtu arte atxikitzen direnak. Urpeak larritzen bainau, galgarau pilo bategaz konpara ninteke, non lehen parrastadak kono erpin-leun bat osatuko duen. Gero, gaineror daitezke nahi adina eta nahi adinako parrastadak, bolumena handituko dutenak, baina garrantzitsuena den forma, gizakiengan aiurria ziotena, lehenengoak utzi zuen erabakita. Nire itsasoagazko sentiera Sopelako lehen ikuspen harexek finkatu zuen. Berak irentsia izatera iritsiko banintz ere, heriotza ondoren inpresioaren batek iraun baleza, larritasun puntual hura laster ezabatuko litzateke edertasun predeterminatu horretan. Gariarena baliabide konparatibo askoren arteko ez hain on bat zelakoan nengokeen, hoberik aurkitzeko ezgaitasunaren eredu, ohartu ez banintz bera ere nire lehen inpresio horietariko bat dela. Neure inbentzio-seta gaixoberan, ezin nuen etsi gauzek ageri zutena baino nahitaez eduki behar zutela uste nuen forma askoz hobea ezin asmatzera, aitari galdetu nionean bezala, hainbeste saialdi ustelen ondoren, zergatik ezin zen gari pilo karraturik egin.

– *Oiloek arrautza obalatuak egin daiezen* –erantzun zuen.

– *Ez daieela arrautza obalaturik egin!* –jarki nuen, alternatiba hobeetarako inspirazio gabe.

– *Etixerako bakarrik balitz, pentsatzekoa litzateke, baina erostunek obalatuak gurago jabezak, ez jakiat zergaitik.*

Azalpena ez zen hain aiutua izango, baina konformatu nintzen, aitaren jakindurian fidaturik. Handik denborara, luzaroan bueltaka ibili ondoren, ez, beharbada, gakoa harrapatu, baina bai hartaz susmogaizten hasia nintzen arrautza ‘obalatuarenaz’ zirikatu nuenean, ez zuen duda izpirik izan jakiteko sasoiria iritsia ei nintzen sekretua agertzeko:

– *Oiloak arrautza karratuak egiten joazen, baina enda ha akabatu egin zoen. Obalatu nagusitu zenean, nostalgiaz esaten zoen ‘arrautza karratudun oiloa’. Gero, hori gehiago ezintzat jotzera errenditu zirenean, urrezko arrautzadun oiloarena zabaldu zoen.*

Banekusen, adinaren arabera, azalpenak trinkotuz zetoze, eta harrotzen nintzen ulertzeaz, ebidentziaraino, ez bainuen alferrik astoa lagunik eskurakoena. Bera batere exigentea ez izanez gainera, asmazioetan galtzea maite nuen edozein bazterretan aurkitzen zen astoak, uzki biribiletik, ar zein eme, paketetxo karratuak (errektangularrak, gero ikasiko nuenez) egiten zituen, nahi banuen txapelera, nahi banuen ostikora, jausi ahala aldaratzeko, *Hor daukak, Zarra, Piruren opari exaktoa!*, hots eginez lehenengotan, neure buruari ‘Gaintza’ deitzen ez bainintzen ausartzen, eta berdin gero, pentsatzen bainuen Piru errazago izan nintekeela Gaintza baino. Halaxe ikasi nuen futboleant, batez ere txilenetan. Behin pateketxoak lurra joz gero, ez zitzaidan interesatzen. Gehienetan, ordea, ostikatzeko gai nintzen baino gehiago fabrikatzen baitzituen astoak, behin bizkorrago ari zelako, behin beti azartatzen ez nuelako, baita inoiz, emea izanik, biak batera eta ia batetik egiten zituelako, ba, ez nuen hain futbol konpletorik ikasi. Hori, aldi berean arrantzari ematen ez bazion, zeren badirudi arrantzak, astoaren kasu anplifikatuan, erretagordia guztia mobilizatzen duela.

Hori guztia gertatua zen, orain iheslekutat aztertzen ari naizen itsasoa edertasun gisan agertu zitzaidan aurretik, non txalupak eta txalupakumeak (kaiok zirela geroago deskubrituko nuen), eta arrainak eta arrainkumeak (gero ere arrainkume jarraituko zutenak) lilura bakarraren osagai ziren, sardinarrak eta bakailoa izan ezik. Bakailoa sehaskatik ikusia nuen, begiak irekitzen hasiz batera, sukalde sabaiko gakoan zintzilik, txorizoen, saiheskien, solomoen eta katuak ez harrapatu beharreko jenero haize-beharren ondoan, harik eta, beste gako-lagun guztiak amaiturik, bera bakarrik gelditzen zen arte, irabala-mozkinezko bi ilaretariko baten muturrean. Bakailo gazia sekula ez zen falta, buztan hezur-luzearen forman bazen ere, birrin zimelen bat kendu ahalko zitzaion itzaropenean. Inoiz, gomendagarri ez zen moduan, armairu zokoan agertuko zen, ilunetan ere usain umeletik aise aurkigarri. Sardinarren bat ere nekez faltako zen. Hala, bakailo nahiz sardinaz, gure begi janguren aurrera nola iristen ziren oso gero jabetzeak ez zuen ekarriko nik ikusitako itsasoaren parte sekula izan zitezen, zirenik gazienean ere. Horretan uste dut haren senari konfiantza osoa nemaion katuaren etsenpluak (halako beldur baten barruan) asko lagundu zidala, hain sardinazale eta hain urhiguanti bera. Antxoa-latak ere egon zitezkeen, abuztuaren azken igandeko gonbidatu egunerako, aurreko astean ailegaturik –umeontzat klandestinoki–, edo nonbait ezkutuki eskuragarri, uste gabeko bisiten prebisioan. Aita-amen ohe oineko komoda eskergan gordeta egongo ziren, gela hartara ez sartzeko errespeto germinalak, inork insistitu gabe ulertuak (edo sumatuak) zaindurik, noizean behingo zamau, ezpain-zapi eta ontzi-tresnen ostean, gailera, azukre, txokolate eta halako jenero seduktoreen ondoan. Eta amaren prospektu mentalean: ‘Umeen eskuetatik aparte beti’.

Nire desio-gaia komoda harexen giltza zen, aipatu prospektuari jarraituz, gordelekuz aldatu ohi zena. Behin edo behin (urtean dozena erdi bat aldiz?) arrakasta ere lortzen nuen, ogi osoa besapean, antxoa-lata bategaz etxe azpiko pinadira desagertu nintzenean bezala. Ehunzango plantxatuak ziruditen xerratxo marroixka haiekin aseko ez ote nintzen kezka, aurretik olio guztia garbitu nuen, ogitan bustia. Oherakoan, zerbait igaririk, zer gertatzen zitzaidan galdetu zuen amari ezin izan nion, gau luzearen beldurrez, esan gabe utzi larri nengoela. Laster abiatu zen errizino-olio bila, baina bai ikaratu ere nire bat-bateko okadekin. (*Beste olio trago bat?*). *Orduan, labatiba gurago dok?* esanik, hari nion beldurraren jakitun, uste dut harrotu egin zela nire gizentasunaren aurrerakuntzaz, esan nionean: *Atzetik zeuk gura dozuna, baina ahotik ez, mesedez!*

Antxoa haien itsasoagazko bat ezina ere zorionez berretsirik geldituko zen handik urteetara, auzoko mutilzahar batek, eliza bete-betean, pare bat antxoa-lata golkotik atera eta pasaeran gure anaia bati eman zizkionean, neuri eskura emateko asmoz eramanean, espetxetik aitaren hiletara ekarriko nindutelakoan. Alde batetik, poztekoa zen hala libratu izana, zeren, eskoltak aparte, bueltan ezer metalezkorik sartzen saiatzea zigorbide handiagoa izan zitekeenaz gainera, Jainkoak jakin antxoa-lata haiek zenbat denbora eginak izango ziren Etxanosoloko Jerolimoren komoda zoko umelean. Hurrengo bisitan berria kontatu zidaten gaua barka-eske malkoberan igaro nuen

(beharbada, gehiago ez nuen ikusiko, gertatu ere gertatuko zen moduan), ni mutiko, hura aitaren adineko, berak hartan besterik ez zekien briska-jokoan egiten nizkion tranpengatik. Bion tantoak neuk kontatu behar izaten nituenez, komeni zenean, haren batekoei tanto bakarra eta neure orbelei figura adina tanto ematen nien, seiko bastoari sei eta horrela, hark, karten balioa ezagutu arren, kontatze bizkor samarrari ezin baitzion jarraitu. Beti ere, jokoko txakur handira, pezeta batetik gora neuk ez irabazteko izarian, eta, batzuetan, berari irabazten uzteko onberatasunean. Antxoa haiek ezingo nituzke itsasoagaz asoziatu, garuna, beldurtzeko esaten ziguten moduan, ‘judu-xaboiz’ garbituko balidate ere, haiek eta beste gauzarik gehienak nire itsasoagazko esperientziaren aurrekoak baitira. Errealitatea adimenera iritsiz doan ordenan taxutzen dela suposatuta behar balitz, nire kasuak adibidetzat balio lezake, salbuespena ere izan liteke baina.

Ilargiari hitz egiten nion, eta haren gerizekin jolasten nintzen etxe aurreko mahats-parrapean, argiunetik argiunera saltoka. Edo amamareneko sastegian, diskoan jaurtitako txapelaren azpira gatibatzen ei ziren saguzarrak harrapatzen; saiitzen alegia, ez baitaukat gogoan saguzar batto eskuratu nuenik, etxeko eta auzoko hainbat txapel zahar (haiek bai ederki harrapatu!) galdurik ere. Hori gogoan ez badago, errealitatean ez zitekeen izan. Ez dut uste eurek ere txapel azpian sartu nahi izateko adinako bururik zeukatenik. Putzu garbi baten hondotik bekaizten ninduen talo perfektua apurtu gabe harrapatzeko, ura kontuz-kontuz husten hasi nintzen, entzuna bainuen nola azeriak otso goseari putzu guztia edanarazi zion, hondoan islatzen zen ilargi betea taloa zela esanik. Otsa desengainuak eta ur-itoak luze eratzan zezanean, azeriak Malasko andreak sukaldeko leihoaren kanpoaldean freskatzen zeukan gatzatua berak bakarrik jango zuen. Ezin sinetsiz azeria hain gaiztoa zenik eta, gutxiago, otsoa hain ergela, ziur nengoen istorio hura neure putzu zaletasuna mozteko asmatu zutela. Ziotena edo ageri zena beti osteko zerbait hobearen estalkia zela tematurik nenbilenez, neure kabuz egiaztatzea pentsatu nuen, isilpe osoan, inork ustearen ustelagatik burlarik egin ez ziezadan; baina ez, urez itotzen saiatur, beti harexen irrikaz nenbilan lapiko txiki gorri bategaz hustuz baizik. Ura agortzeaz, taloa desagertu zenean, gora begiratu nuen, *hemen zer gertatzen da?* galdez ilargiari, zeinak, belarritxoak mugitzen bezalako irribarrez, baina burlaz, segurrenik, erantzun zuen:

– *Taloa heure begietan be bajagok.*

– *Nik ahoan gura dot.*

– *Ahoan haginak jagozak!* –Bere gorenetik apur bat alborago, flekilo antzeko sudur punta edo alderantzizkoa agertu zitzaion–. *Begiak seguruago dozak. Hoa eta esaiok Malasko andreari gatzatua sartzeko arin barrura.*

Ilargiagaz horrelaxe konpontzen nintzen, hura objektu poetikoa izan zitekeela susmatu baino askoz aurrerago. Berba ere asko egiten nion; berak ez hainbeste. Nahikoa isila zen, baina ez zidan ardura, zer esan nahi zuen aurpegian igartzen bainion. Eguzkiagaz erronkosoago ibili ohi nintzen. Etxe aurreko anpolai-gereziaren gainerantz zetorrela, ganbaratik harrika egiten nion, gerezirik jan ez zezan. Edo haren bero batzuetan mutiriari, ikuztegiko pagopetik, neu uretan sartuta, burla egingo nion, axut parrastadak jaurtiz. *Orain berotuik heuk gura doan beste, hodeien azpitik pasatzeko be ez hazen kalabaza gorri horrek! Zelan pirritatuko haz horizontean, urriko iretargi zuriaren atzetik, Mugarrako hatxaren aihotz aldea saihesteko be ez bahaz?* Altueratik, han urrun eta barrenean sartzen nekusen eguzki triumfala egunekoa baino handiago iruditzen zitzaidan beti, eta horixe konprobatzeko sistema fidagarri baten bila, bolada temosoa igaro nuen alferrik, eguerdiko eguzkiari zuzen begiratzeko modurik ezin asmatuz. Euri egunetan, errekatxoak egiten edo eginda zeudenak desbidetzen nituen, lan handi eta lorrinak egin ondoren, *aida, aida!, etorri, etorri!* aginduz. Amaren bularrari utzi nioneko, lehen txahaleko behi gaztearen errape xarmantera

grinaturik ibili nintzen (orain uste dot –eta horrelako kontuetan ustea hutsetik etortzea zaila da– maitasunaren hastapen inpreziso bat izan zela), bestela erbinudeak edango ziola eta. Txahalaganako jelsia ez bazen. Bekaitza, bazen. *Ez ibiltzeko behien hankartean! txarriak tokitik urten eta jan egingo hau!*, zentzatu nahi izaten ninduen amak, txerri irrintziari nion beldurraren jakitun, hori ere askoz lehenago txerria eta Ama Birjina elkarrekin konparatzen entzun baino, biek dena baliatzekoa zeukatela eta. Ilunabarreko horizonte-bira guztia, altueratik, neure soingaineko imaginarioaren barrentzat nekusen, uste bainuen, lehenengotan, mundua, harantz, akabatu egiten zela. Gero pentsatu nuen merezi zuen mundua honantz zegoela. Eta ni, hain zuzen, merezi zuen aldean fortunatu.

Horiek guztiak eta dena, edo, hitz bakarrean esateko, ‘etxeak’ inspiratzen zidan guztia, edertasun ororen aurrekoa zen. Segurrenik, edertasunaren nire lehen esperientzia kontzientea itsasoaren lehen ikustea izango zen, aipatu seminariotik Sopelarako txangoan. Edertasunaren bat-bateko gainezkatze hark eragin zuen lehen sentipena, bera bezain bortitza, etxera-gogoa izan zen, barne-kontrol automatikoren batek etxeagazko sentimendua ezerk bigarrentzeko posibilitate soilak ere bertan moztu nahi bailuen. Oraintxe ere ezingo nuke jaiotetxearen erreproduzio sentimentalera ia osoki hurbildua den –ez kosta gabe– oraingo etxe honetatik alde egin, ez itsasora, ez Urkiolara, ez inora. Azkenean, neuganako espiral eskusiboan bildu den denborak zenbat estutu nazakeen ez jakinik, ez Urkiola, ez itsaso, auzoko etxeetara irtetear nago, motozerraz eta burdin-artaziz hornitua.

.....

Lehenen, auzorik hurrena den Sagastin eupada egingo dut. Egunez, etxe alboan, kate luzean egon ohi den Ron txakurrak, aurpegi noble eta laztangarriko mastin gorriskak, pozezko bitsetan hartu nau, lagunak baikara. *Hi barik joan dozak? Seinale kezagarria!* Askatu duten bakoitzean, mundu berria estreinatzen duela dirudi. Hemen ez nuen beste animaliarik itxaroten, baina garajeko atea jasota aurkitzeak atzerakada eman dit, txikitatik ohi bezala, edonon sartzeko jenio lotsabakoa zeukan lagun bati bere ama esaten entzun nuenetik: *Zenbat bider esan behar deuat ate edegietan ez inoiz sartzeko!* Misterioa zertan zetzan pentsakor gelditu nintzena, hasi nintzen zerbait sumatzen, maiz nindoan auzo-etxe batean halaxe sartu nintzen batez, sukaldeko armairuan lapurretan ziharduen txakurra ziztuan gaintetik pasatu zitzaidanean, neu luze utzita. Gero, bizitza modernoan ere aplikatu izan dut ate irekiaren segurantza-sistema, hots, bortxatzen ohitua den lapurrari ate irekia beldurgarri zaion suposizioa. Ez zait txarto irten, ohitura bihurtzen uzten ez nion neurrian, ez dakit horregatik izango zen baina. Behintzat, ez naiz aurkitu hiru sarraillako ate blindatuetan alferreko dirutzak xahutu izanaren dezepzio amorragarrietan.

Garajetik etxe barrurako atea itxita dago, ordea, sukaldetiko kantu zoli batek han badela izakitxo bizidun bat gogorazi didanean. Kisketari eragitean, barrutik giltza aldean duela igarri dut giltza-sortaren hotsetik. *Hauxe alukeria! Zelan urten jabek honeek, baten bat barruan ez bajagok? Sagasti! Sagastiñe!* Kanarioa isiltzea besterik ez dut lortu. Bai gauza arraroa, etxe honen kasuan hagea ere izan liteke baina. Etxeko guztiak falta direla jakinik, usterik gutxieneko leihoan agertuko zaizu buru solte bat, gorputzetik deskonektatua, familiaren orbitatik extrabiaturia. *Atartekoa zabalik ete jagok?* Ba, bai. Ai, ama! Aurretik ere suposatu behar nuen honenbeste, hala aztoratu beharrean. Nire buruan ere hasi dira, antza, koskak berdintzen. Etxearen beste alboan, karabana bere aterpean dago, muturrez hondora, itzuli berri bezala. Zeinu horixe ez dakit bidezkoztat ala dudazkoztat ulertu behar den, zernahiri esanahiren bat suposatsetik ezin libratzera heldu naizen urduritasun honetan. Atarteko eta sukaldeko atea normal ireki eta txoria kaiolan topatzeak asko lasaitu nau, egoerarik absurdoenetan ere, logika txikiren batean pausatzeko sen arrazionalki ridikulu baina biziraulearen arabera. *Orduan ez dok hain ridikulua – ‘Arrazionalki’ esan joat.* Egoera batzuetan, arrazoiak bera baita ridikulua. Fusilamenduko horman zergatik dagoen ez dakienak (edo zergatik bai, baina

zertarako ez) egokitasun bat in extremis aurkitu du, tiratzaileak, apuntatu aurretik, aitaren egin duelako, penaltia jaurtitzeko bezala. Horrek lehen tiroa ez duela falibleago egingo pentsatu behar bada ere, behintzat, itxaron dezakezu inperio gurutzejale batek ‘graziazko tiro’ deitzen duena ‘graziaren tiro’ gerta dadin. Horregaz, beste munduan, noranahi aurkez zaitezke. “Txeru kartzelan dago, damia kanpoan...”. *Txeru! Non dozak hire jabeak, hi kaiolan kantari utzita? Ño! Justuan ailegatu nok, eh! Hire alpistean ez jagok ahotza eta gorotza besterik. Zer gura dok? Libre uztea? Ez dok asmatuko basa-bizitzara egokitzen. Ez, ez! Nik ezin joat hitaz arduratu, ez merezi ez doalako, baizik neu be, hi aurkituko hazen moduan, mundu handiegian gelditu nazelako. Hiri kostako jak askatasuna heure neurrira ekartzea, eta nik ez jakiat ezer neurtzeko gauza izango nazen. Egia da baten bategaz hitz egiteak lasaitu egiten dauela.*

Jabeak oporretara joatean, Txeru isilezin hau inoiz gelditua zen gurean, harik eta, gogaiturik denok, beloaren disuasio automatikoa gaineratu genion arte, parrandatik bueltan ere, oheratzen berehala abiatzen baitzuen diana amaibakoa, argiaren sorkuntza etengabea bere ekoizpena bailitzan. Hain zen ekite simultaneo eta jarraitua, ezen kausa-efektuen erlazioa erarik naturalean truka baitzitekeen. Ilunak alderantzizko egoera berdin berehala eragiten zuen, mendekuz, segurrenik, kanpoa ere ilun zegoela pentsatzen zuelako. *Badakik zer egingo dogun? Kaiola zabalik, sukaldeko leihoa zirritutxo bategaz utziko deuat, gura badok, urten, gura badok, sartu. Leiho osoa zabalik ez, ze, horrela, eskueran utziko deuadan alpiste guztia (honegaz badaukak zati baterako) beleek atoan jango deuee, heu be bai, deskuidatzen bahaz. Ura iturrian tantaka daukak. Agor baledi, topa heuk ahal doan lekuan. Ezin deuat etorkizun guztia eginda utzi, bestela be ez haz eternoa eta. Gauzak ondo badoaz, izango dok bisitatxo bat, ez jakiat noiz. Heu ez saiatu niri jarraitzen, orain ez bainago sentimenduak gurutzatzen has dakidazen egoeran.*

Orain, Saiune baserriaren eskuin bizitzan nago. Beti agindu ohi didan jokaerak kinka estremoan ere ezin du, nonbait, aldakuntzarik jasan. Batetik, nire neutasunaren osagarri nuklearrena pentsamena delako pozean bizi naiz, eta halaxe segi dezan nahi. Bestetik, pentsamen hori norabide jakin batean dabilen bitartean, neu beste erabaki guztiz ezberdin, sarritan, aurkako batean aurrera noa. Itsasoaren alternatiba tentagarrietan, ia Bizkaiko kosta guztia korritua nuela, abeltegí amorratu baten aurrez aurkitzen naiz, neu ere edozertarako odolean. Pentsamenak barik erabakimenak definitzen ote nau? Bitxia litzateke, erabakia sarritan ez baita, oharkabea izanik, nahimen garbira iristen, baina nik ezin dut neure burua ohartun ez den nahimen baten subjektu imajinatu. Pentsamenari zein nahimenari eskapatzen zaion erabakia senari esleitzen diodanean, berriz, zerbait esplikatzen dudalakoan, iruditzen zait beste elementu iluntzaile bat gehitu baizik ez dudala egin, zeinaren azpian, halaber, Jainkoak jakin beste zenbat ilunbide diren. Eta niri zer, pentsaketaren kontzientzia argiaren eta nahimenaren ez hainaren alderantziz eta aldi berean, senak gehiago definitzen nauela atera behar bada ere, pentsaketa eta nahimena ikusgarri baina, funtsean, marginalak izateraino? Ni hauekin gustura bizi naiz, eta eskertzen dut erabakiak beste nor-nibaitek hartzea, konplikazio handiak aurreztuko baitzkit inori galdetzeko aukera gabe, edo derrigorrean ‘libre’ gelditu naizen honetan. Izan badaiteke, zergatik ez da izango, nork eragotzirik ez badaukat?

Kontua da, erreparatu didatenean, abereen marruak bizitu egin direla, neu errudun banantz bezala, joan behar ez nuen nondibait berandu itzuli naizelako. Zortea. Atea txarakilez bakarrik itxita dago. Barrura sartzean, behiak, basa-behi diruditenak, askak neuri jaurtitzeko erauzi guran dabilta, haginak txakurrek bezala erakutsiz, hausnarkariei inoiz ikusi ez diedan moduan. *Ez al dozue hurreratu naiten gura? Oilo eta untxiakandik hasiko gozak, orduan.* Oiloek karkaxa eta esamesa ugari, baina zarrapastan kanporatu dira, pozik neuk uste, nahiz eta beti bezain zuzterbako, lehenengotan erdi noraezean, eta apurka-apurka, euren ortu debekatueta galduz. Untxiek, isil-isil, noizean irrintzi kriminal batzuez beste soinurik ez daukatenek, habien ahalik barruren ezkutatu dira, hango segurantza hiltzailea hobetsiz, kaiolatik mundu zabaleko askatasun ikasi gabera saltatzea

baino. Kaiolak astindu, okertu eta apurtu ahala (zertarako behar da hemen ezer osorik?), badoaz sakabanatuz leporidotxoak (horrela esanda, politago dirudite), jauzi irregularretan, aurrerako dudan eurt eginez (uste dut hauek ez dutela urrunera ikusten), nora joan behar duten galdezka. *Neuk baneki! Gura badozue, libre zarie habietara bueltatzeko, baina nik ez deusuet aterik itxiko. Gerta daitena gerta, gatibutzak ez zaitue gehiago babestuko.* Hain izaki guriek, bulnerableek, negargura damaidate, baina nola behar diot sentitzeari eman, pentsatzeko astirik ez badut? Behi hezigabeek, desesperatuek, lan zailagoa jarri nahi didate. Isilik baleude ere! Ea, txahaltxoak. Ikasi zuek ere abedea, ma-me-mi-mo-mu, ez dena ma eta ma. Txahalak erraz askatzen ditut, oraindik ez baitaukate min handirik egiteko gorputzik. Batzuk itsuan kanporatu dira, bidean laprastaka (*apurtu hankok eta ikusiko dozue barriak nork egingo deusuezen*), beste batzuk errapeetara zuzen, behi ernegatuak jenioz burukatzen. Hauen aldetik sartzen beldur naiz. Oraintxe mankatzea besterik ez nuke behar.

Aska aldetik saiatuko naiz, burdinazko parrilen babesean. Burua askara sartu behar dute, katearen lepo bueltako lotunera iritsiko banaiz. Lepoaz honantz, adarrak daude, adar kolerikoak, inprebisibleak. Batzuk askatzea lortu dut, nekezago-errazago, baina biren buru ingurura ez dago eskurik hurreraterik, putzekin bakarrik desegingo bailukete bat. *Kaben laletxe! Kate eta guzti bialduko zaituet gero! Ezetz? Bertan akabatu gura al dozue? Zertan ari naiz euren askatzailea abornatzeko kapaz direnei kontsultatzen? Hauena laster egingo dut, besabete alpapa emanaz. Dedio! Hori dok iruntsi beharra! Geldi orain! Zuek jan bitartean, nik... zantarra! Besoa markatu dit.* Arrastada bat bakarrik, baina zer borondate daukan jakiteko, nahikoa. Ez dakit zer duten bruskoago, lehengo gosea ala orain jana kenduko dieten beldurra. *Zelan kenduko deusuet, neuk emon eta gero?* Batzuetan, behiak benetan dira mamalak. Bekokiko ispiluan azkura eginez, lortu dut bat askatzea. *Hoa eta jaizak kortako alpapa guztiak.* Bestea ez dago azkuraz engainaterik. Beharbada, nahikoa jan eta gero, *baina ez jaukanat hire aseari begira egoteko astirik.* Kri-kra, katea burdin-artaziekin ahalik goretetik moztu eta doala haizea hartzen, atea harainditu aurretik, burua apurtzen ez badu. *Dios! Korta honek hartu jok nasaitua!* Baita neure barruak ere. Atartean bi txakur, katean amorraturik. *Zuek be ez zagozela egoteko moduan? Isi eta ezkuta hagintzarrok!* Batak, ardi-txakur purua ez denak, igarri du, antza, zer egin nahi diodan, eta ez dauka aukerari joaten uzteko gogorik, baina hain urduri eta kontroletik at dago, ezen dardaraz askatzen dut katearen gakoa. Bere burua aske ikusi duenean, zoratu egin da. Untxiren batek laster igarriko dio.

Bigarren txakurrak ez du hurreratzeko plantarik ere onartzen. Handia, mutur-zapala, erditik moztuak diruditen (edo benetan moztuak dituen) belarriak, larru marroi-iluna, xerlo horiskekin. Bere tamainarako, zaunka-tinbre akutua, apurtua, barruan gosearen eta amorruren bafleak bereiz balitu bezala. Atarte erdiko harrizko zutabera loturik, ez dago katea burdin-artaziz ere harrapatzerik, atzera barik aurrera egiten baitu. Oraintxe katea etetea besterik ez nuke behar. *Ez dok gura? Hortxe ustelduko haz.* Zerbait otuko zait, beste animaliena egin bitartean. Zital jartzen den bakoitzagaz tematu behar badut, ez dut sekula amaituko, denborari luzatzen ez uzteak ere ez ditu gauzak asko leunduko baina. Saiune ezkerreko ukuiluan ez dago abererik. Behorak larrean dabilta. Bejondeiela. Goenengon, untxiak bakarrik, isil eta uzkur, beti bezala, oraindik kaiola gaineko belarra guztiz amaitzeke. *Bizi zarie? Non zagoze? Nik ateak zabalik utziko deusuedaz, eta zeuek jakingo dozue zer komeni den. Gehiago ez jatzue kardu gozorik kaiola gainera etorriko.* Estebanekon, ganadu handirik ez dagoena badakit, baina untxiren batzuk izan litezke. *Asko dok, ba! Ate guztiak itxita. Barruan ez ahal zen inor geratuko.* Motozerra martxan, ukuiluko atearen txaramelak barrutik egon behar duen inguruan, besoa sartzeko zuloa dagit. Txaramela, eta langa ere bada. *Hemen gauzak seguru utzita joan dozak.* Pare bat katu tximistan eta furrustan irten dira lehenengo bitartetik. *Gozoa izango zozan horreexek belarri kontratik pasatzea!* Ez dago untxirik, oilorik, ezereen lorratzik. Aska, kaiola, txerritokia, hutsik. Abandonoaren prosperitatea. Lan bat gutxiago. Elordin ez dago ganadurik, baina bai doberman galanta, beste txakur txiki bat hankartetik pasatzen zaiola, bere txikitasuna exhibitzeko edo txikitasunak handitasunari eusten diola

erakusteko. Zer? *Itxitura ebagitzen bajoat, neu jango nozue?* Handiak ez du entzun ere nahi. Aurreko bi erpetzarrak itxituraren kontra urratzen dituela, haginek baino atzerakada handiagoa damaidate ahotik darizkion bits lingirdek. Zuritasun kriminalak, bere azalaren belztasun guri distiratsuaen kontra, baleteko zisne-neskatoaren mozkinak bailiran. Burdin-artaziagaz itxitura-sareari ukitzea nahikoa izan da, berak, ezin heldurik, ahoan txikitzeke zeinuak egin zitzaiz. *Ez hago bakerako, eh! Zer zaindu behar dok horren fierki, etxean inor ez badago?* Honegaz zer egin ere, azkenerako utzi beharko dugu. Erabakia apenas gustatu zaion, suminduago oldartu baita, zisne osoa ok eginez bezala.

Animalien lurraldetasuna bekaitz dut. Espazioaren parte izatea nahikoa dute, pozik egoteko. Nik espazioa okupatu egin nahi dut. Ezin dut konformatu espazio-puntu bat izateaz; puntu horretatik beste puntu bat dakust beti, zeinera iristea lortzen badut, handik beste puntu bat ikusiko dudan. Eta neu ere definizioz, funtsez, animalia territoriala izan! Dohatsu behar nuke neure puntuaz ete beronen inguruaz, hots, bere zoruaz, aireaz, intsektuez, zuhaitzez, oztoparriez. Berdin etxekoez, auzokoez, herrikoez. Hauek orain ez badaude ere, puntuaren izatea ez da aldatu. Etxea hemen dago, etxeurrea hor dago, ereinotzak hor daude, zozoak hor dabilta, ura hor doa, Anboto han dago, horizontea markatuz, behin gardenago, behin ganduago, beti marra berdinean. Etxetik atarira edo kalera pentsakor irten zara, eta bat-batean eguzki argitsuagaz topo egin duzu, ortzi urdinean gora. Sentiarazi dizun bulkada intentsoari, golkoa beteko zirrara-kolpe horri, kontzientziaren sentipenak jarraitu badio, kontzientzia ere sentitu egiten baita, giza esperientziarik esentzialena jo duzu. Uragez ere maiz gertatu zaizula berdin gogoratu zara. Biek batera, eguzkiak eta urak, erdian hartu zaituztenean, esentzia hordimen bihurtu zaizu. Eta azpian lurra. Lurra edo zorua hobeto, lur, mendi, mortu, haitz, izotz, asfalto izan daitekeena. Hots, grabitateak hartatik ezin bereiztera eta bera hunkigarririo maitatzera destinatu zaituen edozein elementu. Esentzia hordigarri edo hordimen esentzial horri zoriona deitu nahi badiozu, auzi konfliktiboan sartuko zara.

Gizakideak desagerturik, tentsio guztiak desagertu direnean, puntu lasai bat izan behar nuke, adimen konbultso honengatik ez balitz, zeinak ez didan uzten doan begiratzen. Begirada beti desioari loturik doa, eta desioak espazioa atxiki nahi du. Baina espazioa atxikiezina denez, abiapuntua puskatzea besterik ez du lortzen. Oteiza haurra hondartzako zuloan aurkitu zenean, haren puntu izaerak zulo huraxe gozatzeko agindu behar zion, baina zerua ikusi zuen. Espazio mugagabea desiatu zuen, eta hantxe hasi zen haren kalbarioa. Artistak paisaia bat, gorputz bat, ideia bat errepresentatzen du, eta hantxe egon nahi du, hantxe izan nahi du, huraxe izan nahi du. Hots, huraxe ezin izateaz amorratzen da. Arteak ezin du zoriontsu izan. Hots, zorionak ez du arterik behar. Ez dut ukatuko zerurik badenik, sinesten dutenak ez mintzearren, baina balitz, ziur han ez dela arterik izango. Hortik etor daiteke zeruak tristeza izan behar duelako susmo gratuitoa.

Demagun artistak (bebingoagatik sinetsi egingo diogu) lortu duela ‘huraxe’ izatea. Nahikoa izan da sinets geniezaion, beste izan-nahi bat senti zezan. Drogadiktua bezalakoa da: hartualdi baten eragina amaitu deneko, beste bat behar. Aurrekoak hurrengo gartsuago desiatzeko baizik ez dio balio izan. Zertarako nahi zuen Arestik poemaginan jarraitu *Nire aitaren etxea*-ren ondoren, edo Oteizak Arantzazuko apostoluen ondoren, edo Häendelek Alleluiaren ondoren, Jainkoarena egin beharrean, zeina, bere lana buruturik, betiko erretiratu zen? Horiek denak eginda badaude, nik zertarako jarraitu nahi dut ezertan? Ez dago artistarik, artediktua baizik. Hilko da pentsatuz –zortea, alde batetik– hasi besterik ez dela egin, dena falta zaiola. Nahi nuke nire hilarrian irakur lezaten: *Gizajoa! Ezin izan zuen jasan puntu bare bat izaterik*. Eskerrak elektroiak ez diren kontzienteak, euren atomoez besteetara saltatzen hasirik, materia desintegratuko bailitzateke.

Beharbada oraintxe asentatuko naiz. Urkiolara edo itsasertzera eskapatzeari uko egitea seinale ona izan daiteke. Beharbada, beste inor ez egotean, ez duket espazioa okupatu beharrik, inork ez

baitit kenduko inori kendu behar ez diodana. Espazio guztia sobra daukat, neure puntu barea salbu. Hori zoriona izan liteke, lehen ere honelako sentipenak, boladak, probatua ez banintz. Gero, bat-batean, neuk deitu gabe, neure nahiaren aurka, hortxe agertzen da berriro puntuaren ukapena. Ukapena ere ez. Insufizientzia, transzenditzeko seta, artedikzioa. Bi arte handi baitaude: batak espaziora zabaldu nahi du, besteak espazioaz harago. Biak infinituak, bigarrena ez baita lehenengoa baino zabalagoa. Biak gauza bera, artistaren errepresentazioan bakarrik bereizten direnak. Erligioa artearen formetariko bat izan daiteke. Puntuak infinituaren grina du, hots, grina infinitua du, hots, grina kontradiktorioa da. Grina artistikoa. Beharbada, sakon-sakonean, espazioak barik denborak arduratzen nau, zeina, baden ala ez den dudazkoa bada ere, amaitzen ari den dudarik ez den. Heriotzaren kontzientzia. Biraka-biraka, korapilo gordiar horretantxe harrapatuak gelditzen gara beti, adimen aurreikusle madarikatu honegatik. Hilezkortasuna hilkortasunaren deskontzientzia litzateke. Animaliak hilezkor dira. Orain, beharbada, neu ere bai. Baretasun hau behin betikoa eta betirakoa izan nezake, neu bakarrik gelditzean. Behingoz, selekzio naturalak lan taxuzkoa egin du.

Orangutanen fakzioak hain itsusi zaizkigu, geure antza dutelako. Animaliak hainbat dira politago, zenbat gure desantzekoago. Ez dio ardura superioritatez ala inferioritatez. Paretasuna da jasan ezin duguna. Antz horretaz ahanztea lortuz gero, sarritan aritu naiz pentsatzen, ia deitoratzen, nire zorigaitzen gakoa orangutanen familian ez jaio izana dela. Tximinoak beti ari dira zorriketan, eta sekula ez dut haien hatzetan zoririk ikusi. Gu baino trebeagoak izango dira. Utzidazue, behin edo behin, animalia ere izaten, uluak oihanean, zurrustadak janean. Ohitura deritzon abere subtilki kamaleoniko hori, komenentzia deritzon beste patari ez hain indirektoari egokitzen zaiona. Edo txakur perbertso hori, bere gorotz-txuntxurra kale kantoiaren buelta-bueltan utzi duena, justu hiritar modernoaren oina begia baino lehenago pausatuko den tokian. Adimentsuago balitz, notaritza handi batera sartuko zatekeen, oraintxe egin dudan moduan, premiaren bainoago komenentziaren atzetik. Hiru pasillo distiratsu ezker-eskuindurik, komunik dokumentatuenean oparo hustu naiz. Inor gutxik pentsatuko luke oraintxe non nagoen. Bueltake bidean, jende kafarra atzeraka bezala sumatzen dut. Prezeditzen nauen kiratsagatik? Harrera leihatilan ez didate ezer esan, ez sarreran ez irteeran. Euren aurrean gelditu ezik, ez zaie hitzik etortzen, antza. *Agur!* –pentsatu dut, ‘ondo joan’ esango didaten beldurrez. Hau izan duk lasaitua!

Ortuntxon, ukuiluko ate korrikorra zabalik dago, eta larrean zebiltzan behiak jeztegi inguruan biraka, artea nola hartu ezin asmatuz; orro negartian, lotuta daudenen konparazioz, zeintzuen aldarrria areago den desesperatua, estramina metalezkoen kontrako perkusio biolentoki arritmikoz lagundua. Holandar behiek, berez mantsoago edo menkorrago izanik, ez didate askatuak izateko erresistentzia burugaldurik jarki, baina txahal amorratuak, batzuk ia ama adinakoak, errapeetara hain itsuan oldartzen ziren, ezen, hemen laprast, hor elkarjo, nahasmen ferozetik pozik alde egin dut. Etxe alboko harrizko murru gainean eserita, askatasunaren insufizientzia mingarria kontenplatzen dut. Txahaldun behiak zorteko diren bitartean, besteen errape handituek, esne zirriztada etengabez edo tanta nekoso, zorua erarik tristeenean marratzen dute, sortutako xuritasuna hankapeetan zikinduz. *Nik ezin jonat, ba, zuek jezten hasi, hain gitxi eskuz. Iratzartu guran zabilzen makinok, hainbaten, betiko lokartu izango zonazen. Gainera, zer egiten jonagu gaurkoa arinduta, bihar barrero bardin lehertzeaz aurkituko bazarrie?* Esne erionak, bekorotzez nahasturiko salda bihurtuz doanak, behien larritasun irremediabileak baino gehiago negarguratzen nau. Hain likido maitea horrela ikusi behar, tragediaren linfa bihurturik!

Gure amamak kantinkada esnea egon ohi zen idulkia berak eskuz eginiko tapetez estaltzen zuen, zerratxodun barren eta guzti, etxerik etxe pasatzen zen Karmengo Amaren beste idulki baten ondoan eta parean. Katuek ez harrapatzeko altuera baino zerbait gehiago zen hura. Ama Birjina etxean tokatzen ez zen egunetan ere, amamak idulki huts haraxe begira errezatuko zuen arrosarioa, gure katuak behin txoria miragarriri ehizatu zuen langara begira orduak egiten zituen moduan.

Amamari begira egoten nintzen, irudi santuari ala kantinkada esnari ote zion debozio handiagoa. Gastuagatik ez izatera, esnea bi kandelaz piadosoki aldamentzea haren gogotik pasatua zela antzeman nuen, behin, *zergaitik ez deutzazu esnari be kandelatxoa ipintzen?* nik tentaturik, erantzun zuenean: *Jainkoak onetsiko leukek, beragaz mantentzen gajozak eta.* Ez zen mantenu soila. Gure amamarentzat, esnea sendakinik behinena zen. Edozein gaitz zeukala, *ekarri esne beroa* hots egingo zuen ohetik, haregaz dena egina zelakoan. Heriotza ohaburuan sumatu zuenean, esku arteko gurutzeaz gainera, haren ardura nagusia zen basokada esnea ez zedila mesanotxe gainean falta.

Gure etxean, esnearen benerazioa ez zegoen hain ritualizatua, baina zirraturik geratu nintzen, behin aitak, zerbaitegatik etxean esnerik eza gertatu zenean, *ez dok txikitorik edan behar ala?* galdetu zion tabernandreak erantzun zionean: *Gaur esnea eroan behar jonat.* ‘Gaur Gure Jauna eroan behar dot’ esan balu bezala. Tabernandreak ez zion gehiago ekin, arrazoiaren pisuaz jabeturik. Gaueko basabide ilunetan zehar, laprast egin eta esnea jausteko nolako arriskua zegoen jakinik, amak ardoagaz kontuz ibiltzeko agindu izango zion, noski, baina gure aita, lan egun luzetik bueltan, txikitoari uko egitera tabernan sartzea ez dakioket amaganako obedientziari esleitu. Esnearen miraria izan behar zuen. Inoiz garrafoi ardoa joan izan zitzaion tontorretik beheko errepederaino. Ama ez zen, hartan, gastuaz nahigabetuko, soluzioa eskuan baitzuen: *Orain, hilabetean abstentzinoa egin beharko dok.* Ogi biribilak ere, deskuidorik txikienean, *kaben la puta nazion! nori gogoratu jakok ogi karratuak ez egitea?*, erraz ihes egingo zuen pirritan. Esneagaz ez zegoen arriskurik. Hura jausten ez uzteko prebentzioak ia genetikoak ziren, ontziak ere ez baitziren segurregiak. Inoiz gertatzen bazen, ogia muin emanda bezala, esnea jasotzerik ez zegoenez, belaunikatu eta barka eskatu behar zitzaion. Eta txakurrari edo katuei deitu, etxeko norbaitek aprobeztatua izan zedin. Esneko bildotsa eresia izanik, zerbaitegatik etxea esne gabe gelditzeko ezbeharra gertatu bazen, amak ez zuen dudarik izango bular bata bildotsari emateko, ni bestean zeloek erretzen utzita. Handik urteetara, esne banatzen zebiltzan neskek niri politenak iruditzea ez dakit ez ote zen, txikitik, behien eta, oro har, abere esnedun guztien erraperara izan nuen joera ez agian bizioso baina bai arriskutsuagatik, ala suposatzen zelako neska esneketarietako kuriosoenak izan behar zutelak. Garia edo hirin eroria bera ere berreskura zitekeen, den-dena ez arren, baina lurrean barreiatzen zen esnari ez zegoen zerura begiratu eta *agur, Maria!* auhen egitea besterik. Horregatik, neska haiek aratzean eta beratzean hautenak izan behar zuten, eta dohain horiek sasoiaren berezko edertasuna bereziki liluragarritzen zuten, batez ere, gona gorritz janzen baziren. Edo nire pentsakizunak horrelakoak ziren. Beharbada, esneketari bidaltzen zuten neska auzoko alabarik braboena izango zen, astoaren edo behorren bideko bihurraldi posiblei eta plazako arrisku probablei aurre egiteko, baina niretzat orduan neska guztiak ziren izaki xarmagarriak, segurrenik, honako desio xarmagarrien jabe zirelako: *Astotxo bat baneuko buztan zuriagaz, Ermura joateko gona gorriagaz.* Amodioak huts egin dezake, gona gorriak ez.

Erraperako joeradun bakarra ez nintzen, noski, erbinudeak eta sugeak ere erarik misteriosenean engainatzen baitzuten behia, etzanaraz eta gozo-gozo, atsegin intimoa emanaz, esne miragarria edoskitzen ziotenean. Lehen txahaleko behi gazteagaz kontu apartekoa behar zen, bere inesperientziak suge kolonia osoa ase ez zezan. Behin errapea identifikatuz gero, sugeek ukuiluraino jarraituko zioten, eta handik sukaldera zabalduko, orduko sugeei xoragarri baitzitzaien esne egosia, batez ere, erre puntukoa. Kezkagarriena ez zen hori, baizik sugeren bat sutondoan lokaturiko ama erdi-berriaren bularrera iritsi zitekeela, haurtxoaren sehaska gainetik pasaturik. Hori guztia, jakina, botere zigortzaile edo puritanoen, gehienean batera joateko isuria dutenen, beldurragatik areago, ez baitago atsegin edenikoagorik irudikatzerik, biluztasun zabalki etzanean, sugerean narraste leunkiro ondulatuak azalaren alderik urrunenak eta kontrakoena batera ernaraztea baino, batez ere, gorputza erre puntuko esnez igurtzi izan baduzu. Behin edo behin, ekintzaz oso beste motiboren bategatik, hain beldurgarri iruditzen ahal zaizun horzkada okerkeria samurtzat jo dezakezu, gizakiak maitaleei egiten dizkien izugarrikerien ondoan. Haren argitasun

pribilegiatua orekatzeko, edo haren buru triangularraren interpelazioa leuntzeko, Jainkoak hanka gabetasunera murriztu zuen sugeak hainbeste maite dezan, esneak isurkari dibinoa izan behar du, eta neska esneketariak, maitagarriena, sugearen liluramendua Eba eta Mariagan kontrajartze redentorean burutu zelako tesiak iradokitzen duenez. Esneak gure bizimodu urrian izan zuen balioaz ez nintzen, beharbada, ohartu ere egingo, handik urteetara, ostegun santuko elizkizunaren ondoren, urteko egun bakanetan bakarrik elizaratzen zen gizon batek esan ez balit:

– *Sermoi polita egin dozu. Ogiarena ondo dago, baina ardaoa barik esnea izan balitz, naturalagoa izango zatekeen, gizatasunarentzat, behintzat.*

– *Ardaoagaz, misterioa alaiagoa izan zeiten gurako eban* –erantzun nuen, halako bihurtzea nondik hartu jakin gabe.

– *Alai samar zegozelako egingo eban, bai.*

Deskuido hura biguntzeko izango ote zen (pentsatzen nuen gero) mezako partaideei ardoa kentzea, apaizari izan ezik, zeinak, gehienez ere, egunean meza bakarra eman ahal izatea ardoaren dohain bidezkoetan sar zitekeen? Apaizak urritzen hasi zirenean, arau mugatzaile hori, ez liskar gabe, nasaituz joan zen, eta gure garaian, meza mordoa (nik lau, inoiz bost) jarraian ematen hasita geunden, baraurik eta igandez, arauok ere geroago gaudituz joango ziren baina. Hainbatgarren mezatarako (bakoitzean hiru trago, txikienak izanda ere, hiru trago dira, barauarena jo gabe), mihia arintzea (moteltzea azken aurreko fasea da) ez zen mirari, urte batzuk geroago, errepideko alkohol kontrolean eta barau-arauak jada kenduta, aldean zer zekarten bazekiten abadeek, putz egitetik edo ondorioetatik libratzeko moldatu zuten argumentuak argiro erakusten duenez: *Zelan etortzea gura dozu, ba, zazpi meza emon eta gero?* Ez litzateke zentzugabea susmatzea azken afaria eta ardo ugaritzearen miraria batera gertatu zirela, ebangelariei episodioak banatzeko malezia egotzi behar ez balitzaie. Gure eskualdeko abade bati, anizgarren meza ondoren, sakristauak apalki abertitu zion, hurrengorako prekauzio moduan:

– *Jauna, azkeneko mezaren kargarena izango zen, seguruenik, baina ‘Jainko bakarra eta trinoa’ esan beharrean, ‘bakarra eta trikornioa’ esan dau berorrek.*

– *Hori esan joat?* –marmartu zuen atsekabe handi gabe, geroago, beharbada, kezkatuko zen baina.

Baliteke abade hark meza ilararen aitzakia, oharkabean, berak sentitzen zuena esateko baliatu izana, erregimenzale petoa baitzen, nahiz eta koldar samarra. Mozkortzeko beldur izaten naiz, ez hainbeste egiak esaten direlako, nola barruko egia ager dezakeelako, zeinaren osaketan gezurra ere ugari izan litekeen. Baziren bestelakoak ere, hala nola, ‘bakarra eta trinoa’ zegokion guztian, ‘bakarra eta Trianokoa’ kantatzen zuen abade langilea, Bizkaiko Meatzetako auzo baten omenez, nora sartzan Jainkoa ez ei zen ausartu, abade horixe saiatu zen arte hura eramaten. Orain, ia mende erdi geroago, nongoa dela esan behar dut Jainkoa, behi gajo hauek, errapea nork husturik ezta, hiltzen imajinatzeko angustiatik neu nola libratu ez dakidanean? Botila ardoren batek a zer igurtziak hartu behar dituen bueltan!

Hurrengo baserrian, Etxenagusin, ukuiluko ate irekiak kanpoko esparru handiagaz bat egiten du. Animalia batzuek, aukeran utzirik, aterpera izan ohi dute grina, beste batzuek aire libreria, inoiz hotzak edo bustiak akabatzeko zoriraino. Hemen barrura eta kanpora dihardute, bultzaka, zapalka, ateko estugunean elkar joka ere bai, bilaketa desesperatuan. Bilagaia ez dela kanpoko atea esango nuke, auhenkatzen ari diren urruma zoratzekoei sinestekotan. Mma, maa! Amma, ama, amaa, amaaa! Denak ‘ama’ deihadarka. Baten batek ‘amama’ ere bai, behiengan silaba-errepikatze ezinezkotzat jotzen zenaren kontra. Desesperazioa mirarigilea dela dirudi. Esparrutik landa zabalerako erromada ireki diet, eta ez dute irten nahi, euren basatza beltzean biraka; basatza zuriskatzen hasia bera, erroetarik darizkien esne zirriztadekin. Bila baino gehiago, ez dakite errape

hanpatuak non utzi, haietaz nola gabetu. Itsu dirudite, ez baitute aterik aurkitzen, ez elkar apartatzen, ez ganoraz elkarjotzen. Egia esan, adarrik ere ez daukate taxuzkorik, motxoak eurak, edo norabide alferretarantz okertuak, asimetrikoak, malformazio diruditenak, edo debastaziotik gelditutako antena-muskil kiskaliak. Behi holandarrongandik itxaroten den edertasun bakarra errapea dela dirudi, berau ere handiegiz narrastua. *Ni ez non inor, biktima errukarriok! Askatasunerako atea edegi deusuet. Gehiago ezin jonat egin.* Bai egin dezaket eurei esaten ausartu ez naizen gauza bat. Hauteman dizkiedan begi ezkelduetatik (behien apatia innatoak horrela begiratzea benetako laborria duzu), ziur naiz pentsamendua igarri didatela. Horixe egingo dut: urruma urragarriotatik urrundu.

Etxenagusi aurrean bada muino txiki borobil bat, zeinaren tontorretik eserita begiratzeak sufrimendu orokorra ezaugarri partikularretatik libratzen duen. Jeztegi inguruan elkarri tokia kentzen diharduen berrogei bat buruko behi-taldea barik, labezomorro multzo bat dakust, zeinak, orokorki aztoratzen banau ere, bakoitzagatik penatzeko motiborik transmititzen ez duen. Labezomorro handiak, noski, edo dortokak, nahiago bada, baina erraperik bereizten ez zaienak. Saiatuta ere ezin dut imaginatu erraperik, labezomorro edo dortokari datxekonik. Objekturik penagarrienetik libratua naiz, beraz, zeren, azken batez, nor da gauza, labezomorroa zapaltzean, higuina baino pena gehiago hartzeko? Kasu honetan, ohartun naiz ikusten ari naizen labezomorroak, izatez, behiak direla, baina ez ditut banan ezagutzen, saihestu baitut aurpegira finkoegi begiratzea, bat ere ez zekidan pertsonalizaturik geldi, zeren aurpegi bat, begirada bat, beti baita zer irrepetiblea, arrotzei, beharbada, hain inespresibo iruditzen zaizkien behiengan ere. Baten bati arduraz begiraturik, nire umezaro-gaztaroak konkomitatu zituen *Mona, Txikita, Motxa, Txuri* edo beste halako baten antza hartu izan banio, orain malkoei jaregiteko baino nahigabetuago nengokeen. Zorionez, multzo orokor bat besterik ez dakust, hor auzoan, herrian, munduan, egoera bakar bera osatzen ari behar duen tragedia azeleratuan. Ez da ikusten ez dena ez sentitzea bakarrik, ikuspen orokorrak ez duela min partikularrik ematen baizik, eta uste dut horrexek salbatu behar nauela. Nire adimenak badauki abstrakzioan gozatzen, baina nire sentimena ez da, zorionez, sufrimendu orokorrak eragin diezaion bezain trebea. Ezin dut minik sentitu bere aurpegiaren jabe ez naizen sufrimenduagatik. Horrexegatik izango zen ezagutzen ez nituen milaka biktimatako gerrak gutxiago urra nintzan, eraztun-lapurak, atera ezinik ez ibiltzearren, hatza moztu zion neskatxoaren eskuak baino. Ez zen, ba, bihotz, garun edo beste organo hil-biziko bat, hatz nagi xoil bat baizik, beste bederatzi sobratu zitzaizkion eskuetan. Baina egileari, zeinaren aurpegiaren kontraposizioa imaginatuzetik bakarrik ezagutzen nuen biktima haurra, espetxeko patioko horma okagarrien kontra burukadaka hasteko eroaldiak edo duinaldiak eman izan balio, uste dut apartatzen baino maitekiago lagundu izango niokeela bertan akabatzen.

Oinaze indibidualizatuak halatsu zulatzen du nire sentimena, nola, elur karrajuan harrapaturik, bezperan auto batek erdi hilda utzi zigun txakurra goizean neure eskuz ehortzetik zuzen, legebiltzarreko inbestidura ekitaldira joan ginenean bezala, non ohiko ez parte-hartzea praktikatzen zuen gure alderdiaren diskurtsoa hartarako bereziki deskartzelaturiko preso prebentibo batek jaulki behar zuen. Neure urduritasun ikaratian eta solemnitatez inguraturiko aulkian, lotsa nintzen nola, hain gertaera politikoki nabarmen eta animikoki tentsoaren gainetik, arrangurarik zorrotzen gisan txakurraren ezbeharrak sentitzen nuen, arretarik jarri ezin nien diskurtsoen eta saihesten saiatzan nintzen aurpegi etsaikorren azpian malkoei eustea kostatzeraino, salbatuko ei zuen ebakuntza ehun eta berrogeita hamar euro ordaintzeko borondate koxkor bat izan ez nuen txakur puta bategatik, zeren horixe baita beste kontradikzio alu bat, nola hainbesteko pena har zitekeen nire sentiera elementalak halako dirutxo bat gatzatzea gehiegikeriatzat jotzen zuen izaki bategatik. Argi dago sentimendua merkea dela, baina horrek ez du esan nahi nire samina benetakoa ez zenik, hain halakoa, ezen huraxe baita egun konfliktibo hartatik geratu zaidan oroitzapen zehatz bakarra, gure hizlari presoaren errakuntza batek eragin zuen beste alderdi konbentzionalen erantzun sumintsuagaz

batera, testuko *'aulki ziztrinok'* (adjektibo hori ezagutuko ez ote zuen beldurrez idatzi nuena) *'aulki zikinok'* irakurri zuenean. Nondik eta nora etorria zen ikusita, kalifikatzaile benignoa iruditu izango zitzaion, nahiz eta, segurkiago, haren gogoia hitzen ñabarduretan erntretenitzeko baino beteago zegokeen.

Ezin dut utzi, tragediaren audizioa neure ingurutik garbitzen ari naizen honetan, animalien sufrimendu unibertsalak txakur harena bezalako aurpegi indibidualetan eraso diezadan, neuk ere biziraun behar baitut, ahal den moduan. Horregatik, labezomorro berriro behi bihurtuak, errape leher-hurrenetatik zelanbait askatu guran, sakabanatzen hasi direnean, batzuk belardietarantz, beste batzuk errepidean behera, bidaian abiaturik bezala, zutitu eta banator maldan behera, neure lanari jarraitzeko baino ez gutxiago, txakurraren zaunkaketa atsengabea jasan ezin dudalako, zeinak, behiak ondotik negarrez baina libreki pasatzen ikustean, lerre puska amorratuak jaurtitzen dituen. *Alferrik ekingo deusak, ez deuat aurpegira begituko eta. Txakurrena gero pentsatuko joat zelan egin, denena batera.* Intentzioa igarri bide dit, zeren, bere hur samarrean albora hartzeko inguratu naizenean, intzirika hasi baita, lagun guran bezala: gorputz osoko apaltasun keinu nabarmenez, kate teinkatuak eutsirik, atzeko hanken gainean zutitzen da, aurrekoak otoitz jarreran bilduz eta zabalduz, patu begigabea onberatzeko moduan. *Benetan ala engainuan habil, errepidetik pasatzen ikusten ninduaan bakotxean, bandiduari legez zaunka egiten heunstan hori?* Aurpegira begiratzen deskuidatu naiz eta zintzotasuna nabaritu diot. Kontuz-kontuz, katearen amaiera baliatuz, ukitu prestakor batzuk egiten dizkiot. *Benetan be ez deustak ezer egingo? Ez heunke behar, leloa ez bahaz. Hik argia emoten dok.* Azkura egiten uzten dit, lepoko kate-loturari heldu diot; ezin du zoramena eta intziriketa kontrolatu, neu ere benetan nabilela igarrita, antza. *Hago apur baten geldiago, holan ezin deuat katerik askatu eta!* Oraintxe bai, hainbaten. *Baina gero, esker-zor ustean, niri atzetik ez jarraitzekotan, eh! Bakotxak ahal dauena, baina bere aldetik.* Klak, poseso baten moduan alde egin du esku artetik, pozaren posesoa. Etxeari itzulia eman dio. Behi negartiak, ikaratu ez dakit, baina apenas alaitu diren, gehiago nahigabetu ez badira, bat-batean eurak partaide izateko baino euforia bizkorragoa hanka artetik pasatu zaienean. Azkenean, haren zoraldi itxurako sekuentzia erabat immobilizatu da. Mota gainera salto egin eta handik adi-adi begiratzen dit, ipurdiari xumeki eraginez. Txakurrak ere, gaixoak, kondenaturik daude bake-ezineran, destinoak, euren zereginaldi mardul bakoitzerako, lurbira osotik izendatua dien toki ezinbestekoa aurkitu arte, guztiz arbitrarioa dirudiena, bestalde, azkenean biltzen dituen ezaugarrietatik. Kardulatz bat ondoan egotea nahikoa izan liteke. Baina txakurraren usnak badu, nonbait, guk falta dugun ahalmen terminalen bat, punturik ohargaitzenez gotorlekua aurkitzeko, azkenean beti aurkitzen baitu toki predestinatu huraxe, zeinaren garrantzi berria ez baitakit zeri dagokion gehiago, gotorlekuaren sendotasunari, ondoren bertara egingo dituen joan-etorrietan ondo konprobatuari, ala haraino iristen pasaturiko larritasunari.

Nik, bitartean, errepideko bihurgunean beherantz ezkutatzeke aprobetxatzen dut, Andikoako Ama Birjinaren elizaldera, non sei etxeetarik ganadua egon litekeen bakarrean, Gangoitin, behiak kanpoan dabilzan, euren txahal eta guzti. Badirudi ukuiluan ez dagoela inor, orrorik ez baita entzuten. Sartu egingo naiz, oiloak eta untxiak ziur egongo baitira. Ukuiluko ate aurrean lotuta dagoen txakurrak intentzioa igarri dit, aurretik zaunka haserrean, orain amorratuan ari baita. Ez da pieza handiegia, baina badu jenioa, harrapatuko banindu, pizkunderik ez barkatzekoa. Ez da amorratu bakarra, oker esan baitut ukuiluan ez ote zegoen inor. Txerri-kurrinka labainazkoak datoz zaunken gainetik, urdaiazpia bizian mozten ari balitzaizkio bezala, makina izterrera akoplaturik. Soinuen disonantziatik, bat baino gehiago direla esango nuke, bi duda gabe. *Sentitzen joat, uleti, baina sartzera najoak, eta higaz be pentsatuko joat zer egin.* Oiloak iragarkian bezala hegatzatu dira, txakur-katearen kontra jo ez dutenek ere atzean luma gehiago utzirik aldean daramatena baino, gero lurrean, pausakera normalera itzulitakoan, atzera lehengo oilo berak badirudite ere, nik hauek ez nituen ezagutzen baina. Oilo bat ezagutzea nahikoa ei da, espezie guztia, oilarra barne,

ezagutzeko. Ondo dago geure espezie ustez norbanatuaz harrotzea, baina oiloena generikoa izatea egia balitz, ez genituzke hain ondo bereiziko Bush, Frida, Proust, Thatcher, Kristo, Marilyn, Aresti, Che de Guevara, Santo Tomas, Oteiza, Maradona, Madame Curie, Bixente, eta zu zeu. Ni utz bakean.

Batzuetan iruditzen zait beste guztiengan berrinkarnaturik nagoela. Txerriak osorik daude. Hauengan berrinkarnatzea ez bide da zailegia. Ilunetatik ate neuk irekiaren argitasunerantz itsuan oldartu dira, txakurra apartatzeraino, nire aurrean balientearenak egiten ari zen baina. Txerriek errepidea eskrupulu gabe gurutzatu dute, infrakzio kolektiboan. Askatasuna, beharbada, ez da gizenkorra izango, baina ez dut nahi kezkarik gera dakidan aukerarik eman ez dizuedalako, komeni bada, elkar bakean jan dezazuen. Sakristauarenean, oiloak sar-irten librean dabilta, Loren sakristau zenduak galdutako giltzaren bila bezala. *Oilarra jan egin al dozue? Laster konturatuko zarie bizitza ez dela sakristauaren iluntzeko marmara mantsoa eta txerakorra, ia etxea jotzen bizi jatzuen Ama Birjinak otoiztat hartzeko modukoa.* Arnan ez dago abererik, hurreraten utzi baino katean ito nahiago lukeen artzain alemanaz besterik. *Bakarrik hagoela eta harrotuta? Egongo gaituk. Hire bitsak ez najok ikaratzen hi nire bizarrak baino gehiago.*

Andikoako aldasburura irtenik, Garai aldetik eta beheko lautadatik datorren polifonia urragarriari bortxapean eusten diot, Muñagorriko behitegi handia zertan den begiratzearren. Landan zabal ibili beharreko behialdea atariko balkoietara begira pilatu da, Santa Ageda kantatzen bezala. Makila-hotsa ere badator, harrigarriro erritmikoa, behien apatxena izateko. Goseak ez dio, antza, oiloari bakarrik kantarazten. *Koplatu zeinkie 'etxeokandrea mondrongo', hor ez baitau inork ezer emongo.* Hego-haize puntuak ozenago dakarren txakurren eta behien amorru terminalari falta zena gehitu zaio: Berrizko elizdorreko erloju ateporala, zati baterako kuerdagaz utzi bide dutena, daun, daun, daun... Ez ditut kontatuko. Orain ez zait denboraren banaketarik interesatzen. *Lagunok! Sentitzen dot zuek nire lurralde mugatutik kanpora aurkitzea. Nire ongintza askatzailea hementxe amaitu da.*

.....

Berriro neure etxean, nongo orroak entzuten diren adi nago. Eskuin aldetik, txakur zaunkak bakarrik iristen dira, zeintzuekin zer egin azkenean pentsatzeko utzi dudana. Aurrez eta ezkererantz, hiru baserri solte eta auzune bat libratuz gero, insonorizazio laketgarrian geratuko naizela uste dut, noizbait kanporatzea lortu duzun eulitzarrak, udako sargorian, sukaldea beteko hutsune freskoa utzi dizula sentitzean bezala. *Zantarra! Nondik sartu haz? Zerabilen abiadura suizidan ez zenekusen, entzuten baizik, menmenmeeennn hemen, hemenmenmenn, mekabennn, jaurti sorkia, egunkariak, leiho irekien kontrarantz, urtengo al dok arin, etxe guztia berotu aurretik?, minminminnn, mejoratzen goazek!, eltxoarena baino oktaba bat juxtu beherago, diapasoi eta guzti neuk neurtua desesperazio batean, menminmennnn, bariazio eta guzti aluak, menmenmeeeiiiinnn. Oraintxe joan dok, hainbaten. Itxi leihoak arin!* Hau deskantsua! Eulitzar baten soinutik libratzeak hain dohatsu egin baninduen, zer ez ote da izango animalien urrumeria erogarri horretatik isolatzea, falta zaidan lurralde inguratzailea askatzea buka dezadanean?

Bizkarretik Oiz mendiak babesten nauela, aurrez eta behe sakonean, Zubetzako errekondea eskertu dut, ez hainbeste salbatzailetzat hartu nauelako, ate bat motozerraz ireki behar izatean, txakurrak eta larrabezi izutiak asaldatu badira ere, baizik lan bizkorerrako oztoporik jarri ez didatelako. Zezen begi-goriak ere ez du mehatxu-plantarik egin, berriro baieztatuz intentzioa beti ez dagoela itxuran. Errekak mendi bitartetik doidoi eskapatzen duela, inbutu itzel baten barrena dirudien baserri zapal, bikoitz honetatik ahalik lasterren igo nahi nuke jagitasunerantz, itsasoren batek behetik edo abere-uholen batek goitik berton harrapa ez nagan. Edozer gertatzeko posibilitate

sobera harrotuari ez diezaiodan erraztasunik eman, hurrengo ezusteak nondik jo lezakeen antzik hartu ezinean nabilen honetan. Banoa hurbilduz eta, itxita dagoen ate beltza ala zabalik dagoen iluntasuna den ziur ez nagoen ukuiluko atalasean, bakarrik eta muker, fenomeno orotatik kanpora bizi zen bertoko nire tokaio inefablea zelakoan, Toulouse-Lautreci erreparatu diot, pintzela akuilu bihurtuta. Hau potromantika!

– *Eup!*

– *Ala heuk?*

– *Biak, gura badozu.*

– *Gauza merkean, borondatea beti handi. Zer gura dok?*

– *Toulouse-Lautrec agurtu.*

– *Nor dok hori?*

– *Pintore bat, istripu nanogarri bati esker, jenio handi bilakatu zena.*

– *Nongoa ez dok esan.*

– *Pariskoa.*

– *Ah! Orduan bai. Parisen izana nok, zikoinak heldu aurretik.*

– *Eta gero honaxe ekarri?*

– *Asmoa Afrikarakoa zoan, baina hor parean, Oizerantz zetorren Anbotoko sorginagaz olgetan hasita, jausi egin nintzoan.*

– *Zalditik ez al zen, ba, izan?*

– *Hori geroago, eta behorretik. Bajagok alde!*

– *Eta zikoina aurrera?*

– *Ha bere bidean. Zubetza zikoinentzat sakonegia dok.*

– *Sudur hori be, jaiokerakoa barik, jauskerakoa izango da orduan.*

– *Sudurrari begiratzeko astirik izan nebala uste dok?*

– *Arnasa hobeto hartzeko moduan geratu jatzula dirudi, puntatik bekokirantz tiran.*

– *Behar be bai zeozer, hemen bizimodua ateratzeko.*

– *Ez zara jabetu etxekonen inor ez dagoenik?*

– *Nik ez jautsaat inori jaramonik egiten. Nora joan dituk, ba?*

– *Horixe jakin nahi neuke.*

– *Etorriko dituk. Horreek, batzuetan, hegaberak lakoxeak dituk. Denak batera joan eta denak batera etorri.*

– *Oraingoan, ez dakit bigarren hegaberaldirik gertatuko den.*

– *Nigaitik egin daieela gura dabena.*

– *Estiloa aldatu samar ikusten dot hemen.*

– *Zer estilo? Mundua ez dok beti bat ala?*

– *Baina biraka!*

– *Horregatik jabilk jentea hain mareatuta.*

– *Zeu ondo baina.*

– *Neure estiloan.*

– *Haor, ba! Badozu estiloa, beraz. Baina Toulous-Lautreci jagokonik ez dakust hemen.*

– *Zer ikusiko dok, ba, heure antzeko demoninoren bat ez bada?*

– *Etxaldea apur bat collage antzera antolaturik esan gura dot, gauzak han hor hemen, txakurra eta oiloak barne, eta neu be bai orain.*

– *Zer gura dok? Denak elkarren gainean ipintzea, txakur-txabola erpinean dela?*

– *Edo oilarra.*

– *Oilarrak pikuondoa jaukak, goitik kantatu gura dauenean, apur bat zahartuta jagok baina.*

– *Inspiraziotik ondo ibiliko zara, beti legez.*

– *Oparo! Gaur be, indaba gorri lapikoa ipini, eta baltz-baltz urten jabek, gogorregi aukeran. Aume bati garaunak kendu jeutsaazat, perretxiko batzuekin nahastetako. Garaunak asko gustatzen jatazak, egin arintxo egonez gero.*

– *Aumea martxan dabil?*

– *Garaunak kenduz gero, normalean hil egiten dituk.*

– *Ardaotxoa be izango dozu.*

– *Pintatzeko bakarrik.*

Trago bat eskatzear nintzela, *edaik errekatik, neuk egiten dodan moduan!* berriro entzutearren, ukuiluko atea dranba itxi da, haizea ez den zerbaitek jaurtirik. Toulouse-Lautrec barruan harrapatu du. Iluntasun irekia zen, beraz, galipot zaharraren kolorekoa. Nire tokaioak ezin du hor egon, aspaldi eroan baitzuten barnetxe batera, non zenbait pintore hartaz inspira zitekeen gorputz laidotuaren artea kasik naturalean garatzen den.

Goranzkoan, Agarre etxalde handiro inklinatuan, behitalde berez gorri-sendoa erreka ondoko gerizpean kolorgeturik datza, ezpata-euliez beste kezkarik gabeko (ez da gutxi) hausnar axolagabea. Ere mu hau badirudi fenomenoak oraindik ez duela ezertan ukitu. Ukuiluan ez dantzut kate hotsik, baina, badaezpada, begiratu egingo dut, gero horrexen kezka atormenta ez nizan. Leihu txiki eta bakanetako amaraunak radiografiatuz sartzen diren argitasun kainoiak bakarrik bizi dira, euren borazitate isilean, ilunaren gordelekua desaloiatzerik lortu ezin dutenak.

Gorago, auzo errepidearen gain-azpi hedatsuak hartzen dituen Atxan, dozena erdi behi gorri lerdan, euren txahal guriak oinetan etzanda dituztela, intxaurrondo baten berdetasun ohigabeki trinko eta zabalduaren azpian tente daude, separazio kalkulatuan, elkarri berorik gehitu gabe, isatsek ondoko euliak uxatzeko moduan. Hemen ere, ganadua nahikara sar-irteteko zabalik dagoen ukuiluan badaezpada sartzen hasi naizenean, harritu naiz, ala ikaratu?, ilunaren golkotik, zezen pare galantaren buruak agertu direnean, adar lodiak oraindik bihurtzen hasi gabe, baina linternak bainoago kartutxoak diruditen begiekin, eta hartu dudana sustoa justifikatzen ez duten mantsotasunean. Ilunpea apur bat argitu zaidanean, lehen baino gehiago harritu naiz (oraingoan, harrizko harriztea berbera) askak alpaz erdi beterik dauzkatela ikustean, norbait gobernuan pasa berri bailitza.

– *Frantziska! Hemen al zabilz?*

– *Hementxe, pozik beti!*

– *Orain be kanpoan?*

– *Niri kanpoa gustatzen jatak. Etxe barrurik ez joat gura, gaixorik egoteko be.*

– *Behin, zerura etxetik joan gura zenduela esan zeunstan, ba.*

– *Etxaldea be etxea dok. Ospitaletik eta horrelakoetatik esan gura najoan.*

– *Zerura izanez gero, ardura deutso nondik?*

– *Bai, beharbada. Bidea galduta doanari han be laster igarriko jakok.*

– *Zuk ez daukazu horren arriskurik, santu guztiek ezagutuko zaitue eta.*

– *Konforme nok, baztertxo batean egoten uzten badeuste.*

– *Baztertxoan zu, zeruko erregina izentatzea merezi dozun hori?*

– *Ez, ez! Denek ni ikusteko lekua baino gurago joat neuk denak ikustekoa.*

Hasierako *hemen al zabilz?* horren ondorengo elkarrizketa egiazkotzat sentitzen ari nintzen, Frantziskak ostetik hitz egiteari begizkoa ziola gogoratu naizen arte. Bistan inor ez dagoenez, neure oroimenaren erreposizio bat gehiago izango zen. Une bateko irudipenaren zauskadak irauli didan bihotza posiziora berritzuli guran nabil, asketako barroteei eskuzabal heldurik. Laster ohartu naiz

belar hornidura jan ahala askaratzeko moduko artifizioagaz preparaturik dagoela, Frantziska urtero, astebeterako, Arantzazura lasai joan zedin.

– Ai, Arantzazu! Zeruan be ez dok hantxe baino hobeto behar.

– Behiok a zer zure falta hartu behar daben, Frantziska!

– Nik eurla gehiago.

– Ama Birjina iraintzen ez bajatzu, beragaz egotera joan eta ganaduak gogoan.

– Ama Birjinak bajakik honeek be bereak direna, gizajook. Horrexegaitik jagozak honen eder eta mantso, ezton, Matxalen? –behiari muturrean igurtzika–, batzuetan bildurra be emoten jeustek baina. Nahikoa egiten jakiek, eurla handian, nire moduko andra zahartxo bat ez zapaltzeagaz, baina Ama Birjinak denok maite gajozan, ezton, Dionisia? –hurango behiaren muturrera pasaturik.

Frantziska Arantzazura joana zitekeela pentsatzeak, une batez, egoeraren ertz guztiak lokatu dizkit, baina, bueltan nork ekarririk ez balu ere, hobe dut zezen hauen kargarik Ama Birjinari ez utzi. *Sentitzen joat, Moxo. Kate oparotik askatasun urrira jaregin behar haut. Inoiz damutu eta katera itzultzerik pentsatuko baheu, ni ez nok hemen egongo.* Garondoa azkura batzuk egin dizkiodanean, mantso-mantso utzi dit katea askatzen. Bigarrena, aska-laguna ondolik alde egiten ikustean, beldurgarriro aztoratu da, aska eta guzti joan guran. *Lasai, Moxo II.a! Bakarrik ez dok geratu gura, ezto? Uzten ez badeustak, katea zizailaz moztu beharko deuat erditik, eta saman enbarazurik eroaterik ez jak komeni.* Horixe egin diot, ahalik eta mozkinik laburrena uzten ahalegindurik, neu ere ez bainago ñabardura humanitarioetan luzatzeko moduan. Atxako etxe aurrean, txakurra ez dago hain lagungin, katearen luzerari batera eta bestera amorrutako kolpeak emanek. Handi beldurgarrietariko izan gabe, etxe ondolik pasatzen zen edonor, neu barne, heriotzara kondentatzeko herra zeriona, etxe kantoiko burdinsarean erreparatu didanean, bake guran iruditu zait. Ez da atera saltatzen saiatu eta, irekitzen hasi naizenean, kate laxoa penitentea bezala arrastatzen hasi da, errendizio plantan, baina gizakioi traizio begitantzen zaiguna txakurrek leialtasunaren metodotzat hartzea zer den badakidanez gero, ez naiz itxuraz fidatuko. *Hik be baten bat behar, ezto? Neugaz beharko dok, besterik apenas etorriko baita. Komeni jak onez konpon gaitezen, beste erremedio klase bat irabazi gura ez badok.* Premia erremedio gabeak txakurren talentua ere argitzen du, nonbait, eta ez du eman nire erreparoa –prekautioa gehi ikara-puntu suspentsiboak– baieztatzeke motiborik. Lepoa aske nabaritu baiko, tximistaren gainean ezkutatu da etxe osterantz, nork jakin Arantzazuraino, ugazabandarean lortatzen. Ondo amaitutako ekintza bihozkorak maiz ohi dakarren bueltakoan, neure irreflexioari txakurkeriak esaten dihardut, anakronikotzat baztertzekoa izan daitekeela erabakitzeke astirik oraindik hartu ez dudana sentikortasunari jarraitzearen, hozkada tentel batek egoera izendaezin hau izorra ziezadan arriskatu naizelako.

Atxatik berrehun metrora, nire operazioaren muga izango den Besoita auzuneko bost etxeetan ez dago eginbehar handirik, hain gutxi zailik. Goikoetxeke ahuntzak landan dabilta, telebista-gelan ere dotore ibiltzen jakin arren. Halaber, Napparreneko behiak, euren txahaltxoak orbita jostari ezberdinetan. Ukuiluetan ez da askagairik ageri, oilo batzuk besterik, gatibutzak burutik erdi joanaraziak, berez daukatenagaz, erdia apartatzen ez dago erraz baina. Eta zer gogokeratan aurkitzen diren inoiz igarri ezin diezun untxiak. Atalburu batek *Lorenzo records* jartzen du, bera ere lehen halakoa izan arren, inguruko baserrietxe ohikoez beste edozer izan daitekeela iragarrit. Edozer izaterik ez dagoenez gero, grabaketa estudioa da, hitz ingeles horren esanahi askotariko batek adierazten ei duenez. Eskuin leihotik konfiantza handiegi gabe begiratua den (diodan) ehunka pistatako (izan al daiteke?) mahaiak errealismo handiegi itxaroten dio, aulki birakari orain hutsetik, xake-taula bat bezala harengandik eskuztatua izaten ohituta zegoen teknikariari, zeinak, halaber, alferrik begiratuko liekeen kristal insonoroaz handiko mikrofonoari (kaskoak eurotatik dilindan), gehiago haragituak ez izateke itxaropenaren eskeleto abstraktuki metalizatuei. Musika ei

da arte hilezkor bakarra, Napoleonen belarriak molestutzen zituen zaratan baino ez bada ere, baina badirudi, aurrerantzean, nire klasiko kutuna mozoloa izango dela, eta abangoardia desiatua, trumoa.

Auzo honetan ere, txakurrena da konpromiso nagusia. Goikoetxen, boxer antzeko marroi berdexkak, endarik ernegatuenean gurutzaketa dirudienak, larrialdiari aurre egiteko erarik koherenteen bezala, itsukeria handikorra hautatu bide du. *Ekiok! Itzuliko nok era konbintzenteagoan.* Iturriko atarteko ardi-txakur zuriska iletsuak, ostera, katean inor ezezagunek ukitua izateko apalkuntzari baino beldur handiagoa dio, nonbait, askatasunaren azken aukeraren ukoari. Ez dirudi erratu denik, askatu dudanean eraman duen ziztutik. Nik ez dakit txakurrak zergatik aldentzen diren hain urrun euren zereginak egitera, gero uzki bistan itzultzeko, gure soldadulagun batenagatik ez bada, zeinak Bartzelonan, kakalarriak emanik, esan zuen: *Hortxe etxe ostean egingo joat.* Etxe ostean beste etxe bat aurkitu zuen, eta haren ostean beste bat eta beste bat, eta beti beste bat. Azkenean, Bartzelonaren muturra jo aurretik morraldu zitzaizkion prakak gizajoari, premiatik aparte, armen utilitatea adierazteko erarik duinenari segida emanaz.

.....

Etxean berriro, Andikoako elizondotik Besoita auzorainoko bi kilometroen erdian, askapen lanak amaitutzat emanik, neure burua nahikoa babestutzat jotzeaz beste aukerarik ez daukat, zabalduago eta lan amaigabeagoetan ahitzeko patuari heldu nahi ez badiot. Bizirik utzi ditudan txakurrentzako erremedioa non dagoen badakit. Ganbeitiko kristalezko armairuan, eskopeta galanta eta rifle harroa hantxe daudeke, erdiko apaletako trofeo erreskadei guardia eginez, hegaletik hegalerako kartutxera mardulak arku inbertituak osatzen dituela, berakatz korden antzera. Askatasunari uko egiteko eskubidea errespetatuko niekeenak aurreragoko premia den goseak hil ditzan ezin dut utzi, gero neure kontzientzia jan dezaten. Elordi barrutiko dobermanagandik hasi naiz. Eskopeta enkainonatu diodanean, atzera egin beharrean, bere gorputz soberbioki segailaren belztasun disdiratsua hesiaren kontra puskatu nahi du. *Hau zer den ez dakik? Oraitxe irakatsiko deuat.* Danba tiratu diot, erditik moztu antzeko belarrien artetik. Ihesari eman dionean, bigarren danbadak atzeko oinen lorratz bitartea aztertu du. Txakurrak ez du aurpegiarik bihurtu, bortxaz baizik kabitzen ez den atarteko mahaietik eta bitarteko zuhaitz eta loreen babesetik, hagin-zerra zuriak eta oi-ilara gorriak erakusteko modua ikusi arte. *Lana bakez egiten uzten ez badeustak, hurrengoan bajakiat garaunak non dagozen. Ez joat onartuko hire azken ulukariak nire garaunak deskonposa daizen.* Alikateekin hesian irteera bat mozten hasi naizenean, iraun-sena baino grina indartsuagoari ezin eutsirik, berriro oldartu zait erasora. Itxaroten nuen eta ez nau distrahiturik harrapatu. Bere aurreko hankek hurrengo oinkadan egingo zituzten lorratzetara beste bi danbada jaurti dizkiodanean, ulu larruetan urrundu da, oraingoan etxe ostera, bere psikologian haietarako prestatzeke zegoen pitzadurak daramatzala. Hesiaren goitik beherako ebakia alboetarantz zabaldurik, alde egin dut, ez aurretik oihu egin gabe: *Urten heinke mundu zabalera, geure etxerantz izan ezik, orduan ez heunke bigarren aukerarik izango eta.* Batena egin dugu.

Goazen orain Saiunera. Hemen, txakurra ez da dobermana, baina bai ferozitatean zorrik ez diona. *Zer? Zelan egingo joagu? Ezer pentsatu al dok?* Hitz egiteak sumindu egiten du, ni zenbat eta edukazio handiagoz, bera hainbat goriago. Gosearena baino zerbait gehiago dago hor. *Nik zeozer pentsatua joat, eta ez uste, lerdin horrek, heugaitik denik. Hire agonia amaibakoa entzuten zoratzeko gogorik ez jaukaat.* Oker ulertu du, nonbait, kateari horzka hasi baita. Zizaila erakutsi diot, haginak apurtzen saia ez dadin. Hori ere oker ulertu du, lepoa moztuko diodalakoan edo. Nire aurpegiara saltatzeko kolpean, kateak atzerantz eraitsi du. *Ez al dok bakerik gura heure onerako be? Ea honi zer deritzoan.* Eskopetaz metro batera apuntatu diodanean, miraria bainoago katastrofe instintiboa gertatu da. Txakurra atarteko arku oinaren eta hormaren arteko zokoan multzotu da,

intzirika, dardarka, inondik irekitzen ez zaion ehorzpen bila. Danbadaren batek belarriko ehun finak lehenago ere zartatu izan dizkio, antza. *Orain utziko deustak? Baina ni fidatzen ez!* Eskua lepoan jartzean, nork jakin ez ote den, ezerezaz haragoko kikiltasun multzo horretan, alderantzizko erreakzioa gertatuko? Abere sakrifikatuak zatitzeko mahai astun eta latza alboz etzan eta zokoaren kontra arrastatu dut, katea zapalduz. Oraintxe konturatu naiz bildots pare larrutua, aukeran usaintzen hasia, sabaitik dingiliz dagoela. Txakurra, mahai hormatzat hartzean, lasaitu egin dela dirudi, gordeleku triangularrean babesturik, goitik burua erakusteko kemen gabe, ar ergelki samurtuari, inoiz, ume jaioberriengana biltzen ikusi duen emea imitatzeke grina sartu ohi zaion jarreran. Kateari mahaietik toperaino tiratzen diot uluen erruki gabe, txakurraren lepoa mahai orriaren kontrara itsasteko, ahalik laburrenetik mozturik, inon trabatzeko arriskurik txikiena eroan dezan. Mahai ertzaren azpitik kateari tiratuz, beste aldeko txakurraren burua mahaiaren kontrara topera erakarri dudanean, zizailak, klask, aise egin du bere lana. Kate mozkina –bi begi eta erdi–berbertan ezkutatu da, kanpoan erraturik dagoela ohartu den nire mihia bezala. Txakurra apenas ohartu den jada libre denik. *Ez dok urten gura? Bildots pare zoruan utziko deuat, honezkerogoseturik egongo haz eta.* Honek pasatu izango zituen inbidiak, bildots larrutuak hagetik dingiliz eta bera katean! Badaezpada, arma esku bategaz apuntatuz, besteagaz mahaiari erdirantz tiratzen diot, txakurra agirian utzirik. Hain hutseraturik behar du patari gaizoak, ezen ez da alde egitera menturatzeko, bidea libre ikusi arren. Ez daiteke izan katea etenda duenik ez konturatzea. *Ez dok urten gura ala ez haz gauza? Heuk joan behar dok aurretik, ze nik ez joat atzetik traizinerik gura.* Atarte hondorantz urruntzen natzaio eta, etxe barrurako ate kontratik, bi eskuekin apuntatzen dut beragana, eskopeta kanoia aluki dilindatuz, itu zehatzaren bila bezala. Oraingoan ulertu du. Gorputza erauzi dioten arima baino auhentiago aldendu da, konparazioetarako, behintzat, existitzea eskertzen den kontzeptu bat baliatzearen.

Txakurrekikoa eskopetaren beldurrez edo beragaz amaiturik (bat akabatu egin behar izan dut, kontatzeko beldur naizen eran), umetan maiz tentatu ninduen erromadak zabalik uztea edo itxiturak moztea ekarri dit gogoak, zeinak oraintxe burutzea eskaini didan orduan ausartu ez nintzen azio exultantea, pentsatzen nuenean: *Zertarako honenbeste itxitura, animalien penarako eta zaintzaileen tormenturako?* Nik uste dut bigarren honegatik zela batez ere, ez baitzegoen eskolatik bueltan lan gozagaitzagorik, behi tranposoak behar ez zen lekuan sartzetik edo irtetetik zaintzea baino, bitarteren bat beti aurkitzen zuten itxitura edo erromada ganorabakoetan. *Orduan zertarako dira itxiturak?*, ihardesten nion gurasoen haserreari, negarrari emateko baino ernegatuago, behiek etxeko edo auzoko artotzan triskantzaren bat egitetik bueltan. *Hire beharra behiak zaintzea dok, ez itxiturak ikuskatzea!* Hara, ba, noizbait! Klik, klik, klik, popatik alanbre alemanak, klank, klank, klank, lurrera langa dotoreak, beleak bertan kokatzeak katxondo bihurtzen dituenak. Tira! Libre zarete, abere penagarriok, neuk ere libratu nahi baitut elkar bakez hil dezazuen askatasuna mozteko biolentziatik.

Kilometro baten erradioan, gune desmilitarrean gelditu naizela uste dut, esan nahi baita biolentzia ambientalaren musikarik ez zaidala iritsiko, neure lurraldeaz harago imaginatzerik ezin ekidin arren, ikusten ez dena entzun beharrak gehiago sufriarazten baitu. Saiuneko etxe alboan, iturriak emanean darrai, isil-isil, abisua hartuta bezala, olioia ez bada. Ura izango da, gehienez berritsu, hainbat egoera eta zorutatik ausente pasatzen dena. Zikin daiteke, zikin dezakezu, ez dio ardura. Hark unea bakarrik kontatzen du; ez dauka memoriarik; sentimendurik ere ez, beraz. Aurreko bihurgunearen edo ondorengo jauziaren berri nahi baduzu, bertara jo beharko duzu, eta bai: hango unea eta gunea xehetasun osoz konfidentziatuko dizu, goragorik ez beheagorik ez balego bezala. Une batez, atzipetu egin zaitu, memoriatik atera baitzaitu. Zu bera edatera makurtu, eta berak zu hurrupatu, ito zaitzan arriskuraino, uneari alde egiten ez badiozu. Edo zerbait esternoak alde eragin ez badizu, oraintxe neuri bezala, turrustatik ahoa betean edaten ari nintzela (*edontzia ez daukazu hor? – edontzia zertarako, bertatik edan banei?*), txakur-etxea hauteman dudanean, atea

zabalik. *Joño! Horrexegaz ez nok konturatu.* Beti pozaren eztandan hartzen ninduen ‘Bixkor’ maitea, zeina ezaguturik ez zegoen esaterik poza ondasun agorkorra zenik. Inoiz gureraino etortzea maite zuena, Eguen Zuri eskean bezala, gaileten bila, zeintzuk, bertan jatetik eskisitoki zaindurik, etxeranzko bide bazterrean disimuluan gordeko zituen. Bera ez baitzetorren premiagatik, errituagatik baizik. Orain falta da etxolatik, baina ez da urrun ibiliko, bera ere ugazabaren atzetik joana ez bada. Naturalena litzateke, biak ezagututa, baina ez dirudi ezabapen honetan animaliak barruko direnik, munduaren azken totaletik eskluditu nautela onartu behar ez badut. Eskailerapeko freskuran egongo da, sukaldean uzten ez ziotenean bezala. Etxekoandreak karrajuko leihoxka beti zabalik utziko zuen, handik sukaldeko solasak eta usainak gozatzen edo bekaizten segi zezan.

Sartzera noa, etxe honetan atea beti zabalik baitaude, lapur posibleak hobeto ikaratzeko. Batean, karrajutik sukalderako atean, urratsa airean gelditu zait. Munduan bakarrik nagoela barneraturik ez baneuka, garrasi mortala jaurti beharko nukeen, garrasiak ere joanak ez badira. *Patxi! Zer egiten dok hor?* Txakurrak, ugazabaren oinen eta txaparen artean eserita, ohi ez bezain keinu urriz begiratzen dit, ni ikustearen poza ñabardura txikiegia den eginkizunean okupaturik dagoela adieraziz doi-doi. Kotoizko oinen gainean, atzeraka urruntzen naiz, hipnotismo egozle batek tiraturik, ez baitakit indar egozlea ala tiratzailea den, zeinak, atalburuko mailaz ohartarazi gabe, atari estaliko harrizko mahai biribilaren kontra eseri nauen, neu ere, oharkabea, sukaldekoaren jarreran makurtua. *Patxi! Zer egiten dok hor?* Ez diot, noski, ozenki galdetu, ikara pentsakorrez baizik, aurkikuntza tupustegien aurrean, norbere burua galtzetik libratzeko lehen senez. Patxi sukaldeko mahai gainera doblaturik dago, indargetua denik ez dakien telebistara begira lokaturik, sarritan egiten zuen moduan, jubilatuta zenetik, batez ere, ohea etsai bihurtu zitzaionen. Hipnotismoa iraulitakoan, ondorioa sastagarria da. *Kakamerdi! Ez najagok bakarrik!* Geriza jaregin bati, zer ezinezko baina egiazkoa izatera mentalizatzen hainbeste kostatzen eta gero, berriro gorputza agertzea bezalatsu, merezigarri ote den dudatzeko moduko dependentzia soil bat izatera itzuliz. Ezin dut egoera hau sentitzen ahalegindu konparazio inexistenteekin baizik, esan baitaiteke Patxi eta biok orain, sexu diferentziak salbu, Adan eta Ebaren kasu klonatuan gaudela, egoera normal samarrean, alegia, ez jainkotasun kontzientziara iristear nintzen arteko bakartasun mugagabe horretan, bestea nor multzoa ala nor bakarra izatea ñabardura sekundarioa baita. Auzia ez da besteak zenbat diren, besterik baden baizik, hots, dena neugan hasten eta amaitzen den zirkulua naizenetz. Ederra zen, ba! Orain, osteratzen, segi dezake nahi bezain exzeptzionala izaten, baina bai egoera lorrina, Hamleten eszenatokian armadilo bat agertzea bezala. *Parkatu, Patxi. Zu ez zara armadilo bat.*

Inoren etxeak zergatik ematen ote zidan halako ikusmina umetan, eta ez txikiagoa handitan? Beharbada, elementu berdintsu baina ezberdinki ordenatuek etxeak konfiguratzeko ematen zuen intimitaterik primarioena birmoldatzen zidatelako, bera bainuen, etxea, lehen maite-objektua. Gero aurkituko nuen pentsamen amorosoak objektua berak eraiki zezakeela. Badaiteke sentipena hainbeste ez izatea maiteak eragina, nola norbere baitak sortua, nahiz eta maitea, deklarapena entzutean, bere sorkaria delakoaz lausengaturik sentitu. Errealitatea jarkitzen zaizunean, osteratzen, kontrasteak ezabatu eta hutsean geratzeko arriskua duzu, ezin baituzu sorkuntza inpuneki elikatzen jarraitu. Antzeko kontua ote da, lukainka oso baten joranean hazi ondoren, gero pareka jateko komenentziara iristean, ezin nuela bigarrenik jan, atrakoan ari nintzen kezka gabe? Nobia bat noizbait izateko amets etsian bezala. Gero bi aukera batera etortzean, ikaratu egin nintzen, bi usoetarik bat joan zedin ezin amore emanik, eskuen dardarak biak eraitsarazi zizkionaren uneraino iristear. (Izango da oraindik konparazio brutal hori lirikotzat sentitzeko talentua duenik). Urteen joanean, gatazka sentimentaletatik ahitu nintzen, baina lukainkarenak hortxe darrai. Ogia zelakoan, txankletak jaten hasi eta, ohartzean, jarraitzea nahiago izan zuenak bezala, dezepzioa ez etetearren.

Eta gizona iratzarri aurretik (Patxi izena ukan arren, izan daiteke gizona), gehiago elkar ez ikusteko lekura alde egingo banu, mundua amaigabea dela baliaturik? Denik finituenean ere, borobila izanik, zaila da itzuli bat aurrekoaren berdina izatea. Baina ezingo nuke ahaztu (ala bai?) beste bat badela. Alboratzea oso zail egingo litzaidakeen sentimendu maitakor edo, gutxienez, lagunkorretik aparte, ezingo nuke iheslari sentipenik astindu, zeina litzatekeen, hain zuzen, bakartasunaren alderantziena, kezkaren konpainia persistentez hertsatzen zaituena. Eta jo eta bertan akabatuko banu? Ohartu ere ez litzateke egingo Solobarriko txakur etorgaitzari egin berri diodana baino errazago litzatekeenaz. Izango ote naiz gauza? Baina orduan egoera neuk eragina litzateke, eta hori nahimen librea esaten zaionaren miseria-sailean sartzen da. Bakar gelditurik, erru sentimenduak ez luke zentzurik, noski, baina, beharbada, aurki ninteke lagun premian, edo maitasun baten nostalgian. Horixe izan daiteke Patxi hor gelditze hain arraroaren arrazoi bat. Orduan, egindako azioaren damua abiatuko litzateke, neure buruaz hil arte ernegatzen jarraitzeko. Horretarako kasik hobe da norbera akabatzea.

Ez. Egoerak guztiz gainetorria izan behar du, nahimenaz ez ezik, oharmenez ere handikoa, sentimendu kontsekuenteen noziorik ere gera ez dadin. Gauzak orain arte bezala behar zuen, husgabeki eder izaten jarrai zezan, bizia bera bezain. Ez dakizu ezer, ez duzu ezer nahi, eta bat-batean hor aurkitu zara bi eternitate banatzen dituen aitzokada horregaz, artean zure faltarik txikienik ere ez zeukan munduaren erdigune. Eta arrazoi duzu, zeren zer zen, ba, mundua zu gabe? Patxi horixe horren inportunoki agertu arte. *Zer, Bixkor? Abisuren bat dakark?* –galdetu diot, ez dakit lagun guran ala laguntasun guran, alboka-alboka inguratuz datorren txakurrari–. *Iratzartu egingo joagu? Hori gura dok?* Sukaldera sartzean, artean hain kurioso portatzen ari zen Bixkorren zaunka ulertezinari *Bixkor! Isilik!* agiraka dagoiot, ahapeka baina zorrozki, zaputuz iletsua astintzen diodala, ez gehiegi ere, txiliorren bategaz dena honda ez dezan. Gizonak lehengo jarreraren darrai, lo baino loago, hormaren eta mahaiaren kontrara tenteturiko mukur bihur, erpinaren erdia txapel okertuak estaltzen diola. Txapelak, inoiz dena bera balitz bezalako harrotasunez exhibitu ohi den horrek, oraingoan, bigilantziaren arinaz baliaturik, jaitsi guran dirudi sekula ohoratuegi sentitu ez den idulkitik. *Zer egingo joagu, Bixkor?* Ez neukan galdetu beharrik, lo dagoena iratzartzeak eskegita dagoena askatzeak baino pena handiagoa ez balema. *Ez, Patxi. Hemen ez hago ondo. Goazen ohera.* Kontuz-kontuz, galtzarbeetatik paparrean bat eginiko eskuekin heldurik, aulki eta guzti atzeratzen dut. *Dagoen beroan, nahikoa fresko hago.* Apur bat atzerantz okertu dut, haurkotxe edo gurpil-aulkia bezalatsu (ibilgailu berdintsuen izen ezberdinak eurok), gozo-gozo derrait, kolorezko baldosa leunen gainean, sukaldeko ateko koskaraino, non ahalik kontuzen jaisten dudana, takadak begiak ireki ez diezazkion. *Maria falta dok, eztok?* Barreketik goienara tirada bakarrean doan eskailera erripera begira, txakurrari xuxurlatzen diot: *Bixkor! Jaso ahalko ete joagu?* Begirik nekez ikusten zaion (ez dakit berak nola ikusten duen) buru iletsuak ezezko keinu garbia egin du, nahiz eta txakurrik sekula ez dudana buruagaz ezetzik esaten ikusi, zalantza ederki adierazten dakite baina. *Lasai, Patxi. Beste gauza bat egingo joagu. Heuk hain kutun doan baztertxo batera eroango haugu: lehen be hamaika biago gozo eginda hagoen mimosapera. Bixkor eta biok mendi-printzeak legez ibiltzen ziniere traktore txiki maitean eroango haugu. Egon hementxe apur batean.*

Aulkia albokera, sorbalda bata hormaren kontra, besoak eta burua ahalik atzeren jarri dizkiodanean, muturrez aurrera harlauza ez leunegietan burua apur ez dezan, ohartu naiz kasik ez dagoela sokaz segurtatu beharrik. Aulkira betidanik akoplatua dirudi, betirako esatea augurio txarreko izan ez dadin. Gorantz begira, ahoa apur bat ireki egin zaio, itoginen batetik tantak harrapatu nahirik bezala. Traktorea bere lekuan dago, ukuiluan. Traktore txikia bainoago jostailu handia dirudi, bere gorritasun gordinean, biguntzen hasi gabeko tomatearena bezalakoan. Jostailu benetako, hurrei benetan gustatzen zaizkien horietarikoa, ez kuerda eman eta aulkipera eskapatzen duten txatxarretarikoa, joan eta bertan zapaltzeko gogoia ematen duena. Bixkorri poza itzuli zaio. Bidaia-usaina hartu du, nonbait. Tartarra ere benetako jostailuarena dauka, txairoa eta

ligatua, ez tar batetik bestera nondik pasatu ez dakitela diruditen traktoretzar horiena, nekatuta baino gehiago, gasoilari higuin hartuta. Ate aurrean bada terraza estali bat, traktorea parera egokitzeko moduko maila eskaintzen duena, non bertara atzez arrimaturik uzten dudan. Gizonak ez du zirkinik egin. Beharbada, ahoa apur bat gehitxoago ireki ziaio, baina, itoginik ezean, ez dago ito arriskurik. *Egokerari gustua hartu deutsak, eh! Goazen polito-polito, minik hartu barik, zaratarik egin barik. Hautxoa lo dagoen etxean lapurretan bagenbilz legez; bera zentroa izanik, beti baztertxoan uzten dabena.* Aulkiak erraz derrait karrerapeko terrazoan zehar, eta gizona ere konforme dator gainean, burua nire paparrean pausatuz. Traktorearen dardarak eta zaratak iratzartzen ez badu, deskargatzean ere neuk egin beharko dut dena. *Ea, Patxi! Gora! Hoooolantxe!*

Bidean txapela jausi zaigu. Bidaian abiatzerako, traktore gainean pertxenta zetorren Bixkor saltoan jaitsi da, haizeari ezertarako astirik eman gabe, eta txapela ahoan dakarrela derraigu. *Ondo, Bixkor! Hik ekarri horixe, lar estutu barik, garaunak zulatu ez dakiozen.* Oso ondo ulertu du, txakur guztiek ulertzen duten moduan, ulertzeko moduan hitz egiten bazaie. Traktore gainean, suabe-suabe eta gorputzari eutsiz, behearaino okertu ditudanean, aulkia eta gizona alboz gelditu dira, bat-bat eginak, atzerik harako estalketan lokaturik bezala. Erretiratu nahi ez zuen aulkia kendu dudanean, gizona gehitxoago uzkuritu da, jarrera fetalerantz, zilaren bila neuk uste, zeinak zenbat tiratzen digun ezin izaten dugun itzartasunean ere disimulatu. Aratinik ipintzen saiatu naiz, baina ez du arteztu gura. *Lo gogortxoa ez al dok horixe, Patxi? Lehen be ez haz hi, atxurkaden ondoren, kirtenaren kontra harri geratu bakoa.* Zaku eta manta mordo bategaz, gizona kartola baten kontrara finkatutakoan, astiro-astiro, traktorearen lehen abiaduran, aldats handirik ez duen auzo-errepidean lehenik eta baso-pistan gero, bagoaz kontzentrazio arduratsuan, nahiz eta ez bazterrei ez begiratzeko bezain hieratikoa. Nora goaz? Karkamora, Patxiren terrenoan, hain zuzen, dagoen txoko ospetsura, zeinaren kontrako zelaian baden harrizko mahai errektangular bat, mimosa batek bertatik eta ereinotzek eta pagoek hurretik zaindua. Bidean, Patxiren beraren behorak azpiko landatik hurreratu zaizkigu, eurentzako pentsua edo ogi lehorra dakargulakoan. *Oraingoan erratu zarie, laztanok, inor ondotik zueri eder egin barik pasatzen ez zagoze ohituta baina.* Lantzean behin atzerantz begiratzean, Bixkor ugazabari fin jarraitzen dakust, hain plazergarri zaion traktorera saltatzea txapela ahoan ekartzeko eginkizunagaz konpatiblea izan litekeenik pentsatu gabe.

Karkamoko itxituran, atesarea zabalik dago, Patxik berak utzita segurrenik, hainbestetan bezala, laster itzultzekotan mahai hartakoxe gerizpe freskora, atzeko iturrian, belauniko, ur zurrutada ozenak eginik. Traktorearen atzea harrizko mahaiaren eta zurezko jarlekuaren altuera erdian gelditu da. Deskarga uste baino errazago doa, bolquete beharrik gabe, eta Bixkorren traba eta guzti, txapelari ahotik jaregin gabe ez baitaki nola lagundu. *Hortxe, gorputza apur bat albokera, buru okertua mahai gainean kakoturiko besartera errenditurik, inoiz, Mariagaz hasarratuta, Karkamon egiten heuen biagoan legez.* Bixkorri txapela eskatzeko zeinua egin diot, eta eman baino nahiago izan du mahai gainera saltatu eta buruaren ondoan apatx egin, argazki zebrerako gertu, makina ekartzea bururatu izan balitzait, baina nork pentsatuko zukeen txapel batek burusoil lokartu bat txakur baten ahotik estali nahi izango zuenik, lapiko estalkia jaso eta hornigarriak hozteko zain dagoela iruditu ezik? Derrigorrean ezingo diot kendu, lapikoko garunengatik, *baina, Bixkor, gizona zelan utziko joagu burutsik, mimosa honetan ibiltzen den beste txoriz?* Ezezko garbia egin du, gauzak ondo ulertu dituela, baina argudioetara makurtzeko asmorik ez daukala nabarmenduz, entzuten jarraitzeko prest dagoela baina. Ez dut egoerarik bortxatuko, pentsatuz balitekeela, aurrerantzean, nire bizitza soziala animalietara mugatzea. Gainera zer? Eurak konponduko dira, elkarrenak dira eta.

Karkamo, Oiz mendiaren arroetariko baten zokonean, neure lurraldetzat askatu dudanaren mugan dagoelarik, inguru askatu gabearen harrabots hilkorrak abaildu behar nau. Azpiko auzo Sarria Goiko eta Sarria Behekotik eta Garaiko herri aldetik, sinfonia zanpagarria dator, uluz,

urrumaz, zaunkaz, irrintzaz, kurrinkaz, garraisiz osatua, nahastua, unisono infernal bihurtua. Ez dakit Vivaldik ez inork urtaro hau musikatzerik izango zukeen, ez gauza ez zirelako, inoiz antzekorik ez zutelako entzuna izango baizik. Errealitate honen hurbilena lepoetatik tramoietara eskegitako orkestrak joko lukeena bururatu zait, batutak zuzendariaren belarri-zuloak alderik alde limatzen dituela, entzuleari barnetasun sinesgarri bat emateko. Beharbada, erasotzen didan desesperazio hilurren hori guztia irudikatzea ez da hain ezinezkoa, denok baikara, gutxi-asko, animalaren baten azken alaraoak entzunak, txerri-hiltze birtualetan baino ez bada ere. Soinu hori dimentsio eskatologikoraino handitzea irudimenaren, gure dohain infinitu bakar horren, kontua litzateke, baina ni ez nau apurtzen harmoniaren, sakon honetako txori ugarien kantua ziniko bihurtzen duenaren, biolentziak, ezta bere adierazpen amorratuki salatariak ere (*zertan habil hor pitokerietan, gu askatzera etorri beharrean?*), zeinera amore emateak amai gabeko sokorrismo angustiosoan ahituko nindukeen, itxaropen bakarragaz ezen, aurreratu ahala, une bat letorkeela soinu oro ezabatuko litzatekeena, jada denak hilak liratekeelako. Apurtzen nauena kanpaina prometear hartatiko kontzientzia zital hauxe litzateke: hondamenaren erru-zalantzak hil arte horzkatuko nindukeela, azkarrago ibili ez izanaren oinazea. Traktorea abiatu eta, bere zarataren babesean, alde dezadan lehenbailehen eromen-zulo honetatik. *Agur, Patxi! Itzar haitenean, etorri geurera, beste inon egoten ez dok erraz izango eta. Hik, Bixkor, zaindu ugazabaren burua. Eta txapelak hozkia emon deianean, utzi bere lekuan.*

Atesarea ixteko, azkenengoz atzera begiratu dudanean, Bixkorren ahoan berdela iruditu zait, baita txapela bera ere, berau betetzeko bururen bat urpetik agertzeko zain. Traktorea Saiunen bere lekuan utzirik, ez dakit norentzat, etxerantz oinez nator, normaltasunaren oasiar jabetzeko ahaleginean. Abere aska berriak eta lehendik libreak bereizterik ez legoke, batzuek suspikaziaz (gorrotoz?) begiratu ez balidate. *Zer gura zendueen, ba? Askak jaten utzi zengidazela?* Beharbada, ez didate barkatu nahi bueltan honen lasai etor nadin, euren haragoko espezie amaigabeak bertan behera utzita, zeintzuen masa korala, distantziak miragarriro enpastatua, berdin uler daitekeen marrumeria premortaltzat zein auheneria prenataltat. Ez legoke zorionaz dudatzeko arrazoi objektiborik, horrek ere, sarritan, errorez etortzen dakielako ez balitz, hala-nola, oso-osoan esertzera zoazen gorputz abailduak huts eginik, aulki ertzak barrearen hezurra harrapatu dizunean, zeina zerbaitegatik den luzapena paraje horretan sakroa deitua izateko umorea daukanarena, beheratxoago sakrofonoa dagoelako, beharbada. Atartearen ahalik barruren esertzeak beroa eta argitasun biziegia leuntzen dituen bezala, Udalatx eta Anboto gotorren arteko delineazio suabera begiratzek badakit gorputza eta kontzientzia pausatzen lagunduko didala goizeko lan gogor baino gordinagotik, krimen bat edo beste barne. Batzuetan, jabaltasun handia ematen du, plazer bihurtzeraino, immutableak immutable darraiela ikusteak, edertasun gorena tautologia izan daitekeela sentiaraziz. ‘Ni naiz ni’ sinesten duenak zertarako behar du zirkunstantzia pendejo hori? Lehen ere, atarte honetatik ez nau gutxitan salbatu izan honako hasperenak: *Anboto eta Udalatx hortxe jagozak, behintzat!* Tautologia izugarria, izugarriro asegarria, nondik edertasunera ñabardura sentimental bat besterik ez dagoen. Horiek hor direno, hor konpon izar begiluzeak, ezpada txortxorrak.

.....

Dutxa on bat eta bazkari-lege oparo bat goizaren erremate dohatsua izan daitezke, irabazi ote ditudan inolako kezka gabe. Zorionez, otorduak hemen utzita joan dira. Ogi txigortuaren gainean, urdaiazpia, gazta eta menbrilloa. Ezta ere hemen da, latz zuriska. Arrautza gordin bat zurrut, umetan behin edo behin lortzen nuen bezalakoa, epel-epel, oiloaren uzkitik hara, geroko utziz gero, ondo kontaturik gelditzeaz gainera, denak giltzaperera joango baitziren. Gurean, institutu batean baino giltza gehiago egongo zen, denak uhartuak eta banan beti, elkar ezin ikusika jolasten bezala. Ahaleginez baino kasualkiago, nonbait gau-mahaiko giltzagaz topo egiten bazenuen, barruan beste

kutxatila giltzatu bat aurkituko zenuen, aitaren gemeloekin-edo, baina inolako lorratzik ere ez non egon ote zitekeen txokolateak-eta gordetzen ziren komodako hirugarren kaxoiaren giltza. Beharbada, ama oheratzean, aita giltzapetu izan balute, ez zatekeen hainbeste giltzaren premiarik izango. Zorioneko kaxoiaren giltza aurkiturik ere, ezin zen itxaron irekitzea eginda egongo zenik, zuloa txalupa nekatuaren toleta baino nasaiago aurkituko baitzenuen. Ez zen gutxiagorako, osatzen ziren aukera bakanetan (amarentzat ugariegietan) erabiltzen genuen presaz eta joranez. Lorpen brusko batek hurrengo irekiera zapuzten zuen. Horretan, giltza eta maitasuna berdinak dira, bigarrenean akatsa errazagoa izatea salbu.

Giltza ezkutuen pozean, eta beste hamaika pentsakizun tarteko, etxean bakarrik gelditzeko izan ohi nuen irrika menperaezin hark ez zuen nahitaez denbora luzerik behar. Nahikoa zen ama iturrira aldentzea, *zueri agintzea baino norberak egitea gitxiago kostatzen dok* marmartuz, neuk aurretik eginda eduki beharreko lan hartan, *bildur naz ilunetan bakarrik joaten* aitzakian mukertu nintzelako. Aitzakia sinesgarria, baina gehienetan gezurrezkoa. Niretzat gaua, neure territorio barruan, beldurgarri baino gehiago zen lagun, batez ere, amaren ausentzian, nire buruan asmukeriaren bat bazez. Orduan, egun argitan baino haren zalantza horiskan bilatzea askoz zirrargarriago zen kriseiluari berehala helduko nion, nahiz eta, denbora gaizki kalkulatu bide, amak, sarritan, martxan harrapatuko ninduen. Haurraren denbora hain da bizkorra eta betea ezen, batzuetan, bost minutu ordubete iruditzen zaion moduan, beste batzuetan, hasierako kontrol prebisioak bideko zirkunstantzia berri infinituen artean ezabatzen zaizkio. Gure amak ez zeukan, ni zerbaitetan harrapatzeko, etxeraino iritsi beharrik, nire malezia oraindik xumeak ez baitzuen diskurritu argiak etxe barruko ibilera kanpotik sala zezakeenik. *Zertan hembilen osteko gelan?* hark galdeturik, *txakurrak gora eskapatu deust* edo antzekorik banerantzuen, *hori be asmatu al dok?* formula jakinaz adieraziko zuen bere ez-sinestea. Neuk ere, ordea, malezian aurrera eginik, bera zaintzen hasi nintzenean, harroki deskubritu nuen, batzuetan, iturrirako plantan, etxe alboko horma kontran gelditzen zela, zer mugida egiten nuen zaintzen, bueltan *formal habil?* galdetuz sartzeko, nik baiezko goresletzat ulertzeko tonuan. *Inozentea nazela pentsatuko dozu zuk*, barre egingo nuen neure kautan, nire malezia aurreratu ahala, hark beste malezia batzuk garatzen ikasi ez balu.

Kontua da ezen kriseiluaren argitxo hura, eskuan distantzia batera, arropen ez su hartzeko edo ke-txorro belzkara sudurren paretik apartatzeko, elefantekumeak tronpa altxatua hartaz liluraturik bezain kontuz-kontuz eraman ohi nuena, orain, lan endredoso baten aitzindari baino gehiago, neure izatearen hats gisan gogoratzen dudala, gar forman kanporatua. Nire arima bisiblea, neu nintzen etxe-gorputzean prezeditzen ninduen. Gero, argindar desiatua iritsi zenean, kriseilua ez zen jarraipenean tematuko, ezta kexatuko ere trepetxu inserbibleen hauts-erreinuan ahaztu genuelako, handik urteetara, kontzientzia antigoalista batek funtzio sentimentalaren batera aska zezan. Baina, beharbada, substituzio harek eragingo zuen xumetasun ibiltari hura denborak edertasun paregabe bihur zezan, nondik ateratzen den edertasuna ez dela aurrerapena bezalako abantzaera, bakoitza osorik gelditzen den edertasunen segida baizik. Artearen eboluzioa ere baliteke ez izatea lehenago ahazturiko espresioen berraurkitzea baizik, nahiz eta, aurkitzaileak diferenteak izanez gero, denak izan berdin aurkitzaile. Baliteke etorkizunaren figuratzailea ez izatea iraganaren akumulaziotik elikatzen den kontzientzia baino. Gelditasuna da kontserbatismo bakarra. Mugitzen garenean, ez dago argi aurrerantz, atzerantz ala alborantz dihardugun. Atzean uzten duen guztia errepikatuz doan linearik ezin kontzibitu izanak sortaraziko zuen pentsamendu zirkularraren ideia.

Kriseilu-argia, etxe barrutik gau-bizitzaren sintesi hunkigarria bazen, kanpotik ez zen gutxiago. Amamarenetik etxerantz, putzu ondoko ataka gainean, hontza langan bezala eserita gelditzen nintzenean, labe garaien horizonte osteko gorrinahi urrunaz eta izar mehatzen ñirñir inperzeptibleaz beste argirik inon ageri ez zen iluntasun ia totalean, etxeko izar txikia, bera ikusi ez arren, leihoetatik kanporatzen zen argitasunak segiarazten zuena, emozio presentearen eta

gogoratzearen zorion futuroaren motibo direktoa zen. Argia martxan aurkitzea komeni zen, geratu arte zain egoteko, sukaldean geldi bazegoen, ez baitzenekien afal aurreko lanak (ukuilukoak, artazuriketak, leka-jotzeak, zeintzuetan nire argimutil lana behar izan zitekeen) amaiturik ala hasteko zeuden. *Arin etorri, argi-lanak egiteko* berariaz agintzen ez bazuten, berandu itzultzeko baimena neuk ostu beharko nuen, horretarako askatasun espliziturik sekula ez baitzen izango, ekinak ekin arren. *Neuk gura dodanean itzul naiteke, beraz? – Sasoi izultzeko esan deuat*, zehaztuko zuen gehienik ere amak, sasoi zer zen inoiz garbi ez ulertzeko moduan; batzuetan afalordua, sarritan urtea, inoiz aspaldiko aro oso bat izan zitekeen. Inoiz ez zen izango *gaur etor heinteke berandu* delakorik, salbuespenak araua jaten hasteko tentaziorik izan ez zezan. Edo egintzarik alaienari ere zerga penitentziazko baten abantaila prezeptatzeko ahala suposatzen zitzaizkion inkulkatzen zutelako zirkunferentziak nahikoa duela moztura txiki bat, bere izaera geometrikoa gutziz galtzeko. Kontrol osoaren konparazio enpagoso bat.

Hontza bezala eseritako ataka gain hartatixe sentituko nuen, ohartuki ez bazen ere, edertasuna komenentziaren ondoan nabariago izaten dela. Zenbait gautan, apur bat laino zegoenean, batez ere, argiaren ibilera beldurtuak berak, iluntasuna igarkabean korritu nahi balu bezalakoak, abstrahitzen, distrahitzen ninduen argimutiltza gogaikarrien arduretatik. Bederatzi ate-leihoko aurea eta ate eta leiho bakarreko ezker alboak erakusten zizkidan etxea argiagaz batera mugitzen zen lainoaren barruan, ez ontzia ur eraginean bezala, lainoak ezabatzen baitzuen etxearen flotazio-marra izan zitekeen lurra, baizik garabi inbisibletik eskegita erakuts zitekeen maketa bat naturalean bezala. Etxea planeatzen imaginatzeak ikara damait, segurrenik, igeri ez dakidalako, aireak eta urak elkarren zerikusirik handirik ez duten arren. Baina ez dakit zergatik iruditzen zaidan urean baino hobeto moldatuko nintzatekeela airean, hemen neure berezko zoru dudana lurrera jausiko nintzatekeela sentitzen dudalako ez bada.

Lainoak areago moteltzen zuen argi berez ere hain hilean, etxe osoa ikusterik ez zegoela jakin arren, osorik ikusten darrait, batzuetan balantzada bortitzagoan, laino-kolpeek eragindako irudipenez, nonbait. Eta argiak, sukaldean geratua zela igarririk ere, mugitzen darrai, hori ere, baliteke, laino mugikorren figurazioz. Eta lainoagaz etxe osoa mugitzen da, nahiz eta oso era ezberdinean. Teilatu geldiarenean azpian, horma kantoioak perretxiko txurtenak bezala arkitzen dira, paralelotasunik errespetatu gabe. Bazen une bat, non zer zen ez nekien (beharbada, gauaren immensitatea) barne bulkada indartsu batek gertaera heroiko batean nengoela sentiarazten zidan; non, argi-lan ingratoak ekiditeko bihurrikerian geratu nintzela ahazturik, argitasun ager-lotsa hartan neure arima aitortzen zuen etxeaganako gutizia mistikoak denboratik kanporatzen ninduen, harik eta ama, atariko atea *non arrano sartu ete dok mutiko barraban hori?* marmarka irekirik, *Xabi! Xabier!!* deihadarka hasi arte. Neuk ere, *ene ama!* marmarturik, *banatooor!!* erantzungo nuen lazki, bokala azentu nabarmenean luzatuz, amaren inpazientzia haserre-hurrena desarmatzeko, derrigor ernegugarriren batetik nentorrela pentsarazteko moduan, haserrean ere aurea hartzeak goia hartzea ekar dezakeelako trikimailu ingenioso baina frogazailan. Gaua zeharkatuz, eta argitxo hark baino ez gutxiago, hanka artean tratatzen zen txakurrak (*bota behar nok! zapaldu behar haut!*), nire bakarbide guztietako kolega inoiz nahi gabe inprudenteak gidaturik, osoa ere luzeegia ez zen afari erdian iritsiko nintzen mahaira, porru-patatak amaitzetik talo-esnera bitartean. Denok ontzi beretik jatean, ama falta zenarentzat uzteko agintzen ahalegindu arren, senide artean ez zen bakerik izaten erretilua garbi utzi arte, aitak ere expropiazioan laguntzen zuela, *berandu dabilenarentzat kontzertua!*, koilareen hondo-arraskatzeek ateratzen zuten estridentzian. Hortzak ahalik osoen erakutsiz, protestarik bizienak (*ondo dago! hurrengoan neuk be horixe egingo deutsuet denoi!*) esperantzarik txikienez egingo nituen, labur beti ere, porru-patatena talo-esnean errepika ez zedin.

Denboragaz, haurtzaro eta gaztaroko adimen txundigarriro espantsiboaren abentura fisiko-intelektuala burutu edo baretu zenerako, nire putzu ondoko langan emozio begirataile baten

ikusbizuna bakarrik geratu zen, zenbaitek Izuerriko itsuskizun mamuzko bat hautemango lukeen argitxo ibiltari harengan edertasun hilezkor bat atxikitzen duena; baita, halaber, zailtasun kasik gairdiezin bat ere, jauregi bateko argitasun desbistagarriaren estatismoa edertasunagaz asoziatzeko. Hortik susmatzen dut edertasuna ez dela ez sortzen ez desegiten ez den materia jarraikor bat, baizik emozio-iturri ordeztuen estela imaginarioa, non, bestalde, arteak ezin duen bere isatsa hozkatzen duen arraina besterik izan, ordezte suabeen edo hautsien zelaiak, dohatsu zein miserableak, bat bera izaten diraueno.

Behinolako kriseiluaren ebokazio nahikoa fidela den estraktoreko lanparatxo horrek ginetik kendu ezin duen iluntasunetik irudikatzen dudana Anbotoren Harri Aroko adoratzailea eta ni ez gaitzke hain diferenteak izan, auzia ez baita hainbeste guk Anboto nola dakusgun, berak gu nola gakusen baizik. Bere garapen maila gorabehera, ez dirudi adimenaren handi-txikiak emozio ahalmenagaz dependentziazko zerikusirik daukanik. Antzinakoen eta gure aurrekoen, eta eurongandik gentozenon aroa, nahiz oraindik irrazionala, behintzat, dominantea zelakoaz harrotzear nintzela, tentazioa laster ezabatu zen, hegazkinetik dena oihaan homogeen eta hiri gautarra sumendi itzal-hurren iruditu zitzaizkidanean, eta aurrerapenaren independentzia arrogatzen zuen espaziontzitik bola irrelebante bat besterik ikusi ez nuenean. Orain, berriz, hortxe utzi dituk animaliak, asko pozik, batzuk tristerik, gehienak ez duk pentsatu nahi nola, beharbada, diferentzia segur bakarra izateraino ezen adimen-garapenak zoritxar-gaitasuna handitu duela, zeina ez den oraintxe nire kasua. Bazkari kapritxosoa egin behar dut, handiena ez bada ere.

Hozkailuan lehenik eta despentsa osoan gero, ikusmira xehatua ari naiz: olibak, atun-latak, sardinak, antxoak, gaztak, menbrilloa, eztiak, lukainkak, arrautzak, urdaiazpia, bakailao gazia, gailetak, pikupasak, mahaspasak, melokotoi-, okaran-, mazedonia-latak, platanoak, mahatsa (seminariotik etxeranzkoan, isilean erosi eta, behin, behintzat, guraina jateko ekarri ohi nuen ametsetariko bat), izenetik barruan zer daukaten igartzen ikasi ez dudana latak, hau utzi, bestea hartu, *ez, hau ez, hauxe ez joat aspaldion jan, baina hau be!, tirok, batzuk utzizak bertan, ño!, urdai gihartsu hauxe!, dagoen beroagaz zelana hasiko haz urdai jaten?, gauza bat egingo joagu, begiak itxi eta bistan geratzen denari heldu, baina denak geratzen dira bistan, neu, neu, neu!* deihadarka eta saltoka, lurrean eserita ipuinak entzuten zeuden ume mantsoak, *nor dator nigaz zaldi gainera entzunda, esku eta hanka ia parean jasoz, neu-neuka jauzkatzen ziren moduan. Orduan zerua menbrillo-jan eternoa bazen, despentsa hau zer izango ete zoon?* Prestakuntza zehatzik erabaki ezineko ukitze-mukitze amaigabe hori bazkaria bera baino gozoago ez dakit, baina gozagarriago izaten dela esango nuke. Sekula aurrekoan baino gutxiago dohatsu izaterik gertatzen ez zaidan konprobazio ia sentisualen, mundu zabaleko gosearen gomuta inebitableak miseriagaz bat egiteko tristura puntu baten ahogozo erantsia dakarrela, ezin dut despentsan sartu, nire barruko umeak ez-sineskor bezain jorantsu, eta ia eskusiban begiratzen jarraitu gabe. Ukitu, hartu, utzi, igurtzi egin behar du errealitatea, oraindik umearen baitan kimera bat izaten jarraitzeko bizioa daukana.

Orduan ere, batez ere bazkalorduan, etxean bakarrik aurkitzeko irrikatzen egoten nintzen. Oraingo komenentzia zerguraren faltan, abenturarik konpletoena zen bera, hots, urritasunaren edo gose-puntuaren sormen inparablea, denboraren abiadura bertigozkoak gozamenaz ohartzeko astirik ematen ez zuela. *Bazkaltzeko hor daukak...* proposatu guran hasten zen amari, *ez, ez!*, moztuko nion berbertan. *Nik nahikoa dot txokolatea eta ogia.* Nahikoa izango zen, bai, amak ohi baino ontza bat gehiagoko txokolate zatia utziko baitzidan azpirako arto gainean, hau nahi adina jateko askatasunez, baina eginkizun batzuen truke:

– *Eguerdian txarriari osala emon, hor daukak aska aurrean prestatua. Behiei bedarra eta txahalari sekulabedarra bota. Gauerako abarrak ekarri eta txikitu. Eta ez ibili bazterrak endredatzen. Goiko geletara ez igon. Txahal txikiagaz ez jolastu. Segari ikuturik be ez. Surik ez egin.* –Eta arrosario

amaigabeari azkena emanez—: *Arrasti erdi inguruan (bai zehaztasuna!) bueltatuko nok, eta ikusiko joagu zelan portatu hazen* —saria ala mehatxua zen ez igartzeko tonuan.
— *Lupua nazela uste dozu ala?*

Benetan haserretzen nintzen, dagoeneko gozaten hasia nintzen plan-asmoak amaren prebentzioekin zerikusirik ez bailuen. Plana oraindik zehatza izaterik ez zen komeni, zehazte huraxe baitzen gozamenaren parte nagusia, nahiz eta asmoa finkoa izan. Aginduetan, egurra ekartzeko eta txikitzeko azken orduko arrapalada ez ahaztua, baina bai gogoratzen gutxi ahalegindua eta erdizka baino betea izango ez zena salbu, besteek nire gizon-grina gainez asetuko zuten, hala nola, txerri eskandalosoa, bat-batean isilarazi ez ezik, mantso-mantso etzanda, kontsolaturik ipiniko nuena, izarrak artaburu jantzita gaineratzen diren lo zurrunkarian, txerriaren kasuan, kurrunkarian; edo niretzat orduan animalia erraldoiak ziren behiak, askak apurtu beharrean, beldurgarriro artegatzetik belar-jate lasaira aldatuko nituena, farra-farra, saski gaisetuk, bestela ez bainintzen iristen, garondoan azkura egiten eta adarretan ukitzen uzten zidatela.

Eta, batez ere, eta horien denen gaisetuk, nahiz eta horiei esker, etxe-jaun nintzen. Bere azpian hartzen dituen abereen, lurren eta territorioaren, etxeko ausente guztien eta bere buruaren beraren berme eta jagole sentitzen nintzen, aitaren prakak janzteak gorenera jasoko zuen sentipena berau. Euretari galduta aurkitzen zen eta gerrian motroilotu beharreko prakak nasai haien barruan ozta lokalizatzen zen gizontxoak Jainkoaz hurrengo inori ez zion zorrik, nahiz eta hori areago izan zitekeen egia teatrala, errealitatea baino egiazkiago sentitua, agian, baina ez, antza, hain konsistentea, kostatzen baitzitzaidan prakak luzeekin bidera irteten, auzoren baten edo pasaerako ezezagunen baten itaunei erantzun beharrik ez izatearren. Hala gertatuz gero, urguiluz egingo nuena, noski.

— *Ama non jagok?*
— *Bakarririk nago etxean!*
— *Etxalde guztian?*
— *Guzti-guzxtian.*
— *Ez al haz bildurtzen?*
— *Bildurtu zergaitik?*
— *Ijitorien bat etor daiten edo.*
— *Gurera ez da ijitorik arrimatuko, ni hemen nazen bitartean* —ager balitez, non ezkutatu pentsatuz.
— *Behiak non darabilzak?*
— *Gaur askan gobernatu behar dodaz.*

‘Gobernatu’ hitz borobil hori behien euren hausnar-kolpea bezala etorri zen ahora, hortik kanpora jaulkitako bola leunduan ezkutatuz ezen nire gobernu-lana askaurrean prest-prest zegoen belar piloa botatzea besterik ez zela izango, eta besadak urrundik entseiatuko nituela, erdietan leihorik ez azartatuz, behi antsiosen desesperaziorako.

— *Joño!* —txundituko zen edo planta egingo zuen auzoak, edo bidazti ezezagunak—. *Horrelakoxe morroiak falta egiten jok gurean.*
— *Nik, morroi barik, ugazaba izan gura dot.*
— *Orduan neuk etorri beharko joat zuenera morroi.*
— *Gaur ez, behintzat!*

Larri-puntu bategaz esango nuen hori, ez zedin gerta ezen, premia orduan elkarri laguntzeko auzo-lege immemorial eta beti gogozkoaren arabera, obligatuago senti zitezen, inork eskatu gabea izatean, nire ustezko fragilitatea babestera, eta, bidez batez, etxekoen ederra irabazi, jakinik gero

entzungo zutela: *Ez zeunkien horrenbestean arduratu beharrik, baina estimatzekoa da.* Orduan amorrua bainoago erremina emango zidan justifikua erantsiko zuen, inguruan oro-belarri egotea gustatzen zitzaidanaren burua txeratsu astinduz: *Ez dakit zer emoten eustan etxalde guztian mutiko txairo hau bakarrik zegoela pentsatzeak – Neuk errua, behar ez diren harrokerietara urtetearren!* –damutuko nintzen alferreko erneguan, baina egun hartan ez zen halakorik gertatuko, ez baitzen bideetara irteteko astirik izango.

- *Zeri egiten deusak barre?* –galdetu zuen amak, egitekoen artean ‘oiloa zaindu’ aipatu zuenean.
- *Oiloa zaindu? Arrautzak ostu eta kaka-piloak egin daizen?* –jaurti nuen, ‘Oiloa’ gaitzizenez ezagutzen zen atso sorgin famako batez gogoraturik, zeinari behin, behintzat (arrautza adina sagar berde osten ei zuen, batzuen enpatxutik besteen zirineriaz libratzeko), lortua nuen eguzki-lore beltza ikustea, bel-beltza ere ez zena, gaztaina-ipurdiaren xurailgune bategatik izan ez bazen.
- *Hori hurrengoan. Gaur etxekoa zaindu behar dok* –zehaztu zuen amak, burua alboratuz, barrea disimulatzeke.
- *Egun guztia egin behar al dot oilo txatxala bat zaintzen?* –hasi nintzen muturtzen, oilo kanpoerrulea zaintzea baitzen nire kalbarioetariko bat.
- *Ez egun guztia! Errutera doanean bakarrik.*
- *Zelan jakin behar dot noiz errun behar dauen?*
- *Badakik! Atzamartxoa ipurditik sartuta.*
- *Baita pitilintxoa be!*
- *Zer esan esan dok? Ea esaik barriri! (belarria bihurkatuz). Zein zertxo?*
- *Haxe!*
- *Haxe? (beste buelta bat belarriari). Haxe, zer?*
- *Zuk ez daukazu bat!*
- *Ez, eztok? Eta zergaitik ez mihin zikin horixe?*
- *Ba, bai! Zergaitik ez?*

Mutiko baten bihurrikeria mental bat besterik izan ez zena laster jakingo nuen egiazko lizunkeria ere izan zitekeela. Bitartean, oilo itzurtia bezperan zarepean gordetzen zen, biharamunean behar zen orduan askatu eta non errutera zihoan zaintzeko. Beharrezko ordu hori arrautzaren irten-zoria zen, eta hori jakiteko, tarteka, hatz txikia sartzen zitzaion uzkitik, oparia urrun ala hur zen kalkulatzeko. Arrautza oraindik barru samar bazetorren, oiloak zarepean jarraitu beharra zeukan, puntura iritsi arte. Batzuetan, itxaroteko astirik izaten ez zelako, edo ordu desegokian, bazkalorduan, esaterako, etorriko zela kalkulatzeko zelako, gatz apur bat ematen zitzaion txuringan, haren azkura biziak habiara arin eroan zezan, arrautza bazetorrelakoan. Txatxalatatzat bezain mamalatzat, eta ilunetan, inultiltzat, kontsideraturik dagoen oiloa, ostera, trebea da, argia ere bai, atzea ezkututzen, zaindurik dagoela susmatzen dueneko, zera berehala gertatzen baita, hur samarretik jarraitzen bazaio. Orduan engainu tekniarik subtilenak erabiliko ditu, itzulinguruak edo sasipealdi luzeak, galdu zaizulakoan alde egin dezazun; kakara aurreratuen seinale faltsuak ere bai, hantxe errun duelakoan, inguru hura miatzen duzun bitartean, bera beste puntan dagoen benetako habiara ezkutuan hel dadin; eta zuri, hainbeste denboraren buruan, atzera etxera itzuli eta berriro hutsetik eta ez berehala hasi beharrak bertan behera utzaraz diezazun egitekoa, zeren bigarreanean arrakastatsua izango dela sinesteko arrazoi bat gutxiago baitaukazu, oiloaren oroimenean lehenengoaren esperientzia garailea berriegi dagoenez gero. Horixe guztia egingo dizu, hurretik jarraitzeko tentaziorik izan ez dezazun, ondo baitaki jarraipen distantea, ira, inar eta nolana hiko sastraka ugariko pinadian, usterik gutxienean saihas dezakeela. Behin oiloak, hurrengoan behiak, edo txerri, asto, txakur eta beste etxabere zein basapiztia ugari bide zela, umezaro guztia senagaz teman igaro nuen, zeina, asean mantso, gabezia-maila batek lagundurik (hori gurean ez zen falta), adimenik argienez ere menperaezintzat jotzera errenditu behar izan nuen. Hortik deduzituko nuen, handik urteetara, iraultzen ere aurrekari ez dakit bakarra baina bai ia eskusiboa miseria-maila

konpartitu bat dela, sena orokorra baita, eta adimena indibiduala, berau ere haren luzakin bat besterik ez bada. Naturari ez dio ardura adimenaren porrotak, senaren garaipeak baizik.

Gehienez pazientziak eta inoiz zorte soilak aurkiarazten zizun habia arrautzaz betea, behin edo behin, eta mirari gisan, oiloaren atzetik txito bihurturik itzuliko zen etxera, erdiak hilda bazen ere, hiru asteko ausentziaren ondoren, gure amaren pozerako eta senideon lilurarako, zaila baita haur bati hain ikuskizun xarmantik agertzea, nola txito aldra bat oilo amaren inguruan, edo amamaren, nork jakin, alabaren arrautzez baliatu bazen. Gehienetan, ostera, ezkututzen zen oiloaren arrautza preziatuen, beharbada dozena parearen, probabilitaterik handiena galtzea edo piztiaren batek jatea izango zen, garaiz aurrea hartzen ez bazitzaion, erremedioa ez baitzen errule kanpozalea zarepean edo oilategian itxita edukitzea, aldeko arrautza derrigorrean entrega zezan, baizik, eguneko berriaren bitartez, lehendik errunak zituenak aurkitzea. Amak ‘zaindu oiloa’ esan zueneko nire barrearen benetako arrazoia hiru egun lehenagokoa zen, non, noizbait ere, pinu-orpo kurioso disimulatuan, bederatzi arrautzako altxorra aurkitzeko oilo-zaintza fortunosoan izanik, aurkikuntza ezkutatzeko maltzurkeria izan nuen, handik hiru egunera etxean bakarrik geratuko nintzen prebisioz, hain zuzen. Barreak apur bat traditu baninduen ere, prebisioak ez zuen hutsik egin, hain maite nuen ekintzen konplexutasunari denboraren luzetasun harrogarria erantsiz, zeren, orain konturatzeak berriro eta dobleki gozarazten didan moduan, nire atsegin nagusia, egintzan bertan baino gehiago, aurreko plangintza aldeanitzean eta, ez gutxiago, ondorengo ezkutatzeko plazertsuan zetzan. Egintzako bertako gozamina, ukaezina, noski, nahiz eta luzeenez ere, bizkorregiagatik laburra, gehiago zen irudikatua gauzatzen ari zela konprobatzearen entusiasmoa, ondorengo ezkutatzeko guztiz ezin garantizatuaren zalantzak kitzikatua.

Oraingo despentsakada eskura izan banu, baliteke litxarrerriaren tentazioan jausi izana, nire begiek eta listu-guruinek laster moldatuko baitzuten argudioa ezen, asmakuntza konplexuetarako, bazela beste hamaika aukera, aurrean neuzkan janari kasik imaginaezinei joaten utzi gabe. Zoritxarrez, ez zegoen halako komenentziarik, baina baziren arrautzak eta beste zenbait jenero, eguna, plangintzak hurrengoetara eta oroimen inpuneak aurrekoetara luzatua, egutegi fantastikora erantsiko zutenak, non nire umezaroko data askok abiadura jostarian, bibrantean darraiten betiko, sabanako bazkan pilaturiko animalia aldren gaintetik (mugimenduak gelditasunaren gaintetik dirudi beti, berau delako haren euskarri), begirada geldiezintzen dizuten kume jauzkariak bezala. Nik egin behar nuenak, amaren debeku gehienak hautsiz gainera, izenak iradoki zezakeena baino (‘patata-tortila soil bat’) askoz konplexutasun handiagoa zeukan. Lehenik eta behin, ez nintzen, ama joanaz batera, txokolatea jan eta artoa txakurrari emateko tentazio indartsuan jausi, bazkaria beste era batera pentsatuta neukala-eta, ez zedin gerta ezen, mundurik txikienez ere sortzen diren ustekabe ugarietariko bategatik, ama lehenago itzuli eta ni bazkaria goiz erdian janda aurki nintzan. Horrek zer bazkari modu egiteko asmoa neukan susmo gaiztoa piztu izango zukeen, eguna bera ez bazen, okasio berriak honda zitzakeena, zeren, zer garbirik ez arren, isil-planen bat bazelako usainak amari prebentzio zorrotzagoak harraraziko zizkion hurrengoan, esaterako, ehun metrora bizi zen amamaren ardurapean dena uztea, etxe, etxalde eta neu. Amama maite nuen, baina halako egunetan ez.

Hiru egun lehenagotik aurkitua nuen habiatik, hamar arrautza oiloa bera bezain gorri jaso nituen, azken erruna zen hamargarrena (edo hamarretariko bat, nire sena ez baitzen iristen aurrutza piloa sortze-egunen arabera sailkatzeraino) habia-saritzat utzi ala ez dudan egon ondoren. Denak etxeratzea erabaki nuen, habia apurturik, ea oilo kanpo-errulea etxeko habietara errenditzen zen, harako arriskura itzultzeko bazen ere: *Nekaben la puñeta, hau dok miserie, arrautza bat eukita, bera habi-sarie*. Hamar aleko zapikada kurioso-kurioso zabaltzean, amari jaulkiko zitzaiokeen goramen harrogarriaren ordezkari *–hau dok arrautza piloa dakarraana!–*, dozena erdi bakarrik ikusteak esanaraziko zion *honeek bakarrik eduki jozak?* arrangura edo intsinuazio mingarria

aurreikusteak ez ninduen lau arrautza apartatzeko ausardiatik atzeratu, hainbestekoa ere ez berau, ezinezkotzat jotzen bainuen susmorik direktoena ere egiaztatzea, oiloak euren ibilerak kakaritzen edo besteenak salatzen hasten ez baziren. Lau arrautzak armairu gainean erakusketan bezala lerrotu nituen, ukitu gabe amak, plazara eramatekoen artetik ondotoxo kontaturik, etxerako utzia zuen dozena erdiari, bisitaren bat etortzeko kasuan (inprobablea, baina, arrautza gabe gertatuz gero, lotsagarria), otamen duin bat atera ahal izateko. Salduen truke, hain premiazko zen diru apurra ekarriko zuen, edo plazan bertan gastatuko, etxerako jenero oinarritzkoetan, azukre, olio, arroz, garbantzu eta abar. Normalean, niri edo beste senideei betearazten zigun patata otzareari ere ez nion ukituko, ez hutsunerik igartzea ekiditearren, ganbarara igotzearen zirrarakatik baizik: hango patata pilo zabal-zabalean, beti 'egun handietarako' utzi behar ziren alerik ederrenak atseginez hautatu ondoren, museozko teilatupearen gaineko nagusitasuna gozatuko nuen. Patatok ere, arrautzen ondoan, erakusketan geratuko ziren armairu gainean.

Bazen ustekabe bat, konpon-zaila zirudiena. Erdi hutsik agertu zen botila olioari (besterik ziur ez zegoela etxean, horixe baitzen plazatik bueltan etorriko ziren jeneroetariko bat) nola kendu patata pilo handi bat samur frijitzeko pentsatzen nuen adina olio, amak bueltan berehalaxe igartzeko arrisku gabe? Bazen irtenbidea ere, erraza: urdai koipea. Zailena gatzunaskako harriak eta oholak apartatzea eta, gero batez ere, urdai pieza handiari zati eder bat kendutakoan, dena berriro lehengo moduan uztea izango zen. Behin edo behin, oso bakan irekitzen zen gatzunaskara makurturiko amaren haserre-deihadarrari (*nor ibili dok hemen?*) nahikoa nuen *aita izango zen* erantzutea, hau ere urdaizalea izaki. *Aita? Aitakumeak be badabilzela esango neukek hemen!* Artean, oster, denbora luzea joana izango zen eta, estuenean ere, ez nintzen aitakume bakarra.

Tresnak aterako nituen eta hauek ere nor baino norrago geratuko ziren, zartagia txapa gainean eta portzelanazko plater sakona hornilo gainean, barruan zituela aiztoa, sardexka, bitsadera eta zurezko koilara; hau ez dakit zertarako, baina gustatu egiten zitzaidan. Amak abereei jana ordu batean emateko agindua zidana aurreratu egin behar nuen, gero neure zeregin nagusiak, tortilagintza eta tortila-jana, era batera eta beste ezeren ardura gabe burutu ahal izateko. *Eta abarrak oraintxe ekarri eta txikituta utziko baneukezak? Orduan dena lasaiago egin ahal izango neukek.* Pentsakizuna etorri zen, baina laster alde egin zuen burutik. *Egunaren onenean ez nok hasiko beharrik gogaikarrienenetan.* Parte txarreko zerbait erakar zezakeen irudipen negatibo hau laster zuzenduko nuen, erabaki eskuzabal eta guztiz sinetsian: *Orain erdizka ibili beharrean, arrastian doblea ekarriko joat.* Promesa, egun hartan eta antzekoetan, betetzen hasi ere egin gabe harrapatuko ninduten sarritan, neure adinari zegozkion lanetarako inoiz ez bainuen presarik hartzen. Beti lanpeturik zebiltzan nagusiei gehien entzundako arrazoia aterako nuen neuk ere: *Ez dot astirik izan! – Astirik ez? –erasoko zuen amak–. Egun guztia zertan emon dok, ba?* Orduan nire asmamen oraindik ez hain errealistarentzat lan zaila zetorkeen, ia dena libre utzi zioten eguna zeregin sinesgarriz betetzen.

– *Goiz guztia oilozain egin dot, ez eban habiara joan gura eta.* –Hori argumentu handia zen, arrautza bedeinkatuak ere hantxe baitzeuden ekarriak, denak ez baina–. *Gero, txahalari askatzea otu jako. Ez dakizu zelako komediak egin behar izan ditudan barriro lotzen. Gero, hara non ikusten ditudan Etxanosoloko ahuntzak geure ortuan. Ezertan hasi aurretik atera ditut, baina, barriro sartu ez zeitezen, itxitura konpontzen deabruarenak egin behar izan ditut. Gero zer da kontua eta Torreburu Zaharreko lehengusuak be orduantxe etorri dira, eta bakarrik nengoela jakitean, ez eben alde egiten. Hareek be ez nituen egurretan ipiniko, ezta?*

– *Ondo jagok!* –moztuko zuen amak, hark bai, segurrenik, benetako astirik ezagatik, egun-zati luze samarra kanpotik egiten zuenean, bueltan dena egiteko aurkitzen baitzuen–. *Esaik lehen ekarri ez doana oraintxe ekarriko doala, eta eginda.*

Beti dudan geratzen nintzen, amak nire aitzakiak benetan sinetsi ote zituen, hala zenean ere, mesfidantza erakustea zuhur-lege baitzen, etxe bakoitzean pilatzen zen umeteria konfiantzatic menperatzen saiatzea, ilusorioz gainera, immoralala ere izan zitekeen garaietan. Gezurra ere pekatua zen, noski, eta ez dut uste ume gezurtia nintzenik, baina larritasunen batetik libratu beharrak nire nahimenaren gaintik asmatzen zituen arrazoiak ezin nituen gezurtzat jo, derrigorren obedentziatzat baizik. Gerora ohartuko nintzen kinka haiek asmamenaren garatzaile emankorrak izan zirela, ez, segurrenik, unea bera onez gaingitu zutelako, baizik larriuneak, gero, lasaiunea pentsaketa prebentibo zorrotzean ipintzen zuelako, hurrengorako argumentu sinesgarrien bila, hortxe baitzegoen gakoa, hots, errazegi igartzeko fantasia infantilean edo fikzio helduan jausi gabe, asmakizun errealistak izatean, zera, bestalde, haurren buruentzat ez ezik, handiagoentzat ere oso zaila den, artistak barne. Badaezpada, azken hitz potoloak neureak izango ziren: *Zer uste zenduen, ba? Egurra ekarri barik geldituko zela? – Tirok, ba, ikusiko joagu* esanez alde egingo zuen bistatik amak, hura konforme, neuk uste, eta ni ernegatu samar, egurketa goizean eginda edukitzearen jaregintasunaren orde, orain soka triste bategaz heldu behar niolako txakurrak ere lagundu nahi izango ez zidan lantegiari.

Ez dakit nola ez dudan orain arte aipatu sekula bakarrik egoten uzten ez zidan txakurra, inoiz baino pozez gerakaitzago, ama astoa prestatzen hasiz batera usnatzen baitzuen beretzat ere egun espeziala zetorrela, nik egingo edo intentatuko nituen langintza setosoki berrien laguntzaile zintzo. Beharbada, neure irudipen hutsa izan liteke, sarritan besteen aurpegiek geure pozetik baitirudite alai, baina, hala ere, uste dut nire umezaroko zorion irudirik gardenen bezala oroituko dudan txakur txiki hark, berak ere aparteko exaltazioz bizi zituela, neugaz kidezearren, beharbada, etxean bakarrik geratzen nintzen egunak, bakanegiak eurok, amak alde egin arren, eta aitak egunez kanpoan lan egin arren, maiz izaten baitzen anaia edo arreba zaharragoren bat inguruan. Gure txakurrak bazekien, berari hainbeste gustatzen zitzaizkion abenturez gainera, janean ere nobedadeak izango zirena. Nobedaderik handiena ohiko bigilantziatik at aurkitzea da. Norberak eskapatzea arriskua izan liteke.

Ganadu-gobernuak egingo al joguzak?, galdetzen diot txakurrari, armairu gainean errodatzen hasiak ziren arrautzetara justuan iritsi eta seguru ipini ondoren. *Hik tortila freskoa gurago izango heuen, eztok?* gaineratzen diot, bai baitakust, burua batera eta bestera okertuz, *ez-bai, ez-bai* esanez bezala, armairu gainera adiegi begiratzen duela. Ulertu duela dirudi, aska aurrerantz zuzen abiatu baita, nondik hasi behar dudan adieraziz, txahalentzako hirusta samurretik, alegia. *Lehenengo ez al dok hobe izango txarria baketzea?* Txerriari osala eta behie belarra botatzea besterik izango ez ziren ‘korta-lanok’ niretzat arazo bat kentzea baino areago ziren pentsatua neukan tortilagintza bezain gogozkoak. Eta, zeresanik ere ez, garrantzitsuago egiten nindutenak. Otordu usaina hartuz batera, desesperazioa ikartzeko adinako kurrinketari ematen zion txerriak norbere eskutik askaratutako jana nola irensten zuen ikustea, hain zurrustada abangoardistak entzutea, azkura egiten eta belarrietatik heltzen ere nola uzten zuen sentitzea, eta, azkenik, jana amaitutakoan, gehiago-eske itsusi batzuk egin ondoren, muturrak garbitzen ahalegindu beharrea, nola baretzen, etzaten, lokartzen zen kontenplatzea, ahalmen gorenaren esperientzia bilakatzen zen, oldarra sosegu bihurtzekoa, alegia. *Zer ipintzen ote zuen Ebaren sagarreko etiketak?*

Behiena ez zen gutxiagorako. Mugimendua somatuz batera, asketara saltatu guran hasten ziren, haiek ere errespetuak baino kateak gehiago lotu ez balitu. Gerraosteak animaliei ere ez barkatzeaz gainera, gurea ez zen bazter handia, eta behien jenio txarrak endagaz baino zerikusi handiagoa zeukan janguragaz. Haiek kanpoan zaintzea, umetan, ahuntzen atzetik ibiltzea baino desesperagarriago zen. Behin edo behin, ostera, askara guraina ematen zitzaientean (etxean bakarrik geratu behar banuen, halaxe prestatu utziko zuten, ezbeharrak gerta ez zedin, behi egonezinek, katea apurturik edo, elkar hilko ez bazuten), nire atsegin handietariko zen haien borazitatea nola

zihoan errendituz ikustea, entzutea, farra-farra. Atsegin purua zen hasierako elkarren kontrako adarkada gupidagabeak, hots beldurgarrikoak, lehenik aldamenekoa harrapatzen saiatzen baitziren (haiek bai anbidestroak, eskuinetik zein ezkerretik lapur trebe, eta ez Poincaré matematikaria, bera anbidestrea zela uste zuena, bi eskuekin berdin gaizki marrazten zuelako), nola baretzen ziren ikustea, adarretatik heltzen eta garondoa hazka egiten uzteraino. Orduan, nire gizentasunak (orain 'gizon-ustea' esango nuke, baina orduan ez zegoen usterik, norbere baitako guztia egia baitzen beti) aitaren praka nasaietan ere ezin zuen kabitu, ez noski, mantsotze hura nire superioritateak eragin zuela pentsatzeko bezain txakila nintzelako, baizik gizonik ahaltsuenak ere (Hamalau otxandiarrek, esaterako, zeinak hamalagarren ahaleginean edozer lor zezakeen, Jainkoa haserretzea barne) gehiago ezin izango zukeen efektibitatea berdindu nuelako. Azkenean, askan luze etzanda, behi eskertsuen mihi latz-latzen igurtzia ere hunkiturik hartuko nuen, zer beldurgarri orok ukan behar duen samurtasun nuklearrean netzalako gloria hausnartuz. Ez denbora luzeegian, txahalaren gobernu apasionantea falta baitzen, zeinagandik hastea behien antsietatea sutzea izango zatekeen.

Goiz-gauetan, esnerik gehiena jetzi ondoren, amaren errapea garbitzera eta talkatzera jauzketa zoroan joaten eta katean ito beharrean itzultzen zen aberetxoak oraindik hainbesteko belar grinarik ez zeukanez, norberak ere ernai ibili behar zuen haren gorputz bero eta inprebisibleagaz jolasteko, deskuidatu gabe burukadaren batek (*gozoa izaten dok, ba, aska santua apartaturik!*) 'erreminta-barra' harrapa ziezazun. *Hau ete dok amak galazo deustana? Hik ez esan ezer, eh!* Eskukada belarrak, ahora ematen bainoago sartzen saiatzen naiz, bere mutur adurtsu eta mukizuak ezin baitu hainbeste batera barruratu. Badakit, gainera, belarraren gainetik neure eskua harrapatu guran dabilena, zeinaren lau hatz ahizpak, ahur irekian elkarren kontra estuki luzaturik, noiz behinka edoskitzera ematen dizkiodan, atzerakada instintiboak ausardia arrazionalerik (kontradikzioa ez bada berau) gairaturik, hala nola: *Emoiok bildur barik, oraindino ez jaukak hortzik eta. Hatz bakarria balitz be, baina laurak batera ez deuzango, mutil.* Beste bati *ez deuzango, txotxo* esan izango niokeen, baina neure buruari beti gorantz hitz egiteko jitea neukan, hondoraturik sentitzen nuenean ere. Benetan zirraragarri, fisikoki zirraragarri zen nabaritzea nola haren edoskitze leihatsutik, eskua antzua zela ohartu ahala ernegatuagotik, gorputz guztira zabaltzen zen dardara heze bat. Hatz puntekin haren ahosabai guria, ziraun-larraz forratua, begiak itxita, suabe-suabe igurzteak sentipen inkompatibile guztiak (higuin, plazer, beldur, samurtasun, barregura, erruki...) harmonia primarioan sumarazten zizkizun. *Beno, Paskaltxo! Hire ama-eta hausnarrean etzun dozak. Txarria luze jagok lo-kurrunean. Gure erromantzea inori ez jakok interesatzen. Halandaze, jaik astiro-astiro heure sekulabedartxo, eta ni banajoak neure bazkaria prestatzera.*

Handik urteetara, atseginki harritu nintzen bazela Paskal izeneko zientzialari-pentsalari bat, zeinari halako txera hartzeko arrazoi nagusia ez zitezkeen izan bere '*Pentsakizunak*' (non, gutxienez, pentsatzen saiatzen zela erakusten zuen), eta gutxiago probabilitate-kalkuluaren sortzaile bera izana, baizik umetan denei halaxe deitu ohi nien txahal txikien segida. Hemen ez daiteke premonizio kontu miragarririk izan, gizona nire txahal gaiztoa baino lauhun urte lehenagokoa baitzen, nahiz eta, egia esan, horregatik edo antzekoengatik, niretzat ez den benetako miraria existitzen ez den eta, beraz, interesik merezi ez lukeen etorkizuna aurreratzea, iragan bat orainean aurkitzea baizik. Sukaldea prest dago langintza handirako. Patatak hartu eta etxe aurrera irten naiz zuritzera, amak aginduta bezalako jarlekuan, baina neuk asmatuta bezalako pozean. *Handi samarra dok, baina patata bakarria ez ete dok gitxitxo izango?* Bigarrena zuritutakoan, biei plater sakonean daragiet, kantitatea haztatuz, handitu guran bezala, nahiz eta jakin intentzioak ez duela, premiak ere ez bezala, jenerorik ugaritzen, begia luzatzen baizik, amak lapiko ondo neurtua, hots, hainbeste ahorentzat nahitaez urria, mahaira ateratzean, zurezko makilatxoaz eragiten zionean bezala, aitari berehala entzuteko:

– *Eraginda, gehitu egingo dela uste al don?*

- *Hago isilik, barritsu hori, hoztu daiten najabilk eta.*
- *Laster hoztuko don, enbarazutik kentzen bahaz.*
- *Gizon modua! Eutso! Eta zuek be, mihia erre deizuenean, ai ama-ka etorri gero!* –haserre egingo zigun, aitaren bandokoak ginelakoan, koilarak airean prest, asaltorako zain.

Nire begiarentzat, bi patata gutxi ziren oraindik, eta hirugarrena zuritutakoan, bista konpletoa osatzen bazuten ere, badaezpada, laugarrena zuritzea erabaki nuen, Trinitatea errespetatzearen. Tamainuan ere, begiari jarraituz hautatu baintuen, laurak batera kilotik ez ziren urrun ibiliko, gora ez bazen. Orain, uretan pasadatxo bat eman eta aldeko praka-sobretan lehortu ondoren, tortilarako moduan txikitzea dator. Patatari luzetara heldu eta ebaki-zerrenda sakonak bi aldeetara emanik, azken ebaki transbersaletan hain xarmant iruditzen zaizkidan kubotxo ñimiñoak parrastan jausten hasi dira. Oso xeheki hasi naizena, lan gogaikarria luzatu ahala (aurkituko ote dut inoiz lan jolasgarriren bat?), zatitxoak handituz doaz, eta laugarren alerako, patata frijituak ere gustora jango ditudala erabaki dut, honelaxe luze-luze eta potolo-potolo. Txikitzea amaitutakoan, platerean errenditzen direnek gainezka egingo lukete, tontortu ahala, sakan-sakan estutzen joan ez banintz. Muturra eta belarriak aurrera guran bat eginik, zeremoniari munduaren sorrerari bezala begirik kendu gabe derraion txakurrak ez dakit zer ulertu duen, esan diodanean: *Zer deritzok? Guk egin behar joagu narrukada!* Bat-batean, platerkadari lau zaunka garratz egin dizkio, hiru jarraian eta azkena interbaloz, mundu sortua mehatxu larrizat hauteman bailuen. Susto galanta eman dit, behintzat. *Gordinik jan gura dozak ala?* hots eginik, patata azalak berari burutik behera jaurtiz mendekatu naiz, areago neure kaltez beraren baino, erresmuskadan alde egin eta gerezi ostetik perplexu begiratzen baitu. Ez daukat, lurlean eta harlauzen bitartean, azalak batzen lan erraza, zehatz egin beharrekoa, amak ezer igarriko ez badu.

Hurrengo lana sua egitea da, oraintsu ipinitako txapa miragarrian. Hamabi urte egin nituen egunean, hain zuzen. Uste dut aitak apropos batu zuela estreinaldia nire urtegunagaz, esan baitzuen:

- *Su barriaren lehenengo beharra dozena bat lukainka erretzea izango da, mutikoaren hamabi urteen onerako.*
- *Horrenbeste lukainka nork jan behar dau?* –larritu zen ama, eginkizunaren zailtasunagaitik baino gehiago, urte guztirako ondo neurtuta zeuzkan lukainken asaltoa iruditu zitzaionagatik.
- *Beste etxekook dozena-erdi, eta gainerakoak berak.*
- *Sei lukainka jan eragin behar deutzazuz umeari egun bakarrean?*
- *Jango ditu, suge-buruak be ez dira eta.*
- *Jango ez dituk, ba? Baita hamabiak be!*–nik.
- *Et, et, et! Berotu barik. Besteok be ospatu behar joagu hire eguna.*
- *Hemen txarria zelan loditu inor ez da arduratzen!* –amak.
- *Jaurti horri be arto-txapar batzuk gehiago* –aitak–. *Aberatsak ez gara, baina egun batean pobreak izateari uzteko beste bai.*

Herbeheran, suok aspaldi aldatuak ziren (niretzat orduan dozena erdi urte oso aspaldi zen), eta aitari neba-arreba guztiok ekiten genion: *Gurean noiz ipini behar dozu txapa?* Ama isilik egoten zen, baina ez zuen muzinik egiten, edo ‘asmukeriak’ esaten, gastua eta entretenimendua besterik ez zekartela uste zuen aurrerapenetan bezala. Harentzat, zerbaiterako afan handiegia intrinsekoki susmagarria zen, premia zorrotzaz beste laxokeriaren baterako erabilia izango ote zen. Txapa ipinita zegoen etxeetan ere, ez zen aurreratzeko motiborik txikiena izango elkarren leiha, edo *oraindino horrela zabilze?* entzun beharra, sarritan, ezina estaltzearen, etxagun handiekin zordun eginda. Mendi aldera aurrerapenak atzerago heltzen ziren, isolamendua lehia sozialetiko defentsa ona izanez gainera, mundu guztiak onartzen baitzuen, baita estimatzen ere, urruntasunari antigoalera zegokiola. Mendi-etxe bat behekoak baino aurreratuago aurkitzea, uztarri-larrutan edo

akuilu soiletan bazen ere, aurre-ezarritako errespeturen baten hausturatzat gaitzetsiko zen. Goietan aurrerago etortzea onartzen zen bakarrak eguzkia, ilargia eta elurra ziren. Niretzat garrantzitsuenak horiexek zirenez, mundurik aurreratuenean bizi ginela uste nuen. Gure aita, igeltseroa eta kanpolangilea izanik, mendiko sufizientziak eta haraneko errespetu legeak eskatzen zuena baino bizkorrago ibili zen. Behe-suan jarraitzen zutenek esaten zuten: *Hori eleganteegia ez al dok honako? Ipini, ipini dozue, baina bestea sarri isiotu beharko dozue.* Iragarpenak desioa ezkuta zezakeen, baina gurean, tximiniaren tiratze kaxkarrak kea zabaltzen zuelako, edo behe-suak aurea berotu eta atzea hozten zuelako, ez dakit inoiz gehiago piztu zen, ezta Gabon gaueko bixigua erretzeko ere, aberatsak izan ez arren, geroko zenbait luxu orduan ondasun hurbilagoak baitziren.

Umeontzat, txapan sua egitea tentaziotik biziora pasatu izango zatekeen, han erre beharreko egurra, ahal zen baso-bazterretik, geuk ekarri eta txikitu behar izan ez bagenu. Izan ere, su ukiezina untxia kaiolan bezala menperatzea (halakoxe kaxoia zen txaparen su-tokia), norbere nahikara bizitu, moteldu, laztantzea, hain zen beste guztiaren ahantzarazle, ezen su huraxe bainuke gau ideal bateko maitasuna, zeinagazko pasioa ez lukeen ekinak indargetuko, ez denborak ahituko, itxuraz bera baino askoz makalago dirudien loak errenditu ezik. Berotasunak ez eskapatzeko, itxita behar zuen atetxoa (baina horrela ezin surik ikusi!) hainbeste aldiz ez nezala ireki nola efektiboki agindu ez zekien amak *sartuik burua bertan!* hots egingo zuen, indar handiegirik gabe, badaezpada, obeditzeko kapaz izango ote nintzen beldurrez. Segurrenik, nire txapako su-mina kanpoan sua egiteari nion beldurragatik izango zen. Tentazioari, hala ere, ezingo nion eutsi, batez ere, metxero zikin baina miragarri haietariko bat aitaren erabilera eksklusiborako agertu zenean, zeina, haren deskuido edo neure maltzurkeriaz, harrapatzea lortzen nuenean, etxe osteraz ezkutatu eta klis-klas ekingo nion zotz-punta guztiei su ematen, pospolorik gastatzeko kezka gabe, etxe kontraren (irameten artean) gordetasunaz baliatzeko, batetik, eta suak eskapatuko ote zidan ikaraz, bestetik. Berezko ikara hori adikzio adkiritua baino dominanteago da, antza, aise ahal izanda ere, ezin baituzu hartatik libratu, zeren zerk behartzen ninduen beldur hartara? Zotzari edo ira-trukutzari eman gabe ezin utzizko su hura, korritzen hasiz batera, zapla itzaliko nuen, katuak mareaturik darabilen sugandilari ukitu gabe ezin utzi eta, mugitzen deneko, erpekada jaurtitzen dion bezala. Ez al zen errazena nire nahikeria suzko guztiak asetzea, iturrira zein beste edozein zokotara desagerturik?

Ba, ez! Badirudi suak berak, hots, haren beldurrak tiratzen zidala, ama mehatxuka aspertuz: *Gehiago etxe ondoan surik egiten deskuidatzen bahaz, belarrietatik eskegita pasatu beharko dok gau osoa.* Etxeoste hartaraxe tiratu ere, zeinaren analogia errealetik amaren umezaroko etxe bat, Txabola izenez ezagutzen genuen ruina piloa, halakoxe umekeria batetik nola erre zen irudika bainezakeen; hobeto irudikatu ere, hots, era beldurgarriagoan. Hain zen handia gure etxeari Txabolarena gerta zekion beldurra, ezen nire metxerotik halakorik ez zela zabaltzen ikusteak plazerra katastrofearen tamainagaz araberatzen baitzuen. Argumentu horretatik, infernuko zorion mugagabea deduzitzen ausartu beharko nuke, hil-hurren baten senak joko ez banindu, zeinak, arimaren azken garbiketaren konfesoreak formulaturiko ‘deabru-ukoan’ *–ukutzen dozu deabrua eta bere...–*, honela saihestu zuen hura gorrotatzea planteatu zion galdera: *Nik ez dot inorgaitik txarrik esan gura, jauna, batek ez daki noren eskura helduko den eta.* Koskortu ahala, suarekiko lilura menperagaitz haiek apenas baretuz edo, behintzat, zentzutatuz joan izango ziratekeen, bat-batean, gure sukaldeko tabernakulu bihurtu ez balitz txapako su hura, braboa bezain menkorra, zeinera translatu nuen aurreko intentsitate sentimental guztia. Lehenik zotzak, gero abartxoak, gero abarrak, gero egurra, horrelaxe hurrenez hurren elkarri gaineratuz joanik, sua abian zen, lehenengoan asmatzeko ardurarik handienez beti ere, pospolo buru bat ondasuna baitzen. Zigarroa pizten hiru-lau pospolo xahutzen zituen gizonak (lehenengo emakume erretzailea hogeitaz urtegaraz ikusiko nuen) ‘harroa’ edo ‘ergela’ behar zuen.

Zartagi beltzik handiena sutan, arandela guztiak kendurik, botila olio eskuan erdi-oker neukan, zenbat bota ezin erabakiz. Dena ere mirari urria izango zelarik, geratzen zen apurrari tiratzen banion, argi zegoen amak bueltan berehalaxe igarriko zuela han baten bat ibilia zela, ez baitzegoen dudatzerik hark, mandatuen zerrenda buruz egitean, botilak nola zeuden, olioarena, batez ere, zorrotz begiratu izango zuela. Azkenean, tanta batzuk jausi ziren, olioaren izendapen bat izan zedin. Urdai txatalak kizkatzen hasi ziren txakurraren begirada ernean, zeinari espektatiba handiagoa sortzen zitzaion, eskaleei amorrus segika baino. Ez dakit zertatik zien eskaleei halako etsaigoa, berak ere, inoiz etxerik etxe, makilatuta itzultzetik eskarmentatu ezin zuelako ez bazen. Hain lan bizkorrak eta zehatzak egiteko, batere eroso ez nabilela konturaturik, amak alde egin zuenetik soinean nerabiltzan aitaren prakak erantzi nituen. Nire belaun zorrotzak, belauniko egotez ‘porrila’ eta guztikoak, bistaratu zirenean, txakurrak atzerantz egin zuen, ipurdia ikusi bailuen. Neure praka tirantedunak aldean neuzkan, azpian gantzontzilorik ez bazen ere, baina ulertzen dut txakurraren erreakzioa. Gure orduko prakaluzek janzteko grina berbera begitanduko zitzaidan gero, alderantziz, nagusien prakamotz mina. Orain umetatik prakaluzedun diren mutikoek izan ditzaketen abantaila dudagabe guztiek ez dakit konpentsatzen duten nerabezaro trumiltsutik gaztaro beroaren konkista genuen motzetik luzerako jauzi bat-bateko haren exaltazioa galtzea. Neskena ezberdina zen, eta oraintxe ere ezberdin izaten jarraituko duela uste dut, nahiz eta denak prakadun bihurtu. Gaur ere indarrean dagoen *prakan-prakan ez dago gizonik* esamolde hura orain ezin duzu edonon jaulki, espezie invariablea den ika-mikazalaren batek (kamikazea dirudi beronek) ez baitu aukerarik galduko erasotzeko: *Prakan-prakan zelan egongo dok gizonik, erdietan baino gehiagotan emakumeak bajagozak?* Esaera jatorrizkoaren translazio dotore bat egiteko balia zezakeena ebidentzia antzura ekarri dizu, pindar posible bakarra ‘gehiagotan’ horrexen zehazgabetasun oharzailean legokeela.

Prakaluzeen ilusiotik erantzita, berriro neutasun soilean geratu naiz, hots, ezagunago eta jareginago, zartagian bihurtzen hasiak diren urdai txatalak sardeskaz erruki gabe zapaltzeko moduan, atera nahi diedan koipe-olioan barik, suge-buruan ankertzen ari banintz bezala. Hiru-lau buelta eman ondoren, urdai txatal kizkortuekin platerean txuntxur gorriska galanta osatu da, zartagian ‘orio piiiiiioa!’ utzirik. *Ai, Trotski! Guk egin behar joagu tortila-jana!*, diotsat txakurrari, zeinaren izena oraintxe arte ez naizen deklaritzen ausartu, zeren orduan hain egoki eta txakurtar iruditzen zitzaizkigun izenok (Trotski, Lenin, Txurtxil, Gorki, Plauto, Ghandi, Puskin, Kaiser, Mogel, Samsa, Dreyfus...), geroago, batzuk, behintzat, arriskutsu bilakatu baitziren, benetako titularrekin topo egin genuenean, bakoitza bere zuloan. Gure mendira urtean behin etortzen ziren medikua eta albaitaria edo bizian behingo abadea (nor bait hiltzen zenean) harriturik gelditzen ziren, eskolarik zapaltzen ez zuen edozein mutiko ziztor entzuten zuenean txakurrari hoska: *Krutwig! Hona! Heldu horri, Kepler! Darwin! Etzun hor! Eragin horri, Ravel!* Gero, herrira itzultzean, zibilizazio haren jakintza innatoa zelakoaz mirariak zabalduko zituzten, ez hainbeste mirariak zirelako, euren kontakizunak zirelako baizik, entzuleak ere paloari jarraitzeko prest zeudela ikusirik. Gutxi gorabehera, mito oro sortzen den antzera, berriz ere frogatzen zen errealitate objektibo bakarra adierazigabea dela, adierazteak deformatu egiten baitu, edo, onenean, asmatu, ez bakarrik, hiru ezagutza-teoria berdintsu sinesgarri aipatzearen, zer ezagungarriaren mugagabeagatik, edo zer mugatuaren atxikiezinagatik, edo ezagumenaren aurre-egituragatik (zorionak, Kant!), baizik adierazpenak errealitatea gehitzen duelako, bera ere errealitate izanik.

- Orduan, airean zeharreko irudia ala ureangoa dok objektiboago?
- Galdera zentzunbakoari gatxa da erantzun zentzunduna emotea.
- Eta emotea derrigorra balitz?
- Orduan, biak edo bata be ez.
- Biak bardin?
- Bardin-bardin.

- *Hori ezinezkoa dok.*
- *Eta niri zer? Problema sortzen dauenak, konpontzea dauka berak. Gainera, begiak ez al dau beti bustita egon behar?*
- *Pentsa daigun lehortua dela.*
- *Ez jat interesatzen. Hori gaixotasuna litzateke.*
- *Orduan, ezin al joagu sanoan berbarik egin?*
- *Badiardugu.*
- *Negarrez dagoenak zelan ikusten jok?*
- *Ondo-ondo ez.*
- *Tirok, ba. Popatik ala brankatik hautatzea besterik ez jakuk geratzen, beraz.*
- *Norenetik?*
- *Abstraktuki. Ez joagu auzia gehiago konplikatuko.*
- *Eskerrak! Lortu dogu, noizbait, zentzunera itzultzea.*

Ez dakit izen horiek, diktaduraren kulminazio mistikoan, ministroek Ama Birjina loriatzen eta gotzainek armada deifikatzen zuten hartan, nondik pasatu ziren txakurretara, gosearen bitartez ez bazen, edo Santiagoren erromesengandik, baina gurea Trotski zen, azeriak hiltzeko pozoiak eroan zuen aurreko Platonen ondorengo etorririk, eguerdi hartako sukalde inguruan, iraultza arrakastatsua usnatzen zuena. Denak kabituko baziren, sakan zartagiraturik, patatak kiss! frijitzen hasi direnean, bai gozo iritzi diodala putz eginez ahoratu dudan urdai txatal kizkurrari, amak lapikoari koipea egitean, beti zatitxo harexen zain egoten naizenean bezala. Oraingoan, zatitxoa barik txuntxurra da, egonezinez intzirika hasita dagoen Trotskik ondotxo dakusena. *Eutso, ba!* Airera jaurti diot eta airean irentsi du, eta halaxe, *nik bat, hik bat, baina lehenen neu beti, entzun dok?*, urdai erreak hagin artean kirrizkan joan dira, artoa ere tartekatuz, hutsean larritu ez gaitzan. *Hau hasi baino ez dok egin, Trotski!* Patatak ere batzuk, eragitean azpikoak gaineratuz, gorriturik datoz, eta sardeskak ezin dio haiek zastatzeari eutsi. *Ios! Gatzik ez jeutsaagu egin!*, txakurrak, beroarena kenduz gero, hain gabeak ere berdin jaten ditu baina. Batzuk jatea komeni ere bada, eragitean zartagiak gainez egin ez dezan, baina zorionez, behingoz, barrurako zein kanporako, denerako dagoela dirudi, nahiz eta, bestalde, patatak frijitzuz joan ahala, tamaina ere txikituz doan, eta halaxe beharko, bestela zaila bailitzateke arrautzen irabioa eranstea. *Hik noiz ikasi behar dok suari egurra sartzen, Trotski? Jan bakarrik? Eta musturra berotu. Gaur jango dok, ba!*

Patata frijituak nire delizietariko bat ziren. Fraileetan nengoela, oheratutakoan, ezin izaten nuen lortu, gogo-zuzendariak goizeko meditazioan inkulkatzen zigun bezala, lokartu aurreko azken pentsakizuna Jainko aita, Jainko semea, honen ama, edo zeruko izakiren bat izan zedin, azkenekoa bazen ere. Ahalegintzen nintzen benetan eta eusten nion kontzentrazioari, baina logura ahalmen mentalak laxotzen hasten zenean, nire burua patata frijitzuz betetzen zen. Noizbait iritsiko zirela benetan sentitu ezin nuen oporretan etxeratzean, nolako asealdia egingo nuen pentsaketak ahoa urtzen zidan. *Ez ete joat sekula jango guraina patata prijitu?* Hauei gero hankak egingo zitzaizkien, arrabiokume bihurtuz, eta likido baten barruan (neure txistu ameskoian) langidoki mugitzen eta multiplikatzen ziren, aipatu zeruko azken izakiak *horreek ez dozak hiretzat!* abertitzen zidala, segurrenik, ni guztiz lokartutakoan, berak jateko asmoa zeukalako. Amari ere, bisitan zetorren guztietan, hilean behin, gehienez, hila sekula amaitzen ez zenean, ekingo nion:

- *Etxera noanean, patata prijituak guraina jan ahal izango ditut, ezta?*
- *Horretarako, orio asko behar dok.*
- *Lehenengo egunean, behintzat!*
- *Egongo dok zeozer. Lehenik, egun horrek etorri egin behar jok.*
- *Etorri be ez da inoiz egingo eta!* –zapuzten nintzen, ginen, burumakur. Ez zen desesperazioa ere, itxaropenik eza baizik.

Arrautzak irabiatzeko unea heldu zen. Bakarra ez baitzen hasteko ere, pare bat apurtu nituen. Plateretik eskapatu guran zebiltzan, neuk ere haien labaintasun zinbela, ez irten, bai irten, majo tentatzen nuela. Gutxi iritzi nion. Behin aukera izango eta ez nintzen nahikoa jan gabe geldituko. Hirugarrena bota nuen eta *heuk be jango dok apur bat, eztok?* itaundu nion Trotskiri, haren baiezko segurra ulertzeko baino gehiago, laugarrena botatzeko gogoia justifikatzearren. Gatza bota eta (hau ere parrastadaxoa joan zela uste dut) platera eskuan harturik, irabiatzea baino lan txikiagoa ez zen likintasun horiak gainez egin ez zezan zaintzea, ikusi nahi nuen bitsik ez baitzen ageri. *Bardin dok! Zartagira botatzea besterik ez jaukaagu*, esan nion Trotskiri, baita, honen beldurrez, leihoaz kanpotik begiratzen zuten katu artegei ere. Zartagitik kanpora nahasteko bezain plater handiaren bila alferrik jardun ondoren, presatasun afantsuak ez zidan utzi bi plateretan banatzerik bururatzen. Irabioa pataten gainera jausi zenean, berehalaxe hasi zen gogortzen, sua ere bizi egonik. Kontuz eragin behar zitzaion, gainez egin ez zezan. Total, nahastea osatzerako, irabioa gogortua zen, eta hori abantaila begitandu zitzaidan. Batetik, bere kabuz nahasitik sortutako tortila jango nuen, eta bestetik, lehenean geratu ziren patata frijituak ere bai, bietarik guraina izango ote zen kezka bazen ere. Tortilari buelta ematen izango zela sumatu nuen komediaz gainera, eskua erretzeari nion beldurrak laster aurkitu zuen arrazoi duin bat: emaitza bikoitza ohiko tortila baino ugariago eta graziosoago aterako zen. Zopak jatea bezala.

Zartagia sutatik erretiratu eta arandelak ipinirik, etxe aurreko jarlekuan jesarri nintzen, zartagia alboan, platera altzoan, sardeska eskuan. Trotskik ezinegon zinkulintian ziharduen inguruan, *hau-hau!* hots eginez zartagi ketsu eta oraindik bero-berora. *Dena 'hau'? 'Hori' esaten noiz ikasi behar dok?* Leihotik lurrera jauzi egindako katuek, berriz, distantzia zirkular batetik, *neeeu-neeeu!* ziharduten, hondakin ohiki dudazkoak egun hartan seguruak izan zitezkeela kalkulatzeko talenturik gabe. *Ederra jagok!* hots egin nion, probatzen hastean, kolegen inbidiari, jarraian eurei ere sardeskada-erdi bana jaurtiz. Trotskiri zaplada bat eman behar izan nion bere eskusibismo senaren muturrean, katuei ez baitzien utzi nahi bere mokadua egondako lurrik mihizkatzen ere. *Hik ez al dakik besteentzako borondaterik eza miseriaren erreklamua dela?* Bigarren mokadua nire ahoan bueltaka hasi zenean, definitibo usaina zekarren zalantza zital bat hasi zen azpianean: *Gizonak zelan jan leikezak* (neure buruari 'gizona' esaten nion beti, nahiz gizongura kontzientean bizi) *urdai kizkor hareek guztiak, gero zer zetorren jakinda? Gozo jagoazen baina!* Azken hau, egia izanik ere, gehiago zen ager zitekeen dispartearen justifiku duin bat. *Eta gero patata prijitupei be ekin koño!* Ez zen gezurra patatok gehiago ere jan izango nituzkeela, apur bat likin samar aurkitu ez banitu. Baina bai zen egia, aurrerago, armairu gainean hain usaingarri zegoen txokolata ere jana nuela, arto zati eta guzti, ez txokolata eta antzeko bitarteko finak hutsean jatea bekatu zelako, bizkorregi ez amaitzen laguntzeko baizik. Eta baita artoa bera ere gozamenaren luzagarri baino gehiago zelako orduan. *Etxanogoiko mutil kolore-gorria, kolkoan arto zati ikaragarria.*

Azken batez, bazkari bat jan eta gero bazkaltzen hasteko bezain tentela izan nintzela deduzitzeko gogorik ez baineukan, segi nik tortilari, ahoan pilatzeko bazen ere. Papuak tiran, mihiak pilotari norantz eragin ez zekiela, okada batek purrustan botarazi zidan dena, txakurraren suerterako, zeinak ere jaten baino gehiago zirudien saiatzen, katuei hurreratzen uzteraino. Beste okada batek eta aurrekoak ekarri zuen bafada larriak egiazko arrazoia salatu nahi zuten, eta egia zen nire 'begi luzeak' (jan-kopurua, sabelaren tamainatik barik, begiaren luzera mugagabetik neurtzeko errakuntzak) nahikoa izango ez ote zen beldurrez prestatu zuen tortila, txerriarentzat ere handiegia, urdai-olioz, urdai-koipez, garbi esanda, aseta zegoela, eta zintzurak ez ziola pasatzen utzi nahi, bueltan esteak ahoratu gabe. Hurrenez hurrengo okadetan, tortilari begiratzeaz ere higuindurik, sagarpean babestu nintzen, beronen gerriari helduta, lur berde usainak lasa nintzan. *Zuek be sari ederra irabazi dozue, behingoz!* hots egin nuen gero, zartagikada txakur-katuentzat lurrera hustuz,

okerrari balio probidentziala aurkiturik. Ez zen hain probidentziala, antza, txakurrak, ahokada instintibo batzuk sartu izanaz erdi damaturik, kakarraldo handi bati bezala, distantziatik bueltan-bueltan usna egiten baitzion. Katuak ere ez ziren mihizkatzetik aurrerago ausartzen. Pala ekarri eta, lurperatzeko barrurik ez nuela izango igarrita, hilor hura lehenbailehen ezkutatu behar baitzen, iturri gaineko sasitzara jaurti nuen, suge destripatuaren hondarrak bailiran. Besteetan, zer altxor ote zihoan aditasun urduriz intzirika mareatzen ninduen txakurrak jarraitzeko plantarik ere ez zuen egin, keinu indolente bategaz *ederretik libratu gaituk* pentsatuz. Neuk ere a zer jareintasuna nabaritu nuen, desegin itxurako horitasun hura guztia jateko obligaziotik libratu nintzenean. Orain lanik errazena gelditzen zen: ontziak iturrian, nahi beste urez, ahalik ondoen garbitu, euren lekuan jarri, sukaldea taxutu, eta dena lehengo antzera utzi. Eta, jakina, surtako hautsei azpiko hautsontzira eragin, amak iluntzean, sua isiotzerakoan, gauza arrarorik suma ez zezan. Modurik onena sua kargaturik uztea izango zatekeen, pospolo soilaren faltan, fintasun larregiak susmagarriago gertatzeko arriskua ez balerama, hura berehalaxe hasiko baitzen pentsatzen zergatik egin ote nituen agindu gabeko lan haiek guztiak, aginduta, hain tamainan gustatzen zitzaizkidanak.

Dena ustez ordena zintzoan utzitakoan, sagarrondo bati ahalik goreneraino igorik, oraindik berdeska zegoen ale bati hortzak kostata sartzen hasi nintzen, zintzurrean gora sentitzen nuen koipe enpagua garbitzeko. Txakurra, kontsigna ulerturik, belar jaten zebilen. *Denok be majo kontsolatu gozak, eztok?* Zuhaitzetik jaitsi nintzeneko, ama noiznahi etor zedin desiatzeko moduan nengoen, eta halaxe ezingontzen hasia izango nintzatekeen, pinadi kontrako soro-munatik Zornotzako karmeldarren komentura begira eseri ez banintz, nondik, urtebeteko barnealdi zorrotz eta amaigabearen ondoren, oporretan etxeratua nintzen, berriz hara itzuliko nintzen ala seminariora aldatuko ote ninduten zalantzan, herriko abadea hasia baitzen artegaturik nindeukaten gestioak egiten. Soro-muna hartatik, komentuaren linea berean, agerraldi bat itxaroten nuen, ez Ama Birjinarena ere. Bo, Ama Birjina izan balitz, onartuko nukeen, noski, baina ezin nuen besterik pretenditu, inoiz handixek gora etortzen ikusi nuen neskato bat berriro ager zedin baino. Deskuidotxo bat, soilik. Ez nion inori esango. Gehiago ez nintzen etxeko armairu eta komoda zokoetan litxarrerian ibiliko. Ai orduan mende erdi geroagoko hozkailu hau harrapatu izan banu, giltzarik ere gabe!

.....

Hor dauzkat xerra, solomoa, etxeko txorizoak (hauek hutsik ere ez daude gaizki, zatika; ziraunari egiten genion bezala, zatitxo guztiak geldi-geldi ikusi arte; baten bat mugitzen saiatzen bazen, beste bi zati, eta adi; haur maitagarriak!), oliba beteak, antxoa latakoak, seminariotik etxeranzkoan, denda umel batean erosi eta, maleta eta biok arbolapean (koltxoia ere bai hiru urtez behin), ito arte jango nituenak, gero eguna ahoa errekatik kendu ezinik igarotzeko, neure erreka maitea, neure bakar-laguna (*seminarioan ez deutsuee urik emoten ala? – bidean antxoak jan ditut eta – antxoak ala makailaoak izan dozak, ba?*), marrubiak, pikupasak... Errioxako botila erdi bategaz, bo, erdiagaz hasi eta gero ikusi zer umore datorren, txarto biziko ginela eta dena gezurra izan ez dadin. Kasu honetan, gezurra izatea ez al zen komeni? Arrazoiak diost, ordea, horri ere behin edo behin jaramon egin ezik, lelotu egiten baita, denbora kontra ari zaidala korritzen. Ase aro hau oso laburra izan daiteke, areago mozkorraldia, hozkailu sensitibo horrek (giltzarik gabe gainera, julis alaena!) ezingo baitu luze iraun emankor. Etxea hornitu beharra dago, zati batean ardurarik ez izateko moduan, bizibidea nola birmoldatu asmatu bitartean.

Lehen-lehenik, kamioi bat behar dut, ahalik jenerorik gehien jasotzeko, elkar ustel dezaten baino lehenago. Pegaso, Benz, Man, Scania, Volvo... Kaxa estalia eta gasoila goraino dituen komeni da. Eta hutsik dagoena. Bi ardatzekoa nahikoa da, moldagarriago izan dadin, alukeria bailitzateke oraintxe bazterra jotzea, dena libre dudanean. Azkenean, baldintza mordoa, ez

komentziazirik ez dagoelako –denean kamioia besterik ez dakust–, erabaki urgenteen denbora azkarregi doalako baizik. Gauak lasai harrapa nazan nahi nuke, urtebeterako hornidurak segurtaturik. *Epe horretan zeozer asmatuko joagu, eztok?* Onena, beharbada, urte hori biba-la-pepa pasatzea litzateke, eta gero ikusi, hemen egun batetik bestera zer gerta litekeen igartzea zaila izango dela jorik. Hauxe, Scania, kaxa luzea eta altua. Barazki garraiokoa dirudi, kartoletan agiri diren baretxoetatik.

– *Sasia parran ipintzen?*

– *Ahalegintzen! Ea konformatzen den, sukalderraino ailegatu aurretik.*

– *Moztea ez dozu seguruago izango?*

– *Gure aittari sasia gatzunaskaraino sartu jakoa eta etxetik alde egin behar izan joan. Horrexegaitik jaio nintzoan atzerrian.*

– *Aittagandik ala haren...?*

– *Neuk baneki!*

– *Halan be, ez dot uste barea sasitik igongo jatzunik.*

Oinez ikasi berritan, bareak jaten ei nituen. Haiexek harrapatzen, antza, errazen. Ama harritu zen, nola neraman goiz guztia negarrik egin gabe. Beharko, ezpainak mukiz itsatsita gelditu baitziren. Halaxe jakin ei zuten bareak jaten nituena. Hori kontatu zidatenean, jada kazkondua nintzen. Badaezpada, dudarik izan ez zezaten, barea jatea bekatua zela esaten nuen (hortxe ere bekatua behar tarteko), baina molusku lubrikatzaile horri karinoa hartu nion. Gau batez, mortu-errepide batean, autoaren olio-txibatoa bat-batean sutzeraino gorritu zen, zero absolutua markatuz. Bare batzuk sartu nizekion eta gehiago ez zen kexatu. Gero otu zitzaidan lubrikatzaile mekanikotzat balio zuena, beharbada, lubrikatzaile sentsualtzat ere dohainduna izan zitekeela. Etxatzen zara biluzik baratze bateko freskuran (eguzkirik ez zaio gustatzen), jartzen duzu barea sabel barrenean, ziletik bilora bitartean, eta gainerakoa berak egingo dizu, bere abiaduran, noski. Hasierako deskontzertuaren ondorioz, kostako zaio desbiltzea eta mugitzen hastea, baina gero, konfiantza hartzen duenean, begiak ixten badituzu, Venus ikusiko duzu. Bilotza zeharkatzerik gustatzen ez zaionez, kanaltxo bat irekitzen badiozu, mozten alegia, glanderraino korrituko zaitu, bere igo-sen handia bide. Nonahi eta edozein jarerritan lokartzeko gaixotasuna baduzu –baratzean tente, aitzurraren kontra atsedean hartuz, esaterako–, kirtenean gora, astiro baina seguru, sudurreraino eskalatuko zaitu, bitartean gautu eta egun berria argitu ez badu. Aho erdi irekitik adurretan bazaude, eurt egingo du, goian bere ribalen bat dagoelakoan. Barea berriro zorura heldu arte, ametsaldi mardula geratzen zaizu, bitartean azak hazi eta estali ez bazaituzte. Bizirik al zaude?

Izatez, barearen funtzio erotikoa aspaldikoa da, bestialismoa bekatu fisikoki ere mortala zenean. Barea inork ez baitzuen bestiatzat hartzen, disimulu osoan pasa zitekeen. Bestialismoa, gainera, ez zen bi sexu konbentzionalentzat abantaila berdinekoa. Gizonentzat, behia edo behorra guztiz asekiele izan daitekeen moduan, zenbait enperadorek majo probatu zuten, pentsa, alderantziz, zezena edo zaldia hartzea zer izan litekeen. Eskerrak emakumeentzat txakurtxo eta katutxo politikak dauden, gehi nik ez dakidan beste hainbat maskota. Barea izan daiteke bat, eta baldin badaiteke, deskubritua izango dute emakumeek, Kleopatrak, esaterako. Nahiz eta, molusku perennalki fresko honen kasuan, inbentzioa guztiz fortuitotzat, hots, bere meritu eskusibotzat jo behar den. Pentsa noizko kontua, lehen gizakia, orbeltzan lo etzana, bareak iratzartzen zueneko. Oraindik ez zeukan garbi gizakia zen, eta bareak iztaialdea likintzen zion. Hauek guztiak jakin aurretik hartu nion aipatu karinoa, neure haurtzaroko esperientziatik. Eta bareari Eskania deitu nion. *Zertan habil, Eskania? Ezin don astirotxoago ibili?* Eskanio ere bai inoiz, bihurtze arraroren bategatik arra zela susmatzen nuenean. *Zer, Eskanio? Neuri emon guran?* Eta hona orain kamioien marka bat ere, Sacania. Mundu guztira zabaldu ote zen nire historia?

Eroski aurrean nago. Zer zentzu dauka orain Abadiñokoa zein Aramaiokoa dela esateak? Dena da Torreburu, neure jaiotetxea. Edo Solozar, neure oraingo etxea. Euroa, orgatxoa. Hauei ere kostatzen behar zaie asimilatzea diruak jada ez duela balio. Orga-lerroak elkarri akoplaturik, patrioko ilara biluzietan, elkarri atzetik emanez desfilarazten gintuzten presoak bezala, redentziorako balioko zuelakoan. Redemptio sacramenti. Eliz liturgiako atalen bat dirudiena jargoi militarra zen. Hiztegi teologikoa hiztegi militarretik elikatzearen misterioaz xarmatzen denak beste misterioetan asko gozatuko du. Galliatik patiora itzulita, ikuskizuna –atzez atzeko defilea– zuzendariari lakat bazitzaion, beste kartzeleroek ez zuten muzin egingo. Guardiarik tokatzen ez zitzaizkion ere gustura prestatzen ziren laguntzaile. Presook ere zer egingo genuen, ba? Derrigorra zenez gero, geuk ere gozatu. Ondo sartu gabe (barka, aklopatu gabe) zeramanen bat ez bazen. Halakoari redentzio ororen suspentsioa eror zekiokkeen, ezintasun fisikoa bazen. Duintasun konturen bat bazen, esperimentazio anatomikoa edo xaboigintza, aukeran.

Eroski maxidendan, beirazko atek ixtera ala zabaltzera zihoazen ez igartzeko moduko erdibidean paralizaturik daude. Ez dirudi, sartzeko, kale-borrokarik aplikatu beharko denik. Atalburua zapalduz batera, kontzentrazio fokalean bezala, atzerakada eman dit berotasun mingostuak. *Eroatekoak arin eroan ezik, hemen laster ezingo jok forentseak be sartu.* Arrapala bat behar da, orgakadak kamioi barruraino sartzeko, sekula ez amaitzeko langintzan ez hastekotan. Permuferiako bi apal luze eta distiratsu; hobe badaezpada lau, doblean ipintzeko. Pasaeran, hemendik marrubi bat, hortik pastatxo bi, jan lasai, denborari laguntzeko. Has gaitezen janari sendo eta iraunkorretatik. Hemen daude urdaiazpi-meta osoak, karnaltasun konikoan, ezer kendu gabe belar-meta haien misterio ez gehiegitan garaileari.

– *Pasatuko al gozan meta ostetik?*

– *Hurrengo zapatuan, laztana.* (Hurrengoan, metak eramana izan ziren).

– *Orduan, metagunean bertan, behingoz preparatuta etorri garenez gero.*

– *Ez, laztana. Egingo jabezak meta barriak.*

– *Kakazaharra! Hemen beti jagon itxaropenera makurtu beharra.*

– *Neuk be bardin itxaron behar joat.*

– *Bide luzeegia egiten ez al gozan ari, azkenean leku jakinera heltzeko?*

– *Dagigun bide erdi!*

– *Eginda. Norantz?*

– *Hik harantz eta nik etxerantz.*

– *Ondo jagon. Hurrengoan meta eta guzti etorriko non.*

– *Gabon!*

Itxaropenaren hari hura infinituraino luzatu zen, hots, aspaldi ahaztua nukeen (infinituaren adierazpenik ulergarriena horixe zen niretzat: oroitzera itzuli ezineko ahanztura), oraintxe aurkitu ez banu urdaiazpiok ez direla gutxien desiagarri, metaka zein lerroka, izter gorri-beltzaran koipetsuak txerri-apatxetan amaitu arren. Berdin urdai-pieza gazituak, solomo barrak (porratzat ere estima litezkeenak), lukainkak, deneriko estekiak, gizonkiak eta emekiak. Odoleste, oilasko, txuleta-zinta eta, oro har, azkar usteltzeko okela freskoei, begiratu ere ez. *Hemen sortu behar jok hatsa egun batzuetan, bero honegaz, ordu batzuetan!*

Orain ogi-ordeak, txigortuak, bimboak, integralak, atonalak... Orain kontserbak, atunak, hegaluzeak, hegalaburrak, hegamotzak, sardinak, antxoak, ortuariak, zainzuriak, zaingorriak, olibak, frutak, muxikak, lezikak, marmeladak, mazedoniak, patagoniak... hauek kapritxo legez, allegro ma non tropo, sasoi honetatik aurrera, kanpoan ere fruta ugari etorriko baita. Esne poltsak, ez gehiegi, bizpairu hilabeteko kaduzitatea abertitzen baitute. Esne kondentsatuak; hauek bai, seminaria Gabonetan eramana eta, irekitzeko penaz, udan bueltan ekarri nuen hura bezala, bidean

zurrupatzeko, bi zulo txo eginda. Seminarioan irekitzera, zulo bakarra beharko zuen, gozamenen gainetik iraupena baitzegoen, hots, itxaropenerako motiboren bat. Etxerantz, bi zulo txo, atsedean premiarik gabe ere, beti eseri ohi nintzen haritzaren azpian. *Ha zoan bular gozoa!*, ikasturteko garraztasun guztiak alderantzizurik zekartzana. Croissantak, magdalenak, ora pro nobis, hauei jaramonik ere ez. Txokolateak bai. Eta gaztak, iraunkorrak, teknika askoren bat atzeratu ez bada, nik bera bainoago berak ni Gorbeia tontorrera jaso ninduen hura bezalakorik jada nekez izango bada ere. “Bengoetxeko artzainak gaztai bat ekarri dau zuretzat. Hurrengo bisitan eroango deutsugu”, jartzen zuen gutunean, non, ondorengo esaldian, “oilo xxxxxxxx hasi dira barrero arrautzaginan” irakurriz, burua apurtzen genuen. *Zer kristo ete dok hemen ezabatu daben hori?* Hurrengo bisitan argituko zen, ez gutxi kostata, inork ezin batzuen suposatu ‘oilo’ hitz ezdeusak zer lagun susmagarri ekar zezakeen, amak hots egin arte: *Ah! ‘Oilo gorriak’ izango dok hori.* Paragrafoko ‘gorri’ guztiak trauskilki ezabaturik zeuden, espetxeko zuzendari arduratsuen, alias ‘orangutanaren’, eskutik. Badaezpada, platanorik ez ekartzeko abisua pasatua genien bisitei.

Eskerrak aurretik abisatzeaz arduratu nintzen gazta hura ez ekartzeko, penagarria baitzatekeen sarrera-kontrollean puska zezaten. *Eduki hortxe gordeta, laster etxean bertan jango dot eta*, abisatu nuen. ‘Laster’ hura luzatu egin zen. Gaztak urteetan itxaron behar izan zuen hartzailearen etxeratzea. Hantxe zegoen bueltan oso-osorik, denborak txikitua, esaerak, batzuetan, zuzen dioenez, zaharrago eta gogorrago. Egia esan, gaztaren geroratze hura kartzelerok puska zezaten beldurra baino gehiago izan zen artzainaren alabak egin izan zelako irudipena, gratuito, beharbada, baina alderantzizko suposizioa konprobatu ezinakin sinesgarritasun gozoi urteetan eusteko balio izan zuena. Igaro ziren hauek ere eta, artean askatasunaren lehen zurrunbilo gainezkorrean, jaitoki batera jarraitu nion kuadrilari. Preso ohiaren aterrizajea babesteko, denek izan ohi duten joera bihotz-zabalean, Bengoetxeko artzainaren alabak ere beste guztiek bezala lagundu nahi izan zidan dantzan. Distantzia batera solasik ugariena loratzen trebea nintzena, urteetan alferrik desiatutako aurpegi eme bat arnasa barruan aurkitzeak zeharo deslektu ninduen, eta gaztarena aipatu nion, bitxikeria kasual bat bezala.

- *Gurean bajagon zuen etxeko gaztai bat, urteetan gordeta.* –Ez zegoen *heuk egin* esan beharrik, ezta izan beharrik ere, gaztak, bat-batean, kasuaren xehetasunak azaldu nizekionean, dimentsio miragarriak har zitzen, zerak animatu baininduen jarraitzera–. *Halan gertatu denez gero, gaztai hori heugaz estreinatu gura neuken.*
- *Edarra egongo dok zatitzeko!*
- *Orain bajagozen erreminta onak.*
- *Haginak be behar dozak gero.*

Gonbitari ukorik egin ez zionez gero, preso ohi berria ez minberatzearen zela pentsatu nuen lehenik, baina gero sinetsiz joan nintzen bera ere hunkitua zela, eta hitzak hitzari bultz, udan haien artaldea ibili ohi zen Gorbeia txango bat egitea plandu genuen.

- *Maleta neuk eroango joat biontzat.*
- *Neuk be zeozer eroango beharko jonat.*
- *Hik hankak ekarri, askatzeko premia izango dok eta.*
- *Gaztaia eroaten ez deustan utziko?*
- *Erreminta be heuk ekarri, orduan.*

Gorbeian, Arrabako landatik tontorrerantz, aurreratzen edo gurutzatzen ditugun-gaituzten txangolariak sortzez aurreko ezagun gisan agurtzen ditut-naute, zerbait zehazgabe baina jagikorrean elkarkide. Egiriñauko estugunean, San Inazio haitzekoaren baseliza ñimiñoaren, abadeaz eta kalizaz besterik nekez hartzen duenaren ondotik pasaeran, sentimendu-uhol bat datorkit goitik behera,

errekaren noranzkoan, ohiko behetik gorakoaren alderantziz; arnaskada luzea eta etenkatua eragiten dizuten horietarikoa, urpe luzetik azaleratu ahala aihozkatua bezala, sugea bailitza. Azaltzen hasteko burutapenik ere ez dut izan, azken igoaldi erripen eta luzeari heltzearekin garelako baino gehiago, hain oroitzapen urrunak, apaigaitako oporretan Gorbeia etortzen gineneak, hain daudelako euren goroldio trinkoan eroso gorderik, ezen lastima litzateke intimitate hori zulatzen hastea. Gorbeia tontor harrigarri borobilkara eta lurbelean (*bai bizkor igon garela, eh?*), haizeak behin eta berriro eraitsia berjasotzen zergatik tematu ziren ulertzea kostatzen, baina hunkitzen zaituen gurutze eskergaren oinetan, begi bata Arabako lautadan pausa dadin eta bestea Arratiako haitzetan puska dadin lehiatzen utzi ondoren, presarik gabe, egunero ez baitago honaino igotzerik, baina gorputzera geroz itsastenoan doan haizetxoak inspiraturik, Goima hatsantuak, hala baitu izena, igoera txit erripen lehen hitzak jaulki ditu:

- *Bazkaria behean egin beharko joagu.* – Nik izan nezakeen eta berari ezetz esatea kostako zitzaiola sumatzen zuen asmoari aurrea hartu guran, segurrenik.
- *Baina gaztaia bertan erdibituko jonagu, ezton?* – proposatu dut, erantzuteko astirik ematerako, motxila arakutzen hasiz.
- *Ibil heinteko kontuz, hemendik behera eskapatzen badeua, kartzelaraino ez jak geratuko eta.*
- *Jarraitu egingo jeutsanat, ez don norabide gozoa baina.*
- *Beste hainbeste denpora egin behar badok, samur egongo dok bueltan.*
- *Ai, ene gaztaitxo!* – musukatzen dut, Goima bailitza. Pentsamendua igarri egin didala uste dut–. *Eskerrak ez heuen harako biderik ikasi!*

Abereak zatitzeko aihotza nahikoa ez balitz, zintzela ere ekarri dut, badaezpada. Mendian ez dela mailurik behar, baina, alua, harriak gazta baino lehenago apurtzen dira, gurutzearen oinarri hormigoizkoaren kontra kanka-kanka hasi naizenean, lau dobleko ezpain-zapia azpian ipinita. Gaztak apatxa bezalako azala dauka, ilun ernegatua, non aihotzak salto egiten duen, begiraino iritsi guran. *Geldi, xexenko, puntzeta gura ez badok!*, eta zintzela erakusten diot. Hamaikagarren harria hausterako, aihotza bazihoan erdirantz, baina gaztak nahiago izan du alborantz lehertu, erraiak erakutsi baino. Lehertu eta saltatu, demonio alaenak. Badu zerbait irreduktiblea bihotzean. *Honek emongo leuken betondokoa!* esanez, lurretik jaso, garbitu eta Goimaren eskuan jarri dut txatala, *lehen be, beharbada, honexek eginga izango zonan eta*, jaulkitzen ausartuz; eta zapladatxoak emanaz, ea ondorengo historia guztia hasierako intentzio baten garapena izateko bikaintasunetik uler ote daitekeen. *Honi gustua hartzen denporatxoa beharko dogula uste joat*, esan du txatal zartatu batzuei ahoan bueltak eman ondoren. *Arrabako landarantz, jaitsiko gozan.* Berak baseliza gaineko pago zabal bat begiz joa zuen, baina aitzakia gabe onartu du, nik, *hatxa jesarleku bengatiboa don* esanez, arroan behera sortzen eta berehala kazkontzen den erreka proposatu diodanean, zeinera, erdian daramaten pagadi orbeltsuen pisuan, oroitzapen bakegaitz batek tiratu didan, gazte sundea bainoago krimen kutsua dakarrena. *Hementxe ibiltzen gintzonazen arrankaritan*, labur bezain ezaxol enuntziatu dut, isilean damaidan lotsari azaltzeko lotsagabekeria gehi ez dakion.

Neure nerabezaro amai-hurrenean, gero Afrikara misiolari joango zen arratiar abade baten ardurapean, astebeterako Gorbeia joanik, nire liluramenak gainez egin zuen, hankak hotzaren hotzez barruan edukitzeko gauza ez nintzen ur haietan, arrankariak erreskan harrapatzeko mirarian aurkitu nintzenean. Gorozikako tuneletik urraturik itzultzen nintzena, arrankari bat, dozenardi eskailu eta beste dozena bat karramarrogaz gehienik, sare eta guzti joanda. Gure aitaren fantasian, ni txikitzen batere saiatuko ez nintzen hartan, azaina handia zen, inor sartzan ausartuko ez zatekeen erreka sastrakatsu hartatik, arrankari enperatriza bere dontzeila eskailu eta ministro karramarroekin raptatu izana. Gorbeian, berriz, horra bi egunerako arrainagaz itzuli ginela Arrabako Lekandape etxolara, bidean baldekada nagi hari begirik ezin kendu niola. Neure trebetasuna lagunei kutsatu

nielakoaz harrotzear nintzela (adin horretako taldean beti izaten da edozer sinesteak kalterik egiten ez dionen bat), ahapeka korrituz zihoan sekretua (adin horretako taldean beti izaten da, halaber, misterioa izorratuko duen alprojaren bat) nire belarrira ere heldu zen. Norbaitek erreka goienean hautsen bat bota zuela! *Seminarioan janagaz nahasten deuskuen bromuroa* esan zuen batek. *Shhh!*, beste batek. Egiatzatzen ez gezurtatzen inoiz ahalegindu ez nintzen suposizioa berori, gero kartzelan ere esamesak berdin jarraituko baitzuen. Pozoi kontuan, nahiago dut ignorantzia irudipentsuan bizi, jakintza terminalean baino.

Hauek guztiak Goimari ulerraraztea baino lan handiagoa da gure gazta basaltikoa txikitzea eta dastatzea, edo saiatzea, behintzat. Behin hortzik sartu ezina disimulatuz, behin haginarte birrineztatuan mihia lodituz, gozamen planta zailak egiten dihardudala, aldizka Goimaren begietara zuzen begira, umm-umm, zerari berak ere baietz-planta segurrenik zailagoz erantzuten dion, hunkitzen nau nabaritzeak nola forma besterik gelditzen ez zitzaion zapore joan bat bilakatu den hain sentimendu deslaiden, ez gutxi galduen, sinbolo, eta bat-bateko biltzaile; eta, zoragarriago, konposizio sentimental berrien abiarazle, zeintzuen ederrak ez duen hutsik egingo, bai gehituz joango, errealitatearen konfrontaziora behartzen ez duteno. Kasu honetan, handik urteetara saltaturik, errealitate gordinak sinbolo joria dohatsuki ondu du, kamioian lerrokatuz noan gazta estilizatuok, apurtezin hura baino ez-iraunkorrago izan beharrik ez dutenok, urteetarako jan-basea bermatuko didatela itxaroten baitut, mundua aurrerako izatea interesa balekit. Puff! Hau izerdi salda, eguzkiak, Bilbo gaineko horizonterantz hurreratuz, diostanean:

- *Egik atsen apur batean, neu ezkutatu arte. Ezin haut agurtu horren arpilaketa masibo eta inpunean habilela.*
- *Usteltzeko baitira!*
- *Bardin dok. Egik egin beharrekoa, ni amagana noan bitartean.*
- *Ez dago argirik baina!*
- *Esaiok santuari egunez ez dela argirik behar eta gauez lo egiteko.*
- *Eta zeu bihar goizean barrero etorri, bazterrak erretzera?*
- *Esaik argitzera! Eta biziaraztera.*
- *Topikoak! Horreetatixek bizi izan zara milenioetan, baina iritsia da zuretzat be su-proba. Oraintxe ikusiko dogu zenbat biziarazten nozun.*
- *Horixe behar najoan! Milioika urtetan, kontzientziadun izaki ziztrin bat sortzeko grazia kolaterala izan eban sistema orokor bat garatu ondoren, orain kontzientzia horren hondar-izpi batek nire jauntasun distiratzaila iraungitzeaz mehatxa naiela.*
- *Ez nago mehatxurako egoerarik sendoenean, baina, zure jauntasuna delakoaz, berari esker bakarrik loria zaitkezen kontzientzia horren hondar-izpia ezaba daitenean, zeu be izpi ziztrin bat besterik ez zara izango, non kokatua den be ez dakien orotasun izenbakoaren barruan.*

Bat erdi jota dagoenean, edozelan eta edozegaz hasten da berbetan, eguzki intratablea barne. Kamioirako arrapala kendu eta kaxa atzeko atea itxi aurretik, nire pentsaketaren jarduerarik maiteenatarikoa den kalkulari damaiot, ez metro, ez pisu, ez inolako erreferentzia zehatzik gabe, horiekin neurtze mekanikoa bailitzateke. Kalkulatu egin nahi dut, hatzez, arraz, oinez, urratsez; eta dena gogoan eramateko baino sorrako banago, honelako beroan gertatu ohi denez, begiz, atxilotasun eserian natzan itzalen batetik. Kalkulatu egin nahi dut, neure buruagaz tematu, ez, bai, honenbestetik gora, horrenbestetik behera, bitartea oparotasun usaintsua denean; eta, batik bat, norberak garaturiko aurkikuntzan, minimoa ere gainezkorra denean. Kamioi honen kaxa bi metro zabal, lau luze eta bi garai bada, hutsune, bildukin, ontzi eta abarrena kenduta, hamasei metro kubiko trinko ateratzen dira. Nire umezaroan eta gaztaroan, metro kubikorik inondik ere ez zeukan gure etxeko gatzunaskak familia osoa urtebetean mantentzen bazuen, ez hartatik bakarrik, jakina, baina bai hura oinarri zela, zenbat denborarako bizia daukat hemen? Urtebete, urtebete eta erdi,

gutxienez hiru urte, gehienez zazpi. *Bitartean zeozertan ikasiko joat, ikasi behar ez nituenak ahaztutakoan.* Eta pisua, kendu beharrekoak kenduta? Esneak (ardoak etxean eta auzoetan ere badaude), olioak, ogiak, urdaiazpiak, lukainkak, solomoak, gaztak, latak, gatzak, azukrea, txokolateak... Berrogeita zazpi jeneroren kontaduria badaramat, higiene gaietan sartu gabe. Batez besteko pisua metro kubikoko 300 kilo jorik (gutxi al da?), ia bost tona. Ez gaitezen anbiziosegiak izan. Ken 'ia' horrena, eta utz lautan. *Egunean, batez beste, bi kilo janda, bi mila egunerako hornimena jaroat.* Eta motozikleta dotore bat, gero mitsubitsiaren bila kalera jaisteko, kamioi-hustea biharko utzirik. Edo, beharbada, hustu ere ez. Bertatik jan eta ukuilutik ospa.

.....

Man txatoa etxeko garajea sartzean (hasieran, Scania nuen begiz joa, baina azkenean, Man hori bat izan da), faraoia Mesopotamiatik bueltan bezala sentitzen naiz, ez hura nola sentitzen zen badakidalako, are gutxiago, interesatzen zaidalako, baizik haren momia niganako jelosian urtzen imaginatzen dudalako. Egin dezaket piramide bat eternitate guztirako, kanpoan merezi duen ezer geratzen ez bada. Neu bakarrik, nahi dudanean, eternitatera, nahi dudanean, denborara saltatzeko. Eternitatea ez dut uste interesatuko zaidanik, berak konfiantza osoan itxarongo dit baina. Neure lurraldera geroz atxikiago sentitzeak (bai pozik itzuli naizela etxera, kanpoa dena okupaturik balego bezala!) esan nahi du beharturik bainoago nahiki eta atseginki naizela kontingentea. Zertarako hasiko naiz neure nahimenari kontra egiten? Sukaldeko mahaian, garagardo ez hotzegia, bai apartua edanez, ekarritako jeneroen inbentarioa idatzi ondoren (berrogeita zazpi barik, berrogeita hiru izan dira, azkenean), berriro neure gogo-jardun kutunean dihardut, zer falta den edo litekeen kalkuluan (gatz larria, ehizaren bat zezindu beharra baletor, aspirinak, kafea –*jode! hau zelan ahaztu jatak?*–, mahaspasak, infusioak, txiskeroak...). Zerbait ezinbestekoa atzeman nahi nuke, ez Eroski maxidendan, ez inon aurkitzerik ez legokeena, biziraupenak dramatismo apur bat gabe ez bailuke hortzeriarik. Ezin dut aurkitu. Izango dira, ba, mundu zabalean! Finitua izatearen abantaila: mundu guztia sobratzen zaizu. Dendan erostezinak ei diren jeneroetara jotzen ez badut. Pazientzia? Orain ez daukat ezer jasan beharrik. Libre naiz itxaropenaren astuntasun bitaliziotik ere. Burdindegiek, ontzitegiek, oinetako eta arropa eta gainerako denda espezializatuek itxarongo dute, egun batzuk gorabehera, baina, janarietan bizkor ez banabil, sudurra goantera utzita sartu beharko dut biltegiatara, bero hau agudo puskatzen ez bada. Burua galduta edo gabe ibiltzen badakit, baina sudur gabe ez naiz inorako. Hortik uler daiteke, bolariak jaurti aurretikoan bola laztantzen duen bezala, esku artean ferekatzeko gauza banaizen burezur bati zergatik ezin dudana musu ematerik lortu.

Kamioiaren burrundadak ia erabat jaten zuen marrumeriak, motozikletaren xumetasun irekian eta aldasbeheran, desesperazio osoan eraso die nire belarriei, lurralde askatuaren mugak haragotu ditudanez batera. Bi aldeetatik datozen alarauek eta garrasiek pasabide sumindua dagite; usterik gutxienean, errepeidea beteko ahotzar amorratuagaz topo egingo dut, dioela:

– *Bahator? Bahoo? Alboetan ez al dok ezer entzuten? Ez dok pentsatuko abandono orokorretik etxea guleriaz hornitzea, gu hemen katei haginka edo ateei erpeka utzita, eztok?*

– *Hara! Neu be ez nabiltzue titi-esnetan. Isilean akabatzeke adorerik ez badozue, ez ekin alperrik ni zorarazten. Saiatuta be ezingo neuke egin zuekin neu akabatzea besterik. Baten batek gogoratu behar zaitue.*

Oraingoan, Eroski katearen beraren kamioia hautatu dut, atzeko aldean, biltegien sarreratik, lerroan daudenetariko bat. Segurantzaz ematen du enpresaren beraren izen-ikurrez atrakatzeko, Txit Santua osteko, meza-jantziek estaldura perfektua eman ziotenak bezala. Zertarako nahi ote zuen hark Txit Santua? Badakit inork ez didala altorik emango, baina posibilitateen beldurretik jaregitea

baino gutxiago kostatzen zait segurantzaz gehigarrien sare bat hedatuz joatea. Eta, gainera, berebil bistosoagoa da. Eta, batez ere, depositoa beterik dauka. Falta nituen jeneroak baino gehiago, azkenean, bistan dagoen edozer egiten zait premiazko, denek *eroan naik, eroan ni!, ez ni hemen ustelgaien ondoan utzi* erregutzen didatelako baino ez bada ere. Pena damaidate. Lehen, sarritan, begiaren tirakadatik desbinkulatzen ez jakitearren, hainbeste gastu uste gabeko egiten banuen (*marraskilo-latok zertarako dakarzak, etxe ondoan marraskiloa besterik ez eta? – horreek kanpoan harrapatzeko, bizkor ibili behar don – bareak ekarri behar heuzen! – azelga artean batzuk badatozela uste jonat*), orain denak neuri arrenka nabari ditut, mugitzen ere iruditzen zaizkit, azpitik orratz puntak zistaka bailituzten. Zer egingo dut, ba? Kamioi hutsagaz itzuli?

Koloniak. Ez dakit zertarako behar izan nitzakeen, baina hain dira flasko bariatuak eta irribarrekorrak, hain dira miniatura artistikoak, ezen, arbuiatzera, neure arboreszentzia ameskorra tradituko bainuke, non, egun bakan eta bistosoetarako bakarrik (Gorpuuzti, Pazko, Eguberri) zegoen koloniatik, amak janzteko baimena emana zidan anaia zaharragoaren jertse horian tanta batzuk zabalduko nituen (hau amaren ezjakinean), ez inor hurbilduko zen itxaropenean, lurrinak begiradak erakartzen zituelakoan baizik. Berdin zen urtean behingo eskurtsioan zein hileta maizkorretan; orduan jendea birritan edo hirutan hiltzen zen. Hiletak ziren onenak, ofiziante ikusiegiez beste zerikusirik ez izanik, norbera hantxe ager baitzitekeen segizio buruan gurutze-eramale, anti-sits eta kolonia usainen nahastea hedatuz. Unerik gozatsuen, hala ere, kontzienteena zelako, beharbada, zeren gero, in fraganti (prakak aldean beti), gertaera bera gaintetik pasatuko zen beti, apaizgai baten obligaziozko desatxikimenduak itxurari, behintzat, eutsi behar ziolako (eta itxurari errealitate askok eskapatzen dio, zeren zer balio du begira diezazuten, zure suposizioen marra transpasatu ezin badute, nahiz eta horrexek ere, posibilitate dohatsuari esker, gorputz osoko dardara gozoak eragin aldizka), unerik gozatsuen, diot, ispiluaren aurreko prestakuntza zen, luzeenean ere inoiz konpletatzen ez zena. Konpletatzea lorturik ere, lan amaituaren segurantzatik abiatu ezinik zabilta, berori baita unea, irteera desiatuaren poz kasik biolentoari eguneko poz guztien izate aurreratua gehitzen zaiona, hain era trinkoan eta ohartuan, ezen kasik berdin baitio gero errealitatea bera araberako zein inexistente gertatu. Errealiterik zekenenak ere ezingo du deuseztu hartaz hedatu zen ilusioa.

Beharbada, ez dago izorranteegia izan beharrik, errealitatearen alderik emankorrena bere aurreikuspenen gauzatzen dela tematzeko, edo aurreikuspenaren etorkizuneko oroitzapen iraunkorrean, halako moldez, non, aurreikuspenaren eta oroitzapenaren artean geratuko denagatik, lasai prezindi baitaiteke errealitateaz. Koloniarekiko faszinazio hark bazuen, ordea, gaztetasun ederguran menturatu aurretik, lehenaro ez gutxiago intentso bat, aitak, amak egin nahi zion koloniari (urteko konfesio eguna izango zen) muzinka ari zela, oihu egin zuenean: *Aaai! Nora botatzen deustan? – Hago isilik, koploso hori! Ardao hatsak ez zaitue erretzen, ba! – Honek azeriaren belarriak be erreko leukezan!* Pasarte hura argibide bat begitandu zitzaidan, unean bertan ez nuen garbi ulertu baina. Nire lagun astapotro batzuek kirkirak txiza eginda ateratzen ei zituzten zuloatik, nahiz eta geroago pentsatuko nuen areago egiten zutela zuloa txizaz betetzeko gai zirelako txulokeriagatik, gutxitan ikusi bainuen metodo haregaz kirkirarik irteten. *Ez dok urten gura? Hortxe itoko haz!* Inoiz neu ere, ez gogoia bortxatu gabe, belar-ziriak edo pazientziak ez zuela miraririk egiten ikusirik, metodo hartara jaitsia nintzen, baina, ateratzea lortuta ere, pena hartzen nien, ahur itxian eta belarriaren kontra, halako irribarre kilikagarria sentiarazten zuten mamutxa bizkor haiei. Hantxe etorri zitzaidan zuloaren aho-bira koloniaz lurrintzeko argitasuna, lurrinak derrigor erakarri behar zituela pentsaturik. Ez zen efektu ikusgarriarik igarri. Ez zen kontua ere, hain isurkari urria eta, amak esan ohi zuenez, “hain ondo gordea”, kirkiratan xahu nezan. Orduan nire obsesioa, bolada luzean, azerikumeetara lerratu zen. Banekien zein gordeleku estu eta sakonetan zeuden, inoiz, goragoko arkaitz zeihar baten balkoixotik, pazientziaz bainoago kasualitatez, hautemanak baintuen zulo aurreko landan deabruetara jolasten, pentsatzen nuela: *Zergaitik ezkututzen zarie ni hurretzean,*

neuk be horixe besterik ez badot gura, zeuekin deabrukeriak egin eta asmazino barriak irakatsi? Ezin nuen lortu sarrera ixterik eurak kanpoan zebiltzala, kirkiretan hain eraginkor izan ez zen kolonia bururatu arte. Kirkirek, beharbada, usainik hartzen jakin be ez jakiek, baina ez al jinoek piztia harrapariak usnatik gehiago gidatzen direla mapatik baino? Azeria, hain argia eta ahofina bada, kolonia usainak derrigor xarmatu behar jok.

Doien ibilita ere, hariztiko soilune batean gertatzen zen gordeleku aurrea apur bat usaintzeko, flasko erdi behar zen. Neure kautan, *hau dok astakeria!*, arrangurak zorrotz erasotzen zidan, noski, baina tanta preziatu haiek zenbat izerdi-negar kostatuak ziren kontzientzia (badaezpada, ez gehiegi estutua) baino askoz indartsuagoa zen azerikumeenganako nire grina. Zuloaren gaineko haitzean, arteondo sufrikor itxurako baten azpian, zain eta zain nengoen, ahalik geldien, ahalik isilen. Azerikumerik ez zen ageri. Jaitsi nintzen, ingurua usnatu nuen, usaina ere bazen, oihanarenagaz nahastean, koloniarena baino gehiago, aro izerditsuko akazia gaztearen azal kenberria zirudiena, sarkor, xorarazle, pentsatzen nuen. Azerikumei ez bide zitzaien hain tentagarri iristen eta, beharbada, zuzen zeuden, inurriek, koloniaz zipriztinduriko unea jotzean, eurt egiten edo ibilbidea aldatzen baitzuten. Bareak eta, adi begiratzuz gero, ez dakit nondik hainbeste agertzen ziren zomorro eta intsektuak ere itzulinguruan tematzen ziren. *Usain gozoa animalia suntsunentzat bakarrik eginda ete jagok, ba?*, pentsatuz itzuli nintzen etxera, flaskoa ilundu aurretik bere tokian uztera. Biharamun gaueko afarian, etxeko guztiok mahaiari ginela, amak haserrez hots egingo zuen: *Nor ibili dok kolonia gastatzen? – Ni ez, ni ez!*, erantzun zuten besteek. Neuk ere *ni ez!* erantzun nuen ilaran, beharbada, interjekzio gabe. Orduko sendi ugari eta jan-urrietan, *ni ez!* hots eginda libratzen ginen, bai baikenekien amak ez zeukala ikerketa luzeetarako astirik. *Inor be ez? Hankak daukazenen bat izango zoan, ba!* purrustaturik, azkenean, zigorren banaketa ekitatibora jotzen zuen, beti ere ume bakoitzari suposatzen zitzaion bihur-mailaren, edo, soilik, txandaketa berdinkoiaren arabera. Justizia perfektua iruditzen zitzaigun, zeren, zigorren betearazpenari jarraitzeko astirik, edo gogorik, izaten ez zuenez gero, errudun ez zinen kasuko injustizia bategatik, benetan bazinen beste hainbat zigorretatik libratzen zinen. Ume bakarrak, zeinaren etxean, gizarajoa, ikerketa ez den formalitate edukatiboa besterik (zigortzen zaituzte, eta gainera, hezi), ezin du jakin negozio moral horren grazia zer izan daitekeen.

Azerikumeek han jarraitzen zuten, ordea, eta larritasunez nekusen egunak bazihoazela eta piztiatxoek hazi eta gordelekutik alde egingo zutela. *Ahoa sare bategaz zarratu, amari sartzea galazo, eta umei goseak urten eragingo jeutsek*, otu zitzaidan etsialdi batean. Banekien efektiboa izango zena, baina barruak ez zemaian gosez baliatzerik, are gutxiago keaz, eurekin jolastea besterik nahi ez nuen mirari txiki bat derrigortzearen. Nik azeri libre eta boluntarioekin tratatu nahi nuen, eta hara non (*hau zelan ez jatak lehenago bururatu?*) Txilinerrotaren ipuinak argitu ninduen, non azeria gaztak atzipetzen duen. *Gose-puntuak ez jagok gaztai sundea lango koloniarik*, pentsatu nuen, neure izatetik ere bai apur bat. Eta azeria, gabez edo grinaz, beti gose-puntuak ibiltzen denez, hor noa gazta zati mardul bat uztera, azerikumeen habiatik metro batzuetara, usainera hurbil daitezenean, nik haitzetik salto egin eta kanpoan harrapa ditzadan. Lehenengotan izutuko dira, baina, gordelekuaren sarrera itxita aurkitzean, lagun egin beharko dute nigaz. Saltorako prest nago, arrano laser-begidunen posizioan. Denbora badoa aurrera, baina hutsik. Noizbait, azeri ama agertzen da, zulorantz. Azeriak gazta maite duela ipurdia garbitzen baino lehenago ikasi genuen. *Oraintxe urtengo jabek umeek*, pentsatzen dut, larruak hartu ezineko emozioz. Azeri amak, gazta zatiaren gainera iristean, bi aldeetara begiratu du, gorantz ere bai. Umeak noiz agertuko zoramenean nengoela, gazta zatia ahoan hartu eta zuloan ezkutatu da. *Kakazaharra! Osoa ekarri banau, ezingo jeutsaan heldu. Ikusi egin ete najok?* Agian bai, agian ez, hark bazekien ni ez nintzela zuloratan ausartuko.

Animaliekin banuen gatazka sentimental oso kontradiktorio bat: zenbat eta bekaizgarriago nituen (maitagarriago ote da hori?), batzuetan, hainbat amorragarriago (gorrotagarriago?) zitzaizkidan, txoriak, esaterako. Hitz gogorregiak iruditu zaizkidanak ez dakit parentesiak bigunduko dituen. Haren ondoan, lagun, hain zoragarriro lo egin izango nukeen azeriak bazuen, behintzat, harrotzen ninduen koherentzia bat: bistatik erabat ezkutatuko zen (izaki beldurgarritzat nindeukalako?), berriz inondik kuku egiten ere ez ausartzeko. Nahiz eta haren elegantziari eta espresio kilikariari errefus invariablearen zaputzak zerraion, argitasunaren ikur den piztia batek ni hain osoki saihesteak handitasun itzelen baten hanpadura sentiarazten zidan. Txoriak, oster, hartarako larrua uzteko gertu nengokeen hurbiltasuna jasan ezin zutenak, gero, halako distantzia batera, nire existentziaz ahazturik, kantatzeko eta jostatzeko ez ezik, neure buru gainetik pasatzeko ere gai ziren, askatasunaren gorotz eta guzti, jakinik nire urguilua ez zela hisian jausiko, nahiz eta neuk ere bai eduki haiek baino hegakera bizkorrago bat, beldurgarria ere bai, gehiegi izorratzen baninduten. Harriak amorrus harturik, posizioa albokera edo goranzkera gertatzean, azartatzea oso zaila baitzen, erabaki osoz jaurtiko nituen. Txoriaren hegada eta harrikada norabide berean izanik, oster, jotzea errazago zenez, haren abiadura gainditzea banuen aski mendeku, paraleloan tiratuz. *Orain zer dinok?* Harria laster jausiko zen bere parabola inebitablean, baina, segundo batzuetan, lortua nuen txoria, ez dakit lotsaturik, baina bai deskontzertaturik uztea. Inoiz, azartatzeko kasualitate ia purua gertatzen bazen, nire basa sen basakeriaren beldurriak bazekien gaizkintzaren errutik libratzen, ezbarra hegaziaren maniobra oker bati egotziz.

Asma zitezkeen sistemarik dibertsoenetan ere (horretan gozatu nuena inork ez dit kenduko) ez nuen lortu azerikumeen adiskidetasunik, baina bai daramazket, orain, kolonia gogo-astintzaileok, ispahanak, rochasak, schloeak, riciak, diorrak, cardinak, denak, gizonezko ala andrezkoenak diren begiratu gabe, arestian aipatu 'animalia suntsunetarikoa' izatetik libratu naizenez gero. Daramazket, daramazket... Inoiz ez ei da berandu zerbaitek gehiago eramateko, baina bai da, antza, saiatzeko. Kamioia abian, aparkalekutik irteten ari naiz, bat ere damu gabe, maxidenda barruko bafada mingosten hasiaz, laster kirats jasanezina izango denaz, larritzen hasita bainengoen. Noan hemendik, suge harena gerta dakidan baino lehenago. Atzera-salto izutu batetik bueltan, segaz belartzan ez kosta gabe akabaturik, esteak bistan dituela, sagar adarrean eskegitzeko balentria lortua dut, sugea eskegi egin behar baita, lur energetikoaren kontaktuan piztu beharrean, haizearen bistan lehor dadin. Edo sairen batek urruntasun osasuntsurantz eroan dezan, baldin, aurretik, galtzen jaitsi beharrak sagarpera makurrarazi duen bidaztiak altxaeran sugari heldu ez badio, adarrean eskegi ez zuen gerrikoa zelakoan (*zailena zen heltzea egina denez gero, jantzi bera eta aurrera*), zenbait sentimenduren barkamenez, zeren naturak, sugea pozoi-kolpeekin bezala, ni aldikada sadikoekin hornitu nauenak, oraingoan haren zoritxarra erabaki baitu segaren bitartez. Irabazi dut, baina, okatu ezinik niharduen tripen gainera ez jausteko, beste sagarrondo baten gerria besarkatu behar izan dut, distantzia batetik hauteman nazarak beste bizioren bat irudika badezake ere.

Nago Adani ere ez ote zitzaion antzeko zerbaitek gertatu izango, eta geroztik, gabiltzan moduan gabiltzala, zera sagarragaz ematu guran. Gizona, horrelakoetan, ezerezago sentitzen da, begira badagozkio, nire kasuan amaginarreba bezala, bera ere larri, barrea dosifikatzeko ahaleginean, barruan irakin bat baduela salatzeke era doi-doian azaleratzen den geiserra bailitzan. Ezin nion gorrotorik hartu, afari bikaina prestatuko baitzuen, non ere beste etxekoek *zeri barreka zagoz, ama?* galdetzean, aurea hartuko nion, harentzat beste estura bat izan zitekeenetik libratuz: *Konta, konta lasai, esteak sugetu ez dakizuzen.* 'Suge' hitza askatzaile izan zen, nonbait, txapa kontrara bihurka, zatika, hots egin zezan: *Kontatzea ez dok ezer. Ha ikusi egin behar zoan! – Zer ikusi? – Gizon baliente bat, sagarrondoa buelta guztian besarkatuz.* Amaginarreba batek balio du suge on bat.

To! Motozikleta ahaztu jak! Itzuli gara orainera, oina bertan ipiniz batera egozten gaituen malguki honetara, atzera bertarantz tiratzeko, beste nora jausirik ez bailegoen. *Orainaren azpian*

beti jagok, antza, sugea. Hauxe! Betiko Yamaha, zeren, hemen berri samarra izan arren, nork imagina lezake japoniarrik, Yamaharen zerbait gabe? Zerbaitegatik jaitsi beharra banu (*oinez pentsatu be ez, jango habe!*), kamioitzar kargatua ez da gora eta behera ibiltzekoa, *eta gainera gaur ez nok ezer deskargatzen hasiko*, nahiz eta, egia esan, bigarren garraio honetan daroadan jeneroa (koloniak eta zer gehiago?) ez litzatekeen hain lantsua ere. *Bo, hartu daidan motozikleta, gauerdiko terrazan izar saiheska jolasteko baino ez bada be.* Zalantzak ondo daude etorkizunerantz, baina iragan zalantzek oraina ez izorratzeko moduan beti ere.

Motozikleta kamioira. *Karga arinean gabilzenez gero, orga ilara bat ez dok txarto etorriko, lantzean zaborrez kargatu bat aldasbeheran bialtzeko*, kamioizale ezustetuaren kasuan bezala. Baserri batean eupada egin zuen, etxekoandrea bakarrik zegoelakoan, baina, txapapote izurriak desgaraiz lehorreraturik, itsasoan egon behar zuela suposatzen zen senar marinela irten zitzaion. Gizonak argitasun bat zuen galdetzeko: *Horixe goldeori eta horreexek burdinareok salduko heunkezak?* Marinelak baietz, bost axola hari golde-areak, aspaldi inaktibo zeudenak. Kamioizaleari, hogeita hamar euroren truke, kostatu zitzaion trepetxu uhartuak kargatzea, gero lau bihurgune beheragoko amildegi sasitsura jaurtitzeko. Operazio guztia aurpegirik agertu gabe jarraitu zuen andreak senarraren azalpen harritu samarrei erantzungo zien: *Ondo egin dok, pasatzen den guztian hortxe ibiltzen dok burdina zaharroi zirrika eta.*

Kamioira kargatu dudan perfumeria osotik, flasko bat guanteran dakart, lantzean behin, dzi-dzi-dzi, kabina lurrintzen duena, leihoak zabalik, kanporantz ere usaina zabalduko dela pentsatuz. Flaskoaren itxuratik eta irudietatik, usainetik ez bainintzateke bereizteko gauza, emakume lurrina iruditu zaidana hautatu dut, jartzen duen erreklamatu idatziagatik: “Lurrin honek usaingarri egingo zaitu, baita txakurrentzat ere”. Astapotroa! Gauza delikatuak poetentzat geratu bide dira, eta poeta onak hain mehatz daudenez, beharbada, horreexegatik dateke deigarriago. Publizitatearen helburu nagusia efikazia bada, ez dago dudarik proposamenak atxiki zaitzakeela, ni egin nauen bezala, txakurra zarenik pentsatzen saiatu gabe.

Esan nezake nire bizitza koloniarrekiko erlazioan ildotu dela (laburbildu gehiegi litzateke), halako eran, non bere presentzian edo gabezian aurkitzen ahal baitira nire oroimena finkatu duten bizi-puskak. Koloniagaz asoziatuak daude egun handi baina poz espontaneorako ritualegiak, hala nola lehen jaunartzea. Edo Gorpuzti eguneko prozesioak, non lore-usain ambientalari (dena lirioa alboetan, palmorria zoruan, arrosa-petaloak airean) haurrok etxetik generaman lurrina ez zitzaion gehiegi egokitzen. Edo eskolako urtean behingo eskurtsioak, niretzat pozgarri baino kezkarriagoak, zeintzuetarako amarik silbestreenei ere ez zitzaion ahaztuko (maistraren kontsigna orokorra, beharbada) ilea eta prakak (barruko aldetik) koloniatzea. Edo beste egun ez hain zeremonial baina liluragarriak, hala nola senitarteko gonbidatu-egunak, urteberri eskeak. Edo, beste gabe, astegun soil bat, non oinez (‘oin biko autobusez’), trenez, tranbiaz, edo, segun nora, denak konbinatuz, aita edo ama (biek batera, gutxitan) Gorozika, Arratia, Bermeo, Gueñes, Mañaria, Mauma, Lutxana, Bilbo... senideak bisitatzera eroaten gintuen. Eguna noiz argituko, itzarraldi amaiezinetik noizbait jaiki ondoren, arropatxo ez berriekin baina berrienekin, atean prest-prest, *ea!, noiz abiatu behar dogu, ba?*, txakurra inguruan zurikeria guztiak eginez, berari ere joaten utz ziezaioten lortu guran, *ez, Bixkor, hik etxea jagon behar dok*, amaren eskutik lurrin-igurtzi ondo neurtuak ilean eta praktetan hartzen genituenean, zoriona benetan ibiltzen hasten zen, luze-luze, guretzat orduan, segurrenik garai guztietako haurrentzat bezala, infinitua baitzen lotik lorako bidaia, zeinaren amaiari beste hainbesteko pozak, etxeratzeak, jarraituko zion hutsik gabe. Has zintezke etxea infernu txiki bat ez ote den kezkatzen, haur bati bertara itzultzeko poz itzel bat nabari ez diozunean.

Seminarioko urteak ere, luzearen luzez ia atzeranzkoak, kolonia usainetan bereiz ditzaket. Euren gabezia, alegia, lehenengo bizpahiru urteetan bezala, non sotoetako hauts-izerdiak, oin neguan ospelduen eta udan mingostuen sundea, kandelen oropresentzia, gazta amerikar horia, misio-denda exotikoa (GKE-en prekursore gisan, non hilean behingo bisitetan ekartzen zizkiguten gozoki apurrak entregatzea fedegabeen aldeko sakrifizio minimoa zen), pikupasa zahitsuak, ez dakit nola batzuk lehor-lehor, beste batzuk heze-heze, ataskaturiko komunak (konpontzaile erdi-miopeak iristea pentsatzerako, pasilloetaraino gainezkatuak), nagusien gela-inguru argizarituak, arbel barrenetako klarion hautsak... hauek denak eta denen konbinazio gunez gune bariabileak bide, ez nintzen gauza izan koloniarik ez moloniarik sumatzeko, hamalau urtera arte. Beharbada, gabezia harexen ordaingurak harraraziko zidan, mende erdi batera, kamioikada kolonia hau, jakin gabe orain zertarako behar nezakeen, eta orduan zergatik ez nuen bere usainik hartu, hamalau urte gaz hasi bainintzen bazela ohartzen; beraz, egona behar zuela, esaterako, gogo-zuzendariak errezibitzen gintuenean, aurrez aurre, mahaia bitartean zela, edo bere ondoan estu-estu, 'ene seme'. Batzuei 'ene potxolo' esaten ei zien, niri ez, horrek batetik liberaturik, bestetik gutxietsirik sentiarazten ninduela. Beldur naiz, aukeran uztera, neuk ere ez ote nukeen, higuin-bortxa guztien gainetik, gutxiespenaren alderantzizko lerroa hautatu izango. Edo konfesoreekin, zeintzuei, ez denei baina batzuei, lurrinhartzea bezain kolonia-usain indartsua zerien, ez dakit zatarra ala konbinagaitza (tabako hatsagaz, adibidez), larritu egiten baininduen, hain barrunbe txiki eta arnas-epelduan. Edo disziplinako prefektuen geletan, non sumisio inkondizionalak ez zidan galerazten usain-gozo tristeak hartzerik, tristeak, kontra-gogoratzen baitzidaten gure dutxategi handietako apatx gazien usaina. Edo errektorearen errezibitze txit aldizkakoetan, non, ikaratuen sarturik ere, ohartzen zinen zerbitzari erdi-mojek, zeintzuekin tratatzea, eurek gurekin bezala, infernuz debekatua zen, bazekitela autoritate-maila ezberdinak apaintasun proportzionalaz bereizten.

Malezian edo inkontzientzian nire aurretik zebiltzanek zioten lurrin kontuak, apaizgaiongatik baino gehiago, mojengatik izango zirela, nork-nori-nor aieruetan sartu gabe. Egia da 'serorlagunen' kaperaua (uste dut pribilegioa txandatu egiten zutela, hilean behin edo) askoz lurrinduago ibiltzen zela, ezen ez usaintsuago, despentsetan edo ukuiluetan, txerritokiak barne, morroiak hurretik zaintzeko jenioa zeukan maiordomoa baino. Bitartean gama osoa izenda bazitekeen ere, nabarmenena, beharbada, latinista hura izango zen, erretzaile porrokatua, tabako kiratsa leuntzeagatik, hots, ikasle desirosten aurrean disimulatuago agertzen alferrik saiatzeagatik, hortzore eta kolonia baten nahastea mastekatzen zuena, gero, eztarri irritakorra aitzakia, klasean regaliza zupatu behar izateko. Hala ere, uste dut gehiago zela gure aurrean erre ezinaren ordezkoko, zeragaz ikasle gosetion inbidia bizitu egingo zen, adin hartako gazteari aski baitzaio abiapuntu txiki bat, irudimenak errealitate guztia ekar diezaion. Edukiazirik eza edo probokazio inpunea, esango zuten komunitate guztietan izan ohi diren errebelde goiztiarrek (besteok 'bai, bai, bai' berretsiko genuen, komeni bazen), baina ulertzen dut ez zeukala ehunka ikaslegaz regaliza konpartitzen arruinatu beharrik, berak premia zeukan bakoitzean, erretzen ari ez zen guztian, alegia. Azkenean, gizarajoaren usain erresultantea ahoa ozpinez irakuzi balu bezalakoa iruditzen zitzaidan niri; beste bati, alkitrana eztiagaz gosaldu balu bezalakoa, eta hala.

Nagusiei ez ezik, zenbait ikasleri ere, etxe onekoei edo mimokumetzat jotzen genituenei, kolonia usaina hartzen nien, bisita egunetan, batez ere, nahiz eta ahalegintzen ziren, ahalegin zaila, noski, ahalik ezkutuen ibiltzen, banitatearen erruduntzat jazarriak ez izateko, Bilboko familia modutsu bateko semea ei zen baten kasuan izan ezik. Izan egingo zen, haren gelan koloniak eta txokolatetako ilaran egoten baitziren. Hauek guztiak seminario txikiko kontuak izanik, seminario nagusian gauzek halatsu edo nabariago jarraitzea tokatzen zen, batez ere, kanpotik (batzuek 'kaletik', beste batzuek Bilbotik, nik 'mundutik' ulertzen nuena) zetozen irakasleengan. Orrazkera miragarriro inpekablez agertzen zen bati *teologia odorifikoa* deituko genion, beste bati *metafisika anti-sitsa*, beste bati *erretxina-esentzia*, beste bati *mistika alkanforista*; kirolaren proselito bati

anatomia linimentola, beste bati *humanismo labezomorrotarra*, gela ilun batetik hara zetorrela baitzirudien. Eta hala beste denak, botanikari hura izan ezik, bere esperimendu gogoak eta ontasun gehiegizkoak oraindik lurrinetara tiratu ez ziotena, inoiz zapatak, kanporantz nabarmen higatuak, atzekoz aurrera janzten zituena. Bai, ezta? Zapatak atzekoz aurrera janzterik izan al daiteke, higatuen egonik ere? Okerreko oinetan janzten zituen. Gogoratuz joan ahala ohartzen naiz, neure xarmarako, hain irudi argi baina urrunak, usain errealari esker, hur-hur, berberton, ia izate presentean jarri zaizkidala. Nola har nitzake, bestela, hain usain aspaldikoak honen garbi? Horrexegatik kargatu izango nuen kamioikada hau, disparatea balitz ere, zuzentzen hastea zentzugabeago litzatekeena, zeren, bakarrik baldin banaiz, zertatik bereiz ditzaket nahia eta nahikeria, gizalegea eta gizagabekeria?

Apaiz egindakoan, konturatu nintzen kolonien zerak ez zeukala banitate kontu soila izan beharrik, adeitasun pastoralera baizik, batez ere, konfesioetan, zuzenbide kanonikoak, baimentzen ez ezik, behartzen gintuen kontaktu karnal bakarretan, non gizonak buruz aurrera, gortinape ilunean distantzien kontrol gabe, golkoraino sartuko zitzaizkizun.

– *Ave Maria purissima!*

– *Ave! Zenbat denpora?*

– *Hamahiru urte, jauna.*

– *Hamahiru urte?*

– *Ameriketan egon naz, jauna.*

– *Ezagun dok, bai, plantakeran be, ia ahoraino sartu haz eta!*

– *Eurt!* –pentsatuko zuen gizonak, atzerantz eginez.

– *Orain hoa altara nagusiraino!*

– *Egingo ete joat abade arranpalo honexen gustorik?* –pentsatuko zuen berriro.

Gehienetan, seigarrenekoak, egintzak zein pentsakizunak, xehetasun handiz emanez gero, gustuak errazago egiten ziren, baina han buruz buru, ahoz aho, gutxienez, belarriz belarri, abadeak berak ere, arauzko barauan, aho gozoa behar zuen, aurrekoak hurrengoari *ipurdiz gora dagoela uste joat* esan ez ziezaion, zeren, hori gabe ere, bazen nahikoa kezkarri hain etxola estua eta altua tximinigabea izatea. Nahi ez zen putzen batek, nahi gabe edo apur batean inor etorriko ez zelakoan, alde egiten bazizun, ez zen nahikoa, zerbaiteko plantan, sakristian ezkutatzea, oso berehala erreazionaturik, putzok ere sotanapean garraiatu ezik, zeren bueltan hantxe aurkituko zenituen, nondik irten ez zekitela, zeraren kasuan ia hobe zen konfesioak etetea. Ez dut maite tximinia gabeko kaxarik, ezta hilkutxa bada ere. Eskerrak emakumeak saretaz kanpotik belaunikatzen ziren, nahiz eta hauek, ohi duten usnagaz eta buruan zekarten sareta estaltzeko adinako mantilagaz, derrigor igarri behar zuten barruko edozein nobedade. Gizonezkoek aurrez aurre behar zuten, konfesoera eta biak talkan huts eginiko ahariak bezala, baina, adarren faltan, akoplaturago. Zuzenbide kanonikoak nahiago zuen, antza, ez-jakin egitea berdinen arteko desbide ‘horribleei’ (konfesoeren aldetik, batez ere, ofizioak grinaren norabide ustez naturala errotik –fisikoki ere auskalo– moztu zielako-edo, hain bakanak ez zirenei), euron prebentzio arautua bizio orokorrerako itzarbide gerta ez zedin. Itzartze horrek banango konfesio ageria derogatu behar izateraino eroan izango zukeen, baina, banango ezkutuaren alternatiba eskainiz gero, abadetxean, esaterako, ea nola garantizatu behar zen sakramentuaren ez-korruptzioa, gehi bide batezko ondorio instituzional nefastoagoak.

Nik uste dut, hala ere, okerkuntza guztiak batera saihesteko tresnarik ez baitago, konfesioko erritua apropos pentsaturik zegoela, ea, enkubritu nahi zenetik aparte, homosexurantz subtilki deituz, emakumeei bakean uzten genien, nahiz eta gero tentazioa sadikoki hurbiltzen zizuten, hiru zentimetrora, gortinatxo batez forraturiko sareta burgoi baina bulnerableegi baten pentzudan, norekin hizketan ari zinen ezin jakiteak aieruen zirimola biziagotu zezan. Oraingo e-mailean

bezalatsu, distantzia salbu. *Aupa, Amaia... Kaixo, Maddi... Besarkada bat*, idatzi duzu eta ez dakizu nori erantzun diozun. Batzuetan, *besarkada bat* ezabatu egin duzu, hurbilegi iruditu zaizulako. *Izan ondo*. Hots, *har ezan popatik, nahi badun*. Ez da agindua, ‘nahi badun’ baizik. Hasierako ‘kaixo’ edo ‘aupa’ ere lagunkoiegi iruditu zaizkizu, nor den antzik ere ez daukazun bati ipintzeko. *Andere agurgarri hori*. Eta andereñoa bada? ‘Andereño’ ipiniko dugu, horrek ez dena ere loriatzen baitu. Ez, lehenengoz konfesalekuan sartu nintzenean bezala, non, aitortu zituen huskerien eta ahotsaren tankeratik, hirurogei bat urteko amamari zegozkion aholkuak eta penitentzia ematen saiatu nintzelarik, neska batek nire begien parean ahalik astiroen eta erakusguren gurutzatu zuen, sei-zazpi zentimetroko takoen gainean ipurmasailei garbosa eraginez, egin bide nion iraina aurpegira itzultzearen, dudarik gabe. Huraxe izango zen abagune bat, non berriro ohartzen nintzen nire baitan jende asko bizi zela; bat lotsaz hiltzearen bitartean, besteek asko estimatu zuten detailea, ikuskizuna, alegia. Lehen esperientzia izateko, nahikoa erreakzio konstruktiboa izan nuen, erabaki bainuen, aurrerantzean, arimek bakarrik hitz egingo niela. Adin gabeko gorputzei.

Hurbiltasun fisikoak hantxe zerraien, ostera, ez konfesioan bakarrik, bai baitirudi, domeinuak separazioa bezala, arimen gidaritzak gorputzen hurbiltasuna eskatzen zuela. Saia zintezkeen, noski, urruntasun zintzoari eusten (ez utz abadetxera sartzen, gutxiago bulegora, inola ere ez bulego-logelara), efikazian asko galtzeak ardura ez bazizun; baina hurbiltasuna ere geure eginkizun apostoliko bat zen, bekatoriak erakarri nahi baziren. Eta paranoia kanokikoetatik kanpora ere, metro bateko distantzia hain bistosoa eta kilikagarria izan! Konfesioaren egintza distantzia ia ezabatuan eraturik zegoelako, ez zenituen kristauak atzera botako bi mila urteko bidaiatik, errituak berak mila eta bostehunik ez zuen izango baina. Batzuok, elizako ardura Mariaren Alabek zeramaten herrietara destinatuok, konfesalekua eurek zaintzeko eta usaintzeko zortea genuen, baina ahoa norberak jarri behar zuen. Nahi duzun gortina, sotana eta iluntasun guztiekin ere, hura ia kontaktu karnala zen, faziak bederen, non, maitagintza debekatuen eta gainerakoan aitortzetan, gerora jakingo genituen praktika analen abantailak (arnasen talkarik eza, behintzat) koloniaz edo usaingarriz konpentsatu behar ziren, jasate brutoz ez bazen. Animaliek bestelako lasaitasunean fornikatzen dute, arbi ustelak jan berritan ere, ahoak elegantziaz ekidinez. Ez dago argi gizatasuna eboluzioaren aurrealdea ote den alderdi guztietan, norabideak, batzuetan, inbertitua baitirudi. Zorionez inbertitua esango nuke, zoritxarrak edonolako zirkuntantzietan gailentzen ez baleki.

Astebete biziturik, gogoberriturik, exziturik igaro nuen, hitzorduaren esperoan. Gero, elkartzeko egunean, adeia, gizalegea, errespetua... ganorazko ezer ere ez. Baina aurreko astea, itxarote dohatsua, inork ezin izango zidan kendu. Gogotsu abiatu naiz mendian gora.

- *Agur!* –Ez didate jaramonik egin. Gero atzean entzun dut: –*Hori ez al zen Amuriza?* –Neuk erabaki aurretik, nire gorputzak buelta erdi egin du–. *Aizu, barka! Zu Amuriza al zara?*
- *Ez. Ni lehen jaramonik egin ez diozuena naiz.* –Banoa gero autoan eta stop egin didate. Neska bakarrik, ilunkeran. Harritu naiz bere atrebentziaz.
- *Non dozu mutila?* –galdetu diot, beti nondibait, sastraka ostetik edo, irten ohi dena ez dela agertzen ikusirik.
- *Ez dago mutilik. Bakarrik nago.*
- *Orduan...* –Aitzakia bat elaboratu dudanerako, kopilotu daukat. Ezingo diot esan mutilzalea naizenik–. *Izango dozu mutikoren bat baina.*
- *Badaukat, baina zirinduta dabil.*
- *Horrela hobe, bai, bakarrik ibili.*
- *Neskalaguna ere badaukat.*
- *Hara! Bitarikoa, beraz.*
- *Ahal izanez gero, zergatik ez? Eta zeu?*

- *Ni multia: zeu, zure mutila, oiloa, ardia, behorra, txarria, emea zein arra, sator-zuloa, zuhaitzgerria... Edozer!*
- *Hmm! Ez nozu, ba, jaistera konbentzitu.*
- *Lasai. 'Edozer' horretan ez da bortxaketarik sartzen. Izorratu nindueen nahikoa, orain inogaz aprobaten hasi naiten.*
- *Zelan jakiten da, txarriagazkoan, esaterako, berak nahitakoa dela?*
- *Txarria oso espresiboa da.*
- *Halan be, baten nahia extraespezietar batek interpretatzeak nahikoa bortxa dirudi.*
- *Dirudi, baina ni txarriagaz ederto aditzen naz. Azalpenak denporatxoa beharko leuke, eta ni heldu naz heldu beharreko lekura. Txarri kontuagaitik edo dena delakoagaitik inoiz interesa balekizu, Berrizen bizi naz.*

Aurrerago joan behar nuen, baina amaitzea erabaki dut, beldur puntu bat sartzen ari baitzaidan, ez dakit zerena. Aztertuko dut hobeto. Aztertu behar dudana bezala euskal erromeria 'alai eta girotsu' horrek zergatik jartzen nauen honen triste. Hobeto nago jantokian, lagun batek hartara gonbidatu nauen diskurtso filosofikoa entzuten, bi mahai harago, eskote ederra pare-parean ikusiz. Ez dirudi bata ohartzen denik, ez bestea molestatzen denik. Objektuak ez zaitu interpelatzen. Ohartun izaten uzten dizu. Subjektua da arriskutsua. Objektu-maitasuna beti izango da. Ederra da. Kontzentratzen uzten dizu, bakar-bizioa bailitzan. Txakurrak alua edo katuak uzkia mihizkatzen dizunean, ez daukazu hitz hunkigarriak, esaldi originalak asmatzen nekatu beharrik. Giza harremana da konfliktiboa, subjektuek objektu bihurtzeko arterik izan ez badute. Amaitu du txakurrak alu-, katuak uzki-mihizkatzea, iguana-zopak jan berri zenituen platera garbitu balu bezala. Bapo! Ez dago efektu sekundariorik.

Saretak banatzen gintuen, lehen jaunartzeko neskatxoekin izan ezik, zazpi-zortzi urte goia eurok. Behin jaunartzea egindakoan, alboko saretatik etorri behar zuten, sei urteko haur goiztiarra bazen ere, sakramentua maleziaren estreinua bailitzan. Zer egin, oster, Ameriketatik itzultitako familia batean, jaunartzerik egiteke agertu zen hamasei urteko neska gaz? *Prestakuntza besteekin batera egingo al dozu?* – *Bai, jauna. Niri ez deust ardura.* Poztu ninduen haren prestakuntzan hasteak, ez exzitazio puntu bat gabe, jakinik ezen, eginkizun sakratu saihestezinak tarteko zirela ere, ezingo zuela maiseorik sortzeke gelditu, batez ere, diktadura politiko-apostolico hartan, errebelde famako abadeen edozein hari puntari tiratzeko zelatan zeuden indar biziaren aldetik (izendatu egingo ote dituk?), kristau kolaboratzaileak barne. Neire zeritzon neskatoari, zeinak Ameriketatik, ingeles-euskaren nahasteagaz batera, egiazko adina baino garapen aurreratuagoa ekarri zuen. Hari pare bat urte gehituz eta nire hogeita laurei sotana gabe aise imagina zitezkeen pare bat kenduz gero, hamazortzi eta hogeita bi urteko bikote alazoa geratzen ginen. Kontu horiek aterarazi zizkidan nahitaez etorri behar zuen konfesioa imaginatzetik libratu ezin.

Umeek, beti bezain ume, beti bezain krudel, krudelkeriarik handiena inozentzia bera izan baitaiteke, Neire lotsarazteko, neu estutzen ninduten, galderen txandan jaulkiz:

- *Jaunartzea hainbeste urtean atzeratzea ez al da pekatu?*
- *Ez dauka izan beharrik. Ameriketako gauzak beste era batera dira.*
- *Han beste Jainko bat dago ala?*
- *Ez. Jainkoa bat bera da denean, baina lekuak eta sasoiak ez dira bardinak. Hara, lehentxoago aitatzen genduen Moisesek, esaterako, ez eban jaunartzerik egin, eta begitu nor izan zen. Jesukristok berak be ez eban egin, ezta bere amak be. Neiregaz, pentsa Ama Birjina daukazuela ondoan.*

Haurrei gauzak esplikatzeari ez da beti erraza, baina bai distrahitzen laguntzea; hortik ez zegoen koskarik. Azaldu beharreko guztiak azaldu eta gero, ostera, konfesioaren entsegua iritsi zedinean, zer egin behar nuen? Neireri sareta eskainiz, txikien malezia aurreratu, hari ere, agian, diskriminazioa sentiaraziz? Ala, txikiak bezala aurretik harturik, haren erreparo probablea bortxatu? Azkenean, erabakitzeko koldarregia naizen guztietan bezala, gauzak eurek nahi bezala gerta zitezten utzi nuen, dena neure buruko nahasmena besterik ez izatea bazitekeelako aitzakian.

– *Orain, neskatxoak, benetako egunean trankil etor zaitezeeen, aprobato bat egingo dogu. Ni konfesalekuan sartuko naz. Zuek banan-banan pasatu eta, amaitu ahala, segi kanpora, baina ez etxera, ezustetxo bat daukat zuentzat eta.*

Neirek azken geratzeko zentzua izan zuen, baita aurreko neskatxoa elizatik irten arte itxaroteko kontua ere, pentsatu nuen nik, oker, segurrenik. Hurreratuz zetorrela, irten eta esan nion: *Gura badozu, andrazkoen aldetik hartuko zaitut.* Duda endredosoan geratu zela igarri nion, posibilitate hori bururatu ere izan ez zitzaion itxuran. *Esan gura dot zu zelan nagusia zaren,* lagundu nahi izan nion, nasaiena hauta zezan, baina, beharbada, nerabe-erreflexu landugabeaz, edo, segurrenik, pentsamendu garatuaren gaintasunez, erantzun zuen: *Nik tokatzen den moduan egin gura dot.* Oraingoan, neu geratu nintzen dudan, zer tokatzen zen erabaki ezinik. Konfesalekuan eseri nintzen, berriz ere gauzei euren kabuz gertatzen utzirik. Egia esan, aukeran utzi beharrean, emakumeen aldetik etor zedin komenentzia azaldu nahi izan banio, esplikazio errazak neuzkan, baina esploratzeko uzkur nintzen neure barruko zerbaitek apartatzen ninduen aproba hori egitetik, ez zedin gerta ezen, hark naturaltasun osoz onarturik, nire korapilo sentimentala ezerez zedin. Besoak atearen kokalekuan tolesturik, Neire aurrez aurre neukan, nahi banuen hiru zentimetrora, nahi banuen bi eta erdira. Arnasa barruan, behintzat. Neuretzat ere biolentzia zen, baina, behingoz, biolentzia xarmagarria.

- *Ameriketara ez al zenuen abaderik ezagutu?*
- *Gu bizi ginen herrian dena mormoia zen.*
- *Eta eskolan?*
- *Eskolara be mormoiak etortzen ziren, baina ni ez nintzen hareen dotrinara joaten. Gure aitak esaten eban Jainkoa, lehengoa be nahikoa genduela.*
- *Abade katolikorik ez al zebilen handik?*
- *Behin Lekeitio aldeko bat agertu zen, euskaldun artzainak bisitatzera zetorrela esanez. Gurean lo bi eginda, mendira joan zen, lehenengo jaunartzea hurrengo etorreran egingo genduela esanik, baina gehiago ez zen agertu.*
- *Errezuak-eta egingo zenduezen etxean baina.*
- *Larregi ez. Gure aitak esaten eban Jainkoak eta horrelako gauzek norbere herrian balio dabela.*
- *‘Larregi ez’ hori susmatu nuen zelan ulertu. Bat ere ez, hainbaten. Berbetan-berbetan, esan nion:*
- *Ederto, ba. Amerika Amerikarako utzita, orain pekatuak esateko txanda litzateke, baldin bazenduz. Jarraian ‘neure Jesukristo Jauna’ hortxe belauniko errezzatu, gero beste ‘agur Maria’ batzuk penitentziatzat, eta eginda.*
- *Pekaturik ez baneu be, penitentzia errezzatu beharko neuke?*
- *Honezkero, antzemongo zeuntsan pekatuak badozun ala ez.*
- *Handi-handirik ez dot uste.*
- *Orduan, penitentzia be txiki-txikia ipiniko deusut: Txit Santuari hiru erreberentzia, eta kanpora.*

Susmatu nuen haren ardura errezurik ez jakitea izan zitekeela, aitarenik ere ez baitzuen ganoraz egin.

Jaunartzea izango zen asteko egun guztietan, dotrina ondoren, konfesio entsegua egingo genuen, ez konfiantza har zezaten bakarrik, baizik banekuselako lehen jaunartzearen handitasunari eraginago eta hainbatago gozaten zutela aurreko prestakuntzetan, edo, behintzat, horixe ateratzen nuen neure esperientziatik, zeren zer litzateke edozein handitasun, sarritan lainoan igarotzen dena bera, aurreko prestakuntza kontzienteki gozatuagatik ez balitz? Nahiz eta, nire kasuan, lehen jaunartzeko elizkizuna bera larritasuna gehiago izan zen gozamina baino, eliza ingurutik aldendu arte. *Badakizuela eta trankil egongo zariela uste badozue, ez daukazue entseguan parte hartu beharrik, entzun?*, errepikatzen nien, Neiregatik, batez ere, baina denak etortzen ziren, bera barne. Txikiekin, umekeria batzuk esanez, ondo libratzen banintzen, Neiregaz ez nenkien zeri ekin hainbeste egunetan. Hura fikzio sakramentalaren baino geroz antz handiagoa hartzen ari zen solas ezkutu batena, beti azken bera, biok bakar-bakarrik eliza handiko konfesaleku txikian.

Eguna hain pozik igarotzen nuen biharamuneko une harexen zain, biolentzia xarmagarri hartara hain atxikitzen hasia nintzen, ezen lehen jaunartze egunean dena amaitua izango zen penak Neireren gurasoei planteatzera eramanez ninduen:

- *Zuen alaba gajo horrek ezin dau, hain denpora laburrean, behar den prestakuntzarik hartu. Ahalegintzen da, baina igual esaten deutsu Moisesek Erroman predikatu ebala zein Ama Birjina Adani agertu jakola. ‘Neure Jesukristo Jauna’ be ez daki zuzen-zuzen.*
- *Horixe aginduori bazegoenik be ez dot sekula entzun –dio aitak.*
- *Ez. Hori otoitz bat da.*
- *Ba, gugaitik, berorrek jakingo dau ondoen gauzak zelan egin behar diren.*

Gurasoena eginik, neskari nola adierazi falta zen, maitatzen hasia nintzenari min egiteko bezain astoa ez izateko moduan.

- *Hara, Neire. Konturatuko zara ez zagozela ondoegi prestatuta, ezta? Ez dakit zure jaunartzea ez ete geunkeen atzeratu beharko.*
- *Zenbat denporan?*
- *Hemen lehenengo jaunartzeak urtean behin izaten dira.*
- *Bitartean, konfesatu be ezingo naz egin?*
- *Bai, gura badozu, aproba moduan, eta andren aldetik.*
- *Zergaitik andren aldetik?*
- *Ba, zure adinean...*
- *Maiseagarriago ez ete da izango jaunartu aurretik albotik hastea?*
- *Ez dot uste. Halan be, urtebetez atzeratzea gogorregi egiten bajatzu, oso ulertzekoa denez, jaunartzea normal egin eta prestakuntza ondoren osatuko dogu.*
- *Nik gurago dot gauzak tokatzen den ordenan egin.*
- *Dena dela, ez daukazu urte guztian zehar konfesino entseguan ibili beharrik. Eginda daukazunagaz, nahikoa dozu, jaunartze aurreko astean, behin entseiatzea, gogoratze alde bakarrik.*
- *Eta sarriago gura baneu?*
- *Hori zeure gogoaren arabera.*

Horrelakoxeak entzun nahi nituen. Gainerakoa (adibidez, berak aurretik konfesatzen jarraitzeko aukerarik ez galtzeagatik atzeratzea onartu zuelako interpretazioa) aise moldatuko zuen nire pentsamen bihozberatuak edo bihotz pentsalariak. Hala, dotrinako umeak konfesatzen ziren guztian (gutxi izanik, sarritan astero), Neire ere hantxe etorriko zen, beti azken, eliza handiko konfesaleku txikian, biok bakarrik gelditzeko, nahi bazen hiru zentimetrora, nahi bazen hamarrera, nahi bazen bat eta erdira. Eta harenak konfesio soila izan ezin zuenez gero, solasa ere behar zen zerbait, neuk gidatu behar nuela suposatzen zena, baina hori aiseago eta gogozago prestatuko nuen

igandeko sermoia baino. Eta hala, hamabi hilabetez, astero-astero, Neireren golkoa, lehendik ere aurreratua, urtebete garatzen ikusiko nuen, neure beso dardarati eta esku izerkorren artean.

Biolentzia espiritualaren marra izan zitekeen temeritate hori guztia ez nuen, noski, egiaz burutu, ez hainbeste, kristauetikiko begirune zintzoak (kristauak ere pertsonak dira), haur eta nerabeekiko, batez ere, eragozten zidalako, edo xoraldi hura isil eta lau igarotzeko zailtasunak lotsaizun larrira arrasta nintzakeelako, baizik gehiago gozatzen dudalako osotasun pentsatuan biziz, puskatasun problematikoan menturatuz baino. Errealitatea behin bakarrik gertatzen da, eta berean txarto, sarritan. Pentsamenean, berriz, dena osorik eta segurrik burutzen da, errealitaterik ezaren detaile hori sobera konpentsatzen delarik nahi adina eta noiznahiko errepikapenez, azkenean, gertatua iruditezaraino. Zer axola du benetan gertatua ez izateak, gertatutzat senti badezaket? Zertarako nahi duzue Neiregaz katiga nendin, handik dozena bat urtera, espetxetik bueltan, haren txera hunkituan bere lehengo abadeagazko estimu otzanaz haragoko deribaziorik suposatzen ausartu ez nintzelako, adinen aldeagatik, hain zuzen, gero bere jaunartze taldeko neskatila sei urte gazteago bategaz ezkonduko banintzen? Errealitatea pentsaketagaz ordeztzeko arteak, batzuetan, errealitatea bera ere ederragoa ekarri ohi du, azkenean.

Konfesioak eta antezedenteak amaiturik, kolonia usainek hortxe jarraitu zuten, bereiz-bereiz, euren-eurenean, bakoitzaren lurrinari neu atsegin bihurtzeko asmatu zirela suposatuz zoriontzen nintzen berezitasunak aurkitzen nizkiola. Eta orain, usain maitagarri guztiak, ahaztuak barne, berrituko dizkidaten joranez deskargatzen ari naizen flasko aratz hauek guztiok haien irudira moldaturiko iratxo bihurtuko zaizkit. Flasko hau aita da, Gorozikako Andramarietara etxetik irteten. Hau ama, Muniketako jaietan zerbitzatzen, jaietan zerbitzatzeari zorion bat zenean. Hau arreba, Muniketako erromeriarako preparatzen. Hau neu, Mañariko Andramarietarantz, Morenoren autobus morean. Denborarekin, urdinak berde eta marroiak more bihurtzen ditut. Hau maistra, egin dizkiogun txerrikeria guztietatik apaindu ondoren, “adiós, niños, hasta mañana”, Etxanon behera trenerantz. Hau nire apaizgai lagun bat hargatik zoraturik dabilen neska bat, jaunartzean, patena okozpean ipintzen diodana. Hau ama barriro, laurogeita hamargarren urtegunean, familia guztia hiru hilabetezko pentsioa kostatu zaion bazkarira gonbidatu duenean. *Egun ederra, ezta, amama? Orain urtero egin beharko dogu – Urtero? Bost urterik behin be nahikoa izango dok.* Denon barreak ulertu dituenen, urterokoa agindu du. Negargileentzat bakarrik ez da titia. Hau espetxera etortzen den abokatua, orri pornografikoz baturiko kolonia-flaskoetan whiskya sartzen diguna. Hau neure alabatxoa, galtzarbeetan, garbitzeke, kolonia egitearren, amagaz beti matrakan dabilena. Orain biak joanak hauek ere, malkorik ez, mesedez!

Utz koloniok eta has nadin urdaiazpi bat ebakitzen, ezpal takoetan. Ederra jagok, fresko-freskoa eta gatz puntu onean. Honek botila ardo on bat merezi du, Paternina bat, esaterako. Banda gorria ala urdina? *Gorria, gorria! Gu beti gorri!* Handik urteetara jakingo genuen urdina garestiagoa zela.

- *Oraintxe jakiat honenbeste kolonia zergaitik ekarri dodan!*
- *Zergaitik?*
- *Harexegatik!*
- *Apur bat konkretuagorik?*
- *Ez eidak lar tiratu, guzurrik esan behar izan ez daidan.*
- *Zergaitik?*
- *Ostera be?*
- *Guzurra zergaitik, esan gura joat.*
- *Itauntzaileari guzurra esatea libre delako.*
- *Jode, baina neu nok, heu haz, geu gozak, biok gozak!*

- *Orduan, zenbat gozak?*
- *Gitxienez, bat bai!*
- *Hartuik popatik!*
- *Gurago joat brankatik.*
- *Orduan, hiruretatik.*
- *Zelako hiruretatik?*
- *Bi izanez gero, bitartea be hantxe izaten delako.*
- *Hirutasunaren misterio zati bat argitzeko balio jok, baina guk ezin joagu sekula hiru izan.*
- *Ez joat ikusten zergaitik ez.*
- *Zelan ikusiko dok, ba, misterioa badok?*

Badira uneak, non buru-hutsune totala atzematen duzun. Ez da Oteizaren hutsune potentziala, hots, betetasunaren antitesi arrogantea, edo betegarri higuingarrietatik arbuio bidezko askapena; edo, baikorrean, molde tolerante amaigabe bat, bakoitzak bere burutapen intransferibleekin bete dezakeena. Hutsuneak ez dauka molderik. Bere ilusioa besterik ez da existitzen, hain bailizateke transparentzia totala, ezen ezingo litzatekeen hartan zehar erreferentzia izpirik, ez trabarik ezdeusenik hauteman, gogoaren begiek zerbaitekin topo egin lezaten. Egoeraren oharmenagatik ez balitz, heriotza litzateke. Ez daurkizu hitz bat, edo, badaurkizu, inerte da; ez dio ezer, ez diradoki ezer. Ez da materia mentalaren mailara ere iristen. Ideia baten bila zabilta, eta bakarrik agertzen da, behin edo behin, ideien sortzaile edo lotzaile izan ote zinen oroimena. Oroimena hutsunearen sinonimoa denean, ostera, berorretaz ere ez daukazu fidatzerik. Sonanbulu baten egoera izan daiteke: begiak zabal-zabal, hontz-buru bana bailiran, dena da argitasun hegal gabea, hormak ere garden, ate erdi-ireki bat muturrekin jo arte, non susto ikaragarri bat izango den itzartzea bera izango den lehen nobedadea. Konparazio konprobazina berau, esaten ari naizena sonanbulu ohartuna baita (horrelako sonanbulurik ez da existitzen), ikusterrean ezerezaren pertzepzio osoa daukana. Edo zer guztiak hilda ageri zaizkiona. Ez hilberri xamurra: oraindik epel, kaiolan hainbeste txeraz hazten saiatu zaren sugekumea, partenoia lehertu balitz baino atsekabe handiagoz akabatzen ikusirik, azken ferekak eginez, leun-leun, maitemin eternalez, sagar orbelezko txondor txikian ehortzi duzuna (poema sentimental totala, sugeak ez daukala erabaki zuten odol beroa sartuz gero), baizik arbolan gora, eskua luze-luze, durdura-habian, haren umeen ustean, sugekume hilzaharrari heldu diozula konturatu zarenekoa. Gogortasun hotz-hotz bat atxiki duzu, eskuak ez dio jaregin, berez apartatu da, hustasun inkalifikablean, sentimenduaren ezabapenean.

Hormarantz etzaniko botila ardoen ipurdiak aurkitu dituzu, eta ipurdiak bakarrik ikusten. Ez zara gauza botilaren ikuspena konpletatzeko. *Akabatuta najagok* pentsatzeko ahalmena bakarrik. Sukaldearen erdi-erdian, bere haritxo inbisiblean behera txit andereño datorren armiarma, zigarro itxarolearen txingarra jorik, goranzko bolatxo bihurtu da, bi zango gutxiagoz. Lortu du sapairaino iristea, goranzko hari kaltetugabeari esker, baina gehiago ez da armiarma izango. Ehunzangoak zango bat galdu duenean, zangoa galdu du ala ehunzangotza? Kable haxea zokalo kontratik, ganora handi gabe, alboko langelara sartzen da. Bat moztu dut eta, solairu guztian, berbaroak eta zarata batuak berdin-berdin darrai. Kableak ezertarako ez zuela balio dirudi. Merezi ote du jarraitzea, kableren bat baliozkoa dela agertu arte? Ez dago erantzunik; agortasunean gaude. Ate bat badakusu eta ‘ate’ hitzean ezin duzu atzeman nora sartzeko edo nondik irteteko izan daitekeen. Orduan zertarako da atea? Ken dezadan eta kito! Baina hori ideia bat litzateke, eta horixe da, hain zuzen, zure ezgaitasuna, ‘ate’ hitzetik inora ezin saltatzea. Atalburuan atzera-aurrera zabilta, behin burua gorputzaren aurretik, behin gorputza buruari tiraka datorrela ohartzeko erreflexu primario soilez. *Hankak-eta non arrimatuta ibili ete zoan Jainkoa, mundua egin ebanean!*

Agortasun mentala hain da totala, ezen nolako egoera den adierazteko moduko elementurik ere ez baita hartatik transzenditzen. Halako zerbait nola, gorputz erabat begetalaren bitartetik, egitan

baden gogoaren aztarnarik txikienik ere ez kanporatzearen alderantzia. Kanporatzea huts gehi alderantzia huts berdin huts bakar. Gogo begetal kontzientea. *Akabatuta najagok* pertsonalegiari *hau akabatu dok* inpersonalak darraio. Hiru-lau hitzen segidak zentzuren bat edo kontraentzuren derrigor izan behar duela errepikatzeak ez dizu kentzen, ez absurdoa (hori ohore handia litzateke), baizik hutsa izatea. Logika pindar bat bakarrik sortzen da, zure argitasunak barik, iraun-sen independenteak, ia esternoak, eragina, *hau akabatu dok* delakoaren definitibotasuna hausteko arrazoi sendoa jaulkiko dizuna: *Lehen be honelako hamaikatan aurkitua haz, eta egoerak berez amore emon izan jok*. Baina logika pindarrak bueltagabeki kolpatzen zaitu esanez ezen, behin edo behin, azken hark, definizioz, aurreko estatistika biribilki aldagaitzaren aurka gertatu behar duela. *Hauxe dok, beraz, azkena. Aurrerantzean, gogo begetala gorputz sanoan. Eta zer? Txarra dok ala?* Bera onena, beharbada, baina gorputza ibili dabil eta gogo ez dago guztiz hilik, eta ezin dio utzi, ez hainbeste asmatzaile izan gurari, baizik ezin izanaren oharpen izorratzaileari.

Ateak ez dio ezer, botila ipurdia ipurdi hutsa da, gorputza bera ere ibiltun esterno da, eta aurkitzen zara kolonia piloa eramán zenuen ondoren bezala. *Zertarako hartu joazat kolonia guztiok?* Ez daukazu beste erantzunik, bizitzak jarraitzen duela baino; eta bizitzak, sarritan, berak nahi duen tokian jartzen zaitu. Manifestazio handi baten pankartan zoaz, oihutik oihura pentsatuz: *Zer egin behar joat kolonia hareekin?* Aurrerago, lurrean luze, mangerazoka disolbatu nahi zaituztete, eta begi erreak irekitzea lortu duzunean, gogo begetalak galdetzen dizu: *Istilu honen guztiaren ondoren, zer urtenbide emon behar deusak kolonia ilara hari guztiari?* Azkenean, dena ondo amaitu da, edo ez nahi bezain txarto ('nahi' horren subjektua bakoitzak bila), eta etxeranzko gaubide saihebidetsuan, egunaren tentsio emozionalek zu eta besteak ere maite-abenturen antsiosago, edo behartuago, edo hor konponago egin zaituztetenean, zure ardura nagusiak (arazo konponezinak) koloniekín zer egin izaten jarraitzen du.

Errazena hartutako lekuan uztea litzateke, kasua ideiarik eza ez balitz, zeinaren alderantziz, lehengo lekura bihurtzea ideia geniala litzatekeen. Hori guztia zeure baitan gertatzea atsedén espirituala zenuke, inoren aurrean konpromisorik ez bazenu. Hala ere, zure ezgaitasunaren berri inork ez dakienez, eta ezinaren aitzakiatzat sukar handiak edo gorputzaren ondoez nabariak bakarrik balio duenez (eskopetari heltzeaz zaudela alegatu, eta ondoen ulertu zaituenak diotsu lanetik bueltan lasaiago egingo duzula egin beharrekoa), hizketan ari zara barnetegi artistiko batean bildu duten gaztetxo pilo baten aurrean. Diskurtsorik ezín duzu koordinatu, eta ezín duzuna ez da koordinapen logikoa bakarrik, elkarri belarriak jateko baino begirada zorrotzagoz jarraitzen dizutenei bost axolako liekeena, baizik ezta hitzen segida ganberrorik ere. Hizketan diharduzu, konfiantza bakarragaz ezen esaten ari zarena ondorengoa baino zentzuzkoago dela, zeina, noski, hurrengoak ziur gáindituko duen zentzugabeán, eta halaxe, saioari amairik aurkitu ezínik, beti oneneán. Azkenean, txaloak jo dituzte eta pentsatzen duzu, beharbada, gustura egon izango zirela (*amaitu dok, behintzat!*), zerak sentipen umilgarriagoa deragizun, pentsatuz mukizu batzuek ere txaloekin disimulatu behar izateko bezain barregarri ikusi zaituztela. *Zertarako joan behar joat inora, akabaturik nagoenean?*, díozu etxerakoan, giltza sartu aurretik, ateari ostikada zakarrak emanez.

Gorputza hain daukat sano eta bizi, ezen eskaileretan gora hormari ukabilka bainator. Objektuak erlazio soil gisan ikusten ohitua naiz, zer bere baitan barik, beste zerbaiten antzeko edo konparagarri beti. Baina errealitateak, jotzen baduzu, den bezala erantzun dezake, eta erneguaz gainera, orain mina ere galanta dut. Badirudi gorputzak gogoaren erretira baliatzen duela, bere potentziala hedatzeko. Sinetsi egin behar ote dut gorputz-arimen sinbiosian, alderantzizko proportzioan bada ere, halako eran non, gogoá apaltzeán, gorputza gailentzen den, zoratzen, alegia, ez guztiz, ondo zaintzen baita hormari buruagaz ematetik? Baina, ez pentsa, ukabletan ere min izugarria har daiteke, eta aberia ere ez makala. Halandaze, honelako ernegualdi autolitikoan (non aurkitu ote dut termino hori?), eskailerak lauhankan igotzen hasi naiz, eskuak okupaturik

eramatearren, zeragaz ukabilkada erdiak, behintzat, ekiditen ditudan, beheranzko laukoa arriskugarria bailitzateke, eta atzez jaistea ridikulua. Natura jakintsuak (putada egiten dizun arte) inspiratuko ahal dizu zulotik irtenbidea. *Lauhankan eta pitokeriak! Gorputza koloniatan bainatuko joat eta nahi dauena izan daitela.*

Eta horrexek salbatu, hi, disparatetik datorren aurkikuntza bide! Nire gorputza eder zen, maitagarri zen, bizitzak lurrindua zen. Beste gorputzen bat beragatik lurrindu zela irudikatzeko motiboak izan zituen okasioetan, taupada guztiak usaintzen ziren. Errealitatean hain mehatz gertatu dena oroimenean pilatzen denean, honen maizkor ageri den pozaren pozezko urduritasuna bakarrik konpara daiteke abere gazteengan aurkitu dudana transformazioagaz, atea ireki behar dietela igarri dutenean; edo habia-kumeen dardarizuzagaz, aita-amen hurbiltasuna sumatu dutenean. Nahiz eta badaitekeen konparagarri horien ‘bakarrik’ hori ni eurekin konparatzea desiatu dudana bakarrik direlako izatea. Badaitekeenez, baita ere, kolonia usainak niregan beti ilusioa eta jagitasuna berritze hori izatea bizitzak libratu nauelako haiekin tratatuzetik, zorionez, zeintzuen lurrina nagusigoaren mezulari edo domeinuaren gehigarri zen. Eta horrexek salbatu. Gogoaren agortasuna luzatzen bazen, gorputza higuintzen hasten nintzen, hainbatago zenbat sanoago edo hartaz errukitu beharreko gaitz gabeago zegoen. Eta halaxe gertatzen zen agortasun mentalaren ondorioz zitalena, zeren, berori bakarrik izatera, hor konpon ideiak, arruntak zein genialak (*sortuko dozak barriak, gogorik badabe*), distantzia batera aurpegi guztiak baitira berdinak. Baina gorputza higuin baduzu, nora alde egin behar diozu?

Azkenean, aurkitu nuen zorioneko kolonion zertarakoa (neuk aurkitu ala bera agertu?), eta ideia emankor baten irudipenak gogo akabatua desblokeatzea lortu zuen, hormona hilak hormona sorberriz ordeztuak izatean, segurrenik. Susmoa daukat nire agortze-berritzeak elementu-multzoen ordezketak besterik ez ote diren. *Aurrerako gozak!* Estatistikak, berriro ere, ez zuen barkatu, bizitza, Jainkoaren dohaia adina, suzesio faktikoa izan daitekeela iradokiz, determinismoa tautologia bezala, zeraren ondorioz zentzuzkoago genukeen, zorigaitz handi horietariko bat gertatzean, *zergatik niri?* barik, *zergatik ez niri?* auhen egitea. Horrela, behintzat, errealitate presuntzioa alde izanaz gainera, besteekiko begirunean irabaziko genuke. Ez litzateke jarrerarik txarrena, fedea makaltzen denerako, baina orain, denak joanak direnez gero, baliteke konberti nadin, Jainkoak ere norbaitegaz haserretu beharko baitu.

Kolonien deskarga bi bidaiatan amaitu dut kamioitik sukaldeko mahai gainera, bitarteko solairuaren hamasei mailak, bi zortzinangotan, beherantz airean eta gorantz jauzian pasaturik, flaskook pisatzen dutenagatik. Gainerako jeneroei bihar helduko diet, afaltzeko jaitsi dudana urdaiazpiari izan ezik, zeina banuen gogoa, mehearen mehez ahosabaian itsasten ziren ‘azalazpi’ haien orde, haginak probatzeko moduan xerratzeko, mahai gaineko erakusketaz liluratzeko naizen bitartean. *Mila eta bat gau*-ko miragarriren bat esango nuke, liburu hori esploratzaile joan eta (nahiago baduzu, kolonizatzaile) arabiar jauregietan ibilera orgiastikoa aurkitu zuen idazle ingeles baten egunerokoa zelakoan egon ez banintz kasik oraintxe arte, denak joan arte. Inoiz ez dela ikasteko berandu, baina bai, sarritan, alferrik, nire oraingo kasuan bezala. Tropak ere joanak izango dira, baina harrapakina hemen utzi dute: urdaiazpi-xerra gorri-iluneko platerkada usaintsua eta gazta ez gutxiago usaintsuaren erdia, botila bat Paternina urdin, kolonia flaskoen komandante, eta pakete hasi gabe bat ogi txigor, alboan asistente. Ezin dut esan hau denik zeruan sinesten nuenean irudikatzen nuen jatordu ideal eternala, hainbeste konbinazio posiblez ahoa urtzen zidana, jan-mina grinarik karnalena genuen hartan. Dohatsua naiz, gerra amaitik bi urtera jaiorik, gose gorriaren triparaino jausi gabe, non ilunak ere janda egon behar duen, urritasun orobegian etorri nintzelako ezaguerara. Orduan, haurtzaro, nerabezaro eta gaztaro guztian, sekula haietatik nahikoa jaterik imaginatzen ere ez nuen jeneroen ugaritasuna gertatu zenerako, gosea burmuinera pasatua zen (gosea ere burmuinak darabilela egia izango da, zeren, bestela, ea nola esplikatzen den oilo

lepamoztuarena, gorputza batetik hegazka eta burua bestetik mokoka, heriotza gose eternala dela abertzeko bezala), baita ilusioa eta gozamina ere, zeintzuok, zorionez, ez didaten gogoaren izaeratik alde egin, urdaila zernahiarora iritsia izan arren.

Platerkada urdaiazpi hau jaten, posibilitate fantastikoa besterik ez zen sasoiari (*loritu behar joat, ba, gau osoa urdaiazpi jaten ames egitea!*) gozatu izango nukeen adina gozatuko dut, tenporalki orainean izan arren, pasionalki lehenean jaten baitut, lasaitasunagaz ezen orduan salbuespen miragarria (amaigarria!) zatekeena orain eguneroko elikua datekeela. Beharbada, umetan gehien jaten nituelako, orain ere gehien hunkitzen nauten janari guztiak ezingo ditut apur batean jan, bizimodu berria antolatu arte. Baina orduan, amaitzeko penaz, jan baino gehiago, noizbehinka probatzeko zorion iheskorra izaten nuenak (urdaiazpia, *solomo gerri luzea, haren begien dultzea*, estekoak, txokolateak, gailetak, gozokiak, gaztak, turroiak, esne kondentsatua, kontserbazko fantasia guztiak) nahi adina eta nahi bezalako ordenan hautatu ahal izatea, nork diost horixe ez denik orduan amestutako zerua, inork kontradituko ez didan segurantzaz, gainera? Ez, behintzat, lehen tragoa oraintxe egitera noan Paternina urdinak, zeinak, askoz hobea izan arren, zail izango baitu ijitoso batek eramana eta berreskuratua izan zen botila ardo petrolero hura bezain gustosoa izaten.

.....

Amaren edo aitaren inguruan ahaideenera joango nintzelako, edo, batez ere, eurak gurera etorriko zirelako, nire umezaroko egunik desiatuenak zekartzan sasoiari, gari-epaileek erreskadan ziharduten, eta ni adi, igitaia libre uzten nor noiz deskuidatuko, orduan ezin nuenari ekiteko bezain gertu gero ahal nuenari ihes egiteko. *Hoa etxera pitxar bila eta ekark iturriko ura*, esan zuen amak, igitaiari laga niezaiola zuzen ez agintzearren, segurrenik. Beragaz eta lanetik etxeratu berri zen aitagaz, Gorozikako osaba-izebak eta bi lehengusina zebiltzan arloan, laster askari berantiar bat soro munan eginik, egun luzearen iluntzeko freskura aprobetxatzen jarraituko zutenak. Sukaldean, bekatarari harrikatua baino mailatuago zegoen pitxarrari helduz batera, alboko gelako leihotik ahots kabernoso bat dantzut:

- *Kittanie nok! Kittanie! Ekark botila ardao hori!*
- *Ez dakit non dagoen.*
- *Ba, topa, heu eroan haidan gura ez badok!*
- *Hortik ezin deusut emon.* –Leihoko sare eta barroteez handik, jake zahar bat ageri da buru batetik behera, aurpegia begi-zulo bat ez beste estaltzen diola.
- *Ekark kortako atera, handik joango nok eta.*

Aska aurretik ukuiluko atea ireki dudaneko, botila ardoa eskutik kendu dit eta txorimalo ibiltaria legez alden du. Galsorora arnasestuan sartu naiz, *kitana batek ardaoa eroan dau!!* negararrantzaka – *Ardaoa eroan? Kaien biska!*, oihi eginik, igitaiagaz mehatxuka, sorginen bati hankak moztu bezala, tximistan abiatu da ama. Oso bakan ateratzen zaion ‘kaien biska’ horixe da gure amaren biraorik astunena, kinka bereziki larriaren seinale. Geroago konturatuko nintzen ‘kaien’ hori *kauen-mekaguen* bigundua zela, baina ‘biska’ zer izan zitekeen ez nuen argituko, ‘Bizkaia’-ren ironiaren bat ez bazen.

- *Norantz hartu jok?*
- *Kortako atetik urten dau, tragoak eginez.*
- *Barrabana! Estartapeko pinadirantz hartuko joan.*
- *Aitaren ota-prakak zeroazela begitandu jat.*
- *Txakurrak ez al jok jazarri?*

- *Txakurrak ez dau ahausirik be egin.*
- *Bera dok, orduan!*

Amaren atzetik nindoan, isildu ezineko azalpen afanosoekin, bai ardoa entregatu nuelako koldarkeria zuritu guran, ez gutxiago etxearen lotsariaz larriturik, kanpokoek aurkitzen bazuten botila ardo huraxe besterik ez genuela. *Hi joan solora!*, agindu zidan garratz pinadi ertzetik buelta erdian, jazarpen arriskutsuan sartzera bailihoan. *Aitari etortzeko esango deusatz?*, kolaboratu nahi izan nuen gehiago, baina ez zuen erantzun. Soroan harritu nintzen gari-epaileek, eurenari jarraituz, nire esturaren araberrako alarmerik ez erakusteaz. Laster agertu zen ama, botila ardoa eskuan, esanez: *Kitana ederra jagok, bai, gurean!* Atzetik burumakur, txakurrarri laztankeria redimitzaile gurakoak eginez, neskato bat dator, ni baino bost urte zaharrago den arreba, zeinari, txakurragaz munan geratzekoa egin duenean, *Miren! Hona!* hots egin dion aitak, txakur esan-gaitzekoari bezalako tonuan. Arreba jada deskitanatuari aldean dakartzan ardo tragoek oraindik ez diote, antza, eragin txolingarririk egin, eta apur bat zeharka, armiarma uzkurtua bezala hurreratu da, harien batek airetik tiratua. Aitak besalboz jo planta egin dio, eta ia beti bezala, haren besoa ere airean geratu da, harien batek tiraturik. *Ekarran iturriko ura... atoan!* agintzen du lazki, ‘atoan’ horren tonu kontudentean zigorraren gogorra deskargatuz, eta berehalatasunaren baldintza funsgabea, suposatzen baita ez duela eskatzen iturrira joan-etorria hegaz egiteko. Inor jotzen ikusteari neu jo nazaten baino ikara handiagoa diodan arren, neurerik ez baitut ikusten, dezepzionaturik gelditu naiz arrebaren belarrietara zaplasteko zorrotz bana iritsi ez izanaz, aberiarik ez, baina min egitekoa, pentsatzen dudalarik, beti inpunitate freskoan libratzeko daukan dohaina errepika ez dadin, gero ahapeka mehatxu egingo diodana: *Hemen kanpokoak dagozelako, baina ikusiko don gero etxean!* Mehatxu hori bete behar zuen gure aitaren geroa, ostera, banekien presentetik ez zela askorik haragotuko, arrebak ere bazekienez. Gurean, presentetik libratuz gero, etorkizunaren beldurrik ez zegoen, laster egiaztatu zen bezala.

Arratsaldeko zazpi eta erdietan, amak ekarritako askari berezi, mantel eta guztikorako, galsoro eta ortu bitarteko munan eseri ginenean, nire episodio larriak gertagabe iruditzearen erneguari (arreba apatz-apatz eseri zen kuadrilan, inork *hi be mahaira al hator?* itaundu gabe) laster gainditu zitzaion halako otordu apartean tarteko izatearen poza, hainbestean ezen, hurrengo iturriko ura ekartzeko, neu prestatu bainintzen inozo, konturatu gabe arrebaren zigorra apur bat gauzatzeko okasioa izorratzen nuela, neure kolaborazio afantsuaren gorabeheran bailegoen ahaideak maizago etxera etortzea, biziki desio nuenez.

- *Hauxe bai ur fresko zoragarria!* –hots egiten du osabak, ‘freskoa’ iturriarena bazen, ‘zoragarria’ ekarleagatik dela nabarmentzeko hasgorapenez, ulertu dut nik, batez ere, aitak gaineratu duenean:
- *Honek dakaren ura gozoagoa izaten dok beti.*
- *Eta zeuk ardaoa edan, ezta?* –jaurti du arrebak, okerreriak arinegi ahazturik.
- *Egongo haz isilik?* –agiraka dagio amak, eta aitak, amarenik entzun ez balu legez:
- *Bai! Hauxe be gozo jagon. Igartzen jakon dastatzaile finaren eskuetan ibili dena. Tragotxo bat gura don? Beno, beste tragotxo bat, ezton?*
- *Kakazaharra!* –amorratu naiz neurekiko, baita berehala poztu ere, aitak ematekoa egin eta eman ez egin dionean, arreba burlatuak mihi aterearen erremuskada egiten duela.
- *Miren! Lotsabakotu egin behar al don?* –kargu hartzen dio amak, eta aitak, berriz ere amarenari ez-entzun eginik:
- *Benetan gura don? Bai? Benetan?* –tiratzen dio, arrebak *baaai!!* purrustatu arte. Aitak orduan solemnitare handiz jaulkitzen du: –*Baina, horretarako, lehenik, belarrondokoa be benetan hartzea zor don. Gura don?*
- *Egizu zeuk gura dozuna!* –furrunkatu da arreba, badaezpada, lurrezko mahaitik alde eginez, ilendia muturrera hurreratu dioten katuaren aurpegikeran. Aitak atzerik hara xaxaka darrai:

– *Beste botilarik topatzen badon, ekarri. Dena bidean edan barik, ahal dela.* – *‘Umeen zentzuna etxean entzuna’ esan ohi don* –ahapekatzen dio amak izebari–, *baina gurean alderantziz dela uste jonat.*

Errepresentazio hura guztia neure eguneko larritasun berdingabearen fribolitate iraingarritzat hautematen nuen, perplexutasun erreminez, aitak agindu arte: *Emon mutikoari tragotxo bat, berorrek salbatu jeuskuk ardao demonino hau eta. Eutsa!*, luzatu zidan bere edontzia, inor ez zela mugitzen ikusirik. Hori niretzat derrotatik apoteosira igokundea izan zen. Noizbait ere, gauzen bilakaera zegokion ardatzera itzulia bide zen. Trago balientea egin nuen, baina ardoak zintzurrean behera deabruak hartu zituen eta, aajjhh!, muna bazterraren kontra disparatu zen, atzean eztulak eta karraskadak utzirik. Neure koxkortasunaren ebidentzia apalgarria aise irauliko nuen, jaukiz: *Zelako txarrikeriak edaten dozuez gizonok?* Ez nintzen erratu, orduan emakumeek ez baitzuten ardorik edaten, agerian, behintzat, izeba Gertrudek halakoetan zenbat sufritzen zuen komentario zeharretatik atera nuen moduan, batez ere, entzunaren gainean, haren aurpegi zeinuetan fijatzen hasi nintzenean. Txerrikeria haren mingostasun bentzugaitzak ere bazuen, nonbait, dohain sorgin bat, zeinari esker Paternina urdin honek zintzurra dibinoki, ia mistikoki labaintzen duen, burura osorik hel dadin. Hor zer egiten duen, gero ikusiko, gogoratzen bazara. Odolaren zirkulazioa deskubritzen ez zuketean hainbeste milenio tardatuko, urdailera jausten zen ardoa nola igo zitekeen burura pentsatzen jarri izan balira, jartzerako mozkortzen ez baziren.

Une diskusibo-txorrotxibo-konklusibo hartatik aurrera, gari ebakitzeetan ohi ziren nire gogoko autuetatik jarraitu zuen askariak, hala nola artajorran ziharduten ugazaba-morroiena. *Atxiertan askaltzen ari dozak eta goazen geu be munara.* Morroiak, lanari uzteko beti gertu, pozik darraio ugazabari, ugazabandreak iragarri gabeko askaria ekarriko duelakoan. Ez da hori, nonbait, ugazabaren asmoa. Gerizpetan eserita, morroia ez dago txarto, baina halako batean dio:

– *Parkatu, ugazaba, baina, askaririk ez badago, zertara etorri gara munara?*
– *Geuk be askaltzen dihardugula pentsatuko jakek.* –Egotalditxo bat eginik, ugazabak dio: – *Atxiertan itzuli dozak arlorra, eta goazen geu be.*

Heldu dira aitzurretara eta morroiak, gorputza kirtenaren gainera pausatuz, ugazabari elegante begiratzen dio. Ugazabak, konturatzean, erasotzen dio:

– *Zer? Artajorran ahaztu egin jak ala?*
– *Geuk be badihardugula pentsatuko dabe.*

Kondairagatik beragatik baino gehiago egoten nintzen horrelakoen zain, ondoren zetozen barre eta iruzkin neure ustez gehiegizkoengatik, non, gertakarien xarma ukaezinaren gainean, harrotasuna metatzen zitzaidan, neure burua norrago ikusirik, apur bat txotxoloak irizten nien gizonen artean. Emakumeak ez nekutsen, antza, neure buruagaz konparagarri, beharbada, tartean ama zegoelako. Horrek ez zuen, nigan, konparaziorik onartzen.

Beste ugazaba-morroi batzuek benetako askaria egin zuten, baina, ugazabarentzat zezinazko otartekoa bezala, morroiarentzat sardina bat talo-bitartean ekarri zuen ugazabandreak. Arlorra itzuli zirenean, morroiak artajorran bainoago nagi urtika zirudien, utzi beharreko landareak apartatzen ere larregi ahalegindu gabe.

– *Beste abiadurarik ez daukak?* –kargu hartzen dio ugazabak.
– *Bai. Motelagoa* –darantzu morroiak.
– *Askaltzen bizkor ibili haz, ba!*

- *Lasaiago ibiliko nintzen, zure zezina niganaino heldu balitz.*
- *Ugazabandreak alderantziz gura izan jok, ba!*
- *Orduan, orain erara tokatzen da. Sardina bat jan, sardina bat lan.*

Horrelakoxeak entzuteak sortaraziko zion nire lehengusu zaharrago bati morroiekiko sinpatia, morrontzagaz asoziatu zuena, inozoki, uste nuenez. Ni neu, herriko morroi guztien lagun izaten ahalegindu arren (eskolatik libre zirelako, segurrenik), nekez deskuidatuko nintzen etxean agertzen handitan morroi joateko setarik. Fraile, okin, ermitau, bidelapur, santugin, ehorzle, baina morroi ez. Gure herriko aita askotariko bat, *benetan morroi joan gura al dok?* esanez, baserriz baserri abiatu da bere semeagaz, etxe on baten bila. Pasaeran, sukalde bakoitzeko leihotik sabai aldera begiratzen du disimuluan, horniduraren arabera atea jo ala ez erabakitzeko. *Hemen ez. Hemen be ez,* aitak esanez, aurrera doaz, mutilak etxe bateko leihoan txunditurik hots egin arte: *Hementxe! Begitu zelako sukalde gaina dagoen.* Lukainka ilara amaigabea gaktotik gakora, urdaiazpiak, urdaiak, saiheskiak, solomoak, bakailaoak... zer ez dago bertan, gose-puntu jarraituak ikuspen onezkoak erraldoitzen baititu? Aitak ikusi eta, *hau ez jakuk komeni* muzin eginez, aurrera darrai. *Hauxe!*, hots egin du hurrengo baserrian, morroiaren harridurarako, zeinak, muturra barrote artetik luzatuz eta arnasa kristal arrakalatuan utziz, sukaldearen goialdean ez dakusen ezer, irabala mozkinak gakoetan dingiliz baizik. *Sukalde bete-betea bertan utzi, eta orain ezer dagoen lekuan gelditu behar al dogu?* Aitak galdera horixe nahi zuen, erantzuteko: *Ezer ez egotea jan daben seinale dok. Beste horretan, gaur egin doana egin beharko dok: begiratu.* Horrelako hiru-lau istorio entzundakoan, nire eskaria jakina izaten da:

- *Konta gari-lapurrena.*
- *Barriro be?* –kexa plantak egiten ditu aitak, baina badakit kontatzeko desiatzen egoten dena–. *Hori ez dok ipuina, hemendik ez urrungo egia baino. Eta ez hain gertatu zaharra.*
- *Blas Artabeko?*
- *Esan deuat ezetz, eta ez deuat esango. Barriro izenik aitatzen badok, mihina zatika jausiko jak ustelduta, kalumniatzailearren.*
- *Izatekotan, belarriak, espiarren* –pentsatu dut fruituz, izen hori aita-amei eurei entzuna baitut, inguruan inor ez zelakoan zihardutela, behin baino sarriago hurbildu natzaienetariko batean, non sinetsi dudan lapur trebea izango naizela, beti harrapatzen baitut zerbait interesgarria, ez bada saiakeraren espektatibak berak generatzen duela garrantzia, Jainkoak mundua sortu ei zuenean bezala.

Garia igitaiturik, azaoak edo eskutadak egiten dira, gari-lotzea deitzen zaiona. Gero eskutada horiek mutxurretan tentetzen dira. Gure inguruan ‘mutxurak’ esaten zaienak giza altuerako hogeita hamar bat eskutadako kono xarmantak dira, egun batzuk lehortzen egindakoan, metara joango direnak, gari-jotze egunera arte. Mutxurak galsoro guztian banaturik egon ohi dira, oso berdintsu, urrundik eta maldan, jokutzen hastear dagoen taula irudi. Gizon bati susmoa sartu zaio, bere galsoroan mutxurak mehaztuz ote doazen. Kontatu ditu, eta bai. Biharamunean bi mutxur gutxiago daude, begira ez igartzeko moduan, oso era berdintsuan falta baitira. Espazioari dagokionez, lapur igoariora dirudi. *Gure soloan gari-lapurren bat jabilen. Hainbeste mutxur falta dozan,* diotso andreari. *Eta inork ezer igarri ez?,* berotzen da andrea, noren kontra ez dakiela, zorro bat gutxiagoren kontua eginik. Gizona, gauean, zain geratu da, soro kontrako hariztian. Honetan, irudipena dauka mutxur bat mugitzen ari ote den. Ilargia behe samarrean dago eta ezin du ondo bereiztu, baina bai; mutxurra, aurrarakatxo bat eta geldu, beste aurrarakatxo bat eta geldu, soroaren erdi ingurutik, mutxur-lagunen artetik, bazterrerantz dator, gizona ezkutaturik dagoen hariztirantz. Mutxurak bazterra jotzerako, gizonak izuturik alde egin du etxera, andreari hots egitera: *Maria! Gure galsoroa sorgindurik jagon! Mutxurak eurak ari dozan eskapatzen.*

Andreak gizona apur bat baretu duenean, bien artean zaintzea pentsatu dute, ez baitago garia bezain on preziatuari ihes egiten uzterik, sorginak tarteko badira ere. Ez da misterio-argitze erraza izan, baina, azkenean, aurkitu dute sorginkeriaren gakoa. Lapurra, mutxurren osterik oste, galsoroan barnatu da, haren falta gutxien igartzeko moduko mutxurra hautatu du, erpina lotu dio, bera barruko hutsunera sartu da, apur bat makurturik behar badu ere, eta konotxo miragarria abian hasi da. Hiru-lau urrats xuabe-xuabe, eta geldi. *Ez dok tirorik izan*, konstatatzen du pozez lapurrak. Beste hiru-lau urrats, eta berdin. Hala, lehorreko krustazeoa, garizko etxola bizkarrean dakarrela, badator munarantz, non, mutxurra karga eginik, aise ezkutatu den hariztian zehar, honen beste muturreko bere etxalde partean irteteko. Lapur asmotsua auzorik hurrena da. Oker handiagoak ekiditearren, elkarren ondoan bizitzera kondenaturik baitaude (nahi baduzu, beharturik; zein da aldea?), ez dira ezer esaten ausartu, aurrerantzean gariak zaintzeko sistema zorrozuko badute ere, lantzean gauerdian batean tiro egingez, biharamunean herkidereen batek, lapurra tartean dela, galde dezan:

– *Bart zuen etxe inguruan ez al dozak tiroak izan?*

– *Gure andreari buruan sartu jakok soloetan sorginak dabilzela, mutxur artean olgetan edo. Egia dok, antza, sorginentzat ez dagoela eskopeta lako txorimalorik.*

Gertakari hori gehien gustatzen bazait, ez da bere berezko osagarri bihurri, magiko, izuzkoengatik bakarrik (gari-mutxurrak gauzez mugitzen, hurbiltzen, eskapatzen imaginatzeak hotzikara ematen du), baizik, batez ere, istorioa barik, historia delako. Eta, batez ereago, helduek ez dakitelako nik egia dela badakidanik. Orduan, zoragarri zait nola istorioa kontatzen eta komentatzen duten, ni euren barre eta aipu disimulatuak zer-nori dagozkion zehazki jakinean, eurek usterik ni ipuin intenporal bat entzuten ari naizela. Eurek ni fantasiaz engainatzen nautelakoan, nik eurak egiazki engainatzea baino lilura handiagorik ez daiteke ipuin batean izan. Ezta errazagorik ere, zeren, obsesionaturik daudelarik umeok ez daukagula handien maleziaz jabetzeko ahalmenik, guri haien aurrean ezjakin planta egitea gutxiago kostatzen zaigu jakitea bera baino. Horrelakoetan, helduak txotxongilo adorableak dira. Gari-lapurraren egitasuna susmatzen igazko gari-lanetan hasi nintzen, horrelakoxe askari batean, ipuin ustekoaren ondoren, auzoko gizon batek iruzkindu zuenean: *Horren antzekoak urrunegi barik jabilzak hemen*. Bihozkada batek eman zidan *hur-hurrekoa* esan nahi izan zuela, ezin baitut pentsatu ipuinik, nonbait gertatua ez denik, egia urruntasunean ezabatzen saiatzen badira ere. *Izenik esaten ez ete dozak deskuidatuko?*, pentsatzen nuen, baina badirudi era inpersonala, umeon inozentzia babesteko baino gehiago, izenen malefizio posibletik norbere burua libratzeko dela.

Susmoa izan nuenetik, ipuinaren xehetasun errealagoz galdetu eta, erantzunik fantasiosenak bete-betearen irensten nituelakoa eginik, mahaitik edo bigiratik alde egingo nuen, etxe aurrera edo mandiora jolasera nindoala-eta, haien solasaren jarraipen egiazkoagoa probokatuz. Beti ere berbaroarean iristerretik ez nintzen gehiegi urrunduko, solas osoa ez bazen, fragmentu txikiak, esklamazioak, ziplada ozenagoak, harrapatzeko moduan. Batean: *Mutxurrean sartzeko, gizon txikia izatea abantaila handia dok*. Gizon ‘txikien’ izendapenean sartzen direnak ez dira asko gure herrian. Bestean: *Eta aho garbikoa!* Biraotia ez dena, alegia, eta horrelako gizonak gure herrian ez dira hiru izango. Hurrengoan: *Gaua garitzan eta eguna trenean*. Horregaz ez nuen lorratz hurbilik harrapatzen, asko baitira goizean goiz trena hartzen dutenak, lanera joateko. Baina ez dute ‘eguna trenean’ ematen. *Zozer arraroa jagok hor*, pentsatzen nuen. Beste behin: *Ez nekieran kandela-negarra garijalea zenik*. Horregaz ere ez nuen ezer aterako, handik egun batzuetara, gure etxe albotik gurdak egurrez zihoan Arientzako Terentziogaz berbalditxo bat egin zuen amari gero aita galdetzen entzun ez banu: *Zer jinon kandela-negarrak?*

Hara! Horixe dok!, pentsatu nuen. *Kandela-negarra* gaitzizena bazen, Terentziori egin-eginean zetorkion, txikia baitzen, biraoen arerio militantea, eta trenbideko langilea. Hurrengo

egunean, *Terentziori zergaitik esaten deutzazue Kandela-negarra?* amari zuzen galdetu beharrean, *zelako txutxukeriak asmatzen dozak hik?* edo horrelako zerbait erantzungo baitzidan, kanpoan entzunda jakin banu bezala eraso nion: *Arientzako Terentziori zergaitik esaten deutzazue Kandela-negarra?* Berak *nork esan deua hori?* kontragaldetuz saihestu nahi izan zuen erantzuna, baina nik *denek dinoe* argumentu eskapu gabez berrerasotzean, bere burua libratzen saiatzea besterik ez zuen izan: *Ez jakiat. Domekaro jaunartzen dauelako-edo izango dok.* Banekien ama belarrondoko bat agintzeko adina ernegaraz nezakeela, galdetu izan banio: *Eta gari-lapurra delako, ezta?* Hori lilura guztia destripatzea izango zatekeen. Nahikoa nuen gari-lapurra *Kandela-negarra* zela eta *Kandela-negarra* Terentzio zela jakitea, geroztik, aukera nuen guztian, gaur bezala, *orain konta gari-lapurrena* ekiteko.

Ez dago ipuin exzitanteagorik, denen keinu eta iruzkin esternoak euron klabe internoan obserbatu ahal izatea baino. Eskolako Gabon pasarteetan edo Txanogorritxuren antzezpenen aldean, aktore perfektuen antzerki totala, non batzuek badakitena ezkututzen duten, besteok badakigula ezkutatzeko. Eurak gure inozentziaz gozatzen dira, gu euren sinpletasunaz gozatzen gara. Batzuetan, gailen plantak egiten dituzte: *Zagoze isilik, zuek honelakorik ez dozue ulertzen eta.* Sarritan, egia da ez dugula zer dioten ulertzen, esan nahi ez dutena ulertzen dugulako. Umeok daukagun itaunontzi famari jarraituz, saiatzen naiz itaun ugari egiten interesatzen ez zaizkidan gaiez, zeren interesatzen zaizkidanek hain osatzen dute bilbe anizkuna eta multifrontea, eta hain edukitzen dut, denera iritsi ezinik, burua okupaturik, ezen sarritan itaun hutsalak egitea ahazten zait, eurek neuri itaunteraino tristerik ote nagoen. Nola egongo naiz tristerik, gurean dabilen ‘nobedade’ usainagaz? Ama sabel-handitzen hasi zenetik, osaba mutilzaharra amamaren aurrean galdetzen hasi zitzaidan ea ‘txotxo’ berria ala bizikleta nahi nuen, eta uste dut, tratularia zelarik, maltzurkeriaz galdetzen zuela hori, bazekielako, nik bizikleta erantzungo nuela jorik, amama Jesuska hasiko zela, hots eginez:

- *Baina zelan hobetsiko dok bizikleta, ume barria baino?*
- *Nik bizikleta gura dot!* –tematuko nuen. Osabak irribarre muturrokerra mahaipen zerbait bilatzeko plantan ezkutatu zuen, eta amamak ekingo zion:
- *Hemen ez daukak bizikletan non ibilirik, eta errepidea hiretzat urrun jagok oraindino.*
- *Aukeran ez al deutzazue ipini?*
- *Aukeran bai, baina zentzunez eta kristauki aukeratzekotan.*
- *Nire zentzun kristaua bizikleta da* –amaitzen nuen beti, umea banekien etorriko zena eta. Amak berak ere:
- *Tripan zer daukazu, ama?* galdetu nion batez, erantzun zuen:
- *Aza lartxo jan izango najoan eguerdian.*
- *Osorik iruntsi dozuz ala?* –Amak burua bueltatu eta txapako atetxo irekirik, garratz plantan hots egin zuen:
- *Suari noiz sartu deutzazue egurra azkenengoz?*

Dagoeneko, gari-askari honetan, amaren sabela oso handiturik dago. Lurrean apur bat atzerantz esertzen da, eta, normalean bezala, zuzen eta ia saltoan barik, albora eginean zutitzen ikusteak pena damait, baina bai bizkor oldartu dela kitanaren atzetik, botila ardoaren bila. Azkenean, itxaroten nuena iragarri didate, hots, bizikletak hurrengoan izan beharko duela. Oraingoan, umea ei dator.

- *Hori be Bizkargitik etorriko da?* –itaundu nion amari, osaba soinulariak mendi hartako erromeriatik, ijitoei ostuta, soinu barruan ekarri ninduelako kondairari tiratuz.
- *Ez. Hi apartekoa haz* –losetxatu ninduen– *Hire anaiatxo Paristik etorriko dok, beste guztiak legez.*

- *Parisen nork utzita?*
- *Jainkoaren bialdu batek.*
- *Umea ikusita daukazu?*
- *Jainkoak emonari ez jakok begiratu behar.*
- *Zelakoa den ikusi be ez?*
- *Bajakiat zelakoa izango den.*
- *Eta aitak?*
- *Aitak nahikoa jaukak soldata ekartzeaz. Heuri be ‘hauxe’ gustatzen jak, eztok? –galdetu zidan, hatzekin txintxin keinuak eginez.*

Hain xoragarri zitzaizkidan txanponen hotsez edozertatik distrahitzen ninduteneko trikimailuagaz solasa desbidentu guran zebilen. Baita, bide batez, paperezkoak gordetzeko hobeak eta, batez ere, baliotsuagoak zirela deskubritu nuenetik, diruak ohapean-eta pilatzeko daukadan grina zelatatu guran ere, gure amak nekez jaulkiko baitu intentzio bakarreko arrazoirik. Orain susmo besterik ez dudana, handitzean konturatuko naiz, ondo analizatuz gero, litezkeen arrazoi guztiak detekta daitezkeela amaren edozein inflexiotan. Arrazoiak eta intentzioak nahasten ari naiz, baina kasurako berdintsu dela uste dut.

Eta izena ipinita ekarriko al dau?, tentatuko nuen hurrengoan, hori ere aterea baikenuen aita-amen autu bat entzutetik. Etxe aurreko harrizko jarlekuan erreparatu genien eta, aita eta ama astegunez horrela elkarren ondoan esertzeko, arazo garrantzitsua izan behar zuela pentsaturik, anaia zaharragoa eta biok haiek kanpotik azpian eserita zeuden leihora hurreratu ginen ukuiluaren barrualdetik.

- *Aitabitxiren izena ipini beharko jeutsanagu.*
- *Ez dok derrigorra. Aurrekoekin ez genduaan horrela egin.*
- *Asen izena polita be badon.*
- *Asentzio ipini eragingo jeuskuek.*
- *Bardin don. Aitabitxi be inork ez jakin Asentzio denik.*
- *Ezta Asen denik be, denek ‘Karnera’ deitzen jeutsiek eta. Gero gure umeari Asen Karnera deitzea besterik ez geunkek behar.*
- *Ez litzateken horren lotsagarria boxealari handi baten abizena.*
- *Karnera boxealari ibilia dok?*
- *Bera ez, baina ezizenaren titularra bai. Munduko txapelduna baino ez, Primo Carnera.*
- *Zuek jotzea baino ez dozue pentsetan, asto gogaikarriok!*
- *Baina Asen izen polita don, eta egon be ez jagon askorik.*
- *Tirok, ba! Izan daitela Asen edo Asentzio, izenak ez jok ogirik jango eta.*

Horren eta gehiagoren jakinean urrundu gara anaiok ukuilutik, isil-isilik eta pozean kabitu ezinik, ume berria, apur bat haz dadinean, nola bizkarrean erabiliko dugun eta zertzuk ekarriko dizkiogun planak eginez. Nik aspaldi kalkulatu dut haurren nondik norakoa, pentsatzen hasi nintzenetik gizakiena ezin zela hain diferentea izan, baserrian eurekin bizi garen animalia guztien praktika noiznahi eta arretaz obserbatutik. Denborarena ere badakit, aitak tabernara laguntzen uzten didanetariko batean, Artetxeko etxagunari, kontulari handia bera, arreta jarri bainion, esaten hasi zenean: *Abereak eta gizakiok zertan gozak, ba, diferenteak, sarritan zentzunean be irabazi egiten deuskuela izan ezik?* Batak hau, besteak hori, geroago esan zuen: *Txahala eta umea jaiio be zeozergaitik egiten dozak denpora bardinera.* Txahalena sobra ere badakit, haien egunak, behiari zezena eman zitzaionetik bederatzigarren hileria, sukaldeko ispilu txikiaren ondoko egutegi handian arrastada nabarmenez apuntaturik egoten baitira, azpiko zenbakia ere ezabatzen dutela, Kristoren jaiotza-edo tokatzen ez bada. Bederatzi hilabete dira, beraz, umearenak ere. Baina, hasiera noiz eta,

batez ere, nola izan zen garbi-garbi ez dakidanez gero, amairik ezin dut kalkulatu, oraintxe uste dut ez dagoela urrun baina. Amak, segurrenik, badaki badakiguna, baina, badaezpada, ez dut gehiegi estutuko, beharbada, deklaratzera beharturik aurkitzeko abagunearen zain dagoelarik (egintza dudazkoen erantzukizunetik libratzen zaituen destino omen anker noski segurrari jarraituz), nire itxarote geroz beteago honen maratila izorra ez dadin. Segurrenik, amamak eta besteek ere badakite badakiguna, eurek ere izango baitute, guk eurak beste, eurek gu obserbatzeko malezia, baina badirudi itxura jagon beharrean daudela, goragoko arrazoiren bategatik. Arrazoi horixe da inondik ere kalkulatu ezin dudana, eta uste dut eurek ere ez dakitela, zeren, balekite, igarriko genieke.

Bizikletarekiko dilema maltzurra asmatu zuen osaba bera ere, amamaren ernegurako, elizara joateari antzinatik utzita dagoena, ez da ausartzen, gainerako guztian mihipeko gabea izan arren, gai honi buruzko isil-ituna hausten, eta eskertzen diot, bere bihurrian, niganako onberatasun hori, nahiz eta neu ere saiatzen naizen haregaz bakarrean ahalik gutxien egoten, bera ere, sarritan esan ohi duen *burutxo hori zertarako dok, diskurritzeko ez bada?* delakoaren inpazientziaz, deklaratzeko deskuida ez dadin. Irrikaz nago, amaren sabela hus dadin, baina hori gertatuko dena badakidanez, eta haurtxoaz gozatzeko gero ere astia izango dudanez, kruzero apasionante hau luza dadin eskatzen diot Ama Birjinari. *Ai, ene Jainko! Zergaitik egiten dozuz gauza onak hain bateragatx?* Gero, 'nobedadea' presaka iragartzea datorke. Badakit (eta horixe guren nik), amama Pagaikorenera bidaliko nautena. Ordubeteko bidea ordu erdian egingo dut, eta asnasestuka helduko naiz (*beste amamak esan deust gurean nobedadea dagoela esateko*), orain sei hilabete, Torreburu zaharrean jaio zen lehengusuaren 'nobedadeagaz', anaia zaharragoa eta biok Ibarrurira bidali gintuztenean bezala. Badirudi 'nobedade' hitzak deabruak dauzkala, denak arrapaladan hasten baitira, derrepentean, hitz bakarrez, munduaren azpi-izate guztia ulertu balute bezala. Guretzat itzela da hori, zeren, azalpenik eman behar ez dezaten edo galderarik egin ez dezagun, sekulako askariak prestatzen baitizkigute, etxeko gordelekurik urrunenetatik gauzarik gozoenak ekarriz, *jan hau, edan hori; tiratu, mutiltxoak, horrelaxe balienteak izaten jarraitu daizuen*. Niretzat, erraz baino zoragarriago da, dakidana isiltzeko balentriagatik, denean heroi eskergarritzat trata nazaten.

Paternina urdin honetan, oroimenak gertaeren gazi-gozo esentziala, orainaldi jasangarri baten behatokitik, samurrerantz sinplifikatzeko daukan dohainari esker, ardo petrolero haren intentzio guztiak gaurkotzen dira. Kalitatea, berriz, leun-leun ari da burura igotzen, aire bare-bareko goratze planeatzailean, eta ez teilatuan laurogei erraldekoko idisko baldarra dabilkizun sentipenez. Urdaiazpi boluptuosoagazko konbinazioa ere izan daiteke, baina horren kalitatean ez daiteke hainbesteko alderik izan, orduko txerriak hobeak zirelako ez bada, zeragatik dudazko egiten den gizateria aurrerantz doalako. Garaiak garai, urdaiazpia oraintxe ere ez dago txarra, otamenetik otamenera, ardo on batek (txarra bada ere, zer?) mihi gaineko izartxoak pizten dituenean. Aluek, gainera (ez izarrek, noski, ardo-urdaiazpiek baizik) elkarri tiratzen diote, zoriak elkarren ondoan jarri dituen bizilari biziosok bezala. Bakarrik behar dute nire zintzurra bezalako artekari bat, elkarkuntza elegantziaz eta atseginez osa dadin, behinolako kezken eragin murriztaile gabe, zeren, behin edo behin, Gorozikako amamaren, Maumako osaba Hilarioren, edo Arratiako ahaideen mahai ugarian (ni joatea gertatzen zen bakanetan, behintzat), jan ahala urdaiazpik liluratsen baninduen ere, *gehiago ezin dot* esan arte, ezin izaten nuen geure etxeagazko konparazio urriagoagaz tristatzerik ekidin, ez hainbeste gurean urdaiazpi-aserik inoiz ez zegoelako, geure urdaiazpi maitea zelako baizik.

'Inoiz ez' hori etxean bakarrik uzten nindutenean hautsi ohi zen. Ez zen maiz gertatuko, txiki samarra nintzela, behintzat, baina, behin edo behin, gertatzen zen amak goizetik iluntzera arte derrigor kanporatu beharra. Aita kanpoan lanean, anaia-arreba zaharragoak euren zereginetan, amak bazekien, goiz erdian astoagaz abiatzen zenean, ni pozik geratzeko modua zein zen:

- *Bazkaririk ez deuat ipini. Ebagi urdaiazpia eta heuk jan.*
- *Askaltzeko be bai?*
- *Baita.*
- *Neuk gura dodan beste urdaiazpi jan neike?*
- *Heuk gura doan beste. Baina txakurrari ez emon.*
- *Ez, ez! Txakurrari talo zatiak emongo deusadaz.*

Behin edo behin, beraz, ‘etxezaintza jatorraren’ ordain itxuran, baina mutiko baten bakartasun kezkarria leundu guran ematen zidaten aukera etxean ere izaten nuen, noski, baina, zorionaz ez abusatzeko arduragatik, zatitxo bat hemendik, printza bat hortik, azkenerako, ok egiteraino asetzen banintzen ere, eta amak bueltan *ondo egin dok!* onetsiko bazuen ere, gozamina ez zen guztizkoa izaten. Edo ez, behintzat, lasaia (orain zorionak inpetuosoak izan behar duela diote, baina eurentzat!), ezin bainion utzi geure urdaiazpi maitearen amaia zenbat aurreratzen nuen pentsatzeari. Horixe zen gauza on guztien alde fatidikoa: arin amaitzen zirela. Lehen umezaroan, zeruko zorion infinitua menbrilloagaz irudikatzen nuen. Betiraun guztia menbrillo janean, aum-aum-aum. Hamar bat urtetik aurrera, nire zorion zerutarra urdaiazpian finkatu zen, gatzunaskatik sabaira igotakoan (infenuetatik zeruetara, nolabait), luzaroan ukitzeke egongo zena, birjintasunezko altxor moduan, azpira gainean. Nire begiak egunean hamalautan liluratuko ziren apaxdun oin batetik eskegitako esfera ilun ia perfektu eta potzolo hartaz. Ebakitzen hasitako egun handitik, figura guztietarantz eraldatuz joango zen, geroz figura penagarriagoetan, harik eta, gose preskribituak gogoeta soileraino murriztu zuen On Kixoteren miniatura irudi, hezur gorri-hil okertuan dingiliz gelditu arte, zeina, halaber, exuberantzia baten fosilizazio nostalgikoaren gainetik, igande bereziren baterako, indaba zuri lapiko delizios baten agintzari bihurtzen zen.

Urdaiazpi kasik esferiko haren liluramena ez zitzaion, beharbada, gutxien zor izango piper-hautsak ezarritako gorriskatasun sentsualari, zeina den, harrezkero, nire gorriskatasun ideala, beste guztiak haren hurbil-urrunetik preziatzen ditudala. Hala, aurretiko gorria, balkoia beteko piper-sorten ilara ikusgarritik barneratzen zena; ez eskegi berritako gorritasun berdexka hura, geroagoko gorri-ilun trinkoa baizik, distiren azalkeria irentsi ondokoa. Hortik etor dakiket kolore dirdaitsuek larritzen nautela edo harribitxiek hilaritatea sortzen didatela, esentzia espainolagaz asoziatzen ditudalako ez bada, ‘argi-jantzia’ delakoagatik, peinetengatik, edo, beste gabe, armen distiragatik, zeinaren arabera, espainol kontsekuentea Cervantesegaz ez zaizun beragatik baino gutxiago harrotuko Lepantoko batailan gudukatu zelako, halako eran non, hura ala Colon hautatzera beharturik, kosta egingo litzaioke kolonizatzailea baztertzea. Badakit espainol guztiak ez direla kontsekuenteak, baina sinbolo nazional baten hautaketan, beldur naiz Lepantoko beso-elbarria ez ote litzatekeen kolonizatzaile anbiziosoagandik lotsagarri urrun geldituko.

Posibilismoa akatsa izan daiteke. Inposibilismoa, krimena. Azkenean, aukera bakarra geratu zait: idaztea. Honek ezertarako balio ez badu, zer egin behar dut? Bai dela erraza irabazlearen apaltasuna! Bai, bai! Arrazista naiz. Beltzak nahiago ditut zuri gehienak baino. Ez nau arduratzen idazten dudana inori ez gustatzeak. Funtsean, atseginen dudana erabat bakarra izan nadin da. Beharbada, arrakasta izan banu, ez nintzatekeen honen harroa izango. Gauza bat dago ni baino indartsuagoa: premia, zeinera makurtzeak ez nauen lotsatzen, aurretik haren zenbait konkrezio ukatua banaiz ere. Prousten argazkiak neure lehengusu baten antza dauka. Lehengusuak nire antza dauka. Hirugarren baten antzekoak diren bik elkarren antzeko izan behar dute. Beraz, Proustek neure antza dauka. Plazer inefable bat: intxaurrek txikitu, Stravinski entzunez. Bo, Stravinski alda nezake Griegez, Usandizagaz, Berliozez, Verdiz, Guridiz, Smetanaz... baina intxaurrek ez diezadatela ken. Jenioaren formatu osoa daukat. Ahala bakarrik falta nuen, eta orain horixe ere alferrik dut.

Eta orain ardoa eta urdaiazpia eta gazta basaki gozatsua eternitate bati eusteko lain pilatuak direnez gero, eta, zehazkiago, une objektiboki zoragarri honetan, hots, objektibo-subjektiboen erlazioak bost axola duen uneari esker, alai-puntutik harago naizenean, hots, eten-puntuetan edo puntuazio mugagabeen noanean, barruak kartaldi bat eskatzen dit, ilunabarra bizio bakartian ohoratzeke. *Zer ordu dok? Bederatzirak. Ona! Oraindino beste ordubete jeukaagu argitan*, ea, astiro-astiro, piztia erdizka gautar-egundarren izaera desnatural (omen, baina flipagarri) hau argiaren ziklo exaktora egokitzea lortzen dudan. Oiloekin etzan, oiloekin jaiki. Diogun txoriekin etzan, txoriekin jaiki, xarmantago ematen baitu. Gainera, txoriak hain dira dibertsoak, ezen ez litzateke zaila, halabeharrean, norberari komeni zaion espeziara arrimatzea. Bide batez, gure amaren karta misterioa argitzen saiatuko naiz, orain astia baitaukat, lehen ez bezala. Gure amak, laurogeita hamahiru urtegaz argitasun osoan hil zen arte, laugarren adin guztia (hirugarrena lanean zimeldu zitzaion) bere buruagaz karta-jokoan entretenitu zuen, egunkaria osorik irakurtzetik (irakurri edo) geratzen zitzaion denboraren osagarri. Harriturik genekusen nola ez zen harentzat denborapasa egoki bat bakarrik, adin horretako bakartasunean beste edozein izan zitekeen bezala. Behin baino gehiagotan ihes egingo zion esneak edo erreko zitzaion lapikoa (sukaldaritza txiki horri azkenera arte eutsi zion, izatearen korfirmazio bezala) bere kartengana joan-etorrian, joanean gehiago etorrian baino, norbait gainean egon ezik. Egunaren argia ahitu arte ekingo zion, argindarrik ez gastatzearren, egunkariari heltzen ez bazion. *Baina andra honek zer ikusten jok ilunetan?*, pentsatzen genuen, tentatu ere bai inoiz, *zer dino hor?* disimuluan galdetuz, eta, harrigarria, paperean zetorrena zuzen esango zizun.

– *Gurean bada bat, laurogeita hamahiru urtegaz, egunkaria betaurreko barik eta ilunetan irakurtzen dauena.*

– *Zuen amak irakurtzen bajakik ala?*

– *Horixe dok, ba, miraria gainezten dauena!*

Karta-joko ultramundanoan ziharduela esango nukeen, ezpainak ahotsera itzuli guran zebilen harainditar batek eraginda mugituz, erpuru eta erakusle mamiak aldizka beheko ezpain hezean bizkor pasatuz, gordezulotik eskapaturiko ‘aitaren’ keinuak iduri, eman-batu, pilatu-zabaldtu, azkenean, bi multzotan edo mahaian zabal, jokoaren amaia erabakia izan ohi ez balu bezala. Bazen logika bat, zeinaren misterioa, inoiz albotik begira, ez bere oso gustura, ezin izan nuen argitzerik lortu.

– *Zer joko mota dozu hori?*

– *Ez dok ikusten ala?*

– *Ikusi bai, baina ezin deusat antzik hartu.*

– *Hartuko deusak, astiagaz.*

Pertsona zahar batengan, bere buruagaz dibertitzeko argitasuna eta lehia bizi-dohainak dirateke, noski, baina batzuetan ezin nuen, neure burua arabera imaginatuz, pentsatzeko abailmenik ekidin: *Horra gure etorkizunik garaileena*. Aspaldiko lagun braboa Errukietxeko ate alboan eserita aurkitzean, *burua makurtxo daukazu, lagunzaharra!* gupidatu zenari hark erantzun zionean bezala: *Horixe jaukaat, ba, goren!*

– *Zelan da joko hori?* –galdetzen banion, alferrik izango zela jakinik ere, erantzuna jakina zen:

– *Begira ez hago, ba?*

– *Baina piloak zeren arabera egiten dozuz?*

– *Ikusita ateratzeko gauza ez bahaz, esplikaturik ez dok ulertuko.*

Gure amarentzat, ebidentzia ikusmenetik zetorren, ikusten ez zena fedea baitzen, hots, ulertzen saiatzetik eximitzen zintuena. Bitartean, hots, ikusten denetik ikusten ez denera, burutazioak zeuden, pentsamenaren zilipurdiak esango genukeena. Ekiten banion, ernegatu egingo zen, agiraka hasi arte: *Aldeik hortik, endredatu egiten nok eta!* Kontua zen ez zela azalpenik eman behar, zuzenean, behintzat. Bakoitzak berak joan behar zuen bizitzako gakoak aurkitzen eta behar ziren argitasunak harrapatzen. Gure ama halako kulturatik zetorren, non galderei erantzun zeharria zegokien beti, ez era moztailan ere, galdetzaileari beste galdera bat egiten uzteko moduan baizik. Bazirudien jakintzak imitazioz korritu behar zuela, edo obserbazioz, gehienik. Malezia zilegi zen, intimoa zeno. Susmoa daukat, gure amagan, joera hori instintiboago zela kontzientea baino, halako eran non, gero, ikaskuntzari irakaskuntzak prezeditu behar ziola edo hala izatearen komenentzia entzuten hasi zenean, senak bere nagusitasun atabikoa gotorturik zeukan, gehienez ere, oroldioa edo lingirda onartzen duen harkaitzak bezala. Horrela, norbait halako balizko jakintzetara iristen ez bazen, esan zenezakeen ez zitzaiola interesatu. Edo haren arretea beste zer batzuetan pausatu zela, jakinik edonork daukala trebetasun bat baino gehiago, non bera espezialista den. Edo ez zuela zenbaitek adinako zorterik izan. Edo ez zela sasoiari gehiegi ahalegindu. Edo, beste gabe, alfer samarra izan zela; hori argibide konbintzentea zen beti. Edo, zergatik ez, alfer hutsa. Zeren, ondo esplikatu diozuna ulertzeko gauza ez bada, nola irentsi behar duzu ume ergela daukazula?

Gure amaren senek osaturik behar zuten, etxaldean jarraipena lokatzen ari zelarik, hots, oinordekotza zorte baino maldizioago bihurtzen ari zelarik, aita nostalgikoak (ernegatuak, garbi esanda) etxean seme ergel bat beharrezkoa zela esaten hasi ziren baino lehenago. Kale gorriaren mehatxu eta guzti ere, tradizio aldaezinaren haustura-kasu hartantxe ere, gure amak etxaldeari lehenago jaregingo ziokeela uste dut, seme ergelik desiatuko zukeen baino. Azkenean, bere karta-joko bakartiaren sekreturik agertu gabe joan zen, eta orain bihotzez eskertzen diot, zeren, afektiboki txit betegarri zaidan ahalegin asmatzaile honegatz batera, berak batere uste gabe, neuri ere egoera berri honen luzapenean ezin hobeto etorriko zaidan dibertsioa jarauntsi baitzidan. Nik uste dut kartak zabaltzen hasten zela, ezkerretik eskuinera, eta karta bat bi palo berdinen artean, edo, nahiz eta palo ezberdinak izan, bi zenbaki berdinen artean tokatzen bazen, karta biak (ala hirurak?) ezkerrean pilatzen zituela, ea, azkenean, denak pilo bakarrean biltzea lortzen zuen, edo... uste dut neuk ere ez dudala ulertzen zer esplikatzeko ari naizen. Batzuetan, karta ilarak mahaitik irten zorian zabaltzen zirenean, arauz ezin zen konbinazioa tranparen bategaz laburbidetzen zuela esango nuke, baina joango naiz apurka-apurka dena argitzen, ardo ilunaren eta urdaiazpi zerri honen laguntasunez.

Bitartean, neure buruagaz briskan dihardut, ez, agian, kartetan ikasi berri nintzeneko irritsez, baina bai orduan, menperatzerik ezin lortuz, amore eman behar izan nuen modalitate zailagoan. Nork esan behar zidan, geroztik oroimenetik ere ezabatua zen kimera aureskolar hura gogoaren iruntzian agertuko zenik, zirkunstantzia hauetan burutu ahal izateko? Zenbakiak hizkien aurretik ikasi nituela emanik (haiek ziren garrantzitsuak, eskailerak ilunetan igo edo jaisteko, oilalokaren inguruan txita guztiek jarraitzen zuten jakiteko eta abar), irakurtzen baino lehenago ikasi nuen briskan, ulertzea dezente kostata zenbait zenbaki –bia, laua, bosta, seia eta zazpia– zergatik ziren ‘orbelak’ edo tantogabeak, haizeak jabe-lurrez alda zitzakeen orbel haietarikoak, non, gurdia kargatzen ari ziren batean, auzo errezeloti bat inguratu zenean, esanez: *Horreek orbelok ez dakit, ba, denak zeuen partekoak izango diren*, erantzun zioten: *Hara! Hementxe daukazuz denak. Zeureak ezagutzen badozuz, apartatu eta eroan*. Ikasi nuen, ikasi behar bazen, eta amaren pazientziak sarritan ezin izaten zion mehatxuari eutsi: *Isilik ez bahago, kartak surtara botako deuzat – Barriak egingo ditut –pentsatzen nuen nik–, badakit zelakoak diren eta*. Etxeko guztiei, berari batez ere, burutik eragiten nien ekinka: *Noiz egingo dogu kartetan? Egingo al dogu oraintxe? Bueltatxo bat bakarrik. Orain ez, orain ez... noiz, ba, orduan?* Zahartzaro estremoan, ospitaletik etxera itzul nadinean, badakite aurreneko hitzak zeintzuk esango ditudan: *Karta-jokoan egin behar*

dogu. Eta hori odol transfusio bakoitzean, txandakako zaintzaile guztien pazientziak ondo estutu ondoren. *Kakaztuta nago!* protestatu beharra baino hobe, nolana ere, orain aurreikuspen guztiak, astiro-astiro, aldatzen joan beharko dut baina.

Azkenean, bakearren bazen ere, laguntzen zidaten, noski, kartetan, baina sekula ez zen izaten niri huskeria bat ez iruditzeke adina. Horregatik, neure aurkikuntzarik handiena nuen karta-jokoa erdizka edo apo-saltoka ustiatzeko baino seta garratzagoa neukanez gero, eta hain ondasun hurbilaz topera nola gozatu pentsaketa etengabea nuenbilenez gero, bakarrik jokatzeko sistema asmatu nuen, ezker-eskuinak elkarren kontra. Pertsona nagusiren batek laguntzea nahiago izango nukeen beti ere, baina baita jabetzen nintzen, gailenki, asmakuntzak ekarri zidan nagusiekiko gaintasunaz, pentsatzen nuela: *To! Zuek bi, lau, sei edo zortzi lagun behar izaten dozuena, nik bakarrik egiten dot*. Kaparradatik libratu izanaz pozik zirudien amak ere hartara animatzen ninduen, bakar-jokoa askoz ere exigenteagoa zela, hartarako edozein talentuk ez zuela balio eta abar, aldian-aldian meritu berriak aurkituz, edo disimuluan lagunduz, harako hartan bezala:

– *Zergaitik daukazak kartak ahozpepe?*

– *Zelan edukiko ditut, ba?*

– *Pilo biak heuk ikustekotan, ahoz gora errazago moldatuko dozak.*

– *Kartak bistan? Zoratu egin al zarie?*

Ez zen dena zentzugabea. Ezkerrean hiru karta, eskuinean beste hiru. Nahiz eta, bazen arabera, txandan-txandan bi piloak neuk ikusi, ez zen hain erraza beti ahozpepe utzi behar zirenen kontua zehatz erotea. Oraintxe ere, esku-aldatze bizkorretan, ez ahanzteko kostatzen bazait, pentsa bost-sei urtegar. Proba dezagun. Eman kartak, hirunako bi multzotan, ahozpepe. Ezkerra hasten bada, lehen bazan, behintzat, eskuin multzoan zer dagoen ez dakit. Hauta botatzeko karta bat ezkerrean, utz beste biak ahozpepe, ikus eskuinagaz beste hirurak, erantzun kartarik egokienez, erretira baza dagokion eskura, har esku bakoitzak beste karta bana erdiko multzo nagusitik, bota aurreko baza egin duen eskuak, erantzun besteak, hartu, bota, erantzun, baza hona, baza horra, alda eskuak... jarraitzen duzu, ezta? Ba, ni baino argiagoa zara.

Esku bateko eta besteko karten dematik, jokoak handitu egiten ninduen, nortasunaren bikoiztasun erreala sentitzeraino, ni eta neu arteko separazio garbia. Geroago, pilotan edo harrika, edo lasterka, ez nintzen ni ezker edo ni eskuin ari, izaki ezker bat izaki eskuin baten aurkari edo lagun baizik, nahiz eta bien kontzientziaren jabetasuna neuk sentitu. Kasik hirukoa esango nuke: izaki ezkerrean, izaki eskuina eta bien kontzientzia. Horregatik, ez nintzen sekula lasai aurkitu, neurez eskuintia izanik, ezkerrean ere, esku zein hanka, trebetasun berdintsuko orekara iritsi arte. Hain maite nituen animalia batzuen (txakur, txahal, bildots), hainbeste miresten nituen beste batzuen (zaldi, basakatu, lehoinabar) larruan sartu guran (hegalarienik ez nuen planteatzen; transzendentek iruditzen zitzaizkidan), lau-hankan ibiltzeko jenio porrokatua izan nuen aldikada batean, lau izaki ezberdinen iharduera bateratua eta konplexua esperimenteratuko nuelakoan, baina, hanka bihurturiko eskuen trebetasun faltagatik, edo berehalako nekeagatik, edo bururik behar bezala jaso ezinagatik, lepoaren laburrez (*hortxe jagok kakoa*, pentsatzen nuen), nire aurreko bi izakien kontzientzian nahasmen totala sortzen zen, ezker-eskuinen dualitate gardena atze-aurrean erlazio nagusiagoak menperatzen baitzuen, zeina, aipatu desoreka nabarmenagatik, erlazio bainoago katastrofe sensitibo gertatzen zen. Orduantxe ulertu nuen Jainkoak zergatik hirutasunean planto egin zuen, lautasunera edo zenbanahitasunera jo zezakeelarik. Hirukoitz izateko adorea daukanak berdin jasan zezakeen hamalautasuna, euskaldunen zenbaki mitiko bat aipatzearen, baina, gehienik, hirutan bakartasuna sagar batean (usain, kolore, zapora) figuratzeko ahalmena zutenei nola esplikatu behar zitzaie gainerakoa?

Hala ere, plazer nuen esperientzia zapuzgarri hartan aritzea, nola animaliak gerotz liluragarriago zitzaizkidan sentitzearren. Nirea ezker-eskuinen lehia sinplea zen, zeintzuen berdintasun fisikoa guztiz lortzera iritsi ez banaiz ere, zenbaitetan ezker-eraginez trebeagoa izan arren, kartetan, behintzat, oreka perfektua segurtaturik zegoen. Jokaldi bakoitzean, ahalik argien eta saiatuen jokatzeko besterik ez zegoen, egoera berri bakoitzaren aurrean neure ahalmen gorena aportatuz. Beharbada, zintzotasunaren ariketa etengabe horixe zen bakar-joko haren zailena, multzo bateko eta beste karten ezagutza prebioak ia ezinezko bihurtzen baitzuen ondorengo erabakiaren garbitasuna. Baina neure pentsamenarekiko dema hark, bost-sei urtegeaz ohartzeko ez banintzen ere, ez zuen gero gutxi balio izango, seminarioko adin oraindik samurrean, hamahiru bat urtegeaz, erabaki nuenean moralki hartara makurtu nahi gintuzten domeinu mentala alfer-alferreko higadura psikologikoa zela. Askapen moral hark, bestalde, uste gabeko dibertsioa ekarriko zuen, zeren, pentsakizunei euren kabuz korritzen utzirik, hots, mozteko edo gidatzeko alferreko ahaleginik ez eginik, errealitate gordin hartatik ebazio dohatsuak gertatzen baitziren. Ama Birjinari musu emateko pentsakizuna datorrela? Eman lasai, hura ez baita izango *ken hakit hortik, zerri hori!* jaukitzeko bezain zakarra. Lisieux-ko Done Teresatxo ohe alboan eseri zaizula? Utz egoten laztanari, bidaltzen saiatuz gero, gehiago tematuko baita gelditzen.

Oh, felix inventio! Pentsamenaren iharduera indetektatzeaz jabetu nintzenean (Jainkoak bazekien, noski, nire buruko berri, baina haregaz ondo konpontzeko beldurrik ez neukan), ahalbide arrazionalak ere multiplikatuz egin zirela uste dut, neure briska joko bakartian ekiten nionean bezala, lantzean behin amari galdetuz: *Noren alde jokatzeko dozu? Ezkerrean ala eskumarean? Amak, kalkulatu-planta luzeen ondoren, erabakiko zuen: Oraingoan, eskumak irabaziko dauela uste joat. Edo: Nik uste joat ezker hori argiago dela.* Beti irabazten nion, berak pronostikatu zuenaz beste eskua nagusitzen baitzen, salbuespen errukiorrak salbu. Aita-amak batera zeudenean, biek apustu egin zezaten nahi izaten nuen, baina batak ezker eta besteak eskuina hautatzen bazuten, zail egiten zitzaidan, batari irabazteko, besteari arrazoi eman beharra, konturatu ziren arte biek esku beraren alde jokatzeko komeni zela, hala biei batera irabaz diezaien. Biak ezkerrean alde? Orduan eskuinak irabaziko zuen, dudarik gabe, eta burla egingo nien: *Ja, ja, jai! Ederra sakatu deusuet bioi batera!* Anaia-arreba zaharragoen aurrean, ez zitzaidan halako erakustaldirik gustatzen, beti izaten baitzen argilapikoren bat, jokoa zapuzten zuena, esanez: *Hori neuk be egingo neukek, alde bietako jokaldiak norberak pentsatuz gero.* Aita auzia diluitzen saiatuko zen: *Ez dok horren sinplea. Pentsatu berorrek, baina erabagi eskuek egiten jabe.* Orduantxe ezagutu nuen erregea, txankagaz eta zaldiagaz batera. Txanka oso maitea nuen, hain figura lirainaz gainera, sekula ez bainekusen garbi mutila ala neska zen. Ni beti neskatzat jotzen ahalegintzen nintzen, eta, badaezpada, ez nuen galdetzen. Zaldi gaineko zaldunari ere genero anbigua irizten nion, nahiz eta, kasu horretan, ez nintzen askorik arduratzen, gizakia eta animalia nahasten diren guztian, beti animalian arretatzen bainaiz, halako eran, non, San Fermin entzerruetan, adibidez, zezenek bihurtzeko hesia hankaz gora jotzearen ikuskizun penagarritik ez bainau alibiatzen gero beste hainbestena adarkada ondo sartuen xarmak.

Erregea bitxi atzematen nuen, izenetik bertatik hasita. *Erregea zer da?* amari edo aitari banaka galdetzen banien, harritzen nintzen bakoitzak zer diferenteak erantzuten zituela beti. Amak *erreginaren senarra* esaten bazuen, aitak *ipuinetatik bizi den grazioso bat* erantzungo zuen. Biak batera zeudela galdetzen banuen, beti aitak erantzungo zuen, honelatsu:

- *Erregea dok hire amak, nigaz ezkontzeagaitik, azaren orripen utzi ebana.*
- *Marraskiloa –nik.*
- *Baita marraskintala be, baina handiagoan.*
- *Horrenbesteko azarik badago, ba?*
- *Han bai. Erregea azpian makurtzen denean, azak ikaragarri hazten dozak.*

- *Buruan daroan hori zer da?*
- *Diadema* –amak.
- *Bai izen polita!*
- *Hori ez dok izena* –berriro amak.
- *Zer da, ba?* –Eta aitak:
- *Erditik zerran ebagitako lapiko bat. Paraje hareek, badakik, beroak eta lehorrak dozak, eta parean jausten den euri apurra aprobetxatu beharra jagok.*
- *Hangotar guztiak lapikoa buruan dabela ibiltzen dira?*
- *Buruko pentsamentuan bakarrik. Lapikorik ez jagok, erregearenaz besterik.*

Erregeari apur bat susmagarriro kontradiktorio irizten nion, gure karten zenbakirik handiena izanik, 12, lau tanto besterik ez baitzuen balio. Arpilaketaren bat jasana behar zuela zemaidan, aldekoak kendu eta zaldi-bastak jantzi ez bazizkioten, estudiante batzuen kasuko zaldizkoaren antzera, zeinari, ibaira jausi ei ziren urre-txanponak ateratzera jorantsu murgildu zenean, estudiantetek soinekoak eraman zizkioten. Zaldizkoari gero, ur likin samarrean ezkutatuta egonik, hotzak bertan gogortu aurretik etxera abiatzea erabaki zuenean, zaldia, berro usainera, burua biratu eta grausk egin zion, tokirik mingarrienean. Andrearen aurrera hala, bat-batean, aurkezten lotsaturik, labean sartu eta kasua handik esplikatzea pentsatu zuen. *Ez aldeko ez soineko? Horrelako gizonik ez joat behar auzoetan be.* Andreak labea isiotu zuen, eta kearen usain gordinera, herrian esamesa zabaldu zen Mariak berriz ere, lar temerarioki, muskerrak erretzen ziharduela, emakumeak gizona ipuinetan bakarrik maltrata zezakeen garaian. Kasua hartan iraungi zen, Peru Indietara isilean joan zelakoan.

Errege ezpatari lehenengotan pena hartzen nion, gero laztana ere bai. Hura eskuratzen zitzaidanean, ezin nuen halako poz zirrara bat ekidin, okerreanean ere, batekoa edo hirukoa zulutik ateratzeko indarra baitzeukan. Gero, eskolan, eta bizi guztirako, dezepzio ikaragarriak jo ninduen, erregea zeri deitzen zioten jabetzen hasi nintzenez, etxean beti *ama* esan diozunari kanpoan *puta* deitzen diotela deskubritzean bezala. Beti gerran eta konkistan zebilela nentzuen arren, ezin nion kartetako lapiko-buru haren xarmari uko egin. Monarkia giza degenerazioaren exponenterik lodienetarikoa delako sentimenduak ez zuen nigan erregeenganako sinpatia original hura deuseztu nahi izan, balearen urdailera bizirik iritsi denari haren turrusta ikusgarrien oroimenaz hunkitzeko bihotza gelditzen zaionaren kasuan bezala. Handik urteetara, Gernikako Juntetxean, errege espainolaren diskurtsoa *Eusko Gudariak* himnoagaz moztu genuen une beldurgarrian ere, ezin nion pentsatzeari utzi: *Gizarajoa! Hor jabilk hori, konpasean sartu guran, fanfarre bateko zuzendari ezin izanaren penaz.* Gure kasuan, lapikoa ekarri ez izanaren penaz ere bai, segurrenik.

Orain, erregeek ere joanak behar duten fenomeno honetan (aparatu guztia mugitzeko astirik edo kasurako zeremonialik ezagatik, bakarrik gelditu badira, apenas luzaro biziraungo duten), neure karten faszinazio inisialera itzul ninteke, inondiko interferentzia alurik gabe. Bitarteko leizea desagerturik, bi muturren jarraitasun dohatsua gelditu da. Horrexegatik animatu naiz, orain, orduko nire buru txiki baino afantsuagoa lerratu zen briska modalitatera. Beste batzuei ere halako inbentuak bururatu izango zitzaizkien, segurrenik, baina nik lehenengoaren eta bakarraren sentipen osoa neukan, lehenengoz maitemintzen denak zer erabat singularra aurkitu duela sentitzen ei duen bezala, nahiz eta maitemina bera, kontzeptua, behintzat, katarroa bezain zaharra eta errekarria baino gastatuagoa izan. Asmakuntza eskusiboak exzitanteak izango dira, noski, baina ez dira hutsalagoak, zorionez, errepika innumerableak indargetzen ez dituenak. Inbentzioa, oraingoan, ezker-eskuinen lehengo briska-jokoa bera da, baina, kartak agerian direla (alde horretatik, errazago), bi eskuek hirurogeina tantora berdintzeko moduan eroanez jokoa. Hori ez da hain erraza, baliteke neu izatea kamutsa baina. Bi aldeetako kontaduria eroanez gainera, zoriak hain ezberdin kargatzen dituen eskuak parekatzeko, nik baino prebisio sen zorrotzagoa behar da. Hamahirugarren

jokoa amaitua dut, eta behin bakarrik lortu dut helburua, nahikoa kasualki bera, zazpigarrenean. Hamalagarren ahalegina ahalguztiduna denez gero (*Hamalau* zeritzon Anboto osteko gizasemea horrexegatik egin zen ospetsu, hamalagarren ahaleginean edozer egiteko ahala zuelako), hurrengo segur daukat. Ez, ba! Badirudi zazpigarreneko lorpenak araua baliogabetu duela. Paterninaren lainoarena ez bada, zeren kartak, ahozpeztan lotan ziruditenak, apur bat bueltaka ari baitira, aratinik jokatzen hasi naizenetik. Figuren ager-osten bizkorregiagatik-edo, buruko lainoari espiralean jarraitu nahi diotela dirudi.

Bista ere dezente lanbroten ari zait, eta ez daukat gogoan ardoak inoiz honelakorik egin didanik. *Horixe bakarrik behar joat, oraintxe itsu geratzea!* Batekoak eta hirukoak ere ezabatu nahian dabilta, bateko urrea eta hiruko urrea izan ezik. Hauek ilunetan ere bereiztuko nituzke, haurtzaroko lilurapen ia somatiko hartatik argitzen baitira. Karta hura eskuratzean, nire aurpegia transfiguratu egiten zen, zer hartu nuen edonork igartzeko moduan. *Bateko urrea etorri jak, eztok?* Lehen urteetan, bateko 'tortola' iristen bazen, ezin izaten nion erakusteari eutsi, kontrarioa ikaratuko zelakoan. Espartakorentzat erromatarrei Jupiterren buru moztua erakustea izango zatekeen bezalatsu. *Ala! Begitu zer daukadan!?* – *Baina, oraingoan, triunfoa ez dok urrea, bastoa baino.* Berdin zion. Bateko urrea bazetorren, beste guztia galtzeak bost axola, igerilari biluziak ezustean agertu zaion sirenari jarraitzen dion moduan, arropa, hondartza, etxe, zentzun, dena bertan utzita. Nire lehen dezepzio mortala bateko urrea jan nahi izan zidatenekoa izan zen, nork eta amak, gainera.

– *Baina, txotxo! Esan deuat, ba, triunfoa ez zela urrea!*

– *Eta biko bastoagaz bateko urrea jan?*

– *Triunfoa bastoa dok.*

– *Eta zer?*

– *Orain ezer be ez, azkeneko bazaraino gorde gura izan dok eta.* –Erdiko bueltaren batean izan balitz, barkatuko zidakeen, esanez: –*Tirok, ba! Botatako kartarik alzatzerik ez jagok, baina, behingoagaitik, jaso eta bota beste bat. Eta hurrengoan kontuzago ibili.*

Hurrengoan amak, derrigor planta handiak eginik, urre bat botako zuen, hirukoa, beharbada, nire bateko urrea sirenateria osoa beragandu balu bezalako zoramenez gainera oldar zekion. Geroago ere, karta kontuan, behintzat, malezian ondo sartuta egoteko adinean, auzoko senar-emazte gazte batzuk, igande arratsaldeetan, gurera kartetara etortzen zirenean, bateko urrea noiz iristen zitzaidan igar ez zezaten, oso kontentzio ernaian egon behar izaten nuen, aukerarik ez zen maizegi gertatzen baina. Urre-taltoa altxatzean, barne zirrara hain zen automatikoa, oraintxe ere gogoratu hutsez sentitzeraino, ezen ezin nuen ekidin hura kanporantz amortiguatzeko ahaleginak nabariago salatzen ninduela pentsatzerik. Eztulak libratzen ninduen, hainbestetan probokaturik, azkenean, berezgi etor zedin lortu nuenak, hori ere susmagarri, noski.

Apaizgaia nintzela, udako oporretan, anaia-arrebak euren jolas edo erromerietara joaten zirenean, nire ilusioa, arratsalde erdiko arrosario obligatutik bueltan, senar-emazte haiexek etortzea izaten zen, etxe aurreko berriketaldiaren ondoren, non munduko joanetorriaz jabetzen buru-belarri saiatzen nintzen, kartaldi luze baten ikusle, inoiz jardule, izan nendin. Pena bakarra zen, apalmenetik ez urrun, gehienetan aita-amek galtzen zutela, diru pilotxoak, gainera, orduan jokatzen zenerako. *Zueri tranpak egiten deutsueez horreek!*, amorratuko nintzen gero, susmoa bainuen haiek, arauzko keinuez gainera, zenbait hitz klabe edo jestu erabiltzen zutela bitarteko solas arinean, bakoitzak eskuan zer karta zeukan besteak aldiro jakiteko. Bakoitzak baino gehiago, emazteak, kartetan zein edozertan ostarrea baino argiagoa izanik, sugea engainatzeko bezain mihi gozoa zeukanak. Haren etorrera, haren sinpatia, haren solas etengabe nobedosoak nire igandeen sedukzio itxarona izaten zen, besteren faltan. Baina irabazi egiten zuten, ia beti. Mintzen nintzen, ez

hainbeste zeramaten diruagatik, gurasoak beti galtzaile ikustearen lotsaz baizik, minus samarrak balira bezala, azkenean, gainera, animo gisan entzun behar izateko: *Gaur subertea alde izan dogu, baina beti ez da holan izaten. Hurrengoan irabaziko dozue*, nik, aurretiazko derrotaz, pentsatzen nuela: *Hurrengoan be subertea noren alde izango den ez dakigulakoan!*

Dena abantailan hartzeko doutsutasuna zeukan gure aita, haiek joandakoan, ni baretzen saiatuko zen, fruizioz ziragarrela: *Hi isilik. Gabonetan mendekatuko gozak*. Gabonetan, aita, anaia zaharra eta hirurok joango ginen eurenera, goizeko meza ordura arte kartetan ekiteko. Niretzat gau fantastikoa zen hura, han ere begira egon behar nuen arren. Berriro ere, jakina, eurek irabazten zuten, diru mordoa, Gabonetan gehiago jokatzeko ohitura baitzegoen; bost jokoko partida bakitzeke hogerleko bana, adibidez. Ume txikia goian negarrez entzun arren, emakumea ez zen mahaitik behingoan jaregingo. Derrigorrean aldentzen zenean ere (*umea ito egin behar jan, Felisa – arnasbideak libratzeko ona dok hori*), umm-umm eta obabatxo batzuk eginik, laster itzuliko zen, arduraz, bere ordezkari sartzeko koinatuak eta bere senarrak aurretik irabazitako guztiak galduak ez ote zituzketen. Gaua amaitzear zela, gure aitaren mendekurik ez nekusen inondik, etxera joateko jaikitzen hasi aurretikoan esan zuen arte:

– *Aurten zelako marraskiloak urten deune?*

– *Igaz baino txikitxoagoak, aukeran, baina jateko modukoak. Batzuk probatu gura dozuez?*

– *Bai, igual! Ea gure andrea be animatzen den, behin edo behin.*

Garai hartan, gure inguruan, behintzat, marraskiloak etxe hartantxe bakarrik prestatzen ziren, artaz eta gozatsu. Probatzen hasi eta, ipuina hemendik, kontu merkea handik, kazolakada osoa garbitu zen, beste botila bat ardogaz, etxeokoandrea ontzia erretiratzeko ausartzerako. *Ederrak egon dozan! Emazte artista daukak*, hots egin zuen aitak, lehenik andreari, segidan gizonari begira, kazolako azken orbanak mihizkatzeko plantak eginez. Gero, etxeranzko basobide luze eta oraindik ilunean, gure aita garaileak, lantzean geraldari batean, hots egingo zuen: *Orain zer dinozue? Urtean zehar pezeta batzuk irabazten uzterik ez al jok merezi holako marraskilada batek?* Hurrengo geldialdiraino, barre-eztulka eta laprastaka jarraituko zuen, *eta, gainera, botila ardaoa!* hots eginez tarteka. Jarraituko zuten, noski, urtean zehar gurera etortzen, eta inoiz, ama zerbaiterako altxatzen zenean, ez nintzen ausartzen *neu sartuko naz bitartean* eskaintzen, *hi oraindino gaztetxoaz haz honetarako* ez entzutearren, harik eta behin, hamalau urte nituela, auzoko andreak berak iradoki zuen arte: *Sartu daitela mutikoa, laster praka luzeak be jantzi behar jozak eta*. Haren senarrak ere palotik tiratuko zuen, nire estudiante gangarra kilikatuz: *Mutikoa? Honek, honezkerok, guk baino hoberik bajakin edozertan*. Amak ere ironia dohatsua izan zuen gaineratzeko: *Tirok, ba! Sartu hadi, hortxe hago begi biak sudur puntan bat eginik eta*.

Munduan une zoriontsurik pentsa baliteke, hark eztanda loriosa izan behar zuen. Gero susmatzen nuen amak, batzuetan, alde egiteko aitzakiak beren beregi asmatzen zituela, batean ahuntza aldatzea ahaztu zitzaioela, bestean txitadun oiloa ez zela ageri (gure ama, txitadun oiloa benetan falta bazen, guardia zibilaren kuarteleraino jotzeko kapaz zen), bestean ura ilundu aurretik ekarri behar zela, biharamuneko gari-jotzerako, bakailaoa eta zezina beratzen ipintzeko. Nago itzulera ere ez ote zuen apropos atzeratzen, nire poz hura luzatzearen, ulertu izango nukeen nik, auzoak joandakoan, arrazoi gailenagoa aduzitu ez balit: *Hik jokatzeko doanean, gitxiago galtzen joagu*. Hori entzutea sinesteko ere ederra zen, laster beste susmo batek jo ez banindu, hots, Felisak, bikote kontrarioaren joko guztia zeramanak, hartarako hain trebea zen disimulu subtilerik, geuk irabazteko moduan jokatzeko zuela, bai hark ere nire poza ikustearren, duda gabe, baina baiago, ezin zuelako ekidin nigan etorkizuneko apaiz bat ikusterik, zeinari maldizio bihur zitezkeen maleziak aplikatzea sakrilegio-kezkek bainoago beldur erligiosoak moztzen zion. Hala ere, azpi-bilbe hura guztia, ebidentzia baino gehiago, neure interpretazioa izan zitekeenez gero (neure dohaina, azken

batez), ezerk ez zuen nire zoramena mugatzen, ezta arinegi amaitzeak ere, halako zeragatik, segurrenik, non, arkitektura baten gorputza hain inponentea denean, detaile dudazkoak osotasunaren faboragarri atzematen diren.

Zoramen lasaia, bestalde, delectazio susmagarrian erortzeko kezkarik gabe, Jainkoaren presentzia etengabe mugitzen bainintzen, bateko urrean haren bakartasuna eta hiruko urrean haren hirutasuna jokatzeko nituela. Erregeen figura, hasieratik ere ez hain entusiastikoa, geroko identifikazio erreala beheratu zuen, xarma inertzialera mugatuta utzirik. Bateko urreakiko lehen faszinazioa, ostera, neurrigabeki handitu zen, beragan aurkitu bainuen Jainkoaren sinbolik perfektuena, zeina, bere izatea esplikatzen hasi zitzaizkidan lehen unetik, berehalaxe batu nuen neure karta kutunagaz; hirutasuna hiruko urreagaz bezala, nire bigarren karta kutuna berau. Nahiz eta beste batekoek, kopak, bastoak, ezpatak, batez ere, triunfoak zirenean, gehiago balio zutela arrazionalki jakin, inoiz ez zuten berdinduko hiruko urrea eskuratzearen emoziorik. Triangeluaren sinboloa erakutsi zidatenean, hain hotz eta huts iruditu zitzaidan, ezen neure hiruko urreagaz jarraitu nuen, nahiz eta handik urteetara, triangeluzko figura agortezina geometriaren (eta, beraz, edertasunaren) osagai basikoa zela jabetu nintzenean, bihozkada izan nuen ezen Jainko hirukoitzaren ideia, funtsean, genialtasun artistiko bat izan zela. Gero, Barnett Newmanen triangelu beltz, zerrenda gorri bertikalez erdibitua agertu zitzaidanean (absolutuaren sintesia, edertasunaren esentzia), federa itzultzeko tentaturik ibili nintzen. Tentazioa ez zen garaitu, baina hiruko urrearen xarmatik ezin desatxikiz darrat (saiatu ere ez, badaezpada), errakuntza dohatsuen lege horregatik, non, sinesteen oinarriak erortzean, ez diren beti haiei zatxekzen emozioak ezabatzen, baizik, bildukin trabazkoetatik libre, sentiera gardenagoan irauten. Oroimenaren miraria da, zeinak ezin didan erroretiko ezein askapen berbizarazi, errorearen emozio originala ere berritu gabe, bateko 'tortolagazko' nire lilura dibinoan bezala. Baliteke zoriona ez izatea errore pozezkoen kateadura besterik.

Sarritan, ostera (miragarriago), oroimenak egintza bati zegokion gogokera bakarrik berritzen dizu, egintza bera inondik ere ezin ekarriz, itzarkera askotan gertatuko zaizunez. Gogoia halako samurtasun, goibeltasun, hustasun, sentsualtasun, gezatasun txit intentsoan murgildua duzu, eta ezin duzu sentsazio hori eragin zuen sekuentziarik erreskatatu. Zenbat eta gehiago tiratu, irudiek barrabankiago eskapatzen dizute, gerezi lapurretan dabiltzan mutikoak makila astinduz erreparatu dien aitari bezala. Amorrua ematen du gizakiaren dohainik ez dakit erabakigarrien baina bai emankorrenak horren txotxongilo gisan trata zaitzan. Pozezko sentsazioa bada, ez dit hainbeste ardua motiboen ezjakintzak, kasik hobe baizik, konplikaziorik sor ez dadin. Kontua da, zergatik ez dakidala, triste edo jota nagoenean. Orduan kitatzen naiz pentsatuz: *Memoriaren deabrukeriak! Berak nahastu dauena berak konponduko jok, gura badau.* Ohartu naiz ez zaiola gustatzen berataz horrela desaxola zaitezen, baina, uneko ernegu-kolpean, zu gehiago izorratzen saiatuko bada ere, ez da luzaro tematuko garrantzirik ematen ez zaion lekuan insistitzen.

Seminaria eraman nindutenean, kartetako sinbologia berari atxikirik jarraitu nuen neure baitan, txantxetan ere adierazten deskuidatu gabe, noski, Jainkoa joko debekatu bateko figurekin irudikatzen nuenik. Amaren ordezkari sartzeko nintzen une dohatsu haieran, oraindik ez neukan gatazka intelektualik, batekoa eta hirukoa batera irudikatzeke. Jainko bakarra bazen, bateko urrea; Jainko hirukoitzaren bazen, hiruko urrea. Gerora ere, horrexek jarraituko zuen Hirutasunari buruzko nire uler-mailarik gorena izaten, zeina trastornatu besterik ez zuen egingo bakartasun-hirutasunak izate berean kontzibitu beharrak. Hartantxe saiatu behar, ostera, adimenaren bortxaketatik fede ekintzarik bikainena burutuko bazen. Misterio bat adimenaren ahalmen goretetik haragokotzat zintzo aurkezten denean, zeure kontingentzia txundipenez handi zenezake. Saia zintezke infinituaren senti-kolpea erakartzen, zeure limitazioaren alderantzia esperimendatzen saiatuz; ez duzu izu-kolpe batzuk besterik lortuko, baina, behintzat, irudikaezin absolutuaren kontzientziak

edertasun amaigabearen norabidean hunkiaraz zaitzake, batez ere, infinitua txikirantz bilatzen duzunean. Izan ere, zeure limitazioaren alderantz jotzen baduzu, elementua hobeto ulertuko duzulakoan, aurkituko duzu infinitua handirantz zein txikirantz hedatzen dela, konklusio harrigarriagaz ezen finiturik ez dela existitzen. Hau guztia eta antzekoak gure ñimiñotasun kognitiboaren dibertsio liluragarriak izan daitezke. Baina misterio bat, sarrera-sarreratik, enuntziatit beretik, adimen gajoaren ahalmen apurra lehertzeko moduan aurkezten badizute, hobe duzu alboratzea, trena gaintetik pasa ez dakizun. *Zer ardura deutso* –pentsatzen nuen– *Jainko definizioz irudikaezina behin Aita, behin Seme, behin Espiritu Santu gisan irudikatzen badot, bakotxean goi-sentipen diferenteak garatuz?* Zer ardura dio –segi nezakeen pensatzen– Jainkoaren misterioa behin ama, behin lagun, behin triangelu, behin bateko urre, behin zalburu, behin maitale, behin hutsune, behin demonio gisan irudikatzeak, sentimendu benerableak eragiten badizkit?

Ba, ez! Jainko bakarra eta hirukoitza (ez bi, ez lau, ez hamaika; hiru pertsona behar ziren hertsiki) bat berean, hirutan bat, batean hiru, bat-batera pentsatu behar zen, metafisikoki halakoxea zela kontsokratu baitzen. Izatez, Jesusen odola (ogian ere egon behar zukeena, bestalde, eskaintzen zizuten ‘Kristoren gorputza’ odolgabea ez bazen) eta, propietatez, ardoa zela kontzibitu behar zen, eta hori ere metafisikoki ezinezkoa izanik, adimenaren ezereza onartu behar zen, bere hondakin lotsatuen gainean, Jainkoaren handitasuna nabariago ager zedin. *Jainkoak ezin jok horren sadikoa izan* –pentsatzen hasi nintzen–. *Misterio biolento honeetan, bitarteko satanikoren batzuek ibili behar izan jabeak.* Orduan, astiro-astiro, Jainkoagaz zuzenean ulertzea probatzen duzu, eta, nola Jainkoa ez den, izan ere, horren sadikoa, konfiantza hartzen zoaz, beldurra galtzen diozu, urruntzen hasten zatzaizkio. Eta espetxeko atea zabalik ikustean, ate bat gainditu, beste bat, kontrolekoa, galeriakoa, kanpokoa, barrutikoa, errepidea gurutzatu, ibaia, mendia, lautada, mundua... eta, atzetik inor ez datorrela sinestean, ihesa amaitutzat ematen duzun bezala –orain itzar zaitezke–, eurt egin duzu, eta Jainkoak, dela gu bere, dela bera gure antzera eginak izan, gutxienez, guk adinako zentzua nahitaez izan behar duela suposatzen baituzu, hots egiten duzu: *Deus meus altissimus! Mundualdi koxkor eta bera be aparentea ei den honetan, hain buruhauste handietan ibiltzeko denpora laburregia emon deuskuzunez gero, ez ete da hobe izango betiraunean elkar ikusi daigun, astiz eta argitasun handiagoz?* Eta Jainkoa, izan ere, gu baino askoz zentzudunagoa denez gero, bateko urrearen irribarre distiratsua dakusu ilunabarreko horizonte mesetarioan, ihes egin berri zaren espetxe pentagonalaren gainean.

Egiak zerikusia izan dezake gezur naturalak esateko era infinituetan. Jainkoari era arrazonatuki biraotian jarkitzea ergelkeria absolutua da, zeren, existitzen bada, bai astakeria! Ez bada, bai ridikulua! Gauzen zentzuaren (norberea barne) bilaketa jarduera zoragarria duzu, aurkitzearen ezinetik abiatu bazara. Intentuaren arrakasta posiblea amestu baduzu, izorratu duzu. Badira uneak, neure burua lasaitzeko krimen bat behar dudanak. Neska ezezagun txit eder batek erromerian finkoki begiratzen zidala konturaturik, zirraturik, haregaz disimuluan zertzera hurreratu eta, betokerra zela konturatzean, hitzak hortz gelditu nintzenean bezala. Betokerra esaten da, baina begi hori bere norabidean hain da zuzena, ezen subjektu gaizoak ezin du denekin maitemintzen ari den inpresiorik ekidin. Dezepzio bat gehiago, ez hainbestekoa nolakoa izan zen emakume ahostzat neukana gizonezkoena zela jakin nuena, kontratenorea.

Misterio gaiztoren bat gertatzen ari da hemen. Ezker-eskuinokin, noizbait hirurogeina egitea lortu dudanean, jada ez dut kartarik bereizten. *Dios! Benetan itsutu behar ete joat?* Zutitu eta atartera irtenik, zauskatu naiz barrutik entzutean: *Kanpoa be itsutu da!* Ezbaialdi labur baten ondoren, barruko maizter animoso horrek, burutik jaitsi guran dirudienak, burlaz erreakzionatu du: *Txo! Zoratu egin al haz? Gaua dok barren! – Gaua? Erredios! Hau izan dok sustoa! Sustoa beldurgarria izan da, bai. Hainbestekoa, ezen taupaketa azeleratuak ez baitu baretu nahi. Motibo gabe halako alarman jausteagatik amore propioan mindurik, benetan alarmatzeko arrazoiak*

kordatzen ditu: *Itsutzea baino txarragoa etorri behar jak. Betaurrekoak apurtzen bajazak, zer egin behar dok?* Ba, egia esateko, ez dakit. Kristalak aldatu beharra neukan, eta atzeratu eta atzeratu, azkenean, begira zer gertatu den. Oraindik ez dut txarto ikusten, baina laster? Optika batera sartuta, izango ote nintzateke gauza, neure graduazioko kristala aurkitzeko eta, aurkituta ere, armaduran egokitzeko? Oraindik guztiz gautu gabe, Anboto erdian hartzen duen mendikaterantz begiratzan dut, betaurreko gabe. Tamalgarria litzateke nire begien objekturik atsegingarrien diren horizonteak eta paisaia urrunak inpreziosora kondenu beharra, nahiz eta, beharbada, prezisioa izan litekeen sentimenduen baliorik erlatiboena. Ez al dira arte espresiorik ederrenetarikoak garatu, normaltzat jotzen den ikusmenagazko akatsen baten ondorio izatearen susmotik? Zergatik itxaron behar dut ikusmena, okertzen barik, zindotzen joango ez zaidanik, telebistak, ordenagailuak, irakurketak eta gainerako begi-zigor guztiak eliminaturik daudenean, elkar ikusi-ezinak barne? Ez dut zin egingo, behin edo behin, libururen bati helduko ez diodanik, umeei kontatzen nizkien ipuinak errepasatzeko, edo gorroto nituen arautegien estintzioaz pozteko, baina ez nintzateke aurkitu behar asistentzia horien premian, izadi guztia neure eskueran egonik.

Okerragoa litzateke, hanka bat hauts baneza, edo virus bekaiztiren batek harrapa banintza, horiek ere orain norbaitengana arrimatu beharko baitute. Txarrena pentsatzen hasi behar al dut oraindik? Zergatik ez? Denboragaz eurentariko batek ziur harrapatuko nauen posibilitate fatalen pentsamenduak ez nau, harrigarriro, batere ikaritzen, naizen beldurtian ere. Bakartasunaren ebidentziak, derrigorren gaintasun irrekusablez, oharkabean gogortu nauela pentsatuko nukeen, elefantearen ikuspen handiosak baretu ez banindu. Azkena gainean sumatu dueneko, isolatuko da bere zeharkaldietan atsedentleku kutuna izandako zuhaitzaren bila, adaburu diskoidal itzelekoa berau; gibelurdin izugarri haren antzekoa, zeina mozteko, astodun batek, astoa berari lotuta utzi eta motozerratan etxera joanik, bueltan abere gaizoa urkaturik aurkitu zuen, bitartean hazi zen aletik dingiliz. Elefantea zuhaitz-perretxiko monumentalaren azpira heldu da, lautadari azken begirada zirkulantea eskaini dio, bizi orokorra aurrera doala baino gehiago (hori ziur daki, aldratik bereizi berri denez gero), bakar-bakarrik dagoela segurtatzeko. Orduan, solemnitare hunkigarrian etzango zaizu, hain abandono erlaxatuan, ezen heriotza betiraun dohatsuaren gainean datorkiola baitirudi. Izango ahal naiz elefantearen duintasuna (edo argitasuna) berdintzeko gauza, batez ere, hain halako egoeran gelditu naizenean, non edozein toki baitut bazter eta erdigune.

Auzia bestea da, hots, ezingo nukeela, hanka bat apurtzea edo neumonia bat harrapatzea balitz, pairatua naizen bi ezbehar aipatzearen, maitasun gizakidearen setiorik gozatu, non denak eginahalean dabilzkizun, aholkatuz nola eraman dezakezun igeltsupeko immobilizazioa, ia zorte on bihurtzeraino, honako bitartekoekin, esaterako: arrosarioa, tele-zappina, irrati-eskaintzak, irakurketa erromantikoak arrazionalistentzat, edo belikoak pazifistentzat. Edo erdi-mailako neumonia bada, honela, esaterako: aurreko denborapasez gainera, hau eta hori eta bestelako antibiotikoen antidoto guztiak jan, eta sukarra, agindu dizuten moduan, goizez eta arratsaldez bakarrik barik, bi orduz behin hartu, intermitentziaren abantailak aprobetxatzeko, baloreak buruz gordetzen saiatuz, idatzi eta gero, badaezpada. Eta errezuzale ez bazara, arrosarioa bertso zaharrekin ordeztu: *Pello Josepe tabernan dago, sorta osoa, gloria patri eta filio... gehi Ama eskertsua eta errukiorra, gure arerioakandik zaindu eta heriotz orduan hartu gaizuz. Amen, Jesus!* Edo garbiago esanda: *Ama Askartzakuen amantaleko poltsikotik hogerlekuek zeuk hartu ozuuuz? Amen, Jesusuus! Bizkaiko bazter baten, Gloria patri-Ama Askartzakuen; Zortzi nobioak, Gloria patri-Ama Askartzakuen; Bilbotik Ipiñaburura, Gloria-Ama; Txanton Pipirri, Gloria... Horrelaxe, bosnan-bosnan, hamabost misterioak osatu arte. Hamabost misterio, arrosarioan bakarrik, zeina, bere luzean, dorretxo apaingarri bat baino ez den orotasunean, Butroeko gazteluan, adibidez.*

Hauek guztiak neuk inori emango nizkiokeen gomendio erdi inprobisatuak dira, ez bainaiz besteek niri emango lizkidaketenak, hain asko eta bariatuak eta hain miragarriro ez-

kontradiktorioak, laburbiltzeko gauza sentitzen. Aholkuak hain jorantsu eta zarratu datozkizu, gainera, ezen hainbesteko atentzioaren ezduin sentitzeko tentazioan baitzaude, artean zugatik *lehertuko ahal haz betiko!* marmartzen zuela uste zenuena bera izateraino zure gaitza gainditzeko oharririk saiaturak dakarzkizuna. Eta zeu ere, makalaldiak bihotza apur bat bigundurik, nola ez zaren pentsatzeko bezain goganbehartsua ezen barruak oharkabean traizio egin diola, sentitzen duenaren alderantzizkoa azaleratzen deskuidatuz, orduan ez daukazu onartzeaz beste erremediorik benetan nahi zaituela osasun betean, opa zizun leherketa oso-osoa izan dadin. Zuzen dabilela uste dut, gainera, erdi elbarri bati desio fatala izatea gizatasunean sar bailiteke.

Gaitzen lege hori kasu estremora eramanda ulertzen da nola, bat hildakoan, edonor prestatzen den andari izateko, nahiz eta nik gure diktadorea, adibidez, ofizio ez-alusibo bat aipatzearen, bizirik ere (eta lehentxoago) pozik eraman izango nukeen, zeren, 'erregea hil, erregea bil' axioma historikoak frogatzen duenez, hilak erraztasun izugarritz regeneratzen baitira. Bizirik badaramazu, baliteke haren arima nahasturik gelditzea, gorputzetik noiz irten ez dakiela. Beharbada, gaixotasun ertain batek ez du zure izateari buruzko uste-aldatze hain sakonik eragingo inguruan, baina hainbesteren on beharreko aholkuek, denak mintzo baitzaizkizu (denak batera, ubikua bazina), esperientzia propioz ez bada (edo ia propioz: eurak ere zori-zorian egon ei ziren), esperientzia txit hurbilez, norberari gertaturik baino gehiago erasaten duten gaitz horietariko (*gitxiago sufritu izango neukeen neuri gertatu izan balitxat*), zerak askoz objektiboago izateko abantaila baitauka, gomendioak ematean... mm...

Non gabiltza? Ah, bai! Hainbeste aholkuk diagnostiko tekniko erabat irauli dizu, gaixotasun orokor baten detaile bat besterik ez zarela emanik. Eritetxetik urrun bizi izatea garrantzia bat zenuelakoan, eriterriaren erdi-erdian sentitzen zara, une horretan inguratzen zaituen sentipen solidario hori guztia txit azkarki txandutzen ari den garrantzi baten adierazpena dela. Izan ere, lehen aholkuak hartu dituzunetik laugarrenetara (bigarrenetara ere bai, segurrenik, baina ez zara ohartu, zeure gaitzetik distantziatu gabe oraindik), ziur zurea baino kasu okerrago ugari gertatu dena, *ba, gurean...*, *ba, urlia ere...* *ba, gure lagun bati ez dakizu...* Horrek egiten du aholkuak askoz oinarrituago eta fidagarriago izan daitezen, zuk behar duzuna soluzioak baitira, ez garrantzia. Lehenengotan, harritu zara ikustean zaharrek gaixotasunez, haurrek kakaz eta txizaz bezala, hitz egiteko zeukaten desinhibizioa ez zela muturreko adinen eskusiboa, baina gero berriro lehenerantz zatoz, ohartzean, bitarteko adin transitorio luze baina alferreko samar horretan, gaixotasunen esperientziatik bainoago osasunaren positibismotik mintzo zaizkizula, asko baitira, izan ere, gorputzaren inteligentzia abisatzailean baino gehiago, euren argitasun prebentiboan fidatzen direnak.

Lehortearen gorritasuna atzeman duzu, non, soroko distantzia batera, sustrai luzeko gardulatz ugariren berdetasuna aurkitu duzun. Aholkuak hain konbergenteak eta bakoitza bere baitan hain konpletoak dira, ezen kontzientzia txar bat egiten hasi zaizu olatu doilor batek eraman zintzan uzteagatik, hondartza osoan uniformeki banaturik zeuden sokorristen artetik. Baina ez da ezer gertatu. Itsaso infinitua bueltako olatuak ere etengabeki sortzen ari da, eta halakoxe bati heltzeko argitasuna (edo obedientzia, dagoeneko argitasun guztiak hartua baitzaude) izatea besterik ez daukazu, berriro osasun berdin sendo baina kontzienteagoaz jabetzeko, galdu berreskuratua predilekzioari jarraituz. Osasuna izatea ez da nahikoa. Sentitu egin behar ei da, zuri gaixotasuna sentitzea errazago egiten zaizu baina. Halako zerbait, nola, beste maila batean, arima sentitzen saiatzen ginen, zeina, hortxe zegoenez eta gure izatearen eragile nagusia zenez gero, nahitaez nabari behar genuen, kontzentrazio akatsen bat ez bazegoen. Orduan hainbeste kostatzen zitzaiguna, mistiko batzuen kasuak salbu, orain zientifikoki posible duzu, osasuna sentitzea arima sentitzea bezalatsu baita. Ez osasuna soilik, osasun betea baizik. Gerra eta gerra-alerta bezalatsu. Nahiz eta soldadurik gehienek gerra-alertako ernaitasun suprahumanoa baino gerraren beraren ekintza

liberatzaila nahiago luketen ('si vis pacem para bellum' lemak bake bakarra gerra dela argi adierazten eta film biolentoen audientziek argiago konfirmatzen dutenez), pentsatzen jarraitu behar da, konparaziotik errealitatera itzulirik, osasun betea bere kontrakoa bezain sentigarria izan daitekeela, bereziki, osasun beteari sasoi betea gehitzen bazaio, eta are berezikiago, frogaturik dagoenean garrantzitsua parte hartzea dela. Gauza errazagorik! Horregaz eta elikadura sano eta orekatu bategaz, lasai oldar zintezke topera bizitzera, baldin beti ere elikadura sanoaren optimo aldakorrei ez jarraitzen deskuidatzen ez bazara; eta baldin topeak eragin dezakeen gaixotasun enigmatiko hori xaxatzen ez baduzu metodo akatsen baten ondorioz, zeina diru sobrak denbora sobrarik ez ekartzetik abiatu ohi den. Badirudi pobreak ez direla estresatzen. Horieta izorrapena da soilik, gaitz mailara iristen ez dena; libre gara sendaezina dela onartu beharretik, baikortasun metodikotik abiatu garenez gero.

.....
00

Gelditu naizen egoeran, hanka bat apurtuko banu, edo puxikan harriak egingo balitzaizkit, ez dut elefantearena egiteko desaholku solidariorik izango. Horrek bakarrean izan behar du onena, zeren, biren artean, oso literarioa izan daitekeen une bat letorke elkar jaten hasi beharrekoa, hots, batak bestea osorik jatekoa, zaila baita, elkarren gainerako guztia janda, isatsak bakarrik tente gelditu ziren txakur-borroka hartakoa errepikatzea. Horretarako, nahiago dut 'bestea' izan; honek, behintzat, destino atrozaren hautatua izatearen handitasuna senti dezake. 'Batak', oster, bestea jatearen esperientzia higuinargiaz gainera, azkenean, berdin gelditu beharko du destinoaren aurrez, hots, hustasun dezepzionantearen erdian, destinoa, espektakulurik ez badago, erretiratu egiten baita. Azken zoragarria izan behar dudala uste dut. Pentsaketa emankor honetatik ateratzen dut euforia-beheran hasia den ardoak hartu nauen kotatik gorago naukala oraindik. Badakit, jarraituz, abiapuntua baino askoz beherago utziko nauena. Orduan, bitartean lokartu ez banaiz, pentsakizun distiratsu eta hanpagarri guztiak, kafkatar metamorfosiaren prozeduraz, sentipen ilun eta zanpagarri bilakatuko dira. Neure gogoari galeria kabernosotan arrastatzen utziko diot, non, tarteka, letagin fosforeszenteen argitasuna besterik ez den ageri, pentsaketarik etsikorrenetan asaskatuz, hala nola hobe nuela denak akabatu, joaten utzi beharrean; edo, fenomeno, akabantza hartarako kemena faltako edo eskrupuluak sobratuko zitzaizkidalda bazekielako, nire ezezagutzan gertatu denez gero, badela, efektu berdintsurako metodo zahar bat: *Pun eta kito! Zertarako ibili behar joat beti neure burua zurkaiztu ezinik*, eta horrela. Urjauzia leizean ezkutatzen ikustean, bere ehorzketari segi diezaion uztea bezala, zeren zer egin dakioko sakonune karstikoaren beste muturrean ager dadin suposatzea besterik? Baina zuk ez daukazu agerpen hori konprobatzeko gogorik, hala egiteak gehiago etsiko baitzintuzke. *Urten egin al don, ur suntsun horrek, hondoratzea hainbeste kosta eta gero? Izatea kuika jolastekoa dela uste al don?*

Gogoeta nihiltzaile hauek txit regeneratzaileak dira, beti ere sokatik urrun desesperatzen edo zubietara edo trenbideetara ez hurreratzen saiatzen bazara. Mirari alkoholikoa, gailur pletorikoa konkistatu ondoren (labur samarra, altuera handi guztiak bezala), beste aldeko isuritik apropos prestaturik bezalako trokaraino jaisten dena. Aditu bati galdetu nion: *Aizu, errezeloa daukat ardoak ez ete nauen, parabola zoragarri baten ondoren, hartu ninduen baino beherago uzten. Egia izan al leiteke?* Baietz erantzun zidan, eta azalpenak eman. Alkoholak ez ei dauka, zuzenki, efektu jasotzailerik, baizik organismoak dauzkan substantzia batzuk (endorfinak izan daitezke?) aktibatzen ei ditu, eta horiexena ei da delako gaitasun euforizantea. Substantziok, aktibazio horretan, kontsumitu egiten dira, organismoa lehen baino hain gabeago gelditzen dela. Berriz ere, alkoholagaz, prozesua berrabiaraz daiteke, beste substantzia batzuk ahituz, baina organismoa gai horiek berritzeko gauza den erritmoan baino bizkorrerago aktibazten bada, erreserbak agortuz joango dira, muturrean, hondoratzea irrebertsible bihurtzeraino. Esplikazioa egiatzko zein alegiazko

izan, niri balio dit, oraintxe nagoela uste baitut parabolaren beste aldeko kota berean. Desnibel handiegira jausterako, demadan itzuli bat auzotik, zer panorama ageri den.

Haran hedatsuaren balkoi egiten duen auzo erreperidera igo naizenean, bera ere ozta begiztatzen den gure etxe-kapela ezohartuaren gainetik, ia ez da ezer ikusten, gaua hain baita osatua eta zarratua; eta ez ilargiak antipodan behar duelako, baizik hirien lehengo argitasuna falta delako, gauari itxura adulteratua zemaiona, kolore konfuso eta guzti. Orduan, Oiz mendia bizkar nuela, Eibartik Zornotzaraino (Eibar, Ermua, Mallabia, Soraluze, Bergara, Arrasate, Elgeta, Elorrio, Atxondo, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Mañaria, Otxandio, Izurtza, Garai, Durango, Iurreta, Zornotza), zirkuluerdi luzangan, zeruan islatzen zen argiztapen indartsu eta etengabeak (zenbat ortzilunago, hainbat distiratsuago, lainoteria argi-zelai bihurtzen baitzen, batzuetan sutzeaz jartzeraino) gauaren izaera guztiz irrealera ohiturik nindeukan. Horizonteaz honanzko geografia hain desiguala bide, herri eta erreperide bat ere zuzenean ezin ikustean, zeru-sabai argiztatuak bakarrik iradokitzen zidan azpiko ehun mila lagunuen existentzia, inoiz, herri guztietan batera, su artifizialak ote ziren pentsatzeraino. Gauaren irrealtasun hura muturreraino nabaritutako nuen hiritako parke handietan, eguneko txoriak gauerdian kantuz entzutean, lehenengoan, haluzinaturik, Bilboko Txurdinagan bezala. *Ez jakiat gau mota hau ekarri dauen aurrerapena komeni jakun. Gau-txoriek noiz kantatu behar jabelek hemen?* –pentsatu nuen, nahiz penagarriago iritzi beharko niokeen egunekoek inoiz lorik ezin egiteari. Bat beharrean, ezin kantatzea aiseago jasango nukeela uste dut derrigor kantatu beharra baino, begiak ixtea nahiago dudan moduan, nahi ez dudana ikustea baino.

Bat-batean, iluna egina da, benetako gaua, umetan eta gaztetan ezagutu nuen modukoa, betidanikoa. Eta baliteke, betirakoa. Gure jaiotetxetik barren urrunean zegoen Zornotza hartan, gehiena San Joan muinoaren ostean zenez gainera, ez zegoen geroago bezalako argi publikorik, farol banaka motel batzuk besterik, hodeietaraino iristeko indarrrik gabe, lantzean zaparro batek azpitik gora tiragomaz jaurti ezik. Hori hegoarantz. Iparrerantz, Bizkargi menditik Oiz mendirainoko baserri urrunetan, ipurtargia bezalako argitxo mehatzak hautematen ziren, erreka-zentralen potentzia ridikuluen arabera bizitzen-moteltzen zirenak, edo hiltzen, berriro zentralaren hurbiltasunetik abiatzeko. Argindarrrik gabeko etxe ez urriak kontsideratu gabe, gauez, erabat desagertzen zirenak. Hori nik lapurren kontrako abantaila handitzat jotzen nuen, segurrenik, gure etxea ere halakoxea zelako, nora argindarra hamazazpi urte nituela iritsiko zen. Orduan, lapurrak gorabehera, jainko txiki bat sentitu nintzen, handia baino artosoago, zeinak behin bakarrik lortu zuen ‘fiat lux’ hura egia bilakatzea. Nik, ostera, hatza interruptorean, gastatzeraino erreperikatzen nuen fenomeno. *Egin bedi argia*, eta argia egina zen. *Egin bedi iluna*, eta iluna egina zen. Hala, mirakuluen izaeran, gertatze bakarra ere fede-egintza eskergea zenean, argiaren obedientzia miragarria ilunagaz txandaturik egiaztatzen nuen, Jainkoari bururatu ez zitzaion eran.

Aro fantastiko horren aurretik, nire umetako esperimentu zientifikoetariko bat izaten zen, gau zarratuan, amama Pagaikoren etxetik hasita, Gorozika, Ibarruri, Mendata eta bistako argitxo guztien parera, banan-banan, ipurtargi bat jaso eta bataren eta bestearen intentsitateak konparatzea. Beharbada, neure ahurrean zegoelako, xume bezain fresko, ipurtargiak irabazten zuen beti. Hala ere, inoiz ez nuen pentsatu ipurtargiak gaua apurtzen zuenik. Bilbo alderantz bakarrik ageri zen, niretzat lekutako mendiak zirenen gainetik, zeru zati gorriska bat, Barakaldoko Labe Garaiena ei zena, bost urtera arte, eguzki sartua hantxe urrun barik lokartzearena zela uste nuena. Goizean beste aldetik zetorrela ikusi arren, mendebaldeko argitasun hura zertan amaitu zen ez nuen pentsatzen. Egia esan, ezer ez nuen pentsatzen, eguzkiaren inexistentzia hori guztia, gehienbat, nire loaldian gertatzen baitzen. Ez zen, noski, inoiz gau berdina, ilargi, estaldura, heze, gandu, garden eta hainbat fenomenoren gorabeheran, baina hura dena gaua zen, neure gaua, argiaren arriskuetatik babesle, gau-txoriekin kidetzen ninduen, saguzarrekin jolasten nuena, eta, behin edo behin, lagun min orok bezala (izan ote dut gaua bezain lagun minik?), susto bat edo beste ematen zidana. Neuk ere berari,

inoiz, kalabaza argidunezko garezurrekin, estarta bazterrak bortxatzen bainizkion, gero, kalabazak eta kandelak alferrik galtzeagatik, Bitoriako lapikotxa ikusi behar bazen ere, belarrietatik zintzilik.

- *Bitoriako lapikotxa ikusi gura al dok?*
- *Hemendik ezin leiteke Bitoriako lapikotxarik ikusi.*
- *Ezetz?* –*Eta tira gorantz, hankak airean uzteraino.*
- *Bai, bai! Ikusten dot!*
- *Barruan kalabazarik ikusten dok?*
- *Baita! Hori-horiak!*
- *Guzurra! Kandela barik zelan ikusiko dozak, ba?*
- *Kandelak be hantxe dagoz.*
- *Isioturik ala amataturik?*
- *Isioturik!*
- *Hasi barri ala amaitzen?*
- *Ez dakit, aaaai!*
- *Zabaldu begiok eta ikusi ondo.*
- *Erdi inguruan, aaaai!*
- *Gastatu arte egon beharko joagu, orduan.*
- *Ez, aaaai, gehiago ez dot egingo!*
- *Horixe entzun gura najoan. Kalabazak txarriarentzat dozak, entzun? Ez mamukerietan ibiltzeko.*
- *Baaaai, aaaai!*
- *Ai ala bai?*
- *Bai, baaaai, baaaaai!!*
- *Bai, bai, zer?*
- *Kalabazak txarriarentzat!*
- *Eta zertarako ez?*
- *Mamukerietan ibiltzeko!*
- *Orain dena batera.*
- *Kalabazak txarriarentzat, aaaiii, ez mamukerietan ibiltzeko.*
- *Barrero, baina bitarteko ai barik.*
- *Belarri barik itzi behar nozu ala?*
- *Ez, txotxo! Horreek hurrengorako be behar joazat. Baina bai utziko haut eskegita, behar den moduan ez badinok.*
- *Esan zer?*
- *Lehengoa baina jarraian, ai barik.*
- *Kalabazak txarriarentzat, ez mamukerietan ibiltzeko.*
- *Ondo jagok. Gaurkoagaitik libratu haz.*
- *Libratu, belarriak dingilizka daukadaz eta?*
- *Arteztuko jazak, beste motiboren bat aurkitzen ez badok.*

Denbora laburrean, lapikotxa ez ezik, Bitoria osoa ere bista-bistan jartzen zen, norberari eskuan edukiarazten zitzaion kriseilu-argi triste bategaz, gauaren erdi-erdian. Ni neu horrelako zigorretatik aise libratzen nintzen, mehatxuagaz batera damua agertuz, nahiz damu taktiko soila izan. Ziur naiz, setati jartzeko kemenik izan banu, gure amaren edo aitaren eskua ez zela tiratze-plantatik pasatuko, bere etxean ‘pentsu merkea’ ugari samar ibili ohi zen lagun burugogor baten kasuan ez bezala, zeinaren belarri gorantz luze-zorroztuek, Bitoriako lapikotxaren esperimendu nahitaez maiz errepikatuagaz asoziatzen genituenek, gero Batman inspiratzeko grazia izango zuten.

Hona orain, bat-batean, gau hura berbera dudala berriro lagun. Denak joanak direnean, hilak itzuli direla dirudi. Esaera da hauek ez dutela ogirik jaten, esan nahi baita hilek ez dutela inor

estutzen. Suabe-suabe hitz egiten dute, preso taldeak ihes-planari buruz bezala, betiko irudi ebidenteak saihestearren, nola, adibidez, urjauzi baten ondoren, harribilezko ubide azal baten gainean doan murmurra; edo apaizak Ostiral Santuko zeremonian gurutze santua desbelatzean, Jesukristo untxia bezala buruz behera agertzeak sortuko lukeen barbaro eskandalizatua, bakea elkarri ematean baino arminagoa. Hilen barbaroa ulertu egiten da. Zeure gogoko gauzak esaten dituzte; gogorik ez baduzu, isildu egiten dira. Hilekiko elkar-bizitza erraza eta atsegina da. Eurenganaino iristea da kostatzen dena, inork eraman behar baitzaitu, tabernan sartu ere egin gabe; dendan pikupasa batzuk zorrean utzi gabe. Gau maite berneugandua erdiragarri bihurtu behar zaidala uste dut.

Bakardade osoa eta gozoa orduan datorkizu, non zenbait handitasun kolektibotatik desatxiki ondoren (garapenez edo dezepzioz), gizatasun indibidual soilaren aurrez geratzen zaren, zeure itzalaren pentzudan. Badakizu itzala ez dela zu gabe ezer, baina bakardadearen erreferentzia leial bat damaizu, samurra, bariatua. Ez da zeuk diru mordoia ipini eta gero, hainbesteko lapurreta susmoz epaitu zintuztenean bezala, non atera zenuen gizakia animalia arrazionalki harraparia dela; definizio berria asmatzeak ez zizun ezer konpondu. Eskerrak Mozart entzutea artrosiarentzat on den. Gorputzak endorfinak askatzean, ongizate sentsazioa ei dator, eta horrek artrosia leuntzen. Zertarako behar nuen, Wolfgang, zu maitatzeko beste motibo bat, gehiago ezinezkoa bazen? Hutsunean ezer ez, beteunean tokirik ez. Kontrastea ez duzu ulertu, zurea ez baitzen filosofia. Ulertu nahi al duzu? Hara! Imagina nazazu zerura begira, begira, begira. Emazu dena ulertu dudala. Unibertso guztia. Eta zer? Nire arazoa ez da ez ulertzea, hil beharra baizik. Hori bai. Zorte handia daukat, nagoen tokian nagoela, unibertsoaren zentroa naizela. Zu gazteegi joan zinen, Amadeus (izen horrek apur bat ikaratu egiten nau), horrelako pentsaketei ekiteko. Lasai. Ez zaitut alferrik piztuko. Hamaika galdera handi baino nahiago dut erantzun txiki bat. Galdera handiek galdera errepikatzeko bakarrik balio dute.

Auzobildua kokatzen den tontorrerantz hurreratu ahala, beste aldeko zaratak ugalduz, indartuz datoz. Mendebalderantz dagoen Garai herriak eta bitarteko ibar sakonak geroz antz handiagoa daukate hiltzori repudiatu batena, urruntasunak berdindua eta gauak apur bat efektizatua. Euts diezaiodan entzunkizunari, nire partaidetzatik at berdin gertatu behar duenak gehiegi urra ez nazan ikasteko, heriotza baino mortalagoa den heriotzaurreagaz maizago elkarbizi beharko baitut aurrerantzean, epe laburrera, behintzat. Zer dantzut? Animaliak erremedio gabe hiltzen ari dira, senak hartarako preparatzeke zeuzkan era bakarrean, zeren, ezer ondo asumitua bazuten, heriotza isila baitzen, gosearen ondorioz zenean ere, ahultasun progresiboak bazter ezkutu, bakarti, baketsu bat bilarazten ziela, gizakien espektakulu-grinaz bestera. Bat-batean, ostera, osasun betean eta asean zeudela, aldi berean gosez eta errapeak lehertzen dituztela akabatu beharra, lepoa kate puta batean daukatelako edo txaramel inozo bati eragiten ez dakitelako, hori Heriori berari ere begiak ateratzeko modukoa da.

Auzotik elizalderainoko kilometroan aurrera darrait irmo, sufritzen baina gau errugabea tormentutik libratzen saiatuz, eta tarteka, ilunik zarratuenean, atzo askatu nituen animaliekin gurutzatzen naizela nabaritzuz. Ez ahal dit baten batek erasoko, askatu nuelako mendekuz. Denengana ez nintzen iritsi, nonbait, Etxenagusiko baserri parean untxi-txilio estridenteak entzuten baitira, bakoitza beira puska bana esmerilatzen ari bailiran. Hain patari txiki eta delikatuak horren zarata infernala atera zezaketenik! Albo egingo diet, ez iluntasun zirritugabe hau haztamuka penetratzeko gauza ez nintzatekeelako, umezaro argigabean hain ondo ikasi nuen bezala, baizik etxe huts ilunak gehiago egiten didalako. Barruan norbait badela edo izan litekeela baneki, ez nintzateke hainbeste atzeratuko, baina, etxe jakinki deshabetuan, beldur naiz, ez mamuen, baizik etxeak zurrupa eta mamu bihur nazan, bizitoki orok bere materialtasun soila ezin pairatzeko daukan bizio horregatik. Orain saiatuko banintz, untxien irrintziek minik ez egiteko, belarriak estalita nituzkeela,

atartean zerbaitek (norbait ezin da izan) bizkarretik heltzen didala nabarituko nuke. Ezingo nuke osaba Maskilloren balentriarik ondu: tabernatik etxerantz, gau guztia *utzi joaten, mesedez!* erreguka igarotakoan, egunsentian, konturik handienez begiraturik, ikusi zuenean sasi bat zuela sorbaldan katigatua, makilaka apartatu zuen, *gizona izan bahintz be, horixe egingo neuan!* esanez. Aurrera nerraike, larrurik utzi gabe eranzten ahalegindu ondoren, nikia atarteko zutabe zentraletik eskegita aurkituko nukeen arantzedun alanbrean utzita. Atea jo eta eupada egingo nuke: *Eup! Inor bizi al da?*, etxe lokartuari dagokion gozotasunez, ez egun argiz egingo nukeen zangartasunez: *Inor bizi al da, lehenbailehen akabatu daidan?* Orain, ostera: *Bizi al da inor? Inor be ez? Aurrera, orduan!* Atea irekiko nuke eta, horma kontrara ondo ez dela baztertzen igarriko banu, ate ostean baten bat ote dagoen konprobatuko nuke, iltze lodian, elkarren gaineko zaku eta jakezko bulto bigun bat aurkitzeko. Gorpu ahazturen bat edo bizi ezkutaturen bat delako sustoaren ondoren, pentsatuko nuke, bultoa haztatuz: *Zertan ete dozak soineko zaharron barruan ibili zirenak?* Jarraian, nire etxe kontzeptuan garrantzitsuena den sukalde bilatuko nuke, normalean, sarreratik lehenengo atea izan behar lukeena. *Hemen jagok!* Sukaldean, baldin balego, behe-sua bilatuko nuke, nire sentimenduen lehen antolatzaile eta haurtzaroko marranta guztietan partaide, *aurrea berotu, atzea hoztu*. Ez dago makurtu beharrik, okotzaren parera zabaltzen den tximini-kanpaia aise lokaliza baitaiteke, eskuekin behetik gorantz gortina bilatuz, koadrotxo gorriduna bera, ke zaharrak kolorgeturik ez badago. Tximiniaren buelta guztiko apaltxoan eskua pasatuko nuke, hainbat zer txikiren artean (zotzontzia, egutegi takoa, orrazia, eskuila, ispilu txiki bat, Chimbo xaboia, kirkira flaskoa, haurtxoaren zapatatxoak, buruko orratzak, txabila, artaziak, kromoak, alabastrozko arraultza, txerriaren txilina...), nahitaez egon behar duten pospoloen bila, isiotzen ausartuko ez nintzatekeenak eurak, norbait aurrean ager baledi ere. Inork ezin duela egon segurra bada, zertarako isiotuko ditut?

Tximinia aurkiturik, laratzaren bila joko nuke zuzen, pertzen bat bertatik eskegita, beharbada, eta begi zirkular handietako katea astindu eta hotsa aterako nuke, bertan zabunka, sukaldeko solasa entzutea gustatzen zaien prakagorri txikiei, ditarean dozena erdi sartzeko modukoei, tximinian gora desagertzeko astia emateko, saguzarren hortzetatik pasatzean bezalako kirrizka daramatela. Kedar birrinik begietara ez sartzeko, betazalak ahalik itxien, tximini luze eta estuegian gora begiratuko nuke, argitasun izpirik ez ikusteko. Astoaren buztanpetik begiratu banu bezala. Eskapurik ezak ematen duen ez-presa baliaturik, sukaldeko mahai bilatuko nuke, zeinaren laztanetik aldareak hainbeste distatzen diren, nola nagusitzen solemnitatean. Mahai hormara tolestekoa da. Jaitsi dut eta, bizkarra horman, ezker besoa mahaiaren eta eskuina kadiraren bizkarrera, leihoa dela esan nahian dirudien argitasun sumagaitzerantz begiratzen dut, bestela itxiko nituzkeen begiei lan bat gutxiago eraginez, ez bainago bertan, seminariotik itzulerako lehenengo egunetan baizik, non, etxeko guztiak oheratutakoan, sukaldean denbora luzea egingo nuen, *hauxe dok ezkaratza, hauxe dok mahai, hauxe dok usaina* neure buruari esanez eta esanez; hainbeste hilabetetako irrika luzearen luzez ia errendituaren gainean, egia zela berresten ez ezik, materialtasuna bera barneratzen saiatuz. Hori guztia, afalosteko ibilaldi baten ondoren, Belarre izeneko zelairaino, basabide lauan, amamaren etxeari alderantzizko parabolaren itzulingurua eginez, txakurrek suma ez nintzaten; kultura baserri-menditar harentzat esplikazio zaileko aieruak sortuz, norbaitekin bidean topo egiten banuen. Paseatzea, kalean bertan ere, zeregin señoritotzat, jauntxoan, dama jagien, abadeen eta alfer distingituen ostentaziotzat jotzen zen mundu hartan, nola esplikatu gazte baten ibilera gautarrak, loari orduak kenduta, denboraren erabilerarik duinena, nekelana ez bazen, atsedena zenean?

– *Mutila zertan ibili leitekek gauez etxetik kanpora?* –errepikatzen zuen amak, salapen direktoaren formarik egokien gisan eratu ohi zen galdera inpertsonalean.

– *Etxetik kanpora ez naz ibiltzen, etxe inguruan baino.*

– *Etxe barruan ez al dok bardin, gau-txorienak egiten ibili barik?*

– *Zer dauka beste mundukorik etxe gaineko ereinotz ondoan edo etxe osteko haretz azpian jesarrita egoteak? Urrunen be, iturrira edo amamarenerantzko erromadaraino ailegatzean naz.*

Amari ez nion esaten noraino joaten nintzen, baina ziur nengoen susmatzen zuela, nahiz eta ez zuen agertu nahi, *zoratura hago* esan beharrik ez izatearren. Beti ere, banuen koartada on bat apaizgaien meditazio eta otoitz-obligazioetan, seminarioko pasillo, patio eta zelaietan ohi genituen paseo isil eta burumakurretan. Gure etxe inguruan asfatorik ez egotean, biltasunik sakonena ez oztopatzeko moduko bide suabeak behar nituen. Derrigorrrera ezker, banekien aipatu koartada efektiboa zena, orduko kristauak ohituta baitzeuden pentsatzen, bokazioa probatzeko, gauza arraroak komeni zirela, nahiz eta gure amari, etxe barruan edozer onartzeko ez ezik, hartaz harrotzeko ere prest zegoenari, asko kostatzen zitzaion zer arraroak kanporatzea, obligazio kunplituaren kasuan ere.

Aitari ez zion hainbeste ardura. *Utzion! Beharbada, neskatoren bategana joango don, bokazioa benetan aprobartzeko.* Horrelakoxe freskurak jaulkitzen zituen, *hago isilik, zentzuna nondik janzen den be ez dakian hori* eta antzeko puntada minduak asmatu behar izaten zituen amari ernegaraztearren. Anaia-arrebenak gehiago kezkatzen ninduen, lantzean batek igual jaurtiko baitzuen: *Nik badakit hori zertara joaten den. Zigarroak erretzera!* Hori ere, bide batez, ez baitzen gezurra. Beti lagun banagaitz neraman txakurrari, lantzean bide bazter batean, gutxien gustatzen zitzaion mutur-estutzez, erregu edo mehatxu egingo nion: *Hik ez esan ezer, eh! Ez egiarik, ez guzurrik! Entzun?*

Nola azaldu behar nuen, zertarako, alegia, ibilaldi haiek guztiak egiten nituela, aldizka begiak itxi eta, ilargiak xarmaturiko bide eta pinadi haiek imaginatzen seminarioan egindako ahalegin antsiosak berrituz, ireki eta bat-batean dena hantxe zegoelako zoramena sentitzeagatik? Pinu artean furtiboki, baina errespetu zaharren batek baimendurik hazten ziren haritz bakanetariko bati gerritik heldurik, berriro begiak itxi eta seminario atzeko pinadian kokatzen nintzen, zuhaitz errukior haien ukituan eta usainean, etxe inguruko zuhaitzen besarkada banan-banan sentituz. Haritza diot, baina, barren-barrean, pinua nahiago nukeen, zaskaratsua ez balitz. Badakit pinua, gure intsinisa, zikin samarra eta zaskarra dela, adar iharrez, baita ustelez ere ugaria, sarritan deforma, gutxitan lerdena. Baina nire bideak harexen sustrai ageriz zeharkaturik zeuden eta nire pentsaketak erretxina usainak azeleratzen zituen. Edertasunari, segurrenik, afektua prezeditzen zaio, sentimenduak 'maitasuna' delako hitz faltsuegiz ez desprestigiatarren. Zer guztiz berriek, inoiz ikusi gabeek, txunditzen gaituztelakoa edertasun objektiboaren frogatzat hartu aurretik, aztertu beharko genuke ez ote den hori izango azpian dagoen analogia edo kontraste afektiboren bategatik. Nor da gauza, ordea, bere sentimenduak objektiboki sailkatzeko? Badirudi pinua ederresteko baimen eske, edo ederretsi izana justifikatu guran nabilela, baina kode estetikoek ere argitasunetik baino ohituratik gehiago daukatela aspaldi susmatua dudanez gero, orain ez naiz barkamen eske hasiko, denak joanak direnean. Hala, seminarioan bene-benetan situatzea lortzen nuenean, hain tristura urrun eta ia itxaropen gabean abandonaturik, zer ez zen, begien irekitze soil batez, neure betidaniko pinuagaz, bihurtuneagaz, erromadagaz, ilargiagaz bat eginda aurkitzea, hau ere bene-benetan eta berbertan? Bueltan, sukaldeko mahaietan, berriz ere ilunetan (egiazkoago iruditzen zitzaidan, pentsamena aiseago ibil zitekeelako noranahi, eta ez gutxiago, amaren goitiko kexa inkonteniblea ekiditearren: *Zertan egon leitekeela baina mutila ezkaratzean orduotan, petrolioa alperrik gastatzen!*), ariketa berberari ekingo nion, seminarioko mahaietara ahalik joan-etorri fisikoenak egiten saiatuz, eta lortuz, ez baitago toki batean gogo osoa ezartzerik, gorputzak bertaraino lagundu gabe.

Nire ikaskide batek urari berak nahi zuen edariaren zaporea hartzen ziola tematzen zuenean, lehenbizi sasi-mistikotzat jo nuen, gero inbidia hartu nion, '*oh, felix error*', harik eta nirea mirari handiagoa zela ohartu nintzen arte. Seminarioan ez nuen lortzen neure burua etxean guztiz kokatzerik; hori mistika iraultzaileegia izango zatekeen. Etxean nengoenean, oster, begiak itxi eta ahalegin ez heroiko bat nahikoa nuen, seminario bete-betea aurki nendin, ez dakit hango izatea

edonondik aktualizatzeko bezain dominantea zelako, ala aktualizazioa etxean gauzatzea motibazio miraritsua zelako. Mahaia igurtzi, lixiba usaina hartu, laztasun orokorrean junta koipeztuak sentitu, sendoera haztatu, sukaldeko osagai guztiak banan-banan begiz laztandu, sukaldearen osotasuna, sabaiko ohol keztatuaren gerrako zulo eta guzti, behin eta berriro ingeritzen saiatu, gogoaren bolumena harexen formara ekarri arte. Begiak itxi eta: *Barka, Jauna, baina hauxe da nire nahikunde irresistiblea*. Begiak ireki eta: *Hauxe dok bera, hauxe nok bera, hauxe dok, hauxe nok, dok, nok*. Gauza bera ezberdinki errepikatzea egiaren gozamenen insistitzeko modua bailitzan. Ez al da, ba?

Hain da hala, ezen Etxenagusi hori bezalako etxe eta auzo deshabetu batean ere ezin baitiot alde egin sentimenduen berrinkarnazioari, berriz neure haragian, beti neure haragian. Mahaia hormara jasorik, goiko solairura, logeletara abiatuko nintzateke, ez bidean, askaurreko atetik, ukuiluko iluntasunari txiza zarrastada bero bat eskaini gabe, entzunez behien hausnar akonpasatua, zuzendari gabe perfekzioz eramana, aldizka unisonotik kontrapuntura aldakor, txerriaren zurrunga bedeinkatua (kontzientzia trankil baten loa), askako galtzu hondarretan arrastan dabilen astomuturraren purrustadak, oilo elkarri itsatsien kuxmux txit arina, habe zaharren kirrizkada bakanduak, gogait-intziri diruditenak, neure txizaren beraren hotsa; usainduz simaur lurruntsuaren eta abere-arnasen nahaste epela, ilunaren hezetasun mingoskara, hankapeko belarren berdoztasun maluskatua, iraren basatasun otzandua... Luxuzko txizagintza, giltzurrunak harrigabetzeko bere bizikoa. Eskailerak astiro-astiro igoko nituzke, mailak banan-banan kontatuz, azkena zenbatgarrena den jakiteko baino gehiago, zenbakiak ikasteko lehen metodoa omenduz. Bitarteko eskailburuan, gorantz begiratuko nuke, ilunaren zirriturik inondik ba ote den, eta, zorionez, guztiz trinko darraielak ikusirik, balaustreak ere kontatuz aurrera egingo nuke, begiak itxita oraingoan, hobeto gogoratzearen zenbat kostatzen zitzaidan, zenbakiak ikasi berri nituenean, bi kontaduriak, balaustre eta mailenak, batera eramatea. Hartatik etorria izango dut, oraintxe ere, bi gauza batera kontatzeko dorpetasuna, zorrak eta hartzekoak, esaterako; edo buruak eta adarrak, sekula logikaren arabera irteten ez zaizkidanak, denean ez baita izaten 'ehun frailek berrehun potro'; edo, elizgizonei errespetua edo beldurra dietenentzat, okasio (on) bakoitzeko, infidelitasun bat.

Lehen solairuan, logelak banatzen dituen salako atean eskua dudala, ganbararaino jarraitzeari ezingo nioke eutsi. Beste bitarteko eskailburu bat eta, hurrengoan, etxearen goren solairua. Ikusten denagatik, ezer ireki ezta ere berdin lioke, baina, atzerantz bota ez nazan, aurrerantz sakatuko niokeen atea kirrinkada herratsua egingo du: *Ezin al nok baketan utzi, neure goiera ahaztuan?– Ezin haut, ba – darantzuket–, heu haz nire museora sarbidea eta*. Iluntasun dagoeneko sobera ekanduak, teilatu txit zabal eta ez hain erriparen ertz eta bitarteetan, argi zantzu ahul-ahulak diradozki, ganduak bezalakoak, galduta baleude bezala, dena neure begien irradiazioa ez bada, irudikatzen dudana habe, zutabe eta zehar-habezko konposizio inponentea bezala. Urteko egun handi txit bakanetan, logeletan kabitzeko baino ahaide eta bestaliar gehiago pilatzen zenean, ospakizunen berezko poz esplosiboari txikiok ganbaran lo egitea gehitzen zitzaion, hainbestean, non ez nekien egunaren ala gauaren zainago egon behar nuen. Zorion gehiegizkoaren dilemak. Egin beharreko zalapartak eta berriketak amaitutakoan, gehienez behetik zetozen agindu geroz garratzagoen ondorioz, banekien egunaren exzitazioak eta biharamunaren espektazioak ez zidatela lorik egiten utziko. *Zorionez!*, pentsatuko nuen, bestela, lozko gaua instante oharkabea igaroko baitzen. Nik gaua itzarrik egin nahi nuen, habe, zutabe eta zehar-habeek osatzen zituzten figurak eta simetriak kontatuz, konparatuz, eraldatuz, berriak irudikatuz, gogoan egun berezi haietako bizipenetan multiplika zedin. Oso gero izango zen, nostalgia luzean eta gorabehera handien ondoren, zureria haren konfigurazioari benetako museoaren eitea esleituko niona, etxea oinarritik gorantz eraiki behar izatearen zentzu guztia erakusketa hartaraxe iristea bailitzan; gaineko teilatuak ere, funtzionalki alderantziz ei den arren, museo huraxe konpletatzeaz beste xederik ez baileukan. Izan ere, goitik begiraturik, teilatua bezalako inklinazio bikoitz baten sinpletasunak ez dirudi hainbesteko

azpi-edertasunik behar lukeenik, bera gabe egitura guztiak zentzugabekeria emango luke baina. Ahoz behera ireki den liburu-azal erraldoi hori barruko edertasunaren presuntzio infalibleak ikusgarritzen du, etxeetan segurua berori, liburuetan exzepzionala bada ere. Konparazioa iruzurra izan ez dadin, nahikoa litzateke liburu on bat. Eginda egongo ahal da dagoeneko! Bestela, neuk egin beharko dut, orain astia ere izango dudala suposatzen baita. Norentzat? Gutxi al da neuretzat? Idazten dena idazlearentzat izatea litzateke bidezkoen, irakurlearentzat askoz hobe bailitzateke %99 eliminatzea, uzten dena onena izatekotan. Denbora ederra irabaziko zenukeen, haietaz gehiago gogoratuko ez zinen gauzak irakurtzen xahutu ez bazenu.

Ez nintzateke ganbaran aurrera ausartuko, halako museoan zorua, gezurra badirudi ere, ez baita lar fidagarria, hain gutxi ilunetan, nonahi zulo edo usteltasun traidorea zelatan, nahiz eta gurean (nor jakin orain nabilen honetan!) ez dudan gogoratzen beste etxe hartakorik, non azpian lo zegoen morroiari artaburua arratoi eta guzti jausi zitzaion bitartetik.

- *Eta zer egin heuen?*
- *Zer egingo najoan, ba? Jan!*
- *Arratoia?*
- *Artaburua!*
- *Eta arratoia?*
- *Nire eginbeharretan ez zoan sartzen arratoiak harrapatzerik.*

Ganbaratik jaitsirik, erdiko salan zehar, ustez logela printzipaleko atea bilatuko nuke. Badaezpada, berriro hots egingo nuke, oraingoan lotsagabeago, iluntasunari hasierako beldurra galdurik:

- *Eup! Bizi al da inor (bertan akabatu daidan)?*
- *Hil arte bai, Jainkoak gura ez badau be. Heuk eroango nok hilerriera?*
- *Bizi bazara, oinez joan zeintekoz.*
- *Ez jagok txarto, bidean zorrei agur egiteko be, baina oinez doanak itzultzeko arriskua jaukak.*
- *Emongo deusut atxurkada bat.*
- *Sekula ez nok atxurzalea izan.*
- *Zuloa egiteko, falta egingo deusku.*
- *Gero gainean charlestona dantzatu deidaan?*
- *Gorputzak hori eskatuko baleutsu!*
- *Orduan, ez nok bizi. Poltsa heuretzat, baina barrukoari ikuturik be ez, nire arima heure konkorr bihurtu daiten gura ez badok.*
- *Sartu al naiteke?*
- *Onezkoa bahaz, aurrera. Txarrezkoa bahaz....*

Esaldia airean utzi du kezagarriro. Hala ere, sartu egingo naiz; total, ikusi ezin badut... Ohea aurkitu dut, haztatzen ari naiz, ez dago inor, egin gabe dago, baina ez dago epel. Oheak egiteko asti barik joan ziren, antza. Gure andreagaz ez zen hori gertatuko. Ohean eseri naiz, ukondoak belaunetan, burua esku artean, seminarioko etxemin gautarrear. Betikoa. Zergatik ezin dut gaueko bakardadea etxean banengo bezala sentitu, etxean hain erraz erreproduzitzen badut seminariokoa, soldadutzakoa, espetxekoa?

Eseri eta horixe dena berritzen hasiko nintzateke. Eta azkenean, nahiz oso alde zehar, denboraren erosioz (hori ere nekatu egiten baita beti interpelazio berdinei eusten), seminarioan ere etxean bezala sentitzea benetan lortua nukeenean, ohe egingabea etzateko gogorik arriskugarrienak emango lidake. Behin bertan, arriskuak ia segurki menperatuko ninduke, etxe deshabitatuak,

harainoko bidaia ustez burujabea, egina lidakeen sukzio oharkabearen ondorioz. Haitzuloan gas-emanazio subtil batek, gure asaba erromantikoek enkantamendua zela dohatsuki erabaki zutenak, zorabioa eragin lezakeen moduan. Plazer itzelez lokar zintezke etxe deshabitatuan, baina ez dakizu nola itzartuko zaren, etxe gosetiaren arima bihurturik ez bada. Horrexegatik ez dut Etxenagusi mendetsu horretan sartu nahi, untxien garrasiak oroimena akutxillatzen geldituko bazaizkit ere.

Saguari iheska hasi zen ikono-taldea bezala. Pantailaren goi ezkerreko angeluan denak kontuz-kontuz pilatzen nituen, elkar gainka; baten barren-ertza ukitzea nahikoa zen, denak dziztadan barreia zitezen, kilikili-eztandak jota. *Hauxe virus alegrea!* Katuari deitu nion eta hari ere zelebren iruditu. *Barrabana! Horretarako damonak esne epela eta orrazten deunak buztana?* Txakurrari deitzeak ez zuen ezer konpondu; hizketan ikas lezake, baina ez putz egiten. Txakurrak zaunka ilargiari, ilargiak beti argi. Atartera irten naiz eta ilargi bete-betea, hori-argia, aurrez aurre dator, ortzi urdinean, hutsean gora. Hutsunea urdina da, ez beltza. Ilargiak forma infinituak har ditzake, baina ez guztiak. Nola daiteke hori? Edo ilargi erdizirkular batek nola zabal dezake aura biribila? Horizontea, azpialde lanbroz, ortziaren ebatura bainoago juntura da. Ilargi bete eta neu, bakar-bakarrik, beste haustura gabe. Nola laburtzen diren distantziak, ilargi sartuna, hori-hori gau hezean, fundizioko tximini luzearen goi-kopan kokatu zaizunean, izozki kolosal bat bezala! Edertasuna sinpletasun absolutua da. Erretiratu egin behar dut. Honenbesteko kargari ezin zaio eutsi.

Behin honezkero, neure eremu askatuaren edo isolatuaren mugaraino, elizalderaino darraiket, bideak geroz ulufonia erogarriagoa badakar ere. Ifarrari hegoara aldatzea ematen badio, nire isolamenduarenak egin du; haizeak, mendi maldaren kontra, ohaperaino sartuko dit agonia amorratua. Elizaldea isil-isilik dago, askakuntza zehatz egin nuen adierazle. Kilometro erdira, ostera, %20ko inklinazioan ia zuzen jaisten den aldats honen goienetik, sentsazio eskatologikoa erabatekoa da, ez Anboto erdian hartzen duen mendikateak aurre urrunean mugaturik ikusi behar nukeen haran sakon eta hedatsua ilundegi konpaktua delako, ez sinfonia torturagarri horrek deboratu behar nauelako, baizik begi gorrototsuen delirium bat nabari dudalako, hain apurtua, ezen begi bakoitza bere kideagandik erauzita nabigatzen baita iluntasunean, edo bikote antinaturalak osatuz, txakur-txerrienak, zaldi-katuenak, zezen-akerrenak, behi-astoenak, ahuntz-untxienak, denak konbergentzia mendekati baten bila; neu naizela uste dut bera. Ilunaren babesean, eusten-eusten saiatzen naiz, aszetikan, torturan, amesgaitzean, zoraldian, angustian, masokismoan, izuan, kontinentzian, paroxismoan ondo zailduriko obstinazioz, baina hau gehiegi da, diktadura amaigabetik biziraunik, desagerpen orokorrak salbuetsi duen bakarrarentzat ere. *Hilko ahal zarie lehenbailehen!* Etxeranzkoan, Etxenagusi parean, untxien txilioak isilduak direla ikustean (*hau be badok, ba, isiltasuna ikusi ilunetan!*), ez nau gehiegi poztu madarikapena funtzionatzen hasia dela pentsatzeak, ikaratzea tokatzen zelako, beharbada. Ez bata, ez bestea, kinka estremoetan maiz gertatu ohi denez. Eztei eguna iritsia da, eta ez dakizu pozik ala triste zauden. Lanaren domina eman dizute, eta ez dakizu arrakasta ala porrota den. Gero, ea arrakastatik ala porrotetik gehiago ikasten duzun galdetu dizutenean, errazagoa izan da ikasketak antzina amaitu zenituela erantzutea. Praketara kaka egin duzu, eta, koldarkeria ala diskrezioa zen albora utzita, ez dakizu arin ala astiro joan behar duzun. In fraganti harrapatu zaituzte, eta ez dakizu zorionak eman ala beste aukera bat eskatu behar diezun. Fusilamenduko horman tiratu dizute, eta ez dakizu amaitu den ala graziazko tiroari itxaron behar diozun.

Etxera iritsi naiz, egun inkalifikable bat amaitutzat eman dut, oheratzea erabaki dut, horretantxe ari naiz. Bururatuko ahal zait beste dilema on bat, nagi samarra, logura erakartzeko modukoa. Erakarri, diot, ez ekarri, logura ere maitegai apetati horietarikoa baita, bila zuzen bazoaz, bizkar emango dizuna. Hil-buru egin behar duzu (lo-buru ez da kasuari dagokiona), bera hurbil dakizun, inolako konplizitaterik gabe, inolako interes zantzurik gabe, inposibletzat utzitako eltxoa,

argia itzaliz batera, belarri inguruan sumatzen duzunean bezala. Horixe: hil-buru egiten hasi eta erdi lo zaude. Erdi-kontzientziaren gratuitate atxikigaitz horietariko batean, astinaldi batek, bere laburtasun gordinean, etsiaren irauli definitibora aztoratu zaitu. Ez dakizu zorion-kolpea ala infartoa izan den. Banuen beldurra. Egunaren atzera-aurreran ohartzen ez nintzena gelditasun ernaian etzan naizenean, ezin dut auhenak, marruak, garraisiak, mehatz eta desaldika bada ere, entzumenean sartzerik moztu, belarri bata burkoaren kontra estutzen badut, bestea libre geratzen baita, urruntasunaren gainetik edo zeharretik, heriotzak errematatzeaz dituela ematen duen amortiguazio tristeagoan. Horretara laguntzen du oraintxe lehenengoz garbi ohartu naizen (eta ikaratu nauen) ingurunearen hustasun mekanikoak. Artean, nire gaurik isilenetan ere, bazen azpi-ozentasun bat, nire oharkabean existitzen zena, haraneko fabrikek, autopistako burrun etengabeak, trenaren igarotze luzeek, haste-amaiak ezin zehazteko bezain leunduek, hozkailuaren girrinak, aire girotuaren furrinak, eta aurrerapenak inkontzientean sartua zidan zaraten gama guztiak osatua, aldizka nabarmentzen ziren hegazkinei, kanpaiei, etxe ondotik pasatzen ziren auto ordugabeei, fondoa ipintzen ziena. Orain dena deskonektatu da, hotel handi batean, igogailua, ala soto-galdarak, ala sintonia galdutako telebistaren bat, ala helize lokaturen bat, ala barku urrunen bat ote zen tentsioan zeundela, bat-batean, zarata oro mozteak sentiarazi dizun atsedean desinflantea bezala. Plof! Jarraian, hots, eternitate llabur baten ondoren, zarata txiki guztiak garbi-garbi entzuten dituzu, tximeleta ñimiñoa, pipia, ohe kirrinkada.

Badirudi nire gau lainotua tanpez garbitu dela, dena garden utzirik, izar, ilargi eta ostertz; lainotua, behin Gorbeia mendian, lainoak amen batean inguratu eta nora gabe aurkitzean egiten nituen deihadar ikaratuak inora ez zirela iristen sentitzen nuen moduan. Beharbada, astakeria bat esaten ari naiz, lainoa hotsaren eroale ona baldin bada; baina, mutikotan behizain, gauaren barrunbean lainoa zabaltzen zenean, behi galduen txilnik entzun ezinez dardaratzen nintzen, kasualki eurekin topo egiten ez banuen, gero (*barriro ez zarie galduko, ba!*) gidariari isatsetik ondo helduta etxeratzeko. Izan zitekeen, noski, ikararen ondorio, baina zer? Ikara ez al da arrazoi sendo bat? Kontua da ezen, gaua zarata artifizial guztiez hustu denean, nahikoa zabaleran askatua uste nuen eremutik haragoko hil-orroak koordinazio banatuki salatian datozela. Leihoa ixteaz beste erremediorik ez dago, beroari ito nazan baimena ematea bada ere. Banuen honelako zerbaiten beldurra, bizitza sarritan izorranteak sobera erakutsia didanez. Entzun nahi ez den zarata, zenbat eta mozpide gehiago jartzen diozun, hainbat zitalago iritsiko zaizu, entzuten duzuna eta entzun uste duzuna ezin bereizteraino. Horrela ez dago erremedio posiblerik.

Marruak entzuten darrait, haiek zenbat ahulago, ni adiago, batek ere eskapa ez diezadan, zeragaz lortzeko arriskua dudan, entzungarri-entzunezgarrien marra inberifikable horren gainean, artegatasuna desesperazio bilaka dakidan, seminarioko zisterna-zarata sen-erazle haregaz bezala, urte batez komunen ondoko logela egokitu zitzaidanean. Komundegi bakoitzean, dozena bat txizontzi eta dozena erdi bat bakartoki bazirenez, beti zegoen zerbait izorraturik, konpontzen asteak eta aberiatzen segundoak tardatzen zuena, halakoxe komunitate txukunean bizi baikinen. Gauetz, zisterna txolin baten txorrota entzuten nuen, batean bis-bis, bestean ttan-ttan, *oraintxe isildu dok; ez, ba!*, barriro abian, setatia. Nire belarriak zenbat eta mantapean estaliago, hainbat zoliago zeuden, bere zulora sartzea lortu duen erbinude jazarriarenak gelditzen diren bezala, suposatzen dut, neuk ez ditut barrutik inoiz ikusi baina. Zisternek banango giltzarik ez zeukatenez, eta giltza orokorrik aurkitzen ez nuenez (*seminario guztian, giltza bakarra ete jagok, erretore bakarra, maiordomo bakarra, espiritu bakarra legez?*), flotagailuaren txorrota isiltzeko era teoriko guztiak probatzen nituen: flotagailua beherantz okertu, gorantz zurkaiztu, trapu zerrenda bategaz batu eta ertzak luze utzi, ura isilik jaitz zedin... Ohera itzuli eta aldiño bat ernaitasun garailean iraganik, berriro hasten zen tantaketa madarikatua, ezberdina, baina berdin exasperantea. Ez dakit zenbatgarrenez jaikirik, soluzio drastikoren bat ezartzekotan nenbilela, prefektu nagusiak atea ireki eta zisternan harrapatu

ninduenean, tximinoa koko erauzten bezala, *viva Jesus!* hots egin nuen, *berton hiltzeko!* pentsatuz, Getsemaniko otoitzaren aurpegia gogoan.

– *Zer egiten dok hor?* –galdetu zuen hizkerarik ebakorrenez, ‘*zer egiten ibili heinteko hor*’ itaunari erantzuten ari bailitzan.

– *Zarata honegaz ezin dot lorik egin.*

– *Gauza gitxi behar dok distrahitzeko.*

– *Distrahitzeko ez, aita. Zoratzeko!*

– *Ezin al heuen abisua behar zen lekura pasatu, behar zenak konpondu zeien?*

– *Bat konpondu orduko, beste bat hondatu daiten, barriro bera ez bada?*

– *Jaitsi hortik eta itzul hadi ohera, kontzientzia garbikoen posiziora.*

– *Arren, aita! Alda benai beste logela batera, kontzientzia zulatu aurretik.*

– *Ederrak gengokezak, milingeria bategaitik, komunitatea logelaz aldatzen hasi behar bagendu!*

– *Ba, nik gehiago ezin dot, eta Jainkoak badaki ez nabilela guzurrean.*

– *Jainkoak bajakik nork zer behar dauen, eta hiri gela horixe tokatu jak. Onartu eik haren borondatea oparirik ederren legez.*

– *Ez al litzateke bardin Jainkoaren borondate, berorren borondateak beste logela bat emoteari baleritzo?*

– *Denak okupatuta jagozak.*

– *Topatuko dot lagunen bat, zarata hau gorabehera, bardin lo egingo dauena eta pozik trukatuko deustana.*

– *Ez dok inor topatuko, eta lo egingo dok, gainera, heure buruaren domeinuan. Hau Kristoren jarraitzaile zailduak egiteko etxea dok, ez txotxongilo mainontzien egoitza.*

– *Eskerrik asko, aita. Zoratzan banaz, abisatu etxekoei ordenaz aldatzea pentsatu dodala.*

Azken hori pentsatu egin nuen erantzun bainoago, dena galtzeko neukan etsaigorik ez bainuen nahi, eta, batez ere, konfiantza osoa bainekuan asmamenak zerbait aurkituko zuela, ez zen hala gertatuko baina. Beste erremediorik ezean, neure gurutze ahalik laztankien onartua arima urrunak salbatzeko eskaintzen saiatzen nintzen, artean sineste hori ere apur bat lokatzen hasia zen arren, ez bainekusen urruntasunak nondik atera zezakeen hurbiltasunak errefusatzen zuen prestasuna. Zergatik erabaki genuen zuzen galdetzen sekula ausartu ez nintzena, hots, txinatarrak edo musulmanak salbatzea, lortu genuela suposatzen zen arima bakoitzeko, milaka milioi geratzen baziren airean, eta ez, adibidez, suitzarrak edo monakoarrak, salbatu-salbagaien erlazioa apur bat baikorragoa izan ez zedin? Bestetik, ostera, aukera logikoa begitantzen zitzaidan, hainbesteren artean beti baitago probabilitate handiagoa norbait despistaturik harrapatzeko, geroko esperientziak berretsi zuen moduan, txinatar koloniak Euskal Herrian (eta non ez?) ugaltzen hasi zirenean, beti talde zorrozki hertsian. Gure antzinako otoitzen intentzioa, baten bat ezustean harrapatzekoa, gogoan zekarten, antza. Espetxean ere, txinatarrak eta musulmanak –eta suitzar fondoetan ibiliak– jada proportzio berdintsuan ugalduek ziren, gure kartzelero zirin bati gaua galerian paseatzen emateko mania sartu zitzaionean, barizeentzat ibiltzea komeni zela esan ziotelako; edo, trink-trank, trink-trank, lantzean ziega bateko mirila ireki eta argia piztuz, eta giltza-sortari eskuan txintxin hotsa ateraz (*‘txintxin, txintxin, diruaren hotsa’, por los cojones!*), doble izorratuko gintuela otu zitzaiolako. Nigaz ez zen erratu, gutxiagoan ez bazen, bi dobletan lortu baitzuen ni izorratzea, txintxin kontuagatik eta bere hurbiltasun aluagatik.

– *Musika exzitantea ateratzen diozu gero giltza sorta horrixek!* –zirikatu nuen goizaldeko errekontura sartu zen batez.

– *Ez diat hi plazertzeko egiten.*

– *Sumatzen dut zergaitik. Haurtxotan, txanponen txintxina maite zenuen.*

– *Hori egia duk, baina niri, txanpona bera barik, hotsa gustatzen zitzaidaan, hain zolia.*

- *Sinesten dizut, neuri ere gustatzen zitzaidan eta. Gero, txanponen urritasunaz jabetzen hasi zinenen, hotsa ugaritzen saiatuko zinen, entzuleek ‘hori duk diru piloa’ esateko moduan.*
- *Egia horixe ere.*
- *Egia oinarrizkoa, gainera, klase bereko egiten gintuena. Hitz hori aspaldion fumigatu egin dute, baina, bizimoduak berdintzen edo bereizten, txanponak darrai, lehen bezala orain eta beti, sekulun sekulan amen.*
- *Errezua ematen dik horrek.*
- *Pobreen errezua.*
- *Ez uste pobre guztiak klase berekoak direnik.*
- *Jakina! Zuk kartzelero moduan, parka, funtzionario moduan, berdintasuna ezberdin ikusiko duzu, pobreak aberatsak baino gaiztoago, alegia. Baina klaseak ez ditu moraltasunak banatzen, ahaltasunak baizik.*
- *Hitz jasogietan ez al habil, diren orduetarako?*
- *Oso sinpleak dira. Zu, beharbada, ni baino gizatasun hobea izango zara, baina begira non zauden, txanponen ordeko giltza batzuekin, gizatar baten lo merkea izorratzen, gratuitoki.*
- *Ez al duk esan musika exzitantea zela?*
- *Batzuetan, izugarri gozatzen dut, bai, Euskal Herriko txilin-dantza gogoratzen dit eta. Euskal Herria non dagoen jakingo duzu, ezta?*
- *Hori itauntzeaz neu arduratuko nauk, hemendik irten hadinean, bizi banauk.*
- *Pena hartuko nuke zuri eskerrik asko esan gabe joatea.*
- *Ez horregaitik.*
- *Eginbehar profesionala al duzu presoan loa giltzeria horregaz alaitzea?*
- *Fintasun profesionala. Geuk ere bazakiagu zuen gizatasuna eskertzen, ‘kartzeleroak’ deitzea eta horrelakoak.*
- *Zuek guri delinkuente komunak deitzea bezalakoak?*
- *Hemen ezer egin gabekorik ez zagok.*
- *Zerbait egingo ez lukeenik ere ez.*
- *Mehatxua izan al duk hori?*
- *Zeuk uste izanez gero, zergaitik ez? Guk geure hitza kontrolean entregatu genuen, objektu ebakitzailer eta ziztatzaileen artean.*
- *Horregaitik lo egiten al duk txerri baten moduan?*
- *Giltza horien soinuak asko laxatzen nau. Zapaten hots hutsa deprimentea litzateke, honelako galerian.*
- *Idea bat eman didak. Gauak asko ondu ditzakegula uste diat.*

Idea azaldu gabe joan zen, ideia handi guztietan ohi denez. Hurrengo guardian, beldur nintzen zer nobedade ekarriko zuen. Kotsolatzan ninduen pentsatzeak, giltzen suplizio erantsi haregaz, ez neukala hainbeste txinatar salbatzeke utzi beharrik, eta orain lasaitzen nau itxarroteak herio-marruok amaiturik egongo direla, guardia bat edo biren epean, bizi banaiz. Alferrik da belarriak tapoztea goatez, gomaz, ogi mamiz (kostako zait bihar belarriak libratzea), seminarioak eta espetxeak ondo frogatu zigutenez, zentzumenak bost baitira, diferentziak hamalau. Lor zenezake ez ikustea, ez ukitzea, ez dastatzea, baina ezinezko duzu ez entzutea, ez usaintzea. Bortxa zintzakete, noski, ikustera, edo argitasun mingarrira, existitzen ez ei den torturatik biziraun dutenek ondotox dakitenez. Ez ginen seminarioko argi kastoetatik ere alferrik pasatu, gau guztian pizturik egon behar zuten pasilloko bonbila haietariko batek, ate gaineko montantetik, aurpegira zuzen emateko logela egokitu zenean. Lotarakoan ipintzen eta jaikieran kentzen nuen kartoi bategaz kristala estalita libratzen nintzen, prefektu zokomirati batek erreparatu arte.

Bilboko kale-zuloak nondik zer irtengo pasatzen nituen haurtzaroko geltoki aldaketak artearen introdukzio efikaza izan ziren. Beldurrak bazterrei misterio handia eransten die. Kasualitatea

norbere irudipenean bakarrik gertatzen da, eta determinismoa tautologia baino ez da. Orduan nola esplikatzen da nire bizitzaren ibilbidea, nire nahimena ezer garantiaz gidatzeko baino makalagoa dela ziur banago? Jakitea interesatzen al da? Ez dut uste. Idazten denak idazlearentzat izan behar du, zeren, irakurlearen onerako izatekotan, lehenago ere esana dut hobe litzatekeela %99a eliminatzea. *Hi be ez haz Tolouse-Lautrec-en hankamotzak baino jenialago* esan niolako, bat haserretu egin zen, iraindurik. *Estimatuko neuke haren hankamotz bakar baten jenialtasuna* erantsi nuenean, dudan gelditu zen. %99a benignoegia izan dela uste dut. Antzinatera jotzeak ere ez du askorik konpontzen, mitologia ez baita giza miseriaren ederkuntza besterik. Sustoak hartzeko ez dago avernora jausi beharrik; nahikoa duzu (batez ere lapurreta asmoz ari bazara) argia delakoan txirrinari ematen deskuidatzea, krrrrnn!!, eskuak atzera egin dezan, moztu balute bezala. Konparazioa baliozkoa izateko, suposatu behar da ez dizutela osorik moztu. Gizateriak erremedio zaila dauka, arrazionala izanez bakarrik izan baitaiteke irrazionala. Bestetik, ez duzu halako adeitasunik ere nahi, non azalpen guztiak ematen zaizkizun, ardura ez dizun gai batean.

- *Kartoi horrek zer egiten jok hor?*
- *Pasilloko bonbilak ohaburura emoten deust, aita.*
- *Montanterik ezin dok estaldu.*
- *Gauetz bakarrik, aita. Nik honela ezin dot lorik egin.*
- *Egingo dok, eginbehartzat hartzen badok.*
- *Eta, halan be, ezin badot?*
- *Itzarraldia aprobetxatu daikek, Jainkoaren presentzian sakontzeko.*
- *Eta oheari buelta emongo baneutso?*
- *Buelta zelan?*
- *Ohaburua aterantz ipinita.*
- *Pentsatu be ez! Ezin joagu faboritismoetan hasi.*
- *Ni Jainkoa banintz, hainbeste ulertuko neuke.*
- *Ez haz, ostera. Auzia dok Jainkoaren nahia interpretatu egin behar dela, eta interprete ahaldun bakarrak hire goikoak direla, Jainkoaren beraren nahiez.*
- *Horrela begituta, badirudi ez dagoela eskapurik, baina nik ezin dot garantizatu goizeko meditazioan eta meza santuan loak gehiago egingo ez deustanik.*

Azken paragrafo hori horrela jaulki izan banu, ez dakit haren autoritatea nondik lehertuko zatekeen, baina, zorionez, bere goitasunean laketurik joan zen, nire hitz makurberok entzunik: *Egin bedi Jainkoaren nahia, alde bietatik*. Ezta! *Alde bietatik* hori ere gorde egin nuen, badaezpada, *egin bedi Jainkoaren nahia* soilean utzirik. Bakoitzak erabaki zezala zenbat aldetatik. Gutxiago ausartu nintzen galdetzen, kanpotik edonoiz irekitzeko moduko ate giltzagabeen gainean, montante txotxolo haiek, edonori begira aurkitzen dituzun ergel zeregingabe horiek bezala, zer koñotarako ipini zituzten, diferentzia mingarriak eragiteko ez bazen, ederki estaltzeko artea zeukatenean eta lehen intentuan deskubrituak izateko insufizientzia zeukatenean artean. Ate-barrena iluntzea ere komeni zen, baina hori edozein kokolok edozein trapu zaharrez egin zezakeen. Gaueko desorduetan (argiak itzaltzeko ordu zehatzetik goizeko txirrinera bitarteko ordu guztiak ziren des), pasillotik suma zitekeen logelako argi zirinda beldurtiak ez dirudi goikoen halako desplegua exigitzen zuenik, gehienez ere, gizajoren bat azterketarako ikasten edo inozenteren bat irakurketa ez-piadosoan harrapatzeko, kanpaiak eta horrelakoak ilunetan jotzen baitziren. Bazirudien desordu haietako argitasun orok per se susmagarri izan behar zuela; eta hango susmoak, segurrenik, antzeko internatu guztietan bezala, ia monotematikoak zirenez, zoaz gero formulazio zehatzean zetorren akusazioa desmuntatzera, baldin akusazio jakinarazia izateko zorterik bazenuen, hots, isilean pilatzen joan zitezen hondamenetik libratzen bazinen.

Kanpotik nornahik zabaltzeko moduko ate giltzagabea hain kontrolagarri izateak gehiago nabarmentzen zuen herioraino giltzaturik eduki beharreko 'bakartokia', hain bakarra ezen kontradikzio-espirituren batek, edo bakartasunaren gozamen posiblea norbanako petora mugatzeak pena ematen zion espiritu fraternalen batek, 'komuna' deitu baitzion, non, argi piztuan eta ate librean harrapatzen bazintuzten, posizio fetalik intentsoenean bazen ere, jar zenezakeen larrua zintzilik, haragia, behintzat, salba zedin. Une batez zalantza sortu zait sotana eta guzti egiten ote genuen, hots, nola egiten genuen, soinean generaman oihalaria guztia posizio hartara egokitzea ez baitzen lan samurra, behar zirenak garbitzeko eta abar. Askoz endredosoago zen premia bakoitzean dozena batzuk botoi askatu eta lotu beharra, kremaieren aurrerapen bizkorra baina oso arriskutsua etorri arte, zeinaren kirrizkada sumatu baikoz, txoritxoak kokzixeraino ezkututzen zen, esperientzia mingarri eta inoiz lotsagarriak gogoan. Kokzix hori hungariar futbolari bat zelako ustean jarraitu izango nukeen, lagun batek usin-pastila zela esan ez balit; hark ere zerbait aportatu nahi, gizajoak. Zientzia exaktoei halakoxe begirunea zitzaizen heziketan hazi ginen.

Montante haiena gure seminario erraldoia, lau pabilioi eskergaz osatua, zoroetxetzat diseinatua izanari egotzi behar izan nion, azkenean. Gerrak zoro guztiak sendatu bide zituen, gero frontean hiltzeko, eta Bizkaiko Aldundiak lau eskeleto fosilbideango haiek, prezio sinbolikoan, altxamendu gurutzaturantz bideraturiko babes dibinoaren esker onez, segurrenik, gotzaindegia saldu zizkion, honek seminario erraldoi bat eraiki zezan, non zaila den, bueltan-bueltan, probidentziaren esku artatsua ez hautematea, azken obraren perfekzioak osasun-proiektu aspaldi abandonatuaren espirtua kulmina zezan. Oheari buelta ematea ere probatua nuen, kartoiekin hasi aurretik, baina, horrela, aurrez geratzen zen leiho handia bete-betean begien gainera zetorrela ikusirik, lehengo posiziora itzuli nuen, etxeko leihoagazko konparazio tristeegia eten gabe aurpegira ez ziezadan. Horma kontrako eskudra zuloan burugorderik, bazen, uneka, behintzat, lorpen bilaka zitekeen modu bat, etxeko ohean netzala sentitzeko. Sentitzeko diot, zeren ikusmenean, ukimenean eta dastamenean bezala, ez baita zaila, pentsamenari jarraituz, irudipena eta benetako ikuspena, sentsazioa eta zentzumenaren egintza fisikoa bereiztea. Entzumenean, ostera, nola igar dezaket noiz den entzun-ustea eta noiz entzute egiazkoa, edo usaimenean, usain-ustea eta usaina bera? Honen kasuan, ahotik arnasa hartuz libratu izan naiz kirats sentsaziotik, baina ez zikinkeria hura ahotik sartzen ari zela pentsatzeari utzi ezinak sortzen zuen higuinetik eta berehalako okaguratik. Sudurretik ere badira graduak, noski, baina denak, gutxi-asko, urdaila irabiatzen dutenak. Orduan ez dago inondik zereginik, batez ere, higuinpe extremo hori, zeure kakatzen deskonposaturiko txerrikeria besterik ez zarelako hori, bortxaz ezarria denean. Bitarteko biolentziak albora utzita, batzuetan, distantzia argiatatik, atera dezakezu zure usain-sentsazioa, subjektiboki egiazkoa izan arren, sentsazioak denak baitira subjektiboak, ez dela kausa egiazkoak eragina. Ziurtasun horrek, gogoia transtornaturik ez baduzu, sentsazioa ezaba diezazuke.

Badakit, neure eremutxo askatuaz handiko immensitatean, animaliak hiltzen ariko direla dagoeneko. Pentsa nezake usteltzen eta kirasten ere hasiak direla, eta, pentsaketan-pentsaketan, gai nintzateke, ez zait komeni baina, usain-sentsazioa abiarazteko, nahiz eta jakin kirats hura ez daitekeela fisikoki honaino irits. Ostera, leihoak itxirik eta belarriak tapozturik, distantziaz ezinezko ez diren hil-orroak entzuten badarrait, nola erabaki dezaket egiazkoak ala irudikatuak diren? Hara! Badakizu zer egingo dudan? Leihoak berriro zabal-zabalik jarri eta agoniei euren barietate guztian sartzen utzi. Gerran, berbertako sarrasketatik biziraun zutenen ume batek honenbesteri eusteko gai izan behar luke, freskura maitalea ohe bigunera datorkion bitartean. Luzeenean ere, egun batzuk barru, amaitua izango da tragedia mundiala. *Ni hiltzen naizen gauean behintzat, eizue lo lasai, agindu nizuen. Joan bazarie, zeuek konpondu orain.*

Jaiki eta ezertan hasi aurretik, oinutsik eta galtzontzilo hutsean, argiari eman diot. Ez da piztu. Lababoko kaxoian, andrearen nolotil kaxatxo ireki dut. Ez da alerik falta. Umearen hortzore- eta

eskuila-edontziari eragin diot. Ez dirudi erabilia izan denik. Besoak leihoan kokaturik, auzorantz begira nago, regresioaren seinale izpiren bat nondik hautemango; katastrofe baten gainera jaiki den sonanbuluak (batzuetan, horixe ez ote naizen zalantza askaezinetik metodologia soilez jotzen dut aurrera) huskeriak haztatzen dituen moduan (edo oinkatzen, makurtzeko adorerik ez badu), ea mirari katastrofikoak bueltarik ez lukeen errealitateak ukitze xumez, oharkabea, itzartzeari ematen dion. Suak edo urak desolatu duen hirian zehar badoa eta ispilutxo biribil bat aurkitzen du, ezpainak pintatzeko horietarikoa. Aurpegira hurreratu du eta, ikaraturik, bertan jaregin dio, katastrofearen tamainako muturra agertu zaionean. Hondamen oraindik berriegitik zekarren izurako predisposizioa apur bat lasaitzean, ispilutxoa berriro jaso du, eta alde ez handitzailean aurpegi lagungura bat aurkitu du, gertaeraren magnitudeak, bueltaezina baldin bada, behintzat bere baitan bihozberaki onar dezan. Gudu-zelai suntsitura itzuli den bizirauleak, ulertezinki, panpina gorri-ilun bat aurkitu du, eta kasik iruditu zaio gerra galtzea merezi zuela. Gero, etxe-barru erdi suntsituan, aurkikuntza txiki batek jabeazten du izakirik maiteenaren galeraz, sukaldeko armairuan, trepetxu guztiek kabitu ezinik darraiten kaxoian, gutun baten pasarte dirudien paper-txatala irakurri duenean: *Itzultzen ez bazara, hil arte maiteko zaitut*. Katastrofe guztiek dauzkate euren aldeño samurrak, zeintzuei esker biziraupenak biziari jarraipena damaion. Nire kasuan, gertaerak bueltaezina ematen darrai, baina ez dirudi ez katastrofea, ez desolazioa, urra nazaten uztea eurentzat ere alferrik dela erabaki dudana hil-orro horiek akosatzen banaute ere.

Molekulen, bakterien, virusen mundu ñimiñoa handiturik ikustean, itsas-hondoa iruditzen zait: medusak, itsas-izarrak, algak... Itsas-hondoa, berriz, unibertso minimizatu iruditzen zait. Dena daukagu bertan, ordea! Geroz gehiago begiraten diot naturari, ordubeteko bizia daukadala iragarri balidate bezala. Natura: giza abenturaren porrotetik gelditzen den edertasun infalible hori. Astirik sobratu bazaizu, jakina. Edo dezepzioak garaiz har zintzan zorterik izan baduzu. Natura deskribatzeak hainbeste hunkitzen banau, zergatik ez bera zuzenean gozatu? Badakit. Kontatzea emozioaren formarik emankorrenetarikoa ei da. Baina zergatik da oroimena errealitatea baino ederrago, hunkigarriago? Galderak sentipen ederregien egiari buruzko zalantzatik datozenean, hobe da bertan utzi, erantzunaren zehaztasun zapuzgarrira arriskatu gabe. Nahiago dut gaueko argitasun inoiz exultante horiekin gelditu, non izarrak eguna bailitza distiraten diren, espazioaren infinitua imaginatu baino, infartoak eman ez diezadan. Bizirik behar dut, gozamina luzatzeko, denak joan baziren, edertasunak hemen gelditu baitira. Lautada perfektuan, mendi gabe, ilargiaren ganduz, zerua plantxa zapaltzaile bihurtu zaizu. Horizonte gabe, bobedarik ez. Edertasun fetala. Bakarrik ez banengo, ikaratuko nintzateke.

.....

Eguna normal-normal argitu du, ezer gertatu ez balitz bezala. Hala ageri bada, hala badakust, ez dago kontra egin beharrik. Ikustea ez al zen sinestearen alderantzia? Pentsamenari ezkurra eman behar zaio, bere burua jan ez dezan. Jakiak berebiletatik deskargatzen hasi aurretik, eskegitokia prestatu behar da. Eguerdia arte badaukat nire pentsamenik exigenteena xarmatzeko lan bat, hagagintza, betidanik hain maitea bera, baina euren hazkundeari hain arretaz jarraitu nien zuhaitzak mozteko pena gabe orain. Baita kezka gabe ere naturaganako agresioa areagotzen ari ote naizen, nire kalterik handiena xirri laztankor bat besterik ez baita izango, orotasun osoari buruz. Bai izango dela ederra dena oihan birjina bihurtzen ikustea, denbora geologikoen errepikan! Aizkora bizkarrean, begiak zuhaitz gerrietan, txakurra esploratzaile, eta bi asteme atzetik konpainiako señorita gisan, luxuria bat da berdetasun trinko honen gerizan barnatzea. Bariazioan sartzen zirelako baino gehiago, jaiotetxeko iturri gainean zegoen multzo sasitsuaren nostalgiaz landatu nituen urritzok, gero ezertarako balio argirik ikusiko ez nienok (urrei harra egiten zitzaien, ortu-hesolik ez nuen behar), nork esan behar zidan, egun batez, ganbaran, buelta guztiko bibliotekaren alderik alde, urdaiazpi-ilara amaigabeen gakoak izango zirenik, autore gosekil edo honezkero gosetuek euren

obratik narrukadak egitera eskapatzeko moduan? Haga samurrak, zuzenak, luzeak, adaska orritsu eta freskoen artetik kixki-kaxka biluztuak, atze aldean pilatuz doaz. Multzoa hizketan hasteko moduko konfiantzaraino handitu denean, entzuten hasi naiz:

– *Niri solomoak eskegi.*

– *Niri lukainkak.*

– *Niri txistorrak.*

– *Niri denerik.*

– *Niri makailao gaziak.*

– *Niri saiheskiak.*

– *Niri...*

– *Egongo al zarie isilik, piloan baino hazten ez dakizuen landara zingilok? –moztu behar izan diet–. Baten batek tximinia garbitzeko ipizkiaren kirtena be izan beharko jok!*

– *Hori leizarrek egin daieela, gu baino panpoxagoak ei dira eta.*

Dozena bateko sorta bizkarrean, aldasgoran jaso ondoren (garraio erosoagorik zertarako bilatu, gurutze promeskor bat eroateko era behin izango eta?), ez daukat landareekin eztabaidan jarraitzeko setarik, aitzitik, neure burua ere sabai usaintsutik dilindan imaginatuz, ia ez dut oinik lurrean nabari. Bibliotekak neu bertan luzaro egoteko moduko anbientazioa hartu behar duela uste dut, ganora bako estropozuren batek bertan aberiatzen ez banau. Norberak eginak izateaz harrotu ezinak ez dut uste jakiei zaporerik gutxituko dienik, iaioa bainaiz inoren izerdi emaitzak estimatzen, baita apaltasunaren balioa eransten ere, nire gozamina besteen ederrespen bilaka dadin, esateko moduan ze: *Gustua dok honi jaten emotea.* Hala ere, bat beharrean, nahiago dut nire gozamenak obligazio paraleloen ardurarik izan ez dezan, litezkeen jasoenak badira ere, eskerrak ematea, adibidez. Utz biezadate lasai jaten. Azkenean, erarik ustegabeenean iritsi zait desioaren konplimendua. Jada ez dut Saturnoren eraztunik behar, neure insatisfakzioa justifikatzeko. Urritz sastraka bat erdi muskildurik, bigarrenaren orpora nator, aizkora goitik albokera, zeinak ere, gizarajoak, behar baitzuen asasku on bat, aspaldiko abandonoaren herdoila zur gaztearen ur gozoan eta hostoen itzala bezain freskoan beratuz. Ostera batean, dozena bat haga eroan baditut, beste dozena bategaz nahikoa izango ahal da. Orain, beste hainbeste urkulu behar dira, urritzen luzera makala zurkaizteko. Normalean, lanik erosoena azkenerako uzten ikasia nintzelarik, gaurkoak errakuntza eman lezake, urkulu egokidun hagak aurkitzeko, baso zati handia korritu behar izaten baita. Horrexegatik da, hain zuzen, bilaketa jorantsua. Etxeko partean zein auzokoetan, ezin dut barneratu dena neurea dela, eta neu naizela dena. Nahi dudana egin dezakedala, nahi dudana moduan: zuhaitzak eta sastrakak banan-banan hauteman, presa gabe begietsi, zernahi hautatzeaz gozatu. *Hau ez, hori bai, hau ona, hori astunegia. Lasai, txoritxoak! Zuen bila ez nator. Hemen sasi gehiegi, aurrera. Dotorea hauxe! Galanta horixe, hiru urkulu, gutxienez. Hau, hori, ez, bai.*

Inoiz ez zait kostatu zurak eskultoreengan daragien lilura ulertzea, eta euren zortea bekaiztetik ezin libratzeak dohakabe arriskutsu egingo nindukeen, aizkora bizkarrean eta zur biziaren ezpalean, oihan basaren edergintzan jabaldu ez banintz, beti ere aukerazko zereginetan, bizibidezko baso-lana immigrazio ezkutuari ez kentzearren. Orain, bizibidea eta aukera, biak batu zaizkidanean, umetako amets kimeriko askotariko bati jarraituz, aizkora nonahi sar dezaket, zuhaitz gaztean zein zaharrean, baita urdaiazpian ere. Iruditzen zait zorabio hauxe sentitu behar zuela izadi ikaragarriari lehen aizkora serioa jarki zionak, sentimenduen kontzientziara iritsia bazen. Ez, segurrenik. Horregatik, harengandik niganainoko tarte kasik eternala, azken uneko ezabapen bakezko hau barne, oihan-zoko honetantxe kontzentratu ahal izateak kontzientziaren gorena markatzen du, esan nahi baita zorionera kondenaturik nagoela, kondena hitzaren ñabardura horixe salbu. ‘Unibertsoko errege’ delakoak ez dit kuadratzen, ez, menpekorik balegokeen kasuan ere, erret metafora biguin nukeelako, baizik oihan-zoko honek, erreka-zulo dzidzikari eta guzti, ez duelako ematen ezer

garrantzizkoren kokapen izan daitekeenik. Nahiz eta, hertsiki, izan ote liteke gunerik, zoko ez denik, konfluentzia imaginario baten erdigune gisan ez bada? Zaila baita ulertzea ubikuitatea ere zokorun-zoko infinituen batura besterik izan daitekeenik. Unibertsoaren lekaio geratu naizenez gero, galtzak gustura askatuko nituzke oraintxe, irak berdeegi ez baleude, ondorengo garbi-lanerako.

– *Zertarako jaten dok, Perutxo?*

– *Kaka egiteko.*

– *Kaka zertarako?*

– *Ipurdia garbitzen ikasteko.*

– *Ipurdia garbitu zertarako?*

– *Uzkitik ispilura...*

– *Bo, utziok, bajakiat hi ipurdi kontuekin ez hazena gogaituko eta.*

Aurki nezake errekan behera videt natural bikaina, umetan oharkabeki baliatua eta ohartaroan tamalgarriro ahaztua, baina, horretarako, askapen-lana ere bertan egin beharko nuke, eta hobe dut orain esperimentu zaharren berrikuntzan ez konplikatu, ez baitaukat obligaziorik indiano hura bezain eskrupuloso, kuxidatean ere gailen beharrekoa, izateko. Baldin, pixatoki publiko batean, zirritada amaitzean, urari eman eta, apur bat itxaronik, ez zetorrela bazekusen, ondoko ontzira aldatuko zen, zakil oraindik tantakariak ezin baitzuen operazioa burututzat eman, uraren hotsa entzun arte. Okerragoa zen ondokoa ere, hots, ilara osoa, agor zegoenean, erdiak baino gehiago korritu behar baitzituen postura txoripito hartan, mozte puntuala edo aberia iraunkorra zela ohartzeko. Okerrena, hala ere, tartean beste pixagile buru-loka bat gertatzea zen, zeinaren atzetik hurrengora hala pasatzea alarmagarri izan zitekeen; besteak amaitu arte alboan itxarotea, berriz, interpretatzen zailegia. Etxeraino eutsiko diodala uste dut, urkulu sorta bizkarrean dela, ez baitaukat umetako dilema larririk, materialki larria bera, etxera osorik iritsi nahian: astiro joanez, garaiz ezin iritsi; arinari emanda, tripak azkartu. Azkenean, nolabait iristen ginela esan behar, nolabait horretan kasuistika ugaria sartzen zelarik, haur bakoitzak eredu orokorrari eransten zizkion aportazio pertsonalen arabera, prakak kakazteko ere era eta une asko baitaude. Karga eta aldasgora ez dira, noski, este urdurien lasaigarririk onenak, bidazti jakintsuak astoaren hirugarren uzkerrean hilko zela iragarri zion astodunari ere epea laster agortu zitzaion moduan. Gizarajoak igarri zuen astoa ez zuela gainkargatu behar, baina talentuak ez zion eman aldasgorak ekidin behar zituenik. Edo ezin izango zuen, etxea gorago bazegoen. Ez zen kontua, heriotza soil bategatik, berea bazen ere, etxe berriginan hastea, dena okupaturik zegoen ibarbeheran. Gauza jakina da uzki biribiletik pakete errektangularrei jaregiten dien ekido mirakulos horrek ez dakiela aldasgorak errespetuz igotzen, ez elizan isilik egoten, behin, asto bat lehen eguberrian bereter izanaz oroiturik, aldare nagusiraino igo eta arrantza inpreziso hau egin zuen Balaanek bezala: *Abadeak eta serorak... danak, daaanak, daaaanak... eta gainera... sarri, sarri, sarri...* Nire inguruan dabilen asto pare señoritak adi-adi begiratzen dit, horrelako berriak non jaso ditudan ezin kalkulatu.

Hagak apaletik apalera botatzea amaitu denerako (urkuluak gero joango naiz jartzen, hartzen duten pisuaren arabera), eguzkiko eguerdia gainditua da, erlojuekin fidatzen ez zirenen terminologiara berregokitzen hasteko, oraindik martxan dabilen pilak gastatu aurretik. Teknologia suntsitzaileak ez baitzuen bakerik izan, kuerdazko mekanika xarmagarriak eliminatu arte. Etxean erloju bakarra zegoenean, ordu exaktoa genekien, erratua bazen ere. Minutu-orratza eta ordu-orratza (orduaz ez zegoen segundo-orratzik) marraskilotxoak bezalakoak ziren, handia txikiagoari gaineratuz elkar pasatzen zutenak, nahiz eta beti ordena berean. Gero, hainbeste erlojugaz, ez zen harriztekoa betiko eguzkira itzuli nahi izatea, batez ere, halako ordu eta abiaduretan, non auto baino katu gehiago gurutzatzen zaizun, baldin, katurik ere ez agertzean, autoren bat ager dakizun nahi ez baduzu. Badaezpada, erdiko marra lodia erdi-erdian harturik zoaz,

zakil amaigabe baten gainean bezala. Tunel bat begiztatu duzu, non zakila hondoraino doan, eta zu atzetik, paparra hanpaturik. *Banajoak, banajoak! Kabituko ete nok bertan?* Orro munstros bat egin eta, tunela luze samarra eta argi urrikoa denez, zakilaren gainetik ahoa betean irten zara, ploff, efe bigaz, finis futilis. *Azkenean zeozer egin joagu.* Erloju geldiak berdin balio zuen apaingarriztat. *Ordurik badozu?* galdetu zizunari *hiri zer ardura deua?* erantzun zenionak azken pentsatuko zuena zen erlojua geldi zeneukala. Telefonoa da faltarik handiena egiten didana, berak jo eta joz, eta nik ez hartuz, goza dezadan deitzaile gogaikarriaren inpotentziaz; bakardadearen edertasun kontzienteaz. Nahi denaz ezin disponitu, ordea, aurrerapena osoan hartu edo osoan utzi behar izateko moduan pentsatu baitzuten.

Lehenengo urdaiazpia atzodanik jaitsia da sukaldera. Bazkari-lege gozatsua. Aizto nagusiagaz ebakitako ezpalei botila-erdi batek lagundu die, ondo neurturik, badaezpada, ondorengo lan ez gutxiago gozatsuari indar eta kontzientzia maila egokian ekiteko. Errioxa, Baigorri, Xerez, Bakio, Borgonia, Toscana, Riveiro... denak etxeko, internazionalismo dibinoa, ardo zerutarra barne. Ez dago biagorik.

Bigarren urdaiazpia (gustura nire bizkarrean, zerria!) badoa ganbarara, sagu alaiak katu ernegatuen atzetik (mmm?) korritzen duten museora. Aurpegi triangularreko felinoak ez zaizkit gustatzen. Lau dobleko izaran baturik (berriz ere gustura, zerria, gorpu jaso berria bezala), ia eskailerek eurek igotzen zaituzte, hain karga usain-giharrean. Ez naiz, goizean garbitzen hastean, hortzak euforiaz saltatzen zaizkiona bezain baikor jarriko, postizoak direla ahazturik; ezta postizoez, gauez edontzian beratzen utzirik, dantzan jarraitzen zutela sinesteko bezain ilusoa ere, hotzez dardarka zeudenean.

Hirugarren urdaiazpia. Baikortasuna maiz aldarrikatzen bada (*baikorra naz, baikor gagoz, baikorra izan behar da*), kausa jo dezakezu galdutzat. Baikorra al zara? Ez. Ezkorra al zara? Ez. Orduan zer zara? Ez baikorra, ez ezkorra. Sinestuna al zara? Ez. Sinesgabea al zara? Ez. Orduan zer zara? Ez sinestuna, ez sinesgabea. Sinetsi nahi nuke... adibidez, gizateriak bazuela beste irtenbide bat. 'Sinetsi nahi'. Ederra konfiantza, sinestea nahimen egintza bihurtu bada. Elizpeko posteei eutsiz-eutsiz doan agure ilara legez, non atzekoek ere gauza bera egiten duten, aurrekoen lanaz fidatzeke.

Laugarren urdaiazpia. Ez da botila erdiaren kontua. Auzia da botilan zegoenak zergatik ez darraien berdin urdailean. Hots, nire baitan hain alai jartzen den zukuaren landarea zergatik den hain tristea. Gure aitak, tabernatik etxeraldi batean, mahastia eliminatzea erabaki zuen. Nire haurtzaroko nahigaberik handienetarikoa; artean ardorik probatzeke nengoen. Egon ere non zegoen, ba? Gure mahasti uharrean ez. Nire oroimenari haurtzaroa bakarrik gogoratzea interesatzen zaiola dirudi. Bing-bang txiki etengabe espantsibo hartara itzulerak ez ote nau, azkenean, bertatik irten ezin izateraino zurrupatuko?

Bosgarren urdaiazpia. Eskailburua lasaiago hartu dut ezkerreantz duela astebete baino, noiz, gauez autoan, erreka gaineko bihurgunean, zapatila zuriska bat errepede erdian ikusi eta, katua zelakoan, gurpilen erditik gainpasatzera joanik, andre bat akabatu nuen. Gajoari neuk ez beste guztiek alde egitea ondo etorri zaio, post mortem epaiketa ere galdu egingo baitzukeen, liternarik ez eramatearren. Hargatik izango zen kalean oinez ozta-ozta zetorren atsotxoa ere gelditu egin zela, neuri begira-begira. Zertatik ezagutzen ninduen asmatu ezinik, albotik pasatu nintzaionean, haren irribarre zimeldua, aspaldi zimeldua!, neuretzat izan zela pentsatu nuen, ekiloreek bere pasaerari darraiotela uste duenak bezala. Edo, kontrako norabidean sartzen deskuidaturik, denak bere ospari agurka datozelakoan harrotzen denak bezala. Azkenean, atsotxoaren begirada finkoa beldurrarena

izan ei zen, zapalduko ote nuen. Ez nuke nahi, Daltonen kasuan bezala, besteen gogoan gaitz baten izentzat geratzerik, lehenago ahaztuko nauten abantailagatik ere.

Seigarren urdaiazpia. Zorionez, niretzat ez da jada besteen gogorik existitzen. Lehen ere ez dakit zergatik hainbeste motibatzen ninduen batere ardura ez zidatenen aldetik kontsideratua izateak. Libratu naiz, behingoz, inteligentziak zenbat eta absurdoagotzat aurkeztu, hainbat bere menperago lerratzen nintzen grinatik, zeinak behartzen ninduen, ulertezinki, neuk funtsean arbuiatzen nituenen losentxagatik lehiatzera. Grina absurdoen jabetzatik subjektuaren beraren absurdotasuna deduzitzen ez legoke zail, gauza bera ez balira, baina orduan biziraupen alegreak saihestu zizkidan ebidentziei ez naiz orain aurre egiten hasiko, biziraupena bera honen ziurgabe bihurtu zaidanean. Besteen gogorik existitzen ez bada, naizena naiz koherentzia absolutua. Bakarrik geratzen zait, nire geriza horma kontratan atzerago zetorrela, norbaitek jazartzen ninduelako huraxe bezalako turbazioa, gerizak hemen dabilzala sumatzen baitut. Heriotzari eusteko gertu nago. Haren tristura estremoak maizegi jo izan naularik halako antizipazio zehatzetan, hainbeste bider huts egin dut bere beldurrean, non beldur naiz ez ote naizen, azkenean, distrahiturik hilko. Hiletak hain nituen gaitzi, non pentsatzen ari nintzen neurera ere ez joatea. Azkenean, lortu egin behar dudala uste dut. Geriza galtzera, ostera, ezin naiz inola ere mentalizatu, harako apaizarena, ifernuan bere ordeztu geriza utzita deabrua engainatu zuenarena, jokaldi genialtzat atxiki bazitzaidan ere.

Zazpigarren urdaiazpia. Hemen gakoa bestea da. Ez al gara negarrez jaiotzen eta isilik hiltzen? Ez al genion aitari ostikoka egiten amaren sabeletik? *Maitasuna egingo neuskizu*, pentsatu ohi duzu, esan ere bai, inoiz, maitasunaren erakutsi goren bezala, hartarako oldarra besterik sentitzen ez duzunean. Desiotik hasteak, beharbada, maitasunera ginderamazke. *Zer sentitu zenduen lehenengo mosuan?* – *Ba, askoz gitxiago, lehenengoz horzkadan baino.* Zergatik ez didazue galdetzen nolakoa izan zen nire lehenengo masturbazioa? Edo ondorengo garbitzea, biligarro lumatu eta destripatu baten garbiketa ematen zuena?

Zortzigarren urdaiazpia.

- *Ezkontzaz kanpoko hartu-emonik?*
- *Lantzean kanpaitxo bat, jauna.*
- *Hil-kanpaia langoa?*
- *Hain luzea be ez, jauna.*
- *Ezer ostu edo?*
- *Neurea ez den edozer, jauna.*
- *Ederto! Errezatu Aitagure alegre bat, Semeari ezer kendu barik.*
- *Eta Espiritu Santua, jauna?*
- *Ez deuat aitatu, badaezpadan, amen.*

Lantzean kristau jator bat ere inguratzen zen, esaterako, konparazio sublimeegi bat erabiltzearen, palmondo-adarra bezala gaketzen hasia zen agure berdats hura. *Astebete ez da, galtzu bete-betea egin nebala*, jaurtikoz zuen dardoa, ezin zuenaren ordeztuaren ostentazioak entzuleen sentiera iraintzen zuelako ustearen zitez. Edo ordeztu bera ere egia zenik ezin sinesteak mingarriago egingo zigula jakitearen plazer erantsiz. Mendekuak buztinak adina forma har ditzake. Pastelgintzako emakume zuriz jantzetan, orgasmo pilo bat besterik ikusten ez duena bezalakoa.

Bederatzigarren urdaiazpia. Bai huskeriak gogoratzen zaizkidana! Oroimena, sarritan, txakurkume bat baita, etxerik ederrenetik predarik zirtzilenak atarian zabaltzen dituen, galtzerdi zikinak, zapata zahar ahaztuak, lehen gutunak... Aktoreak, txorta-eszena amaitzean: *Honek benetan*

egitea merezi leuken – Ni hauxe egiteagaitik egin nintzoan aktore. Moztu! Ez da igartzen amodioa ala epilepsia den. Ene ama! Ergelak ugaritzea komeni da, zentzudunen proportzio urriak gorputz apur bat hartu ahal dezan. Zu barik ezin dot bizi – Ba, hil zaitetz. Hilak hain dira maitagarriak! Baina, horretarako, hil egin behar. Heriotza, bizilagun maite hori. Ez nago ziur olerkaria heriotza alleluiatzen baino dohakabeago naizenik bizia madarikatzen. Biak dira atsegin handiak, noski, baina auzia ez baitago hainbeste handitasunean nola atseginean, heriotza goraiatzea ere atsegin dut, bizia madarikatzeko erarik direktoena delako, zera, halaber, bizia bizitzeko erarik beteenetarikoa den.

Hamargarren urdaiazpia. Segiogun bederatzigarrenari, behingoz gai alai batean barnatuak ginenez gero. Hiletetan, batzuk zenduaren garunak mihizkatzen, beste batzuk garrasika nekutsen, haren hezur irentsiak diafragman pitzatu balitzaizkie bezala. Oraindik ez zekiten hila nor zen. Inork ez baitaki heriotzari nola aurre egin. Onena, ahaztea, baina ez dizute uzten. Heriotzak ez ninduen hainbeste kezkatzen nola hiletara joan beharrak. Elkarte eta erakunde guztietatik ezabatzen ari nintzen, zerbaiteango kidetzak norbaiten hiletara huts egitea eragotz ez ziezadan. Banengoen inork ezagutzen ez ninduen parajera joateko ere. Eskerrak denek aurea hartu didaten ezabapenean.

– Hilagandik ihesi ala?

– Biziakandik, lagunzaharra, euren aurpegietako simulazino hilkorra ez ikustearren.

– Gustatuko al litxakik heure hilotzari inork ez laguntzea?

– Orain gustatzen ez jatanari apenas hildakoan gusturik hartuko deusadan.

Maite dut heriotzaz pentsatzea, baina ez hartaz mintzatzea. Pentsatzean, neure baitan daurkit. Mintzatzean, inoren aurpegian dakust, eta ikusteak aztoratu egiten nau.

– Baina etorriko jak!

– Ez da neure meritua izango.

– Inoiz, desiatu be egin dok.

– Bizien pribilegio bat dastatzearren.

– Ala desioa kemen bihurtzeko ezgaitasunarren, koldar hori?

– Etorriko da gaitasuna berez-berez. Nire kolaborazinoa behar badau, bildur naz kemen barik hilko ez ete nazen.

Hamargarren urdaiazpia. Bitartean ez al dut baten bat jan? *Bederatzigarrena erreplikatu dok.* Ah! Banengoen, ba, zerbait arraroa gertatzen zela. Hilerritik bueltan... *Bai lastima!* Heriotza ulertzea ez da zaila. Onartzea da zaila. Horrela, heriotzari buruzko ikuskerak hala dira ugariak, nola diren hura ulertu nahi ez izateko moduak. Bizia ulertzea ere ez da zaila. Harakina bazara, aitzokada bat da, bi eternitate banatzen dituena. Bi eternitateok bat egiterik ez dagoenez, une hartaraino bizi nahi nuke, non biziaren zentzu bakarra heriotza izatea laket nezan. Literatoa bazara, bizia parentesi bat izan daiteke, zeinetik kanpora testurik ez dagoen. Eztabaida bakarra parentesiaren luzeran dago. Gustatuko litzaidake heriotzari esatea: Kostatu zain ailegatzea!

Hamaikagarren urdaiazpia. Noiz arte jarraitu behar du honek? Errealitatea oroimenean dago ondoen. Hots, errealitatearen alderik ederrena oroimenaren objektu bilakatzea da, 'goazen bertara' deiari darraiodanean, beti defraudatu egiten bainau. Bidaia-lekuak, esaterako, gogoratzen ditut, haietariko bakoitzean bizi izateko pentsakizunak eragiten didan atzerakadaren arabera. Sen soil bat izango da, segurrenik, beti arrazoizkoa izan beharrik ez daukana. Esaterako, euritan, horma bazterrari atxikita joatea, nahiz eta haizeak bertarantz jo. Baina nik neure senagaz bizi behar dut, gorilak besoak zerurantz jasotzen dituenean bezala, gizakiak otoitzean ikasi baino askoz lehenagotik. Eskerrak ematen, gorilakumeek agure dekrepituak diruditelako?

Hamabigarren urdaiazpia. Oraindik inork ez dit esplikatu euliek zer onura ekologiko daukaten. Autoan larriak emanda, txiza egitea pentsatu duzun bazter paisajistikoan, guardia zibilaren kontrola aurkitzea bezala. *Geldi!* Hurrengoan: *Mugi!* Zuhaitzen geldi egon beharri pena harturik, giza izateaz pozten denak pentsatu beharko luke ba ote duten haiek mugitzeko gogorik. Ekar, bai, ekar! Guri gauza sanoak ere ez digu kalterik egiten. Ez naiz akaina bezalakoa, inoren odol gozoak azkenean bera lehertarazten duena.

Hamahirugarren urdaiazpia. Pentsamena objektu gabeko grina bat ei da. Kokaera gabeko hegada bat. Kokatzen bada, ez da txoria, zuhaitzaren parasittoa baizik. Elkarren ondoan hain xarmagarri ikusten ditugun izar dohatsuak, izatez, unibertso osoa bera bezain bakar daude. Bueltak eta bueltak eman arren, bere buruagaz nahikoa ez daukan kontzientziak ezin du zorionik pretenditu, bizkarrean urdaiazpi bat ez badarama. Behin hildakoan, atzazalak mozteaz beste zereginik ez dago. Niri horixe ere ez dit inork egingo.

Hamalagarren urdaiazpia. Iritsi naiz zenbaki magikora, ezin guztiak gainditzen dituen hamalagarren ahaleginera. Oraindik hasi besterik ez naiz egin, nahiz eta noiznahi akabatzeko zorion egon.

Hamabosgarren urdaiazpia. Hau da zero-sabaia jartzen ari dena, ez desertu elurtu hura bezalakoa. Zerua, desertua, elurra. Asoziazio zaila, noski, baina ez daukazu larritu beharrik, neuk ere behin bakarrik ikusi baitut.

Immentsitateaz hunkitzea izan daiteke, norbere txikitasunaz abailtzeko jarrera sintzeroaren azpian, immentsitate horren kontzientzia norbera izatearen harrotasuna ere. Sentipenetik sentipenerako separazioa, sarritan, egoeratik egoerarakoa bezain laburra izaten da, ekaitzaren muga blai zaudela, albotik eguzkiak argi-argi damaizunean bezala. Ilargiari zaunka dagion txakurra ez da gutxiago zentzudun hari begiratzen dion poeta baino. Goi haizegunean agertu zaizun elorri bakarti, lore txundigarriro eskergaz jantzia bezala, zeinagana hurbiltzean, plastiko zurizko hondakin arantzetan josiak aurkitzen dituzun, zertatik ateratzen den, sentimen poetikoari suposatzen zaion dezepzioaren gaineratik, plastikoa ez dela hain laidogarria; zertatik, halaber, atera behar den poesiak ez daukala egiagaz hainbesteko zerikusirik. Haitz horretatik bertatik, ez dakizu, hurrengo haitzean, sai inperial haiek horizonteaz harago ala honago ezkututzen diren. Maite dut haitza, baina ez dut nahi haren ezin mugitzerainoko gotortasunik. Maite dut haizea, baina ez dut nahi haren ezin gelditzerainoko arintasunik. Zorionez, bada bitarteko elementu perfektu bat, neure burua, baina ez nago ziur maite dudana.

Hamaseigarren urdaiazpia, hamazazpi, hogeita bat, hogeita hamaika, berrogeita hamalau, hirurogeita... hamahiru, azkenean, zazpi lerrotan eskegiak. Bakoitzak, batez beste, hamar bat egun iraunez gero, pare bat urterako bizia badaukat. Pare bat urte! Zer izango ote naiz ordurako? Beste zazpi haga gelditzen dira, solomoak, lukainkak, sahieskiak, urdaiak, zezinak, bakailaoak eta gainerakoak eskegitzeko. Astiro, presarik gabe, izertzan dihardut, lantzean zigarrotxo bat errez ganbarako balkoitik haranerantz, indarge datozen orroei azken ona desiatuz, laburra, alegia. Eguzkia beti bezala jausi da auzo gaineko pinadi oster, ez *'bahago?'*, ez *'bahabil?'* galdetzeke, zertatik suposatzen den bihar ere etorriko dela. Gaur baino gutxiago berotuko balu, hots, behingoagatik ez etortzeko adeirik ezean, hodeipean pasatuko balitz, eskertuko nioke koiuntura partzialki heriokor honek argiztapen konkordanteagoa izan dezan. Animalien intimitateari jarraituz, ez dut neure azkena eguzkitan ikusten.

Denak ez dira hiltzeko prestatzen ari. Artaldetxo bat errepidea betean dator, urduri, zoko guztiak probatuz, bizkor. Probatu guran baino gehiago, gidatuak ez izatera eta inork biderik ez

moztera ezin adaptatuz. Dutxa fresko bat harturik (ura txapatik bero nezakeen, baina suginan hasteko baino informalago nabil), beste botila erdi bat ardogaz, solomotik eta zezinetik nahikoa afaldu dudanerako, ilargi hiru-laurdena badator Elgeta mendien gainetik, bere argitasun isilki ostua emankor zabalduz. Oiz mendiko basaran likorezko basoerdi bategaz itxaroten diot, etxe aurreko terrazan, behin paseada mantxoan, behin aulki etzangarrian. Ilargia da hilezkortasuna gehien sentiarazten didana, ezin baitut kontzibitu inoiz pasatu ahal dadin, neuk begiratu gabe. Bere denbora ere noizbait agortuko dela diotenean, ez dit hainbeste ardura, neure begiradarik ere ezin baitut ilargi gabe kontzibitu; ahal dela, ostarreetan hori ere, apoaren kantu genialez, eta ar-emeak direla suposatu behar den bi saguzarren eboluzioetan. Eguzkiak ez dit sentsazio hori eragiten, eta ez dut uste zuzen begiratu ezinagatik denik. Soilik, astro erregeak ez nau pentsarazten, ilargiak bezala. Izarren eta mendien gelditasunak arrotzegi zaidan eternitatea iradokitzen didate, ez hilezkortasuna. Horretarako, mugitu egin behar da. Itsasoa mugitzen da, baina ez da hori ere. Joan eta etorri egin behar du, baina ez da hori bakarrik. Txikitu eta handitu egin behar du, baina gehiago behar da. Eskuragaitz izan behar du. Iristen dira bertara (ilargira), baina sonanbulu gisan, eta arin itzultzeko, amaituko ote zaien beldurrez. Ilargia da gau inperiferikoaren radioskopia maitemindua. Beharbada, hau guztia sentiberatasun exzepzional baten emozioa besterik ez da izango, hilezkortasunagaz erratu dudana, baina lehendik ere badakit zer den bizitzea egia solteei batasuna ematen dieten erroreerri esker.

Bihar beste egun bat, gaur, alegia. Eguzkia bakar-bakarrik dator, batzuetan hain gogaikarri jartzen diren hodeiak gabe. Gaur latak eta enbaseak tokatzen dira. Behera jaitziko ditut, despentsan kabitzen ez direnak ukuiluan egokituz. Haga eta urkulu beharrik ez dago, baina bai lan luzea, kurioso eta ordenan egin beharrekoa. Egingo da hori ere. Egina da. Bihar beste egun bat, gaur, alegia. Deskarga lanak amaiturik, egun atsedentsua daukat, haize-aldak ozenago eta urrunagotik dakartzan hil-orroek zauritua; desesperatuago bada ere, bakantzen doaz. Ate-lehioak itxi eta inkomunikatzea besterik ez daukat. *Bakartasuna inkomunikatu. Hau be badok, ba, premina modua!* Heriok emergentziazko eginkizun hori ondo errematatu arte. Hainbeste eskari atenditu beharrak ez da harritzekoa amaiera totala atzeratzea. Etxea egurasteko, leihoak ireki eta urrumarik entzuten dudanean, *Maitia, nun zira* kantatzen dut zintzurra betean; edo trikitia jotzen, beste porrot-sentipen bat gehiago biltzeko ikasi nuen apurrari itxura guztia desarmatuz, baina, behingoz, helburu on baterako efektiboa delako pozean. Urrumak urragarriago egiten zaizkit, haragoko mundu borobileko berdinen ordezkartaz kargatuta imaginatzerik ezin saihestuz, baina heriotza, batzuetan, altisonoa bada, neuk ere badakit zarata egiten.

– *Emon auspoari, Kornel, kanpoa arnasa barik utzi arte!* –Tirakada apasionatu batean, soinua erditik eten da.

– *Ederra egin dok!*

– *Baita handia be. Mundua erdibitu!*

.....

Ez daroat konturik zenbat egun izango diren igaroak (neu honen lasai, ia soraio; zer egingo dut, ba?), gaztetan hain kontzeptu zauzkagarri egin zitzaidan eskatologia abiatu zela esango nukeenetik, baina, goizalde batez, gauaren erdian itzarturik, artean ez lo-zahar, sudurra bere kontura usnaka atzeman dut, txakurrek, batzuetan, tentel-putzei ematen dieten moduan, aire inkonkreturantz. Neure kautaratu naizenean, usain arraro bat hartzen dut, lehenengotan, autobus geltokian, dispertsio diskretu samar bat daragian ‘isil eskandaloso’ bat izan ote den pentsatu dudana. Inozente plantan atzerantz begiratu duenari: *Zer? Ikusi egingo dozula uste al dozu?* esateko gogoia ematen duten horietarikoa, baina ez dauka nik bart jandako ezeren antzik. Ustel kiratsa esango nuke, erdi lotan naizela, beste amets unifikatzaile batean bezala erreparatzen ari naizen

fragmentu ugari eta inkonexoetan ere ez baitut aurkitzen elementurik, hura beronen eragile izateko modukorik.

Bat-batean, okerreana pentsatu dut, ezaguera osora iristeango gehienetan bezala. Balkoirako ate orri-bikoitza itxi dut, gauez etxea freskatzeko zabalik utziak nituen beste ate-leiho guztiak bezala. Berriro ohean, kirats sentsazioak berdin dirauela nabari dut, itxiera zenbat eta hermetikoagoak usaina, argiaz edo soinuaz bestera, eliminatu beharrean, hainbatago handi baitezake, batez ere, aprentsioak sakatzen badio. Beldur naiz, oraingoan, zerbait objektiboa ez ote den, duela hamar urteko behoka hura gogoratu baitzait. Igande eguerdi batez, andrearenean bazkaltzeko ohiturari jarraituz, etxetik alde egiten genuen guztietan bezala, poneyak lekuan zebiltzan konprobatu nahi izan nuenean, aita-amen inguruan umea falta zen. Jaitsi nintzen, eremua zeharkatu nuen, deitzen nion alferrik, eta, azkenean, barreneko urritzia trabeskatzen zuen pistan luze aurkitu nuen, eulitzarren kongresu bihurtzen hasia. Penaren handia zen bata, eta lanaren izorrapen desatsegina bestea. Bero ikaragarria egiten zuen, abere gaizoa ere hartatik hil zena, segurrenik. Aitzakia arrazoizko guztiek batera eraso zidaten. *Iluntzean egingo dok. Hobe bihar goizeko freskuran. Orain zelan hasiko haz lan basati horretan, heu berton akabatzeke? Bizteko balitz be. Hau bazkალაurre modua!* Atzeratzeak ez zuen lanik erraztuko, bai kakaztuko, literalki, zeren, tripa puztu ahala, hankak luzatzen eta teinkatzen zihoan gorpu hura lehertzen bazen –eguna amaitzerako, ziur hori ere–, gero nork lan egingo zuen haren inguruan? Gorantz eta alborantz begiraturik, adar kirrizkariak eta hosto zimelduek aho batez zioten, ia mendeku airean: *Inor ez jak etorriko. Heuk egin beharko dok.* Alternatiba guztiak berehala ekitea baino askoz txarragoak zirela ikusirik (laguntza bila hastea, alferreko ez bazen, lotsagarri gerta zitekeen: *Animalia bat ehorzteko be ez al haz gauza?*), familia bidali, arropak aldatu eta zuloginan hasi behar zen. Ez zen nolana hiko zuloa behar, poneyena baino gehiago, behor normalen ume hazia baitzen. Zabalduz zihoan zuloa nahikoa izango ote zen gehiegitan kalkulatzeko nuen, lanak arin amaitu guran, baina jarraitu beharra zegoen, seguru aurkitu arte, zeren, gorpua aprobarako zuloratu eta gero, nahikoa ez bazen, nola atera behar nuen fardel larri garri hura neuk bakarrik, abere ustel-hurren bati hain estuki heldu beharrak emango zidan higuinagaz?

Zulo txikiagoa eginik libratzeko modu bakarra hankak moztea zen. Hauek beherantz zirela, gehien okertuta ere, ez ziren ondo tolestuko, gorputza zentimetro mordo gorago gelditurik. Tripaz gora ehortzita, berriz, hanka-muturrak gorantz irtengo ziren. Txakurrek edo sarraskijaleek, azterka edo tiraka, lorrin higuin garria preparatuko zuten zutenez gainera, ez dago oin batzuk lurrazaletik kanporatzen ikustea baino irudi urragarriagorik. Zuloa sakontzen desesperaturik nenbilen arren, hankak mozteko adorerik ez nuen izan, gorpu barruan preso geldituriko indignazioaren bat, kanporantz oldartzeko, sakailadura baten zain egon baledi ere. Giza eskuak sakrifikatoriko animalietan, badirudi hasierako krimenak, biziraun-premiak santifikaturik, arabera jarraipena eskatzen duela era naturalean, larrutzea eta zatitzea artisautzaren duintasunera iristeraino. Berez hildako animaliek, ostera, atzerakada mutua daragite, biziaren potentzialari ezkutuan eutsiz, jaukitzen dizutenean: *Hator orain, gauza bahaz! Hator orain, bizirik ginela, bortxaz edo engainuz, gu hiltzeko erreparorik ez heunkan hori!* Gizakietan ere, jaun horietariko bat, zeinari toreroak zezenari dagiona aplikatu ahal izateak gehiago nasaitu izango nindukeen, bere marfilezko mahaiaren berez hilda aurkituko banu, ez dut uste zapata puntaz ostikoan ukitzen ausartuko nintzatekeenik, esateko: *To! Berandutxo heldu haz merezi heuen posizina!*

Zuloa amaitutzat emanik, gure behoka maitea bertara arrastatzea uste baino errazagoa izan da, nahiz eta, zulo-estaltzea ia berdinduta ere, beldur nintzena gertatzen ari den: hanka-muturrak behin eta berriro bistaratzen, bizian aberearen pisu guztia umil-umil eroan zuten apatxek nire begiei amesgaitzen gerra deklaratu bailieten. Harriekin alboetara sakan, gaina apur bat tontorturik, azalegi geratu ez ote den kezka, noizbait ezkutatu da maldiziozko bisioan gelditzen tematu zena. Lan

bukatuak nekea eta bero sapa arindurik, lurra bizkor eta airoso zapaltzen dut, arrebatatu zaien oturuntza nire berna izerditsuetan mendekatu nahi duten euli ernegatuak uxatuz, eta hain karga larritik libratu izanaren dantza burutuz. Zer ote dauka lurrak, gu beragaz eginak izate dudazkoaz gainera, bere arra beteko geruza bat nahikoa izan dadin, edozein izumenen gainean gu masalki etzateko, lokartzeko –oraintxe egingo nukeena, beroagatik ez balitz– eta prakarik zirintzeke itzartzeko? Zer ote zeukan behoka eme hark, handik hamar urtera kirats lauso honegaz lot nezan, lehertu aurretik ehortzi bainuen gajoa, ustelkuntza erakusteko astirik eman gabe? Herioren ikuspena gain hartzailea da, antza, bizi-gailurak ere ezabatzen dituena, deskonposizioaren antizipazio mentalagatik, segurrenik, zeinaren bizipen osoa usainak bakarrik eman dezakeen. Ahalegin mingotsa egin behar dut okada-zorian lurperatzea egokitu zitzaidan moxal zuri ‘Tximist’ deitu hura gogoratzeko, ama baino hankaluzeago jaio zena bera, ‘Gorritxo’ poney gotor baina koxkorraren aitatasuna dudan jarraraziz. Belarriko zenbakia markatzeko immobilizatu nahi izan genuen batez, hesia jauzi olinpikoan gainditurik, airean joan zena. Eskura lau-hankan eta irrintzika etorriarik, bizkarrean ukituz batera, atzea puztarka bueltatzen zizuna. Zuhaitz hostoak ahuntzen sistema tentean harrapatzen ikasi zuena. Esnea moztua izateko adinean, ama bortxaz edoskitzen jarraitu zuena, hil arte. Ez zait gustatzen ezein hilotz ikusterik, azken irudi huraxe nagusitzen baitzait bizitzako oroitzapen balios guztien gainetik, petrolio orbanak itsasertza inbaditzean bezala.

Bizi baten bi muturrak ikus banitza, bitarte guztia ezerezean geldituko litzaidakeela uste dut, nahiz eta jaiotzaren kasua ez den heriotzarena bezain zehatza eta bereiztua. Jaiotzan, haurraz gainera, ama ere hantxe dago, aita ere egon daiteke, medikua, emagina, erizainak, tresnak, aparatuak, barbaroa, eupadak, negarrak, garraisiak... Egintza indibiduala baino gehiago dirudi konkurrentzia ferial bat, santuen parte-hartzearen arabera, auto sakramentala ere izan daitekeena, non haurra bera, likidotan eta mintzetan itotzear, kasik ezagutezin datorren, erditzailea bera ere trukatzeko diskreto batek aise engainatzeko moduan. Ez da harritzekoa, garbitasun guztiak eginda ere, munstro txiki bat izaten baitarrai. Edo handia, iguanakumeekin konparatuz gero. Biziak fedegintza handia eskatzen du, jaioberriak espezie-itxura zuzena har dezan, zorionez, laster gertatzen dena... gehienetan.

Oraindik kiratsik ez zerion behoka gaizoa arin ezkutatu nahi nuen, ehorzketa guztian estutzen ninduen oroitzapen benetan kirastun bat errepika ez zedin. ‘Marda’ izeneko behi belzkara bati egin ahaleko lasterrak eragiten aurkitu nintzen, izeba baten larritasunak deiturik. Abere haizatua lehertzear zen. Osaba eta gure aita urrun ziren, lanean. Anaia zaharra ere falta zen. Auzoan ez zegoen beste prakadunik neu baino, hamabost urteko ikasletxo. Albaitariari deitzerik ez zen burutik pasatzen, etortzea onartzeko kasuan, egun erdi beharko baitzen haren bila jaitsi eta gure mendiraino ekartzen. Abere errukarria saiitzen zen obeditzen, aldagora erripeetan, batez ere, huraxe ei baitzen haizeak atzetik askatzeko sistemarik efektiboena, baina, arindu beharrean, puzten eta puzten ari zen erremedio gabe. *Honela libratzen ez bada, tripa zulutuko deusagu*, lasaitzen nuen izeba mentalki, ez bainengoen segur agindua betetzeko kemenik izango nuen. Behi hura interbentzio baliente bategaz salbatzeak gizentasun mundutarrean finkatuko ninduen, zertatik guztiz eskusaturik nengoen, apaizgaia nintzelako. Horrexek libratzen ninduen, porrot kasuan, lotsaritik edo erantzukizunetik, inori ez baitziztaion otuko, Jainkoarren, aldarerako prestatzen ari zen mutilari barrabiltasun profanoa eskatzerik. Arrakasta kasuan, prestigio itzelak inguratuko ninduen, neskatoen artean, batez ere, hain esplizituki pentsatzen ausartzen ez banintzen ere. Ikus zezatela –oraindik dena finean hartzen nuen– zeregin espiritualera ez ginela entregatzen biriltasunik ezagatik –hau ez nekien garbi zer zen–, horren ukoak –hau ere ez, beraz– miragarriago egiten gintuen gogo-handitasunagatik baizik.

Pentsakizun argiak bainoago sentipen lanbroak ziren hauek ez zuten behi errukarria despuzterik lortzen. Geroz hatsantuago eta astiroago zerraien, eta nire sentimen oraindik tolesgabea

gehiegi mintzen zen sufrimendu guztiz alferreko baten eragile izateaz, behi baten galera handiegia ez balitz, azken posibilitateraino ez saiatzeko. Azken hori jakina eta azkarra izango zen. Behia etzan zen, gehiago ez mugitzeko. *Oraintxe dok eztena tripatik sartzeko unea*, pentsatuz indartu nahi nuen neure burua. Baina eztenkada hura hilgarri gertatzen bazen, bestela salbatu izan zitekeelako presuntzioa betiko airean gelditurik? Bazen, izan ere, uste bat, behi haizatu, besterik ezinean, tripa zulatuz salbatzen zela. Uste horren zuzena egiaztatzen ez nintzen inoiz saiatu, misterio batzuek euren hartan jarraitzearen xarmagatik edo. Alderantziak ere poztu ohi nau, noski, hots egiten dudanean: *Noizbait be! Argitu dok misterioa!* Azkenean, ez dut jakiten zer zaidan atseginago, misterio gordea ala argitua. Behi haizatuena, behintzat, hartan geratu zen eta, behin honezkero, zail izango dut inorekin erabakitzen.

Auhen erdiragarriek nabarmenduriko ikuspen indignante hura (zer esan behar duzu hain abere errugabe bezain beharrezko baten bizia hain era ankerrean utzarazten zuenaz?) gerrako zanga-une batean amaitu zen, globo hankaduna zirudien behia, erroak puntu tentso batzuk besterik ez ziruditena, hankaz gora eta buruz albora gelditu zenean, begi more-iluna zabal-zabalik, harainditik honantz, beldurgarri baino ezagutezinago, beste begia lurraren kontra ezkutatua, lurreztatua, segurrenik. Hankak eta burua izugarri txikitu ziren, artean puzten zerraien globo larruzkoari geroago erantsiak bezala.

- *Orain zuloa egin beharko dogu* –esan nuen, egoerak erremedio barruan jarraitzen zuelako plantan.
- *Egingo jok osabak, iluntzean datorrenean* –erantzun zuen izebak, arteko dardara negarberatik heriotza ziurrak uzten duen zurruntasunera aldaturik.
- *Lehertuko da, eta hainbeste ordutan, txakurrek sarraskia egingo dabe.*
- *Zer egin gura dok?*
- *Sabela zulatu.*
- *Egik gura doana.*

Etxetik eztena ekarri eta, gezurra dirudiena, bizian egiteko barrurik izan ez nuena hilean sartu nion, aipatu ustearen parte bat era postumoan baitesteko edo. Balentria izan al zen? Globoa sifoi amorratuki ozenean hertu zen. Bafada biolentoak atzera jaurti ninduen. Behia albo-jarrera atsedengarrira saihestu zen. Hankak eta burua euren tamaina normalera itzuli ziren. Begiak zabal-zabalik jarraitu zuen, oraingoan, neu bertan nengoen eternitate galdurantz.

Kirats hura bortitzegia, berdotzegia zen, balkoiko atea itxita ere, hartzen darraidan usain ahopats antzeko honegaz bat egiteko. Beste hura izan behar du, hots, handik ia mende erdira, haurtzaroko eta gaztaroko inguru basatuak eta bide zarratuak berribiltzen menturatu nintzenekoa. Abentura apurgarria bera, errealitate oroituak ezin baitzuen errenditu aurkituz zihoan errealitate bortxatira. Segi eta segi setatian, sasitza prepotenteak tope iraingarria ezartzen zuen soilune batean, gorotz-multzo izugarria agertu zen, eskeleto baten hezur-mota kasik banatu gabe guztiekin inguratua. Inoiz ikusi gabea nuen fenomeno hura ulertu guran, zaldi-hezurak zirela ezagutzetik hasi nintzen, baina halako kaka-pilorik egiteko zaldirik ez beste animaliarik ez nuen gure lurraldeetan ezagutu. *Oh! Hau bertan hildako zaldia dok.* Saiek lan ezin kuriosoagoa egin bide zuten urdaileko edukia oso-osorik bertan uzteko, bat ere zabaldu gabe. Kirats arraro bat hartu nuen, hezur garbi haiei eta multzo aspalditik lehortu hari esleitzerik ez zegoena. Behi haizatuaz gogoratu nintzen. Ikuspen presentearen eta higuin ahaztuaren nahastetik harako kiratsa zen nabari nuena, oraintxe ere, balkoiko eta etxeko ate-leiho guztiak itxita, nabaritzen darraidan berbera. Kirats zantzu honen etorburua eta bolumen posiblea asmatzen saiatzen naiz, neure oroimenaren zernahimen antzemangaitzaz txunditzen naizen bitartean, zeinak, batzuetan, gertaeren segida exaktoari alderantziz darraion, joanean txiza egindako une guztiak usnatuz itzultzen den txakur eskrupuloso bezala. Beste batzuetan, kateadura oroz gaindi, jauzi abismalak egiten ditu, oroitzapen estremoak

asoziatuz. Batzuetan, halako errespetu kronologikoz dihardu. Gehienetan, gertaerak errenkada balizkoetan ordenatzen ditu, kreazio ineditoetan, konputagailu zoratuaren antzera, hain halako sentipen mamuzgarria ezartzeraino ezen, hain zuzen, bera (oroimena) osagai nagusi duen kontzientzia ahalmen arbitrario baten dependentzia besterik ez den; ez naizen.

Etxe honen kotatik gorantz, mendiaren hegi honetan, behintzat, ez dago animalia loturik ez barruturik. Gure erreka-arroan beherantz, eremu askatuaz harago, Lupiola baserriaren posizioa da hurbilena eta artezena, Gangoiti tontorraren malda ostean. Bertan, oilategia eta untxitegia zeudela uste dut, baita ganadua ere zerbait. Hangoxea izan daiteke. Beherago, erreka ibarrean zehar abiatzen den barrenean, Gasparrene, Axola, Salturri eta beste etxaldeak sailean doaz, haranerantz. Haietako kiratsik ez daiteke altuera honetaraino iritsi, indar aipagarritz, behintzat. Alboetara ere, beste arroak urrun eta aparteegi daude, ezer honaino helarazteko. Gure etxearen azpialde sakonean, Subetzako baserri bikoitzean, bazterren bat miatu gabe utzi ote nuen, hainbeste ukuiluren artean? Ez daiteke. Aurreko egunetan, orroak argi entzun behar nituen. Neure gogo aieruti eta zeren mende den ez dakienaren moldaketa izan behar du, oroimenak une larrietan kontentzio gabe jariatzen duen material zernahitiak zorabiatu.

Dagidan lo, gelara sartua dela uste dudana usaina, oraindik kiratsa denik esan ezin dena, garunetan instalatu aurretik, gerraosteko ezaldian gosea burura pasatu zitzaizuen antzera, zeintzuek gero, baialdian ere, larruak hartu ahalean ase arren, ezingo zioten goseari alde egin. Sarritan, goseterik zuzenki bizi gabeen ere transmititzen zaiela uste dut patologia, zama kasik genetiko gisan. Hainbesteko finkapenak denbora luzea behar ei du, baina zein gizaldi libratu da, gerrako ez bada, gerraurreko edo gerraosteko izatetik? Gosearena bezalakotzat jo beharko dugu agure berdotzena, hauen kasuan, zantarkeria partikularrak ere asko joka lezake baina. Nire kasuan, eskolara hasi nintzenetik, komentu, txerritegi, seminario, eliza, espetxe, txizakale, kuartel, putetxe, komisaldegia, telebista-plato, lantegi kimiko, txapapote, polizia-gas, zinema-uzker, mozkor-arnasa, porro-zulo eta gainerako, usaimenean naizela bulnerableena uste dut. Zerbait zentzumenetatik garunetara pasatu bazaizu (zentzumenak euren harrapakina horrax bidaltzeko daude), ez du balio esateak:

- *Ez egin jaramonik buruaren esanari* –kontraerasoko baitizute:
- *Hori zelan egiten dok?*
- *Albora begiratuta.*
- *Halan be, ezin bada?*
- *Orduan moztu (burua) eta aurrera.* –Era bigunago eta lagunkorragoan esan nahi ez badiozu: –
Ken burutxo hori tratatik.

Zaila hori ere, giza buruak, gehienetan, jenio bikoitz konplementarioa izaten baitu, traban ez dagoenean, behar den lekuan falta izatekoa. Bi aukera horien bitartekoa ere bazen gure diktadura maitean (iragan oro beti hobea izan bada, hark onena behar zuen), predikatu nuenean:

- *Batzuek burua adornutzat darabileela dirudi.*
- *Gitxi al deritzo berorrek?* –kargu hartu zidan kristau batek irteeran.
- *Hori elizan esan behar zenuen, Katxin* –arrazoi eman nion.
- *Inork ez entzuteko lekuan?*
- *Zeuk majo entzun dozu, ba.*
- *Deskuidoan izan da. Zorren errebasoan niharduen, eta adornu kontu horrek distrahitu egin nau.*
- *Zorra adornu bistosoa delako?*
- *Handia denean bai. Nireak txikiak dira, baina asko, elizari deusadazen batzuk barne.*
- *Eta nik kontaduria distrahitu!*

- *Ez deutso ardura. Etorriko dira domeka barriak. Ordaintzeko asmorik ez dagoen zorrak kontatzeko, inoiz ez da berandu.*
- *Baneban susmoa herri honetan alperrik nebilela sermoiganan.*
- *Total alperrik be ez, lo be nonon egin behar da eta.*
- *Etxean ez dozu egiten ala?*
- *Ez elizan bezain gustura.*

Hurrengo igandean ez zuten lorik egingo, predikatzen nuenean:

- *Herodesek, Bataiatzailearen burua azpilean ikustean, orro egin eban: “Hau ez dok nik agindu dodana! Nik buru bizia eskatu joat”.*
- *Baina, Jauna! Burua zelan ekarriko genduen bizirik?*
- *Bizirik eta egosita!*
- *Honena jada eginda dago, Jauna.*
- *Ba, topatu beste bat!*

Eliztar inkondizional batek (diktadurarik perfektuenetan ere, beti izaten da aldrebesen bat) txibatazioa pasatu zuen ezen sermoia erregimenaren alegoria kalkulatu izan zela. Burua adornatzen baino gehiago zeukala frogatu zuen, agintari txit zuzenek interpretazio haren oinarriaz galdeturik, erantzun zuenean: *Elizakada guztiak adi-adi entzun dau. Hori erregimenaren kontrako zerbait denean bakarrik gertatzen da.*

Buru bat nekusen, dakusket, dakust, padurako lokatz maila lepoan duela; okotza, buelta guztian, doi-doi biratzen duela. Ez dakit barrurantz doan ala gorantz datorren. Barrurantz doa, bai, kondentatuen irlatik ihes eginik. Jazarleak gainean ditu. Pentsakizun mota hauek asko laguntzen didate lokartzen. Gaur ere halaxe izango dela dirudi, arrazonamenduak hasi zaizkit huts egiten eta. Beltzentzat ubeldura atenuantea bada, non egiten ote zaie beltzunea? Zuriei kostatzen zaie hori ulertzea. Ez gutxiago haiei umore beltzarena. Zubia baino barku handiagoa eginez gero, ez dago irtenbiderik. Hori artearen abangoardia zen Italian gertatzeak esan nahi du psikologoak herri pobreetan eta zientzialariak herri aberatsetan banatzeak ez duela beti emaitza zuzenki proportzionalik eragiten. Auto atoitua, garabiaren lentotasunaz gogaiturik, aurreratzen hastea bezala. Zertara dator konparazio hau, umezaro guztia kortxo ganorazko bat ikusteke igaro banuen? Intxaur batzea lan gogaikarria izango zatekeen, aititak esan ez balit: *Zehatz-zehatz batzen badozak, halako izango dok sari.* Ez zen nire ahalegin faltaz, baina aititak beti aurkitzen zuen atzetik aleren bat. Sari promesak handitzen ziren, lurra hatzez hatz arakatzen nuen, eta aititak nire arrakasta ustez definitiboa beti zapuzten zuen, intxaur ale bat erakutsiz, zioela: *Eta hau zer? Hau non egon dok?* Neu ere temoso (*hurrengo bueltan ez dozu topatuko, ba!*), halako batean, ale batek ez nau, ba, buruan jotzen! Orduantxe konturatu nintzen intxaurreak zehatz batu ezinaren gakoaz, lantzean batek jausten jarraitzen baitzuen. Barrabana! Newtonen kasuaren antzekoa, zeina sagarrak buruan jo ez balu (edo jo eta bertan akabatu balu), nork jakin zientzia norantz garatuko zatekeen.

- *Norantz? Zientzian be norabideak al dagoz?*
- *Ez jakiat. Suposatzen joat zientzia ez dela izango Uharte-Arakilgo astoa bezain zurruna, Aralartik beti bide berberetik jaisten zena.*
- *Ba, bide haxe izan zen gero Aldundiko ingeniariak trazaturik onen gisan onartu ebena.*

Zoru ikerketatik libratzeak aurretzen zien aurrekontu atala poltsikoratzea bapo ospatu ei zuten ardo gorri nafarragaz. Nire kasuan, izorranteena da ez dudala paitarra animatzeko edaten, animoso nagoenean baizik.

Goizean, garbi-lanak premiak eskatu baino hobeto eginik, kuxidadearen zentzua inoren trabarik ezak zorrozuko balu bezala, atarte aurreko terrazan atzera-aurrera nabil, etxeko ateak ondo itxita, badaezpada, goizaldean iratzarri nauen usain-kiratsen indefinizioa zehazkiago atxiki guran. Lehenik, besoak eta zangoak bataila ustegabeetarako laxotu bitartean, gogoari ariketa distraktibo guztiak egiten uzten diot, kaiolatik jaregindako txakurrak, hemen hanka jaso, hor usna, han tronu-jarrera, askatasunaren introdukzioa azkar eta osorik burutzen duen antzera. Nire gogoaren kasuan, oraingo usain kontuan bezala, deklaraturik baina erabakiaren zain dauden auzi garrantzitsuen aurrean, gero anulatzekoak izango direla sumatzen duen epai guztiak agortzetik iristea gustatzen zaio korapilo zentralera, eliminazio metodoaren gratuitate atsegingarria –gratuitoa baina atsegina, hor konpon!– halako eran gozatuz, non ezein ere nahitaezkoa ez den alternatiben ugaritasunak azken definitiboaren horrore posiblea aurretiaz alibiatzen duen. Gorputzaren nagiak ateratzea bezalatsu, zeinak egunean zehar, tirriarik ezagatik bainoago irrisio sozialagatik, jarraipenik izango ez dutela badakien mugimendu eta soinu extrabaganteak libreki garatzeko bakar unea baliatzen duen. Gogoak badu ikustezinaren abantaila handia, bere bizio intimoetan inpuneki barnatzeko, berez harengandik abstrahitzeko gaitasuna balukeen konpainiak kontzentrazioa oztopatuko ez balio. Komunikazioaren jenioa izan behar da, solasetik inork igarri gabe distrahitzeko. Nik orain biak dauzkat: ikustezinik segurrena eta kontzentrazioerik alazoena.

Zer da kiratsa ere izan daitekeen usain hori? Ezer ere ez. Horixe da nire gogo baikorraren lehen epaia: gaitza ezeztatu. Ametsak, itzarreran, inpresio saihestezina eragiten jarraituko duten pasarteak ezkutatzeko daukan maleziari esker (sentipen immediatoki aurreko batek golkoan taup-taup jotzen zaitu eta ezin diozu identifikazioaren haritxo bat ere harrapatu), eta bizitzan zehar harturiko usainen konfluentzia akzidental baten ondorioz, kirats irudipen bat izan dut bart, baina hemen ez dago kiratsik. Eta orain, benetako orduan, irudipenik ere ez.

– *Ez al dok egia?*

– *Ez dakit.*

– *Zelako ez dakiala?*

– *Kiratsak derrigor egon behar dau, animaliak habailada batera usteltzen ari diren lekuan.*

– *Horrek ez jok esan gura kiratsak honaino iritsi behar dauenik.*

– *Ez dau esan gura, baina badator.*

– *Burutapenak. Hemen ez jagok usain txarrik.*

– *Ikusiko dogu, hegoaizeak jo daienean.*

– *Ez hadi katastrofista izan.*

Badakit tirabira mental hauen berri, eta sarritan asmatu dut, beldurra intuizioa baino aholkulari segurragoa delako. Egurra emango duten lekuan sartu zara eta: *Hainbeste jenteri ez jeutsiek erasoko*. Alde egiteko aurreikuspenik balego, erasoaren predikzioa handitu egingo zenuke, baina gelditu beharra denez gero (beharbada, pankartan zoaz), ez da gertatuko. Hasi dira erasotzen eta: *Ez jabek hain amorratuki joko*. Amorratuki ari dira eta: *Hainbesteren artean, zaila dok norberari tokatzea*. Tokatu zaizu, ba! Ematen ari zaizkizu eta: *Lehen be hartu bakoak ez gozak*. Oraingoak azkenak izango ote diren beldurrak jo zaitu. Heriotzari aurpegia ikusi diozu eta: *Hurrengoetarik libratuko gozak, behintzat*.

Usainaren kasuan, existentzia eta irudipena bereizten ez dago beti erraz (errealitate oren kasuan ere halaxe ei da, zoratzeraino iritsi direnik esan ezin den batzuentzat), batez ere, arrazoi egiazkoak badaudenean; eta baldin badaude, usaina ere egiazkoa dela epaitzea da arrazoizkoen. Hemen gertatzen dena da egiazkoa dela badakidan usaina kilometro batera gertatzen ari dela, berrehun metro beheragoko kotan. Bitarteko bolumen atmosferikoa eta haizearen eragin ezabatzailea jorik, terraza honetan ezin du usainik egon. Argudioek horixe damate, eta beldurrak ere

bai, zeren usainak nire eremu ustez liberatua inbaditu duela egia balitz, nora ihes egin behar nuke? Irudipenak badarrai, ordea, eta ametsa eta itzartasuna ziurki bereizten ditudan bezala (itzarraldian, behintzat, berriro ez bainaiz itzuliko metodologikoki egiazkotzat erabaki nuen egoera larrigarri hau guztia ametsa ez ote den auzi ebatzeziner), usaina eta bere irudipena bereizteko ere ez nuke gutxiago gauza izan behar. Ondorioa: *Hemen usaina bajagok! Eta kiratsa be baietz esango neukek.* Metodologikoki baino ez bada ere, amaitu da ezeztapen fasea.

Orain egiari garaile jarkitzeko argudioak behar ditut, zorionez, nabariak eta ugari direnak. Bizitzan bera baino hamaika jasangaitzagori eutsi izan diogun kirats horrek gorenean egon behar du oraintxe. Animaliak batera hiltzen hasi baziren, baliteke fokua zerbait areagotzea, ustel mailaren arabera, baina ez biderkatzea. Bestalde, ganadua librean gobernatzeko sistema garaikide honetan, eta urtegarai honetan, zenbat animalia egon litezke katean edo itxipean? Batzuek, gainera, txerriek esaterako, gosean elkar jateari eman izango zioten, halako eran non, azkenean, bakarra geldituko baita, sendoagoek makalagoak janez, eliminazioa era minimoki arautuan gertatu bada, naturaren sen selektiboari gustatzen zaion moduan. Gero bakar huraxe ere hil izana naturaren errakuntza jakintsua izan daiteke, gaixotasunen hedapena ekiditeko. Suposamen errealista honen akats bakarra da prozesuak daroaguna baino luzeagoa izan behar lukeela, azken biziraulearen kirats-izatera iristeko. Laburbilduz, direnak direlako guztien ustelkuntza ezin da altuera honetaraino igo, guztiz indargeturik ez bada, oraintxe bezala. *Egun ez asko barru, hilak hil eta biziak aurrera gozak barru.*

Gorde nadin etxean eta saia nadin denborak korri dezan ez desiratzen, orduan gelditu egin baitaiteke, euren existentziarik eza oso kapritxosoak izateagaz konpentsatu ohi duten izatean arabera. Libreki erabaki dudak ez irteteak, denbora laburrera, entzerru sententzia emanik-edo, irakurketaren baliabide topikora jo behar izan dut, kasu honetan, topikotasun arbutatua praktikotasun maizegi frogatutik badator ere, espetxean edo harako gogo-jardun amaigabeetan bezala. Euron eragin mendekatiz, beharbada, irakurketa deprimenteak hautatu ditut: *Reglamento del Seminario Diocesano de Bilbao* (betetzea errazago zena, dena gogoratzea baino), *Liber Usualis* (honek badu, behintzat, latinaren puntu exzitantea, musika gregorianoaren arte zoragarriaz gainera), San Inazioaren *Ejercicios Espirituales* (exzitazio puntu inbertitua), *Reglamento de Instituciones Penitenciarias (y demás txarrikortas)*. Eta abar. Ea, neure baitako bortxaketa nostalgikoan, erneguan, arrazoi bat ez bada, asaskaleku bat, behintzat, aurkitzen dudak, horixe baita koska zantarra, zergatik ez dakidan erneguan nagoela. Denak joanak izanik, motiborik gehienek joanak behar lukete, izatekotan, ikara, tristura, abandonoa, kikiltasuna sentituz. Baina ez, alua! Ernegu borobila, izaki beldurgarria bainintzan. Ez dut, ba, neure buruaz ernegatzeko deskuidorik edo okerrik egin, oraindik ez bainaiz, ustez, neuk probokatu ez dudak bigunaren errudun sentitzeko adina txotxolotu. Baina ernegaturik nago. Eta zirkunstantzia hauetan, sentipen absurdoa izatearen kontzientziak gehiago ernegarazten nau. Hori ere ez da arrazoia, zeren absurdoak zenbat gradutakoak daude? Lehen banituen motibo jakinik gabeko amorraldiak. Orain ere gauza bera gertatzen da, antza, eta erremedioa ez da ulertzen saiatzea, erneguari joaten uztea baizik, berari gogoak ematen dionean, nahiz eta ezin dudak harrizterik ekidin, honen egoera radikalki ezberdinean, sentipen berberak izaten jarraitzeaz. Lehen, zapata takoi-luze bat irentsita baino sosegaezinago, isolatzen saiatzen nintzen, zaratak molestetzen baininduen.

- *Irrati alu hori! Zer behar ete jok sirena puta horrek! Ateak ezin dozuez kontuzago itxi?*
- *Egun on!* –emazteak.
- *Heuretzat izango don ona!*
- *Jesus! Txarra opatu behar al neuan?*
- *Ba, bai! Txarra denean, txarra behar jon, zurikerian ibili barik.*
- *Zelan igartzen dok noiz zelakoa den?*

– *Isilik egonda.* –Alferrik da jarraitzea.

Harremanaren okertzeari bosgarren hankaren misterioa aurkitzen saiatzen ginen: erru guztia ez zela bakarrarena izaten, biek saiatu behar zutela amore ematen, eta halako politeziak. Batzuetan, egia izan zitekeela ukatzeko baino maitasun biolento ugariago zebilen munduan, baina, sarritan, dena zen distantzia bat ez ezartzearen okerra, ernegua bakarrean eta bakez egos zedin; ernegatzeko, ez baitago ernegakor egon beharrik. Ernegua atmosferarik dohatsuenean sor daiteke, urdintasun gardenean hodei montorra bezala. Batzuek sentipen hori, arrazoi jakinik gabeko haserre hori, insatisfakzio esentzialagaz lotu nahi zuten. Neuk ere lortzen nuen onarpen bati eta besteari esker baretzea, harik eta, gorputza botika jarraituetara sorgortzen denez, inefikaziaren mende gelditu nintzen arte. Okerreana ez zen zaratak, hitzak, denak min ematea, baizik, neure baitara apartaturik, han agortasunaren monolitoa aurkitzea, zeinaren kontra jesarriarik, higa zedin itxarotea besterik ez zegoen, lantzean burukada suizida batzuk emanez. Gauzek badituzte alternatibak, zeren, aitzurra galtzen bazaizu, ehundaka tresna daukazu haren ordezeko, edo bixigua ahaztu bazaizu, milaka arrain. Ostera, temeritatea edo indiferentzia, adibidez, ezabatu badira, zegaz bete behar dituzu hutsune horiek? Kontzeptuak, euren izenetatik bereiz, elkar zapalka barreiatzen ziren, zezenen aurrean plazara desenbokatzen zen jendetza insektila bezala. Lasterkarien delirioa, lekua apur bat nasaitutakoan, berriz zezenengana biratzen zen bitartean, kontzeptuek, hesien gainetik, mailen gainetik, bafadek astindutako hautsetan zehar, elkar-erlazio oroz handiko paduretara ihes egiten zuten, han bakoitza bere lokatzean galtzeko. Izenak helduleku gabe gelditzen ziren. Bat paretik deslari pasatzen zeneko, beste izenak espantuz baliatzen ziren, etortze menkor, ia sistematikotik libre, intsektu hegalariekin nahasteko. Monolitoa desagertzen zen eta, zutitzen ahalegintzean, ohartzin zinen zeu zeundela monolito, bidazti mireskorrek ernalmenagaz erratzen zutena. *Ez dakizue askorik, gizarajook!* Orain horixe ere ezin dut esan, beranduegi baita hormek entzun egiten zutelakoa sinesten hasteko.

Erneguaren aldikada honi ez nion oroitzapen berariazkorik eskainiko, hartaz gabetzeko era bakarra zen lotatik amets ezin eztiago batek iratzarri ez banindu. Bai dela, batzuetan, zoragarria ametsa, egian gerta litezkeen baino pasarte gozoagoak biziarazi ondoren, andeatzeko dezepzioaren aurretik eteten dena. Formalitatezko eginkizun batean laguntzen nion gizonezko bat, nortasun-aldatze jarraiko batzuen ondoren, azkenean, emakumerik errealean eta samurren bilakatu da. Izter erdirainoko zaku-soineko gris argi eta kolore ezberdinetako lore txiki-txikiz ñabartu bategaz, neure altzotik egiten ditu gestioak, bere maitea naizelako pozaren aldi bereko erakuspen txit naturalean. Neure besaulkian sakon eserita, eskuak non ipini ez dakit, ez, ukitzeak desegingo duen beldurrez, ikusle posibleen bekaitz sanoarentzat mingarriegi gerta ez dadin baizik. Nire segurtasuna hain da osoa, ezen nire gogoak, zorion hau egoera natural posible bakarra ez denik pentsatzen ere ez duenez, ez baitu arriskuaren noziorik garatu. Sentipenik antzekoena itsasertzeko aparra datorkit, zeinaren sortze etengabea, lehenengoz mirari ezinezkotzat begiratzen niona, kostatu zitzaidan ez amaitzera kondenaturik zegoela sinesten, halako eran, non, leihaz zaindu beharrean, berariaz apurtzen saiatuta ere, edertasuna handitu besterik ez baitzen egiten.

Emakumeak begiratu dit, eta bere irribarre barean ulertu dut badakiela noren altzoan dagoen, ez dela erratu, poza berea ere badela, ez dela minik izango, ez dela pasioaren zalapartarik gertatuko. Bulegotik kalerantz, bere autoan eraman nazan, eskailera kiribil eta estuan behera goazela, kirten hori-horiko aterkin bat itzuli diot, aurreko astean neure motxilan gelditu zena, *ah, bai, aste guztian falta hartuta egon nok*, non ageri den amets batzuen barruan memoria oso bat aktualizatzen dela, bisualdu beharrik ez daukana, bizipen iragan hura, orainaren martxan sortua, birsentiarazteko. Kalean dohatsuki ezabatu gara. Nire gogoak nahiago izan du itzar nendin, ametsaren samurtasun jabala ohartuki goza nezan. Zorionaren sentipenak bere osotasun guztian darrai, hain gozo eta egiazko, ezen ez baita amaitu izanaren penarik planteatzen. Kantoi batean, oinez eta eskutik, nik

baterantz hartzean, hark besterantz hartu izan balu, aurrera jarraitu izango nukeen, emeki eta xoraturik, errakuntza dohatsu bat izan zelakoan, hitz mingarrien arriskura itzuli gabe. Hobe da zorion oso baten oroitzapena gelditzea, agian luzatzea lorturiko zorion puskatu batena baino. Tamal bakarra izan liteke aurpegiarik ez niola behar adinako arretaz ikusi, hain ezagun ginelarik, orduan premiari sentitu ez nuelako. Orain, itzarririk, zorionaren sentipena luzatzen hainbeste lagunduko lukeen identifikazio zehatza falta zait. Harritzen nintzen batzuk begietan, beste batzuk sudurrean, ezpainenetan, belarrietan, fijatzen zirela. Nik ikusten dudana, liluratzen nauena, aurpegi osoa da, ahal dela, irribarrez. Aurpegi hura, edertasun monumental gisan baino gehiago, politasun inguratzaile, kutsakor, gesalgarri gisan, hitz batez, inpresio gisan gelditzea komeniko zen, artearen adierazpenik maitagarrienetarikoa izan zen inpresionismoaren oroimenez.

Gero, hogeit hamar urte gaz, mutila komentutik alde egin berri zen, frailetzarako erabakia bai, baina ez zintzotasuna utzirik. Jainkoari erakutsi behar zitzaion ez zuela nahikeriarren alde egin, baizik Hura, oraindik maiuskulaz idatzi beharrekoa, era ziurrenik emankorragoan eta baiki maitakorragoan zerbitzatzearen. Noizbait, erromeriara hasten ere ausartu zen, lagunaren babes esperimentatuak eskuzabalki eta ez superioritate pitin bat gabe tiraturik. Plaza bazterreko harrian eserita emango zuen, neska dantzarietara begira, arinegi pasatuko zen denborarik gehiena, ukondoak izterretan eta eskuak belaun artera baturik, eroso estaltzearen, harrotzerik txikienean, plaza guztia haraxe begira sentituko zukeen mastapuntatxo. Lantzean neska ongura batek, auzoko edo ahaide, adeitasunez gehiago haragi ustez ukigabearen tiramenez baino, erasotzen bazion:

– *Hik ez dok plazara urten behar?*

– *Gerotxoago* –erantzungo zuen, dantza-eskea ala puntada izan ote zen pentsati–, *jakin be ez dakit ondo-ondo eta.*

– *Jesarrita ez dok ikasiko.*

– *Begiratzeari ez deritoxozu polita?* –jarraitu zuen, hitanoan ez sartzeko deferentziari balaku-asmo guztiz zehiar eta ia oharkabea erantsiz.

– *Horrela ez dok sekula ikasiko.*

– *Ikasten badot, ez deustazu kalabazarik emongo?*

– *Heure burua lakoa!*

Neska barreka aldendu zen plazan zain utzi zuen neskalagunaren besoetara, gustuko mutil parean dantza eske etorriko zitzaion unean preparatzerara.

Mutila, *begitu gure fraile-motxo be!* marmarraren beldur zena, lotsaizun aurreratua ezin menperatuz zebilen, bere komentu ametsetako neskaren baten (plazan zebiltzan guztien, garbi esateko) besoetan, ‘txoria’ erremedio gabe aurrerantz edo, ia gordinago, golkoan gora imaginatzen baitzuen, berak erakutsi gurako ez ezik, zintzoki sentitutako nobletasuna hankaz gora jarriarik, aritua zen zigorketa aszetikoen eta buruketa mistikoen alferrekotasun exzitatua txontxongilo. Horri beste beldur beharbada handiago bat gehitu behar zitzaion, plazaren beste aldean, abadetxearen eta sakristau-etxearen artean jarleku egiten zuen horman, neska bat bere antzera eserita hauteman zuenean. Neska hura ez zen, gajoa, gorputzez dohatsuegia, baina mutilari, lehen zirrara errukiorraren ondoren, argitasun salbatzailea igorri zion, halako eran, non, lehenengo dantza-eskean denen aurrean kalabazadun agertzeko ikaratik, pentsatuaren pentsatuz fisikoki garatzeraino heldu zen beldur hartatik, berbertan askatu baitzuen. Mutila, bazterretik ezarian, dantza-zelaia gaingiroki ikusmiratzeko planta dominantean, hura ere zerbaitegatik bazterrean eserita zegokeen neskarenganantz zihoala ikusi zutenean, plazan espektazio kiribil bat abiatu zen, dantzari bikoteen buru bereziki adostu gabeak harantz okertu zituena. Bera zen eguneko nobedaderik ez txikien bat, oraindik ‘frailekia’ deitzen ziotena, ohia izaten ikasteko asko falta zuena; eta bere lehenengo berotasunaren uste zintzoan jarraitzekotan, ikasi ere egin beharko ez zuena. Goizean meza osoa

entzunik, aitortze-jaunartze eta guztikoa, alegia, arratsaldeko arrosarioan ere, emakume eta nesken aurrean (obligazioari eskapatzeko talenturik ez zeukaten haurrekin eta obligazioaz beste bizi-sostengurik geratzen ez zitzairen atsoekin, obligaziotik bizi zen sakristaua eta klasifikatzen zailegia litzatekeen abadea kontatu gabe), gizezkoen banku-sailean prakadun bakar izaten jarraituko zuen. Handik batuko zen auzoko mutilengana, lehen erromeriaren erronka aztoratzailean dena beharko zuen kontzientzia osoz, eta nola atontuko ote zen zalantza urduriz.

Dantza solteen bolada amaiturik, lotuaren modulazio kilikorrak hasi zirenean, arnasestu apur bat apropos handituan, bazterrean esertzea erabaki zuen, *buff! lehenengo egunerako nahikoa pasada izan dok hau!* esanez. Baina han ere ez zegoen trankil, ez hainbeste 'estreinatzeko' irrikagatik (urteetan itxaron zuenarentzat, astebeteko atzerapena egintzaren beraren hasieratzat jo zitekeen), baizik oraindik luze jo zezakeen egonean, bere lotsortasuna, neskek kamuskeriatzat ulertzeko arriskua zegoena, nabarmenduz joango ote zen beldurragatik, harik eta salbamen posiblea beste bazterreko neska harexengan ikusi zuen arte. *Dantzalditxo bat egingo al dogu?* Neska sustoaren gainean zutitu zen, *bai, horixe! zelan ez, ba?*, hitzek euren kabuz zerantzutela, norbaitek dantza eskatu izanaz harriturik, mutilaren kalkuluek, beharbada, gehixko suposatu zuten. Behintzat, begi guztien plazan, emakume baten besarte, ia besoan luzera osoko bitarteagaz bazen ere, estreinatu zuenean, zirrara ala urduritasuna zen ez zekien dardara haren barruan, krudelkeriazko erru-sentipen bat oldartu zitzaion, neska baten inozentzia hain arrazoi aitorezinez baliatu zuelako, nahiz eta gero, dantzaren mugimenduetan aurreratu ahala, kontzientzia nasaituz zihoakion, marginatu baten harridura iruditu zitzaiona zindotasun adeitsutik ere uler zitekeela pentsatuz. Eta, batez ere, beldurrak komeni zitzaiola aholkatu ziona baino politago aurkitzen zuelako, inoiz edertasuna depreziatzen bezala, itsustasuna leuntzen ere badakien hurtasun aldatzaileari esker. Edo, beharbada, lerdan-itsusien gorabehera ez dagoen neska-usain orokor bezain sarkor hari esker, zeina, sarritan, badaitekeen ez izatea ikusmenak nahasitako lurrinik ezberdinenen, eza barne, konposizioa besterik.

Izena ere noizbait deklaratzeko komeniko den Alonek, geroago Agat zela jakingo zuenaren begietan bere burua (hain txikitua) ikusten ausartzen zen unada bakan eta laburretan, ez zuen sumatzen, neskaren aldetik, itsusi-ustearen inolako zantzurik, aitzitik hizkera norduna eta etorkorra, beharbada, ahotsaren gozotasunak, zolitasun puntu batek minduak, pertzibiarazten ziona. Segurrenik, neskaren patxada harmonios harexek eragingo zuen, mutilak emergentziazko flotagailua begiztatua zuen tokian, edertasuna ere azaltzen has zedin, hutsetik hara ukitzen zuen lehenengo neskagandik ezin zen atera (are gutxiago bere turbazio ameskararen) ondorio fidagarriarik baina. Behintzat, aurkitu zuen gutxieneko baretasun bat, une batean, esperientziaren zein bakuntasunaren ume izan zitekeen aitormen handios bat jaulkitzeko:

– *Zeu zara beragaz dantzan egiten dodan lehenengo neska.*

– *Polita dok hori!* –ihardetsi zuen neskak, lau eta motz.

Alonek itxaron zezakeen literaturaren lekuan (*zergaitik neu hatan be hire lehenengo hautatua?*, edo *ez heuan, ba, lehenagotik pentsatuta edukiko!*, zeintzuk gutxi gorabehera nola saihestu preparaturik zegoen, hala nola, *neu legez jesarrita ikusi zaitut eta pentsatu dot hori ez zela plazan egoteko ganora*, edo *leku itxiagatik nator ni, horrelako gauzak pentsatuta ekartzeko*), Agatek ez zuen *polita dok hori* beste luzapiderik eman. Erretorika handietan, nahiz eta ez hainbeste euren analogia kokorretan, ikasia zen Aloni ez zitzaion besterik gogoratu, xumearen xumez ia ederregia zen sinpletasun hari, preparatu gabe zegoen beste sinpletasun handiagoz eta agian berdin ederrez erantzutea baino: *Polita ez dakit, baina egia da*. Egia berez justifikatzen delako ingenuitate oraindik pitzatu gabean. Zorionez, arrazoi bakun eta laburrez garatzea hain zaila zen solasa musika-piezaren amaiak erabaki zuen, eta Alonek *ba al zatoz tabernara?* gonbita, oraingoan, maltzurki ekidin zuen,

suposatuz neskak ez zuela onartuko. Bazuen berriketako baietz ederra ezetz batek hondatzera ez arriskatzeko adina sen, bere pertsonari ez esleitzeko ezetza izan bazitekeen ere. Gizarte txiki hura, edo, hobeto esanda, orokortasun gotorraren fragmentu kasik galdu hura, neska prestuak tabernan begi onez ikustetik urrun zegoen oraindik. Ohituragazko makurtasuna, zergatik inork garbi ez zekiena (galdetzea arriskugarriri susmagarri), gizatasunaren neurri bihurtua zuen gizabide hark, zuzena ala okerra zen pentsatu baino askoz lehenagotik.

Tabernan, mugimenduak bainoago urduritasunak eragina zion arnasestua mostradorearen kontrara bermatuz (batzuk, animatu guran: *Ikusten zer ederto atondu hazen? Hurrengoan benetan gozatzen hasiko haz.* Beste batzuk, adar-soinuan: *Zenbat behatz zapaldu deutzazak? Larakoa zelan?*), esku bata supituan bezain ezarian sakelaratu zuen, eskorpioia izter artera igo bailitzaion, zorionez, txoritxo masal bat aurkitzeko. Dantzako nahasmenaren arinean, ia beldur inbentziblea zionaz ahazturik jardun zuela gogoratzearen susto berantean, Jesukristoren buruak Madalenaren altzoa baino gehiago eskertu zuen traizio lotsagarria burutzeko erraztasun hain nabariaz ez zitzaizola baliatu konturatzea, hain baitzegoen azaluts gizajoa. Komentuko negu gorrian, goizeko sei eta erdietan, ohetik hara hur hotzagaz dutxatzera tematzen zenean bezala, non gakoa ez zen hainbeste uraren tenperatura bera, baizik gorputz geldian eta giharreen dardara gabe (eta, noski, urruma gabe, purrustadarik txikienik gabe!) eutsi behar izatea, koronazio batean, begiak estasian itxita, arrosa-petaloen euri laztana hartzen bezala. Egia esan, koronazioaren harrotasun eta petaloen gozotasunaren irudikapen harixe esker lortzen nuen urpetik bizirik irtetea, gero urteetan anginen eta paperen aurka borrokan ibiltzeko bazen ere, harik eta, Erromara antolatu zuten erromesaldi diozesano baterako, etxetik ordaintzeko modurik ez zeukatenentzat, karrera amaitutakoan itzultzeko agiri baten truke aurreratzea asmatu zuten dirua onartu eta, gero zorrean apaizteko bazen ere, baimen ez kostagabea jadetsi nuen arte, kopuru hura anginen ebakuntzara desbidatzeko. Ni ebakuntza mahaian nintzen bitartean, lagunek Vatikanoko edertasunak liburuetan ikusiekin parekatzen ziharduten, antzen bat hartu izanaz harro, gero bueltan berriz begiratzeko ea han ikusiak liburuetan zeuden. Hala ez bazen, liburuen autoritatea ukalez zenez, mitifikazioen norabide errealez bestera, ondorio oharkabeki asumitua sendotuko zen ezen, artelanentzat, garrantzitsuago zela liburuetan egotea tokian bertan baino.

Limonadaz bigunduriko ardo zantar hura amaitu zuenean (ez besteentzat zantarra ez zelako, nahiz eta hark ere mozkortzen zuen, edo burua apurtzen, behintzat, bera edaten zaildu gabea zelako baizik), dantzara itzultzeko gogoia bezalakoa nabaritu zuen, kemena ere izan zitekeena, bihotzak neska jakin batengana tiratu izan ez balio. Gehiegi begiratzeko ez zen ausartu, baina bazekien hantxe zebilena, elizako korutik, aldaretik eta, batez ere, diru batzen pasatzen zenean (non lehenengo lotsa eta ondorengo diruaren Judas-hotsa erruz gainditzen zituen nesken aurpegiak hain hurretik eta banan ikusteko –ikus behar izateko!– pozak), sobera obserbatua eta bere era imposiblean desiatua ere zuena. Eta orain hara non, handiegia izan beharrik ez zeukan zortea lagun, beragaz dantzaldi bat egiteko zorian zegoen. Pentsakizun hori ere ez zen, nahiz eta argia eta insistentea, buruko zurrunbiloan zebilkion berotasun bat gehiago besterik, plazara erdi zeharka hurreratzean, Agategaz topo egin eta honek esan zionean:

- *Gura dok beste dantzalditxo bat egin daigun?*
- *Gura bai, baina nire oinak heuk jagon beharko dozan.*
- *Abarketek ez jabek minik egiten.*
- *Ez behin eta birritakoagaitik.*
- *Ez gozak hain hur be ibili* –irribarrea zehartu zuen neskak, zer distantzia nasaietan dantzatu ziren imintzioa eginez.

Neskaren toa xarmatzat hartzen zuen Aloni berak noka egitea gogorregi egiten zitzaion, baina berriro haren trataerari zuka jarraitzea ere frailekoiegi gerta zitekeela ohartzeko adina mundu-sen bazuenez, badaezpada, *neuk be hika egitea ez don txartzat hartuko, ezton?* itaundu zuen. Irribarrea ironiaren ertzeraino, isekaraino, alegia, luzatzeko ataka guztiak ezin zabalago ikus zitzakeen neskak erantzun zezakeen: *Ez dok, ba, lekaikea nazenik pentsatuko!* Edo: *Urtengo ahal dok gogozuzendariaren kolkotik!* Hau entzutera, bazitekeen mutila gogorturik gelditzea, nerabetan fisikoki ere erreala izana zuen golkoarena, golko sargori eta mamitsu harena, zertatik igarri ote zuen. Ba, ez. Sinpletasun onkor hauxe besterik ez zuen erantzun: *Zelan hartuko joat txartzat hik be neure moduan berba egitea?*

Artean, soinulariaren belarriak iristen zen edonondik ekarritako (beharko ekarri, txanpon batzuk batzen jarraituko bazuen) dantza piezetariko bat aurrera zihoala, Alonek, egoeraz jauntzen ari zela oker pentsarazteko moduan eta jagitasunean, jaulkia zuen:

– *Orain ez daukat esan beharrik zeu zarela bigarren dantzaldia beragaz egiten dodan neska.*
– *Horixe be polita izan dok!* –erantzun zuen laburki Agatek, beharbada, bera ere agertzen zuena baino pentsakizun luzeagoetan.

Ez dago baztertzerik ‘frailekia’ plaza bazterrean eserita ikusteak neska eserrarazi ez zuenik ere, jarrera solidario baten erakuspenak eszena berriak ekar zitzan gogoz, edo, soilik, intuizioz. Ez dago baztertzerik, umetan herri-eskola berean ibiliak zirenez gero, aldare inguruan nerabetsen eta gaztetzen ikusia zuen mutil ukiezin hura oraintxe eskueran imaginatu izana, ez ezer iraunkorrerako maleziaz, ‘fraileki’ baten estreinaldia esperimintatzeko nobedadez baizik. Beharbada, ez zuen ezer apartekorik pentsatu, azken batez, lantzean-lantzean agertzen ziren alberritar gangar edo kokoloez beste, gehienak ezagunak baitziren, asko ahaideak, denak haize beraren umeak. Alonen hasberritasun burtzoroak suposatu zuen ‘emergentziatzko flotagailua’ ere ez dago baztertzerik, nahiz eta dagoeneko, bigarren dantzaldiaren amairantz, belarri ondotik aspaldi pasatua zen eulitzar tximistatuaren durundia besterik ez zitzaion gelditzen. Zorionez, ez zuen izan ahur zabalagaz belarrondoa zaplatzeko erreflexu gehienetan berantegirik, non eulitzarraren (edo eltxo txikiaren) lekuan, berotasun gorriska bat itsasten den, esperimintua zenbait aldiz berrituz gero (eltxo beragaz, gainera), beste belarriagaz ere txandatzea komeni dena, lehenengoak, ikaraturik, ipar polora alde egin ez dezan. Azkenean, Alonek mareatzeraino dantzatu behar izan zuen denekin, bera konfiantza hartuz zihoalako baino gehiago, plazako beste neskengan, ongura jobialaren senblantean, abantailaren batetik at gelditzeko mamua zabaldu zelako, mutil harekiko ez bazen, portaerak obserbatzen ari zitekeen ribal posibleren batekiko. Halako batean, berak betidanik tentazio ezkutuan amesturiko Angelinak, ez nahi bezain arin, bai itxaron baino era ederragoan, *geuk be dantzalditxo bat egin beharko joagu, ba!*, jaulki zionean, aurretik zetorren elkar-zeren bat plazaratzea bailitzan, *nigaitik bai* ahul bategaz besoak zabaldu zituen, ez espresioari, ez tonuari araberako nabaritasunik ezartzen ausartu gabe. Alon transfixioa baino minberago birakatu zen, dantzaldi harexen irudikapen retrospektiboan trumildu zitzaizkion sentipen utopiko guztiak kontaktu egiazkoan txertatu ezinik.

Handik hogeita zazpi urtera, ospakizun handi baten barruko beste dantzaldi batean gogoratu zion Alonek esaldia Angelinari, honek *ah, bai? holan esan neuan?* galdeturik, berak erantzun zuenean: *Hainbeste urtetara, berbak zehatz gordetzea gatxa don, baina neuk halantxe ulertu najonan;* eta atrebentzia erabakitzeke segundo baten buruan, *edo halantxe ulertu gura izan najonan* keinu errenditua egin zuenean. Alonek bazekien deklarapen atzeratu harek ez zeramala batere kosturik gabeko losentxaren gozoa besterik, urteen joanak eta ezein konpromisoren ezintasunak antsiatik, baina ez atseginetik, liberatua. Eta Angelinaren oroimen ez hain zehatzetik, bere orduko ez-ausardiaren azarkera atera bazezakeen ere, nahiago izan zuen erreserba femeninoaren lausengua suposatu, hau ere batere kostu gabea. Delako ospakizun handia Alonen eta Agaten zilar-ezteiak

ziren, nora Angelina Agaten lehengusu baten ezkontide gisan gonbidatua izan zen; baita, ahaide, auzo edo lagun gisan, Alonen estreinako erromeria hartako neska-mutilik gehienak ere, premiak edo anbizioak itsasoetara edo Ameriketara zabalduak salbu.

– *Eta zelan zertu zinien elkarregaz?*

– *Zertu zer?*

– *Hasi, esan gura joat.*

– *Ba, halantxe, dantzaldi haretantxe. Tirrin-tarran bueltaka hasi, eta gaur arte.*

Alonek zilar-eztei egunean maiz eman behar izan zituen, ezkon-bizitzan, inoiz norbere azalpen gogoz, sarri besteen kuxkux minez, noiznahai atera ohi diren argitasun klaseok, denek nahi izaten baitute norbere kasuaren mirari babestua besteen analogietan handitzen ikusi. Agatek berak ere, ez maizegi, bai inoiz, bestela ez baitzitekeen emakume izan, are gutxiago gizakume, *zer ikusi heuen nigan?* galdetzen zionean, Alonek, *aingeru jagole bat, bazterrean jesarria* eta antzekoek gainera, gozotasun sakonago eta pertsonalagoak ere erantzungo zituen, noski, baina harreman osasuntsua, infidelitasun posibleak barne, elkarrekiko sintzeritatean zetzala aldarrikatzeo teoria zuriak modaratu zirenean, moda zientziaren kontrakotzat jotzeraino iritsiko ez bazen ere, ez zuen sekula tentaziorik izan, tortura-mahaian ez bazen (hantxe ere ez, heriotzarenak baino begi mingarriagoak ikusi arte), Agatekiko lehen dantzaldia zein pentsakizunek bultzatu zuen aitortzeko krudelkeria amorosorik burutzeko.

Lozko eta konortezko nahastea izan den errepasso horretatik itzarrera ez da hain gozoa izan. Jaiki, arrapaladan iritsi, belaunikatu, eta, estalkia jaso izanaren oharmenik izaterako, bi besoekin heldurik, komuna irentsi beharrean aurkitzen naiz, okada mortaletan. Ez daukat zer gertatu den galdetzeko ahalmenik; ezta orientaziorik ere. Esteek, olagarro bihurturik, kanporantz dzaup-dzaup dihardute. *Honenbeste ahalegin ezerezerako!* Horixe da taxutu ahal izan dudana lehen gogoeta argia, likin-hari mingots bat ahotik eten ezinik. *Ernari ete najagok?*, izan da bigarren gogoeta, inguratzen nauen egoera prodigiosoan ezer ezin baita baztertu. Olagarroa baretu denean, barruan gelditzera etsirik (komun-zuloa ez zaio, nonbait, mudantza irabazlea iruditu), plof geratu naiz, ipurdia orpoen gainean, ukondoak taza alboetan, aurpegia esku artean. Laxatzen bainoago entzuten ari naiz, neu hormaz handiko aditasunik geldienean kukuturik bezala, gogoaren eta gorputzaren arteko sesioa (hiru bagara, beraz, haurdun ez banago, gogo, gorputza eta neu), sekula honen argi jaso ez dudana, aldikada mistikoetan murgildurik nenbilenean ere.

– *Eutsi egin behar deusak, ahal dok eta!* –dio gogoak, agindutik animora bitarteko tonuan.

– *Ezin dot! Ezin neio eutsi!* –darantzu gorputzak, edukazioz bezain irmoki.

– *Handiagorik menperatu izan dok. Ez al daukak gogoan, espexera sarrerako osasun-periodoetan* (hiru eguneko biziraupenak nahi adina izorramenduri eusteko osasuna frogatzen zuen), *lehenengo orduetako okadetatik aurrera, zer ederto kontrolatzen hintzen, azkenerako, zikin-kide barriak paternalismoz hartzeraino?*

– *Han higuina partitu egiten genduen. Hemen neuk iruntsi behar dot dena.*

– *Eta seminarioan zer, komunak ilaran ataskaturik, zutunik airera egin behar izaten heuenean? Eta behin, besterik ez eta, sotana kakaztuagaz, garbitu diskreto bat emon guran, gehiago lorrindu heuen haregaz, kaperara ailegatu eta hire ingurura inor ez zela hurreratzen konturatu hintzenean?*

– *Ha apalmenagaitik izan zen jasan ezina, ez hatsagaitik. Begitu geure subjektuak be zer ederto eusten deusan bere barruko kaka-usainari, japoniar ermitaua sakontasunean meditatzen legez.*

– *Eta eskola-lagun sinistro harek, hilerrian ikusmiran zenbilzeela, ilunabarrean ixtekotan geratu zen panteoian entzerraturik utzi hindueenean, ehorzlea bigarrenez etorri arte abadeagaz eta gizon-piloagaz, lehenengoan, hire larri-deiak entzutean, izaturik alde egin ebalako?*

– *Etorri ez balira, ziur bertan hilko nintzena.*

- *Baina ez hintzen hil!*
- *Baina hemen ez datorke ehorzlerik!*
- *Tirok! Kiratsak ez jok inor hiltzen.*
- *Hil-kiratsak bai! Ezer ez zela izango, gehiago ez zela handituko, arin pasatuko zela. Eta orain zer? Arratoi ustela zintzurrean baneu legez nago.*
- *Baheu, honezkero bota heuen.*
- *Botako dot, bai! Nire barrura ez da sartuko balienterik, bueltan arinago urtengo ez dauenik.*
- *Eutsi beharra jagok, buztan moztuak baino ezerezagoak ez bagara. Gogoak balio ez badeua, derrigorrak ekanduko hau.*
- *Derrigorra ala ezina al da gogorragoa?*
- *Hemen galdera filosofikoez ez jabe balio.*
- *Horra, orduan, beste bat: zenbat ezin klase dagoz?*
- *Bardin dok, hamahiru bajagozak be. Besterik ezean, sudurra inutilizatu eta lasai-lasai egingo dok egin beharrekoa.*
- *Potroetatik! Ez daukazue freskura makala, nazkamen hau guztia irunsten jarraitu daidan gura badozue.*

Estalkia jaitsi eta komunean eseri naiz, hezur kexatiek beharturik. Ez dantzut ezer. Isildu dira, antza. Eskuinean, liburu-otzara hortxe dago oraindik, bete-beterik, kulturaren tronua bazterretik zerbitzatzeko. Zer ote dago bertan? Ezer ez da ikusten. Nire gaueko irakurketa komuneroak amaitu dira. Egunsentiak ñabartzen hasia dirudi. Ez dago gauza opresiboagorik, zertarako ez dakizula harrapatzen zaituen eguna baino. Hori ere pentsatua nintzen inoiz, baina sekula ez nuen usteko egunik iritsiko zenik, argitasun usteldua ekarriko zuenik, izpi bakoitzean har-ilara bana. Txirtxir hastea besterik ez dute behar. Zertan huts egin zuten nire iragarpenek? Munduko animalia hil-hurren guztiak haran honetaraxe bildu ote dira? Euren interbentzio bizkorren itxaropenez nengoen sarraskijaleak ere hiltzen ari ote dira, ok eginik? Nire gogoak nahi luke gorputza bergidatu, baina badirudi, txarrean, gorputzak beti makurrarazten duela gogo. In medio, kakazaharra!

Nahi nuke barrua izan gure irakasle panpo batena, zeina aldeko kasualitate guztiak bere aurreikuspen argitsuen ondorioztat aurkezten baino gutxiago abila ez zen kontrakoetan bere zerikusia guztiz eskluditzen, nahiz bera ere okerren jasaile direktoa eta, inoiz, bakarra izan. Bere trebetasun dudazkoa posibilitate guztietan probatzeko exigentziari eman dioten ukoan estaltzen duena bezala; esan nahi baita trebetasun frogatu gabeari beti geratzen zaiola posibilitate guztietan probatua izaterik onartu ez diotelako superioritatea. Bakoitzak ahal duena baliatzen du, pasaeran libre ikusi duen plaza bakarrean kotxea premia gabe sartu duenak bezala, soil-soilik, aparkalekua aurkitu izanaren gozamina konpletatzeko. Beti arrazoia izateko modurik onena arerioari gauza imposibleak eskatzea den bezala, ondo zerbitza zaitzaten txarrena ez da bezeroak inoiz arrazoirik ez balu bezala jokatzeko. Arrazoi on bat, segurrenik izorratuko zaituena, nahi baduzu, kotxe handiek liluratuko ninduteke, txikietan ere partetxo bat besterik okupatzeko gauza ez bazina. Bilbotik Altubera bitartean, era suizidan aurreratu naute, kotxea bakarrik fugatu bailitzan. *Alua! Horixe harrapatu behar joat.* Neu ere suizida jarri eta Baranbio parean harrapatu dut, bazterren kontra. *Dios! Neure orde z hil dok!*

Umorerik baneuka (ez edukitzeak ez dit ezertarako laguntzen), esparatrapenseena egingo nuke. Lekaimen eta lekaideen bi monasterio ziren, lurpebide batek lotuak, argi mundutarrak minik egin ez ziezaien, batetik bestera igarotzeko premia ez hain maizkor, baina bai hertsu samarretan. Kontua da lekaimen haiengan, zentzumenen kontrako euren hil-biziko borrokan (belo burumakurrean eta salmodia komunitarioaz beste isiltasun totalen, konfesioak hizketa bainoago ahapekak ziren, lekaimen gorren bat gertatzen ez bazen), ikusmen-entzumenak ia guztiz inutilitzen baziren, elkar-ukitzeen debeku inexorableak ukimena gauzen hoztasunera mugatzen bazuen, eta dastamenak

areago ekin behar bazion defentsiban hango janari klaseekin, kontua da, diot, usaimena zela erremedio gabe garatzen zena. Eta baldin ikusmena galtzeak beste zentzumenen, ukimenaren, batik bat, zorroztea badakar, pentsa organismoak lauren galera nolako proportzioan konpentsatu nahi izango duen geratu zaion bakarrean. Lekaipe haien usaimena hainbeste zorroztu zen, ezen obulazioa garbi-garbi usaintzen zuten, besteok ezer sumatzen ez genuen lekuan. Baina informazio faltagatik edo sinplifikatzeagatik, aldi horregazko prebentzioa hilekora korritu zuten. Eskerrak oraindik ez zuten ikasi azken aldiko hiztun saiatuen 'hilabeterokoa' esaten, zeren, 'hilekoa' aparatosoa bazen, pentsa beste horrek zer izan behar duen. Hitzak imajina gaintzen duen kasuetariko bat.

Laster argitu zen lekaipe haiena, ezjakintasuna barik, hilekoaren eragin beldurgarriari buruzko informazio gehiegizkoa zela, zeren, halako egoerango emakumeak eginiko odolesteak eta lukainkak hondatzen baziren; haren eskuak ukituriko loreak zimeltzen baziren; hark jetzitako behiaren errapea galtzen bazen; hark eliz hobietan isioturiko kandlekin azpiko hilak egonezintzen baziren, eta meza-emailearen sagarapeneko formulak nahasten, ogia Kristoren odol eta ardoa Kristoren gorputz bihurtuz, misterio transubstantziala baino gehiago esperimentu transgenikoa burutzen zela; hark lagunduriko jaioberriek rakitismoa batzen bazuten; hark jasoriko arrautzak txita prenatalki desesperatuek ezin zulatzeraino oskol-gogortzen baziren; hark beztituriko hilen begiak betiraun guztirako zabalik geratzen baziren; azkenik, esparatrapenseen bibliotekan aurkituko nuen zerrenda amaigabea laburbiltzeko, hark egun horietan menturaz bidalitako gutunen hartzaile poz-harrituek insomnioaren gaitza harrapatzen bazuten, nolako aberia ez ote zuten egingo hiru botoz bakarrik babesten ziren lekaimetxoek gogo bigunean? Kontua da ezen, usaimen dela bereziki garatuari, dela beste zentzumen motelduekiko erlatiboki indartsuari esker, lekaimeraren baten hilekoa jaisten zenean, komunitate osoa hain aztoraturik ibiltzen zela, usain haren mingostasun haluzinogenoari ihesbiderik ezin aurkituz, ezen ama prioreak esparadrapoaren erremedioa ezarri baitzuen, zerbait berdin efektiboa eta estetikoagoa asmatu bitartean. Batek bere gorputzean nobedadea sumatzen zueneko, kandela bat piztu behar zuen elizaren albo-kaperako Ama Birjina Harlabaingoaren aurrean.

Izaera orokorraren barruan, intimitatea gorde nahi zutenek ezkutuan burutzeko moduan jarrita zegoen egintza horrek (kandela pizteak) komunitate osoaren sudurrak berehala esparadrapoz ixtea ekarriko zuen, harik eta kandela hura, kontzientzia zintzoz jokatu zuela suposatzen zen pazientearen (haize kolperen batez-edo itzalia berriro piztu behar zuenaren) ekimen berdin ezkutuz, behin betiko itzalirik agertu arte. Komunitatea sudur-ixteko, kandela bakarra nahikoa izan arren, paziente bat baino gehiago batera gertatzen zirenean, bakoitzak berea beti piztu behar zuen, gar kopuruaren arabera, bai aztoramen orokorraren intentsitateaz jabetzeko, bai komunitatearen unean uneko barne mugida neurtzeko. Komunitatea handitu ahala, kandelaren itzalarteak urrituz joan ziren, azkenean, piztutasun etengabea ezarri arte. Orduan, esparadrapoen erabilera koiunturala arau iraunkor bihurtu zen, ez hainbeste ordenen eta antzeko entitateen (eta aurkitzen saiatu naizen ez-antzekoen) grina ia patologikoki arautzaileagatik, kandelaren gastua aurrezten zelako baizik, mardulegia berau txirotasun-bototik bizi behar zuen etxe baterako. Esan gabe doa arnasa ahotik hartu beharrak haien bizikera bestela ere exigenteari mortifikazio handia eransten ziola, Jainko asegaitzarentzat (barka, bera halakoa ez bada) atsegina, baina gorputzarentzat nahikoa gaizkina. Eginbeharra errazteko (oraingoan ere, esparadrapotan gastu handiegia murriztearren gehiago), sudur-kaputxa pratikoak egin zituztenean, jatorrizko elementuagatik normaldua zen *esparatrapense* ordena-izenari eustea erabaki zuten, espirituaren zabaldirik desatxikienetan ere, nostalgia autoritatearen hurrengo arau-emailea dela berretsiz, handiagoa ez bada, hark honen precedentea aurkitzen baitu ia denean.

Bat-batean, zapla lehenengoz aurkeztu zaidan galderari zer erantzun ez dakidala geratu naiz. Behiek ez al zeukaten hilekorik? Dedukzio oso arrazionalerik, ezetz esango nuke, sekula ez bainuen

hartarako seinale seriorik susmatu, ia neure haurtzaro eta gaztaro guztia behien errape artean iraganik. Hori ere ez da, noski, arrazoi sendoegia, mutilok nesken eme-legeez (eta eurak ere suposatzen dut gure ar-legeez) ez baikinen jabetu, sarritan beranduegi izan arte; ez gutxitan, erremedioa berandu izan arte. Baina behiena larriagoa zen, biluzik zebiltzanez gainera, edonon ukitzea zilegi eta, batzuetan, obligazio baikenuen, eta eurek ere konfiantza osoz uzten baitzuten, nahiz eta gureekin kontuzago ibili behar zen, ez pudoreagatik, goseagatik baizik. Behirik mamalarenari (eta halakoena bat izan arren, egia da denak zirela fama zeukaten baino mamalagoak), besartekada bat belarraren irrikaz zegoela, atzetik ematen hasten bazinen, han ere beranduegi izan zitekeen. Artean txiki samarra nintzela, eta ikusten nuen zer berri oro gertaera handien seinaleztat jotzeko grina neukala, bigantxa baten alu-ahoan lohi bat zintzilik hauteman nuenean, arnasestuan joan nintzen aitari esatera, zer batzuk gizon artean esateko hobeak zirelako sen lanbroari jarraituz:

- *Aita! Gure bigantxak txahala egin behar dau.*
- *Txahala egiteko, tripa mehegia jaukak horrek.*

Horrelaxe saihestu nahi izan zuen aitak nire irudikapena, ustez biribilki. Ordu batzuetan mirariaren zain jarraitu nuen, harik eta beste seinale mota oso ezberdin batzuek ikuspen hura oroimenean ezkutatu zuten arte. Entziklopedian begiratu dut, eta behien hilekoaz ez dio ezer. Segurrenik, ez zuten izan ere egingo. Ez, ez zuten. Nola izango zuten, ba? Galdera hau zergatik egin dudan ez dakit, baina, orduan, zezenak zer egiten zuen? Masturbatu egiten zen, makarra autentikoa bezala. Kostatu zitzaidan konturatzea, ukuilutik halako ohol-hotsak zetozenean, aitak zergatik esaten zuen, batzuetan barre-eztulez: *Gure idiskoa bajoak orain be askan gora*, eta beste batzuetan, ukuilurantz biraoka: *Orain be baho askan gora, madarikatu hori? Aita aska zaharra konpontzen gogaituta egoteak baino gehiago intrigatzen ninduen ‘orain be’ horrexek, behin, ikustea gertatu zitzaidan arte. Zaila ere ez zen gertatzea, saiaturia baitzen langintzan. Kate laburregiak ez zion uzten aurreko hankak askaraino jasotzen, baina, astrapala galanten ondoren, bizkarra noria erara arkutu zuen, eta atze guztiagaz aurrera-kolpe txit zentratuak ematen zituela, zirriztada zuriska bizi-biziak ikusi nituen bere paparrean jo eta tanta likinetan jausten. Gero, gorputza ahalik luzeen eta bizkarra ahalik zokonen ipintzen zuela, askako lasto hondakinak airean joango ziren haren ikaragarritzko putzekin. Ordurako, kapitulu hartara iritsia bainintzen, hots egin nion: *Ah, barrabana! Hik be badakik horretan, eh?**

Urdinean gelditzen hasten bazara, gorrian pasatzeko, ziur merezi duenen bat zapalduko duzuna. Hutsunerik aurkitzen badut, sistematikoki aparkatzen dut, nahiz asmorik ez izan, aukera bat aurkitu izanaren atseginagatik. Bide beretsutik doa, kotxea erostean, lehen-lehenik kolpe on bat apropos ematea ere, beti horixe gertatzeko beldurrez ez ibiltzearren. Estatua gizartearen zerbitzari balitz, osasun publikoa edo eskola publikoa bezala, burdel publiko mistoa ezarri behar luke, bezeroentzat doan eta langileak duinki ordaindurik. Baietz horrela tratu txarrak, bortxaketak, hilketak eta, oro har, biolentzia mota guztiak nabarmen gutxitu. Ezetz? Probatzea ez da ezer kostatzen. Errebelatzea ez da hain zaila, nola den aurka errebelatu zaren hura gainditzea. Horregatik ote da errebeliorik gehienak pedanteriatik ez pasatzea? Goizaldean elurretan oinez nator, bakarrik, dena argi-argi, ni burumakur, lotsatuta bezala, barne ahotsa entzun arte: *Zergaitik lotsatzen nok, inor ez bajagok?*

Ganadua gobernatzeko ere, urte urri samarrak zirenez, gure zezena indarrez baino bizioz gehiago baliatzen zen, aldameneko behien indiferentzia berotzeko, zeintzuek ez zuten ez harrituki ez gogaituki begiratzen, baizik begiratzen soilik, hileta bat edo erret gurdi bat pasatzen ikusten zutenean bezala. Halaxe ulertzen zen gero, benetako orduan, hots, behi bat aurrean estalgai jartzen ziotenean, honen adar artetik artaburu bat erakutsi behar izatea zezenari, jauzira oldar zedin. Zezena

albotik saiatzen bazen artaburu bila, ez zegoen saririk. Behiaren gainetik etorri behar zuen, ea bidean beste grina pizten zitzaien. Hala bazen, artaburu hurrengorako gordeko zen; ez bazen, zail zeukan harrapatzen. Intzentibazio sistema xuhur horrek beti ez baitzuen funtzionatzen, ibarraz handiko menditik etorritako behidun gizon batek, lanen amaieraz etsitzen hasirik, esan zuen: *Artaburu urrunetik emon behar jakon, Feliziana*. Behiaren aurrean zegoen etxeoandreak, pauso batzuk atzerantz eginik, ukuilu-bazter erdi-ilunetik pendulatzen baitzuen artaburu, meza solemneko intzentsu-ontzia bezalatsu, gizonak erantsi zuen: *Hortik ez, Feliziana. Hil batzuk aurreragotik esan gura najonan*. Etxe hartan eta besteetan, artaburuak zezenari egunero emateko baino kontatuago zeuden, eta hortik etorriko zen San Antonioren laguntza-eskea, gehigarria ala alternatiboa zen ulertzen tardatu nuena, lanaren errematean, ohiko errespetua izaten baitzen hots egitea: *San Antoniok gorde daiela!* Gero, seminarioko meditazioetan, purutasunaren salbuezinean gotortu nahi gintuztenean, harritzen nintzen santu bat halako zereginetan nahas zedin. Zezen biziosoa aldatzeak ez zuen auzia beti konpontzen, hurrengoak laster ikasten baitzuen manei solitarioa, gabezia ere bizio handiak goberna daitezkeela berretsiz.

Espartrapenseen metodoan fidaturik, animatuago irten naiz kanpoan zer panorama dabilen ikustera, usaintzera esan beharko, garajetik badaezpada, etxe barruko ez-kirats erlatiboa jagoteko. Jasanezina. *Hau ez dok hego-haizearena!* Kiratsa hain da dentsoa, kasik bisiblea, ezen hesolek eta zuhaitzek ere nazka ematen baitidate. Neu ez beste guztia usteltzen ari da, eta nireak ere laster egingo du, esteak ahotik eskapatzen has daitezenean. *Berberton, barruratzen ez bahaz!* Etxe barruan ere, kanpoan abiatutako goragaleak amorratuki darrai, lababora haragi-multzo poseso bat bezala makurtu naizenean. Dios! Zer egin dezaket? Pentsatzeari uzten ahalegindu, aldikada apur bat baretu arte. *Este madarikatuok! Urteizue, urten behar badozue, edo zagoze geldi, behingoz!* Entzun egin dutela dirudi, gehienez alderantziz izaten da baina. Zer egin dezaket? Astiro-astiro, lehendik ere kutsatzen hasia den etxea kanpoaren pare jarriko da. Penetrazio geraezin horretatik libratzerik ez daukat, higuin handiangoan isolatzen ez banaiz. *Horixe egingo joat! Kolonia apur bategaz bustitako guatetxoekin sudur-zuloak bete*. Horregaz lortuko ote nuke burua engainatzerik, koska hortxe dagoela emanik? Ez ote luke buruak, lurrin-kiratsen nahasteagaz, emaitza nazkagarriagoa fabrikatuko? Ez luke nahitaez horrela izan beharrik. Buruak ere badauka bere burua engainatzeko ahalmena, jabea engainatzaile ona izanez gero. Bitartean, anbulatoria salto batean jaitsi eta mediku-maskarilak ekar ditzaket. Baina horiek ez al dira kirofanoetan bakarrik egongo? Galdakaoko ospitalera joango naiz, salto handiegia ez bada. Baina eraikin erraldoi hartan, kirofano-gela aurkitu guran, informazioan inor egoterik ez baita itxarrotekoa, hilen galerietan sartzen deskuidatzen banaiz, animaliena baino hobea ez litzatekeena bera? Aldegite orokorraren egunean, hilotzak eurak gutxi zirela emanik ere, ez dut pentsatu nahi besteei jarraitzeko gauza ez ziren gaixo ugariak nola egongo diren oraingo, haiek han utzita joatea baino eurekin hiltzea hobetsi zuten etxeoak edo maitaleak jo gabe. Hobe dut badaezpadako zirkunstantzietan ez menturatzea sanorik ere hurreratu nahi izaten ez nuen lekuetara. Babes antikiratsena ez da konponbide, boladak zenbat iraungo duen ez nola eboluzionatuko den ez dakigula. Eutsiak eutsirik, handia litzateke, azkenean, norbere hilotza desegin duena bezalako kiratsetik hil beharra.

Pentsakizun fatal hori ez zitzaidakeen hain garbi etorriko, atmosfera honetatik kanporatzeko irtenbide segurra bururatu ez balitzait; ustez segurra, jada ez banaiz ezertara osoan ausartzen. Lege naturalen izaera ere desegin ez bada, kirats-eremu honek nahitaezko muga bat izan behar du gorantz edo beherantz. Itsas mailan, animalia hilek gehienez parean edo gorago egon behar dute. Haien kiratsa, ohiko brisa urruntzailean, zaila da urertzeraino jaitea. Abeltegirik inguruetan ez dagoen bazter batean kokatuz gero, Karraspioko hondartzan, esaterako, Mendexa beti nerabearen azpian eta Lekeitio lamiazkotik orrazikada batera, ez nuke jasoko aparraren kili-kilia eta muxilen ahogozoa besterik. Bigarren irtenbidea gorantz legoke. Etxe hau eta auzo hau hirurehun metroko altueran daude. Oiz mendiaren hegiko beste herri eta auzoetan, gutxi izango dira gorago zeuden animalia

barrupekoak. Laurehun metrora oso bakanak, bostehundik gora alerik ere ez. Mila metrora igotzen banaiz, haraino ez daiteke haraneko kiratsik irits, bizitasun agresiboan, behintzat. *Norantz erabagiko joat?* Alferrik galdetu dut. Ez dago nork erantzunik. Itsasoak tiratzen dit, urrun samar ez balego; ezin dut edertasunagatik biziraupena arriskatu. Mendia bertan daukat; bertokoa naiz. Bakartasun inprebisible honetan, lagun bakar geratu zaidan etxetik ahalik gutxien urruntzea komeni zait. Kirasteak ezin du luzea izan. Hilabetean, gehienik bitan, ustelmenak garbiturik egon behar du.

Gure auzoko etxalde handi bateko morroiak, Tinbo izeneko gazte, jatorri ezagunik gabeak, ustekabean hil zen ugazabandrea, beretzat hain zekena, urrezko idunekoa aldean zuela ehorztera zihoazela ikusi zuenean, bi ukondokada xuabe eman zizkidan, ukituan bakarrik nabaritu nuen irribarre inperzeptiblea tarteko. Handik urteetara jakingo nuen ukondokada haien intentzioa, konfesatu zidanean nola, hiru asteren buruan, etxekoen eta ahaideen hilerrira joan-etorriak amaitu zirenean, lurra zabaldu zuen, idunekoa eramateko... norbaitek aurrea hartu izan ez balio! Ez zuen aurkitu ez urrerik, ez oinetakorik. Hezurak garbi-garbi, iraupen eternalezko bedeinkapen eta guzti.

Atzera berriro kamioia zamaten hasi behar ote dut, dena ordenan ederto ipinita neukana? Nire burua ez da beste irtenbiderik aurkitzeko gauza. Bada, bedi. Eta kirats gabeko eremurik inon aurkituko ez banu? Argi dagoena da hemen neu kirasgai bihurtzeaz beste etorkizunik ez dela. Nork jakin, eutsi nahian, edonorako berandutzen ez naizen ari. Hau alukeria! Hainbeste aldiz sokari begira jarri ninduen munduaren nazka moraletik erarik pentsagaitzenez bizirautea lortu ondoren, brutala litzateke orain nazka fisikoz hil beharra. Mugitu beharra dago. Pare bat hilerako, nahikoa dirateke hogeit urdaiazpi, dozena bat solomo, dozena erdi gazta, hogeit poltsa ogi txigor, hogeita hamar poltsa esne, eguneko lata bat, gatz lodia, ehiza kontserbatu beharrik balitz, olio... Zertarako hartu behar ditut bi lan, kontaktetan eta zamaketan? Has nadin eskuzabal; sobrak bueltan etorriko dira. Bueltan etorri? Ba al dakit denboraldi inprediktible horrek norantz jaurtiko nauen? Popatik! Zirrara ala ikara daragiten ez dakigun galderek ez digute ezer aurreratuko. Hemen, orain, gakoa argia da: nola eutsi kirats hilgarri honi, hiru-lau orduko zamaketan, gehi ordu erdiko bidean.

– *Ez haz hilko, mutil! Esteak kaiola bete txakur legez dozak. Xaxatu, eta jan behar hauela jirudik. Ez egin jaramonik, eta berez-berez isiltzen dozak.*
– *Orduan, zertan goaz Oizera?*

Eser nadin berriro komunean, pentsalekurik emankorrean, eta ordena dezadan neure barrua. Ordu batzuetako higuinak baliteke ez nazan hil, baina asteetakoak? Beharbada, usaimena hondatuko zait. Hori oker handia litzateke, urtaro usaingabeak urtaro zoombikoak bailirateke. Kolonia flasko bati heldurik, ezin dut erabaki bi eretatik zein prestatu, sudurrak eta ahoa zapi bakarragaz defendatu behar badira. Bata kaputxa era, bestea bidelapurrena. Kaputxarenak tiratzen dit oroitzapenen intentsitateagatik. Etorkizun larria prestatzen ari arren, orainaldi paraleloa ere bizi behar da, eta hori apenas egiten den, iragan dominantearen gainean ez bada. Kaputxa aise egiten da alkandora bategaz, besoak eta bi barrenak, garondotik bueltan, okozpean gorgoilera korapilatuz, nasaiago edo estuago, ekintzaren arabera, une urdurietako ito-arriskua ekidinez. Kasu honetan, alkandora lodi samarra beharko dut, lurrinean beraturik, kiratsari sartzen ez uzteko. Nortasuna estaltzea besterik ez zen haietan, edozein alkandora higatu berdin zen, beltza edo zuria bazen; bitarteko koloreak oilakeriak ziren. Zirt-zart lotu eta begien parean bi artazikada, bi zulo. Presa handia bazen, begiak atera, eta aurrera.

Astrapalan sartu dira eta arrastan zaramatzate, ez beltzek edo zuriek, bitartekoek baizik, grisek, berdeek, marroiek, moreek... ia kartarako koloreek. *Nik zer egin dot, ba?* Kuarteleko gela tutu batera jaurti zaituzte (*hau komun anulaturen bat izango dok*), eta ateaz kanpotik, krink-krank, dantzuzu: *Eduki apur batean, eta hasi gero masajeak emoten, memoria argitu dakion.* Ezer ez

dakizula eta, beraz, nahita ere ezin duzula ezer esan jakiteak, lasaitu beharrean, izutu egin zaitu, esan arte hartzen jarraitu beharko duzula pentsatuz. Paisano jantzitako bat sartzen zaizu eta lasaitzen zaitu, kolega eran: *Goazen gela txukunagora. Hau ez dok hik merezi doana*. Bazoazte pasilloan zehar, pasatzen zarete ‘masajisten’ artetik (horrela ikusita, humanoak iruditu zaizkizu), eta Iberdrolakoa (edo Gotzaindegikoa) dirudien bulego batera sarturik (*jesarri, jesarri trankil!*), haritz zaharra nahikoa ondo imitatzen duen mahaiaren beste aldetik diotsu:

- *Neu arduratuko nok inork ikutu ez deian, baina hik bandera-erretzailea nor izan zen esan behar deustak.*
- *Zelan esango deusut, ba, aurpegia estalduta bazeukan?*
- *Baina hi hur-hur hengoen.*
- *Ni ez nengoen ez hur ez urrun. Ni bakez-bakez nengoen eta bera etorri da, gero zeuek etorri zarien moduan.*
- *Nor izan dok?*
- *Neuk bestean ikusi dozue! Zeuen profesionaltasun guztiagaz ikusi ezin izan dozuena nik zelan ikustea gura dozue?*
- *Baina hik badakik nor zen.*
- *Ez dakit! Badakit hemen ez jakiteak ez dauena balio, baina ez dakit.*
- *Zigarrotxo bat?*
- *Ez dot erretzen.*
- *Ni baino balienteagoa haz.*
- *Erretzen dot, baina orain ez daukat gogorik.*
- *Horrelaxe komeni dok hemen egia esatea. Nor izan dok?*
- *Jo naizue, gura badozue, baina nik ezin dot ez dakidanik esan.*
- *Et, et, et! Jo konturik inork ez jok aitatatu hemen. Hik esan izen bat.*
- *Izan ez dena?*
- *Izan zeitekeena.*
- *Edonor?*
- *Ulertzen dok.*
- *Ba, neu orduan.*
- *Hirea bajakiagu. Beste bat.*
- *Ene ama! Kantatzeaz gainera, desafinatu egin behar al da?*
- *Goazen lehengo gelara.*

‘Goazen gerrara’ entzutea gurago izango zenukeen, baina hasierako gela tutuan zaude, komunera ere iristen ez dena bera, daukazun txizalarrria inori ezer eskatu gabe bideratzeko, pentsatzen baituzu: *Larri nazela igartzen badeuste, garagardaoa sartuko jeustek*. Hormak berak daukan irtenunean eserrarazi zaitu, eta ‘masajisten’ agerpenaren zain zaudela, solasak jarraitu egiten du, bera tente eta kolega bat airean, apur bat tonu zirkunstantzialagoan.

- *Espainiako bandera zertarako erre gura izan leitekeela uste dok?*
- *Ez dakit. (Jeneral bat erretzea gurago zeunkie ala?) Ni ez naz horretan ibiltzen.*
- *Baina heuk be gorroto dok ‘piperpotoa’ esaten dozuena.*
- *Nik ez dot gorrotoan sinisten.*
- *Maite doala entzun behar ete joat?*
- *Maitasun derrigortuan be ez dot sinisten.*
- *Orduan, hirezat zer dok Espainia? Insensibilitaterako motibo bat?*
- *Ez hainbesterik, bere himnoa be euskaldun batek egin eban eta. (Heuri esango deuat Espainia zer den).*
- *Bai, ba! Euskaldunak izan dozak betidanik Espainiari gehien aportatu deustienak.*

- *Ba, bai. (Konkistari grina zeukien guztiak, Ingalaterra urruntxo zegoelako. Puta! Orain kakalarria be bai).*
- *Franco hil zenean, txanpaina edango heuen.*
- *Apur bat, ez desentontzearren. (Esaiok honi txanpainak Carrerorenean amaitu zirela!).*
- *Eta orain zer motibo daukazue, bandera espainolak erretzen ibiltzeko?*
- *Esan deutsut ni ez nazela horretan ibiltzen. (Etorriko ahal dira baltzak arin Euskal Herrira! Erlojurik nahi? – Ez, eskerrik asko – Ni Kamerungoa – Ondo-etorria!).*
- *Baina badakik nortzuk ibili leitekezen. Pentsatzeko astia emongo deuat. Bueltan natorrenerako, gogoratuko hazela itxaroten joat.*

Zure aingeru konstituzionalak atea kanpotik itxi duenean, gorputzaren premia larriak ahaztu egin zaizkizu. Horren une lazgarria duzu, non nahiago duzun etor daitezten, ez baitzara zeure izuari bakarrean eusteko gai sentitzen. Zorionez (hala esan behar al dugu?), ez dute askorik tardatu. Atea ireki dutenean, zure gorputza jauzian zutitu da. Zure gogoa josita gelditu da. Hortik aurrerakoa nahiago dut Oizen konta diezadazun.

Ahoskatuko ez dutena idazten dutelako, frantsesak ergelak direla dioena ez da konturatzen euskaldunok ergelago izan gintezkeenik, idazten dugun guztia ahoskatzen dugulako. Kontua da ingelesak I ikurrean AI dakusen lekuan, euskaldunak I soila dakusela. Ingelesa fantasiosoa ote da, ala euskalduna motza? Batak zein besteak ez diote, noski, hurrik ematen gaztelerazko testu bat ahoskera ingelesean kantatzen saiatzeko pitokeriari. Ez da harritzekoa Japoniar begien finkotasun fotografikoak argazki-makinen inperioa sortzea. Badira batzuk, hitz egitean, hagin-moldea ahoan daramatela erakutsi nahi dutenak, ipurdia garbitzeko, ilea orraztu behar dutenak bezala. Edo aldrebes jaio zirelako, hortzak garbitutakoan, ipurdia orraztu behar dutenak. Ez nago mozkor, baina egon nadinerako, mozkortzea denbora galtzeko modu bat dela proklamatzeak ez du askorik balio, dibertsioaren helburuetariko bat denbora galtzea bada, bizitzak hain urri damaiguna bera, baina badakizu. Plazerra ondasunaren urriak ei dakar, gehienbat. Oso zaila da zenbanahi daukazuna gastatuz gozatzea.

- *Hemen noiz amaitzen da lan-eguna?*
- *Ilargia geriza egiten hasten denean.*
- *Eta hodeipean balego?*
- *Orduan segi.*

Neguko alkandora bati kolonia egin eta buruan lotzen ari naiz. Apasionantea izaten zen, banderak erretzeko zein inauterietarako. Inork ez ezagutzeko moduan jartzean, adin horretantxe birjaiotzen zinen, zure nortasunak, lehenengo jaiotzatik horrainoko ibilbide guztia galdurik, inprobisazioaz beste heldulekurik ez balu bezala. Grina bakarrik, sasoia bakarrik gelditzen zen egoera puruan. Kemena biderkatu egiten zitzaizun. Kemena uste zenuena, oster, ez zen, izatez, zure nortasuna funtsatzen zuen besteekiko dependentzia (era ondrosoan, lotsa zeritzona) ezabatzea besterik. Goizaldeko kale inorgabeen, trenbideko hesiaren paraleloan, taldexka mozorrotu bat gainera zetorkizula pentsatu zenueneko ikara, haiek urruntzen ikustean, kemen bihurtu zenean bezala, gero tabernan kontatuko zenuenez: *Aurpegirik ez neutsela kentzen ikusi dabenean, majo eurt egin behar izan jabek, elkarri bizkarretik helduta, gangar-plantak eginez.*

Mozorro baten azpian sartzearen kemen-eztanda gehiago izan zitekeen bat-bateko beldurgarritasunaren kontzientzia bat, eliminatu dituzun begiradetan, hain zuzen, hauei ez baitzaie pentsatzerik komeni zure nortasunak eurak ezabatzea erabaki duenik, ordezkotxepelagoak inprobisatzeko. Ordezko bortitzagoak izatekotan, hobe da suposamenik arriskutsuenaren prekaizioak hartzea. Ez dago kemen efektiboagorik, besteen beldur-zalantza sortzen duena baino.

Usain gozoko alkandoragaz, zazpigarren ahaleginean kaputxa perfektua egitea lortu dudanean, begi zuloak ebakitzeko artaziak ez daude euren lekuan, lababo gaineko ispiluaren apaltxoan. *Orain zelan topatu behar joazat?*

Kaputxa askatu eta artazi bila nabilela, artean urrundik eta muker bezala intsinuatzen zen pentsakizun bat hurbiltzen ari da, auzo-etxe batera sartzen ausartzen ez eta inguruan distrahitu plantan ibiltzen nintzenean bezala, norbaitek erreparatu eta *hator hona, mutiko!* desiatu hura entzun arte. Bidezkoa zen nire pentsakizunak ere mutikoak bezain ezarian jokatzeari, biak sasoi hartakoak baitira, gari-jotzeko makina txundigarri haiek mendiko baserrietaraino iristen hasi zirenekoa. Trena, urrundik, zomorro txiki bat bezala pasatzen ikusten nuenarentzat, makina haien eta inguruko mugida guztiaren etorrera, eta gero, sorroan, gari-metetatik eta etxetik ahalik hurren zegoen zelaiunean, atzera-aurrera jendetsu hura guztia, nire lehenengo zirku mundiala izan zen, liluramenean beste ezein hurreratuko ez zitzaiona, ez hura lehenengoa izan zelako, paregabea zelako baizik. Estartez beste errepiderik ez zegoen parajera halako aparatuak iristea irudimenean ere gertatu ez zelarik (eta bai gertatzen zirela harrigarriak nire irudimenean!), gari-jotzeko makina geure auzora zetorrela entzun nuenean, eskolan zabaltzen ziren inkongruentziatariko bat gehiago izango zela pentsatu nuen, hala nola, ezpaten aurretik gurutzea zekustenean, etsai arimagabeek ihes egiten zutena; edo Gaztelako errege-erreginak, Urkiolan behera zetozela, haitzek erreberentziarik egin ez zitelako, buelta eman eta armadarik krudelenagaz itzuli ei zirena. Gari-jotzeko makina etorri zetorren, ordea. Egun hartan, eskolara huts obligatua zen. Neuk ere kolaboratu behar nuen konkurrentzia itzela promesten zen egintza hartan.

Makina bi zatitan zetorren. Motordun gurdia idi-uztarri batek zekarren. Beste idi-uztarri batek eultzi-makina bera zekarren, eta hirugarren gurdiak uhal, toldo, erreminta eta akzesorio guztiak. Gure auzoa goian egonik, eta gari-jotzeak ahalik bizkorren egitekoak zirenez, aidarik eta maldiziorik ez zen falta izaten estarta zaharretan gora, inoiz ikusiak ez nituen gizon klaseen artean. Motor-gurdia Bizkargi mendirantz (mendebalderantz) eta, hainbat metro luzeko uhal transmisore izugarriak bitartean zirela (arteak ikusiak nituen uhalik handienak uztarri-hedeak ziren), eultzi-makina Oizerantz (ekialderantz) kolokatu zutenean, zur gelditu nintzen, tren hark norantz mugitu behar ote zuen, ez bainuen kontzibitzen artificio hura guztia inora ez joateko jar zitekeenik. Abiarazi zuten, eta haren tar-tar gorgarriari ernegatu antza hartu nion. Beharbada, bezperako etxeetan, ez zuen behar adina gari jan izango, edo harri-koskorrak eman izango zizkioten. Behintzat, hari jana zerbitzatu nahian, bat-bateko eromena sortu zen denean. Hauts-ahotz-izerdizko lainoaren gaintetik, zirrin-zarran, negar edo marru egiten zuten eskutadei eguzkiak ere makinaren ahoerantz sakatzen zien. Batzuek garia metetatik hurreratu behar zuten, beste batzuek eskutada joak erretiratu behar zituzten, beste batzuek eskutadak mandiora jaso behar zituzten. Batzuek gari-alea jaso behar zuten, norbaitek ahotza ere urrundu behar zuen. Pare bat lagunek makinara apur bat aldasbeheran zegoen mahai luzera eskutadak banan jaso behar zituzten. Beste pare bat lagunek, mahaiaren alde banatan, eskutadak prest-prest ipiniko zituzten. Eta katearen azkeneko biek, gari-jotzaile propioki esatekoek, eskutadak eultzi-makinan sartu eta bina kolpetan joko zituzten. Zirrin-zarran, zirrin-zarran, bizpahiru segundoz behin, eskutada muskilduak demonio ihestunak bezala atzerantz aireratzen ziren. Niretzat eultzi-makinaren ahoan zeuden azken bi haiexek ziren pertsonaia misterioitsuak, hein berean heroikoak eta beldurgarriak. Aurpegia, sudur gaintetik okozpera, zapi koadrozko urdin-ilun bategaz estalirik, lepoa beste zapi zakarrago bategaz inguraturik, txapela edo txanoa bekainetaraino sarturik, begiak bakarrik geratzen zitzaizkien libre, ikaragarri. Begirik ederrenak ere euren ingurutik isolatzean gelditu ohi diren moduan: argi-hilobi.

Nire lana iturriko ura ekartzea eta zerbitzatzeari eta, lantzean behin, zahatoa pasatzea zenez, mugida tropikal hartako katemaila guztiak obserbatzeko pribilegioa ez nuen alferrik galdu, batez ere 'ku-klux-klanak' iruditzen zitzaizkidan bi haiek. Izen hori zerbait misterioitsu bezala entzuna nuen,

urruntasunak izugarria txundigarri bihurtzeko daukan dohainetik, eta pentsatu nuen: *Honeexek izango dozak*. Gero, ku-klux-klanen irudia oso bestelakoa zela ikasiko nuen, euren jantzi eta txano zuri-zorrotzekin, baina niretzat orduan nahikoa zen hurretik inoiz ikusterik lortu ezin nuen kukuagaz zerikusi enigmatikoren bat edukitzea. Haiek, gari-jotzaileek, ez zuten pitxarrik ez zahatorik hartzen; ezin zen martxarrik eten. Ingurukoengana hurreratzen nintzenean, nire begiak mozorro-buru haietantxe zeuden. Batean iruditzen zitzaidan munstroa ase ezinik zebiltzala, bestean, munstroaren triapak heriosuhar ateratzen. Denboratik denborara, txandatu egiten ziren. Lan itogarria zen, antza. Atsedean hartzen zutenean, euren ontziak eta euren horniak zeuzkaten. Behin edo behin, *hi, mutiko! ekark pitxarkada ur hori* agintzen zidatenean, ikusmin beldurtiz hurreratuko nintzen. Mozorro gabe ere, aurpegi mamuzko haiek ezagutzerik ez zegoen, eguzkiak eta hautsak, begi libreak ez ezik, larru osoa harrapatzen baitzien. Bestela ere, niretzat ezezagunak ziren, makinak beragaz ekarri eta beragaz eroaten zituenak. Gehienean, sasoiko mutil, euren burua goragokotzat zeukaten. Bazekiten auzoko arrapalada kasik apokaliptiko hura euren besoetan zegoena. Atsedean txandetan, aurpegiari freskatu bat eman eta trago asegitz batzuk eginik (zahatoa ere beldurgarriro zimeltzen zuten), galtzu-jasotzen abiatzeko ere izaten zuten borondatea, hartan ziharduen neskaren baten edo batzuen atzetik. Ni horrek apur bat larritu egiten ninduen, batzuetan tardatu egiten baitzuten mandio ilunetik irteten, batez ere, neure lehengusina kutun bat tartean bazen.

– *Artetxe non jagok?* –hots egin zuen makinaren ugazaba zirudienak, txanda-aldatzea agintzera zihoanean.

– *Sabaira joan da lehentxoago* –esaten ausartu nintzen, inork ez baitzuen erantzuten.

– *Sabaira? Jausiko ahal dok zuloaren batetik!* –orro egin zuen gizonak. Jarraian eguzkiari, eskua bitartean jarrita, okerkera begiratu zion, argi-itxaropena bero-kondenagaz batezbestetu guran bezala.

– *Sabaietan gozo jausteko zuloak izaten dozak* –marmartu zuena osaba Garrotxek, makinaren zaratarra, neuk ez bestek apenas entzungo zuena.

Azpiko gurrakada hirustara saltatzen gozatzen nuenaz oroitu nintzen, harritzen nintzen osabak horregatik esatea baina. Gurean, gariak eskuz jo ziren urteetan, makina ekartzea merezi izateko beste uzta ez baitzen izaten. Eskuz nahiz makinaz, auzolan gogorra eta lasterra, beroa eta hautseztatua izaten zen, baina bai zoragarria, umeontzat, iluntzeko otordua, sarritan erromerian luzatzen zena. Umeak pozik ibiltzea mundua ondo joatearen bardintzat jotzeko prest nengokeen, nagusien munduak erremedio zaila zeukala onartzekotan.

Ba, bai! Gari-jotzaile jantziko nok. Kanpo lanetarako arropa zaharren artean neukan sudurzapi handi, urdin, koadrozko, sendoagaz mozorroto naizenean, neure izatearen linealtasun guztia begipean sumatzen dut, ukuilu-usain eta guzti, baina hori koloniagaz disimulatu da. *Saman eta buruan ez dok babesik behar; hemen ez jagok gal-hautsik. Hasi gaitezen beharrean.* Nori esan diot ‘gaitezen’? Oh! Sarritan, besteen artean, bakardade estua, alebakarra sentitzen nuen. Benetan bakarrik gelditzea nahikoa zen, nire golkoan izaki piloa abia zedin. *Nora hoa? Zer dinok? Heuri esango deuat! Eta gu zer? Hartu eizue popatik. Orduan, neuk be bai. Ea, banan-banan! Denok batera ekinda, zenbat garen be ez joagu jakingo. Zenbat gozak, ba? Lau, bat, hiru, bost, zazpi... zortzigarren urdaiazpia oraintxe kargatu dut. DozenaATEGAZ nahikoa izango da, kiraste honek pare bat hilabetea amaiturik behar lukeela emanik. Lukainkak, solomoak, esneak, gaztak, gailetak, txokolateak, latak, ogi txigorak, patatak, berakatzak, olioak... Eta botila ardoak! Nik igaro behar joat uda Oizen! Anbotoko andereak jarraituko ahal jok iluntzeetan hara aldatzen, hemendik sumatzen genduen moduan.* Maitale bat ez zait txarto etorriko, bera gogaituta egongo da baina. Oskarbi bazegoen, beranduago abiatuko zen. Nahi zuen senti genezan, baina ez ikus genezan. Ilargi betean eta argian, urriko ilargirik zurienean, batez ere, bazekien mendi ostetik joaten, erratzagaz horizontearen azpialdea garbituz. Hontzak eta mozoloak orduantxe aireratzen ziren uluka, ez baitzuten atsegin inork tripapea hazta ziezaian, ez zeukatena bazeukatelakoan.

Kolonia eta guzti ere, kiratsak aurkitzen du sarbidea, ez dakit zirrituetatik ala pentsamendutik. Konbinazio larria sortuz, behintzat. Lanak arin amaitzen ez baditut, Anbotoko andereak lutuko lo egin beharko duela uste dut. Zorionez, edozein amai atzeraezinek zerbait amaitzear denean mehatxatu ohi nau, gehienez. Iraun-senari ere bere izen koldarra ihes miragarriekin hanpatzea gustatzen zaio. Ate-leihoak ondo itxirik, kanpoko hiru ateak ondo giltzaturik (badira ateak irekitzen ederki asmatzen duten animaliak), ezin dut urruntzen hasi, etxeari, osoan ikusteko moduko distantziatik, begiraldi laztankor, itsaskor, negarkor bat eskaini gabe.

.....

Agur, etxe, geratu zaidan maite bakar. Laster itzuliko naiz, ez arima ere ken diezadaten neurriraino defendatu nahi zaitudalako, Aresti suharrak bezala, behar zaitudalako baizik. Bakartasun osoan gelditurik, isolagunerik beharko ez nuelakoan, nola pentsa nezakeen dortoka eskolari bezain zuri atxikita aurkituko nintzenik? Gizakideak aldundurik, zugandik lagunki bereiz nintekeela uste nuena alderantziz gertatu da. Denaren jaun aurkitu naizenean, ezin dut sentimenduetatik libratu. Ekimen propioz izan balitz, konkistaz, adibidez, uler nezakeen neure grinena gaitu gelditzeko zigorra, baina nire nahitasunik bat ere gabe gaineratu den fenomenoan, zergatik ezartzen didazu ia menpetasuna dirudien lotura hau, sentimenduzkoa izateak gutxiago materialtzen ez duena? Ez da zure aurpegia neureagaz erratzen dudala, baizik, zure barruan mugitzean, neure barru inpenetrablean sartzen naizela. Ataritik begiratzen dizut, eta zure barruan neure burua dakust, zeinaren barruan zu zakusdan, zeinak berriro ni nakusen, amaigabeki.

Sumatzen dut zergatik bilakatu ginen honen elkarren barruko: nire izatearen muinena zen pentsaketa, gehien-gehienik, zure barruan garatzen zelako. Ispilura begiratzen banuen, nire irudiaren barruan zeurea zegoen, zeinaren barruan neurea zegoen. Hortxe mozten nuen ispiluen errepika infinitua, ezin bainuen jasan zure txikitasun progresiboak aurreratzen zidan sentsazio bakteriala. Barkatuko didazu katearen lehen-azken begiak (begiratzaila eta begiragaia) beti neu izatea, bai baitakizu, azken batez, nitaz harago biziraungo duzula, nahiz zu neure egintza izan. Horrek ez nau, noski, zoriontzen, bai zu areago maitarazten, pentsatuz, agian lañoki, ni ez nadinean, zure biziraupenak barne hartuko nauela. Banaizen honetan, ohartzen naiz argiro neure kontzientziak, baina ezin dut lortu bere barruan luzerako sartzetik, zure barruan naizela ez bada. Zure gelak oinkatzean, neure baitan nabilela sentitzen dut. Antzina, ez komunera ez ohera ez sartu nahi izateko setan, pasillo-zokoan muzinti kukubiltzen nintzenaren baitan. Gero, telefonoek su zihardutela, *hartuizue popatik!* marmartuz beso-keinu eta guzti, inkomunikazio gozoki inpunean babesten nintzenaren baitan. Hori eta gehiago, zeuri esker, ene etxe. Ez ni kanporatzen saia, orain mundu guztia neurea dela eta. Ezin dut mundu horretara oldartu zure oskol inponentea gabe. Markoa barne osagai duen konposizioa gara. Baita marko ingurua ere, ondo baitakizu etxea eta etxaldea unitate banaezina zaretela nire izatean.

Itzuliko naiz, ene etxe, ohitua bainaiz norabide horretantxe aurkitzen zoriona delakora gehien hurbiltzen dena. Zorte handia da hori, zure babes-premia hertsirik gabe gelditu naizenean ere, zuri eskertzen jarraitzeari utzi ezin diodana. Izan ere, itzuleraren jomuga zehatza eta jakina den bitartean, joanaren norabideak hain dira infinituki ugariak ezen aurkikuntzaren nozioa gal dezakezun. Maite dut bilaketa aurkikuntzarako metodo bezala (agian bakar, segurki emankorren), baina bera bizi-jarreratzat aldarrikatzen zutenei buruz, ezin nuen susmatzerik ekidin ez ote zuten bilaketa goraiatzeko egoera aurretiaz segurtatu batetik. Ulertzen dut bizitza osoa bilaketan ematea ezer aurkitzeke, baina ez aurkitzeko intentzio gabe. Beti izan dira gogo irudipentsuak, zentzurik askeenetik ere eskluditzen den extrabagantzian zoriontzen edo zoritxartzen direnak, baina horiek

bitxi-loreak dira, bide-alboak eternalki berdin apaintzen dituztenak. Espezie bistosoa, eboluzio gabea. Zoroak ere berdinak diren antzera, osoak badira, Grezia zaharrea zein Bilbo berria.

Baliteke kanporanzko joera oro ere zentzugabea izatea. Nago historiak ez daukala ematen zaionaz beste zentzurik, edo berdintsu dena, ondoren bakarrik mintza daitekeela norabideaz. Horrek joanbide posibleak adina aldiz berresten nau, ene etxe, zuganazko norabide bakar, baina dohatsuki segurrean. Unibertsoak etorkizun eternoa izan dezake, egia bada espantsio etengabea doala, nahiz eta orduan ez dudan ulertzen grabitateak zertan agintzen duen. Egia bada, oster, biltzen ari dela, eternitateak gaizki behar du. Eta biak batera egiak balira? Ez zait posibilitate hori ulertezinago iruditzen, beste bietariko edozein banaka baino. Eta guri zer? Irauzu ahal duzuno, ruina bada ere, eta gero zeuk erabaki, nire hondarrik kontserba bazeneza, unibertsoari zer patu esleitu. Orain, daukaguna daukagu, eta ez da berau batere dohakabea, hunkitzen bainau zugaz honen konfidentzialki mintzatu ahal izateak. Badakit meritua ez dela nirea, zurea baizik. Itzuliko naiz zugana, ahalik lasterren.

Sentimendu hauek guztiak lehen ere banituen zutaz, ene etxe, baina ez nintzen deklaratu ausartzen, gizakideengan jelsiarik ez sortzearen. Oraingo aitortza tolesgabe hau ez da, haien faltan, zerbait nortu behar nuelako, gutxienez, bikote izan gintzen, baizik orduan zuganako maitemina uste nuena orain izate-min sentitzen dudalako. Maitemina gorroto ziztrin batek hauts zezakeen, edo errutinak, arruntki, baina nola libra ninteke zuganako dependentsia izatekotik, zu gabe ez baitakit sentitzeko ere gauza izan nintekeen? Derrigorrak narara, derrigorrak nakarke. Iraun zutik eta egizu lo, ene etxe, bueltan atea jo dezadanean, fresko itzar gaitzen.

Banoa Oiz mendirantz neure Man-ean, neure mozorro defentsiboagaz, bidean alto emanez gero, atzean hilketa mordoa dakardala pentsatzeko moduan. Beherago eta kirats agresiboago nabari da, kamioiaren higuin-korroskadak ez badira.

Mendira esan dut, baina ez ote da hobe izango itsasertzera? In medio putor. Hau gozamina errepide nagusira haurra eskolatik bueltan bere logelara bezala oldartzea, stopak, maletak, marak, harrika jaurtiz! Lekeitorantz? Kamioiak, zalantzan, errazena egin du: beherantz. Ibilgailu guztiek daukate mania horixe. Ez dago gaizki. Kasik hobe dut Urdaibai itsasadarrean abarotu, edertasun mitologikoei men eginez. Berriz behera, autopista azpirantz hurreratu ahala, alboetara begiratu nahi ezta noa, ikuspenak ez diezadan kiratsa begitik sar. Ezin ekidin, hala ere, asto etzan bat erreka gaineko landan belez inguraturik ikustea. Fenomenoak gizarajoa katean harrapatu zuen, antza. Beldurtu nauena ez da bera. Ohitua nago astoa desanparoaren abangoardian ikusten. Beleen bilkurak ikaratu nau. Hegaztiok banekien maleziarik handien eramaile zirena, baina ez horren sarraski-jale. Haragi bizi jale bihurtzea otutzen bazaie, neu bakarrik geratzen naiz, belea misterio sinestroen erakarletzat zeukatenen artetik. *Ederra daukak Oizko mendian, euren legenda baltzagaz asoziatzen bahabe, 'Oizko beleak Oizera'*. Kamioi ondo itxia paretik pasatzeak ez dirudi arretatu dituenik. Aspaldiko partez, errepide baketsua inbaditzeko aukeran, pozik dirudite elkarren kontrako albokadetan. Beleen arima zuriak, zenbat eta zarrapasta trinkoagotik, hainbat etekin handiagoa itxaroten du.

Urdaibaira joango ete nok, han kaio vikingoek narrutu naieen? Badut dohain bat erasorik imaginarioena iminentzia errealtzat sentitzeko, hartatiko defentsarik imaginatu ezin badut. Belek ez nau inoiz ikaratu, banaka edo dozenaka. Denak batera, pentsatzeak ere dardaratu egin nau. Badut beste dohain bat, dardara despotikotik berehala deskargatzen nauena, *tentela haz ala?* bezain autoburla simple bategaz. Heriotza seguruak baino tenteltasun posible batek gehiago eragitea ridikulua da, baina metodoak balio du. Garaiko bidegurutzearan, kamioia agindu gabe geratu da, *nora goaz?* galdezka. *Urdaibaira ala Oizera?* Agindu gabe abiatu da berriro, Garairantz, Oizerantz,

astiro-astiro, zalanzkor bainoago ezarian, aldendu guran dabilen mutikoa *nora hoa?* entzuteko beldurrez bezala. Ibilgailuari arrazoia damaiot disimulan. *Urdaibaiko itsasadarra Oiztik be ederto ikusiko joagu.* Egoera larrietan, urruntasunak babesgabeago utziko nindukeela badirudi ere, funtsean, etxeak lotzen nauela esango nuke. Beragandiko dependentziazik laxotzen ikusten banau, eskusibitate amorosoan atxiki gura izaten nau. Ikasle maiteak karrera amaitu dion irakaslea bezala, zeina, haren desagertzeak beranduegi ohartarazirik aurreko harremana eguneroko ikuste akademikoa baino zerbait gehiago zela, hura berratzikitze ahalegin gaixoberan oldartzen den, nota gaintituak anulatuz.

Garaiko aldasgoran noala, eskuin goian ageri den Andikoako elizaldeak azken agurra egin nahi dit, garbi ez da ausartzen baina. Harago, ostean, bistan ez baina garbi dakusdan etxeak ez dauka dudarik itzuliko naizena. *Zelan ez naz itzuliko, ba?* –diotsat Andikoako Ama Birjinari–. *Ezin deusut abandonoagaz ordaindu, gaztetxotan, beste guztiena galazota neukanean, zutaz maitemintzen utzi izana. Zeuk be lagunduko deustazu itzultzen, ezta?* Ama Birjinak badaki ez dudala beste emakumeekiko lehian sartuko. Maria Magdalena Jesukristoren umeen ama delako eta gisako argikuntzek ez naute xarmatzen. Pertsonaia horiek, ebangelioek aurkezten dizkiguten moduan, askoz sentsualago atzematen ditut. Misterio dibinoetatik libratzea lortu dudanez gero, ez eidazuez orain misterio humanoak puska. Ez dakit errezuan ala delirioan nabilen, egoerak edozer justifikatzen baitu, baina hunkigarria da norbere buru mutikoaren ondoan belaunikatzea. Garaiko plazan, oporreatatik itxita dauden antz osoa daukaten jatetxeen artetik ezin dut pasatu, hainbeste atsegin xalo ebokatzen didaten koplak kantatu gabe: *Garaiko plazan otie loran, Ermuan asentzizjue, jantzan ikasi gura dabena Barruetara bejjue. Garaiko herri jagijje, jantzari-jantzien gloriije, hankie gora jaurti neban da, bertan geratu zen ijje.* Azken baserriak atzean utzi (*Barrueta hori zein ete dok?*) eta kilometro bat gorago (altuera, bostehun metro), baso-etxetik hurrengo zuzengunean geratu eta jaitsi egin behar izan dut, haranaren gainetik, begiek Anboto katean atsedean har dezaten. Aitzakia panoramikoa, sakoneko arazoari zuzenki aurre egitea atzeratzearen. Gari-jotzaileen mozorroa kontuz-kontuz jaso dut, azalari itsatsia bailegoen, erreginari gona altxatzen nionean bezala, berak ez igartzeko moduan. *Bajagok? Ez jagok?*

Zalantza lorpen handia da, segurantza abailgarritik zatozenean. Metodotzat ere baliosena ei denez gero, mozorroa berriro jaitsi eta aurrera darrat beragaz (zalantza itsaskorragaz), Laubidetako zelaian zalantza hirukoitzagaz topo egin arte, non bideak hiru adar hartzen dituen, erdikoa aurrerantz (lege sozial guztien aurka), ezkerrekoa San Kristobalerantz, eta eskuinekoa Etxebarrieta auzorantz, ekarri nauen atzekoa ahaztu gabe. Une hauexek dira, maiteen ditudalako, luzatzen saiatzen naizenak. Oinez banator, gelditu. Zaldiz edo berebiler bada, jaitsi. Airez bada, salto egin eta hegazkinari joaten utzi. Egunen batean, etorriko ahal naiz barkuan, orain horiek ere libre egongo baitira. Zalantza dohatsuak nahi adina dirau, hiru bideak berdintsu on ageri baitira, on-on. Ezin dut aurrera jotzerik erabaki, bide baten hautuak besteen arbuioa eman ez dezan, abadeak, umeon fedea mortifikatzearen, galdetzen zuenean bezala:

– *Bat beharrean, zein hartuko heunke? Aita, Semea ala Espiritu Santua?*

– *Nik triangelua, jauna* –erantzun zuen neskatoak, bi pertsona eliminatzearen beldurrez.

– *Zer don hori?* –haserretu zen abadea.

Neskatoa gehiago estutu guran zebilela pentsatzen gelditu izango ginen, gero jakin ez bagenu abade hura karrera laburretik iritsi zela aldarera, geometriarik ukitu gabe. Ez da nire oraingo egoera, estutzen barik zabaltzen ari bainaiz, baina, oro har, txarrena da ezen kostata hautaturik hartzen den bidea, nire kasuan, behintzat, bera irten ohi dela galtzaile, handik beste bideetara begira joaten bainaiz. Pretensio susmoetatik libre, denei lasaiago begiratzearen ezkontzen dena bezala.

Ehun bat metro altuago igoak garen arren (garen, noski; hemen izakiak ugaltzen ari dira), mozorro usaintsua jasotzen ez naiz ausartzen, hemen ere zalantza ezin argiturik, falta den mendizatia nahikoa izango ez ote den dudaren beldurrez. Gailurra bertan higuinez hiltzeko harrapatzea patetikoa litzateke. Erdiko bideari heldu diot (susmatzen nuena, bestalde, zalantza guztien azpitik), eta banoa Arramingo etxolarantz, oinez. Kamioiagaz arriskatu aurretik, zorua nola dagoen ikusi behar dut, ez atzera ez aurrera geldi ez nadin. Gorago, Gandietako aterpea bakarrik geratzen da mendi bizkarraren beheragunean. Han ere kiratsak jarraituko balu, Oizko antenetara probatzea besterik ez legoke, non ere haizea ustel baletor, zalantzak amaituak liratekeen. Amaituak erremedioak ere. Ezin dut, ordea, neure burua izutzerik lortu, eta Urrestiko iturrian, mahaiak eta sutondoak zabal dauden hariztian, gelditu beharra daukat, beti egin dudana haustek norbait irain ez dezan, esana baitut, hemen, gorago eta gehiago garella, iturriari kateaturik darraien txolet mailatua barne, hau detailea! Ni txorrotik hara ohitu naiz beti, eta barkatuko ahal dit prebisio amable hori utzi zuenak. Hobeto pentsaturik, ur trago inertzial bategatik, muturra desbelatzen arriskatuko ote naiz?

– *Beherago egin badok, gorago zergaitik ez?*

– *Han marjina handia zegoen. Hemen itxaropenaren azken kotetan gagoz.*

– *Popatik! Ur freskoak merezi jok inpernu bat.*

Mozorroa kendurik, kolonia usainak darrai, hotzegiagatik ahoan bueltaka darabildan uraren metal kutsuagaz. Ez dago ezer, erreka-hotsak dakarren betiko oihan-usaina aldatzen duenik. Zaldiek, behiek, ardiek eguneroko bat gehiagori bezala begiratzen didate, hots, batere arretarik gabe. Okilak bere alarma esporadikoa eta beti bezain distantea jo du, areago sasoiari mantentzeko, arriskua salatzen baino. Mozorroa askatu dut, inauterietako dantzalagunagan neuk nahien nuena identifikatzen ez bezala, ez baitzen segurua bera ni ezagutzeaz poztuko zen. Mozorro gabe, askapen sentazioa hain da brutal, hain da mortala, ezen eseri beharra daukat, ikuspegiaren nobedadeak zorabia ez nagan. Minutu dardarati batzuen buruan, egoeraren lehen kinka larriak gaintua dirudi. Hanka hustuak indarrera itzuli direnean, astiro eta emozioz, beherantz abiatu naiz, oinez, kirats mailaren bila, joanago eta urrunago aurki ledin mirariaren leihan, kimera handietan bezala. Oizko pista luze eta suabeki erripeatan, kota-metroak jaitsi ahala, mendia irabazten noalako sentipen triunfalak hanpatzen nau, nork esango luke, ohiko konkisten alderantziz. Edo Basajauna lehenengoz jaitsi zenean bezala. Ez dakit honela izango zen, baina mitoak norbere sentierara egokitzen sortu baziren, hauxe da inkarnazio unea, jaun hori ere besteen atzetik joan ez bazen. Olentzerok urtea inguru honetantxe igarotzen du, ikatza eginez pipa erretzen, tradizionalistek alderantziz nahiko lukete baina.

– *Aita! Amodioan dihardugula, arrosarioan jarraitzea irreberentzia al litzateke?*

– *Ez, alabatxo. Ernalmena santifikatzea don hori.*

– *Ba, gure gizonak alderantziz egin gura izaten dau.*

– *Hori ez! Honeek gizon zikinok!*

Beherantz noala, bihurturik, pinadiak, hariztiak atzean geldituz doaz gorantz. Ez da usain arrarorik sumatzen. Laubidetan utzitako kamioiak, bistaratzen, txera kankailua baina subtila ageri du, irribarrea bezalakoa, berri onen adierazle. Objektu mekanikoen sentimendua leialagoa da. *Zer dok, horren pozkor?* –galdetzen diot, iristean, mutur txatoaren ertza ferekatuz–. *Bai, bai! Ez eidak esan!* Lehen, egia txarraren beldurrez, mozorroa kentzen ausartu ez naizen bidegurutzean, ez dago kirats izpirik. *Oiz guztia neurea ete dok?* Ezin dut ekidin ijuika eta jauzika hasterik, umetan, ezuste atseginen bat jasotzean, etxe osterari aldendurik egiten nuen bezala, txakurra ere horretan laguntzeko prest beti, batzuetan ikaritzen zen arren, zoroak eman ote zidan. Nire bakarraldiak mugatu dituzten hornei edo mugagabetu dituzten oihanei kontagarri irudituko balitzaie, honelako eszenak ilaran letozke, orain baino motibo txikiagoz. Izan ere, nire gurari inkonfesablea Oizko Etxebarrietan, hiru

etxeke auzune ebokatzailan, kanpatu ahal izatea zen, nahikoa egokitasunez gainera, bakartasunik altuena eta apartatuena ostentatzen zuelako. Nago kamioia uztetik goranzko jarraiera aitzakia bat besterik ez ote den izan, zalantzaren bildukin kilikagarrian, egiagarri zela banekien guraria luzatzeko, funtsean, horixe nahi bainuen: goitik beherantz, aspaldi abandonaturiko biziguneek pilatzen zuten nostalgia guztia, hemendiko ibileretan hainbeste aldiz hunkituki berritu izan dudana, astiro-astiro konkistatuz jaiste. Hemen nago, ba, nire fantasiak zirrarez imaginatzen zuen egoera egiazko bihurturik, nahiz eta imaginatua baino askoz era fantastikoagoan. Zer egin behar dut zoriona besarkatu besterik?

Kamioiagaz sartzeko eta eurt egiteko nola zegoen ikustera, pinadi gazte eta trinkoan zehar oinez, bidegurutzetik bostehun bat metrora iritsi naizenean, hiru etxeak azkenengoz ikusi nituen modu-moduan daude. Bide gaineko bata, Etxebarriurre, bizitzeko moduan konponduta dago, ortu eta guzti, labe eta guzti, asteburuetako ihesleku. Bide gaineko bestea, Etxebarriatzek, berrogeita hamar bat metrora, atzea jausirik eta aurrea jausi guran dauka. Habeen eta zutabeen erresistentzia borroka sasiak dekoratzen dio. Hirugarrena, Etxebarripe, bidearen azpialdean, tejabana handi bat bezalakoa da. Ez dirudi jausteko presarik daukanik. Bat-batean, erabat zauskatu nau, etxearen eta labearen artetik, landa goienean ageri den kako arropaz beteak. *Holako markarik!* Bi dobletan eskegitako izarek eta jantzi mota guztiek, haurtxoenak barne, haizeari iskinka dihardute, *zu hortik?, ni hemendik!*, alaitasun barretsuan. *Etxean ete jagozak, ba? Eup!* Atea jotzean, ez dakit golkoan taupada handiagoa entzun ez dudana. Inork ez du ireki. Eskerrak! Oraintxe baten bat agertzeari ez dakit bizirik eutsi ahalko niokeen.

Etxebarrieta mendi batek gorde dezakeela sinestea zaila den zabalgunea da. Apur bat behera-eginean, behinola eremu oparoa izanaren antz osoz, orain dena pinu ageri da. Zorionez, aurrealde guztia, atarian libre utzitako zelaitxotik eguzkiraino hartzen zuen pinadia, jota dago. Landare berriak joan den neguan sartua dirudi. Nortzuk bizi ote ziren hemen, antzina? Auzunetik beherantz, hurrengo etxea lekutan hondoratzen da. Gorantz zein alboetara, saien hegada besterik ez da. Umetan (baita geroago ere, adierazten ausartu ez arren), etxeen kategoria goieratik neurtzen nuen. Gurea altu egonik, mendikate berean gorago zeudenei (Bizkargitik Oizerainoko kate honetantxe, hain zuzen) benerezioz begiratzen nien, batez ere, eskolara jaisteko baino urrunago zeudenei. Hauen izaera ahalguztiaren mailan zegoen nire buruan. Mendikate berean esan dut, gure etxetik ifarrerantz zein hegoarantz hedatzen ziren haranez handiko mendiak parean edo beherago bainekutsen, inpresioa eta errealitatea bereizteko premiarik ez gogorik ez neukan sasoiari. Nire bizitzako aurkikuntzarik tristeenetarikoa egun pozgarri batean gertatu zen. Osaba tratulariari behia eta txahala eramaten laguntzeko irrikaz egona nintzen Bizkargi mendiko baserri batetik, gure etxea beherago ikusi nuen. Etxera itzultitakoan, nire sortzetiko gaintasunak laster ezabatu zuen dezepzio esporadiko hura. Berriro dena beherago ikusi nuen. Goieraren lilurak pitzadura gabe jarraituko zuen, hamabi urte nituela, Derioko seminariotik Sopelako hondartzara txangoan eramanez gintuzten arte. Han agertu zitzaidan ikuspena ere ahalguztiaren mailako atzeman nuen, goieren eta itsasertzen artean, sentimendu-dema biolentoa abiatuz. Jatorriz, *Oizko beleak Oizera* sentitzen nuenari *Itsasoa, maitale asegaizta* delakoak ez baitzion zorrik, bitartean ziren izaki guztiak errukarrien samaldan kontsideratzeko zalantzarik ez nuen izan.

Etxera sartzean, animaliek inoren habia zapaltzean egiten duten berbera dagit: begiratu, usnatu, haztatu. Haiek baino astiroago, noski, adimena sena baino lentoagoa delako, edo haiengan nostalgia atzeratzailezik ez delako. Susmatzen dut arrazoia. Haiek territorioaz jabetu nahi dute; nik neure buruaz, neu bainaiz espazioa. Bilakaera horrek denbora behar du, amaigabeko espazio preexistentek berriari nola batzen zaizkion sentituz gozatu nahi bada. Etxea garbi eta ordenan dago, nire lehen ezaguerarentzat idealizatua izateko eran, harik eta, zokondo guztiak oroimenez kargatzea amaitutakoan, izaki nordun bihurtu den arte, etxea ez baitute hainbeste janzten objektuek,

nola sentimenduek. Eta suak, berehala egitea pentsatu dudanak, behe-suan eta txapan, bietan. Baita etxearen umea dirudien labean ere, amari ihes egingo, ez egingo, duda bihurrian. Asentamenduak guztizkoa izan behar du, ezin baita jakin zer ustekabe sor daitekeen. Ukuiluan, kurioso pilatuta, egur ugari baitago, etxe inguruan ereugarria besterik ez dela, nola eutsi sugintzaren giza plazerrik handienetarikoari, beharbada, espezifikoa delako? Sutara hurreratzeko konfiantza gozoa irabazi duten animalia mimosoetan ere, ezein ez dut surik pizten edo putz egiten ikusi. Neure zeregina da hori; neure zoriona. Ortuko porruak eta ganbaran aurkitu ditudan patatek etxe-estreinu totala berretsi didate, porru-patata lapikoa martxan ipini dudanean. Inoiz, bidaia luze eta uste baino beti garestiagotatik bueltan, janari lehenik deigarritz, azkenean okagarriz gogaiturik, etxean mendekatzeko amorrua genekarren porru-lapiko huraxe bezalakoa, garbi-garbia, angelikala; garai batean, gosearen bizioa gatzean biziturik ematen zuena. Gaur saiheski zati eder bat sartuko diot, behinolako egun handien berritzapenez, edo geroagoko ugaritasun sinest-zailaren oroimenez. Arratsalde erorkorraren minberan, pozik konsentitzen dut jarduera honen guztiaren gainera tristuragandu bat zabal dadin, zeinak edertasuna ez dakit handitzen, bai barnatzen duen, maiteminak baino sakonkiago, nor jakin.

Gaurko afari-buelta ezagueratik honako arrats dohatsuen sintesia eta dohakabeen antitesia izango delakoa daukat; nire oroimenak ez du neutrorik erregistratzen. Porru-lapikoaren gainetik, atera ditut urdaiazpiak eta solomoak, eta latarik deigarrienak; atera dut ardotxoak ere, neurrian oso ona ei dena, nire neurria zein den baneki. Honela bizi behar al dut eternitate guztian? Arrosarioa errezatzeko gogoak ematen dit, “etxe honetako defuntuen alde”, Ama Birjina muzintzeko beldur ez banintz. *Orain gogoratu jak arrosarioa, abadetzan, eliztarrak gramofonoan utzi eta heu Athletica ikustera joaten hintzena?* Ez dut errezatuko, Ama Birjinagaz ondo konpondu izan bainaiz beti. Ez zait gustatzen harenganako zakarkeriarik, gustatuko ez litzaidakeen moduan Marijaiaz edo Maritxukajoiz burla daitezten. *‘Bizkaiko bazter baten, Anboto partian, gizon bi bizi ziran baserri batian’*. Historia aukerakoa neuretzat ere, Anboto Oizez ordeztuta. Gizon ‘birena’ laster hornituko da berez, botila-ipurdia bistara dadinean. Kirats hilgarriak bazter samurragora eta zorion handiagora ezin ninduen ekarri.

Noizbait, gaua lagun dudala, eta ilargi erdiak osoak baino argi biribilagoa egiten duela egiaztatu ondoren (egoera berrietan dena intensifikatzeko daukadan grinagatik ez bada), museo txiki bat dirudien logelan nago, antzina-kutsuak dena penetratzen duela. Ohe eginean sartzeak atzerakada ematen dit. Nor ote zen bertan etzan zen edo berau egin zuen azkena, biak bat ez izana probablea baita? Galde nezakeen nor ote zen bertan hil zen azkena ere (edo lehenengoa eta bitartekoak), baina hori ez zait interesatzen. *Sartuko nok? Ez nok?* Baiezkoa bortxa intimoa bada, ezezkoa gogorrago egiten zait, sentitzen baitut haiei, bat ere motibo gabe, arbuio egiten diela nor eta, ohe apalagotik jaikirik, sardinaz bat *Historia sakratua*-ren orri artean sartu eta mendian behera eskolara saltoka joaten zen batek. Bere jatorri fisiko ia berdineraren itzultzeak hainbeste bihozberatu duen nire kontzientziak ulertu behar du, hala ere, orain ez nagoela leialtasun hunkigarriak edo momentuko bulkadak kontrajartzen hasteko moduan. Nire momentuan, etxetik ekarritako izarak daude, gogoak katramila sentimentalean ziharduen bitartean, eskuek ohera zabaldu dituztenak, bertakoak kendu eta zurezko besaulki kankailu, edergurak tronutar lerrakeen, batean tolesturik. Besaulki honetan eseri zen herenaitatik kardinala izan behar zuen, bere fortuna kezkarria ezkutatzera Oizpera iritsitako indianoa ez bazen. Indianoaren historia inbentzio ona izan da lokartzeko.

.....

Zaunka batzuek erdi-itzartu naute, gauaren zein puntutan nagoen ez dakidala. *Zer gertatzen jakok txakur horri?* Tonutik, ortziagaz teman diharduela dirudi. Gizarajoak ezin zuen bakez jasan ilargia laino artean hain bizkor lerra zedin. Atzetik jarraitu behar ziola bururatu zitzaion eta hartan

erotzen zen, zenbait animalari iheska doala iruditzen zaien edozer harrapatzeko sortzen zaien grinan. Hanka bikoak, ihesen bat aurkezten zaienean, gehienak apartatu egingo dira, batzuek jarraitzeari emango diote; hauek badaezpadakoak dira. Ziren! Gure txakurra, noizbait ihesfenomeno hartara egokitu zenean, hatzazal ebakia bezain mehe gelditzen zen ilargiak senetik ateratzen zuen, desagertuko zen beldurrez bainoago berriro handitzen hasiko ote zen erreminez. Hilgoran ez zion zaunka egiteari uzten, ispilu handitzaileen analogiaz edo. Ilargi erdiz gorantz, txakurra bat-batean baretzen zen, dama eternalki aldakorra bueltan berriro murrizteko zorira mehetu arte. Txakur gorriska elektriko hura hil zen, ordea. Barka. Neuk hil nuen. Gizarajoak katueria harrapatu zuen, beti haien atzetik ibiltzeko jenioa zeukan felinoen mendekuz. Muki apartsua, zuri-zuria zeriola, ia arnasarik hartu ezinik gelditu zenean, lege naturalak akabatzeko agindu zidan. Harotz-mailuagaz buruan jorik, haurtxoari lumazko ohea bezain laztanki preparatua nion orbelezko zuloan etzan nuen. *Txirri-k*, hala baitzuen izena, zertarako heldu nion igarri zuen, baina ez zuen erresistentziarik jarki. Heriotza kasik fededuna izan zen bere aldetik. Hark ezin du oraingo zaunkari hori izan.

Espetxearen eta ibaiaren bitarteko granjan, ondo gobernaturik egoteko afonikoegi dirudien txakurtzar baten zaunkek goizaldeko hiruretako errekontuari darraio. Itzartu gaituzte, badabiltza, badoaz; burdina-hots amaituek durundi mehatxuzkoa utzi dute airean. Zaunken tinbre ernegatua barneratzen gelditu naiz, etxeko ohean auzorik urrunengo zaunkak entzunez lokartzen nintzen berak direla pentsatzen saiatuz, batzuetan lortuz, miragarriro. Zaunka haiek lodiak eta zakarrak ziren, ordea, oraingo lagunkoi eta zolion aldean.

Atariko alfonbran lo jagok hori. Otorduak egiten ditudan tabernako txakur txikiak kanpaiak entzun bide ditu, herrian lo egingo duen azken abadea izango ote naizen, eta guardia egiten dit atean, abadetxean guardia zibila sartzen ikusi zuenetik. Alfonbra ere gustatzen zaio, noski. Jaiki eta esango diot inoren atetik zaunka egitea ez dela txakur-lege kabala. Baina hura ez al zuen trenak harrapatu, trabes bitartean ezkutatu zitzaion aingira bat atera guran?

Seminarioaren atzealdeko perretariko batean tokatu zaidan logelak eguzkirik inoiz sartzen ez den ostearen abantailak dauzka, ezkutua argia baino beharrago dutenentzat; eta bat gehiago niretzat, Sanroman morroiaren txakurrak neure leiho azpian lo egitea lortua baitut. Badaki isilik egon behar duena, gosaritan edo afaritan damaizkiguten hiru gailetak, neuk ere gustora jango nituzkeenak, berarentzat gorde ditzadan nahi badu, inoiz deskuidatzen da baina. *Egongo haz isilik? Hemen habilela igartzen badeue, heuk be txarrikortan lo egin beharko dok.* Hirugarren solairutik (gehi behe-solairua eta sotoa) gailetak patioaren kontra apurtzen direnez, lan luzea eta kurioa izaten du, azken birrinak zehaztatu arte. Niretzat, burutxo atera eta leihope ilunean txakurtxo bat sumatzea etxe-ilusiorik hurbilena zen, inguru infugabletik abstrahitzea lortzen banuen. Txakur hura, ordea, iletzan ezkutaturiko aurpegiatik *Sapa* zeritzona, Sanroman morroiagaz desagertu zen, gizona fulminanteki bidali zutenean, apaizgai zerbait-gurak, nerabe mutur-zorrotz baina guriak, sotoko gelazulo inpuneren batean, tengada batzuen edo pikupasen pozean, zeregin ilunetarako erakartzen ei zituelako. Beti susmatu izan dut, morroi euskaldun bakarra bera izanik, ez ote zen ikasle euskaldunok haregaz kongeniatzen ginelako mendekua izan, mentasun zuriegiko apaizgaireren batek, giza-zenbakien katalogo ginen hartan, ahal bezala nor izateko premiagatik txibatu zuen bertsio madarikatua onaturik. Hamaika ebasio atsegin bizi izan genuen haregaz, euskaraz egiteaz gainera, hiztun zorrotza baitzen. Niri, behintzat, inoiz ez zidan eskurik hurbildu, haren zigortzaileengatik berdin esaterik ez nukeen moduan. Txakurra ere beragaz ezabatu baitzen, oraingo hori ez daiteke *Sapa* hura izan. Bai, ordea, ezaguna, barrabana!

Izango ez da, ba, Txil baita! Gure Txilek, umeok ohera eta bera kanpora bidaltzen gaituztenean, etxe-bira zaunkaria egingo du hutsik gabe, *hau hau hau! hau neurea da!* pregoia joz.

Gauzez ez da sorginik pasatuko, hark salatu gabe. Bihar Etxanoko jaiak, abuztuko Andremariak. Goizaldean itzarturik, pozaren pozak ez dit uzten lokartzen. Zenbat gau amaigabe, pozaren urduritasunez, eguna noiz argituko zain, gero dena arinegi pasatzeko! Bihar, meza nagusiaren ondoren, jaietan herrira etortzen diren aurpegi berri ugarietara eta nobedade guztietara (komediantetara eta barkileroei, batez ere) ondo begiratu ondoren, eskola eta hilerri bitartean ezkutatuko naiz, neure gogoia oharren etengabe finkatzeko. *Hauxe dok, ba, eguna! Hortxe jabilzak denak! Hortxe jagok dena!* Esan eta esan, gero plazara itzultzean, ez da harritzekoa jardunean baino denbora luzeagoa joatea kontenplazioan, desoharmenean jausteko beldurrez. Hala ere, goiza arinegi igaroko da; baina orduan bazkari jaukala datorke amamarenean. Arratsaldean berriro elizaldera, erromeria eta dena; eta bihar Andremari bigarrena, egun osoan; hala ere, arinegi igaroko da dena, baina orain kostatzen zaio egunari zabaltzen. Leihora isil-isilik irten eta txakurrari kuzkuzatzen diot: *Txil! Zer ordu dok? Shh! Egik hortik buelta bat, ea inpernuko ihestunik badabilen!* Nire burua leihoan dakusen bitartean, ez da inora mugituko, azpitik komediante-zirkinak eginez.

Berriro ohera nator isili-isilik, amak txakurraren zinkurinetatik dena igar ez dezan. Gure Txil honek deabruak dauzka zer bakoitzari zaunka diferentea aplikatzen. Laguna bada, konpetentziazkoa bezalakoa da, gailena eta garratza; garbi bereiztuz pasaeran ala geratzeko plantan doan, hurretik ala urrunagotik, bizkor ala astiro, auzokoa ala guztiz arrotza den, andrea ala gizona, eskekoa ala guardia zibil bikotea. Animalietara egiten diena ez da hain agresiboa izaten. Asto edo behiren bat etxeko sorora sartu bada, hara-hona ibiliko da, ekinean baina desesperazio gabe, ostera bakoitzean esanez: *Jagi zaitze arto guztiak jan aurretik! Niri ez deust jaramonik egiten.* Azeriarena txit ezaguna izaten da, honek ihes egitean, zaunkak ere ziztuan urruntzen baitira. Azkonarrak senetik ateratzen du, ez baitio berak nahi bezala obeditzen, bai, ostera, sarritan aurre egiten. Ernegatuen, kirikinoagaz ibiltzen da; hain gauza txikia eta ezin heldu. Bera ere txikia da, katean amorratzen direnen aldean, zeintzuen etxeetara ezin dudana hurreratu prakak zirindu gabe. Gure *Txil* ez da beldurgarria, bai detektore infaliblea, azerientzako pozoian deskuidatu zen arte. *Zer darabilk, Txil, putzu zikinean edan eta edan?* Nahiago izan zuen itota hil, esteak erreta baino. Balientea izan banintz, jarraitu izango niokeen, baina koldarkeriak gero ere sarritan biziraungo ninduen.

Oizko Etxebarrietan ilun dago. *Txakur horrek ezin jok Txil izan. Orduan zein dok?* Txiskeroagaz erlojuari begiratu eta goizeko hirurak dira. Zaunkaketak zoli baino erregukorrago darrai. Leihora irtenik, ez dakust ondo, ilargia joana baita. Gasezko kriseiluagaz jaitsiko naiz. Atea irekieran, a zer sustoa, paparreraino saltatu zaidanean! *Ernai! Zer egiten dok hemen? Zelan topatu nok?* Auzoko animaliak askatu nituenean, honi ere jaregin nion eta, ohi bezala, tximistan alde egin zuen auzobidean zehar, ordu laurden barru, hori ere ohi zuen bezala, itzul ez zedin desiatuz, nahikoa zeregin bainekuan neure burua egoera berrian kokatzen, ezer funtsezkorik aldatu ez zitzaion izaki txilibrin baten kikimeretan entretenitzeko. Joan zen eta ez zen itzuli... oraintxe arte! Bere altuerara belauniko, zorrotean daridan malkoa mihizkatzen ezin diot galarazi. Ikus gaitzakeenik ez badago, gaua bada, urtzen ari banaiz, zertarako sufritu behar dut samurtasunari eusten? *Badakik zer egingo dogun? Motxila gauza gozoz bete-bete egin, eta Oizko tontorrera igon.*

.....

Haitz puntarik gorenean eserita, Ernaik antena-etxola guztiak usnatzen dituen bitartean, mirakuluaren zain nago. Hauteman daitekeen mirakulurik handiena, segurrenik, unibertsoan izan daitezkeen handiagoak nire zentzumenentzat inexistenteak baitira. Ziur naiz badirela bizidun adimendunen estadio aurreratuagoak, agian krudelagoak ere bai, baina, zorionez, unibertsoaren garantia nagusia inkomunikazioa da. Osa dadin zain nagoen agerpenaren antzekoak miresten, milioika bazterretan egongo dira nireak baino begi ahaltsuagoak, baina zer? Zertan aldatzen du horrek nire posizioa unibertsoan? Itsas horizontea hasi da argitzen. Horixe da ikuskizun bat, oskarbi

zein ortzilun, berdin txundigarri jaikitzen dena. Tontorrek hasiak dira etzanetik esertzen, nagiak ateratzen, zutitzen, luzatzen.

– *Kaixo! hor haz?, hementxe barrero be, betiko lekuan, betiko moduan, betiko sasoian, ondo lo egin dok?, gaur eguzkia umoreko datorrela jirudin, pasatuko jakok, haranetan nobedaderik?, trenak geldi, ez jagok presarik, Bilborantz ilun?, han oraindino gaua, hik ez al don kamisoirik erantzi behar?, pinua dok barren!, hasiko al gozan zenbaketan?, Jentilatx falta dela uste joat, eguzkia biribil-biribil jatorren, gaur be ez jagok milagrorik orduan, egongo al zarie isilik?, txoriak bagina be!, altza, hi!, Aramotz-katea puntaz behera?, itsasoak su hartu jok, lehertu daitela!, arraroagoa don eguzkiak itsasotik sutan urtetea, alboratu hadi apur bat, ez joat ondo ikusten; mogi hadi heu!, azkenean zer? denok gozak? denok hementxe.*

Lehengo munduko ia ezer errekonozitzen ez dudan aurrerapen honetan, bai oportunoa behi bat txizaginan ikustea, umetan ohi nuen berdin-berdin. Hurrengoentzat ere, berdin-berdin. Hantxe. Gasolindegi bat aurkituko duzu errepide kontran eta... Non aurkituko dut, ba? Txarakan? Goroldio gorriskak haitzean, bide-seinale engainagarriak, hain berdinak, hain berdingabeak. Ez dakit zergatik tematzen zaidan gogo aurreko ibilaldian zoko jakin batean utzitako makilagaz berriro basoratzen. Lorratzak nonahi utziz joan behar dut: bi anpor elkarren gainean; bi adar, korapilo eginik; metal ura jaisten den harrian gurutze bat. Nahiz eta ez izan gehiago bertatik pasatzeko asmorik. Beharbada, horixe bera, baina era itsaskorrangoan dagiten bareak txikitan jan izatetik harako bizioa izango dut. Atzerantz begiratu duzu eta, orientazio ez exaktoan, horizonteko hodei batean, Udalatxen erreplika berdin-berdina dakusu. Hurrengo atzera-begiradan, hodeia desagertu da, eta Udalatx bera dager. Ez zara errakuntzaz ohartu. Kanporako grinak aurrera narama, kanporago, kanporago, eta ez dakit nola gehiago kanporatu, bueltan ez dakidan bezala nola gehiago barruratu, beharbada, urrunegi kanporatu naizen arranguraz. Ez daukat bidaia-grina handirik, leku guztietan neure burua baitaurkit. Zenbat eta leku ezezagunagoa izan, hainbat akosanteago agertzen zait bera (neure burua), izularriak emateraino, etxea gaua baino urrunago sumatzen badut. Ondoan, neure betiko lekuan ihes egiten diot neure buruari. Igarri ere ez du egiten joan naizenik. Kanpoetan ezin dut ihes-plantarik ere egin, horrexen beldurrez, hain zuzen, txittoa bezala jarraitzen didalako.

Eguzkia hasi da zuzen begiratzen ez uzten. Bai dela zoragarria begiratzea, metaforarik gabe, deskribatu beharrik gabe (*eztok, Ernai? Hiretzat horizontea niretzat unibertsoa lakoa izango dok!*), adierazteko ardurarik gabe; ikuskizuna norberak edertasun bihurtu gabe, hartzailea bitartekoaz gehiago txundi dadin, fenomenoaz baino. Bakartasunak fenomenoagaz bekoz beko utzi nau; bestela, hortxe ekingo niokeen burua apurtzen, hitz egokien, konparazio zirrargarrien bila. Artistari gutxien ardura diona fenomeno dela uste dut, bere despleguaren motibotzat ez bada. Poetak errealtatean sakontzea dioenean, hartatik libratzea esan nahi du. Libratzen, gainditzen, harainditzen diozuno, loriatu egingo zaizu. Irteten, saihesten, eskapatzen esan baduzu, haserretu egingo da. Poetak oso infantilak dira; sinonimoak aldatuz engainatzen dira. *Horrek kaka dauka!* esanez, barea eskuetatik kendu eta urdai-azala ematen zidatenean bezala. Ez nago ziur bakartasun osoaren efektupean nagoen. Inori kontatu ezin izatearen abantailak baino gehiago, nago ez ote nauen ekarri noizbait kontatu izanak, Oizera egunsenti bila natorren bigarren aldi hau nekez gertatuko baitzatekeen aspaldiko hura gabe, non, tontor honetatik itsasoraino jaisten den Lea Ibarreko Gizaburuagan abade nengoela, San Joan batez etorri nintzen, eguzkiak, egun horretan, irteeran egiten zuen dantzaldia ikustera.

– *Eta ez da guzurra!* –predikatuko nuen hurrengo igandean–. *Neuk ikusi dot eguzkia dantzan, olatuek alboetarantz tiratzen eutsiela. Guztiz aireratzea lortu ebanean, ahozpeztartzen ahalegindu zen, itsatsi gura jakozen olatu aztoratuak baretu guran. Hori guztia San Joan goizean bakarrik gertatzen da, luzearen luzez, goizeko kontuak gauerako ahazten diren egunean.*

Gaztea nintzen, idealista nintzen; edertasunaren bila, zegoen lekura joan behar zela sentitzen nuen, bitarteko gabe. Funtsean, desafio enkubritu bat ere bazela uste dut, dimentsioak argiegi zehazten arduratu ez banintzen ere. Ez zen, abade baten aldetik, era gautar eta kasik eskandaluzko hartan, mitologia pagano baten baiespen susmagarria. Horretan, aski itzal publiko irabazia zuen On Joxe Miel Barandiaranek, antropologia ia bere buruaren osagarri bat gehiago bezala ikertzeko adina bizi izan zenak. *Gure mendiak zerbaitegaitik dagoz kurutzez eta baselizaz koroaturik, han aurkitzen den edertasun dibinoaren autorle*. Esaldi inofentsibo hori kristau batek ulertu zuen moduak ikaratu ninduen, gero kanpoan jaulki zidanean: *Berorrek esan gura ebana zen kurutzeak eta baselizak sobra samar ez ete dagozen han*. Ikaratu ninduen, zeren, neure sentierak ere interpretazio hartarantz tira zezakeen arren, nire asmoa ez zen fede-gatazkarik sortzea, Jainkoa bere obretan agerraraztea baizik. Obren balioespena nabarmenduz, jakina, izadia bera gailendu nahi nuen, Jainkoaren obra izatearen autoritate guztiagaz. Lurra, itsasoa eta bizidun guztiak, gizakia barne (azken batez, Euskal Herria eta beronen gaineko guztia), erreskatatzeko modu bat zen, egitura estutzaile, hustutzaile, ustiatzaile guztien aurka; erakunde erligioso, politiko eta sozialen aurrez. Bide batez, esango nuen bibliako unerik argitsuena, beharbada, Jainkoa errepresentatzea debekatu zutena izan zela, hain izaki neurrigabe, ikustezin, ukiezin, pentsaezina irudietan materialtzea profanazioa izan zitekeelako.

Filosofian aspaldi sasira jaurtia nuen labirinto metafisikoan, panteismoa izango zen, segurrenik, ez dakit kontzepziorik egiazkoena, baina bai nire sentiera oprimitua gehien hunkitu zuena. Abade-lagun patriarkal bezain gaztegin eta temazale batek erasango zidan:

– *Hori panteismoa ez dok?*

– *Ez da bera txarrean* –onartu beharrean–, *oh! gauza ulertezinei antzina agur eginda nago* –erantzun nuen–, *antzina utzi neutsan zer ulertezinagaz denpora galtzeari* –erantzun nezakeen moduan, galtzea denboraren erabilera on bat ez dela ziur banengo.

– *Laster esango dok hik Jaungoikoa be ulertezina dela* –tentatzen jarraitu zuen.

– *Hara, ba! Zeuk esan dozu!* –gaineratuz, haren zintzotasun fededuna mintzea baino gurago izan nuen neure sentiera sotila agertzea, zeinetik, bestalde, geroztik ez nintzen askorik aurreratuko: – *Nire adimenak badau jakiteko beste argitasun ezen ez daukala gaitasunik ulertezina ukatzeko.*

Politeismoek, panteismoek, zernahitasun jainkotarrek, sineskera naturalak ziruditen, giza adimen edo sentimenaren eskuerakoak. Monoteismoa errebelaziotik bakarrik etorri zitekeen. Inposiziotik, beraz. Ni ez nintzen bihurgune horietan sartzen. Egunsentiaren mirakulua, fenomenoaren immensitatea aldarrikatzen nuen. Ondorioak, nahi zuenarentzat, neure burua barne, berez etorriko ziren. *Jaungoikoa leku guztietan horrela badago (baita zeure pekatuan be, zehaztuko nuen), zertan gabilz elizara etortzen?* planteatzen zuenari erantzungo nion: *Jesukristok zerbaitegaitik jaurti zituen elizatik kanpora*. Garai apasionantea zen hura, oraingo Oiz tontorretik begiraturik, osagarri ederrak bakarrik gelditu zaizkiona, hain ederrak ez zirenak ere gogoratzen ez dago zail baina. Gero komisario erligiosoren batek (ordu hain ugari ziren abade edo fraileetariko edonork) maiseatuko zuen Gizaburuagako abadeak predikatu zuela egunsentia mirari handiagoa zela herrenak ibiltzea baino. Gizaburuagako abadea defendatuko zen esanez Oizko tontorrera ez zela herrenik iristen.

Nire parean metro batzuk beherago, erripa zeharkatuz doan artalde txiki bati begira (eurek ez didate begiratzen; egoera ez da, beraz, alarmantea), harritu naiz ardi bat herrenka ikusteaz (honek bai begiratzen dit, atsedean aitzakian, segurrenik), mendian herrentzea erraz den baino zailago delako saiek halakoari berehala ez erasotzea. Orain, haraneko sarraskian zer-guran dabiltzan seinale ez alarmantea hori ere. Txakurra badator bueltan, antenei eta beheragoko errota eolikoei banan-banan txiza eginda; denei egitea gutxiago kostatzen zaio bat egin gabe uztea baino. Neurgailu zehatza behar da, hain maskuri txikitik hainbeste zirriztada banatzeko. Mihia luze eta harro

astintzen du, bazter guztiak errenditurik utzi balitu bezala. *Zer gura dok? Beherantz? Utzidak, lehenik, neure izateari begirada osoa botatzen, bira guztian.* Ez dirudi gaizki iruditu zaionik, edozer ondo iruditzeke aldarteari esker, segurrenik.

Oiz ez da mendi garaiegia (1029 m), baina gutxi izango dira hain ikuspegi oso eta urruneko gailurrak. Beharbada, neure bizialdi guztia biltzen duelako iruditzen zait mendirik unibertsalena. Hantxe dago neure jaiotetxe Torreburu, bertotik Bizkargirako katean. Hantxe dago neure jaioterri Etxano, eta neure uri Zornotza. Hantxe dago, harago, Derioko (ai ene!) seminarioa, nondik Oizera begira hamahiru urte antsios igaro nituen. Hantxe dago Bilbo ere, trenak eta autobus guztiak bertan hasten eta amaitzen zirena, eta hegazkinak albora bidaltzen zituena, hondakinak bailiren. Hementxe dago, hegoarantz, Durangaldea, orain bizi naizena. Hortxe dago, iparrerantz, Bizkaiko Golko guztia markatzen duen itsasoa, nire abade-sasoia kresalez eta txaraka usainez bizitu zuena. Nire bizialdiko atal garrantzitsu bakarra falta da hemendik: Zamorako espetxea; zorionez, Oiztik ikusi ezin dena, handik hau banekusen baina.

Goazen beherantz, Ernai. Astiro-astiro. Hik segi, gura badok, bizkor-bizkor, hoan bakotxean etorritz, orain dena dok geurea eta. San Kristobal baselizako zelairantz jaitsieran, aurrez aurre, nire umezaro eta gaztaro guztia datoz, doaz, barreneko Maumatik hasi eta, Astei eta Muniketan zehar, isurialde batean Etxano eta Zornotza, bestean Ibarruri eta Gorozika dituen jaiotetxeraino, nondik panoramikak, Boroa mendien gainetik (*zentral termikoa geldi ete jagok?*), Txorierrin uzten nauen, Derioko seminarioan. Hemen eurt egin behar da, hurrengo saltoan hilerria baitago, non Bilbo handia errendituki zetzan, marmolisten mailukadek zizelkatzen zuten bakean. Sentimendu gehiegi eta handiegiak, aldasbeheran estropozu gabe eramateko, bat-batean, arreta espansiboa Erletxetara bildu ez balitz. *Hik horrelakorik ez dakik, eztok, Ernai?*

Lau apaizgai sasoiko Berrio jatetxean askaltzen ari garela, disimulatzen kostatako inbidiaz begiratzen diogun neska zerbitzariaren adierazpen batean josita geratu naiz. Bihar, apaizgintzaren aurreko ordena nagusiak hartzeko gara. Subdiakonotza eta diakonotza. Sakramentu puska inbisible horiek baino ardura tangibleagoa ematen digu haiez geroztik ezingo dugula sotanarik sekula erantzi jakiteak. Iluntzean, bueltan, koro txiki bana egingo digute, zeina ere marka bitaliziotzat geratuko zaigun. Berez, apaizgintzako ordena nagusiak deritzen horiek (aurretik beste lau txiki, tontsurak markatuak; kontaduria eramateko ere!) urtebete lehenago egitekoak genituen, epe baten tarteagaz, azken aurreko ikasturtearen amaian. Euren ezaugarri nagusia botoen profesioa eta sotana-janzte iraunkorra dira. Beraz, azken uda-oporrak sotanaz igaro behar genituen, etxean eta denean, kastitate boto egin berriaren usainez. Gehienak solemnitare horregaz inbestitzeko irrikaz egon ohi dira, zera bidezkoen baita, hainbeste urte egun horiexek noiz iritsiko egin ondoren, debotoenak ere nekez disimula baitezake seminarioa behin betiko uzteko gogorik.

Amaitzeko gogo horretan berdin edo beroago ginen bakan batzuei sotana-janzte bueltagabeak, kastitatearen zin irrebokableagaz batera (zergatik inpresionatzen ote gaitu huraxe besterik ezagutu ez dugunari jarraitzeak?), egundoko... porrot-mina ere ez dut esango, horretarakoxe ari izan baikara, baina bai larritasuna ematen digu, nire kasuan, tristura zarratu bat esan nezakeena, zerbait definitiboa, heriotzaraino inplakablea, gaineratzen zaiguneko. Nahimen sibilino baten konkurrentziaz, gainera, zeinaren arabera, libreki hautatzera zoazenaren itzulerarik ezingo duzun hautatu. Egia esan, nekez gertatuko zait konparagarri izan daitekeen egoerarik, bizitza saiatzen da zulo terminaleko sentipenak eragiten baina. Habituak ez ei du frailea egiten. Egiten duela esan nahi du horrek. Sotanagaz, dena aldatuko da gurekiko, halako automatismoz, non, pertsonatasuna ezkutaturik, ordezkotza dibinoan leizetuko garen. Transformazioa ez du hainbeste erabakiko sakramentuaren barne karaktereak, nola sotanaren inponentzia esternoak, betiko, betiko, betiko.

Une hau iristea, beste motibo askorengatik irrikati geundena, inebitablea zen. Genezakeen bakarra ahalik gehien atzeratzea zen, joan zen ekainean izango zena hurrengo udaberrira aldatzeko baimena lorturik. Apaizgoa bertan behera ez uztekotan, horixe genuen topea, eta lagun batzuek horixe baliatu genuen. Nik, arrazoi sendotzat, bizileku menditarra aurkeztu nuen. Nola ibili behar nuen uda guztian, eta gero gabonetako hamabostaldi negutarrean, estarta eta basabideetan gora eta behera, sotana katigakorra soinean neramala? Bizkarrera jasotzen banuen, zer ikuskizun eman behar nuen, gonei antzeko erremedioa aplika ziezaiekeen emakumeren bategaz topo egiten banuen? Uda lantsuan, bestalde, etxean lagundu beharra zegoen, edo aitzakia horixe eman nuen, behintzat. Nola egin behar nuen sotanagaz simaurretan, arta-jorran, iratan, gerezi batzen, txerri gobernuan? Edo behia zezenari eraman, auzoko txakur guztiak asaldatuz? Arrazoi egiazkoak ziren, sinesgarriak ere bai, eta eurekin baliatu nintzen, nahiz eta neure kautan ziur nintzen, ohiko erara eginik, etxean prest zeudekeela, desiatzen ere bai, seme sotanaduna hartzeko, harrotzeko, inguru guztiaren adoragarri. Mendian haizea orduan ere beste soinu bategaz ibili ohi zenez, aise lortu nuen sotanazko ordenak atzeratzea, zeren, azken arrazoi bat eranstearen, goizero elizara jaistetik aparte, nork ikusi behar ninduen gure baserri inguru bakartian, sotana bategatik, gordetako gozoki guztiak, mistelak barne, ateratzeko prest zegoen amamak izan ezik?

Izango ziren maiseatzaileak, batez ere, herri guztiak ikaskide ginela bazekien biotariko beste laguna sotanagaz ager zedinean. *Haor, ba! Zer esaten najoan nik? Hori ez dok abade egingo.* Horrelako esamesek bizkor eta gozo korrituko zuten, lantzean borroka larri batez beste nobedaderik nekez sortzen zen gizarte batean. Gertatzekoa gertatuko zena ziur nekien neuri, egia esan, kitzikagarri zitzaidan denen noraezbide bihurtzea, batez ere, entzuten nuenean herriko nesken desioek esamesen alderantz tiratzen zutela, loriagarri berau, tentagarri soiltzat hartzen banuen ere, nire gorputzak ez baitzekien zer zen emakumeentzat deigarri izatearen sentipena, zeina gara zedinerako, haienganako interesa galdua izango zen. Uda joan zen, gabonak ere bai gero, seminaria itzultzen ikusi ninduten, batzuek mesfidantzaz, gehienek pozez, bakan batzuek penaz (pentsatu nahi nuen), eta Aste Santuko opor laburren aurretuan, iritsia da egun atzerazina. Gaur, azken larunbatean, lau lagunek elkarri esan diogu: *Bihartik aurrera, gure prakaduntasuna amaitua dok. Zergaitik ez joagu paisanozko azken eskapaldia egingo, despedida modura?*

Larunbat arratsaldeko aisia orduak baliaturik (iluntzeko elizkizunera huts egin arren, inork ez du igarriko, afaritan geure tokia betetzen badugu), eguerdi ostean, ohiko paseoan abiatu gara, seminario osteko ibilbide arauzkoan, Aldundiaren Abeltegitik ezkerrean zoko pinadi jakina helburu. Komunitateko taldexka beltz ugariak, errepidean gora eta behera, astiro, nagiro mugitzen zirenak, atze samarrean edo distrahiturik zeuden une batez, sotanak pinupe sastartsu batean gorde eta amenean ezabatu gara, Txorierriko ipar mendikatearen barrenetik, Zamudio eta Lezama goienetik zeharkatuz, Larrabetzu parean errepidera jaisteko. Segi eta segi, nagusi kasualen bategaz gurutzatetik ustez at, Erletxetara iritsi gara, askaltzeko ordu eta gale betean. Diruak ondo kontaturik dauzkagu, baina gugaz ez dago nire lagun soldadu batzuen gertatzeko arriskurik. Kuarteletik eskapaldi batean, jan-jan egin eta gero konturatu ziren ez zeukatela hainbeste. Bakoitzak bere berri jakingo zuen, baina gazte, zoro eta soldadu, beti pentsatzen da kuadrilan izango dela baduenen bat, ezaren soluzioa besterik ez bada ere, batek esan zuen moduan:

- *Hau utzi neure kontura. Zuek aire, atzetik tiroka baletortzuez legez.*
- *Besteak non dituk?* – galdetzen du tabernandre susmotxartuak, mahaian mutil bakarra ikustean.
- *Ez dozuz ikusi? Joan dira.*
- *Joan zelan?*
- *Zelan joan diren jakin gura dozu?*
- *Bai, jakin balei.*
- *Oraintxe ikusiko dozu. Honelaxe!*

Soldaduak hankajoko deabruzkoari eman zion, emakumea atzean zerrikeriak disparatzen utzita.

Guk bagenuen dirutxoa, extra handi samarra egiteko adina, baina zertarako? Pare bana arrautza eta xerra, patata frijituen tontortxo bategaz eta mirari-premia gabeko ardoagaz, Kanaango ezteiak baino sukulentoagoa zen guretzat, barruti diziplinarioaz handiko zabalero kasik imaginarioen baitan.

– *Datorren udatik aurrera, nork jakin bakotxak non, geure buruen bigilantzia besterik ez joagu izango.*

– *Mmh! Sotanak edonon seinalatuko gajozak.*

– *Seinalatu bai, baina sotanak bajajak ibiltzen.*

– *Hamaika urtegaz hasita, nork pentsatu behar joan inoiz amaituko zenik!*

– *Oraintxe ez dok, ba, askorik falta!*

Laurotariko batek, teologiako bigarren urtean, diziplina eta, oro har, status osoarekiko errebeldia militantero bihurtu zenak, baina aurreko aro obsesiboki eskrupulosoaren lorratzak oraindik guztiz garbitzeke dituenak, ezin dio adei osoz zerbitzatzen ari zaigun neskaren begiradari zuzen eutsi. Mahaian aurrera, gorputz erdia ukondo gainera okerturik, azpitik gora eta apur bat gorraize plantan begiratzen du, solasari ez dagokion irribarre mongolikor; iragan estukerien gaintitza kontzienteago egin nahian, laster apurtzeko den flan loka bati begira pentsatuz bezala: *Hau begiratzeko baino jateko hobeja jagok.*

– *Zelan? Gustatu jatzue?* –dio neskak.

– *Begiratu zenbat sobratu den.* –Platerak, katuaren mihia pasaturik legez.

– *Postrerik gura dozue?*

– *Zer eskatu geinke?*

– *Flanak oraintxe egin barri dagoz.*

– *Ekarri eurak.*

Lagunen jarrerak eta aurpegikerak obserbatzeko arreta handiegirik ez daukat, zeren, jatetxea eta jabeak ezagutzeaz gainera (Erletxetako elizan, behin baino gehiagotan izana naiz meza-kantari, neure oporretako irteerarik dohatsuenetarikoan), laurotatik euskaraz dakiten bietariko bat neu izanik, zerbitzariagaz solastun nagusia naiz. Bere niganako begirada ez preferenteari, baizik dagokionari, bidezko da neuk ere era berean erantzutea. Baina aukera okasional honi ezin diot joaten utzi, neure begirada oraindik desioa sintetizatzen ez dakien intentsitateagaz kargatu gabe, halako punturaino, ezen, gaztaro guztia espiritu horretan joan delarik eta joan beharko duelarik, susmatzen dut betirako inpresioa gelditu behar zaidala emakumeekiko harremanaren atalik gozoena solasa dela, non, gainera, nahi bezain poligamoa izan zaitezkeen. Eta pentsatzen dut, besteak ere pentsatzen ariko diren moduan: *Laster honelakoak erreskan etorriko jakuzak konfesalekura, eta beharbada, abadetxera.* Zerbitzaria flanen bila joanik, ‘*azkenengo eguna da eta, azkenengo eguna da eta, azkenengo eguna da eta goazen guztiok*’...nora? isil-kantatzen hasiak garela (ardotxoak ez du urdail sakramentalik bereizten), ez dut askorik susmatzen ezusterik handiena, mortal aurrekoa, neskaren hurrengo bueltan etorriko denik.

– *Zu Etxanokoa zara, ezta?*

– *Bai.*

– *Torreburukoa?*

– *Baita.*

- *Torreburuko Xabier?*
- *Berbera. Baina zu ez zara Etxanokoa.*
- *Izan nintzen urte batzuetan. Eskolan elkarregaz ibili ginen.*
- *Etxanon?*
- *Hantxe, Señorita Natigaz. Ni orduan Epaltzen bizi nintzen, amamarenean.*
- *Zu ez zara izango baina... (aibadios, bera ete dok?).*
- *Gotzone Solarteko.*
- *Maribelegaz ibiltzen zen Gotzone ha zu zara?*
- *Berbera.*
- *Holakorik!*
- *Ez daukat antzik ala?*
- *Orain bai, baina zelan pentsatuko neban, ba...*
- *Abadegai jarraitzen dozu?*
- *Bai. Laurok gara abadegaiak.*
- *Honezkero, aurrera samar joango zara.*
- *Azkenetan, esan geinke. Uda honetantxe abade egingo gara.*
- *Bai? Zu Etxanon, ezta?*
- *Jakina! Bakotxa bere herrian.*
- *Ah, ba, joango gara meza barrira!*
- *Eskerrik asko gaurdanik.*

Plater txikian neukan flan beilegi eta salda gorribeltz islakorrera josita gelditu naiz. Lagunak ez dira mutik esaten ausartzen, nire erreakzio durdituari nondik heldu ez dakitela. Bizpahiru segundo trinkoren ondoren, burua jaso dut, esateko:

- *Gogoan al daukazue harako behin kontatu neutsuena, zelan mutikotan, komentura joan aurretik, neskato bategaz, nobioaldi afantsu baten ondoren, zeremonia guztiekin ezkondu nintzen, eztegu bidaia eta guzti? Ba, horixe dok nire andrea!*
- *Baaai?? –denek batera.*
- *Hago pozik –darrai batek– salatu ez haugulako. Ezkonduta egotea abadetzarako inpedimentu fulminantea dena badakik.*
- *Umetako kontuak –gaineratu dut arintze tonuan, umeen kontuak umekeriatzat hartzeko grazia zuzterbakora jorik, eurak ez bailiran markarik eternoena uzten dutenak, heriotzaz haragoko zerbaitasunik suposatu behar bada.*
- *Heure andrea izan, eta ez dok ezagutu?*
- *Zelan ezagutuko najoan, ba, komentuan sartu nintzenetik ez bajoat ikusi?*
- *Berak ezagutu hau.*
- *Tabernandreak esango jeutsaan, hemen bajakiek nor nazen eta.*
- *Ez deusak ezer aitatu behar?*
- *Aitatu zer?*
- *Ea gogoratzen den hi bere zera....*
- *Zoratuta hago?*

Zerbitzaria berriro etorri denean, besteek begiekin jan behar duten bitartean, neu naiz orain zuzen begiratzeari eutsi ezin diona, pentsatzen dudala: *Honek gogoan izango ete jok ha?* Kasu ustez hain insolitoaren aurrean, nire esklamazio batzuen eta lagunen ezuste hunkitu baino ikusgurago baten buruan (*honek hemen numeroak jarraitu daiela gura jabek*), solasa saihesten saiatzen naiz, barre egingo didaten beldurratetik baino gehiago, badakidalako nire sentimenduei ezin dietela araberako aintzat-hartzerik eskaini. Ez dago gauza zapuzgarriagorik, norberetzat bonbazoa izan dena inoren eskuan globoxka zimel bihurtzen ikustea baino.

Naizenaz beste bat jaio banintz, naizena izaten nerraike. Egon behar du adimen bat, nor den galdetzen barik, izaten dedikatzen dena. Neu naiz hori, batzuetan. Azkenean, etorkizuna ez dela iraganaren luzapena besterik. Armiamaren haria bezala: hari preexistentearen hedapena. Oraina garbi daukat: tontorrei begiak ipiniz noa, neuk haietatik etxea ikusirik, gero eurek etxean ikus nazaten. Zergatik dirudi tontorretik haranak askoz urrunago, haranetik tontorrak baino? Ahuntzak ez dira haitzean zorabiatzen, natura desafiatzen ari diren sentipenik ez dutelako. Aro horretan sartzen ari naiz, non sentazioak eta irudiak euren kontura ugaltzen diren, bisioak kateatuz. Laster errealitateak ez dit ezertarako faltarik egingo. Txakurragaz jolasean, bat-batean, ikuspen lazgarria izan dut: mundua, neu barne, txakurrak dakusen moduan dakust; kolore metalizatua, ikuspen birtuala. Baina beldurgarriena zera da: ez dago horizonterik, eta erliebea bai. Erliebea bai, horizonterik ez. *Eutso hazur bat eta utzi naik bakean.*

Ai, Ernai, Ernaitxo! Itxaropen konfiatuegiz begiratzen deusak nazen izaki triste honi. Hire norabidea atzera-aurrera dok. Gurea aurrera hutsa, atzera bakoa, izan zoan; edo zela uste genduaan, bardin dok. Izatearen funtsa ustea ez al dok? Zer ardura jok mundua plano izateak, borobila dela uste badok? Edo alderantziz? Begira non eta zertan garen. Hau haren jarraipen, deusezpen, saihaspen, zer dela esango heunke? Ez, ez, orain ez nok jesarriko, eta pilotarik be ez joat ekarri, baina ikusiko dok zelako hamarretakoa egingo dogun, Aralarko urdaiazpi eta guzti, gordinik zein prijiturik. Pilotaren gomutarik be ez dok izango. Solomozko pilotatxo bat? Egingo joagu hori be!

.....

Etxera heldu garenean ('etxea' esan beharko joagu, ez tok?), betidanik bertan bizi naizen sentazioa ez da oinarrigabea. Geure jaiotetxean zegoen antz-antzeko harraska dago; behe-sua hortxe dago, bere laratz eta guztiko tximiniaz eta koadrotxo gorridun gortinaz. Tximinia ertzean, orrazia, pospoloak, metxeroa, egutegi-takoa (Arantzazukoa), Chimbo xaboia, koaderno txiki bat, nerabetza femeninoa estreina berri duen abarketa pare gorria bazterrean, tente. Kontrako bazterrean auspoa eta gezur-urrezko erlojua. *Zer ordu markatzen jok beronek? 10:07. Segundoei begiratu be ez. Longines. Joño! Benetako urrea izango dok, beharbada.* Hormakoa ere hortxe, oroigarritzat gelditua; azpian mahai luzanga bat, sei kadira zumitzezkogaz. *Nori kontatzen najabilk bistan dagoena?* Jaiotetxeko sukaldea karratua bazen, hau luzegina da, amamarenekoaren antzekoa. Bien konbinazioa, esango nuke; maiteen izan ditudan bi sukaldeena. Hortik ere irabazle naiz, beraz. Ez da zaila betidanik bertan bizi naizela sentitzea.

Urdaiazpi gozatsuz eta botila alaitsuaz, hamarretako veneziarra egiten ari naizela (apetitoa ez zen joan, zorionez), azpitik gora adi-adi begiratzen didan txakurragaz, berak dena entzun arren, solasik eroaterik ez denez gero, neure Erletxetako inkontrutik ezin bereiziz nabil, askoz hurbilago sentitzen dudana bera, egunotako durdipena baino. Oraingoa badirudi esternoki, fenomenoaren objektu gisan bizi dudala; beragaz zerikusi pertsonalik ez daukan eklosio bat bezala. Zortzi egun ez dira dena hasi zela, eta urrunago dago Erletxeta hura baino, zeina neure izatearen giltzadura bat bihurtua den. Konparazio gorrotagarria izango da, baina badirudi oroimena kolonizazio-lur bat dela, non lehenen iristen direnak errotzen diren; ondorengoek bizimodua ahal duten lekuan aurkitu beharko dute, aurrekoak baztertzeko bezain indartsu ez badatoz, biolentoki, alegia. Beharbada, horretantxe izan daiteke oroimena kolonizazioaren ezberdina, zeren zer fenomeno oldar zitekeen izaki baten gainera indartsuago, orain harrapatu nauena baino? Hala ere, ez naiz gauza sotana-eztei haien bezpera orainaldi deskomunal hau baino ahulkiago sentitzeko.

Ez naiz konparazio exaktoagoen bila menturatuko, azkenean neure izatearen definizio lotsagarriren bat irten ez dadin, baina, bakartasun zeregingabe honetan gelditu naizenez gero, ideia zaharrak berritzen eta berriak nahasten dituen ardoa lagun, itzul nadin bezpera hartara, non, Erletxetatik bueltako gauean, neure logela luzangako atzera-aurrera txit lentoa tarteka etenez, leihotik, Bilbo ostentzen zuen Santo Domingo mendilepoa hainbatgarren zigarro ketan lanbrotuz, Jainkoari hots egiten nion, Ama Birjinaren baimenez:

Baina, Jauna! Zer aldikada ulergatxek emon deutsu, horren probidentzia krudela gorde zengidan, bezpera honetarako, hain zuzen? Ezin al ninduzun probatu, zeure nahimen berez be nahikoa misterioitsuari zailtasun gehiago erantsi barik? Abadetzatik atzeratu naiten gura badozu, adierazo eidazu zuzen eta ulertzeko moduan, nire aurrerako erabagia argia eta finkoa baita.

Pare bat urteko ekinean, hainbeste kostatako tunel jada amaitua ihes bezperan harrapatu zigutenaren antzekoa. Nire oroimenak, seminariotik zein espetxetik hasi, biak lotzen ditu automatikoki, mutur bakarreko makilarik, ezta trenik ere, kontzibitu ezin duen moduan. Diferentzia da espetxekoa askoz enigma bihurriagoa zela, zeren, Jainkoagaz elkarren ez-molestia ituna genuelarik, patua iluntasun handien esplikazio ergeltzat genuelarik, espetxeko zaintzari hain kalkulu zorrotzerako inteligentziarik esleitu ezin geniolarik, tunelaren porrotean topiko soil bat birkonstatzeaz konformatu behar izan genuen, hots, espetxean, edozein unetan, txarrena gertatzeko toperik ez dagoela. Seminarioan bagenuen Jainkoagaz abantaila bat, muturren aurreko fenomeno ulertezinak urrungo misterioetara bidaltzekoa, horrela inpaktu direktoa amortiguatuz. Tunelaren kasuan, ostera, kasualitate txoriburuak dena hondoratzeko bezain ridikulutzat jo behar al genuen geure burua? Jaustea zeukan hasieran, erdialdean, azken murruren zimendua jo genuen ilunabar dohatsuan, zulotik kanpoko argia zirriztatu genuen goiz euforikoan, edo inoiz ere ez. Baina izorrai! Bezperan bertan, komando askatzaileak jada Zamorako hirian prest zeudenean! Hogeita hamar urtera, gertaera hura ere egunotako fenomeno esplikaezainaren hasiera baino biziago dabil nire gogoan.

Segurrenik, denek alde egin beharrean, neu inor gabetasunera konfinatzea izango zatekeen oroimenaren astingarriago. Dena irudipen hutsa ez bada! Ez naiz berriro auzia eztabaidatzen hasiko, suposamen errearen alde makurtzen hainbeste kostatzen eta gero. Erratuen egonda ere, hobe dut posizio finkoa aldakortasun zoroa baino, zeinera jo aurretik, beste baliabide guztiak agortu behar ditudan, zorion eskusibo hau barne. Ostraput! Endredatzen ari nazela uste dut. Zenbateko sentsazioa izateko gauza izan naiteke? Sotanaren eta tunelaren bezperak, gertaera neurrigabeak ematen bazuten ere, sentsazio soil batzuetara mugatu behar izan zuten; hotzikaragarriak, nahi baduzu, baina eramangarriak. Bizirik iraun nuen. Horrek esan nahi du nire sentsazioen intentsitatea ez dagoela fenomenoaren tamainaren gorabeheran, neure ahalmenaren baizik, hainbestean ezen, gehienetan, sentsazioa zartagarriago baita oroikuntzan, gertakuntzan bertan baino. Zenbat bider ez ote dut esan *gogoratzeak ere dardaratzen nau*, unea bera erdizka edo batera jabetzeke joan eta gero?

Alderantzizkoak ez dirudi hobe, hainbeste zeresan ematen duen heriotza, adibidez. Azkenean, horixe ere sentsazio bat besterik ez dateke. Gutxiago, segurrenik, trantze hartan hain inprobablea den klaribidentzian egon ezik. Kasu horretan, uneari eite heroikoa ezartzea legoke, fusilamenduko horman bezala, izateko gauza ez garen sentsazio bat (heriotzarena) gauza garen aurre-sentsazio batera aldatuz, esaterako, *Gora gu ta gutarrak!* edo *Behera oihala!*, ohean edo zubipean hiltzen den edonork arrazoiz oihu egin lezakeena, besoak jasotzeko adorerik balu. Gauza definitiboak beti gau izartsuan gertatzen dira, poeten baliabide urritasunaren ondoriozko inpresioa ez bada; edo egun izartsuan, fenomeno honen nire oharpena bezala. Heriotza bezala, zehazki, zeinak bere esperientzia direktorik izan ezina aurretiaz kobratzen digun, sentsazio premonitorioak

bidaliz, izar jadanik hiletik datorkigun argia alderantziz bezala. Azkenean, ezer izango ez dena bera. *Kandela bat legez itzungi zen. Txoritxo bat legez akabatu zen. Kakazaharra! Hainbeste larritasun existentzial, honetarako?* Gero nola ez da izango, ba, beste mundutik inork abisurik ez bidaltzea, hil zirenik ere konturatu ez baziren? Halandaze, izateko gauza naizen sentsazioa banaiz... Ez ala?

Haietatik aspaldi jaregin nintzen teoria filosofikoei tiratu gabe, izen batzuez baliatu beharra dago, zerbait adierazteko: sentsazioa, sentipena, emozioa, sentimendua, pentsamendua, inpresioa, oharpena, gogapena, nahidenpena. Proba dezadan neure baitan biltzea, neure nitasunik kontzienteenean barnatzea. Lehenik eta behin, egundoko ahalegina egin behar izan dut neure baita horretan zentratzen, nire kontzientzia intransferiblea delako horren egoerarik ohikoena distrakzioa baita, nitasunaren muinari dagokionez, behintzat. Zentzumenak, beharbada zorionez, kanporantz daude. Apur bat alegrea edo insensiblerik bazara, 'ni' hori sen egoistaren zeinutik gutxitan pasatuko zaizu. Ez da nire kasua. Neure baitan nago, armiarma amaraunean edo harra kapuluan bezala. Zer dago? Zer daurkit? Zer naiz? Ba, horixe: zerbaiten sentipen bat, bera ere oroimenak zerbitzatua, presentea ezin baitut zuzenki espermentatu, gogoetatik pasatu gabe. Zerbait hori ez da oso konplexua izango. Bakuna eta bakandua, agian. Edo ez, edo bai. Bai ala ez? Suposamen konprobazina. Ni, ni, ni... Milaka aldiz errepikatzen jardunda ere, ezin dut lortu lehenengo nian jo nuen sentipenetik barruragotzerik. Gehienez lortuko dudana, milagarrena baino askoz lehenago, distrakzioa izango da, ez baitago kontzentrazioari eusterik, nobedaderik gertatu ezin den lekuan. Ni, neu, nerau, neror, nihaur, neroni... Alferrik. Sinonimoek ere distrakzioa dakarte.

Badira, noski, sakontasuna irudikatzen duten diskurtso sugestiboak, espektakularrak. Azkenean gertatzen da ni horretan barneratze oro kanporatze antzeztua besterik ez dela. Entzuleek eskertzen dute, euren baitan espermentatu ezin dutena antzezleagan bai dela gertatzen sinesten baitute. Hortik sakontasun egiazko baten existentzia deduzitzen dute, nahiz eta eurek ez izan ideiarik, sakontasun hori zer izan litekeen. Gurpil zoroa saihesteko, sakontasunari norbaitek 'miragarri' deitu dio, eta segi dezakegu diskurtsoaz liluratzen, eta antzezlea miresten. Zer besterik nahi beronek? Berriz ere konbentzituko zaitu nian barneratzen ari dela, eta sinestera ere iritsiko da transmititzea lortzen duen inpresioak (artista onaren seinale) bere baitako egia baieztatzen duela. Izatez, niaren orbitan biratzen diren sentipenak trebeki erlazionatzen baizik ez zaizu ari, bonbilla baten inguruko tximeletak bezala. Ugal eta nahas ditzakezu intsektu mota guztiak, baina ez duzu lortuko bonbillaren (niaren) barrura sartzerik, apurtuta ez bada. Bai lortuko duzu, posibilitatean setatzen bazara, delirio eder bat sortzea. Eskerrik asko!

Nire ahalegina ere zintzoa eta benetakoa izan da. Harago ezin izan naiz iritsi. Dedukzioa bakarrik geratzen zait, baina dedukzioak ez dauka zentzurik, konprobatu ezin dudana tokian. Garbi esanda, horretarako ez zegoen neure baitaratzen saiatu beharrik. Hori bai, nire pentsamena azkar saltatzen da objektutik objektura, abiadura zorabiozkoraino, pentsaketa ezereztuz, helizea ezabatzen den moduan. Une jakin batean, lortu dut geldiaraztea. Aktiboago nahi baduzu, guztiz zentratzea. Zentro ñimi-ñimiño bat, 'ni-neu' sentitzera bildu dena; existentziaren baieztapen soilaz haragoko informaziorik apenas daukana. Ondorio dezepzionante hori poetikoki leuntzeko, nebulosa bezalako metaforak asmatu zituzten, ohartu gabe nebulosan nabigatzen ari garela diogunean, edo durditurik, edo barreiatu gaudela. Horrela pentsatzea zaila da.

Izan daiteke inpresio zehazgabe bat esan ohi dena, kontzientziagaz baino zerikusit hurbilagoa daukana inkontzientziagaz, zeina ere, neurri bateraino, gogokera bat izan daitekeen. Zer dago? Zer naiz? Aurkitu dudana sentipen horren intentsitatea oso ezberdina izan daiteke, indiferentziatik kommoziaraino. Eta kito! Gehiago ezin da. Areago oraindik, 'ni' edo 'neu' esatean identifikatzen dudana nor hori ez dakit non lekutu. Minak (ez denak hauek ere, baina, esaterako, haginekoa, gerrikoa, belarrikoa, barrabiletakoa, oinazpiko arantzea...) badakit zehazki non dauden. Txakurra

banintz, mina non, mihia han esango nuke. Eta hona min horien subjektua den ni hori, garunean kokatzen ei dena, ezin dudala inon atxiki. Bidezkoa, neurri bateraino, neu ari bainaiz nia harrapatu guran. *Jausiko haz, ba!* Zentratzen naiz, kontzentratzen naiz, eta azkenean hortxe aurkitu dut eztarriaren erdialdean, orofaringean (izena gustatu zait). Zehazki, txistua irenstean nabari dudan korapiloan. Inoiz, okela zaintsuaren bolatxoa ez gora ez behera gelditu zaidan estugunean. Itomen horixe izango da, beharbada, niaren eta bere kokapenaren esperientziarik direktoena. Probatzen dut behin eta berriro txistu-irenstea, eta hortxe dago, baina korapilo unean bakarrik. Une laburra. Irenstea amaitu deneko, bera ere ezabatu da, ez dakit beherantz ala gorantz. Errepika nezake irensketa, *baina to! Egun guztian ez nok ibiliko txistua gora eta behera, hi harrapatzearren. Ibiltzea daukak nahi doan lekuan.*

Txistu-irenstearena aurkikuntza definitiboa zelakoan, arnasketan kontzentratu naiz, eta kokapena (nigunea edo nitegia) desplazatu egin da, apur bat gorantz. Aho-gangaren gaineko kurbaduran nabari dut. *Hor hago, eh! Barrabana!* Batean, txistu-korapiloan, bestean arnaskolpean. *Oraintxe harrapatuko haut, bien erdian.* Banoa arnaskora eta txistu-irenstea batera burutzerara, eta ezinezkoa dela aurkitzen dut. Bizkorren eta tranposoen ibilita ere ez. *Ah! Horregaitik dela, beraz. Ez dok harrapatua izan gura. Ba, badakik zer? Txakurrari kanpai-jotze bat eginaraztera najoak.* Bueltan, neu ere txistutik arnaskara nabil, bi horiexetariko batean bainago. Edo bietan, txandaka. Gero, garunean nagoela esan didate. Sinesten diet, baina ez neuk garunik sentitzen dudalako. Buruko mina dudanean, burezurra jotzen dut. Nia delako horri geroz antz handiagoa hartzen diot etxera sarreran sumatu duzun mamuarena. Errealistago izan nahi baduzu, lapurrarena. Badakizu badagoena. Bere sentipena argia duzu, baina bera non dagoen ez dakizu. Eta beldur zara braust ager dakizun. Ni ez naiz gehiagora heltzen, eta zurea ez zait hainbesterik ineteresetzen. Alferrik estutuko duzu misterioa; mahats-morda batetik ezingo duzu orgiarik atera.

Sentsazioen belaki aldakor, zaurigarri, sarritan etsigarriro inkonsistente horren azpian, pentsaketa da aurkitu dudan gotortasun fidagarri bakarra. Ohartzen naiz, sentitzen dut pentsaketan ari naizena. Emaitzei ere, gogoeta edo arrazonamenduei, bedarraiet. Neure aldarte gorabeheratsuen zurrunbiloan, pentsaketa gai da bere batasun kontzienteari eusteko, batzuetan ondorio suizidetara iristeko bada ere. Pentsaketak salbatzen nau sentipenen nahasmenetik, batzuetan disgregaziotik. Pentsaketari edo pentsatzeko egintzari pentsamen bat esleitu diot, dedukzioz. Ahalmen hori, subjektu hori, ezin dut inon zuzenki lokalizatu. Oraintsu arte sabelean, biriketan, bihotzean, genitaletan uste zuten bezala, orain garunean ei dago. Esan berri dut ez dakidala garunik badudan ere. Badago bego, badago bego, ondo isilik dago. Pentsaketan ari naizela bakarrik dakit, gure asto Balaam bezala. Horixe da kontzientzia mitifikatuaren topea. Zorionez, ez duzu gehiago behar. Gainerakoan, lasai mozkor zintezke, ez baituzu esentzia miragarriarik galduko. Ditareari zer ardura dio itsasoa handi izateak? Auzia ez da hainbeste, *pentsatzen dut, beraz, existitzen naiz* (ez dago gaizki, noski), baizik *existitzen naizela dirudi, beraz, pentsa dezadan zerbait.* Esaterako, bai dela atsegina kontu hauek guztiak pentsatzea, ezertarako balio ez izateko unera iritsi naizenean.

Giza esperientzian, oraintxe nagoen baino egoera apartagarrik nekez imagina zitekeen, eta urdaiazpi-gizenen zain dagoen txakur gerakaitz baten aurpegi zelebrea berdina darrai ni distrahitzen. “Gizaki modernoaren handitasuna eta miseria” ziotena ere distraizio bat besterik ez zela, beraz. Banengoen, ba, handitasuna miseriaren tamainak egiten zuela. ‘Gizaki moderno’ hori seminarioan, behintzat, ez zegoen. Handik kanpora ere, inon ez genuen haren ezaugarriarik aurkitu, Bilbo guztia zeharkatu arren, Atxuritik Errukietxeraino. *Bilbon ez egoteko, Alemanian be ezin jok egon,* pentsatu nuen, eta asko lasaitu nintzen, neure gogoagaz bat nentorrela ikustean, beti sentitu izan bainuen gizaki modernoaren baino kideago nintzela platano-azala erreparatzen ziharduen tximinoaren. *Urdaiazpi ditxosoa, gazi-puntuan gozoa, zatirik kentzen ibili barik, ekarri eidan osoa.*

Ondo gabilzak, ez tok, Ernai? Horreek musturtxook errekan garbitu beharko joguzak gaur, ezpain-zapirik ez joat ekarri eta.

Hamarretako ederra egin eta ezein lanetara itzuli beharrik ez. Proba dezadan muturreraino, zenbat endredatzen nauen deseginkizunaren totalitarismoak, *laster gogaituko haz holan egunero* entzuterik ez izatearen zoardian. *Orduan, zergaitik egin hintzen abade?* Alberriko abade zahar baina argi baten galdera horrek neure burua hartara estutu beharrik ez neukan zehaztasunera obligatu ninduen, bai bainekien, zeharbidez edo aurrebide generikoz erantzuten banion, berehalaxe moztuko zuela:

– Ez, ez! Niri ez etorri parafrasi zorabilgarriekin. Niri argi eta labur azaldu. Heuk, teologiaren kontraposizioz, ebangelioaren estiloa dela esaten doan moduan.

– Nahikoa pista ona emon deustazu horrexegaz, neu be guztiz konturatzeke bainengoen.

Gizona gerran ibilia zen, gero luzaro preso egona, gero abade desterratua. Hitz batez, galtzaileen bandoa hautatzeko sena izan zuen. Bestelakoan, irakatsi zioten dogmatismoa eta, batez ere, moralitate jazarkoia abanderatzeagatik, bere gaztaro eta helduaro-zati luze samarrean, abade bat gehiago izan zen, herritarren beldurra eta maiz begigoa ere jasotzea normalena zen beste hainbesteren artean. Denboragaz, argitasunak lagundurik, ofizioak haren gizatasun sustraiak guztiz jaterik ez baitzuen lortu, gerraoste urrunago baina berdin itoaren erreakzio abiaberrian, isileko poztun ez ezik, eragile izan zen; lehenengotan omisioz, halako zapalkuntza politikoa eta soziala jasaten ari zen kristau-herria uztarri moralean estutzen jarraitzeari uzten joanez, oso diskrezio zainduaren barruan. Astiro-astiro, nik ezagutu nuenerako, pizkunde desiatuaren geriza bilakatua zen, egiten zuena baino gehiago baitzen egiten uzten zuena. Zirkulu txikian, berriz, pentsamendu askatasuna ezpataren arrisku gabe gara zitekeen intimitatean, neofito integrala zen, gertaera berrien poza gertaerarik handienen espektazioan bizi zuena.

– Zergaitik egin hintzen abade?

– Ez egiteko arrazoi zikin guztietatik garbitzea lortu nebalako.

– Esaterako?

– Ba, gure sotanok sinbolizatzen daben armaduratik. Edo armairutik, gurago badozu.

– Orduan, zertarako sartu hintzen armairu horretako giltzari?

– Nire bokazinoa besteen askapena zelako. Zeuk be horretan denpora luzeagoa emoten dozu kontenplazinoan baino.

Honela hasirik, sarritan dialektikak errelitatetik urrun eroaten gintuen, hots, zeregin profesionaltzat onartzen zitzaigun denborapasara. Abadea entreteniturik zebileno, ez zegoen haren haserrearen beldurrik.

Seminario guztietan bezala, gure Deriokoan ere bazen biblioteka erraldoi bat, erdiko atetik sartu eta, ezker-eskuin, filosofian eta teologietan banatzen zena. Behin, ate hartatik sartzean, ezker aldeko apalategi luzekera eta trabeskera pasabidetuen oihan labirintikora begira, barne-hots danbakari bat entzun nuen: *Hori guztiori sopra jagok hiretzat!* Kasik hegalaria sentitu nintzen, artean neure buruagaz bat egina nekarren zama eskergatik liberaturik. Filosofiako ikasketak, izatearen esperientzia direktoa (mistikagaz erraturik-edo) sentitzeko ahalegin eta senti-uste zintzotik, astiro-astiro, zintzotasun beraren erremediogabez, abandonatze horretaraino, zitezkeenik emankorren gertatu ziren nire bizitzan. Gero, teologiako urteetan aurrera nindoala, bibliotekaren eskuin aldera begira ere, barruak epai olinpiko bera jaulki zuen: *Hori guztiori be sopra jagok hiretzat.* Hala, biblioteka guztia gelditu zen, ez ukaturik, apal amaigabe haiekin teman jarraitzeko gogorik ezagatik, baizik haingabeturik. Soil-soilki, existitu ez balira bezala. Baina hain urte baliosak euren

artean galdu izanaren erremina baino gehiago, labirinto zorabiozko batetiko irteeraren jaregintasun espansiboa nabaritu nuen, ez bainintzen neu, ezeren damu izateko, han sartzeko errakuntza izan zuena, baizik, bere burua ez-hangotar aurkiturik, onez eta sasoiz kanporatzeko balentria egin zuena. Uzpenaren tamainako handitasunaz harrotzeko tentazioa ere izango nukeen, Nietzsche bezain infantila izan banintz. Askakuntzarako inoiz ez da berandu, arteko denbora luzeegiak pena ematen badu ere.

– *Elizan sinistuko dok baina!*

– *Mmhrr! Sinismen xumearentzat, tramankulu tropeegia da hori.*

Bildukin humanoaren azpian, misterio salbagarriak gordetzen zirelako bereizketa berriz ere labirintikoan sartzea ekiditearren, antikristoarena azaldu nion, nire teologia ikasketako tesirik temerarioena bera. Orduko gotzain genuen Pablo Gurrupide otsagabiar apostoliko-frankistagandik (lehenengoa bigarrenerantz orientatua) Vatikanoko kupularaino, antikristoaren ezaugarriak (“nire izenean edo neu naizela esanez etorriko zaizue” eta abar) eliz instituzioan inkarnaturik agertu zitzaizkidan. Hori ez zatekeen bihurkeria exegetiko batetik igaroko, lan txiki bat egin izan ez banu, ebangelioetatik eta apokalipsitik ateratako aipu ugariz, identitate horixe frogatzen zuen tesi moduan. Jainkoarena misterioa zen benetan. Gizakia bere antz eta irudira egiten hasi, eta zerrikeria bat irtengo zitzaion. Egoera konpontzera semea bidali, eta hil egingo zioten. Semeak, bere ordezkotzarako, eliza bat sortu, eta antikristo bilakatuko zitzaion. Ez zegoen ahalguztia era porrotgarriagoan desplegatzerik. Irakurtzeko eman nion lagun batek bueltan esan zidan: *Ez hadi hau inori erakusten ibili, goikoen belarrietara heltzen bada, txapligua legez bialduko habe eta.* Hori gomendatu zidanari zerbait eskapa zekion beldurretan egon izango nintzatekeen, haren fedezintzotasunari adiskide-leialtasuna gaudituko zitzaiola pentsatu ez banu. Horrelako ziurtasunetan maiz erratu izan naiz, noski, baina orduko suposizioaren inkunplimendurik ez zen iritsi, nire belarrietara, behintzat.

– *Neure ustez be, ondo bialdua izango hintzatekeen* –erasoko zidan, handik urte batzuetara, aipatzen ari naizen abadeak.

– *Garaiz zagoz salatzeko!*

– *Horren lupua be ez nok. Baina hik, orduan, nondik jasotzen dok fedearen benetasuna?*

– *Ebangeliotik.*

– *Eta nork dinoa hire interpretazinoa zuzena dela?*

– *Ebangelioen euren ulerterraztasunak.*

Hain zuzen, teologia sopra zegoelako nire konklusioa, aurretik zapuzturiko filosofiaren sostengu ridikuluez gainera, ebangelioaren askitasun absolutuaren kontzientziak ekarri zuen. Burdinazko nahaspilatik libratutako gorputz bizi bat bezala aurkitu nintzen. (Barka konparazioa). Xehetasun sekundarioak gorabehera, mezu ebangelikoaren funtsa, espiritu ebangelikoa esaten zitzaiona, hain argia eta nabaria aurkitzen nuen, ezen interpretazio konplexuen edo soilki ezberdinen posibilitatea perbertsio antikristotarrari bakarrik egotz niezaiokeen.

– *Jesukristo Jainkoaren semea dela sinistuko dok, ez tok?*

– *Astakeria handi samartxo bat entzuteko kolkorik izango zeunke?*

– *Beste bat gehiagogaitik!*

– *Ba, doktrina bat zuzen predikatzeke, ez da derrigorra norberak siniste, kristauek gure ofizioaren zailtasuna alpalditik zehaztu izan daben moduan: “eurek sinisten ez dabena inori sinistu eragitea”.*

Nire solaskide patriarkala ez zen hainbeste harritu, herriaren iritziari, bere sasoi bateko autoritarismoaren ordainez edo, kasik begirune erreberentziala izatera aldatua zelako. Niretzat,

orduan, Jesukristoren jainkotasuna ere ez zen gakoa, fedearen katramila intelektualetan burua eta denbora galdu beharrean, erabaki bainuen: *Jesusen mezua argia eta ederra dok. Zabaldur daidan horixe eta aurrera*. Ai, zuek, eskribau eta fariseook! Bekatu gabe aurkitzen denak jaurti beza lehen harrikada. Zeruko erreinuan, lehenengoak azken izango dira eta azkenak lehenen. Utz hurrei nigana hurbiltzen. Behartsuei laguntzen dienak neuri laguntzen dit. Maita ezazue elkar, neuk maitatu zaituztedan bezala. Jainkoaren etxea lapurzulo bihurtu duzue. Nire Erreina ez da mundu honetakoa. Ez da dirua, ez da indarra. Ez utz engaina zaitzaten ardi-larruz jantzitako otsoek. Dohatsuak zuek, bihotz... Dohatsuak zuek, gogo... Mezu horiek ulertzeko ez da behar sistema filosofiko-teologikorik.

– *Erleginoa termino horretaraino soiltzekotan, ez jakiat zergaitik egin hazen abade, eta gitxiago, abade katoliko.*

– *Gure herria, gehienbat, katolikoa delako.*

– *Horrek gehiago emoten jok fedearen erabilpena.*

– *Eta zer, erabilpen zintzoa bada? Euskal Herria kristaua bada, zer bidezkoagorik, ebangelioaren agerpen zintzoagaz askatzen lagundu gura izatea baino?*

Herriaren osagai hori hain argia eta sentitua nuen, ezen, meza berriaren oroigarritzako diptikoan, alde bateko jaioterri Etxanoren eta besteko jaiotetxe Torrebururen irudiak honela oindu nituen: *Erriaren semea naz eta Erriarentzat abade egin naz*. Horrelaxe idatzita, oraindik, gure euskalkian, behintzat, planteatzeke zegoen hatxerik gabe. Barruan, eskuin aldean, honako testuak zetozen: “Baña... nundik nora jatorri oneri jakituri guzti hori? Auxe ezta, ba, Nazaretarra, Jose arotzaren eta Mariaren semea?”. (Mc. 6, 2-3; Mt., 13, 54-55). “Danean bere anaiakaz *bardindu* zan, pekatuan izan ezik. Erria salbatzeko, bera be erritar egin zan”. Eliz instituzioagatik, salbuespenak salbu, esan zitekeen ia berbera: “Danean bere anaiakaz *desbardindu* zan”. Aurrizki batek zenbat balio lezakeen.

Abadegintza – Derio’n 3-7-65

Meza barria Etxano’n 18-7-65

Amuriza ta Zarraonaindia’tar Xabier

Datak ere, oraindik, erdal ordenan ematen genituela ikusten da. Ezker aldean, bertso hau zetorren:

Oi, zu, Etxano, lenen-arnasa
Ta odola emon zeunstana!
Zugandik daukat nazen guztia
Zugandik Erri-izana.
Zu goratzeaz ez deusat kentzen
Jaunari zor deusadana
Berak zugandik artu ta barriz
Bialtzen nau zuregana
ERRIAREN alde izan daiten
Nire abadetzako lana.

Diptiko horri ez zegoen inolako erreparo doktrinalik jartzetik. ‘Herria’ izan zitekeen –eta zen– terminologia kristauko ‘Jainkoaren Herria’. Baita izan zitekeen –eta zen– ‘Euskal Herria’ ere, oroigarria ohiko estampa itxuratik apartatzeak pentsaraz zezakeen moduan, baina kontrako jenioa zeukatenean zorrotzasunak salatzeke baino enkubrituago. Noiz eta ‘dieziotxojulioan’, ‘altxamendu nazional biktoriosoaren egunean’. Oroigarri guztia euskara hutsean izateaz gainera (latina

eliminatzea atrebentzia blasfemoa zen), herri zabalago bat sintetizatzen zuen jaioterriaren aitormen beroa bertsoz egiteak identifikazioa nabarmendu egiten zuen, zapalkuntza etengabean zetzan hizkuntzaren forma landuagoak harekiko atxikimendu kontzienteagoa adierazten baitzuen. Meza Berri eguna bera ere espiritu horren arabera pentsatua izan zen. Ohi bezala goizean barik, igande arratsaldean, ospakizun herritar moduan egin zen, elizkizunaren ondoren, bertsolari eta guztiko plaza-ekitaldian, herri osoa gonbidatuz aperitibo xume batera. Horrela, herriari eskaintza nabarmenduz batera, bide batez, ezteietako antzekoa edo handiagoa izan behar zuen bazkaria disimulu jatorrean saihesten zen, etxearentzat gastu handi bat aurreztuz, nahiz eta semearen abadegintza bere mundualdi inbentiboaren epopeia bat gehiagotzat hartzen zuen gure aita, soldatagaz zetorreanean, ‘bankari guztiak neuri begira’ izaten ei zituena, ez zen nobedade ustez ebangelikoago hartara behingoan errendituko. *Meza barria bankete barik? Besterik ezean, neu bakarrik jaitsiko nok Kojoarenera, bazkaltzera edo afaltzera.*

Amaren aldetik, bazkaririk ezagatiko ahaide eta herritarren zeresanen aurrean, haren ulermenari, kasik ohikoa baino ikusgarriagoa izango zela sinestea zaila ez zen ospakizunaren harrotasunera konbertitzen asko lagundu ziola uste dut gastuak ekiditearen lasaitasunak. Azkenean, etxe-etxekoen eta aitabitxi-amabitxien afariagaz konpondu zen. Era hartan estreinatu zen nire abadetzak hain emankortasun berehalakoa nabaritu zuen, ezen zaila zen gizaki baten gogo xumea betetasun triunfalagoz abiatzea. Ez zegoen, bat-batean, gurutzeraino oldartu beharrik. Hain zen erraza positiboki ezberdina izatea! Gehienek asko estutzen zuten lekuan, apur bat gutxiago estutzen hastea nahikoa zen, aurpegiak erreberentziatik irribarrera alda zitezten. Nahikoa zen bestela ere nahikoa zamapean bizi zirenei bizitzen uztea, kristauak askatasun osoa bailitzan esker zezaten. Nahikoa zen euskarazko otoizgintza Jainkoari atsegin zitzaioela esatea, aldareko marmol inperialen dardara-puntua igar zedin. Nahikoa zen pentsakizun infernugarriak konfesatzera belaunikatzen zirenak ‘*ez da hainbesterako; zoaz Jaunaren bakean*’ esanez bidaltzea, jakuzki espiritualaren miraria senti zezaten. Ez zegoen ‘infernua hutsik’ egon zitekeela iradokitzea besterik (existentziaz dudatzea gehiegi izango zen), kristauak *abade hauxe laster eroango jakok hemendik* esan zezaten. *Hutsik egotekotan, zertarako egin zen?* galdetzen zuenari nahikoa zen erantzutea Jainkoaren asmoak, batzuetan, kapritxoak iruditzeke bezain misterioitsuak direla. Ez zegoen argitu beharrik, jakina, Jesukristo osoki imitatzen hasiz gero, hark jasan zuen azkena nork ezarriarik ez zela faltako, sakristietatik kuarteletara abertentziak korri zezan: “*Profeta-zorri horri irakatsi beharko jakok bazterrak nahastu nahiak zer balio dauen*”. Ez zegoen hainbesterako beharrianik. Zorrozkerria inperantean distentsio adeikor bat nahikoa zen, kristau-herriaren txera irabazteko. Merezi zuen, benetan, hain ezer gutxigaz hain eraginkor bilakatzen zen ofizioak.

– *Eztok, Ernai? Hire kideak be sarri etortzen zoazen abadetxeko atera. Eta zabalik bazegoen, barrura, euren etxean ondo gordeta egoten ziren gaileta edo madalenatxoan bila.*

Atartean, eguzkia bueltatu aurreko biago laburretik itzartzean (laburra izan behar, eman diodan egur zatiagaz gogaitzeke baitarrai txakurrak), beste bi txakur hauteman ditut, ehizakoa eta ardikoa diruditenak. Distantziatik begiratzen dute, hurreratzeko baimenaren zain.

– *Ez, aluak! Orain ez naizue izorratu, bihozberatasuna tentatzera etorritz, neure buruagaz nahikoa zeregin dodanean. Bai, bai! Bajakiat ez nozuen molestatuko, eta laguntzeko be prest egongo zariena, baina, narabilen zorabio mentalagaz, ez joat gura nahaste sentimental gehiago. Alde hemendik, mundua oso zabal jarri dok eta. Alde esan joat! Ernai! Hi geldi hemen, eurekin joaten uzterik gura ez badok.*

Harrika jarraitzeko plantan hasi naizenean, apur bat ikaratu direla ematen du, *bat geratuko eta berak hain petrata izan behar!* pentsatuz, segurrenik. Gorantz harturik, harrikaden mugatik

haratxoago, berriro gelditu dira, baita eseri ere, *ezetz ailegatu honaino!* desafiatzen bezala. *Nekaben! Tentatzen oraindino? Laster ikusiko dozue!* Eskopetaz irten naizenean, lehenen ikaratu dena neure txakurra izan da, etxe osterantz arima iheslaria bezala desagertuz. Beste bi arrotzek, distantziaren konfiantzagatik edo eskopeta artean ibiltzeko ohituragatik, ez daukate mugitzeko konturik, armaz apuntaturik ere. *Ez, eh? Hurreratuz-hurreratuz, bata tentetu, bestea ere bai segidan, ira-meta ibiltari bati bezala begiratzen didate, ira-meta batek zer egin behar jok, ba?* elkarri esanez. Hurreratzen darrait, eskopeta paparrean luze; belarri-buztanei ondoetorri plantan daragiete. *Hori gura dozue?* Danba-danba tiratzen diet, ez jotzera, baina bai perdigoiak gainera jausteko moduan. Bien artean txilio bikoitza eginik, tximista bakarrean alde egin dute, mundua atzetik ixten balihoakie bezala. Bueltan, kasik neuri ere alde egiteko gogoak eman dit, dozena erdi animalia insolito zelai-plataformaren ertz egiten duten harkaitzetarantz lasterka hauteman ditudanean.

– *Ostrukak hemen? Nondik? Zelan? Zertarako?*

Galdera transzendentalak ez dira inbalidatu, antza, azkenekoari ez diot zentzu handirik aurkitzen baina. Izan zitekeen *zertara*: janari bila, goi bila, galdutako norabide bila. Gauden egoeran, nork jakin zenbat gauzaren bila edo ihesi ager daitekeen izaki mortutar bat Oizko maldetan. Baina zer zentzu dauka *zertarako* batek, lepo amaigabearen gailurtzat ia buru inpertzeptiblea dakarren piztia batengan? Ikaratu egin naiz. Gizateriaren ezabatze zelebre honen gainean, animaliek, kutsaduraz edo liberazioz, sen arbitrarioetara jotzea araberakotzat har zitekeen, portaera berri horri, hainbeste desarrazoiren esplikazio bakartzat, finalitate bat esleitzea naturalago ez balitz. Orduan, finalitatearen helburu neu izan nadin arriskua argia da, zoriz erretiratu naizen bazterreraino ostrukek jarraitzea nekez esplikatzen baita niganako esprestasun gabe. Beharbada, okerra, errua ere izan daitekeena, neurea izan da, galdera egiteagatik, ‘norberak galdetu, norbera ikaratu’ metodoaren arabera. Patari horiek ere kiratsari iheska badatoz, *zati batean ez jaukaagu behera jaisterik, Ernai!* Kiratsa bera ez badator, goizeko behelainoa bezala, mendi osoa estaltzera. Orduan zertan lagundu behar digute hegaz ere ez dakiten hegaztitarrok, zeintzuk, pertsonan, behin bakarrik ikusiak ditudan, orain urte batzuk, Txorierriko errepide baten kontran, *hi! horreek ostrukak ez al dozak* hots eginez gelditu ginenean? Ardi-larruz baturiko kalabaza handi bat, otsoen erreklamutzat ipintzen zena, bi hankapaluren gainean, eta suge tente bat burutzat duen espeziatzat deskribatu izango nukeen horrek dezepzionatu egin ninduen, barruti kakatsu batean hain zikin eta konforme ikustean. Itxura errukarri hartara eurenez ez zirela sartuko pentsaturik, dezepzioa bainoago tamala eman zidatela esan behar, higuina ere ukatu gabe, geroztik haien ondotik burua besterantz bueltaturik pasaraziko ninduena. Ezinezkoa da ale haiek honaino etortzea, ez hainbeste, distantziagatik (zertarako frogatu behar zuten euren ibilmen nekaezina, arriskuaren aurrean burua ezkuta zezaten motibo nagusia errepresentatzen duen gerakin bakarria bilatzeko?), baizik barrutian gosez hiltzea inebitablea izango zitzaielako. *Horixe dok! Datozen lekutik datozela, horreen finalitatea neu nok, zaldian ibiltzeko nire irrirts estrangulatua ostrukara aldatu zenetik.*

Behor gorria zeukaten Pardinorre auzoan, Zugaztietako errotara joan nendin eskatu zidatenean, pozarren onartu nuen. Hamaika urteko mutiko batentzat, inoren etxetik deitua izatea kategoria kitzikagarria izanik, saria barne, errepide zen bidearen erdia behor flamantea sokatik zeramala egitea harrotasun paregabea zen, batez ere, metro gutxira, trenagaz paraleloan gurutzatzean. *Ikusten mutiko hori? Gizonik be ez zamaltzain txairoagorik!* Baita tentazio handiegia ere bueltan, estarta baten mehargunean gainera igotzeko. *Ez non botako, ezton?* Ezin nuen etsi behor hark zergatik ez zidan ematen nire beraganako desioa adinako konfiantzarik, zeinaren eza, segurrenik (pentsatzen saiatzen nintzen), neure irudipena gehiago izan zitekeen, aberearen gaiztakeria baino. Nire zaldiketa ilusioak, behin honezkero betetzea zail izango denak (zaldia bai, baina ilusioa falta daiteke) adikzio atabikoren bat izan behar zuen, halako beldurrari ez obeditzen ausartzeko. Ez dago dudarik behorrak nire bihotz-taupadak bizkarrean sentitzen zituen. Estarta

amaituz batera, lurrean luze nintzen, eraitsi ninduelako, pentsatu nuen orduan, beldurak bota ninduelako, pentsatzen dut orain, sustoak gorantz jaurtitzen bezala, beldurak beherantz tiratzen baitu. Pentsatu gabe orduan, jakina, jauskeran eskuin-besoan min hartzeko izan nuen zorteak hurbiltzen ari zen lehen komenturatzea, tristura hondogabearen sentsazioa estreinaraziko zidana, hamabost egunez atzeratuko zuenik. Orduantxe aldatu nintzen ostrukara, desio inpossibleak, gehienez, desio inpossibleagora tiratzen duen legeari jarraituz, imaginatzen nuelarik zer zamari eroso izan behar zuen, segurantza osoz heltzeko moduko lepoagaz, barraketako zalditxo edo ahateena baino askoz egokiagoa berau. Nahi izanez gero, exzitazio-barra pornografikoa; baldin benetako sugea ez bazen, neure desioa kontatu nionean, lagun batek era beldurgarrian antzeztu zidan bezala, hura ere laguntzen baino izorratzen trebeago.

Komenturatzeko atzerapenez gainera, besoaren sendakuntza lentoa zorte erantsia izan zen, ezkerrez eskuinaren pare treba nendin. Aldi berean, hanka ezkerre ere berdin trebatzera behartu ninduen eskuineko behatz nagusiko atzazala haragian sartzearen zoldurak, zergatik gertatzen zen ulertu ezinik (oinetakoengatik esango nuke orain), urte osoan isilean eraman nuenak. Azkenean, berez-berez joan zen, zer zen ez nekien erizaindegiaz galdetzeko atrebentziarik ezagatik, batetik, eta bestetik eta, batez ere, errotulu higatu samar batean jartzen zuen *Enfermería*, lehenengoan, *Infermería* irakurri nuelako; noizbait garbitu edo ordeztu zuten berrian ere berdin irakurtzen jarraitu nuen. Hitz horrek, diziplina zorrotz eta expiazio etengabezko giro hartan suposatzekoa zenez, ez zidan batere konfiantzarik ematen, eta isiltasunaren metodo infaliblean babestu nintzen.

- *Eskumagaz zergaitik ez dok jotzen?* –futbolean jaulkitzen bazidaten,
- *Nik ezkerregaz be bardin jotzen joat* –erantzungo nuen.
- *Joik biekin!*
- *Biekin batera zelan joko joat, ba?*

Kargu-hartzaileak ez zuen, noski, ‘biekin batera’ esan nahi izango, baina, adin horietan, oro har, isilik dabilena pentsakizunak josten trebeago izateaz gainera, baloiak logika handirik gabe korritzen zuen zalaparta hartan ez zegoen astirik arrazoiaren puntei begiratzeko. Isiltasunaren metodoak ere bazuen, noski, bere alde dohakabea. Egunean zenbat begiratze ezkutu, behatza ustelduko ote zen beldurrez! Hala ere, gero, gaitzak noizbait joanik, komentuarekiko zorrik txikiena ez zen izango hainbat harro-une ekarri zidan eskuin-ezkertitasun bikoitza, batez ere, nerabegaroko gailen-gura konbultso hartan.

Tiroak izutu bide dituen ostrukok hain irrikagarri ei zaizkien harribitxiekin adiskidetzen ahalegindu behar dut, ea gameluak ere etortzen animatzen diren, konkorr-bikoitzak ahal dela, nire adinari eta gozotasun-gurari dagokienez. *Apatx hementxe, bi konkortxoren erdian*. Nago inoiz tratatzerik izan ez dudana abere kankailu horiek oso lagunginak izan behar dutela, solasa ere patxadatsua, txakurtxo honekikoa infantila den bezala. *Ernai! Zer behar dok? Utziko al nok apur baten bakean, heure egur muskilokin?* Hori baino solas eminentegoa ere beharko dut, noski, eta sumatzen dut solas horren falta gizakiena euren baino gehiago hartuko dudala, nire izaera soziala definitzen ei zuen bakar-grinak jarraitzen badu, behintzat. Norekin hitz eginik ez bazegoen, neure burua hirukoiztuko nuen, nor-nori-nor barne zirkuitu minimoa baina askigarria sorturik (*zer dinok, hi? etxera joan behar dogula berandu egin barik!*), Jainkoaren (edo jaingo espezie baten) kasuan bezala, bi elementugaz lerroa besterik ez baitaiteke osa. Beronek ere, infinitua izatekotan, bi aldeetarantz amaigabea izan beharko luke. Alde bakarrerantz, tira, baina bietarantz ea nola imaginatzen duzun hori, irudimena ahalguztiduna zela baina. Lerroaren erdian kokaturik (lerro infinituaren gainean edozein puntuk izan behar du erdiko), norantz erabaki behar duzu norabide amaigabea, kontrako noranzkoa anulatu gabe, zeren zertarako utziko duzu lerro bat, bertatik inor ez joatekotan? Amaigabetasunak ez daukala puntarik? Mozt ezazu lerroa bertan, eta abiatu edonorantz.

Bi amaigabetasun sortu dituzu, bakoitza punta binagaz. Lerrotik kanpora, ezker-eskuin zer dagoen niri ez galde, zeu ari baitzara esperimntua egiten. Izaki kontingenteak ez daukala lerro infinitua zapaltzerik? Ez dago gaizki pentsatua, baina objekzio horrek zentzudun dirudien baino zentzugabeago litzateke lerro infinitu bat trazatzea, inor bertatik ez pasatzeko, hots, bera inondik ez pasatzeko. Nik dakidana da biribilkoia ei den unibertsoa, egunen batez, lerro bihur badadi, guk ez diogula igarriko. Hobe izango dut lerroa itxi, zeren, biribilean edo trianguluan (nor-nori-nor), misterioa ez da ulergarriago, baina maneigarriago ematen du.

.....

Oizko bigarren goizeko eguzkia itsasotik tantaka agertu denerako, San Kristobalen baseliza ondoan naiz, makila eskuan, motxila bizkarrean. Txakurrak, zelai suabeki kurboan itzulinguruka, iparreko ala hegoako zein haizeri nondik hozkatu ez dakiela dihardu. Han dago nire jaiotetxe Torreburu, beste bizkar apalago baten bi haizeetan, aurrez ematen dion argitasunak pinadi adoleszente baten kontrara sakatua. Bizkor joanik, bi ordu aski lirateke, baina, bideetako irak makilagaz iratzartzen ditudala, bazterretako oroitzapen ugalkorrek jasotzen joango bainintzateke, gutxienez, lau ordu jo behar dira. Abiatuko banintz, bizi guztiko etxeratzeen poz pilatuari beste hainbeste alderantzizkoren tristura gainjarri beharko litzaioke (gehi egoera hain estremo batek sentimenduei eransten dien intentsitatea), ulertzeko nolako ahalegina egin beharko nukeen emozioari zoko bakoitzean tente eusteko. Naturari barkatzea kostatzen zaidan hegalaria ez izatea iraultzerik banu, zoragarria litzateke saien bideetatik etxe gainera iritsi eta, bere gainean birunda gozo batzuk eginik, atarira kiribilean jaistea, inoiz baino antsiosago ez banengo lurrera fisikoki atxikitzera, oinkada bakoitzean lehenago zabalduetako izate-partikulak bilduz joateko. *Goazen, Ernai. Begira egonda ez gozak inora ailegatuko.*

Oizen azpi hurbilean, Bizkaiko auzorik gorenarikoa izan daitekeen Maumera jaitziko naiz ordubetea, gero handik errepidez, Astei eta Muniketan zehar, Ezkurraztin berriro basabidez, neure jaiotetxeraino heltzeko. Inor ez da egongo, baina ez dio ardura, neure antz-antzeko aurpegiagaz hartuko bainau, umetako pertzepzio gardenaren arabera, non herikideen fisonomia bizi ziren etxeekin bat egiten nuen. San Kristobaldik beherako pistatik, urak erruki gabe apurtu eta behin honezkero inork konponduko ez duen honetatik, basorantz sartu eta zein bide trabes ala beherako hartuko dudan erabaki ezinik nagoela, urteak baitira hemendik igo ez naizena, bihotz taupada potente batek jo nau, gero kolpe txikiago baina bizkorretan darraiel, upel hutsari barrutik burukada hordi bat eman baliote bezala. *Infartua ez zoan izango, eztok, Ernai? Ez deuala ardura? Dios! Uste dut badakidala zer den. Nora noa ni bide basa hauetan behera, printzesaren aurkitzeaz beste edozer gertatzeko arriskuan? Ño! Printzesarena ez litzatekek txarrena oraintxe, iratza bat epel-epel, lorrin-lorrin izteko. Printzeak ere balio lezake. Enda hori huts samarra izan ohi denez (araua baitesten lanak, salbuespen kontu puta horregatik), berak alderik ez luke igarri ere egingo. Alukeria biak aurkitzea litzateke; orduan, beste erremediorik ez legoke, printzea zuhaitzari lotzea baino. Hortik aurrera, heure lana litzatekek, Ernai, trebean ez jakiat, baina zalean bahaz ni beste eta.*

Bada hemen azpi-gako iraunkor bat, zeinaren agindura makurtzea maizegi ahazteak nolako ondorioa ekar lezakeen nahita ere ezin dudan aurreikusi, ustekabeak berak ere, neurri bateraino, esperientzian oinarritua izan behar baitu. Nire bihotzak sumatu bide du beheranzko arriskuen berri, zeren zer dakit Oizera igoarazi nauen kiratsak, uniformea izatera mugatu beharrean, nola eta noraino eraso lezakeen, neure bidaia hunkigarrian aurrera joko banu? Aspaldi jabetu nintzen haranek alde guztietarantz ematen duten ikusgarritasun zindo hori engainu mortala izan daitekeela. Ordenagailuaren aurrean lokaturik, telefonoak jo eta, berari heldu beharrean, sagua belarrian, *bai? zer? nor?* oihuka itzartzen nintzenez bezala, zentimetro batzuk harago txirrinak berean ziharduela, *baina zer pasatzen dok hemen, nondik deitzen dok, dios, honenbeste aparatu, azkenean inutiltasuna*

be galtzeko! Ez naiteke bidean bizirik usteltzera arriska, hil ondoko ustelezinik desiatu ezin dudana bezala. Eser nadin bertan eta dagidan bidaia, bizio guztiak bertatik sartzen ei diren begiekin.

Zornotzako karmeldarren komentuan lehenengo eternitatea eginik (urtebete zer zela uste zuten haiek, hamar urteko ume batentzat?), etxerako bezpera gaua beste eternitate loezin bat izan zen. Hobe luzeagoa izan balitz, halako poz intentsitaterik ez baitago izaki txiki baten golkoan errepikatzerik. Ohean ezin naiz egon. Komun itxian saltoka dihardut. Berriz ohera. Surikaten antzera burua jaso eta beste ehun lagunak lo ote zeuden begiraturik, atzera komunera nator. Dena isiltasunik handienez, oin puntak airean; diziplinarentzat ez dago azken gaurik. *Egun bateko atzerapenaz zigortu naieen besterik ez joat behar!* Kontentzio ahalegin biolentoak pozari leher sentazioa damaio. Parrokiako kanpaiak, daun-daun-daun. Oraindik hirurak bakarrik.

Urte amaigabea zehar, noiztenka egin nuen leho debekatuetatik, nire beldurrarentzat balentria heroikoegia ez izatera, iluntzero egin izango nukeena: beheko errepidean, Kalbarioa izeneko etxe tartean, aita lanetik etxerantz oinez pasatzen ikusi. Ez hainbeste beragatik, baizik ziurtatzeko, birkonprobatzeko, baietz; etxeranzko norabidea bazela; gizon hura ordubetean iritsiko zela nik eternitate bat itxaron beharko nuen Torreburura. Gizon hura edo antzekoren bat, distantzia hartara eta nire urduritasun lapurrean, zaila baitzen identitatea segurtatzea. Inoiz lau aita ikusi nituen pasatzen, hurrenez hurren (*horixe dok... horixe dok..*). Bigarren urtean, herriko abadeak nola eta zergatik ez nekiela aldatu ninduen Derioko seminario urrunean, noizbait oporretan etxera joateko iritsi zen bezpera-gauak intentsitate hura gaintu egingo zuen, ez gehiago ezinezkoa zen pozean, askoz larriagoa izan zen urtearen nasaikuntzan baizik. Aurreko urtearen konparazioa hain hur edukirik gogoan (ezen ez denboran), orduantxe hasi nintzen sentimenduen fatalitatea susmatzen, esan nahi baita, pozaren gailur gaintuzina azkar jotzen den bitartean, okerrean beti dagoela okerragoaren beldur justifikatua. Badakit manipulazio bat izan daitekeela oroimenarena, zeinak poz joanen gailurrak iragan oro hobea izateraino handitzen dituen (orduak, zertarako aurreratu gura genuen?), eta nahigabeak ere ezin handiagotzat aurkeztuko dizkizun, baina, batean, zoriona beti handigarritzat, eta bestean, delako zorigaitza beti maximotzat sentitzeko grina agian arbitrarioaren arabera. Ez dakit. Nik neure oroimenagaz bizi behar dut, ez hari buruzko teorietan.

Hirugarren urtean, etxeratze borobila izan zen, zorion absolutua esan genezakeena. Nire poz gaitasuna, osoki ez ezik, inondiko kezka gabe osatzen zen. Aurreko urteetan, bazen poz hura zauritzen zuen mehatxu larri bat: itzulera. Hirugarrenean, hamalau urte estreina-berrien uxtertasun borazean, nire golkoa bol-bol zebilen. Gauetan, berrogei astakumeko logela korrituko leihotik, autoen argi amodiozkoek (omen) frekuentatzen zuten Santo Domingora, Bilbo ostentzen zuen horizonte hartara begira, erabakia hartua zuen ikaskide zaharrago baten plan zoragarriak –etxean gelditzeaz beste ezer apartekorik ez zeukatenak– bekaitz adurtiz entzuten nituen, baita haren balentriaren miresmenez ere. Galderak multiplikatzen nituen, erantzunen batean neuretzako moduko irtenbideren bat agertu ote zen.

– *Etxean bajakiek?*

– *Azkenengo bisitan, amari eta arrebari jakin eragin neutsean.*

– *Zer esan jeurean?*

– *Zer esango jeurean, ba? Etxekoa ez nok ala?*

– *Zuen aitak zer esango jok?*

– *Gure aitak nahikoa jaukak, Arratiako goizeko lehenengo tranbian, Bilboko portura ailegatu eta azkenengoan bueltatzeaz. Beharbada, poztu egingo dok, etxean lagundu neikeela eta.*

– *Seminarioko nagusiei esan deutsek?*

– *Oporren azkenetaz, etxetik gutun bat bialduko joat, gehiago ez natorrela esanez, eta eginda.*

- *Zergaitik ez, joan aurretik?*
- *Estudianteen bizimodua oporretan ez dot hain txarra izaten. Itzultzeko asmo barik noala jakitean, etxean kapaz dozak nonora derrepente aprendiz bialdu naieen.*
- *Bildurrik ez deua emoten seminarioa horrela uzteak?*
- *Bildurra, zerena? Bokazinoa librea dela ez jeurek esaten, ba?*
- *Herrian ‘malfraile’ deitzen hasten bajazak...*
- *Nekatuko dozak. Orain urte bi, gure herriko Arbizu eta Sarrio be horrelaxe etxeratu zoazen, eta han jabilzak biak pintxo-pintxo, euren nobiatxoekin.*
- *Heuk be laster topatuko dok baten bat, txarri horrek!*
- *Lehenengo, begitu egin beharko joagu, amerikar gaztai-usain hau apur bat joan arte, behintzat.*
- *Hik daukak subertea!*
- *Heuk be bai, gura badok.*
- *Nik ez joat, hire moduan, futbolean jokatzen.*
- *Eta zer? Zeozertan asmatuko dok.*
- *Ni bizi nazen parajejan?*
- *Baita baztarragoan be. Leloa haz ala?*

Nire lagunaren zientzia, argitasunari baino gehiago (ikasketetan ez zebilen hain aurrera), beldurrik ezari zegokiola uste dut. Haren erabakia oskarbi zen, hodeirik ikusteko gauza ez zelako. Beldurrik ez duenari (interesen bat igarriko ote dioten bada ere) nahikoa zaizkio ezaguera arruntaren arrazoiak, harik eta jakinduria gorena berori litzatekeen ezaguera horri barne- edo kanpo-interferentziek konplexutasunean kamuflatutako ulertezina ezarri arte. Bai argiak garela geure izatea tarteko ez denean, esaterako, inoren arazoez, eta bai ezjakinak, geu tarteko garenean, esaterako, geure buruez. Egoismoaren paradoxa: inorekiko aditu, norberekiko kamuts. Ezaguera arruntaren nagusigoa ezin argiago azalduko zen berrero, udako oporretan azkenengoz etxeratu nintzenean, aita erasoko zidala jakina zen betiko hartan:

- *Asko ikasi dok aurten?*
- *Behar dena.*
- *Behar dena zenbat dok?*
- *Zuk ez aitzeko beste.*
- *Nik aitu ez? Hik oraindino, nire parera heltzeko, garaunak gordintxo daukazak.*
- *Horrek, laster, hik eta denok batera baino gehiago jakingo jok –jaurtiko zuen auzotarren batek, gure aita, pozik entzun arren, berehala rebitutuko zuena:*
- *Honek nik beste ezin jok inoiz jakin, ze, ni nagoen punturaino ailegatzen den bitartean, neuk be aurrera egin joat. Barrero, niganaino ailegatzen behar dauen denporan, ni aurrerago najagok, eta horrela, tartea laburtzen joango dok, baina harrapatu, sekula be ez.*
- *Eta zu pasatzeko beste aurreratzen badot?*
- *Nik ‘harrapatu’ esan joat, ez ‘pasatu’.*

Gure aita beti irrikaz egoten zen antzeko kasuren batera aplikatzeko, Otxandioko Hamalauk zergaitik hator erbiaren atzetik hanka-bakarrean? galdetzean, lasterkari batek erantzun zuena: *Erbia harrapatzeko, biekin pasatu egiten dot eta.* Sinesten nion, etxeko animaliekin hamaikatan saiatzen bainintzen, esperimintuan inoiz arrakastarik lortzeke. Txakurraren atzera-aurrera gauza jakina da. Behin pasatuko zaizu, behin pasatuko duzu, baina parean joaten alferrik tematuko zara. Behie ere ez zitzaie gustatzen alboan joaterik, juliskeria-edo iruditzen zitzaielako. Bagenuen txerri bat, txakurraren antzera jarraitzen zuena, lasaiago eta zentratuago baina. Atzetik jarraitzen uzten zuen, ukitutuz bazen, hobe; gustura barrabana, txerrien azkura-estAsian. Aurrea hartzen banion, hurhurretik zerraidan, abarka orpoak jan guran, zenbat eta zaharrago eta apurtuago eurok, hainbat gogotsuago bera, eta setatiago ostikaden kontra. Lagun banaezina, maitemin-hurren, barrabana.

Baina alboan joaterik inondik ere ez zuen onartzen, ezta azkura truke ere, zer transbersal oro antihigienikoa bailitzan. Beharbada, asimetriaren bat gelditu izango zitzaion, txerrikume zela, etxeko mutikoon esperimantu irresistibletariko bat, gurasoen ausentzian, hura mozkortzea izaten zenetik. Gehiegi ezin zitzaion eman, botilan beherakada igar ez zedin, baina berehala pizpiltzen zen alua, azioa errepikagarri egiten laguntzeko edo. Txerrikume transformatuak ikuskizun elektrizantea garatzen zuen, etengabe sortzailea, beti ateratzen baitzuen deribazio berriren bat. Haurrok fantasiatsuak ginela, baina uste dut txerrikume hark irudimen eszenikoan inimizazio eminentea paratu zigula. Ez zen harritzekoa haren txerri-afaria ere normala baino alaiago gertatzea, edo geuri, behintzat, hala iruditzea, elkarri esaten geniola:

- *Gaur txarri-hiltzaileak a zelako anporra harrapatu behar dauen.*
- *Kostako jakok gure amagaz.*
- *Amak ez jakik ezer.*
- *Jakin zer?*
- *Ez al haz gogoratzen txarrikumea zelan mozkortzen genduen?*
- *Lekutako kontua!*
- *Afariaren azkenean esango deustak. Txarri hau nik uste joat alkoholikoa zela.*
- *Horregaitik esango joan amamak ‘aurten odol baltzagoa dakar honek’.*
- *Hori zelan esango joan, ba? Urtero txarri bera izaten dela uste al dok?*
- *Amamak horixe esan jok. Txarria diferentea izan arren, arima izan leitekek bera.*
- *Heu haz hi bera! Entzuteko be handiagorik, txarriak arima!*
- *Eta baleuka be zer?*
- *Haxe gehiago. Heuk trikinosia edukitzerik ez dok pentsatu?*
- *Zer dok hori?*
- *Ez jakiat, baina gauza alegrea emoten jok.*
- *Arima gauza alegrea zenik ez joat sekula entzun.*
- *Nork esan deua trikinosia arimaren zeozer zenik?*
- *Heuk ez dinok, ba, trikinosia zer den ez dakiala?*
- *Arima zer den heuk badakik ala?*
- *Horrexegaitik! Ez bata ez bestea zer diren ez badakigu, izan leitekezak elkarren zeozer.*

Asimetria kontu hori txerriena bakarrik ez zen. Erromerietan, bikote exhibizionistak besotik helduta paseatzen hasteko moda abiatu zenean, denei ez zitzaion, antza, zuzen imitatzerik komeni. *Hi, Justo! Neskaren ondoan joan hadi, ba!* Ahaleginduta, okerrago. Metro bi aurretik ez bazen, metro bat atzetik joango zen, neska aditu samarrak ‘desbrazaturik’ ez bazeraman. *Zelan izan leitekek ‘desbrazaturik’* –pentsatzen nuen, hitzen anatomiaz xarmatzen hasi nintzenean–, *besotik heltzea bada, hain zuzen? Ah! Hau ‘del brazo’ izango dok* –deskubritu nuen azkenean, gure sen inkontzienteak ‘del’ estrainio hori gure ‘des’ atzizkira ekarriz, harik eta euskalari ilusionista batzuk hau ere atzizki arrotza zela kanpai jotzen hasi ziren arte. Jendea sorpresgarriri sineskor aurkitu zutenez gero (sinesmena kontrarik ez egitea baldin bada), eurek ere sinetsi egin behar izan zuten, sinesmena besteen sinesteari jarraitzea izan zedin. Sinesmen kolektiboa, hots, pandemia sineslea. Kanpaiena ez da aipu kasuala izan, zeren zer egiten genuen, ba, hil-kanpaien atzetik hiletara joatean, objektua benetan hila zenik, sarritan bazenik ere, egiaztatu gabe? Kanpaiak entzun, kutxa estetiko bati lagundu, eta aurrera bolie. Estetikoa, bai. Hilkutxa orde, bizikutxa izan balitz, inork ez zukeen dudarik izango etxeko altzaririk dotoreena zein zen. Haurren neurrian, sehaskarik xarmentena.

Biziaren paradoxa ez da hil nahi eta ezin bizi, bizi nahi eta ezin hil baizik. Gure aitak ez zekien (neuk ere ez orduan) Zenonen paradoxa formulatzen ari zenik. Handik urteetara, berak baino gehiago ote nekien eztabaida ugarietariko batean, greziar famatuaren izena aipatu nionean,

deskojonatu egiten zen: *Horretarako ez jagok orain hiru mila urte jaio beharrik*. Zenonengandik urteetara, seminariotik etxean gelditzeko erabakiagaz etorri nintzen oporretan, uda bazihoan aurrera, baina ni lasai. *Bihar esango joat. Zapatu iluntzean esango joat. Domekan esango joat*. Uda erdian, abuztuaren batetik hamalaura, ‘udako hamabostaldia’ eragiten ziguten. Ez genion zertarako balio zezakeen antzematen, oporraldia erditik puskatzeko ez bazen, nondik susmatzen genuen horixe izan zitekeela helburua, aldiune luzeegiak susta zezakeen laxokeria edo gehiegiako urruntzea eragoztearren.

Hamabostaldi horrexen ondoren esango joat, agintzen nion neure buruari, beste norbait bailitzan. Abuztua bazihoan amaituz, eta: *Nori esango jeutsaat lehenen? Anaiari, beharbada. Ez. Amamari. Ez, osabari. Amari esango jeutsaat. Zergaitik ez aitari berari, Autzaganeko tabernatik etxerantz alegre gatozen batean? Azkenean, bati esan nion, apur batean inori ez esateko eskatuz. Hark berehala jo zuen amagana: Zertan zabilz hori egunero mezatara bialtzen, gehiago seminaria ez joateko? Eguerdietan, amak eta biok bakarrik bazkaltzen genuen, aita eta senide zaharragoak lanean, txikia amamarenean, txakurra mahaipean, oilarra atarian. Indaba gorria eta urdaia, ia eguerdiroko menua. Ama eta biok aurrez aurre, mahaiaren alde banatan.*

- *Honi be esan beharko jeutsaat, ba* –neure artean, eta berak bat-batean:
- *Gehiago ez hoala seminaria, orduan!*
- *Nork esan deutsu hori?*
- *Txori batek.*
- *Hobe leuke txori horrek hegoak ihartu balitxakoz.*
- *Txoriek ez jabek hegoetatik berba egiten.*
- *Samatik, orduan.*
- *Ondo jagok. Moztuko jeutsaat, baina kontua bestea dok.*
- *Nik ez dot seminaria bueltatu gura.*
- *Orain arteko guztia alperrik egin joagu, orduan?*

Galdera airean, burua plateran, taloagaz urdaia zehatzen jarraitu nuen. Amak ez zion lar ekin. Ezin dut esan nolako aurpegikera zeukan ere, haserre, nahigabez ala pasoan. Begiratu banio, beharbada, nasaitu egingo nintzatekeen, seriotasun teatrala besterik ez zela igartzean, baina nik ez nekusen neure barruko korapiloa besterik. Gauez, afaritan, aitak eguneko pasadizoak ohiko umorean kontatzen ziharduela, amak esan zuen:

- *Dena kontu alaia be ez da gurean.*
- *Zer pasatzen don, ba?*
- *Mutikoak ez ei dau gehiago seminaria itzuli gura.*
- *Orduan, pikatxoa eta pala hartu eta Astepera joan beharko jon.*

Mehatxu hori lehen ere entzuna nuen, eskolara jarraitu nahi ezta ibili nintzen bolada larri batean. Astepe Zornotzako langile-auzo bat zen, lan arrastatuak egiten ziren entzutea zeukana, gure aitaren burueran, behintzat. Pikatxoa eta pala beste ezertarako baliorik edo borondaterik ez zeukatenen destino dorpetzat jotzen ziren. Gure aitak bazekien, antza, mehatxu efektiboa zena. Ia gaueroko menua zen hartan, porru-pataten gainetik talo-esnea jaten niharduela, nire barruko korapiloa beldurgarriro handitu zen, hodeia trumoi bihurtzean bezala. Aitaren aurpegira begiratzeko akordurik izan banu, beharbada, konturatuko nintzatekeen hain zalea zen konparazio esageratuetariko bat besterik ez zela izan. Beharbada, benetan sentitu izango zuen semea, ez nahitaez abade, baizik pertsonaia bat bilaka zedin harrotasuna zapuztea. Beharbada... Adin txikietan ‘beharbada’ asko gelditzen dira airean, tximeleta bihurtzen urteak behar litzaten ninfak bezala. Hauek iristen dira xedera, baina haiek ez dute, gerora, kapulu bizitzaren oroitzapenik, suposatzen

dut, tximeleten buruak nahikoa zeregin baitu hego politegi baina mozkor samarrei eragiten. Esan genezake denbora dela txalupa azkar bat, zeinaren branka irekiz doan posibilitate infinituak popan ixten diren, etorkizunean pentsagai bat, inoiz, obsesio bat, izateaz beste zentzu gabe. Hurrengo egunetan, inork ez zioen ezer. Neuk ere ez. Goizero mezatara joaten jarraitu nuen, irailaren azken astea aurrera zihoan, ama maletaginan hasi zen, inork ez zuen galdetu *ezetzean jarraitzen dok?*, neu ere ez nintzen ausartu jarkitzen *ez al neban esan gehiago ez nindoala seminariora?*, eta San Migel bigarren goizean, maleta handia bizkarrean, txikia eskuan, burua golkoan, mendian behera abiatu nintzen, txakurra erromadaren kontratik etxera bidali ondoren, esanez: *Itzuliko nok, noiz ez jakiat baina*. Zer gertatu izango zatekeen etxean, ezetzari eusteko adorerik izan banu? Ezer ere ez, segurrenik, orain pentsaturik. Penatxoa hartu izango zuketzen; igande batzuetako lotsaria ere bai, abadegai bedeinkatua aldare ingurutik bere adinekoen aldra arruntera jaitsita ikustean. Aitaren umorea ez zatekeen horregatik higatuko, amaren bizimodua ez zatekeen estuagoa izango, baina, haurren eta nerabeen buruan, orduan, orain, beti, helduen egiazko posizioa nekez izaten baita doiki hautemana, denak lehenean jarraitu zuen, neure barruko korapiloak izan ezik, zapuzturik lehenik, etsirik gero, denboragaz susperturik, azkenez. Handik urteetara, urte askotara, honelako komentarioak kontuz egin behar ziren gure ama zahartuaren aurrean. Lau umez “bakarrik” erditu izanaren bekatua seme bat abade egiteagaz, beharbada, ordaintzea lortuko zuela elizan noiznahi gogoratu zioten batek ez zuen besterik behar, hainbeste kostaturiko diru-ordainez gainera, azkenean, semearen sufrimenduen errua ere berea izan zela entzutea baino. Horixe ateratu nuen, behintzat, hitzak ez neurtzen deskuidatu bide ginen batez, aurpegikera minduz hots egin zuenean: *Ez al hintzen, ba, heuk gurata ibili?* Bestalde, sentimenduen analisiari baino bizibidearen ertzei gehiago begiratzera beharturik aurkitu ziren gerraoste amaigabe hartan, seme bat abade egitea bizitzarekiko errebantxa on bat izan zitekeen, nolabait. Azkenik (eta ez, beharbada, indarrik txikienez), ezin zuen ulertu nola nik halako irritsa izan nezakeen, berak, ahal izatera, handik hain gustura alde egingo zukeen etxera itzultzeko. Gure amarentzat, mendi hartan ez zegoen poesiarik.

Gorabehera hartatik gerora, hamazazpi urte nituela, seminarioa izurritu zenean bezala. Tifusa ei zen, apaizgaiak sukarrak handietan erortzen hasi zirena. Irrikatzen nengoen gaitza handi zedin, ea etxera bidaltzen gintuzten, eta irrika bete egin zen, gaitza erdiak erdien erizain bihurtzetik gora zabaldu zenean. Azkenean, ez gutxi kostata, lau urte lehenago (seminariotik alde egiteko erabakia bete ezinik gelditu nintzenaren aurrekoan), hiru ikasle hil zireneko eskarmentuaren gomutaz, segurrenik, denok etxera bidaltzea erabaki zuten. *Seminarioko nagusigo guztiak, Gotzain Jaun txit Agurgarriaren oniritziz, komunitate guztiak etxera bidaltzea pentsatu du, bihar goizean bertan, gaixo daudenak sendatu ahala joango direlarik*. Etxerako pozak, berezko neurrigabeaz gainera, beti zekarren diferentea izateko motiboren bat. Oraingoan ez zen txikiena itzul-muga jakinik eza, gaixotasunaren eboluzioaren arabera. Gaua pozean zorabiatu neraman, jaikiz, maletari eraginez, leihotik begiratu, Santo Domingoz handiko Bilboko Atxuri geltokia imaginatu, nondik bi solairuko autobus gorri, marigorringo zoragarri haietariko batek, bidaia liluragarrian, Zornotzako Autzagane mendatean utziko ninduen, handik oinez, basorik baso, etxeraino heltzeko. Goizalderantz, hankak makal antzean nabari nituen. *Oraintxe gaixotzea besterik ez joat behar!* Oheratu, jaiki, neure burua tentatu, batean *ondo najagok*, bestean *joateko moduan ete najagok?*, goizeko txirrin desiatuak jo zuenean, *kakazaharra!*, ia hogeita hemeretziko sukarra neukan. Egun amaiezinak sendatzen eginik, azkenetarikoa izango nintzen etxera abiatzen. Autzaganen, estartaren paraleloko munan gora, maleta eta biok mendirantz gindoazela (maletari berba egiten nion, bildotsari bizkarrean bezala, honi, haurrari arrelepo bezala, honi, neure buruari bezala, neure buruari, maletari bezala), hankak geratu egiten ziren. Ehun metroz behin, atsen egin behar genuen, maleta lurrean, ni ondoan, ukondoa bere gainean, *hi ez hago gaixorik, eztok?* Ahultasunean barreiatu pozak, ur leuna ihitzan bezala, samurtasun malkoberan errenditzen ninduela, Bizkargi lepoaren hegian, Gorozikako herri txikia idilioaren antzezpen nekusen, nondik konpainia teatrala alde eginga zen, aktoreak harri bihurtuta utzirik, bai baitago idilioa, bai baitago idealizazioa, zeure

sentimenduen erreboteak menperaturik zaudenean. Hilerriko loreak bezala: eramailearen oroimenari egiten zaizkion opariak. Ez dakit zertara datorren konparazio hori, biziaren agerpenik maitagarriena zen etxe-aldian bainintzen, zeina, behin iritsitakoan, deskontu inexorablean sartuko zen, oraingoan, egunak neure eskumen “erresponsablean” bazeuden ere. Mendiko bakartasun urrunean, askatasun hori egiazkoa zen, kanpo-kontrol ororen iristezinaren neurrian, nahiz eta kontzientziaren kontrol saihestezina aldean zebilen beti. Baina kontzientziagaz hasiko nintzen hizketan, hamabost bat egun barru.

Ordu erdiko bidea ordu eta erdian zihoan, astiroaren penarik gabe. *Hemen hago oraindino?*, harri bati. *Hazi egin zarie, eh!*, pinu gazteei. *Hi barria haz!*, lagun guran hurreratzen zen txantxangorriari. *Txori-habiarik ez al daukak?*, pinadiko sakonune batean beti berdin aurkitzen nuen gaztainondo bakartiari, *orain ezin deuat igon*, gaineratuz. *Gaur mehe hator*, zingiratik abiatzen zen errekañoari. Ahultasunak sentsaziorik berdingabeena, etxerantz joatearena, luzatzeko motibo justifikatua zemaiddan. Berdingabetasun hura ez zuen neu handitzeak txikituko. Arauzko etxeratzeez gainera, beti egongo nintzen izugarriren bat gerta zedin desiatzen, etxera joateko. Inor bereziki hiltzerik ezin nuen desiatu, baina izurrite bat, adibidez, badirudi espezie kontua dela, ez pertsonena. Horrela esanda, irriks ankerra ematen du, baina, handitasun positiboek ez baitzuten baimen bat lortzeko balio (arrebaren ezkontza, aitaren amerikaldi luzetik itzulera, amaren haurgintza berria...; eskerrak txerri-hiltzea beti harrapatzen nuen, gurasoak seminario-eguntzat joan ohi ginen Sorkunde bezperagaz bat egiten ahalegintzen zirelako), pertsonen kasuan, ezbehar larria behar zen, hala nola gure amak, egunez falta hartu eta iluntzean bila abiatu zenean, osaba Peron sutondoan hilotz aurkitu zuenekoa, lepoko zainak ebakirik. Ondotik apartatzea biziagaz ordaintzeko gertu zegoen txakurrak odol guztia mihizkatua zuen, zorua eta gorpua garbi-garbi uzteraino, lehen ere ugazabari aurpegia garbitzen ikasia, gaizoa.

‘Peron’ esaten genion, Argentinako Peron entzutetsu egin zenean, haren izena hartzea otu zitzaiolako, errebelde kutsuaz gustaturik. Gero, Fidel Castro azaldu zenean, honen izenera entusiasmoz aldatu zen, itxuran ere osoki imitatuz, bizarra utzi eta tabernetan mitinak egiteraino. Mundu guztiak ‘Torreburuko Fidel Castro’ esaten zionari, familian ‘Peron’ deitzen jarraitu genuen. Pertsonaia horrek, orduan egiten ziren testamentu uler-zaitetariko bati esker, azken gurasoa hiltzetik urte bira, etxetik alde egin behar zuen. Aitita aspaldi hilik, gure amama ere, haren ama, hila zen, eta epea gainera zetorkion. Nora joan behar zuen, adinean aurrera, zeraman urdaileko gaitza baino urguilu handiagoz, eta ospitaleratzea lortu zuten aldi bakarrean, ihes egiterik moztu ezin izan zioten errebeldiagaz? Urdaileko gaitza ‘urdail jausia’ ziotena zen. Goizero, mezatatik bueltan, beste aldeko besotik berrogeita hamahiru eskegialdi (urteak adina) eraginez, altxatzen lagundu ohi nion, erremedio logikoa zirudienak lesioa areagotu ez bazion. Azkonarrak bere zuloa bezain bere konsideratzen zuen etxetik alde egitekotan, erarik kaballeroena hautatu zuen (haren kasuan, inteligenteena esan beharko), horrelakorik ezin zen eskelan ipini baina. Edo zergatik ez? ‘Goian bego’ ipintzeagatik ere inor ez da kexatzen, *badago bego, badago bego, katutxoa mizpira gainean dago*.

Bazen auzoan osaba Peron bera baino beste pertsonaia ia bitxiago bat, animaliaz eta basatasunez inguraturik neskazahartzea hautatu zuena, izaki inklasifikablea. Osaba Peron, iluntzero, haren etxera joaten hasi zen, zerbaiten guran, premian, edo karraskan, baina badirudi ‘emeak’ hurreratzen uzten ziola suge kiribilduak esne epelari bezala, zeren bisita haiek, inguruan jentil legeko suposatzen zirenak, mehartzuz joan baitziren, oroitzapen antierreal bihurtzeraino.

–*Aspaldion ez zara Etxanosolora joaten* –jaulki nion behin, eta erantzun zuen:

– *Etxanosolon inor bizi dok ala?*

– *Izena badauka, behintzat.*

- *Nik baino gehiago dakik.*
- *Tximinia gaur be ketan zegoen, eta txarria ez zen suginan hasiko.*
- *Ez bere burua erretzeko, behintzat.*
- *Lastima da.*
- *Zer dok lastima?*
- *Aurrera joanda, berdetu leitekezenak atzean usteltzen gelditzea, esaterako.*
- *Hemen ez jagok atze-aurrerik. Ni nok neu, Fidel Castro Torreburu, zeinaz gogoratzea bildurgarri izango dozuen laster.*

Horrelako mehatxu zehazgabeak jaurtitzen errimea zen, gertaera lazgarrien gordailu bailitzan. Oraingoan, motiboak benetan estutzen ari ziren, eta beldur ginen pilatuak zituen gorrotoak izugarrikeria handiren batean erreko ez ote zituen, erre, bai, esaten baitzen: *Kapaz da hori baztarrei su emoten hasteko*. Azkenean, denei barkatzea erabaki zuen, bere buruari barne, biderik gutxien sufrigarria hautaturik.

Seminarioan, amaren gutuna hartu nuen, laburra beti bezala, *osaba Peronek hau eta hau egin dau* esanez, zekien erdara moduan. Nire golkoan sentimendu piloa oldartu zen, danbada batean zuhaitzeko usotaria guztia aireratu ohi den antzera, erpeak askatzea ahazturik, zuhaitza hegan daramatela. Orain eskelarik ipini behar ez dudanez gero, lasai aitor dezaket zein izan zen nire pentsamendu, ez dakit gorena, bai bizkorrena: *Okasino ederra hauxe, etxera joaten utzi deiden!* Erretoreagaz hitzordu urgentea eskaturik, azaldu nion:

- *Aita! Gurean ikaragarria gertatu da. Gure amak osaba lepoko zainak ebagita aurkitu dau, gauez, bakarrik. Farolagaz joanda, han ez baitago argindarrik, odoletan laban eginda, gorpuaren gainera jausi da. (Honi zertarako kontatuko diot txakurrak odol guztia mihizkatu ziola, beharbada, “orduan egitekoak eginda zaudek” erantzun dezan?). Pentsa zelako sustoa! Gure ama egun guztian bakarrik dago, aita kanpoan lanean, anaia-arreba zaharrak urrunera ezkondurik, eta anaia gaztea pasiotarretan. Neu naz, egun latz honeetan, amari lagundu leikion bakarra, eta uste dot beharizana be badauela, berorrek ondo baleritzo.*

Erretorea, susmoa neramanez, laster bigundu zen egun batzuetako baimena ematera, autoritatearen presentzia saihegaitza berresten zuen emendailu honegaz bazen ere:

- *Itzul lehenbailehen, eskuzabaltasunaz abusatu barik.*
- *Bai, aita! –agindu nuen irmoki, neure kautan esanez: –Pentsatuko joat eskuzabala zelan atondu, mendiagaz berba eginda. –Hogeita hiru urte banituen, eta nire etxera-grina ez zen ematzen.*

Amak benetan behar al ninduen? Gure baserria handiegia ez bazen ere, gehiena berak zeraman hartan laguntzeko, inoiz ez zitzaion, noski, txarto etorriko, baina, txakurraren zoramenetik, estudiantea bazetorrela igarri zuelarik, etxe albora irten zen, eta hantxe topo egin genuen.

- *Zelan hator etxera? –galdetu zuen, eta erantzun nion:*
- *Erretoreak, zure gutuna irakurrita, egun batzuetarako etxera bialdu nau. Han ez dabe, antza, honelako kasurik ezagutu.*
- *Eskoletan atzera egiteko ez badok.*
- *Eskolak antzinatik daukadaz mende.*

Banekien amaren harrotasuna nola zerbitzatu, eskolen ardura handirik ez neukan baina. Bere egoera ‘emozionalaz’ baliaturik baimena eskatuta nentorrela azaldu izan banio, kapaz zen, agiraka batean (*lelotu egin haz ala?*), biharamunean itzul nendila agintzeko. Gure amak apenas behar zuen

babes emozionalik, ez, gerran bi haurtxo besoetan zituela ebakuaturik, edo gerraostean etxea sakeaturik aurkitu ondoren, ezerezaren gainean eta senarra lan bortxatueta zuela aurkitzearen itzal fatidikoz, heriotza auzo bat gehiago bezala bizi izan zuelako. Ez, heriotzaz inpresionatzea baino aurreragoko zeregina zuen bizimodua atera beharrez, sentimenduen zaintzari ekiteko astirik ez zeukalako. Soil-soilik, harentzat ez zen labirinto psikologikorik existitzen. Norbaitek *zelan bizi zeinkekez hirugarren esku barik?* galdeturik, *zeu bigarren buru barik bizi zaren moduan* argudiatzen duenaren antzera. Bazen, bai, harentzat ere, zorotasuna, senitarte guztiei kideren batengan erasotzen ziena. Baina normaltasunetik zorotasunera, zentzu arruntari grazia apur bat ematen zion minustasuna salbu, ez zegoen bitarteko estadiorik. Baldin bazegoen, beste zereginik ez zeukaten zibilizazio zelebreetan izango zen.

Iluntzean, haren lanetik bueltan, seme estudiantea etxean aurkitzearen ezustea seminarioan emandako arrazoiekin lasaitzen saiatu izan banintz, aitak, garondoan hazka eginez, *honi indezinoa sartu jeutseek* esango zukeen, neure joran txundiguran, zer arraroak (*nork daki Jainkoak zer oinetako-zenbaki janzten dauen!* eta abar) esaten hasten nintzen guztietan ohi zuenez. Kontua zen etxean nengoela eta egun haiek gozatu egin behar zirela. Zer egiten? Gauzarik ezerezenak. Goizean, mendian behera, txoriekin kantuan eta zuhaitzekin berbetan, zortzietako mezara, Etxanora, beharbada, abadetxean gosaltzeko, lehenengo egunean, ia seguru. Eskola-umeekin umekeria batzuk egin elizpean, hain umeak ez ziren neskekin ere (hamalau bat urtera arte hantxe zebiltzan denak) elkar-lotsa batzuk amagatuz, hurreratzen uzten bazuten, ume txikiekiko disimuluan. Otargileagaz kontualdi bat, zorrotz puntukoa beti ere, Elizaren eta mundukera ororen kritikari bihurria baitzen. Etxeranzkoan, harrobiko langileekin beste kontualdi bat, otarte orduan harrapatzen banituen.

– *Eutso trago bat.*

– *Eskerrik asko. Baraurik nago.*

– *Jaik urdai zati bat.*

– *Eskerrik asko. Etxean katilu bete arto-zopa beratzen utzi dot.*

Oraingoan, edukazioa ez zen izan desioaren atzeragarri, ardo harentzat, inoiz burtzoro baino buru-hautsiago utzi ninduen ardo harentzat, nire urdaila raseatzeke baitzegoen oraindik. Etxera heldutakoan, baserri bateko kontuak: abereak, soroa, ortua, basoa... Egun bakartian zehar, pentsaketa ugari eta ilusio ugariago. Zapatuan, Autzaganekeo tabernara osteratxoa, mandaturen baten aitzakian. Igandean, herria ikusi, elizkizunen inguruan. Astean behin, Zornotzara jaitzi, iltzeak edo sokak edo kateak erostera. Bankuak aurreko ezpaloitik gurutzatu, atzerriko enbaxadak bailiran. Astelehenean, beharbada, Gernikara, osaba tratulariagaz. Tratu itxurazkorik bazen, gosari-izki bat tabernazulo batean, zuloago eta gurago. Tratu eskasa izan bazen, trenera zuzen, astirik ez zegoela eta. Txarreanean, itzulera osoa oinez. Ni pozik, bideko bazterrak eta auzoak ikusiz, tarteka neskak, amaren edo aitaren inguruan, atartean, haiek ere zer ikusiko. Santuren baten egunean, norabait gonbidatu joan. Mundu txiki eta isolatuan ere, nobedade asko eta deigarriak, bizitarik gehiena barnetegi kasik autofagoan zeraman gazte batentzat.

Zer izan zezakeen bakartasun hark, ez argi, ez ur, ez bide, gehienei alde egiteko gogoia emango ziokeenak, nire bizitzako desiorik indartsuena ‘etxera’ izan zedin? Adinak eta errepikak nola desioa, leundu beharrean, obsesioraino bizitu zuten, etxeratze bakoitzak itzulbehar irremediablea zekarrelako ez bazen? Ez dakit grina menperaezin hori eskertu ala akartu egin behar diodan seminarioari, zeren badirudi norabide zentripetua bakarrik gelditu zitzaidalda, bizi guztirako. Bekaitz ditut, mundua korritzeko ilusioan, zorion-puska ikusgarriekin itzultzen direnak, kontatzen dutenetik, behintzat. Ni, sakon-sakonean (sakon oso azalean), beti neure territorioranzko grinak zurruputzen nau, unibertso fenomenorik intimoena izan behar duela dirudien zulo beltz beldurgarrirantz. Norabide alda-zaila berori, zuzentzen ahalegindu ezin duenarentzat, zeren,

seminarioari zor diodan irakaspen kategorikoaz gainera –izaera bat definitzen duen grina bortxatzeko saiakerak sufrimendu handia, onura txikia eta efektibotasun hutsa dakartzala–, norabide horretantxe aurkitzen naiz gusturen, zera, bestalde, tautologia ergela besterik ez den, grina baten gainean atsegin hartzea uhinean uhintasuna sentitzea bezala bailitzateke. Zer sentituko duzu uhin gainean? Zerritasuna? Nire uhinaren erradioa bueltan etxean lo egiteko moduko distantziaraino luzatzen da. Ez da gutxi, gaupasa eta biharamuna barne har ditzakeela kontuan harturik, baita astebete jarraian ere, gorputzak okasioari erantzun ahal izan badio. Jausi edonon, sendatu etxean. Horixe izan daiteke etxe-grinaren muina, seminarioak berriz ere ondo frogatu zidana, tristuren kontzentrazio nagusia oheratze nergarberan gertatzen baitzen beti, esan nahiz bezala auzia ez dela non zabilzan, non lo egiten duzun baizik. ‘Norekin lo egiten duzun’ txiste muskila utz ezazu teleumorearen merkealdi permanenterako. Nire egutegi biologikoak egunen segida loen kontaduriatik ateratzen darrai, umetako sisteman bezala.

– *Zenbat lo falta dira?*

– *Bi baino ez, laztana.*

– *Hainbeste?*

Lotik lora izatekotan, Letunoraino joango nintzateke. Behin abiatuz gero, zertan gelditu esku-puntan daukazun ilargitxoan? Pena handia izan zen Concorde hegazkina zentzea, eguna New Yorken igaro eta etxera sasoz erretiratzeko ametsean bainenbilen. Garestiak ez ninduen ikaritzen. Tematuz gero, nork ez lezake lor, hipoteka bat gehiagogaz, laurogei munduko egun-bira bat, jaikitako ohera itzultzeko moduan, kanpo-loa aurreztuz? Atzeratzen ninduen bidaide aurkituko nuela suposatzen zen jendemodua zen. Joanean damutzen banintzen, New York ez nekusen leku geldigarri, etorrera anulatzeko. Azkenean, aldekoz edo kontrakoz, neure grinaren territoria gailentzen zen beti, zeina, bestalde, hain baitzen eskurakor, eta askoz merkeago. Ez dakit zorte ala maldizio dudan beti lekurik desiatuenean aurkitze hau, munduko bazter zoragarriak, infinituak eta dudagabeak, analogiaz ezagutzen gehiago gozatzeraino, tokian bertan etxe-grinagaz teman baino. Kant ez dut bere pentsamendu inponenteagatik baino gutxiago miresten bere jaiot-hiritik irten gabe hil zelako, nahiz eta neuk, pentsalari baino agian hedonistago, behin, behintzat, kanporatzea ere gomendatuko nukeen, Escorialean txiza egitera baino ez bada ere, tamalgarria bailitzateke bizitzaren intentsitatea konpletatzeko uztea, etxeratzearen poz berdingabea ezagutu ez duzulako.

Oharkabea, joan eta joan, pentsamena ibilarazle engainagarria baita, Mauma auzoaren pareraino aurreratu naiz, non gure ama, nerabegarora iritsi aurretik, eskola doi-doi zapalduta, abade-neskame bidali eta maistra ipini zuten, bera baino neska-mutil handiagoen hezitzaile. Bere burua desterratutzat zeukan maistra premiak edo desesperazioak ezkututzen zuenean, eskola abadearen ardurapean geratzen zen, zeinak errazena egiten zuen: neskame txikiari lan bat gehiago ezarri. Eta gure ama pozik. Zail egiten zait hura hamaika urtegaz imaginatzea, eta zailago, imaginatzea lortu dudanean, emaitza hari ‘gure ama’ deitzea.

– *Zuk zer irakasten zenduen baina?*

– *Mapak kalkatzen-eta.*

– *Mapak zertarako?*

– *Horretan zebilzan bitartean, ez jegoan elkarri begiak ateratzetik zaindu beharrik.*

– *Baina bai kristalak majo markatu!*

– *Ez hainbeste. Espainiako mapa (ez jegoan besterik!) buruz kopiatu behar zoan, azpiko patroï barik. Horretara heltzen ez zenak maistrarentzat egur txikitzen gelditu behar joan gauera arte.*

– *Eta zu hareek zaintzen? Edarra beharlekua!*

– *Gauetan txitean-pitean Mari Jesus-ka hasten zen abadeari bizkarreko igurtziak egitera jagi beharra baino hobea.*

- *Abadeak ezal zeukan beste inor?*
- *Ama zahar bat, ezertarako gauza ez zena.*

Ama gauza ez, eta semeak izan nahi ez, ez zen harritzekoa gure amak gero, laurogeita hamar urtegar, egunkaria betaurreko barik eta ilunetan irakurtzen jakitea, argirik ez gastatzearen.

Etxe zabal batzuen artean ezkutatu gurako eliza txikiaren apaltasuna areago da urruntasun iheslean gorde beharreko pekatuaren itxura, bere izatea mirari dudazko bati zor diola dakienarena. Gure amaren ugazaba agurgarriaren aurretiko bat, goiera hartatik inora alda zezaten itxaropena galdurik edo, eliza berri eske hasi zen gotzaindegira. Eskeak Bilboraino iristen ez, edo erantzunak bueltan Donostiara desbidetu, goitik ezer ez zela etorriko etsirik, auzotarrak errenditzeko lan zailari eraso zion,aldi berean Jainkoari mirari bat erregutuz, hain etxe gutxirentzako karga handiegia onargarriago gerta zedin. Miraria errazagoa zen, antza, auzotarrak persuaditzea baino. Igande batez, meza-entzuleek, harriturik, Oizko larre-behiak Maumako zelai erdira iristeko teman aurkitu zituzten, lortzen zutenek hango lurra gorritu arte mihizkatuz.

- *Ikusten? –hots egingo zuen gero abadeak sermoian–. Jainkoaren mezua da hori, animalia inozenteen bitartez, zuen bihozgogorkeria biguntzera datorrena.*

Abadeak ez zeukan presarik. Igandez igande, kristauen bihotzei samurtzen joateko astia eman nahi zien, miraria konpletatzeko segurtasun osoz, harik eta, *ai, zuek, eskribau eta farisaiok!* ebangelioa tokatu zen arte. (Bigarrena, ‘fariseu-faisai’-en hibridoa, karrera laburren ondorio). Kristauak hunkiturik ez ezik, ikaraturik zeudela ikusirik, aldarrikatu zuen:

- *Heldu da eguna, kristau maiteok, abere gizarajo horreek mihizkatzen daben lurra zabaltzeko, Jainko inprebisibleak guretzat zer daukan bertan gordeta ikusi daigun.*

Meza ondoren, sakristaua, animaliak *alde Oizera!* oihuka bidalirik, begi guztiak, bakarrak barne, korruan beraganantz zirela, aitzurka hasi zen. Pare bat arrako sakoneran, izerdi isilak haren bekokia distiratu zueneko, ez zen, ba, gurutze bat agertu zuloan! Maumarrak belauniko fulminatu ziren, aitarenka. Gurutzea agertu zen lurraren gainean, eliza berria eraiki behar zelako abadearen proposamen hunkituari inork ez zion erreparorik jarki, pare bat urterako beharlekuan eta mende laurdenerako zorrean sartuko baziren ere. Abadeak, San Pedoren bizarrak mehatxuti trabatuta ikusirik edo, hiltzorian agertuko zuen mirariaren funtsa. Gau batez, auzoa, gari-jotze akigarritik hara, lorik gogorrean zetzala, gurutze bat ehortzi zuen. Handik denbora batera, belarra ondo berdindu zenean, larunbat gauetan, gatz lodi berak xehatua zabaltzen zuen zelaian (komeni zenean, abadeek ere bazekitela lanean), eta behiak, gazizale amorratu (nork esango zukeen!), zelai huraxe mihizkatzera jaisten ziren Oiztik, oraintxe eserita nagoen bidean behera.

Neure gaztaroan ezagutu nuen Maumako beste sakristau bat ere zoratzear zerabilen beste mirari edo deabrukeria batek, egunero betetzen zuen elizpeko ur bedeinkatu ontzia biharamunean husturik aurkitzen baitzuen, harik eta, gau batez guardia eginik, bere ustezkoek barik (gazte talde bihurri bat, edo, iturrira ez jaistearren, pontetik ura eroaten zuela susmatzen zuen familia bat), astoek edaten zutela deskubritu zuen arte. Orduantxe ulertu nuen zertatik zetorren gizonezkoei irain errukior gisan aplikatzen zitzaian ‘asto bedeinkatua’, kasua ez baitzen, antza, Mauman bakarrik gertatua. Noizbait, benetako miraria ere iritsi zen neskato batengan, zeina eskutik zeraman aita, elizatik hurreneko etxaguna, Jaunaren graziaren hurbiltasunagatik edo, hogeita bat seme-alabaren guraso izango zen. “Biki batzuez beste guztiak, banan-banan”, harrotzen zen. Zenbakiak ikasteko, metodo efektiboa, ordena nahasteko ere bai baina. Abadearen *bai neskatxo polita!* esklamazioari

gizonak erantzun zion: *Eta balientea! Aita-amen ezkontzara be abarketa gorritxoekin etorri zen hau.*

Hurreratu guran baino gehiago, pinu artetik ikuspegi osoagoa hartzearen jaisten joanik, nahi baino lehenago egin behar izan dut gorantz, presentzia etengabea edukitzerik lortu ezin dudana bafadaren gomutak bidalita. Arroguneetan, haizea katamar igotzen dela dirudi, bere zama higuingarria besapean dakarrela. Txakurrak, usnada tentel batzuk eginik, bidean gora hartu du, zer beldurgarriro ezohikoaren aurrean bezala. *Nora hoa, Ernai? Itxaroidak apur batean, elkarregaz joan gaitezen.* Badirudi, txakurkia ere tarteko izan litekeen kiratsean, berak eskatu gabeko orduren bat usnatu duela, isatsa ia tatarrez eta belarriak apal, ezkututzen bezala aldendu baita, animaliek, azkena gainean sumatzean, zoko bakarti bila, grabitateari jarraitzeko bakarrik geratzen zaien indarragatik edo, beherantz jo ohi duten norabidearen alderantziz. Mauma altuan denez, okupaziotik libre egotea pentsa zitekeen, baina oraintxe gogoratu naiz bostehun buruko arditegi bat, behintzat, bazela, udan ere barruan gobernatzeko zutena, ardiak egote lasaian gehiago ematen ei baitzuen. Goiera honetatik hartzen dudana kirats imaginarioak baino areago (txakurrak asaldu ez banindu, beherantz jarraituko nukeen), ardi larruetan elkar lehertzen ikusten ditudan har-masek higuintzen naute, airean eltxo puztuak bezala datozenak eurak. Hemendik ez dago etorkizunik. *Goazen etxera, Ernai! Zein etxetara badakik?* Bihurgune batean, gorputz osotik burua bakarrik biraturik, jestu errukiorrez itxaroten dit, esanez bezala: *Zer dinozu, ontto-buru horrek? Oraindino ez al dozu ikasi ez dodala behar barbarik egin deidazun, zer gura dozun ulertzeko?* Orain ulertzen ez dudana da zergatik zuka egin didan. Beharbada izango da misterio txikietan endredatzea komeni zaidala, handiek estutu ez nazaten.

Txakurrak beste bide batetik hartu du goranzkoa. *Nora hoa hortik?* agiraka eginik, baina, gero, obeditzeko gogo gaiztoa sumatu diodalarik, amore eman dut, niri ere, sena egoera berrira ondo egokitu arte, milioika urtetan beragaz bakarrik aurrera egin dutenei jarraitzea komeniko zaidala pentsaturik, adimenaren kontrastabide esternorik gabe gelditu naizenez gero. Badirudi sena ez dela erratu, bere pentsamendurik bat ere ez neukan borda batera iritsi baikara, nahiz eta harritu naizen nola txakurra, inguru hauek sekula zapaldu gabea, etxera bezala hurbildu den, txiza zirristada oroituak bailituen, eta protokolo guztiak barne. ‘Zelaborda’ esaten zitzaion hau, bira osoko zelai eta guzti, nire haurtzaroan ospetsua zen, lapurka entzutea lortzen nuenetik. Maumatik Oizko San Kristobalerako erdibide, erromeriak egiten ziren bertan. Hala goranzkoan nola, batez ere, beheranzkoan, atsedeneren aitzakia elegantean saihesten zuten goian hartaz beldur izatekoa zen kontrola, sarritan moral soiletik harago zorrozten zena, agintari, abade, erromes deboto, guardia zibil eta miru-begi oro. Ohol zakarrez eginiko atetzarra, giltzatu gabea, zorionez, bestela apurtu beharko bainukeen, ireki dugu –oraingoan ‘dugu’ beharko, txakurrak lehenen sartzeko teman baitihardu, aurreko hankekin maratila erpekatuz–, eta... aibadios! Hau non enkaxatu behar dut orain, edo neu nola enkaxatu behar naiz hemen?

.....

– *Ahabdul! Zertan zagoz hor?*

– *Hiltzen.*

– *Hiltzen zelan?*

– *Ez jakiat. Lehenengo aldia dok.*

– *Hilzoria izango da.*

– *Ez joat uste. Hau bera dok.*

– *Oker uste dozu. Zu horrelakoetatik lehen be sarri atera zaitu destinoak, lar amableki, bestalde.*

– *Hmrr! Amableki!?*

– *Lar amableki esan dot.*

- ‘Larra dana txarra’ denez, oraingoan neu nok urten gura ez dauena.
- Asko ardura deutso destinoari zure gurariak!
- Behingoz, neu izango nok destinoaren agintari.
- Kostako jatzu.
- Aprobatu be ez?
- Kontuz-kontuz jesarriko zaitut. Ea...
- Kabendios! Ez ikutu, puta veneranda!
- Deganinoa! Biraoetarako ez jatzu indarrik joan. Ez zagoz hain txarto.
- Heuk erabagi behar al dok zelan nagoen, puta-virgo-dios?
- Hilzoriarena egia bazen, ez dakit erarik egoistena den bere aurrera aurkeztu behar dozuna madarikatzea.
- Ni ez nok azken bihurgunean berbak aldatzen hasteko bezain faltsua. Hori berak be estimatu behar jok, estebakoa ez badok.
- Ez zeunke destinoen Jauna horren une kritikoa desafiatzeko bezain burubakoa izan behar.
- Popatik emon deioela!
- Ba al dakizu nori ari zaren popatik emotea desiatzen?
- Baietz entzun gura dok? Ba, bai! Eta berari aurpegira esateko gogoa jaukaat, lehenbaitlehen.
- Ez dot sinisten hori esan leikeenik benetan azkenetan dela sinisten dauenak.
- Nire sinismena usaimena dok. Ez al dok hil-usainik hartzen?
- Mofetaren bat pasatu izango zen.
- Mofetuzki guztiek espraitzen banabe be, ez nok irape honetatik jagiko.
- Ohe gozoa emoten dau, ira horreek orain lau urtekoak direla ez baneki. Zenbat piztia etzun ete da bertan!
- Hurrengo datorrenak neure gainean etzun beharko jok.
- Suge galanta be akabatuta nago zure burua datzan angelu horretantxe.
- Ekin hik, kristolakristo, inon diren izugarrikeriak pilatzen! Ez dok ni hemendik jagi naiten lortuko, Ama Birjina kuleroetan aurkezten badeustak be.
- Botila bat ardao ekarriko baneu?
- Ez jakiat gogorik baneukeen.
- Ño! Ez zagoz hain ondo, orduan.
- Orain konturatu haz, alumerio hori?
- Ahabdul! Zer da zirrinzorro hori?
- Banbuzko gorgoila printzatu jatala uste joat.
- Mapatxe-umaldi izutu bat esango neuke nik.
- Esaik hilaurre txarri bat, eta eginda.
- Berba polito egiten dozu, zikintxo baina. Burua be ez daukazu hain ilun. Ahabdul! Arnasa hori batu leiteke.
- Ez ekin alperrik. Neuk gura ez bajoat, ez jagok balio dauen haizegailurik.
- Baina nik ezin zaitut beste barik hiltzen utzi!
- Hasi gozak betiko kaka-lakan? Batean, bizia ez dela norberea, bestean, inoren bizia norberea be badela...
- Nik ez dot esan zure bizia nirea denik.
- Orduan utzi baketan!
- Zeugaitik bai, beharbada, baina kontzientziari zer egingo deusat?
- Txarriari emon, eta txarria kaimanari. Kaimana hiltzen bada, seinalea ondo egin doana.
- Hemen ez dago zeutaz beste txarririk, eta zeugaz baliatu beharko dot kontzientzia.
- Kontzientzia, putalakuntzia? Paternoster bategaz nigazkoa eginda heunkana, zergaitik bilatu nok honaino?
- Estimutzen zindudalako. Maite be bai apur bat, berba hori zure biraoekin ez dator bategi baina.

- *Sancta puta virginum! Orain kakaminken aldia? Besterik ez najoan behar nire bizia hire bizitza sentimentalaren ñabardura bihurtzea baino. Zertarako itzularazo gura nok neure bizimodu txakurrera, geroz txakurragoa izan daitenaz beste itxaropen barik?*
- *Zure kontumaziari atoan jagitzeko arrazoi bat jaulkiko baneutso be ez?*
- *Ez hire aho putatik, ez San Pedroren uzki disponibletik ez jok urtengo ni jagiarazteko arrazoirik, Jainkoaren potro ronbikoetatik eskegitzen ez banabe.*
- *Mihin zantarretik aparte, horrela etsitzeko baino gaiztoagotzat zindeukadan.*
- *Gaiztotasunak be kemen bat behar jok, onura minimo bat ekartzeko.*
- *Ondo dago. Botila bat ardao ekarriko deusut, zorionsu hil zaitezzen.*
- *Ni zorionsu hiltzeko modua beste bat litzatekek. (Isilik, isilik, isilik).*
- *Entzun neike bera?*
- *Txarriel bertan ito zela jakitea.*
- *Orduan, altza zeintek bez arin. Txarrielen hileta gaur arratsaldeko seiretan da.*
- *Puterandioski!! Ahalguztiaaren potroak baino gehiago dok hori! (Isilaldia, antzerki ikuskizunean hanka egitea pentsatzeko bestekoa). Egia?*
- *Hil-kanpaiak diren baino egiago.*
- *Danda horreek Txarrielenak direla esan gura dok?*
- *Txarriel-Txarrielenak!*
- *Santirun putirun klinkin! Ekark arin botila ardaoa. Hileta horixe aurrenengo bankutik ikusi behar joat.*
- *Inoiz elizarik zapaldu ez dozuna, Txarrielen hiletan ikusi behar al zaitue?*
- *Baita altarako kopoi gorrian be, madarikatuarena! Jenteak esango jok: “Hori da hori gizona! Urrezko barrua behar da gero, bere jazarle porrokatua ondraztera etortzeko”.*
- *Gatxa da zure barruan urrerik imajinatzea... xahutu bakorik.*
- *Esan daieela orduan kakazkoa. Hantxe egongo nok finko-finko, begiak nekrobio eginda.*
- *Sarkasmoz agertu zarela errazago esango dabe.*
- *Beti jagok sorginen bat, zeinu noble oro deboilatzeke jenioa daukana, baina jenteak, zorionez, elizan sartzean, adimena atean uzteke joera jaukak. Gatibutzara behartutako basapiztiei senak atrofiatzen edo portaera arraroak sortzen jakezen antzera.*
- *Azkenean, bigundu egin zarela pentsatzen ez dabe. Damutu, alegia.*
- *Putalamutu! Laster aurkituko joat okerra zuzendu daieen modua, hilkutxa makilatuz. “Hor hago hil plantak egiten? Klanka, klanka! Urteik, kapaz bahaz!”.*
- *Ez emon ideiarik, badaezpada.*
- *Ez ikaratu. Urtengo baleu, bajakiat zelan barrura joanarazo, betiko.*
- *Idea bat da hori be.*
- *Ez originala, baina praktikoa. Tabakorrik badaukak?*
- *Zeure burua iratzen erretzeko?*
- *Badaukak ala ez daukak, alua?*
- *Asko da zeuk ez edukitzea!*
- *Hondar busti batzuk, eta metxeroa itota. Surik be ez daukak?*
- *Laster izango dozu. Mauman zeozer zuzentzen badot, ordubetean hemen naz. Etxeraino joan behar badot, luzetxoago itxaron beharko dozu.*
- *Ekarri abarka-kordel batzuk be. Honeek ustelduta jagozak. Ez nok altara zurira zirtzil-jario aurkeztuko.*

Azkenean, ez ordubete ez bi, lau izan dira, hiru gehi bost zazpi diren moduan.

- *Ahabdul! Bizi gara? Etxeraino joan behar izan dot. Mauman eta Muniketan ez naz aterik jotzen ausartu. Ez nekien zelan justifikatu ardaotan edo tabakorritan inguru honetaraino ailegatzea. Etxean be kostatu jat isilean sartzen eta isilean alde egiten. Glu-glu-glu! Hemen datoz globulu*

baltzak, zuriak eta gorriak parekatzen artistak. Transparenteei jaramonik be ez. Tabakorri miragarria be badator, zenbat gorputz makalagoan, hainbat ez tul indartsuagoak ateratzeko grazia daukana. "Azkenean, ez tul egiteko indarrik be ez zeukan". Eztula hilezkortasunaren garantia bailitzan. Ea tximinia zikin hori behingoz zarratzen edo zartatzen den.

Kanpoko argitasunaren inpulsiotik, nire begiek borda itsuko iluntasun fermentatua ozta penetratu dutenean, zoruan begiztatu dudan bulto luzanga iraz estaliak erretzeko prestaturiko txerria dirudi, ostua eta hortxe gordea ez bada. Inpresioa, segurrenik, nire oroimena Ahabdulen izatea txerri-afarien ilusioagaz lotzen ohitua izatetik datorke. Ilusioa, berea ziur, nirea ziurrago, bakoitzaren motibo hain ezberdinek (gehi, nigan, kontraposizioaren muturrak elkartzearen faszinazioak) tenkatzen zuten negu-erritu lanbrogarri hartan.

– Glu-glu-glu! Herenegun arratseko putzualdia baino epelagoa izango ahal da! Gul-gul-gul? Ahabdul! Ez dinozu ezer? Birao bat, behintzat? Ene ama! Ahabdul! Honetarako estutu al dot arnasa lau orduko bidean? Botila hustu arte ezin dozu hori egin. Kakazaharra! Zaharra, zaharra, zaharra! Hau hilda jagok. Ahabdul! Zelan eragin deustazu hain bidaia luzea alperrik, osinean itotzeagaz eginda zeunkana? Orain zer egingo dot? Zagozen lekuan utzi, likaonek triska zaiezen? Zelaira arrastatu, saiek begiak eta beleek arima eroan deizuen?

– Ama! Dultzin Herren hilda agertu da.

– Ez dok lehenengoa ez laugarrena izango, nonon bizirik agertuko dena.

– Oraingoan ez da agertuko.

– Asmukeria hori moldatu behar izan al dok, goizeko seiretan urten eta arratsaldeko ordu bietan etxeratzea zuritzeko? Behiak askak apurtzen, eta aingerutxoa kanpaiekin olgetan. Barrabana! Meza luzea emon jok baten batek.

– Ama...

– Ama eta amama! Hurrengo plazara noanean, astoa Donostiara bialdu eta neu Bilbora joango nok teatrora, ea zelan konpontzen zarien.

– Ama! Egia dela!

– Heuk hil dok?

– Hilda aurkitu dot.

– Non?

– Oiz maldako Zelabordan.

– Oiz azpiraino joan haz, sasi-meza eginda?

– Mezak, barriak be izango dira. Dultzin Herrenena urgentea zen.

– Urgentziak ez jok askorik balio izan, hilda egotekotan.

– Ahal nebana egin dot. Ez al neban egin behar?

– Zelan henkien herren larri bat hemendik Oiz mendiraino joango zela hiltzera?

– Errezeloa neukan, eta asmatu egin dot.

– Ez haz alukeriaren batean tarteko izango, eztok?

– Zeugandik horixe entzutea behar neban!

– Jakinarazo deusak inori?

– Zeuri lehenen.

– Nik jakiteak ez jok balio. Abisaiok bere ugazabari, osaba Martziali. Eta abadeari eta sakristauari, kanpai batzuk, behintzat, jo deioezen. Gizona ezingo joagu saien bistan usteltzen utzi, harek be izango jok zelako-halako arimaren bat eta.

– Txarrielen hiletara joateko asmoa zeukan.

– Dultzin Txerren elizara, noren eta Txarrielen hiletara?

– Horixe esan deust.

– Hilda be berba egiten joan ala?

- Bizirik aurkitu dot. Gero hil da.
- Orduan, botila bat ardao barik joan dok, azkenean be.
- Izan dau, baina beranduegi.
- Zer misterio kontatzen diharduk? Katramila lupuren bat ezkututzen ez haz ibiliko, eztok?
- Ama! Zelaborda hemendik urrun dago. Gizon bat hilda dago han. Ugazaba, abade, sakristau... Arratsaldean, Txarrielen hiletan, meza-laguntzaile ez bada, meza-kantari egin behar dot. Jakitekoak jakingo dozuz, edo zeuk asmatuko, horretan abila zara-eta, baina orain ez eidakazu nahaste gehiago ekarri.
- Bazkaltzeko astirik ez dok hartu behar?
- Bazkariak itxarongo dau, hain opulentoa be ez da izango eta.
- Talo-bitarteko bat prestatuko deuat urdaiagaz, bidean jan daiaan.
- Gura dozuna, baina arin!

Requiem aeternam dona eis, Domine. Argi bitza betiko argiak. Kristau maiteok, Jaunaren deia ezustegarria da. Batzuetan mehatz, batzuetan zarratu heldu ohi da. Ezbehar tamalgarria bide, gaur Fulgentzio Bargundia jaunaren agurrak batu gaituen moduan (buru makurrak ezker-eskuin: Txarrielen izen-deiturak dira horreek? – Hemen beste hilik ez dago – Bada gero! Izena jakin daiten, hil egin behar), bihar Julian Arrillagaren hileta izango dogu (buruak makurrago, lokago: Hori Dultzin Herren ez da? – Ez eben esaten, ba, bataiatu bakoa zela? – Dena batera egin gurako eutsien – Berak ezer egin ezin dauenean? – Nik zer dakit, ba!), ordu berean, arratsaldeko seiretan. Zoazte Jaunaren bakean.

Azken ihintzadura eta azken intzentsadura egiteko, meza-emaileari hisopoa, lehenik, eta intzentsu-ontzia, ondoren, eskuratzen dizkiodan bitartean, bi pentsakizun txiki eta bat handia dabilzkit buruan (gehi euren kontura dabilzan beste handi-txiki batzuk, hor konpon, txanponak ere behar dira eta). Txiki bata handi ere izan zitekeen, eman didan minetik (amorrutik) neurtu izan banu. Fulgentziori erantsi zaion ‘jauna’ zergatik omititu da Julianen kasuan, bereizten hastekotan, alderantziz eleganteago gerta bazitekeen? Bigarren pentsakizun txikia bihar jakingo dut handitzat jotzekoa datekeen, Julianen (Ahabdulen) hilotzari intzentsurik eskaintzen zaion ikusitakoan. Beharbada, hirugarren pentsakizunean argituko da dena; hain pentsakizun handia bera, ezen, buruak ezin hartuz, larrua atezuan sentitzen baitut, intentsitatez leher-hurren. Hemen abadeek, kanpaiek, herriko mihi guztiek, Txarrielen eta Ahabdulen benetako izenak eta izateak esplikatzen uste dituzten bitartean, egiazko gertaerak neuk bakarrik dakizkit. Neuk eta Jainkoak, baina hori neuk bakarrik jakitea bezala da. Jainkoaren eta bion artean, dena dakigula esan genezake, baina hark ez baitu ezer esango, nire apurra orojakinduria da. Oraingoan, zerbait baino gehiago dakit. Inork ez dauka usainik ere heriotza, kasu batean, ohoratuaren, bestean, errukiz hartuaren aurrekariarik. Hamasei urteko abadegai koxkor honexek bakarrik. Inork ez daki ez jakingo, susmatzen ez susmatuko, neu deskuidatu ezik izpiren bati jaregiten. Ahaltsua naiz, misterioa bezala.

Herenegun iluntzean, ia eguneroko bakarraldi erritualean, neure pentsakizunen lapiko beroa iturri txikian freskatzera nindoala, ipar brisak ulu zarratuak, minuak zekartzan erreka barrenetik gora, birao mortalak ziruditenak. Zer tragikoaren erakarmen niretzat kasik menderaezinen azpian, Ahabdulen ahotsa, tonua areago, ezagutu nuen, ez hainbeste niretzat erraezina zelako, baizik bezperan, morroi zegoen gure osabarenetik desagertu zenean, sorgin famako emakume baten baserri hartantxe aterpetu izango zela susmatzen nuelako, lehenago ere maiz erakutsia zuen joeratik. Abiatu naiz soro-munetan behera lehenik, landetan behera gero, eta laster bereizi dut Ahabdulen eta norbaiten arteko liskar hitzez hilgarria, egitez biolentoa. Ilunkeraren babesean, puntu arriskutsuraino inguratu ondoren, gepardoa bezain kurioso arrastatzen hasi naizenean, uluen eta biraoen kalapita braust moztu da. ‘Braust’ diot, zeren, edozein harrabots biolentotan, mozketa beldurgarriago egiten zait zera bera baino; neure izate gaizki heziaren efektua ere izan daiteke,

segurrenik, heriotzaren analogiari (mozketa ideala) edozer manipulatzeko bizioa konsentitzen zaiolako. *Hemen bietariko batek bestea akabatu jok*. Bihotzaren taupada bortitzek, zarratuek ziotenaz bestera, ikusminak gehiago tiratzen dit beldurrak aienatzen baino. Temeritateak ez dauka ezaguerarik. Gune fatidikorantz hurbiltzen jarraiturik, urpekoak bezalako purrustadak entzuten hasi naiz. Lantzean birao gulgulkari batek subjektua bereizarazten du. *Baten batek Ahabdul gizajoa palis-osinera jaurti eta hanka egin jok*. Ertzera heldu naizenean, alboan lehortzera aterata dauden palisen osin sakonean bi bulto eragabe hauteman ditut plisti-plastan, lepoetatik ainguratutako ostrukak bailiran. Erdikoak likido guztia irentsi ezinaren desesperazioa dirudi. Ahabdulek horma kontran gora hatzak eta besoak luzatzen ditu, ertza ezin harrapatuz ahitzear.

- *Ahabdul! Heldu honi!* –diot, palis-haga bat eskura emanaz.
- *Hmmrrrrggg!*
- *Trankildu! Egon apur batean horrelaxe, hagari helduta! Hartu arnasa. Geldi hor. Geldi! Bai? Oraintxe!*
- *Pssllljjrrr!!*
- *Orain heldu ertzari.*
- *Tiraik, sandiokristo!!*
- *Ona! Berbarik ez jatzu joan. Katuen zazpigarren bizia salbatu dozu.* (Gizona, osin ertzean dardar, arnasa ozta bueltatuz, ezin da etzanda egon, ezin da zutitu. Beratuta ez balego, infernuko ipizkia lirudike). *Eskerrak igeri bazenkien apur bat.*
- *Beharko, putadiola! Ba al dakik zenbat bider jaurti izan naben uretara?*
- *Gaurkoa jaustea izan dela dirudi.*
- *Jausi, madarikatuarena, berak neu botata?*
- *Eta bera be jausi?*
- *Neuk heltzeko moduan jartzen deskuidatu delako, zantar alaena! Goazen hemendik.*
- *Bera bertan utzita?*
- *Itoko ahal dok lehenbailehen, txarrito hori, izena be Txarriel!*
- *‘Fulgentzio zurgina’.*
- *Fulgentzio Bargundia, Txarriel Txarrionandia.*
- *Geldi! Nora zoaz?*
- *Ahalik urrunen. Oizera, gitxienez.*
- *Ahabdul! Zoratuta al zagoz?*
- *Makila! Non jagok nire makila? Ateraik nire makila uretatik.*
- *Eutsi palis bat. Makila bihar topatuko dogu. Orain etzun zaitetz. Horrela ezin zara inora joan.*
- *Utzi baketan! Eta ez jarraitu niri, putadiola, berton hiltzeko!*
- *Segi infernuraino! Hantxe lehortuko zaitue.* (Putzura itzulirik, Txarrielen purrustadak ez dira agortu, bai ahuldu). *Ahabdul! Makila hemen dago.*
- *Sartuiok hor dagoen horri burduntzi eran!*
- *Orduan zertarako eskatu deustazu?*
- *Oraintxe ez deuat esan, ba?*

Desobedientzia ignaziotarrez, makila eskuratu diot Ahabduli, eta ez du ukatu. Laguntzen saiatu naizenean, jaurti didan makiladak burua erdibituko zidakeen, oreka galdurik jausi ez balitz. Nola-hala jaikirik, berezko herrenaz gainera daroan balantzadan, Drakula lepamoztua bezala barnatu da iluntasunean. *Ahabdul! Ahabdul!* Distantziara ere deika jarraituz, ezinbeste luzaezintzat sentitzen saiatu naizen herrenari laguntzea, funtsean, kontzientziaren amarrua izan delakoan nago, itogaiaren sokorrura berandu iristearren. Hain berandu, ezen osinera gabe nator etxerantz, mozolo batek gau jada osatua intonatzeke kortesia izan duenean. Bidean, Ahabdulegaz sarritan solastatua naizen luberrian eseri naiz, ilargiak erreka zuloan animatzen duen mamu-festa isilaren obserbazioan. Osaba Martzialek, Ahabdulen ugazabak, beste soro-lanik ez zegoen negu egunetan,

txarakak eta otatzak luberritzera bidaltzen zuen morroia, sailak aurrera egiten zuenik nekez igartzen zen lan amaigabea. *Dena negu batean eginez gero, hurrengo neguetan zer egin behar joagu? Otea erein? Irrikaz inguratzen nintzen. Berak ere nire agerpena atsegin zuela uste dut, batez ere, golkotik botilatxo ateratzen nionean.*

- *Hori dok amabirjina polita!*
- *Hau ezin dot sarri egin, eh! Gure amak baleki!*
- *Zuen amak nahikoa egiten jok. Bere isilpeko tragotxoei esker bizi nok paraje putagorri honetan.*
- *Paraje pu...gorri honetan be badago Jainkoa. (Apaizgai batek ezin du hitz hori osorik esan, eten-puntuen intentzioa egozten ez badidate).*
- *Beharko, hi be hortixek bizitzekotan habil eta.*
- *Baita zure modukoei laguntzetik be.*
- *Madarikatua! Karrera barri samarra izango dok horixe. Edaik heuk be tragotxo bat.*
- *Gero amak usaina hartu deidan?*
- *Gozoa! Abade alua izango haz, seguruenik, baina mutiko ona haz.*
- *Zeu be ez zara gizon modu txarra, horrenbeste birao botako ez bazendu.*
- *Putadiola! Berba soil batzuek hainbeste kalte egiten jabek?*
- *Belarri otzanei bai. Jainkoaren izenari be bai.*
- *Nire biraoek Jainkoagan pentsatzen urteten dabela uste al dok?*
- *Badagoenik sinisten ete dozu!*
- *Ez jakiat. Ahalegin guztia egiten dauela jirudik ez dagoela emoten.*
- *Eta badagoela gertatuko balitz?*
- *Zorte on! Ni ez najok Jainkoak edo Deabruak bildurtzen, bitarteko zantar-jenteak baino.*
- *Bitarte horretan, zeu be ez zara erlabio gozoa jartzen, zantarraldiak emoten deustunean.*
- *Et, et, et, putissima caeli! Nik sekula ez joat inor hutsetik mehatxatu.*
- *Liskarra sortu bakarrik.*
- *Ez ernegarazoko ez banindue, alua! Ba al dakik, tabernara sartzean, zer egiten deusten lehenen?*
- *Txikito batera gonbidatu?*
- *Eta gero makila ezkutatu! Makila barik badakik zer nazen?*
- *Ez dakit. (Nola esango diot ‘herren inutil bat’?)*
- *Denen burla- eta irain-zaku bat. Heuk ez al heuen lehengoan ikusi zelako kakatzan buruz beheratu nindueen, Txarriel txulokume hori buru zela?*
- *Berdetu egiten zara eta!*
- *Zer gura dok, ba, madarikatua? Uzkie eskaintzea, teleskopiotzat erabili daieen, izar puta guztiak ortzitik ezabatzeko? Beharbada, ez joat arimarik izango, zuen parroko ahohandi horrek zabaldu dauen moduan, baina gorputz hau be erdi-minetan jaioa dok. Ez pentsa Jesukristok bakarrik daukanik kurutzean min hartzeko dohaina.*
- *Harek herrenak eta mainguak onetsi zituen.*
- *Horregaitik kurutziltzatu jeurean?*
- *Horregaitik eta egia gogorak esateagaitik.*
- *Esatea jaukak barrero, txakur-jente horrek entzuteko moduan, ze nigaz aldrebek ulertuta dabilzela uste joat.*
- *Esaten dau, urtero jairoz eta hilez, baina, horretarako, fede apur bat be behar da.*
- *Fedea edukiz gero, dena guzurra izanda be bardin dok.*
- *Hori al da Sasimaltzako dama moreagaz errepasatzen dozun dotrina?*
- *To! Dama horrek izen prestu bat jaukak, Lukina Bustieta, eta senar jator bat, Sandalio Lorrinbaso. Neure lagun handia.*
- *Batez be, itsasotik denean, ezta?*
- *Alua! Abadegaitxo xaloa! Hi be sartu haz kanpai-joleen kofradian?*
- *Zeuk esanda dakit. Neuk ikusita be bai apur bat.*

- *Virgo putens! Heuk ikusi? Zer ikusi?*
- *Badakizu Sasimaltzan sarri izaten nazela mandatuan.*
- *Ala alkahueterian, txarrikume kandelario hori?*
- *Aukeran, mandatuan; derrigorrean, biak. Leihoan zure makilaren buruari erreparatu nion. Krisketa zela pentsatu izango nukeen, bat-batean ezkutatu ez balitz.*
- *Eta ni leihoratu banintz, txarri-mustur bat ikusiko najoan.*
- *Klandestinoago ibiltzen ikasi behar dozu.*
- *Tutis putis! Heuk ez al dakik Jainkoaren grazian ibiltzen?*
- *Nahikoa egin neban buelta erdi emon eta etxe azpian txolarte diskreto bat igarotzeagaz, piku jaten.*
- *Ala putakeriak entzuten?*
- *Hori be bai apur bat. Ez nintzen bertara joan eta esaten hasiko: “Lukina! Amak untxi ar bila bialdu nau, uzteko moduan badaukazu. Ahal bada, gainean daukazuna baino balienteagoa”.*
- *Eta ni isilik?*
- *Zuk esango zendukeen: “Madarikatua! Txarriel hintzela pentsatu joat”.*
- *Putia putiola dedios! Izen hori ez eidak ito-truke be aitatu, entzun?*
- *Ba, osabaren atartean erreparatu deusat, izekori galdetzen: “Nondik don herren uger hori, korta-usaina apur bat kendu deiodan?”. Izekok erantzun deuto: “Hor joan da soloak behera birao batean, Txarriel akabatu behar dauela eta”.*
- *Ostiola martutena! Hori esan jok nire ugazabandra pesteak? Bueltan haren narruak a zelako tarratadak hartu behar dituen!*
- *Barriro Torreburura itzultzekotan al zagoz, hainbeste bider hanka eginda?*
- *Hanka edonondik. Itzuli inora be ez. Ni pasatu egiten nok. Hartzen banabe, barro, ez banabe, marro. Virgo putilia! Hau bajoak! (Txurruplin, txurruplin). Estimutzen deuat borondatea, nahiz eta susmatzen dodan zergaitik ekartzen deustaan.*
- *Pozten nauelako behin edo behin zu alai ikusteak, beti biraoka barik.*
- *Bai, ba! Pobrea, zeruko lorea eta horrelako lirismoak, eztok?*
- *Ez uste bihotz guztiak direnik zantarrak.*
- *Ni alai ikusteak bakarrik pozten hau?*
- *Baita zu berbetan ipintzeak be.*
- *Ona! Egaitia hazelako, neuk be egia esango deuat, susmoa jaukaat seminarioan horrelakorik ez deusueela irakasten eta. Narru kontu horreek ez dozak total guzurak, narrudunak bereizten jakinez gero.*
- *Ez dot ulertzen.*
- *Ez al dok entzun narru mota asko dagoela? Behi-narrua, oilo-narrua, suge-narrua, ardi-narrua, asto-narrua...*
- *Kakanarrua!*
- *Baita! Baina hori beste kanal batetik dok, nora ez nazen aldatuko, derrigor latzen batek jotzen ez banajok. Ardia ez dok txarra, otso kamuflatua ez bada. Zertara doala uste dok hainbeste artzain Ameriketara?*
- *Dolarretan.*
- *Doli-doli! Egon hi horretan! Oiloa oso maneiagarria dok, baina, fama daukan baino txolinagoa delako, edo gustu hartzen dauelako, ez jakik isilik egoten. Suge-narrua sasia elkorra dok, baina bere soinean, plazegarri gorena, izter artetik kiribilean lerratzen denean, Adan eta Ebaz gogoratzeak distrahitzen ez bahau.*
- *Eta pozoitsua ez bada!*
- *Horrek erremedio samurra jaukak. Kurioso-kurioso heldu, lepo-alboak estutu, eta ahoa aliketa eran zabaltzen jakonean, pintza bategaz mihina erauzi, hazpizarra balitz legez.*
- *Jjjj!! Hori krudelkeria da.*

- Orduan, bertan akabatu. Odol hotza daukienez, hil eta gero be ondulatzen jarraitzen jabek, luzaro. Beste aldera jorik, señora etzunen zango gakoan irekiak sahieskatuz, katu ile-guriak sortzen dauen efektu berdintsua.
- Erpekada bat merezi dozu bertan.
- Ailegatuko jak heuri be. Onena badakik zein den? Astemea. Astitsua, harkorra. Gozatzaila bera be, alaena. Ez jagok horrelako nobiarik.
- Behia ahaztu jatzu.
- Kontuz hortxe! Susara ez bada, bertan akaba haike ostikada batek. Baldin bada, burua sartzan be utziko deua, baina hain beroan, urtu egin haiteke. Astoa be beroan beroegia dok, baina, egun batzuk gorabehera, urtea luzea dok, hotzean be uzten jok eta. Nahi al dok erakustalditxo bat egin deiadan?
- Ez dago beharrianik.
- Alua! Imaginatzea gurago, eztok?
- Benetako birao-motibo bat gura dozu?
- Benetako bada, jaurti. Ni ez nok zahizko gizona.
- Ez da erakustaldirik behar. Ikusita zaukadaz.
- Erromako zubi aluztatua! Intimidade lizunak usnatzen al habil elizkume irengai hori?
- Halanbeharrez izan zen.
- Ez behar ez den lekuan egoteko halanbeharrik ez baheu!
- Karramarrotan nentorren urez gora, eta halako batean hor dantzut sastrakaz handik: “Egon geldi, Malentxo!”. Astoari Malentxo deitzen zeuntsala banekienez, pentsatu neban: “Zer kargatzen ibili leitekak gizon herren bat erreka-zulo horretan?”. Kontuz-kontuz hurreratu nintzen eta, arima santua apartatzen ahalegindurik, astrapala guztia ikusi neban.
- Ostian putian Donostian! Hori indignitate txarri bat dok. Bihar beste botila bat ardao ez badakark, mundu guztiak jakingo jok Torreburuko abadegai santujalea espioitza portzinoan dabilela.
- Bihar ardaoa ekartzea, gatxa. Etxean igartzeko moduraino estutzen banozu, zeuk ikusi gero hori eta tabakorria eta beste isil-jeneroak nondik zuzenduko dozuzen.
- Hauxe dok benetan behartsua izatea, mutiko zapo baten gorabeheran egon beharra.
- Ez dozu esaten, ba, inogazko dependentzia baino haizeagazko askatasuna aberatsago dela?
- Kabenla putinskia! Azkeneko tragoa geratzen dok hemen. Hurrengoan ekark botila argiagoga, non goazen jakiteko.
- Abere mordoia pasatu dozu, baina andra konturik ez dozu aitatu.
- Ez jagok zer aitaturik, denak sorginak direla besterik. Nire oin herrena biluzik ikusteko premina karinosoa sartzan jakek, eta gero izaturik alde egin, matxanak su harturik legez.
- Jenteak hamaika guzur badarabil orduan.
- Jentea jentea dok. Onenak eskegita egon behar leukek.
- Eta txarrenak?
- Bardin, baina lurrari oin puntekin doi-doi ikutzeko moduan, asfixiaz bainoago desesperazinoz akaba daiten.
- Gurago dot desesperazinoa asfixia baino.
- Ai, inozente santua! Desesperazinoak asfixia saihesten dauela uste al dok? Luzatu bakarrik!
- Horrexek bildurtu nau apur bat.
- Txarriarena ez al deuat esan? Hori dok inbentua, puta pilarika! Larrua hain geure antzekoa, hain humanoa dauenez, igarri be ez dok egiten alderik. Heztea apur bat kostatzen dok, baina berak gustua hartzen deusanean, ez jagok halako zerbitzurik. Bizkarrean eta belarri osteetan azkura erregularrak eginez gero, eskuetan urtzen jak, urdaiarentzat gatxa be ez denez, itxuran gobernatuta badago.
- Zugaitik zabaldu diren guzurrak egia baino benignoagoak direla esan beharko dogu, beraz.

- *Ondo esanda, komaidios berton hiltzeko! Guzurra euren meritua dok. Nik egia gura joat, izorramendua neure eskusiba izan daiten.*
- *Ni be izorramendu horren partaide kontsideratu behar al naz?*
- *Hi neure konfesore kaikua haz, bihar-etzirako ikasten joan haiten.*
- *Eskerrik asko, baina horreek guztiak banekizen seminariora joan aurretik.*
- *Santirum putirum! Kabroi osoa izateko, heren bat sobratzen jak. Seminariora aurretik zelan, hamar urtegaz joan bahintzen?*
- *Umeei suposatzen jaken inozentzia lako behatokitik ez dago. Behin, eskolatik etxeranzkoan, harrobiko txabolan barre-algarak entzun nituen. Arratsalde erdiko tragoan zihardueen. Normalean nork zer emongo edo zer esango hurreratzen nintzena, txabola osteko hondakin artetik belarria zorroztu neban, Kandido Lakabe esaten ari zenean:*
 - *Motrori ederra pasatu jakok! Astoak eskapatu eta andreak, azokara barik etxera itzulirik, ez jok, ba, senarra, aulkira igonda, behiaren atzean harrapatu, prakak oinetan?*
 - *Zertan habil hor, Motro?*
 - *Zertan nabilen? Buztan zikin geraka hau gerrikoagaz sabaiko hagera lotu ezinik. Luzatu beharraren luzatu beharrez, azkenean, prakak be jausi!*
 - *Ezin heuntsan buztana bernazakira lotu, ohiko moduan?*
 - *Horretantxe hasi non, baina, gaur behi suntsun honi ez jakinat zer aldikadak emon deutsan, ezin jakon hankarik ikutu be egin.*
 - *Leku seguruagoan ez habil.*
- *Gero algaraka jarraitu eben, andreak igarri izango ete eutsan, ez-jakin egin ete eban.*
- *Herri honetan ez jagok Motro-rik. Hori ipuina dok.*
- *Motrorik baden ez dakit, baina aproba batzuk egin nituen, eta leitekeena da.*
- *Heuk aproba batzuk?*
- *Zeuk esan zeunstan seminariora mundu apur bat eroatea komeni izango jatala, gero han leihoak asko txikituko zirela eta.*
- *Hori esan neuan?*
- *Behor kontu bat be atzeman neban beste behin, Mendibeko morroia errotatik bueltan zetorrela, zorro barik. Bero egiten eban, eta erreka-barrena kurutzatzen denpora luzea zeroan. Goiko kanaletik ezkutuan hurreratu nintzen, eta pentsa zeinke zer ikusi behar izan neban. Zenbat horrelako!*
- *Sancta Zakilia! Hi zertara joan hintzen komentura? Perbertsinoa dibinizatzeraz?*
- *Hori guztia, mediku-abenturak jo barik.*
- *Albaitaririk be ez dagoen parajea?*
- *'Medikuka' jolasten ez al zenduen ikasi? Neskatoa etzuten da, gaixorik, eta mutikoak araketa egiten deutso, medikua bailitzan.*
- *Sandios gure behiak! Bai tamala eskolara gehitxoago neu ez ibilia! Hanka herrena arrastatzen ikasi orduko, Galdamesen nintzoan. Erdara puta hori ikasi behar zela-eta, atxakia jaitona, etxearen bistatik uxatzeko.*
- *Baina itzuli zinen etxera.*
- *Itzuli nintzoan, baina orduan neuk erabagi najoan eskapatzea. Han ez jagoan behar txarra eta berba zantarra besterik.*
- *Zeure ahoa be ez da garbi-garbia.*
- *Bizimoduaren parekoa, madarikatua! Zer gura dok, ba? Batzuek Corpus Christi, kolkora begira, eta besteok Ave Maria, burduntzian eskegita?*
- *Aspaldion dultzinarik ez dozu jotzen.*
- *Idi-zakilagaz? Txarrielek eta txulo-banda horrek dultzina eta guzti putzura jaurti nindueen batean, nire tresna zintzoa hantxe izorratu zoan betiko. Orain txorien kantua txistukatzen*

entretenezten nok. Zelan zozan hik esaten heuen musikari ornitologoa, hainbeste txori-kantu musikatzten tematu zena?

– Olivier Messiaen?

– Horixe! Izenak ere txori kantua zirudik. Zozo, birigarro, gardantxilo, txonta, papargorri, txanbilotx... neu be banajoak dozena batetik gora. Entzun hara! Hau zer dok?

– Txepetxa.

– Bai antza emon be!

– Antza bakarrik?

– Ea hau?

– Txirta.

– Hau?

– Txanbilotxa.

– Orain hau?

– Buztanikara?

– Bera! Hau?

– Zozoa.

– Zozoa, baina marti-zozoa.

– Hil arteko zeregina hartu dozu oraintxe, txori guztien kantuak jotzen ikasi behar badozu.

– Txoriena eta txoriburuen. Ikusiko dok laster nor burlatzen den Dultzin Herrenez, edo, geure arterako, Ahabdulez.

.....

– Kaixo, Ahab! –agurtu nuen hamalau urtegezko oporretan etxeratu nintzanean.

– Ahab? Nor dok zotina dirudien hori?

– Inoiz ez zara itsasoan ibili?

– Soldadutzatik bialdu nindueenean, kuartela aztoratzen ei nebalako, hanka sanoagaz bizkorregi ibilita.

– Bizkortasuna ez zen izango gerrak irabazteko sistema ona.

– Gerrak ez dozak irabazten. Eurak jausten dozak bando batera edo bestera, oraindino inork esplikatu ez dauen logikagaz.

– Indar kontua izango da.

– Indarrak ez jok ezertarako balio, neurtzen jakin ezik. Gainera, alde bietakoa neurtu behar denez, orduan gauzak asko zailtzen dozak.

– Argitasun kontua izan leiteke, orduan?

– Horixe gitxien. Argitasunak aginduko baleu, armada etsaiek elkarri bostekoa emon eta etxera aldeko leukiek.

– Elkarri bostekoa emoteko gerra deklaratzera be, ez dakit, ba, zer esan.

– Tontoen kontua? Ba, pentsa amaitu arte ekitea zer izango den.

– Zure kasuan, ezingo da esan soldadutza alperrekoa izan zenik. Eskola polita ekarri zenduen.

– Eroan nebana gehi gaizto-puntu bat. Beno, eten-puntuak, gura badok. Itsasaldi bat egiteko beste.

– Ausar-puntuak be behar dira, hanka horregaz marinel joateko.

– Alderantziz! Naufragio kasuan, herrena nekezago itotzen dok.

– Kapitain joan ei zinen.

– Lapikotain.

– Zer da hori?

– Lapikoen kapitain. Sukalde-laguntzaile ibili nintzoan.

– Itsasaldi bat bakarrik?

– Luzea eta ezbehartsua.

– Zuen ontzia ez al eban balea batek hondoratu?

- *Iruntsi, esan gurako heuen. Ontzia hondoratu balitz, zelan egongo nintzoan hemen?*
- *Salto egin eta oinez etor zeintekezen. Gertatu izan dira naufragio miragarriak.*
- *Ez jagok Jainkoaren graziarik, gu ibili ginen latitudeetan naufragatzen zena salbatzekorik. Ezta zerurako be, azken arnasa beti birao bildurgarri bat izaten zoan eta.*
- *Zelan dakizu hori, zeu trantze horretan inoiz aurkitu ez bazinen?*
- *Nork esan deua ezetz?*
- *Orduan, zelan zagoz hemen?*
- *Esan barri ez dok, ba, izan direla naufragio miragarriak? Bat gurea izan ez bazen, ez bilatu bigarrenik, mirariak irudimena lantzeko egiten ziren garaietan be.*
- *Bera, beraz. Zu Ahab zara.*
- *Ni Julian Arrillaga izan nok, beti eta denean, ezizenez Dultzin Herren, jatorri jakinik merezi ez daben batzuek Dultzin Txerren zabaltzen ahalegindu baziren be.*
- *Orduan, berrinkanazinoa zara.*
- *Madarikatua! Zer zoro-hauts edo zer zapo-salda sartu deue seminario santaputa horretan?*
- *Bardin-bardina zara.*
- *Ahab horrena? Jakin neikek nor zen bera?*
- *Baleontzi bateko kapitaina, balea zuriagazko itsumen mendekatiak galdu ebana. Aurpegi latza, berde-baltza, azal zimurra, ia oskolezkoa, begirada harraparria. Sudur malkarra, punta-luzea eta urtena; eminentzia atal-bikotxa, gailur erdiko sartunearen tirakadaz-edo, aihotz-kolpe transbersalak egina irudi beronek. Belarriak, narruzko azak bezain basak, sudurraren araberako. Ule zapala, labana, kresalean garbitua lakoa, hots, inoiz garbitu bakoa. Hanka herrena, zeure identikoa; beharbada, bataren terminala haragizkoa, bestearena zurezkoa.*
- *Nirea haragizkoa dok gero!*
- *Oraingoa bai, baina jatorrizkoa?*
- *Jatorrizkoa zurezkoa eta ordezkoa haragizkoa? Hankamotzak sendatzea baino mirari handiagoa izango dok horixe.*
- *Kontua da bion herrena eta gorpuzkera bardin-bardinak direla. Jenioa, barriz, bardinagoa, muker, biraoti, ebakor, setati, burgoi.*
- *Putadiola! Horrelakoa izanda, oraindino ez deuat makila bizkarrean hausi?*
- *Zeozergaitik jarri naz distantziara.*
- *Alu popatia! Ekarri heinke lantzean botila bat, ondo beterik, balea zuria potroetan eskegi deiadan gura ez badok.*
- *Botila izango dozu, ondo beterik, proposamen txiki bat onartzen badozu. Badakit, hor barruko nonon, bihotz antzeko zeozer izango dozuna. Bihotza ez bada be...*
- *Esaik esan beharrekoa, melengerietan likindu barik.*
- *Ikusten edo gogoratzen zaitudanean, ezin dot Ahab ha burutik kendu. Burua bortxatu egin behar dot, zuri Julian deitzeko. Jubelardo balitz be! Dultzin deitzea txiruleria iruditzen jat, eta Dultzin Herren, irain bat. Badakit bigarren osagai hori ez jatzula gustatzen.*
- *Zer gura dok, orduan? Ahab izan naiten?*
- *Zergaitik ez?*
- *Ez jatak gustatzen. Ahab, ahab, ahab... Antzarrak horizontean emoten jok.*
- *Eta izen horri zeure ezizenaren zati bat ezarriz gero?*
- *Ahab Herren?*
- *Dultzinetik zeozer.*
- *Ahab Dultzin?*
- *Edo Ahabdul.*
- *Ahabdul, ahabdul, ahabdul... Honek asteme iela emoten jok. Ezin leitekek Abdul izan? Hori gustatzen jatak. Bataren azkena gehi bestearen hasiera.*
- *Horrela, kapitainaren erreferentzia ia ezabaturik gelditzen da.*
- *Ontziak zer izen jaukaan?*

- *Pequod.*
- *Pekotz?*
- *Pequod. Pekod.*
- *Ez. Gurea Ama Mater zoan.*
- *Bai arraroa, ‘ama’ eta ‘mater’ gauza bera baitira.*
- *Amatermin izan ete zoan, ba?*
- *Azkenean, ea Pekod izan zen.*
- *Horrelako ontzian dabilen kapitaina be izango dok baten bat!*
- *Esan deusut zeure bis-a dela.*
- *Eta hi bien juntura? Seminario pitokario horretan, aingerutik baino potrozorritik gehiago sartzen dabela uste joat.*
- *Orduan zer? Ahabdul?*
- *Geure arterako bakarrik izatekotan.*
- *Bakar-bakarrik.*
- *Ondo jagok. Baten bategaz ados be egon behar joat.*
- *Bihar, botila ardaoa ez bada, izango da nonondik pattar ontzitxoren bat.*

Beti ere intentsitate neurrigabea zeukan etxeko txerri-afariari, urte hartan, bizigarri intrigantea gehitu zitzaion, Dultzin Herren, eskailera erripea eta estua alboka eta kankaka igo ondoren, goiko salako mahaian eseri zenean, beste afaltiarren artean. Hamabi urte nituen eta Sorkunde bezpera zen. Abenduaren zortziko Ama Birjina Seminario Eguna zen, apaizgai guztiok, bakoitza bere herriko elizetara diru batzen zabalduko ginena, kurloiak gari batzen bezala, geure uniforme galakoz: sotana eta zapata-galtzerdi beltzak, eta beka zeritzon oihal-zerrenda gorri luze bat, paparrean uvean doblatu eta bi sorbaldeetatik atzerantz, berna ezkutuen pareraino paraleloan jausten zena, gehi, kiste mediebal bat bezalako gotzain Gurpide otxagabiarraren ekarpen tridentinoari esker, lau adarreko bonete beltz lotsagarri bat, trenean sartuz batera, ahal zen lekuan gordetzen saiatzen ginena. Leihotik erre kara jaurtitzen ere ikusi nuen bat, gero bueltan ez dakit zer esplikazio emango zuen baina. Zornotza handian apaizgai bat edo bi besterik ez zegoenez, Etxano txikitik hara destinatzen zuten bat. Nik beti Etxanon gelditzea lortzen nuen, neure mendi-distantzia aitzakia zela. Uste dut urruntasunak aukerez gabetu baino gehiago babestu izan nauela zereginetatik. Bezperan etorri, biharamunean joan, etxeratze laburregia zen, poza guztiz konfiguratu zedin. Gurean, txerri-hiltzea nire etorreragaz bat egiteak egunari dimentsio liluragarria eransten zion.

Gau hartan, Dultzin Herren ere bertan. Auzorik hurreneko (hala ere, urrun) morroi horrek beldurrak tenkaturiko ikusmina sortzen zidan, batez ere, bere biraoen ez hainbeste larritasunagatik nola tonu ebakorreratik, ahotsaren garratzak areagotua berau. Haren ahoan, ‘kabendios’ ez zen birao soil bat, Hirutasuna luzetara ebakitzen ari bailitzango aiztoa baizik, non bokalen gorputza irristada bilakatzen zen, ‘käëbënnndiöësss!!’. Hogeia hogerleko patrikan zitueneko, odolak hankajokoa agintzen ziola esaten zuten, gero, aldekoak ere galdurik, azkar galdu ere, lehengo etxe berean atea jotzeko erreparorik ez izateko. Premia estremoak edonor apaltzen duela uste nuena laster atara nuen, harengan, ofizioa zela, lotsarik ezaren premiarik ez zeukan elegantzian. Desagertzen zenean, inork ez zekien gaua non zulatoratzen edo eguna zertan apurtzen zuen, baina bizirik itzultzen zen. Lehenengo egunetan, dultzainari maiz eta gogoz ekingo zion edozein bazterretan, lurralde berreskuratua gorteiatzen; ederra zen nola soinu gailen hark mendi osoa planearazten zuen bi aldeetako haranetarantz. Dultzaina mehatzen hasten bazen, beste desagerraldiren bat ez zen urrun.

Beharbada, niretzat aztoragarriena herrena bera zen, behin, hartarako irris inbentzibleak eramanez, oinetakoak (abarka-mantarrak) eranzten ikusi nuenetik. Artean ikusteke neukan eta oraindik ere hala darraidan deformazioa zen. Herrengan laburragoa izan ohi den hanka, harengan, askoz luzeagoa zen, oina, ohiko elean barik, linean luzatzen baitzen. Halako zera, nola baletarien

oina, behatz puntetan edo puntadun zapatiletan tentetzen dena, nahiz eta, jakina, itxura higuinarriri zakarragoan. Baletariengan zisne-moko dirudien oina, haren hankan, sagar txikitzeko mazo-burua zen. Misterioa argitzeko setan, amarru dohakabea moldatu nuen. Ez zen erraza, Perla izeneko txakur emea beti ondoan baitzuen, espiriturik ere igarri gabe hurbilduko ez zitzaiona. Egun hartan, umeak egiten edo, txakurra falta zen. Oste batetik, ikusi nuen ikustekoa. Orpoa tibian inkrustaturik, oina hagin-ilara bezalako behatz nano-nano okertuen gainean pausatzen zen. Dozena erditik gora iruditu zitzaizkidan. Ikuspenari eusteko kemena laster bilakatu zen okagura, suge buru-txikitu bat muturrean eskegi zidatenean bezalatsu. Isilik hurbildu nintzena, ez zen samurra izan neure burua salatu gabe aldentzea, irudia begietan itsatsia baitzetorren, hain fatalki itsatsia, ezen oina eta aurpegia batera nekutsen, ez irudi gainjarrietan, bakar fundituan baizik, halako zera nola, aldeak alde, maindire santuko Kristoren aurpegian, San Joanena edo Madalenarena transluzitzea.

Txerri-afariko mahaiaren hurbiltasunean eta alegrantzian, ez neukan beste erremediorik keinu guztiak obserbatzen nizkion hari ere geroz antz humanoagoa hartzea baino, harik eta gauerdian, beste auzoekin etxerako jaikitzean, horra non luzatzen dizkidan bost hogerleko, *'honeek seminariorako'* esanez. Halako jan-ase eta ardo oparoaren ondoren, *'kuarteroi'* umelezko (sarritan, ugaritze alde, patrikako zaskarekin nahasten utzia bera) zigarro baldarrez gainera, kafe-pattar-puruek errematatzen zuten afaria ulertzekoa zen gloria bat izatea harentzat, eta norentzat ez orduan. Pentsatzekoa zen gizonak, euforiaren samurgunean, gure amaren eskuzabala eta aitaren adeia erarik sentikorrenean eskertzeko sena izatea, etxeko elizgizongaiari opari eginez, hain jaiegun seinalatuaren inguruan. Neu ere barruko nintzen ongizate pozkor eta ongurakor hartan, dena zen ulertzekoa, izan ezik (amak ere *'horrenbesterik ez dau behar'* esanez atzeratu nahi izan zuen), elizako platerean pezeta gorria harrokeria eta paperezkoa ostentazioa zenean, bat-batean bost hogerleko etortzea (dirutza bat orduan), zain zimur eta ubelez beste ondarrerik ez zeukala suposatzen zen esku batetik. Seminaria itzultzean, nire kontaeraren beroak neure meritutzat ulertzera eraman zezakeena zeruaren miraritzat hartu zuen gogo-zuzendariak, zeinak ez zuen kasuaz baliatzeko zalantzarik izan, Ama Birjinaren figura probidentziala berriz exaltatzeko.

Beste kontu bat izango zen, handik lau urtera, Txarriel osinean eta Ahabdul bordan utzita itzuli nintzenean. Orduan, halako sen inkontziente batek emanik ezen bizipen benetan garrantzitsuak, kanporatzean, hutsal bilakatzen direla, izate oso bat ere besteengan, lotura txit hurbilen kasu bakanak salbu, nekez pasatzen baita anekdota bat izatetik, pentsatu ere ez nuen egin inori ezer esaterik, are gutxiago konfesatzerik. Handik beste lau urtera, ostera, bizipen haiek nire barruan ere leundu zirelako-edo (segurrenik, ondorengo beste bizipen bortitz batzuekin intentsitatea banatu behar izan zutelako), kasua lagunarte batean kontatzera lañotu nintzen, *ba, gurean... ba, niri... ba, gure herrian... ba, neuk ere...* berehala narrazio pertsonalen norgehiagoka bihurtzeko jitea dakarten komunikazio bikain horietariko batean. Solaskide hertsikoiren bati egintza, nonbait, retroaktiboki ere kondenagarri begitandu zitzaion, eta, badaezpada, ezin izan zuen gogo-zuzendaria jakinean jartzerik ekidin, aldarerako kandidatu balizki ezduinak detektatzen kolaboratzeko eginkizun maiz inkulkatuan.

- *Iluntze on, aita. Berorren deia neukala abisatu deuste.*
- *Zuzen esan dizute, bai. Eseri patxadan, kontu luzetxoa izan liteke eta.*
- *Ezbeharren bat? Zeozer gertatu al da gurean?*
- *Zuenean bertan ez, baina inguruan bai.*
- *Amamarenean?*
- *Zaude neurea entzun arte. Ez da zer berria, ondo gordeta egon dela ematen du baina.*
- *Hmm? (Puma droguatuaren aurpegia izan behar dut).*
- *Orain lau bat urte, zuen auzo batean, ez al zen zerbait larria gertatu?*

- *Sorgin famako bat senarra irentzen saiatu zela, herriko abadearen bisitekin hain jeloskor ibili ez zeiten?*
- *Nork asmatzen ditu horrelako zantarkeriak?*
- *Herrian bala-bala ibili zen. Abadea misiolari joan zen.*
- *Bai erremedioa ere!*
- *Efektiboa, antza, gehiago ez da itzuli eta.*
- *Beste zerbaitez ez al zen gertatu, zurrumurru moduan baino zuzenkiago ezagutu zenuena? Non, esaterako, bata ozta-ozta salbatu, eta bestea... Bestearena nola amaitu zen?*
- *Hara! Kontakatiluren bat hustu jakola berorri be.*
- *Kontakatilua ez, kontzientziaren katilu zintzoa baizik.*
- *Lagunez mesfidatzen hasi behar badogu, gizatasun aproposa ikasten gabiltz, bihar-etziko konfesino-sekretua garantizatzeko.*
- *Ez didazu erantzun bestearena nola amaitu zen.*
- *Ito egin zen.*
- *Eta salbatu zena nola salbatu zen, herren ezgaia izanik?*
- *Ha be laster hil zen gizajoa.*
- *Baina ez itota, osinetik irteten zeuk lagundu eta gero baizik.*
- *Gehiago lagundu izan beharko neutsan, baina ez eban onartu gura izan. Azken tristea izan eban, bizitza bera lakoa.*
- *Itotzen ari zenari laguntzeko borondaterik ez al zenuen izan?*
- *Dena ezin neban egin.*
- *Saia zintezkeen.*
- *Saiatu nintzen makalena eta behartsuena salbatzen; hain zuzen, besteak eragindako trantzetik. Ez zen lehenengo aldia, herren gizajoaz heriotz punturaino abusatzen ebana. Garbi esatea gura badau berorrek, herririk gehienak ez eban pena handirik hartu, merezitako azkena gaineratu balitxako legez.*
- *Zu ez zara edozein herritar, balio dibinoen ereilegai baizik. Jainkoaren ordezkari batentzat, arima guztiak dira berdinak, batez ere, heriotzaren mehatxuaren aurrean.*
- *Bizitzan antagonismoraino ezbardin, eternitatean be, beharbada, zerutik inpernura bezain ezbardin, eta bitarteko zubigune intzidental horretan, denak bardin?*
- *Hobespenik izatekoan, bekatarien alde behar du, Jainkoaren eskua miragarriago ager dadin.*
- *Izena be pentsa zelakoa: Txarriel. Jainko txarrieltsua!*
- *Baina berdin arimaduna.*
- *Neuk ez neban hil, eh!*
- *Laguntzea omititu zenuen. Hori zehar-hilketa da, honezkero, moralean ondo ikasia behar zenukeenez.*
- *Esan deusatz berorri aurreragoko zeregina neukala. Herren behartsuari itotzen itzi behar al neutsan, zapaltzaile prepotente bat salbatzearren?*
- *Bereizketa epaitzaile horiek Jainkoari dagozkio, ez Haren errukia banatzeko sagaratua izango denari.*
- *Ondo dago. Hilketa bat burutu nebala, beraz. Zenbat hilketa burutzen dogu egunero, nik, berorrek, edonork?*
- *Nik hilketa burutu? Edonork?*
- *Zeharka, berorrek dinon moduan. Ziur, une honetan, Bilboko bazterren batean, abandonaturen bat gosez hiltzear dagoela, berorrek sarritan sentiarazo gura izan deuskun moduan.*
- *Baina ez dakigu non ez nor!*
- *Jakiten saiatu geintez. Osterantzean, hori be omisinoa da. Beraz, zehar-hilketa.*
- *Ea! Lehendik ere ohartuta nago zure burua arriskugarrirako solteegi dabilela, baina auziak ezin ditugu muga natural batetik atera. Ez jakiten saiatu gabe, dakigunari erantzutea ere bada gure zintzotasuna gainez probatzeko adina.*

- *Eta ziur-ziur dakiguna balitz?*
- *Balitz zer?*
- *Esaterako, gure diozesiak misino-lurtzat hartuta daukan afrikar lurraldeko edozein herritan, umeak gosez hiltzen ari direla. Zergaitik ez doguz joan eta sorosten, denak ezin bada, batzuk, edo bat, behintzat, hain gaixotasun sendagarria izanik? Ziur salbatu geinkeenari ez laguntzea ez al da zehar-hilketa, nire kasuan halan izan bazen?*
- *Baina zu berbertan zeunden!*
- *Afrikako umea be berbertan izango dau berorrek, joaten bada. Hots, joatea omititzen ez badau.*
- *Zuekiko eginbehar santu guztiak utzita, Afrikara abia nadin esan nahian al zabilta?*
- *Jainkoaren arima bat salbatzeko bada, edonora! Ez al gara teologian ikasten ari salbamen unibertsean erantzukizun unibertseala daukagula?*
- *Gauza bat da jarrera espirituala eta beste bat irismen materiala. Gure arima gorputz bati atxikita dago, Jainkoaren beraren borondate misteriosoz.*
- *Gure erantzukizun morala distantziara mugatzen dela, beraz. Nik uste neban espiritua materia transzenditzekoa zela, ez honek atxikitzekoa. Zenbat metrotan dago neurria? Bat? Mila? Milioi bat? Hamar milioi?*
- *Munduko premia guztietara abiatzen hasiko bagina, ordena orokorraren deskonposizioa letorke.*
- *Ordena orokorrean, arima indibiduala dela ikasi dogu, salbamenerako zein kondenaziorako. Joan eta ume gosekil bana salbatuko bagendu, ez dakit ordena orokorrari nondik letorkeon kaltea.*
- *Hara, seme! Dialektika antzuarri ekin beharrean, izan zaitez apalkorrago eta entzunkorrago, Jaunaren aldarean tokirik izateko asmorik baduzu.*
- *Nire asmoa ez da Luziferren superbiagaz leihatzea. Argitasun txiki bat besterik ez dot eskatzen, berezko misterioei gehitzera jo ohi den iluntasunean.*
- *Misterioak ezin du ez argiago ez ilunago izan. Misterioa misterio da!*
- *Argitasuna ez bada, ulergarritasun zerbait atera leitekeela uste dot. Demogun gure diktadorea itotzen ari dela bere osin inpenetrable askotariko batean. Laguntasuna omititzeagaz, zehar-hilketa burutuko neuke?*
- *Shss! Horrelako kasurik, izendatu ere ez hemen!*
- *Zergaitik ez? Harek be izango dau arima, inork izatekotan.*
- *Isi esan dizut!*
- *Hemen inork ezin gaitu entzun.*
- *Azkenengoz diotsut isiltzeko! Jarraitu nahi baduzu, ipini beste adibide bat.*
- *Ba, adibidea barik, kasua bera ipiniko deusat berorri. Txarriel erregimenaren estandarte zen herrian. Gatxa bada be, bat izan leiteke aldeko sutsua, baina gizon-modu ona. Txarrielek, bere botere haretan oinarriturik, ez zeukan eskrupulurik herrian edozenbat zapalkeria burutzeko. Dultzin Herrenen kasuan, zapaltzeak non-zertanik ez zeukanez, bere txulokeria abusatzailea besteen aurrean ostentatzeko txotxongilotzat hartu eban. Horrek definizio bakarra dauka: gaiztotasun intrinsekoa. Behingoz, bere ekimen kriminalean merezita harrapatua izatetik urteteko laguntasuna omititu nebalako, hiltzaile izan behar al dot?*
- *Zuzenekoa ez, baina zeharkakoa bai.*
- *Argituko dot auzia Jainkoagaz, aparte.*
- *Bai, Jainkoagaz argitzea bere ordezkoeekin argitzea ez balitz.*
- *Horretaz be aituko naz beragaz.*
- *Harekiko egingai bakarra otoitz eta gur egitea duzu. Seme! Teologian aurrera doan bati azaltzeko kontua ez luke izan behar: Jainkoaren borondatea, zuretzat eta hemen, seminarioko arduradunok gara.*
- *Orduan, bialdu naikezue etxera trankil. Aurkituko dot moduren bat, Jainkoaren borondatea apur bat saneatzeko.*

.....

- *Ahalbdul! Hemen naz barriro, Txarrielen hiletatik. Mutikotan bai legez, orain ez jat gustetan hilak ikusterik, baina Txarrielen hilkutxa zabaldu dabenean, ondo begiratu deusat. Lurra gainera botatzen be ikusi dot. Harri-koskorrak nahastean-edo, hilkutxak, lehenengotan, trumoiaren eskala altua lako tarratada egiten eban, barrukoaren azken amorrua ez bazen. Ez dot uste. Hil-hilik joan da. Izan zeinke trankil betiko atsedena, hor be elkar ikusi beharren bat gertatzen ez bada.*
- *Puta diola! Horixe behar geunkek!*
- *Ahabdul! Bizirik al zagoz?*
- *Oraindino ez joat belerik somatu arima bila.*
- *Lehen zelan ez deustazu erantzun? Arnasarik ez pulsturik be ez zenduen, barren!*
- *Ez nok ohartu etorri hazenik be. Lo egongo nintzoan.*
- *Deihadar guztiak egin deusudaz.*
- *Okerreko belarrian ibiliko hintzen.*
- *Oraintxe agirian daukazun horretan.*
- *Hortik ez joat entzuten, txikitan ehunzango bat sartu jatanetik.*
- *Bestetik be ekin deusat.*
- *Bestea alperra dok. Horrexegaitik etzuten nok beti bere aldera.*
- *Baina gero astin-astin egin zaitut, txakur nerabeak lumazko panpina legez.*
- *Horrenbeste? Hilda egon ete nok, ba?*
- *Hiltzat utzi zaitut.*
- *Lehen be ez nok ni horrela utzi bakoa.*
- *Gure amak esan dau baina!*
- *Zer esan jok?*
- *Ez litzatekeela lehenengo aldia izango, uste guztien aurka bizirik agertzen zarena.*
- *Zuen ama argia dok. Esaiok asmatu dauela barriro be.*
- *Esan, zelan? Nik hilda zagozela zabaldu dot!*
- *Txarra al dok hori guzurra izatea?*
- *Zure hileta biharko iragarri dabe!*
- *Purissimam putissimam! Preparatu egin beharko joat, orduan.*
- *Preparatu zelan?*
- *Benetan hilda, alua! Ez dozue hilkutxa hutsik eroango.*
- *Holakorik! Munduan gertatzen da bakotxik!*
- *Ez hadi arduratu horregaitik. Ez dok komeni gertaera subjektua baino garrantzitsuago izaterik. Pentsa zelakoa izango den nire garrantzia, hilda zein bizirik bardin konsideratzen bainabe.*
- *Bizi zareno, ezingo zara hiltzen ahalegindu.*
- *Ezta bizitzen be. Ez joat uste borda honetatik urtengo dodanik.*
- *Bai urtengo dozu. Berbizten badakizu, zergaitik ez zara bizitzen jarraitzeko gauza izango?*
- *Non? Nogaz? Nori interesatzen jakok ni etxean hartzea?*
- *Besterik ez bada, geurean, apur bat osatu arte.*
- *Ez neukek horren esker txarreko izan gura. Zuen amak nahikoa lagundu jeustak bizitzen, orain hiltzen lagundu beharra leporatu deiodan.*
- *Bertora ekarriko deusut bizigarria, zelan edo halan.*
- *Ez dok behar izango. Txarto najagok, sandiola! Bizitza-heriotzen muga hainbeste bider gurutzatu ondoren, bajoat sen bat buelta bakoa noiz den igartzeko.*
- *Lehen ekarri dodan ardaoa hemen dago. Hau edan barik ezin zara joan.*
- *Kristolarrioxa! Hori bai, paparra zulotuta bada be.*
- *Tabakorria be ekarri dot.*
- *Hori ez joat uste sartuko jatanik.*
- *Ez da kuarteroia gero! Generrik inoiz erre dozu?*
- *Erre nik, jenero guztiak, harrapatuz gero.*

- Ez, ez! Gener. Generra. Oraintxe agertu den marka barri bat. Gordinik be a zelako usaina daukan.
- Hobe izango joat zurrutetik hastea. Penagarria litzatekek, tabakorriagaz itota, ardaotxo hori edan barik gelditzea.
- Edontzirik ez dago, baina zu botilatik be majo moldatzen zara.
- Egingo ez nok, ba, zantar mater de genibus! Nire kasuan, sen innatoa izan behar jok, ze, bularra hiru hilabetegaz galdurik, biberoina aldatu nindueenean, biberoina iruntsi eta botilatik edaten ei najoan, txurku-txurku, ahuntz-esnea zelako edo. Sehaskatik kabroi.
- Bularra hiru hilabetegaz ‘galdu’ esan dozu?
- Ama galdu. Non ete jagok bera! Dozena erdi ume zurtz utzita.
- Aitarentzat ez zen panorama gozoa geldituko.
- Hobe bera joan izan balitz, kankailu kirtena, baina gure natura jakintsuari gauzak erarik okerrenean egitea gustatzen jakok, ahalguztiduna dela erakusteko.
- Jesarrita ipiniko zaitut. Horrela ezin dozu edan.
- Jesarri? Hmm! Ai! Ez! (Eztul egin nahi eta ezin). Jasoidak burua apur bat, ira-moltzo bategaz. Ai, ai! Larregi ez!
- Eutsiko deutzazu zeuk botilari?
- Botilari eusteko gauza ez banok, apurtuidak buruan, eta finis putissima!
- Barriri hiltzailatzat hartu naieen?
- Azkenetan dagoena akabatzea krimena bada, zer ete dok bakean dagoena biztea?
- Gozo dago?
- Hjjjj! (Eztul-gurak). Ez jok sartu gura. Hjjjrrr! Kabenla Rusia! Erre be bai? Sufrea bota deutsak ala?
- Petrolio apur bat, biguntzeko. Astiro-astiro. Utzi berari bidea egiten. Apur bat kostata sartu arren, efektua bardin egingo deutsu.
- Horrexen ustean najabilk. Osterantzean, hiltzeko honenbeste torturatzerik ez joan merezi.
- Badoa, badoa! Majo sartzen da.
- Bajoak, bai. Mrrrrnn! Hauxe izango dok bidelari guztietan inutilena ikasia ahazten.
- Astirotxoago edaten badozu, gustu handiagoa utziko deutsu.
- Hmmrrr! Azkenean lortu egin behar joat miraria, txakur bizi eta gizon hil. Bibala Potrusia!
- Txakur-bizitza apur bat zeuk aukeratua ez da izan? Hemen harrikada, han ogi-koskorra, baina beti alderrai.
- Hi be horretan? Batzuetan, ogia harria baino mingarriago dok.
- Beti harritu naz, ez hainbeste nora-joanik bako batek zelan izan zeikeen horren jite bohemioa – fenomeno hori badakigu zelan den–, baizik zelan barriri hartzen zinduezen zeuk hainbeste bider alde eginiko etxeetan, gure osabarenean, esaterako.
- Egon nazen lekuetan, jan baino lan gehiago egin dodan seinale dok hori, etxea dultzinaz alaitzen baino ez bazen be. Gertatzen dena, konfiantza hartzen uzten badeutsek, gehiago eragiteko izaten dela. Hori seminarioan be pasatuko jatxue. Zintzoa bahaz, zintzoago izan behar. Jainkoa infinitua denez gero, emoiok hari behar dauen edo merezi dauen guztia.
- Halan be, zure kasua arraroegia da. Errukiagaitik izatea, barriz, txokatzen jat.
- Izan leitekek beste arrazoi inkonfesable bat. Azken konfesinoan legez gagozenez gero, esan egingo deuat igual.
- Badakizu sekretuak gordetzeko karreran nabilela.
- Ni neugaitik, hor konpon sekretuak, baina badakik. Jentea bildurpean bizi dok.
- Bildurpe politikoan?
- Etxetik be jakingo dok apur bat.
- Zure izatea ez dakit zelan kokatu hor.
- Ni egon nazen etxeak badakik zelakoak diren, gitxi gorabehera. Etxe galtzaileak.
- Herriko gehienak, orduan.

- Hori gero ikusiko dok, inoiz ikusterik bada. Orain jentea isilik jagok, kasu argi batzuk izan ezik.
- Zuk zer aportatzen zenduen etxe ‘galtzaile’ horreetan?
- Euren historia tristea kantuz entzuteko kontsolapena, sukalde, korta edo baso bazterreko isilpe urduriak hunkigarriago egina.
- Koplak? Bertsoak?
- Denerik apur bat.
- Horreexek entzutearren, beste botilatxo bat zuzenduko neuke nonondik.
- Berau amaitzea be kostatzen behar jatak.
- Noiz kantatzen zenduzen? Zelan? Txarri-afarietan? Gabonetan?
- Bilkuretan, pentsatu be ez. Ezta familian be. Umeen aurrean, gitxiago. Inoiz senar-emazteei batera, baso urrunean, iratan edo joanda. Gehienez, bakarrari eta sekretasun totalean. Ugazabak esango jeustan: “Atsedean apur bat hartu bitartean, horreexek koplak entzungo neukezak barrero”. Neure herrenagaz nekez iristeko bazter apartaturen bateko zereginera laguntzeko eskatzen baeustan, banajakian zertarako izango zen. Emakume eskatzaileak, bildurriago edo arduratsua, gitxiago zozen, baina ugazabandrea batena ez jatak ahaztuko. Desiatzen egoten zozan, etxean biok bakarrik geratu geintzen, ia edonork txarto pentsatzeko moduan. Sukaldera deitua izanik, mahaiaren basokada ardaoa eta gailetak aurkitzen nituenen, eskea jakina zozan: “Horreexek bertsoakoz pozik entzungo neukezak, ba”. Pentsa zelako psikosia egongo zen, txakurra edo katua sukaldera sartzea gertatzen bazen, isiltzeko agintzen jeustan.
- Entzule bakarrik kantatzeak arraro samarra izan behar dau.
- Txundigarria esan gurako heuen. Ikusi egin behar zozan zelan entzuten eben.
- Zelan?
- Batzuek, immobilismo burumakurrean, historia guztia barneki bisionatzen ari bailiren. Beste batzuek, aurpegi eta gorputz guztiko keinu mota guztiekin, baiezka, ezezka, tarteka, txarriok! endakatuok! eta antzekoak esklamatu.
- Eta zu tragoak eta sariak eskuratu.
- Iso, putiso! Ez egunero, eh! Jenteak bajakik gauza benetan garrantzitsuak bakanki entzuteko direna.
- Ni behin entzunda konformatuko nintzateke.
- Seminarioko gose-puntuaren zolitik, kapaz haz hi behin entzun eta buruz ikasteko.
- Saiatuko nintzateke.
- Puta seminarru! Hori ez jatak komeni. Behar joat neure motibo eksklusibo bat, berragertu naiten desiatzen egon daitezzen.
- Ez dinozu, ba, borda honetatik urteteko itxaropenik ez daukazula?
- Puta seminali! Arrazoi apur bat emon beharra deuat.
- Nik, arrazoa barik, kantak gura dodaz.
- Zeintzuk?
- Zeuk jakingo dozu. Lehenen gogora jatortzuzenak.
- Beste tragotxo bat lehenengo. Oraintxe ez dok askorik geratzen hemen. Hmrrrr! Jrrrrss! Eztarri zikin hau! Ea!

Gerraz eta gerra ostez
bete gaitue hilotzez
gerran armaz, orain gosez.

Denak pozik etxerako
bizirik datozelako.
Nork ito ez da faltako!

Ez daukat garirik, jauna

emonazo nahi jakuna.
“Erosi falta dozuna!”.

Zer erosi neike inon
ez badot hurrei zer emon?
“Eskatu zorrean. Hor konpon!”.

Aita preso, gosez haurrak
zelan mendia edurrak
estaldu gaitu bildurrak.

Abadeak dino orroz:
“Makurtu buruok behingoz!
Jaunaren nahipean gagoz”.

- *Sorta hau hortxe amaitzen dok.*
- *Ño! Ez dagoz txarto.*
- *Norbere suntsiduraren kondairak oso baldarra izan behar jok, erdiragarri ez gertatzeko. Berbak makalak izan arren, entzuleak gertaerak berbizitzen jozak, eta horreek beti dozak bortitzak.*
- *Behin edo behin, kondaira hori ez gustatzeko moduko etxeren batean be gertatu izango zinen. Inoiz entzun izan deusut abadeen morroi be ibilia zarela, eliz basoak garbitzen eta.*
- *Zergaitik egin nintzela uste dok honen biraoti? Txorimalorik hurreratu ez zekidan. Behin parrokoak kargu hartu jeustaan: “Julian, Julian! Aho zikin hori erreko ahal jak inpernuan! – Berorrek ur bedeinkatu truke batzen dituen oilaskoak legez?”. Gehiago ez zoan nire ingurura arrimatu, astoa amildegira baino areago.*
- *Hor be denak ez dira bardinak izango.*
- *Ez dozak izango, baina ahalegintzen dozak izaten. Abadeak altaran jagozak ondoen, santuei begira eta kristauei atzea emonez.*
- *Hori laster aldatuko dela dirudi.*
- *Akabo orduan! Emakumeak korupera eta gizonak aurrera pasatzen ez badira, laster desbandatuko dok enda hori.*
- *Bestelako etxeetan be egon izan zara morroi.*
- *Nire makilak eta dultzinak ez jabek ate motarik bereizten, zabalik ala itxita dagoen baino. Txarrielen etxean be egonda najagok.*
- *Han ezingo zenduen horrelako koplarik kantatu.*
- *Beste batzuk. Dibertsinozkoak eta hor konpon-goak.*
- *Esaterako?*
- *Esaterako, katuenak:*

Gure etxean lau katu
beste bat agertu jaku
denen arte ezin dabe
sagutxo bat harrapatu.

Gure etxean lau katu
beste bat agertu jaku
denen arte ezin dabe
txoritxo bat harrapatu.

Ilun hezea harpean

elorri baltza atean
sagua gordeta dago
Matxalenen gonapean.

Ilun hezea harpean
aran gorria atean
txoria gordeta dago
Martzialen prakapean.

Katuok! Baina zer da hau
hor miau eta han marrau?
Egin lo ze sagutxoak
gosetzean urtengo dau

Katuok! Baina zer da hau
hor miau eta han marrau?
Egin lo ze txoritxoak
handitzean urtengo dau.

- *Barrabana! Arrosarioaren gainerako, misterio-sorta freskoa horixe.*
- *Txarrielen amaginarrebari ia egunero kantatu behar izaten neutsaazen.*
- *Txarriek berak ez eutsun ezer eskatzen?*
- *Harentzat beste batzuk neukaazen.*
- *Esaterako?*
- *Pobre biziosoarenak:*

Pobreak sine gupida
izorratu behar dira
mendekaturik egon daitezen
aberastuko balira.

Egunero zigor bera
ahal bada jasoz doblera
ausartzearren ezin dabena
hain setaz itxarotera.

Pobreen soka dingiliz
aberatsok begi liliz.
Halan begitzen deuskue gero
hain gorrotoz, hain inbidiz.

Jarraitu, pobreok, gogoz
aberasteko sen oroz
dena kimera elei izan ze
aberatsak hemen gagoz.

- *Eta denak pozik.*
- *Jakina!*
- *Eta zu denei poz emoten. Hori apur bat faltsukeria ez al da?*
- *Zer egin behar najoan? Elbarrien iraultza deklaratu?*

- Zeozer egin zenduen, etxeko morroi izatetik haren burlagai bihurtzeko.
- Puta diola, txarri kabrola! Hor jagok, ba, untzea! Faltsua izan banintz, honezkero, Txarrielen maiordomo nintzoan, baina... hmm.
- Hmm, zer?
- Alde egin najoan. Bialdua izan banintz, bere jauntxokeriaren anekdota sinpatiko bat izango nintzoan. Baina Dultzin Herrenek ezer esan barik alde egitea haren urguiluarentzat banderillada mingarriegia izan zoan.
- Zeu be kalamitatea izan! Bada jenioa gero ondo dagoen lekuan ezin egotea.
- Puta koskoila! Hori baino aluagoa izan zoan kontua. Harek susmoa jaukaan nik zenbait etxetan beste historia mota batzuk kantatzen ete nituen.
- Baten bati mihina luzatu izango jakon.
- Edo ez. Horreek txarrena suposatetik abiatzen dozak, ezer balego, agertzen deskuidatu daiten, guzurra bada be. Metodo eliztarra. Lehenengo, pekataritza unibertsala deklaratu, eta gero bakotzak topa daiela bere pekatua.

- Amari txokolatea ostu?
- Ez, jauna. Gurean ez dago txokolaterik.
- Baina, balego, gustatuko litxakik, eztok?
- Jakina!
- Intentzinoa argi jagok, orduan.
- Baina, jauna! Nik ez dot esan, balego, ostuko neukeenik.
- Horixe sinistuko deuat! Amak txokolatea eskueran utzi, eta hi, behin edo behin, ataltxoren bat kentzen deskuidatu ez?
- Igual, bai.
- Orduan, hobe dok segurura jotzea. Pekatua ez dok duda-mudan uztekoa. Badagoela pentsatu, parkatu, eta trankil gelditu.

- Hain ridikulua be ez da izango.
- Ridikulua ez dok ezer. Alua dok txarra. Txarrielek, nire bitartez, herriko azpi-bilbe guztiaz jabetu gura joan. “Txo! –pentsatu najoan–. Txibatoak garbitzen hasi direnean, Dultzin Herren horretan?”. Ezetzik be ez neutsaan esaten, baina, goiz batez, non da Dultzin Herren?, eta Dultzin Herreneen lorratzik ez. Arabako herritxo batean, urte mordoa egin najoan, lantzean etxe bat alaituz.
- Eta itzuli zinenean, kontu zaharrak gogoan?
- Bai, putalajaina! Lehenengo egunetik hasi jataan eztenka, “hemen gure zorri biztua!”, eta halan.
- Izan be bai zu apur bat potrozorria, bistatik ezkutatzeta zeunkana!
- Ezkutatu? Sandiomandio! Nik hanka herrenaren gainean burua altuago jaukaat gero, sanoaren gainean baino! Azkenean, zer? Bera nire aurretik. Alu guztiak akabatzerik ez dok egongo, baina batzuk deskuidatzen dozak.
- Egizu tragotxo bat, ito behar dozu eta.
- Hemen ez jagok ezer.
- Orduan, etzun zaitez. Hortxe. Holantxe.

Bordatik irtenez batera, kirats-bafada epel-epelak jo nau. Grrmm! Uuuuu! Esteak berton bota behar ete joazat? Erdi makur, haizeari muturra ezkutatu guran, alferrik, bolbora-lorratzaren garra bezain bizkor abiatu naiz aldasgoran, Oizko gailur inpasibleen bila. Gizona non dagoen esanda utzi dut, eta jasoko ahal dute ni gabe, bizirik edo hilik.

.....

Gauez, intxaurrek eztiagaz, gazta menbrilloagaz eta ardoa neurri pertsonalagaz afaldu ondoren, atartearen oinetatik hedatzen zaidan haran kolosalean ez dut ezeren faltarik hartzen, umetan ikusten nituen argiño mehatzak eta oraintsuko ugariago eta ibiltunagoak bestela ere xehetasun baztergarrizat bizi baintuen, Urkiolan behera jaisten zirenak izan ezik, orduan motel eta astiro, azken aldian bizi eta oldarti. *Nondik etor leitezak horreek?*, harritzen nintzen orduan, orain baino angelu zeharrago eta urrunagotik, ostean zegoen munduan, Otxandio ei zeritzon hartan (Otsandio edo ‘otsoez handik’, pentsa non!), ez baitzitekeen hainbeste jende sobratu. Harantz zihoazanak ez nituen ikusten, nonbait, eta nire kalkulua artean ez zen deduzitzera iritsia izango argi batek ez zeukala objektua osorik ezaugarritu beharrik, ilargiaren alderantziz, zeinak, galduz zihoan zatia hurrengoan berrartzeko sorginkeriaz gainera, etortzea nahiz joatea argi beragaz egiten zuen. Orain ez dator argirik Urkiolan behera, gauaren betidanikoaz besterik, baina Urkiola hantxe dago, Oiztik begiraturik, Anbotoren eskuin aldean, bere pagadi barreneko iturri eta guzti, zeinari zazpi itzuli jarraian emateko bitarterik ezaren minez geratu nintzen, herriko bi abadegaiok beragaz eroan gintuen abadeak zertan nenbilen igar zezan beldurrez. Zazpi itzuli, eta neska-laguna. Edo mutil-laguna. Nik, neure hamasei urte egarbera haietan, lehenengoa behar nuen, zeinaren ezinak irudimena, ezen ez desioa, berdin asetzen zuen, bekatu kezkarik gabe, jada iritsia bainintzen pentsaketaren gordetasun inpenetrablearen aurkikuntzara, ez hainbeste argitasun berezkoz, beharrian estremoak eraginda baizik.

Ibilira nintzen larri, burutik ezin jaurtiz pentsakizun txarrak zirelakoak, zenbat eta gehiagotan konfesatu, gupidagabeago akosatzen nindutenak. Ezin nuen ez-pentsatu, ezin bainuen itzarrik egon, zer edo zer pentsatu gabe. Zer edo zer horiek nik deitu gabe etortzen ziren, eta nik agindu gabe, eurenez joaten ez baziren, txakur amorratuek bezala erasotzen zidaten.

– *Baina, Jauna! –hots negion Jainkoari–. Zeuk egin ninduzun pentsatzaile. Zeuk emon zeunstan irudimena. Zer egin behar dot, neure izatea ezereztu ez daidan?*

Jainkoak isilik zerraien, bere izateari zegokion moduan, eta pentsatzen hasi nintzen:

– *Nire pentsakizunen barri dakien bakarrak barbarik egin gura ez badau, nor bestek jakin behar jok ezer?*

Ez dakit gogoeta horrek ireki zuen ateka, ala beste honakoak:

– *Nire pentsakizunen jakile bakarra den Jainkoa berbetan hasteko bestean hasarratzen ez bada, nori min egiten deusatz?*

Nik uste dut bi gogoeta horiek batera etorri zirela, aurkia eta iruntzia bezala, ondorioa berehala ikusaraziz:

– *Inori minik egin ez, inork ezer jakin ezin, zertan najabilk neure burua apurtzen?*

Ebidentzia hura nire adimenaren aurkikuntzarik handiena izan zen (ebidentzia ere aurkitu egin behar!), geroztik beste ezeinek gaudituko ez zuena, larritasun zoratzekotik libratzeaz gainera, gozabide agortezina ekarri baitzuen, batez ere oporretan, behien atzetik edo beste bakarraldi luzeetan, abentura mota guztiak kateatzen nituenean, amodiozkoak barne. Oso era programatuan, erritualean jokaten nuen. Behiak behar zen lekura gidatu eta halako iturri edo errekatan eradan ondoren, askaldu egingo genuen, txakurrak eta biok, gehienez txokolatea eta ogia. Gero, biok lurrean edo iratzan iraulkatuko ginen. Gero, iturriko edo erreka uragaz, manei klase guztiak probatuko genituen, uretan zebiltzan apaburu, zapatari, karramarro, eskailuen sen guztiak

esperimentatuz, haienak eta geureak. Gero, artean auskalo non izango ziren behi geldiezeinei jarraituko genien, zuhaitz eta pinu, batean puntara, bestean adarrera, orekaren ertzak tentatuz, inoiz estura galantekin. Gero, inbentuen ordua zetorren: bizikletak, trenak, hegazkinak, denak baliabide naturalez. Gastu handirik gabe, noski. Ingenio hutsez. Gero, txakurra bere zoru-usnan utzirik, ni, ez erreperiderik ez ezelako azpiegiturarik ez zegoen inguruan, aske hegatu nintzen pinu-punten txintxaunean, metronomo erraldoian, beti ere arrisku hilgarrietan aireratu gabe. Behar izanez gero, ziur nintzen horixe ere, aireratze purua (hegatzea, garbi esanda) lortzeko modua asma nezakeela, baina zertarako, hain zuhaitz menkorrak eta exzitanteak aukeran edukirik? Gero, azkenik, azkenik baina luzeki, aurreko guztia bere preludiotzat har zitekeena zetorkeen: amaigabeko maite-abenturaren irudikapena, arrakasta osokoa beti, ez aukeran karnala, bai intentsoki bisuala, karnalaren amai bizkorren dezepzioa aurreikusirik bezala.

Neska bat edo batzuk, beti berdintsuak eta segida berdinean txandaturaz (kontu hurbiletarako, bakarra; apoteosirako, taldea; batetik bestera pentsamen orosaltariaren pentzudan), horizontean agertuko ziren eta, ibiliz, solastuz, beharbada, eskutik heldurik, iturrian eseriko ginen, eurek zekarten askari gozoa janez. Maite-abenturetan ere, jateko beti prest, bigarren askaria zein hirugarrena. Zuhaitzetan exhibizioak egingo nizkien, ikaratuko ziren, miretsiko ninduten, azken inbentzioa erakutsiko nien (*zelako gauzak asmatzen doazen hik!*), iluntzen hasiko zuen, eta etxera lagunduko nien, *hemen ez al dok bildurrik izaten?* harriduraz itauntzeko moduko estarta zaharretan behera. Bitartean, behiak galduak ez baziren. Orduan, amaituak ziren inbentzioak, eta beste odisea mota larriago bat hasiko zen, gaua gainean bazen, batez ere, baina horiek beste kontu batzuk dira. Neska haiek hurrengo igandean ikusiko nituen, goizeko zortzietako mezan, haragizko eta hur-hur, jaunartzera zetozenean. Bai deskuido inebitablea, patena okozpean okertzen zena, eginbehar debototiko distrakzio xarmantegiak eragina! Abadeak urruma egin arte:

– *Zeri begira hago? Corpus Christi. Ezin dok patena zuzen eduki?*

Zeri begira egongo nintzen, ba, artean ez baitzegoen, meza herriari atzea emanik zela, eta jarrerarik debotoenaren biltasuna gorde behar zela, nahi zenari nahi bezain luzaro begiratzeko zorterik, jaunartzeko une inoiz dohatsuki luze huraxe besterik? Edo diru batzen, txintxilin-txintxilin, eliza guztia pasatzen genuena. Edo hamarretako meza nagusian, korutik kantari eta jarrera deboto berdinean, elizakada guztia obserbatzeko pribilegioa genuena. Azkenean, lege zaharrea ere, aukera mordoa, desioa trebea baita urritasuna emankortzen.

Jaunaren handitasuna ohoratu gabe ez nintzen geldituko, haren edertasunak begiekin jan gabe, zenbat eta atsegintsuago, hainbat edergarriago Egilearentzat. Pentsamena detektaezina zen, begiradaren intentzioa ere bai; halaber, sarritan (eta zorionez!), begirada bera ere, Urkiolan ezin izan nuen araua aplikatu baina. Iturriari zazpi itzuliak bakartasun kontzentratuan ematea maite nuen, jendarte ezezagunean ezabaturik ere berdin zela. Horrelaxe nahiago, beharbada, asoziazio mentalak errazten zituzten neskak ere tartean izan baitzitezkeen, nire errituaren benetako intentziorik inork susmatzeko arrisku gabe. Urkiolara eroan gintuen herriko abadeari, ostera, txantxetan ere ez nintzen ausartu *egingo al dogu zazpi itzulien imintzio bat?* proposatzen, nire aldetik guztiz igartezina izango zela ziur nengoen intentzioa hark bere baitako analogiatik susma zezan beldurrez, intentzioa zenbat eta ezkutuago izan, hainbat probableago baita golko ezberdinetan aloiatzea.

Urkiolan burutu gabeko magiaren efektua bueltan gertatuko zen herrian, Zornotzako Kojoarenean askaltzera gonbidatuak izan ginenean. Denek halako adeiz eta prestasunez atenditzen zuten apaizaren ondoan, geu ere (nik hamasei urte) nork konkistatu zuen ez genekien erreinuko printze sentitzen ginen.

- *Zuek be abade egingo zarie?*
- *Ez dakit, ba, oraindino asko falta da eta.*
- *Ez deutso ardura. Denpora igarri barik joaten da.*

Horixe sinesten ez zeukan erraz seminarioko hila eternitate eta urtea betiraun egiten zitzaionak; eta opor-denbora hain azkar, baina ez igarri gabe joaten zitzaionak. Hala ere, jantoki galantean, mantel eta guzti, abadea eta bi abadegaiok eseri ginenean, geu hirurok bakarrik (ordu hartan eta astegun buruzurian nor egongo zen, ba, geure moduko martzianoren batzuk besterik?), ezin izan nintzen kontzentratu neure jaiotetxe apartatua berriz ere zirraratuki eskertzen, halako gozamenerako (askarirako) preparatu ninduelako, nire adintsuko neska bat, dena sinpatia zeriola, platerak ipintzen ari baitzen, abadeagaz solasik irribarretsuenan.

- *Zelan?–apaizak.*
- *Hementxe, behar apur bat eginez. Berori zelan?*
- *Ondo, Jainkoari eskerrak.*
- *Honeek Etxanoko abadegai biak izango dira, ezta?*
- *Bai. Hau Altzibarkoa eta hau Torreburukoa.*
- *Torreburukoa? Ah, bai!*

Elkar ondo ezagutzen zutela zirudien. Neska hark nire golkoa aurretik ere zaplaka ipinia zuen, bixigua lehorrean bezala, *gose handia ekarri al dozue?* esanda joatean, abadeak, *zu, Maribel!* eta ez dakit zer gehiago esan zionean. Izen horixe zen nire aztoramenak falta zuena. *Eta bestea?*, pentsatu nuen larri. Bestea ‘neure andrea’ zen, hamar urte nituela, eskolan egin genuen ezkontza hartatik hil batzuetara komenturatu nintzenetik, gehiago ikusi ez nuena. Ez bera, ez Maribel hau, nire lagun mutilaren ezkontidea, bikote parearen zeremonia izan baitzen. Neskak, gure auzo Epaltzekoak zirela uste nuenak, hurrengo urteko uda-oporretan itzuli nintzenerako, herritik desagertuak ziren biak. Dezepzio itzelaren baitatik, bakarrik ausartu nintzen egiaztatzen umetan amamarenean eduki zituztela, gerraosteko estuasunak bide. Nigatik, Maribel ezagutzeke pasatuko zen, baina, izena entzunaz batera, berbera zen, argal luzanga, azal zuriska, ile bel-beltza, zolia eta ezin atseginagoa. Honen lagun Gotzone askoz isilagoa, masalagoa zen, nigaz ezkontzeko atrebentzia izan bazuen ere. Laurona ere atrebentzia handiegia izan zen, noski, inozentziak bakarrik salba zezakeena, ezen ez inkontzientziak, konplikaziorik zailenak gainditzeko gai izan baikin, sekreturik zorrotzenez, nire aldetik, behintzat.

Urri-urte haietan, askari gozo batek xoratzen ninduen guztiagaz, non eta Kojoarenean, zer jaten nuen ere ez nintzen ohartzen. Are gutxiago mahaikideekin zer solas neraman, neure kautan errepikatuz, dardaratuz, irrikatuz: *Non ete jabilk ha... Gotzone?* Orduan, gure buruan ez zen posible ‘nire Gotzone’ bezalako pretentsiorik, gerora ere, ohituraren setioz ere, txotxolo samarra iruditzerik gainditu ezin dudana bera. *Gehiago ikusterik ez ete jatak subertatuko? Bistatik pasatzeko moduko lekuan bizi ete dok? Beronen moduan zerbitzatzen ete jabilk nonon, Zornotzan berton, beharbada?* Hori guztia osterako bakoitzean berba jareginean zetorren zerbitzariari galdetuz jakin nezakeen, nire pentsakizunak masailetan koloratzeko beldur izan ez banintz. *Honek gogoan ete jaukak ha?* Pentsakizunak bururaino zirraratzen ninduen, zerbitzari gaztea mahaira agertzen zenean, maiz, gainera, horrek amesberatzen ninduelarik abadeagatik bainoago neugatik ez ote zetorren, *ala beste abadegaiagaitik?*, hori ere zitekeena, alua! Zer guztiokin eta gehiagogaz, pentsakizun dominantea hainbat garapen ezkutuz bilbatzen nuen, inkognita zentral honen inguruan: *Nire andretxoak gogoan ete jaukak ordukoa?* Hori argitzeko aukerak beste zazpi urtean itxaron beharko zuen, antzeko jantoki eta askari batean, ‘bera’ agertuko zitzaidan arte, sotana betiko jantzi eta botoak zin egin behar nituen bezperan, hain zuzen, gorago kontatua dudan moduan. Destino itsua batzuetan begi bihurtzen da. Niretzat beti, esango nuke, itsua deneko ahalmenek ez bainaute ezertarako hunkitzen,

agian izorratuko naute baina. Agerpen haren inguruko pentsakizun astingarriak gordean gelditu ziren, eta behin honezkero, jarrai bezate euren gordetasunean, gogoaren ugalketa delikatuak ondoen kontserbatzen diren medioan.

Ezin dut beherantz arriskatu, gero jaiotetxeraino jarraitzeak tenta nazan, bai baitakit behinolako etxe-mina orain tentazio soilera bigundua izanaz baliatuko dela, diferentziaren indarrez tentazioan jausarazteko. Harana kirats-mael dakust, gai gaseoso-likidoen nahastetik solidorantz hurbilduz, kolore arre-berdeskaz, itsaso hilaren dentsitatean. Bertan murgiltzea deskonposizioa izan liteke, ez bat-batekoa, segurrenik, baizik, lehenik zorabiatu, gero astiro-astiro, ohartuki momifikatzen joatekoa; ehorzleak hainbestegarren urtean osorik aurkitzen duen gorpua bezala, hil aurreko botikek elikaturiko organismoa harrei interesatu ez zaielako. Pentsatzerik ere ez zait komeni, garunak ez daitezen usaimenetik elaboratzen duten sentsazioa direktoki produzitzen has. Orduantxe bai ez legokeela erremediorik. Oiz lerroaren bizkarrera igo naiz. Itsasoaren ikuspegi beti ezberdinki zirrarratsuari begiraldi lasaigarria eskaini ondoren, lerroaren muturrean, hantxe dagoela ez baneki, nekez igarriko nukeen jaiotetxearen gainetik, Bizkargi aurkitu dut: neure sor-mendia. Neure mendi erreberentziala.

Nire inozentaroa Bizkargira begira igaro zen. Mendi apala, bi esanahietan: bostehun metro pasatxo, izaera ere araberako. Gain kurbo leuna, erpinik gura ez balu bezalakoa, baseliza pinutzan ezkutatua, eta soilune zein pinadietan, ota eta ginarrea nagusi. *Bizkargiko mendiko ginerra-lorie, babiek berak baino / indderra hobie*. Kopla honen itxura poetikoaren azpian, esangura arruntagoa ezkutatzen zen (horrexegatik da poetikoa), morgarrak eta muxikarrak idiak isilean probatzera joan ohi zirenekoa. Sastraka bati kateak lotu eta tira, aida ozenegirik gabe, lur eta guzti atera arte; harik eta, geroz erresistentzia gogorragekin, Bizkargiko bide bazterrak askaturik utzi arte, basurde megalitiko bat pasatu bailitzan. Ginarre-lorea berdin izan zitekeen lekuko xotil, zein baba urriegiaren lagungarri, zein, segurrenik, ordezko huts. Bertaraino joan ezik, begizatzerik ez zegoen Bizkargik, ginarre-lore tristaberaz apainduak, ez zeukan Anbotoren, Mugarraren, Gorbeia sistemaren, edo itsasoranzko haitz inponenteen, denak karburozkoak (argigai preziatua berau) zirela erraz sinestu nuenen, harrigarritasunik. Greziako edo bibliako mendi miragarriek, jainko-jainkosen edo jainko bakarraren agertoki izan zirenek, ez zuten zail izan nire lilura gorenaz jabetzen. Mendi haietako bizilagunak ere, miserian jainko-izpiak aurkitzeko argitasuna zeukatenak, betiraun promestuaren ez ezik (hori neuk ere banuen), zorion terrenalaren jabetzat bekaizten nituen. Denen artean ere ez zuten lortu, ordea, nire golko isil, kasik apalduan, Bizkargi mendiaren lehentasun afektiboa desplazatzerik. Banekien kontraposizio sakrilegoa izan zitekeela, inpietateango setagatik kondena nintzaketela, baina ezin nuen ekidin nire mendiak hantxe irauterik, sagar erreak surtauspian bezala, epel, ontzen, harik eta, beste haiekiko sinesteak hustean, gailur mitikoak arrunt, erreazioz ia depresibo bihurturik, nire mendiak bere dimentsio naturalak gainditu zituen arte. Azken batez, Bizkargi hura, bertan Jainkoa, Adan eta Eba euskaragaz edertu zituena, berdin agertu ohi zena, neure sorburu izan nuen. Egintza horri, inor liluratzeko, zer kolektiboaren epika falta zitzaiola jakiteak are gehiago atxikitzen ninduen kontzientzia inbiolableki bakarraren gozamenera. Bizkargi neure Paris bisiblea zen. Beste haur guztiek Paristik etortzen zerraitela, ni Bizkargiko erromeriatik ekarri ninduen soinu batek, osabaren besoetan, ijitoen karropetik.

Gure aitaren asmazio sinesgarri horrek asko lasaitzen ninduen, pentsatzeak ere dardara ematen baitzidan, Paristik zikoinaren mokoan etortzeko kasuan, bidean jaustea zer izango zatekeen. Soinuaren barruan, ito samar eta uluka, baina kanporantz, behintzat, alai etorriko nintzen. Osabak, nire negarrak estaltzeko (batez ere, labana luzatuz, haurtxo galduaren bila ziharduten ijitoen hurrean), ez zion jotzeari utzi, soinua amaren sukaldeko mahai gainean pausatu arte. Alaitasunaren simulazioa jatorrizko grina bat izatea abantaila handia izango nuen gero, ez munduak dohain horretaz jabetzea oso zail ipiniko zuelako, baizik, horrela, alaitasuna egiazkoa izan zedin

probabilitate handiagoa zegoelako. Bizkargira lehenbailehen joan nahi nuen, neure jatorriaren operazio-zelaia berbertatik ikusteko. *Apur bat handiagotu haitenean* –atzeratzen ninduen aitak–. *Oraindino txikitxo haz,* *Bizkargiraino joateko.* Noizbait esan zuen arte: *Aurten eroango haut, ba!* Urte hartako maiatzaren hiruan, harrigarria, mundua elur agertu zen. Bizkargira joan ezinik geratu nintzen berriro. Noizbait iritsi zen hurrengo urtea ere, non Santikurtz egunean, neure bizi guztiko bidaiarik desiatuenean, Bizkargira joango nintzen, aitaren praketatik urrundu gabe, Etxanoko litaniaren barruan. Urteetan argitu ezinik egona nintzen zenbat urtegaz izango ote zen, harik eta, oso oraintsu, etxanotar ahaide batek behin betiko ebatzi zidan arte: *Edurte ospetsu ha 1947an izan zen.* 1948an joan nintzen, beraz, Bizkargira, zazpi urte egin nituen goizean.

Eguna osteraka eman nuen zelaitik baseliza osteko zangetara, non pare bat ijito-karro zeuden orduan ere, ijito haurrak azpitik eta bitarteetatik ziztuan irteten zirela, txinpartak bezala, nire begien txundimenerako. Handik berrogei urtera, gure aitagarrebak, nireaz beste ikusmin bategaz, noski (handiagoa zaila, txikiagoa ere ez erraza), begiz jango zituen gerra-zanga haiek, emoziozko infarto zorian esan zuenean: *Hementxe ikusi neban gizona goitik behera arin-arina, bururik barik!* Hain ikuspen picassotarra ez genukeen erraz ulertuko, azaldu ez baligu: *Bizkargin erresistentzia gogorra izan zen. Goitik bonbaketan hasten zirenean, Larrabetzu aldeko troka horretarantz ezkututzen ginen, eta gero barrero gora. Halako arrapalada batean, metrailak burua moztu eutsan, antza, eta zeroian abiadagaz, aldi batean martxan jarraitu eban, tente. Nik buru barik ikusi neban, behintzat.* Beste halakoxe zanga batean dihardugu, aitzurketa sutsuan. *Hemendik ez dozak pasatuko! Ez dozak pasatuko!! Ez dozak pasatuko!!!* Batailoi-buruak abertitu digu: *Goitik pasatu dira.* Bazen motiboa, trokara buru gabe oldar gintezan, baina gu amorratuago geure lanean. *Goitik pasatuko dozak, baina azpitik ez!* Horrela zaila da gerrarik galtzea.

Eguna soinu barruan baino pozago emanik, soinurik irekiena baino harroago itzuli nintzen Bizkargitik, pariskumeak izateko arrunkeria tristea izan zuten beste guztien errukiz. Nire buruan ez zen planteatu ijitoek Bizkargira nondik ekarri ninduten, esplikazio bat asegarri denean, erantzunik ez izatea balitekeen haragoko galderarik ez egiteko senari jarraituz. Zalantza abiatu zeneko, banekien umeak nondik eta nola zetozen, joan-etorriko trenean. Metafora dorpe samar hori jaulkitzen ausartu naiz, haurgintza urrituz zihoalako haserrean, honako mehatxua jaurti zuen sermoilariaren omenez: *Hemen, gizakiaren sorrerako jainko-agindu ugaltzailearen aurka, joan hutseko trena ugaritu da aspaldion. Etorrikorik ez izatekotan, trenbidea kendu egin beharko da.*

Oiztik Bizkargira, erdiko jaiotetxetik igaroz, zortzi bat orduan, joan-etorri osoa egin nezake, neure mundualdiko bizi-bizkarraren gainean. *Bihar goizean, horixe egin behar joagu, Ernai.* Esanez batera konturatu naiz ezin dugula asmoa bete, kiratsaren erreinura jaitsi gabe. *Gainera, ez al gajagozak berbaturik oraingo etxe honetatik hobe dogula ez lar urrundu, arrisku inprebisibleren batek buelta barik utzi ez gaizen?* Txakurraren buru-okerkerak ez dakit nola interpretatu, galdera ez zaiola gustatu, ala erantzuterik ez duela merezi. Lehenago, *zalantza kasuan, mugi!* esaten genuenak alderantzizkoa eskatzen dit orain, bakarrik egotean, koldarrez lotsatu beharrik ez dudalako edo. Territoriotik ezin-banatze primarioa izango da, ez baitakit nondik atera dudana, balioski gainera, orain nagoen zorua bidaldi deskartatu horretako zoru neureagoak baino seguruagoa dela. Ez dakit, baina orain ez zait komeni neure buruarekiko eztabaida endredosorik. *Ernai! Pasealditxo bat egingo al joagu, etxetik lar urrundu barik?* Hau beti martxarako prest.

Oizko Etxebarrieta honek antz itzela dauka, gure etxetik pare bat pinadiz haragoko Belarre zelaiarena. Han ez zegoen etxerik, hemen bai. Eta ni bietan nago. *Hi hementxe bakarrik, Ernai, han hire antzeko bat bajegoan baina.* Afal ostean, *freskura hartzera noa etxe albora* izaten zen nire aitzakia, gauez kanporatzeko. Freskura kontua arrazoi sinesgarria izan zitekeen, bere arraroan. *Izarrak kontenplaztera, ilargiari laguntzera,* edo, beste gabe, *gauean murgiltzera* esan banu, amak

ez zukeen ihardetsi gabe utziko: *Zoratzen hasi al haz? Aitak esplikazio zientifikoagoa emango zukeen, beti bezala: Honi sartu jeutsiek beste indezinoren bat katedralean.* Inoiz ez nion garbi igarri seminarioa eta katedrala ezjakinean ala apropos erratzen zituen. Segurrenik, ni seminarioan sartu aurretik zeukan ekibokoari jarraitzea pentsatu izango zuen, herrikide ez jabetuegiengan probokatzen zuen noraezaz gustaturik. Eta, ez gutxiago, *gure mutila katedralistea dok* bezalako harrokeriaz hanpaturik. Katedrala esatean, Bilboko Santiago katedrala barik, ziur, askok legez, San Antongo eliza zeukala buruan, probintziatik azokara-eta etorritako euskaldunek, igande eguerdiko mezan, gainez bete ohi zutena, diktadura amaigabean, hiriburu guztian bakarra zen euskarazko sermoia entzutearren, ia berrehun kiloko abade deskomunal baten ahotik, zeinak, arabera orroez gainera, Gurdipide gotzain koxkor, frankista handiak ez ote zion kargurik hartzen galdetzen bazioten, erantzungo zuen:

- *Bildur dok besapean itoko ete dodan.*
- *Eta gobernadoreak?*
- *Horreek ez jagozak ehiza nagusirako preparatuta.*

Ukiezina zelako ospea hedatu zitzaion Don Klaudio Gallastegi hark (izen-abizenak ere tamainari zegozkionak) gordinkeriari ez zion muzin egingo. Txoritxoak gerrarik ez ote zion ematen tentatzen zutenei erantzungo zien: *Ez jakiat. Gerra aurretik ez joat ikusi.* Behobiako mugan, ‘minimorris’ berde haren atzeko jarlekutik irteten ikusi zutenean, gendarmeez atzeraka egin zuten, txunditurik lehenik, ikaraturik jarraian, sotanadun erraldoiak urruma egin zuenean: *Eta orain, barriri autoan sartu ezin banau, nor egingo da ni San Antonen entregatzeko erantzule? Gero Gogor* –‘gogorkeriaren aurka gogortasuna’– disko klandestinoia izango zen grabazio bat mugaz bestera pasatzeko, estalkitzat joatea onartu zigun Don Klaudio haregaz ez zegoen beste beldurrik, jeneroa, garraioa, osorik iritsiko ote zen baino. Ezta fede naturalagorik ere, katedralik izatekotan, haren eliza imaginatzea baino.

Goazen, Berde, aitaren zurrungak hasi dozak eta. Orduko txakurrak ‘Berde’ baitzuen izena. Ama banekien oraindik itzarrik egongo zena, pentsatuz: *Mutilari zer aldikadak emon ete leiok, ohera orduan, etxe albora urteteko?* Haren buruan ez zen sartzen egun lantsutiko atsedinari aurea har ziezaiokeen motiborik, ez beharren bat ez bazen. Neure gorputzak ere ez zuen, segurrenik, barkatuko, haren eguna igaro izan balu. Mendi haietako gauetan, batere probablea ez zen norbaitegaz gurutzatzea gertatzen bazen, elkar ikusten ez duten bi bultoren oin-hotsak hurreratuz entzuteko kezka ondoren, koartada berez-berez irtengo zen, ni ere hangoxe senek osatzen baininduten:

- *Behi bat ez al dozu hortik ikusi?*
- *Zarraparrarik be ez joat sumatu.*
- *Ez dakit non ostenduko zen mamala halakoa, inon ez da agiri eta.*

Pasealdi bat egiten nabil ez beste edozer. Gaua, egunaren estalaroa. Basoen isiltasun gezurrezkoa, burrunbatsua ez bada ere, azpi-azantza trinkoz osatua. Bakardadeak ilunetan hartzen duen dimentsio suprahumanoa. Urriko ilargi xuri urdin-nahia, egunsentiaren abiakera dirudiena. Bai zirrargarria, deskontzertantea, bat-batean, haren inondiko burutapen gabe, egunsentiagaz topo egitea... gauerdian! Eta gau osorako. Egun sentiera, orduen joanean berbera, norbere transformazio goranzkoaren bihozkanan izan ezik. Nietzsche horrelakoxe batean sentitu izango zen supergizon, likantropo ere berdin senti zitekeen moduan. Izarren herabetasuna. Gau izarratuak lasaitzen nau, badakidalako izarrek ez didatela erasoko. Mendien presentzia ezabatua. Horrelako edozein azalpen asaldagarri gerta zitekeen, bidazti kasualak, unean bertan ihesari emateko beldur bazen ere, hurrengo egunetan kontatuko zuelarik: *Torreburuko estudianteari ez jakiat buruan sugandilak*

egiten ari ez jakozen. Horregaz, hipotesirik bigunena arriskatzen zuen, gau ahalguztiduna premia gabe desafiatzen zuenaren izate malefikoa ez izendatzearren.

Bidaztiak arrazoi izan zezakeen, amak arrazoi zuen, aitari arrazoiak ez zion ardurara, eta nik banuen neure arrazoiak. Haiak hantxe bizi ziren. Ez zeukaten zapaltzen zuten, edo zituen, lurretik erauzi beharrik. Nik, osterara, hartantxe barnatu, huraxe irentsi behar nuen. Argiak hain ezberdin eta sarritan antagoniko sentiarazten duen mundua ilunaren uniformetasun lasaigarrian esperimintatu behar nuen, gero, urtean zeharreko lantzar grisean, oroimenaren etzaleku erreala bat izan nezan. Neure burua bakarrean gogoratuko nuen, bakarrik ibili bainintzen. Urteen joanak bakartasunaren derrigorra, jasankizun baino gehiago, zerbait bere baitan desiatu bihurtuko zuen, ia iritsi nintzelarik, harreman berri baten aurrean, etsai bat gehiagori jarkitzen ez ote nintzaion prebentziotik ezin libratzera. *Orduan, egoera ideala preso isolatuarena dok* –atera izango zukeen ziniko motz samarrak, ohartu gabe delako egoera, bakartasuna baino gehiago, konpainia zapaltzaileen ingurapena dela. Eta segurrenik, batez ere, territoriorik eza. *Guk orain sopra daukaguna, Ernai, non barrero berresten den esakera, gitxia pitxia legez, larra txarra dela.*

Izan nituen, noski, deneriko lagunarteak, ez gutxi nik eurengandik ihes gurakoak, zeintzuetan, gerora, neure burua partaide baino gehiago gogoratzen dudana obserbatzaile, epaile, nagusi, menpeko. Edo futboleko atezain, baloiaren (baloia edo!) beldurrez, perra forman luzatzen zen elizpean, multzoaren hara-honen jagole, harantz zihoanean lasaiago, honanzkoan larri. Futbola baino gehiago, txakurteria amorratu bat hezur harrapatzen zirudiena, zeina kantoi osterantz ezkutatu zelako nire poza berriro noiz agertuko zen ikarak apurtzen zuen.

– *Gooooo!* –entzungo nuen bat-batean, taldekideen ala kontrarioen ahotik ez nekiela.

– *Zeri begira egon haz, artaburu hori?*

– *Hainbeste hankaren artean, baloirik ez da ikusten.*

– *Hurrengo golean, heure buru handi hori ipiniko joagu jokoan, hobeto ikusi daiaan.*

Lagunarte desiatuak ere ez ziren falta. Neskekin soka-saltoan, eurek deitzen bazuten. Hauek, behintzat, ez zuten jotzen. Errekako bainualdiak, txangoren bat eskolatik edo dotrinatik, txorihabiatan, mahats-lapurretan, lehengusuekin garagarka iluntzeko saguzarren azpian. Erromeriak, gonbidatu-egun zoragarriak (etxeak, Amama Torreburuko, Amama Pagaiko, Lutxanako osaba-izebak, Mañariko Ikobaltzeta, Etxanoko Altxibar, Zeanuriko Lanbreabe, Igorreko Eguzkitza, Gueñesko Artxube, Durangoko Artekale, Muniketa, Mauma, Bilbo bera...), Urritxe futbol-zelaiko partiduak, txitxiburduntziak, eguen zuriak, urteberri-eskeak... Mendiko bakartasun ingurutzailan ere baziren bitarte sozialak, ez gutxi antsioski irrikatuak, baina hauetara itzuli nahi dudanean, oroimenak pozik dakartzan arren, tiratu egin behar izaten diet, kexatuko balira bezala: *Utzi gaizuz bakean, hementxe gagoz ederto eta.* Badirudi pentsamena ez dela distrakzioa erregistratzen hain zale, zeinean, antza, sozialtasun oro sartzen den. Otsok otsokirik ezaren alderantziz, pentsamenak pentsaketa jaten du, direla pentsakizun arinak, sakonak, abstraktuak nahiz sentimentalak. Pentsaketa, berriz, nirea behintzat, gehienbat bakartia da; edo bakardadea bera da pentsaketaz elikatzen dena. Batzuetan, saiatzen naiz oroimen nahaslea oroimen sortzailetik bereizten, oroimenaren inprezisia sormenaren bikaintasunean enkubritzeko pedanterian ez jaustearren. Inoiz pentsatu izan dut oroimen sortzailea oroimen nahaslea besterik ez ote den ere, zeren sormena zer da, ba, elementuak ezberdinki nahastea besterik, beharbada, nahasketa berdina errepikatze sendotasunik ez duelako? Materia bera bezala esateko harrokeriara tentaturik egon naiz, baina nik zer dakit materiaren funtsa sortze amaigabea ala errepikatze etengabea den?

Ez nau kezkatzen memoriak huts egin diezadan, hustu dakidan baizik, eta ziurtzat joko nuke, sentipenekin fidatzerik bada (zerekin fidatu behar da, bestela?), oroimenak, sarritan, bere kontura

jokatzen duela, kreaizio propioak burutuz, hots, bere baitan irla berriak inauguratuz. Horregatik, munduko irla guztiak banan-banan ezagutzeko posibilitateak ez nau gehiegi xarmatzen, bueltarako beste hainbeste irla bailirateke sortuak, nola bisita nitzakeen ez nekikeenak. Limitazio bortxatuak maiz mugagabetu didan oroimen geldiezin hori batzea eta mantsotzea komeni zait orain, bere noranahimen dohatsua insatisfakzio etengabe gerta ez dakidan, irudikatzen duen guztia zuzenean ikusteko desio sutsua dela bide. Desio hori ez da, noski, hain hertsiki ase beharrekoa, norbere ahalaren esku egonik ere, baina, oraingo nire kasuan bezala, ezintasun fisiko absolutuak helburua ukatzen badu, oroimen irrikatsuak norbera irents dezake. Lehen, munduko edozein bazter ez nuen berez ezinezko, gehienetara sekula ez nintzela iritsiko susmatu arren. Orain, iritsi nintzenak ere, oroimenari gehien tiratzen diotenak, hain zuzen, posibilitate orotatik eliminatuak dira. Munduaren jabe bakar gelditzea aski izan dut, nire mobilitatea territorio gupidagabeki minuskulura lot zedin. Horrek ez du, zorionez, hain erredukzio bortizik ekarriko, nire oroimena honen fenomeno apartaren asimilazioan gainezturik dabileno; baina joan zirenak itzul balitez, eta ohiko higaduren ondorioz zahartu behar banu, estimatuko nuke nire oroimena ere arabera ahultzea, tristea bailitzateke haietatik gehiago, eternalki, pasatu ezingo naizen lekuen oroitze antsiosak akaba nazan, Urkiola, Barazar, Sollube, Urdaibai, Arrate, Urraki, Jaizkibel, Urbasa, Orreaga, Irati... Lelokeria da tragiko jartzea, gozamenaren artifiziorako ez bada. Ez dakit poeta handia izaterik onartuko nukeen, horretarako suizidatu behar banu. Hilko naizen ere ez nago guztiz ziur, orain ez baitaukat nork kargu harturik “damurik izan ez dezazun... heriotzako orduan”. Karga itzazue lasai damukizun guztiak nire ‘heriotzako orduan’. Laburra izango da; eta inoiz ere ez, heriotza desiatu izan dugun hainbeste aldiatariko edozein bezain txarra.

– *Nori galde diezaioket?*

– *Galde denei eta baten batek erantzungo dizu.*

Hainbeste galderaren erantzunik ezaz loriatzen ziren poetak kontsultatu ondoren, iritsia nintzen ateratzera gizateriaren erremedio on bakarra antzutasun izurri bat zela, ea, biziok bakez-bakez amaiturik, hurrengo aproba naturari ezberdin irteten zitzaion, geuk ez ikusteko moduan, badaezpada. Bakez edo zaharrez, baina ez agure hura bezala. Kale kantoiko zoruan, tapotz txiki koloretsu bat irten zait bidera, sigi-saga jostarian. Horma kontrari geratu naiz, tapotzaren atzetik etorri behar duela suposatuta dudana umea agertzeko zain, susto txiki bat eman diezaiodan. Eman diot, galanta gainera, umea barik, agurea baita, makila bati kostata darraiona. Nik errektifikatzerako, sustoa burutua da, eta ez zait, ba, bertan infartoz hil? Infartoz edo, zer ardura dio horrek? *Hona zertan garen, Ernai. Hau ete dok naturak egin behar eban aproba ha?*

Oraingoz eta, beharbada, gerokoz ere, neuk bilatu gabeko bakartasun hau (*parkatu, Ernai, giza bakartasuna esan gura najoan*) ez da lehengoaren barietaziorik txarrena. Hautuan eman balidate, ez dakit uko egin izango niokeen, falta zaidan bizi-zatirako aukera ezin bakarragoa zelako baino ez bazen ere. Ez neukan interes handirik, nire bizitzako albisterik handiena neure heriotza izango zuen gizarte batentzat. Zentzua ez da gauzen legea, hiltzeko gogorik ezaren trikimaina baizik. Ilargiak ez du zentzurik behar, eta behar balu ere, zer? Zentzua berdina izan liteke jarraitzea zein amaitzea. *Guk ez joagu amaitu gura, Ernai, baina boluntarismo horrek ez jok gauzen izaera aldatzen. Ala bai?* Bizia zeritzotena hain zen ondasun preziatua, ezen, e-mailean bezala, gehiena zaborgai zen. Baziren hobetzeko moduak, zebrabideko preferentzia bertan paseatzeko aprobetxatzen zuenaren kasua bezala; azken aldiko gorune jaso eta dotore pintatuak, batez ere, non gozo-gozo ibiltzea biziluzagarri zela iradoki bide zion medikuak, denok geure baitan daramagula entzuna zuen mediku horrek. Zeharkaldi pazientea amaitzean dela, auto ilarakook oinak berriz pedaletan ditugunean, agureak eurt egiten du.

– *Aupa, gizontxo! Ezin al dozu urteerarik aurkitu?*

– *Itxaron apur batean, beste aldera heldu naiten arte.*

Aurreneko zein azkeneko, denok geldi hantxe, mirakuluaren aurrean. Horrela onartua izateko, zaharra eta, ahal dela, gorra izatea komeni da, baina hori desiatzea zailagoa da, inork gogorazi gabe burusoiltzea baino. Bestela, zebrabidearena ez zen asmakizun zentzugabea, txakurrari ere preferentzia emateko dudan zaudenean izan ezik. *Hik, Ernai, ez dok dudarik izaten, ez tok? Semaforoari aurrekoa egin eta aurrera.* Mundua hobetzea nire esku ez dagoenez (orain lehengo agurea naiz), saia nadin neu hobeto izaten; horrela, mundua ere apur bat hobetu egingo da, hor ernegatzen dauden gidariak barne.

– *Eta hona, orain, Ernai, munduaren ona geu ondo egotera bildu dela. Hori erantzukizun handia dok! Badakik zer egingo dogun? Txiza egin eta ohera. Baina hi kanpoan, eh! Zaindu ostrukak, ortuan sartu ez daitezen, eta beste patari arraro samarrik ager baledi, egin hik ondo dakiazten zaunka espezifikoa, suabe-suabe, nire loari kalterik ez egiteko moduan.*

Bi bakartasunek ezin dute bat egin, bakoitzak bakartasun izaten jarraituz. Bietariko bata hil arte, 20-30 urte, bikote bakarra osatzen duten kalaoak baino fidelago izatera beharturik gaude. “Heriotzak banatu arte”. Nora banatzen ote ditu? Balkoitik *gau on!* diotsat hartatik banatzea hain zail egiten zaidan inguruari, ni zerura begira, txakurra niri begira. Izarrak hutsean maite ditut, baita ilargia ere, baina izar bat dakusdanean ilargiari segika, ume atzeratua amari bezala, ezin dut ekidin malko bat bi begietarantz erdibitzerik. Hau diot, begi bakarrez negar egiten zutenek zemaidden beldurragatik. Lotan barnatuz joatearen sentsazioa abian da, bere ezgaitasun progresiboari gustua hartuz doan agurea bezala, zeinak ez duen, gizarajoak, adeitasun inguratzailea erruki terminalagaz lotzen.

Txerria eta oreina fusionatzen ari naiz. Emaitzari goi-kaninoek goi-epaina perforatu diote. *Hau aurkikuntza, Ernai! Babirusa asmatu joagu.* Ez ahal zaizkit adarrak bekokirantz arkituko, babirusa fatalari bezala, garunak zulatzeraino. Natura arraroegia da, ondo ulertua izan ahal izateko. Barka diezaioket munduko lorerik handiena, gorri-gorria (maiteen dudan kolorea), parasitua izatea; izena ere kasik urgentzietakoa: raplesia. Baina munduan neu bakarrik uzteko distintzio gehiegizko honi ezin diot erantzun, ahalguztiduna izan gabe. Jainkoa beti itzarrik badago, a zer logura eduki behar duen. Kontradikzioak. Eta zer? Arteaz, gizakiaz adina gauza kontradiktorio esan daiteke, eta denak egiak. Kaka asko zein gutxi egin, ipurdia berdin garbitu behar da. Norbere buruari barre egitea nartzisismoaren forma pedantea besterik ez da. Benetako umorea besteek norberari barre egitearen axola mailatik neurtzen da. Pentsakizun geldoegiak, lokartzeko.

– *Hil kanpaiak salbatu joan.* (Hau harirago dator).

– *Bo, nire eritzia bestea dok.*

– *Hire eritzia ala hire ignorantzia?* (Konforme bizi izatea ez bereizten jakitean datza).

– *Din daun, nor hil da? Peru zapataria. Zer egin dau pekatu? Auzoko txakurra urkatu...*

– *Lo hago?*

– *Baietz uste jonat.*

Parean dauden izar guztiak ikustekoak balira, ortziak urrezko ganga lirudike, eskapurik gabea. Ikuspen hori lorturik, beste ganga bat osatuko litzateke atzean, eta gero beste bat, eta beste bat, eta beste bat... Buf! Utz nazazue neure lurtxoan, neure baztertxoan, neure zentrotxoan. Ortzia hobeto dago dagoen moduan, izarren fondoa dirudien urdinak, hutsunearen (ezerezaren ez esatearren) urdin eder horrek, bere baitan, izarretatik harago, zerbait badelako zirrara faszinantea sortzen duela.

Izarrak urdin-lila. Hezetasuna izango da. Kolore diferenteak: zuriska, gorriska, urdinska... Marroskarik ez zait gertatu. Zerua izarrez itxia legoke, dena bagenkus. Hermetikoki itxia, irteera gabe. Utz diezaiokegu euliari eskapatzen, baina geuk ez daukagu eskapurik. Nahi ere ez nik. Ilargiaren ziskuagaz bakarrik identifikatzen naiz, ortzitik bereiz abantzatu guran bezala.

Espazioan zeu bakarrik bazaude, nola jar zaitezke zutik, eserita, etzanda, albokera? Aproba zintzoa egiteko, izarrak, galaxiak, enbarazu guztiak kendu behar dira. Lantxoa da, baina zailena bestea litzateke: gero non utzi? Uztea eginda ere, nola zaindu, ezer ostu ez diezazuten? Hobe duzu dena lehengo lekuan egotea, eta zeure ikusmena ezein puntutara ez iristeko moduko distantzia interestelarrean kokatzea. Hain urrun daude, ezen ez dira existitzen. Urdintasun immentso baten barruan zaude, ez zeure kokamen exaktoaren merituz, baizik, noranahi mugitzen zarela, urdintasuna edo hutsunea beti posizionatzen zaizulako ekidistantzia inguratzaile perfektuan. Eta zuri zer? Ardura dizun bakarra da horizonte guztia zeu zarela. Lortu duzu izatea bezain zaila zen imaginatzea ere. Ederra, ezta? Absolutu totalaren sentipena, existente bakarra baitzara. Alukeria bat ez balu: geriza bila zabiltza. Aurrean ez, atzean ez, eskuinean ez. Ezkerrean dago, baina bi urrats harago. Bitartean, sakonera infinitua. Horrek ez zaitu hainbat aztoratzen zenbat lasaitzen zaituen gerizaren posesioak, nahiz eta era ilogikoan. Zer egingo duzu? Atxiki gerizari. Absolutua agorra, idorra da. Zuk ahalguztia behar duzu, izaki kontingenteak ere osoki senti dezakeena, autopista luze-luze hartu eta Beethovenen Bosgarrenean sartzen bazara, ez nor aurreratzen zaizun, ez nor aurreratzen duzun begiratu gabe.

.....

Itzartu naizenean, erabakia argi daukat, goizean maiz gertatzen denez, egunaren karga posibleaz jabetzeko adina ernatu aurretik.

– *Bakarrik gagozenez gero, etxean egoteko aprobeztatu behar joagu. Eztok, Ernai? Eguna luzeenetarikoan izan arren, labur geratuko jakuk, daukagun beste zereginez.*

Amak goizean goiz alde egin du plazara, iluntze berandura arte ez dela etorriko esanik, Mugarrapeko Santa Luzian neskame egon zeneko ahaideak bisitatu behar dituela eta.

– *Bazkaritarako, talo bi eginda utzi deuzat. Bitarterako zeozer topatuko dok. Mezatik bueltan, atzo jotako galtzuak ganbarara altxatu eta bihar jotzeko gariei buelta emon. Eguerdian, ganaduei bedar hori emon. Txarriari arto-txapar batzuk. Untxiak ondo jagozak. Arrasti erdirantz, behiak landara atera eta gero basora, bitartean uretara eroanda. Ah, eta otzarapeko oilo sorgin hori, kexatzen hasten denean, jaregin eta zaindu, ea non demonino daukan habia.*

Ama aginduak zehatz bainoago autoritatez ematen arduratu da, errazegi niotsala baietz iruditurik, honelakoxe egunen zain egoten bainaiz, neure inbentzioak aprobartzeko. Normalean, zortzietako mezara ohi dudana, gaur zazpietakora jaitsi naiz. Bueltakoa, aldasgoran, gatzezko tiroa hartuta baino bizkorrago egin dut. Bidean, lagun bakarragaz gurutzatu naiz, harrobiko behargin baten andreagaz, errotara zihoana bera, sokatik asto burukamur bat, nora doan ikusi ere nahi ez duenaren jarreran. Inoiz ez dakizu astoak zergatik makurtzen duen burua, kontzentrazioz ala inguruarekiko abstrakzioz.

– *Laster abadetxoa izango dogula herrian.*

– *Lekutan dago oraindino.*

- *Zenbat urte daukazak?*
- *Hamalau.*
- *Laster pasatuko jazak beste hamalau.*
- *Ez dakit, ba. Laster-laster ez, behintzat.*
- *Ikusiko dok. Urteak igarri barik pasatzen dozak.*
- *Igarri barik, gatxa, nigandik pasatzen direnak, behintzat.*

Galtzu-eskutadak ganbararaino bizkarrez jasotzea lanik gogaikarriena zait, eskailera estuetan gora, eskailburuetan hormak libratu ezinik, golgora sartzen diren ahotz hondakinek pikatzen dutenagaz. Aspalditik nenbilen aita-amei esaka zergatik ez genuen txirrika bat teilatu hegatsean ipintzen, kargak balkoiraino berez-berez jasotzeko.

- *Hi beti beharrari eskapatzeko asmazinoetan!* –amak.
- *Zeri eskapatu behar jako, ba?*
- *Asmukeriei!*
- *Erraz-erraza da baina!*
- *Aitak ez jaukak horretarako astirik.*
- *Neuk egingo dot!*
- *Hobe heunke egiteko gauza hazen gauzetan saiatuko bahintz.*

Iritsi da inori ezer esan gabe probatzeko eguna. Adar lodi bategaz, ardatz antzeko bat eginda neukan. Daratuluz zulatu eta erditik ziri bat sartu diot. Golde-katea, balkoitik, teilatu hegaleko habean ahalik kanporen pasatu dut, beldurrez, balkoia libratzekoa behar baitu. *Hemendixek jaustea baino ez joat behar. Gure amak baleki zertan nabilen!* Eginda. Gurdi-soka txirrikatik pasatu eta hasi naiz karga jasotzen. Balkoia ez du ondo apartatzen. Beheko balkoira ondo iristen naiz sahardeagaz. Apartatu eta gora. Goiko balkoian trabatu denean, haraino ez dakit nola iritsi. Soka leihoko barrote batera lotu eta ganbara igo behar. Hemendik ere ez dago erraz, apartatu eta gorantz tiratu, batera egin behar baita. Ea beheerantz joaten utzi eta karga albokera jartzen den. Atzera behera. Bitartean, soka txirrikatik irten. Atzera gora. Karga bat jasotzea lortu dudanerako, dozena bat gora-behera egin ditut, gutxienez. Bizkarrez, dozena erdi karga jasotzeko adina denbora. *Lortu behar joat, ba!* Ni burugogor, elementuak gogorrago. Azkenean, ez dut lortu eta, gogaiturik baino ernegatuago, bizkarrez ekin diot. Inork ez baitu ezer ikusi, *isilik egonda, eginda jagok.* Handik urteetara, aise gaindigarri ikusten ditudan zailtasun haiek hamalau urteko joran presatsuari gainez egin zioten, nonbait, baina ni tematurik nengoen inbentzioak balio behar zuela, habe bat harago eta txirrika egokiz, eta kargaren igoerak balkoia libratzeko sistemaren bategaz. Egun hori ez zen iritsiko, eta gurean, beste etxe batzuetan bezala, patatak, sagarrak, artoak, galtzuak... bizkarrez jaso ziren beti ganbarara, gaurtik begiratuta, ulertzea zaila den eginahalean. Denak ergelak zirela pentsatzeko moduko zibilizazioa (adin hartan, sarritan pentsatzen nuena, bestalde), gero ikasi ez banu gizateriak milenioak behar izan dituela (atzo goizera arte, nolabait) inbentziorik bistakoenak deskubritzen, metafisikarrik zailenak eta haragoko misteriorik konplexuenak elaboratzeko gai izan eta gero. Badirudi, asmatzeko, argitasuna bakarrik ez dela nahikoa. Beste hori zer den baneki, oraintxe ere ez litzateke berandu, baina bizioa neugandu nuen, behintzat, eta horrek ere lagunduko dit neuretzat bakarrik gelditu dela dirudien mundu ezinbesteko honi behar duen lekutik ematen, neuk min handiegirik hartu gabe.

Txirrikaren inbentzio harekiko berotasuna igaro zen, nire buruan hurrengo inbentzioak aurrekoa jateko zeukan erraztasunari jarraituz. Baita, sarritan, esperimintatzeko intimitaterik ezagatik ere, telefonoaren kasuan bezala. Anaia zaharrenak-edo ekarri zuen asmakari bati jolasaz

haragoko aplikazioa eman gura genion. Lustre-kutxaren bi aldeak listari luze bategaz loturik, walki-talkia egin genuen, sukaldetik ezkaratzera, suabe-suabe, konfesioan bezala, hitz egiteko balio zuena. Aurrerapenak ez zeukan praktikotasun handirik, zailena, distantzia hartara, elkar ez entzutea baitzen. Apalki hitz egin behar zen, kanpotik haritik baino gehiago entzun ez zedin. Efikazia bakarra zen zapatak (bakoitzak pare bakarra), abarkak (lustratu behar ez zirenak) eta harrapatzen genuen oinetako oro inoiz baino garbiago (edo, behingoz, garbi) edukitzen genituela, lustre-kutxak arin amaitzearren, tapak telefonorako libratzeko. Ama haserretuak bazuen beste lan bat gehiago listari-mataza eta lustre guztiak (bi, beltza eta gorriska) gordetzen. Telefonoak utilitate minimorik izatekotan, sukaldetik ganbarara entzun zedin nahi nuen, arrosarioaren erdian, galtzu, sagar, patata bila igo behar zenerako. Gure ama ohiturei kontra egitekoa ez zen, badaezpada ere, baina errezuak ez zuen gehiegi larritzen. Beti bitarteko zereginak aitzakia zirela (sua, lapikoa, indaba garandu, taloak egin, morokilari eragin), aitak hartzen zuen obligazioa, umeok arrosarioa gidatzen ikasi arte, bera ere ez baitzen santujale beroegia. Orduko ‘Goenkale’ hartan, beti gertatzen ziren gidoiz kanpoko egoerak.

– *Agur, Maria, graziaz betea... barrabana! Isilik ibili haz hi be* –amak esne iheslariari–. *Santa Maria, Jaungoikoaren ama... zer daroan hor, tranposa horrek?* –hurrengoan katuari. Katu iheslaria beti susmagarri.

– *Gloria patri et filio... horri txarri horri zer pasatzen jakon* –aitak–, *horrenbeste kurrinka egiteko?*

Edo arrebak, arrosarioa gidatzen hasi zenean, azkeneko paternoster intentzizkoen ilara amaigabeen, *Aita Santuaren alde, paternoster* esan beharrean, *Aita Santuari paternoster* esan zuenean bezala, non aitak barreari eman zion, hoska:

– *Aita Santuari? Hilak non diren ez dakigulako, biziei errezatzen hasiko ete gozan orain?*

– *Bardin ez da ala?* –arrebak, zeinak, segurrenik, ez zekien garbi Aita Santua bizien ala hilen artean zebilen.

Eta, batez ere, latinezko litaniak deformatzeko (beti hoberantz) zeukan abildadeagatik:

– *Santa virgo virginum – Ora pro nobis.*

– *Martin be hilgo da-ta* (mater inviolata).

– *Eztala maletina* (stella matutina).

– *Tú eres Edurne?* (turris eburnea).

– *Bittor Petralanda* (virgo predicanda).

– *Hori ‘Amuriza’ hori gaixotasun txarra dok gero!* –albistea batu zuenak bezala.

– *Zer gaixotasun da hori, gizontxo?*

– *Txarra! Neska gazteek-eta izaten ei jabek.*

– *Honek ‘anorexia’ esan gurako jok.*

– *Horixe, horixe! Amurizia edo dena delako gaixo uger hori.*

Horrelakoxe nobedadeen zain egoten ginen, gurean arrosarioa ez baitzen amamarenean bezain luzea eta zorrotza izaten, non, hara joatekotan, leihoaren kanpoaldetik ondo zainduko genuen, arrosarioa hasteko ala amaituta ote zegoen. Deskuidatuz gero, inoiz egiten ginen bezala, hilen inbentario osoa errepasatu behar izaten zen, bizien premia guztiez gainera.

Gurean, arrosarioari huts egiteko aitzakia (esango zukeen abadeak) edo motiboa (desenkusatuko zen ama) maiz gertatzen zen udako egun luzeetan, neguko gau amaigabeetan, gehienean kunplitzen bazen ere. Errezuen erdi inguruan, *goazen galtzutan, aita gurea zeruetan zagozana*, esango zuen aitak, bera errezu-gidaria bazen, eta nik argiegile lagunduko nion ganbarara,

petrolio-zko kriseilua eskuan. Handik sukaldera eta alderantziz, ondo entzuten ez zenean, aitak, bere agurmaria amaitu eta segundo batzuetan itxaronik, *erantzun dozue?* hots egingo zuen eta ez zuen jarraituko, behetik norbaiten *baaai!!* entzun arte. *Agur, Maria, graziaz betea... Erantzun dozue?*, berriro ere, eta halaxe, galtzu-karga bizkarrean, eskaileretan behera, elkarrena entzuteko adina hurreratu arte, nahiz eta ez dudan uste gure aitak erantzunaren arau debotoagatik hots egiten zuenik, oi-hu diferenteak egiteko aitzakia baliatzearen baizik.

Nik uste nuen, telefonoa ganbararaino luzatuz gero, arrosario ganberro samar hura (batez ere, apaizgai izanik, errespetua ipintzen etxetik hasi behar nuela iruditu zitzaidanetik) apur bat txukun zitekeela, eta etxean bakarrik gelditu nintzen egunean, hori ere esperimentu bat gehiago izango zen. Lustre-tapa bat sukaldeko kadira adarrean loturik, listari-mataza ganbararaino askatuz joan nintzen, baina nork hitz egin behar zuen sukaldetik, ganbaratik entzun nezan? Lustre-tapari txilintxo bat erantsi nion, ganbaratik tirakadatxo bat eginez jotzeko moduan. Honek zailtasunak ugaltzen zituen, bideko hainbeste bihurgunetan, haria ez trabatzeko korrimena ez baitzen erraza. Azkenean, telefonoaren urrunerako balio erreala ganoraz konprobatzeke gelditu zen, emaitza insegurraren artegatasunean. Eta batez ere, egunean zehar hainbeste esperimentu egin beharraren presan, hala nola, oiloak oilategian lasai sar-irteteko sistema bat, azeririk ez iristeko modukoa. Oilategiak altuera jakin batean leihotxo bat zeukan, enbor koskadun batetik oiloak hara igotzen zirena. Azeriarentzat ere eskailera aproposa, jakina. Enborra kendu eta, leihotik pikura, makila mehe bat ipini nuen horizontalean, pentsatuz: *Kotan egoten dakieen oiloak barra honetatik ederto pasatuko dozak. Azeria maltzurra bai, baina trapezista ez denez, ezingo jok jausi barik pasatu.* Inbentzioa ezin izango nuen probatu. Oiloek egunez ez zuten sartu nahi, eta gautzerako, ama edo aita edo senideren bat etorria izango zen. Gainera, inbentziorik onena asmatua zen. Ez zegoen oilategira arrimatuko zen azeririk, gure txakurrak igarri gabe.

Oiloa otzarapean zegoen. Halako kanpo-errulea zaintzea gorrotoago nuen neuk eguna otzarapean igarotzea baino. Urrunetik jarraitzen bazenion, aise lortzen zuen pinadian galtzea; hur samarretik bazen, igarri egiten zuen. Bere mamala-plantan, ez zuen habiarantz sekularioan hartuko, txuringan gatz ale estimulanteak ipinita ere. Egun hartarako, kriskitintxo bat gordeta neukan, ezpata-dantzari baten praktikatik kendua. Oiloari hura lepoan lotzea ez zen erraza izan, ateratzen zuen eskandaluan. Estutuz gero ito, nasai utziz gero, irten, burua ere halakoxe ziztrina baitzuen. Luma piloa otzarapean utzirik, joan zen noizbait, txintxilin-txintxilin, sagastian behera, baina pinadian ez zuen sartu nahi. Igartzen zion, nonbait, bere sekreturantz jotzeko kondizioetan ez zihoala. Azkenean, arrautza jausi egin zitzaion, sagarrondo baten orpoan.

Inbentzioa ona zen, oiloak onartzea lortuz gero. Beste animaliak txilinekin edo arranekin lasai bazebiltzan –pentsatzen nuen–, oiloek zergatik izan behar zuten burugabeago? Orain ez neukan lan errazagoa oiloa harrapatzen, kriskitina kentzeko, zeren zer esan behar nuen iluntzean, amak oilo kriskitinlaria aurki zezanean? Ezin nuen oilorik harrapatu, bera edo neu itotzea nahi ez banuen. Azeriari dei egin nion, suposaturik, oiloa muskildutakoan, kriskitinik ez zitzaiola interesatuko, baina azeriak ere, behar denean, ez dizu laguntzen, edo aurreko jazarpen guztietatik mendekatzeko baliatzen zaizu. Iluntzean, oilategian sartu zen ama ez zen konturatu, hotsak txokatu zitzaizkiola ikusi banuen ere. Ilunetan, oiloa geldi-geldi, kikil-kikil egoten zela baliaturik, lortu nuen inbentzioa ezabatzea, txilintxo eskandalu barik kenduta. Garaipen osotzat gozatu nuen, gainera, ohartu gabe inbentzio-lege bat finkatzen nuela, neure bizitzan gehien errepikatuko zena: aurrerako ez zena ezkutuan atzeratu. Bataila galdua berbobinatzea bezala. Ezer gertatu ez izana lortu, baina gertatu dela jakin, izorrai! Garantia horregaz, temeritatea zorion-makina agortezina zen.

Txirrika sistema soroetan ere nola aplikatu, beste pentsagai handi bat zen. Gure etxea bizkar goienean egonik, dena parean edo beherago aurkitzen zen. Iturria eta ikuztegia oso landa piko baten

barrenean zeuden. Esku bakoitza baldekada bana urez, handik igotzea ez zen jolasa, batez ere, zoru bustian. *Ez, ba! Asmatu behar joagu beharleku zantar hau maneatzeko zeozer.* Iturri ondoko lizarretik landaburuko sagarrondora kable bat lotu eta, haren gainetik txirrikan, goitik beste txirrika bategaz tiratzea zen ideia, egun bakarrerako lan handiegia ez balitz. Nire buruan dena zen txirrika orduan, hain baitzen, izenagatik-edo, tresna miragarria. Posteak sarturik edo bitarteko zuhaitz ez beti lineangoz baliaturik, mekanismo handiak eta aldagarriak behar ziren, etxealdearen bi aldeetaranzko partzela ezberdinak abarkatzeko. Inbentzio hori fantasia gisan gehiago landua izan zen, egiazko posibilitate gisan baino.

Pentsaketa bezala, asma-grina ere nire bakar-denbora luzeen ekarpena zela uste dut. Eskertzen diot derrigorriari gozamen ordezkaezinak aurkiaraztea, zeintzuen zirrara-uhinak oraintxe arte luzatu diren. Nire asmakuntzek beti ere aurrerapenezkoak izan nahi zuten; lana kentzekoak edo, gutxienez, erraztekoak. Nire kontzientzian ez zen planteatzen inbentzioen helburua jolasa izatea, utilitate soziala eta ospe mundiala baizik. Jarrera zientifiko totala, ospearena kenduta, baina, nire kasuan, hori ere beharrezko zen, azkenean, dena jolas hutsera mugatuko zenez gero. Inbentzioek ez zuten beti funtzionatzen, baina ospeak noranahi prezeditzen ninduen, dena barruko egia guztiz errealean eta kontzientziaren gordetasun inpenetrablean. Lorpen indirektoek sobera konpentsatu zuten asmorik gehienek ustela. Pentsatu ere ez, beraz, ikerlariak hainbeste deprimitu ohi dituen porrot zientifikorik.

Gurean ez zen argindarrik. Baliabide horretan oinarrituriko aurrerapenik pentsatu ezin zenez, buru-lan handiak hartzen nituen oinaztuaren indarra nola atxiki eta gorde zitekeen, batez ere, Etxanosoloko Segundak etxe alboko haritz marroan oinaztu-habia zeukala esan zidanetik.

– *Ikusterik ba al dago?*

– *Eeeez!! Begiratzeko zirriturik txikiena edegiz gero, ihes egingo leukiek.*

– *Orduan, zelan dakizu barruan dagozena?*

– *Entzunda.*

– *Entzun zer?*

– *Hator hona, ea. Ipini belarria haretxaren kontra. Hortxe. Sakatu gogor, haretx azalaren arrailak zarratu arte.*

– *Hau latz dago! Min egiten dau!*

– *Min egiteko beste be ez, mutil! Eduki bakarrik, apur bat sakan, azala epeldu arte.*

– *Honela?*

– *Orain itxi begiak. Zaratatxo batzuk ez al dozak entzuten?*

Zaratatxoak baino askoz gehiago nentzuen, barruan borrokan ari bailiran, baina oinaztuarenik ezin nuen bereizi, trumoiak besterik ez bainuen ezagutzen. Hori ez ei zen oinaztuaren tinbrea, akabatzea erabakitzen zueneko eztanda baizik.

– *Ez al dozak entzuten kirrizkada mehe-mehe batzuk?*

– *Bai.*

– *Ba, horreexek dozak oinaztuak. Elkarri puntak zorrozten jiharduek, marrotik eskapatzeko.*

Saiakera luze eta neketsuen ondoren, oinaztuaz baliatzen etsi nuenetik, aurrerapenik nekez pentsa zitekeen, gurdiz, astoz, bizkarrez edo txirrikaz izan ezik, nahiz eta, hor ere, haizearen indarrak baliatzeko erak irudikatzen eginahalak egiten nituen, denbora fantastikoki pasatzeaz beste etekin praktikorik gabe. Gurean ez zegoen urik, baina euria ugari egiten zuen, eta itaizuren jario ederrari, geure muturren aurretik zihoanari, erretanak libratzen ibiltzeak gibela erretzen zidan, sukaldetik hain hur igarotzen zen ura mendian behera bidaltzeko. Beldurrez egoten nintzen lagunik

etxera ekartzeko, komun oparo hura ez eskaintzearren, non sarritan, amak ura ekartzeko zorrotz agindu arren, esaera zaharrarena egiten genuen, *Patxi, egin eta bertan itxi*, leihoaz kanpoko itaizuratik, geure ipurdi kakatsuetatik metro eta erdira, nahi adina ur zihoan bitartean. Bazirudien aurrerapen ebidenteez garai predeterminatuen zain egon behar zutela, zeren, gurean bezala, inguruko hainbat baserritan, buruak ez baitziren eman teilatu-ura biltzeko andel ximple baterako argitasunik. Edo bai, baina hori maritxukeria izan zitekeen, edo handikeria, herrian ziren ‘konde’, ‘duke’, ‘markes’ eta gainerako aristokrata platonikoei zegokiena, hauen komenentziak imitatzea parte txarraren erakarle bailitzan.

– *Zer dino gure kondeak?*

– *Andrandiko markesari zorrek umeak egin deustiezela.* –Gehienek ez zuten gaitzitzen iraingarritzat hartzen, ezizen ohoragarritzat baizik.

– *Hiri zergaitik deitzen deuee dukea?*

– *Kategoria!*

Horrelakoak nola edo hala moldatzen ziren, sukaldean ezin bazen, komunean, ura eta aurreko urteko egunkari-puska higienikoak edukitzeko, ‘Arramingo ministroa’ kakatzen bizi bazen ere. Badirudi, maila xehean ere, ministroa titulu plebeioa zela, beste zaldunki horien aldean.

Nire mutikotako lanik gorrotatuena itaurrea izango zen, behi edo idi uztarriaren aurrean, soroan harantz eta honantz, orduetan bueltaka, artez eta martxa berean, bestela, atzekoak (aitak, amak, osabak) laster hartuko baitzuen kontu zorrotza: *Nora begira habil, txotxo? Ezin haz ildotik eta behien hurrean joan?* Zergatik joan nahi nuen fraile galdetzen bazidaten, ez zegoen dudarik: *Itaurren ez egitearren.* Gero, komentuari tristeago iritziko nion eta, lehenengo oporretarako, inbentzioa pentsatuta ekarriko nuen: robotak. Artean inork ez zuen robotik ezagutzen, baina bai txori-mamuak eta gisako txotxongiloak, eta pentsatu nuen: *Zergaitik ez mutiko galtzuzkoa ipini behien aurrean gidari?* Panpina ibiltaria izatean zetzan gakoa, eta hori uztarrian aurrerantz horizontalean lotutako makila batetik zintzilik ipinita konpon zitekeen. Hala, behiek panpinari zintzo-zintzo jarraituko zioten, eurek eramana zela igartzeko baino tentelagoak zirela suposatu behar baitzen, beldurra galtzera ohitzen ez baziren. Paradoxa badirudi ere, norberak daraman estandartearen norbere bide-erakusle bilakatzea fenomeno ohikoa da gizaki artean, dibertsio koxkorren eta gerra handien kasuan ageri denez. Azkenean, neuk neutara eginiko saialdi ez serioegi batzuetan, behien burura egokitzeaz desistitu egin behar izan nuen, ez hainbeste, gidatu baino gehiago, izutu egingo zituelako, baizik ez nuelako aurkitzen aprobak benetan egiteko modu ezkuturik. Behiak neuk bakarrik uztartzeko balentria loturik ere, zein sorotan egin behar nituen esperimenduak, inork ikusi edo igarri gabe? Inbentua neure buruan geratu zen, ideia handien gakoan.

Lana aurrezteko edo errazteko sena ezagueragaz batera dakargula uste dut, nire kasuan, ez hainbeste, denak lanpeturik, beti iritsi ezinik ikusten nituelako, baizik lan batzuk bat ere maite ez nituelako. Oro har, neuk egiteko moduko guztiak. Nik gizon-lanak nahi nituen, erreminta handiekin, hala nola trontzan, segan, goldean. Auzoetan, motarik mota ibiliko nintzen, sailetan utzita zeudekeen segen bila, bertan ekitaldi bat egiteko, sail nabarmenegia jo gabe beti ere, ugazaba, ernegatuta, segalari furtiboaren bila, etxeraino etor ez zedin. Edozein sorotan aurkitzen zen goldeari buelta ematen prakak lehertuko nituen; hamar bat urtera arte ez nuen goldea iraultzerik lortuko, baina saiatu, oinezarotik. *Oraindino kakalekua bajutxo daukak horretarako*, esango zidatela banekienez, aproba guztiak ezkutuan egingo nituen, gure parajeen zaila ez zen bezala. Aitaren prakak jantzita (orduan, hamabost-hamasei urtegaraz praka luzeak janztea bizitzako aro-aldarik garrantzitsuena zen), bi aldeetara oso urrundik bistan zeuden gure soroetan atzera-aurrera ekinez, harrotzen nintzen pentsatuko zutela pentsatuz: *Zer prakadun barri jabilk Torreburun? Morroia hartu ete jabek?* Kalkulatzen nuen, noski, ibarraz handiko hegitik nekez bereiz zitekeela zer gizaki-

modu zebilen beste hegian, baina, hala ere, jarraitzen nuen harrotzen. Praka luzeek autoestimua jasotzen zuten, nahiz eta ez indarririk gehitzen, ez kontradikzioak apurtzeko maleziarik aurreratzen. Lastima izan zen dohain horrek urte batzuk gehiagotan ez irautea, hainbeste buruhauste alferrekotik libratuko baininduen

Eskolatik etxera heldutakoan, lanetariko bat egurketa izango zen, inguruko pinadi bota berriren batetik.

- *Zergaitik ez dogu burdian ekartzen?*
- *Orain ez jagok behiekin hasteko astirik* –amak.
- *Hemen sekula ez dago astirik, gauzak ganoraz egiteko.*
- *Heuk egiten dok hori ederto.*
- *Ederto, ederto... ostera baten zenbat ekarriko dot, ba?*
- *Inork ez deua esan denak ostera bakarrean ekartzekorik. Hiru-lau osteratan, piloa egingo dok, oraindino gaua urrun jagok eta.*
- *Baita hamalautan be, gaua atzeratuz gero!*
- *Hainbesterik ez dok beharko.*

Marmarrean joaten nintzen estarta zaharrean behera, txakurrak distantzia batera zerraidala. Honek ere igarri zer zetorkion, baina argitasunetik maleziara ere korritua zen haren senak ezin izan zuen, antza, leialtasunaren gainetik pasatu. Lekura iritsitakoan, egur-sorta egingo nuen (abarra gehiago, egurra baino), eta soka-mutur bata txakurraren lepora loturik, *etxera, Ruby! etxera!* oihuka hasiko nintzen. Orduko txakurrari Ruby zeritzon, gure aitaren beste aurkikuntzetariko bat.

- *Idatzi behar denean, zein 'i' jarriko dogu?* –aurre egin nion, grazia handirik egin ez zidan izenari eragozpen jaso bat jarki guran.
- *Zenbat 'i' jagozak, ba?*
- *Hori be ez dakizu?*
- *Idatzidak bat paperean.*
- *Rubi.*
- *Hori txakil geratzen dok. Bestea!*
- *Ruby.*
- *Horrek harmoniosago jirudik. R eta y ederto kontrapisatzen dozak.*
- *Errea maiuskulaz dagoelako.*
- *Biak minuskulaz, zelan litzatekek?*
- *ruby, baina hori galazota dago.*
- *Biak maiuskulaz?*
- *RubY.*
- *Tobera bat buztantzat? Beste 'i'-rik ez jagok?*
- *Zenbat behar dozuz, ba?*
- *Behar bat be ez, baina dirua egitea baino errazago izango zoan letrak egitea.*
- *Gero eskolan eurak ikasi ezinik zoratzeko?*
- *Orduan Ruby hartuko joagu. Rrrruby! Grrruby!*
- *Ama! Aitak burla egin deust.*

Horixe zen, hain zuzen, izen haregazko nire erreparo nagusia, zer gertatuko zen ederto aurreikusi nuenez. Kirrimarratia izanik, noiznahi itaundu ohi zidaten, disimuluan, txakurrak nola zuen izena, nire ahotik *Rrrruby* edo *Grrruby* entzutearren. Behin, *zuen txakurrak zelan jaukak izena?* itaunari, behaztopa ekiditearren, *txakurrrra!!* erantzun nion amorruez, ohartu gabe hitz horretan ere traizioa zegoela. Entzuleei grazia handiagoa egin bide zien, aitari batez ere, zeinak gero

Ruby zer animalia dok? galdetzeko sistema asmatu zuen, atzera *txakugrra!* entzutearen, baina nik *Mokorrddo!* erantzun nuen, berriro behaztopa okerragoan jausiz, ‘r’ eta ‘d’ hizkiak juntatzean, ahoa apotu egiten zela baitzirudien. Inbentzio zalea izanik, laster asmatu nuen erremedio egokia. Txakurraren izena edo izaera bere era ezberdinetan galdetzen zidatenei mihia luze-luze atera eta *mñmñmñ!!* erantzuten nien, apoa euren aurpegira jaurtitzeko bezala. Esperientzia hasieran ernegugarria, azkenean, eskergarri gertatu zen, inbentzio behingoz efiziente bat asmatu izanaren harrotasuna utzi baitzidan.

Karga txikia bazihoan tatarrez, apur bat neuk lagunduta, ez urrunegi, egur puntak lurlean edo alboetan katigatzen baitziren. Askatu eta berriro *etxera, Ruby! etxera!*, operazio berdintsua ia pausoan-pausoan eginik, noizbait etxe osteraino helduko ginen, han txakurra askatu eta karga atarira neuk eroateko. Egurketa insolito hura dena neuk eginda baino gehiago kostatzen zen, baina inbentzioan ari bainintzen, ez lan soilean, dena ondo zihoan, behin Gorozikako amama etortzea egokitu arte. Unadaka, gurdi-gurpilek harria edo arbela aurkitu arte, metrotik gora sakontzen ziren estarta zuloetariko batean, deihadarrak entzun bide zituen, eta pentsatu: *Hori mutiko hori zertan jabilk hor?* Hurreratu zen, goitik dena ikusi zuen, eta isilik joan zen, gero amari esateko: *Zuen mutikoa ba al dakin zertan dabilen? Txakurragaz egur-lorlean!* Gauean, afaritan, gutxien usteko nuen berria eman zion amak aitari: *Behargin abila jaukaagu etxean, egur-lorra txakurragaz egiten dakiena.* Gure aitaren buruan fantasia haizearen konplementua zenez, bazter guztietan kontatuko zuen bere semearen balentria, lantzean herritarren baten puntadetatik ateratzen nuenez.

– *Horixe txakurtxo hori erosi egingo deuat* –batek.
– *Horrelakoxe aurrerapen bat geurean be eskertuko geunkek* –hurrengoak.
– *Gure aitaren ahoa* –marmatzen nuen neure kautan– *bajabilk bazterrak dibertitzen.*
–*Etorriko al haz gure txakurra entrenatzera?*–proposatu zidan ezpainak trukaturata zeuzkala zirudien txakur muturzapal baten jabeak. Deabrua kaiolan ikusteko ere ez nintzatekeen etxe hartara hurreratzen ausartuko.

Deabruaren kontua ez zen gezurra, Etxenosoloko Segundak, oinaztua haritz-marroan entzunarazi bezala, deabrua kaiolan ikustea agindu baitzidan, tentatzearen, segurrenik, honako dilemagaz:

– *Bat beharrean, nor ikusi gura heunke? Deabrua ala Jainkoa?*

Hark bazekien niri zerk gehiago tiratuko zidan, baina niri ere senen batek abertitu zidan nolako irreberentzia agian zigorgarrian erortzear nintzen, eta erantzun nuen:

– *Jainkoa ez da kaiolan kabitzen.*
– *Kaiola handia izanez gero ere ez?*
– *Ezta mundu guztia bestekoa izanda be.*
– *Orduan, deabrua erakutsi beharko deuat, gurean ez jagok horrenbesteko kaiolarik eta.*

Zientzian ere badela selba-legea. Ludwig Boltzmann fisikaria bere teoria atomisten lana alferrekoa zelakoan suizidatu ei zen, hainbeste detraktorek perturbaturik. Évariste Galois matematikari jeniala 21 urte gaz hil ei zen dueloan, edo hil ei zuten fusilaturik. Diferentzia irrelebantea litzateke, adinarena salbu. Paul Erdős matematikariari burmuinaren alde bakarrak funtzionatzen ei zion; telefono zenbaki guztiak gogoratzen zituen, eta izenik bat ere ez. Ondorio zientifiko on bat izan liteke ez dagoela misantropoa izan beharrik, hiltzeko pena gizakiengatik bainoago geografiagatik izateko. Haiak lehiakide ditugun bitartean, hau geure izatearen materia noblea da.

- *Kaka zaharra, orduan!*
- *Hain gitxi be ez. Zaharra eraginda hatsitzen dok. Barria, eginde bakarrik.*
- *Urtzi! Kaka egin eta bertan utzi!*
- *Heuk eroan egiten dok ala?*

Bai lotsaria, gerezi ase bat hezur eta guzti egin ondoren, erditzea aurreratu eta, umeari aurrerantz sakatzean, atzetik hezurak ilaran sentitu beharra!

Nire inbentzioa hartan amaitu zen, patente batzuek ezkutuan bakarrik balio dutela frogatzen, handik urte batzuetara, beste bertsio bat, potenteagoa eta hobetua, probatu nuen arte. Osaba tratulariak, ‘osaba Peron’ esaten genionak, ez dakit nondik eta nolako garbitasunez, aker handi bat ekarri zuen, “sasiak jateko”. Gurean utzi zuen, norbaitengandik ezkutatzeko, segurrenik. Adarmotza eta mantso-mantsoa zenez, haregaz indarra probatzeko burualdiak eman zidan, eta han jarduten genuen, bekokia bekokiaren kontra, nork nor atzeratuko, halako buru baten presio eutsiak daragien primitibotasun inponentearen sentsazioan. Mantsoa eta guztiz maneiakorra izan arren, kontu handia behar zen, animalien jenioak gutxien maite duen atzera-martxaren inbertsioz, burua apartatu eta talka egin ez zezan, behin, deskuidaturik, zorabiatuta utzi ninduen bezala, kasu estremoan ni baino burugogorragoa baitzen. Bestela, saka-indarrean, hortxe-hortxe ibiltzen ginen, indar berdintasunez baino gehiago, bazekielako ondo portatzea saritua izango zena besada bat hirusta gozoz, baita gaileta edo txokolate puntaren batez ere, neure askari arraziotik. Egurketaren obligazioak berdin jarraitzen zenez, laster etorri zen aplikazioa. Artean banituen hamabi urte eta banekien kargak ez trabatzeko moduan egiten, azpian egur punta-okerrak gorantz ipiniz. Akerrari lepoa zaku bategaz apareju antzera harturik, bi aldeetatik soka bana lot zitekeen kargara, zalditxo tiralari bat bezala geldituz. Akerra, txakurraren aldean indartsua eta lasaia zenez, inbentzioa ez ezik, aurrerapena ere bazen, nik nezakeen baino askoz egur-sorta handiagoak arrastatzen baitzituen. Langintza horren berri inork ez deskubritzea, txakurrarena bezala, asmakuntza bera bezain triunfala zen, osaba Peronek aker maitea eraman zuen arte (neure kautan, ‘osaba Pellon!’ bataiatu nuen amorruez, interjekzio eta guzti), ni, disimuluz baina benetako amodio-minez, patari hura etxean eros zezaten alferrik ahalegindu ondoren. Emozioa, garden bezain hunkigarri, handik berrogei urtera berrituko zen, *joño! hemen hire inbentzioa!* golkoari hots eginez, Munitibarko Gerrikaitzen, Gontzogaraiko akerra proban ikusi nuenean, poney baten aurka.

Txakurrarenari halako entzutea eman ondoren, akerrarena jakitera, nolako historia zabalduko zukeen jakiterik ez dagoen gure aitagaz eztabaida berdeak izaten nituen. *Nire asmazinoek zeozertarako balio dabe, behintzat. Zure asmukeriek ezertarako be ez, denpora haizeari emoteko besterik.* Argudioaren bigarren parte horretan, banekien ama alde izango nuena, berari entzundako arrazoiak baitziren gehienbat, baina nik argi neukan inbentzioak aurrerapenezko gura nituela, aitaren helburu zeresangarrien kontraposizioz, hain zuzen, nahiz eta, aldi berean, amak haren ‘asmukeriak’ esaten zituenak noiz gertatuko irrikaz egon neu ere. Gure aitarentzat, munduaren aurrerapena bera munduaren erdira ailegatzea zen; eta munduaren aski tamaina bazen bera zebilen mundutxoa, inork mundu osoaren tamainara jaso nahi bazuen. Iluntze batez, zaku bete ohol txikiz agertu zen.

- *Zertarako dira ohol koxkor horreek?*
- *Datorren domekan jakingo dozue.*

Hurrengo igandean, Torreburutik Autzaganera, Etxanora, auzoetara, distantziak neurtzeko proiektua egingo zuen, gurdi sokagaz. Gero igande bakoitzean taula bat idatziko zuen, ez denak batera larregi izan zitezkeelako, baizik, batez ere, exekuzioa luzatuz, dibertsioa eta espektazioa

handituz joan zitezen. Azkenean, etxaburuko bidean, Oiztik Bizkargira zihoan zor-bidean, altuera bateraino adarrak garbi moztutako pinuetan, ohol gezidun piloak ageri zen josirik, bakoitzak, norabidea markatuz batera, distantzia zehazten zuela: *Iturria, 121 m. Torreburu Zahar, 157 m. Etxanosolo, 203 m. Pardiñorre, 627 m. Autzagane, 1089 m. Mintegia, 1107 m. Epaltze, 1757 m. Esturo, 1825 m. Etxano, 1835 m. Kanpainene, 1902m.* Urrunagoko seinaleek izena eta norabidegezia bakarrik zeramaten: *Muniketa ? , Maume ? , Oiz ? , Ergoien ? , Bizkargi ? , Gorozika ? , Zugastieta ? , Ibarri ? , Zornotza ? , Bilbo ? , Paris ? , Pekin ? .*

Gure etxearen inguramen hurbilaz jabetzea zail egiten zitzaionak bazekien Torreburu Barri Bilbotik Parisera bitartean zegoela, munduari su eman eta Frantziara alde egiterik pentsa baleza. Pekin ere hortxe nonbait. Bide hartatik pasatzen ziren bidazti orduan ez hain urriak, artzainak, itzainak, astodunak, lantzean eskeko bat, trapero bat, bi lapiko-konpontzaile (aita-alabak), guardia zibil bikotea, noraezean gelditzen ziren, hain basabide kasik galdutik, bat-batean, halako norabide sarera jotzean, bidea ondo zekitenak ere dudak jarritz. Preso nengoela, Aministia Internazionalerako kide batzuk, Alemaniatarik gure etxera bisitan joan zirenean, ezin ziren jabetu hainbeste seinaleren zentzuaz, erreperik ez erreperide antzik inon ez sumatzean. Amak, etxerako probetxu urriko lan luze haiekin ernegaturik, ekingo zion:

- *Gizonak zertarako hartu leikezak horrelako beharleku txotxoloak?*
- *Jenteak jakin egin behar jon nondik datorren eta nora doan.*
- *Hemendik dabilenak ez jok jakingo nora doan!*
- *Beti suberta leiteken ezjakinen bat. Orduan zer egin behar don? Etxean apopillo hartu?*
- *Heu hago hi ‘apo-pello’ galanta! Mundu guztiko izenak ipini dozak, eta heure etxearena ipintzerik ez jak gogoratu.*
- *Gurea non dagoen bajakin mundu guztiak.*

Gurea non dagoen horretan, *Luzio Torreburuko non bizi den* ulertu behar zela atera nuen. Gurean, argindarra hamazazpi urte nituela sartu zen. Petrolioizko kriseilu motel, zikin, bakar haregaz, arteko izate guztia iluntasunari han-hemen kili-kili egiten igarorik, esan beharrik ez dago etxe guztia argiztatzea nolako mirari genesiarra gertatuko zen, Jainkoaren pareko, tak eta dena argi. Eta gailenago, tak eta dena itzungi. Hori ezin baitzuen Jainkoak egin. Huraxe izango zen mirari bat, zeinaren berritasuna ezertan ez zuen apaltzen ingururik gehienez aspalditik ohiko izateak. Gure aitak denbora laburra behar izan zuen miraria aplikazio miragarriagoetara luzatzen, instalazioa etxe azpiko sororaino eramanean. Iluntze batez, lanetik bueltan, haga bat artatza erdian sartu zuen, tente, *lur hau neurea dok* liokeen kolonizatzaileak bezala. Denok zer egin behar ote zuen begiluze geundela, hor hasten da bonbiladun kable luze bati hagarantz tiraka. Operazioa amaitzerako, gautua zen. Argiari tak eman, eta bonbila panpoxa auzo urrunetatik ederto ikusteko moduan geratu zen, artatza gainetik. Bere atzamar potoloekin eginiko zigarro potoloago bati tengaka, sagarpean eserita, auzoen iruzkin imaginatuak gozatzen zituen:

- *Torreburura ez dok argia alperrik ailegatu.*
- *Zertarako ipini ete jok bonbila soloan?*
- *Gauez artajorran egiteko ez bada!*
- *Eguna be ez jagok sasoi honetan laburra.*
- *Fintasunak ez jok parkatzen.*

Ondorengo egunetan, laneranzko edo bueltako bide luzean aurkitzen zituen jakin-minak ez dezepzionatzeko moduan asetzen, bazuen otsoak Txanogorritxo jaten adina gozamen. Hurrengoan, hango baserri batean lanean zebilen Gorozikatik, egunean apo bat ekartzen hasi zen, piper-potean. Gorozikako tabernandre zabal bati ez zitzaion behingoan ahaztuko.

- *Hau zer dok, Luzio?* –galdetu zuen, potea mostradore gainean aurkitzean.
- *Andrearentzat opari bat egin jeusten beharrean nabilen baserri eskuzabalegi horretan.*
- *Piper-pote zahar batean, zer opari?*
- *Begiratu ein eta ikusiko don.*

Estalkitxo ia guztiz ebakia jaso eta barrua beteko bufonidoak plop egin zionean, emakumea ez zen bertan akabatu, senarrari alarguntzeko abantailarik ez ematearren. Bezeroen arteko deskojonoa –bera handiena– baretutakoan, esplikatzen hasiko zen nola bere etxe ingurua, berri samarra zelako-edo, apoek ez zuten oraindik kolonizatzerik pentsatu, eta horretan ari zela, “gau-kantaririk artistenek” bere lo hilegia anima zezaten, nahiz eta haren zurrungekin ez zen erraza izango apoen harmonia delikatua entzutea: *hik jan dok aparirik? ez! hik ez?, nik ez, hi'pez? ni'pez, hi'pez? ni'pez ... nok jan jok orduan?* Eta: *hörrrrök!, hörrrrök!* –igel ahohandiak.

- *Etxe ondora txarrikeriak ekartzen!* –marmartzen zen amari mehatxuz abertituko zion:
- Kontuz gero zapoakaitik zer dinonan, etxearentzat maldezinoa ekarri gura ez badon!*

Gauean, bera esne jezten eta ni argiegile, hori zergatik esan zuen galdetu nionean, gutxitan bezalako solemnitateraz erantzun zuen, aulkitxotik zutiturik:

- *Zapoak onean onezko dozak, baina alde egin bajabek, etxe horretan heriotza arraroak gertatuko dozak.*
- *Hemen zelan ez jabek alde egingo, ba* –burlatuko zen, sukaldetik, belarria ukuiluraino iristen zitzaion ama–, *denak heure zurrungekin uxatzen badozak?*

Untzi espazialak ere hasi ziren izartegian biraka, eta, hain eta hain egunetan, Torreburu gainetik pasatuko zirela iragarri zutenean, han geunden afalostean, ortuburuan etzanda, horizonteak miraria noiz askatuko, aita okasio handietako farias puruagaz, ama sukaldean marmarrean, *gizonaren xaxarea astegun buruzurian! horrek emongo deusue zueri jaten!*, eta txakurra ere pozik, obserbaziorako prest, tripodean eserita, nobedadeen gale beti. Izar mugituna agertu zen, bazetorren, parean zen, bazihoan, eta batek esan zuen:

- *Hori hor ibiliko da munduaren hasikeratik.* –Aitak ontzilaria bera bailitzan ihardetsi zuen:
- *Eta zer? Munduaren hasikeratik ibiltzea atzotik ibiltzea baino gitxiago dok ala?*

Ez zeukan ontzilari izan beharrik, edonondik mundua jostailu ikusteko. Ziur naiz, Saturnora iritsi zen lehenengo espedizioan bera joan izan balitz, hots egin izango zukeela: *Joño! Ni hemen izana nok.*

Sumindu zuen bakarra letxada kontua izan zen. Igeltseroa izanik, berak egiten zuen beretzako letxada, iturrian prestatzen eta bertan uzten zuen barrika handi batean, egunean behar zuena hartuz joateko. Behin, iluntze batean egina, hurrengo egunean, lanetik bueltan, nola gogortu zen ikustera joan zenean, erdia hustuta aurkitu zuen, norbaitek osturik. Orduantxe ikusi genuen gizona benetan haserre, denei hankak mozteko erreminta eske. Motiboa entzun nuenean, neuri ere, neure umean, oraindik eskolara hasi berri, mingarri egin zitzaidan etxeari hala lapurretan egitea, eta pentsatu nuen: *Hori neuk konponduko joat.* Biharamun arratsaldean, eskolatik bueltan, amaren ezkutuan, barrikara zegoen metro bat inguruko arrapala erripea labain-labain jarri nuen Chimbo xaboiagaz, lapur irristatua barreneko sasitza trinkoan ehorztera joan zedin. Iluntzean, harro nengoen neurekiko, amak xaboiaren faltarik ez zuela hartu eta. Inbentzioa hain efikaza gertatu zen, ezen aita bera erori zen lehenen, lanetik bueltan iturrira zuzen joan zenean.

- *Nor ibili dok iturrian?* –galdetuz itzuli zen bezperan baino ia amorratuago, sasitzatik irten ezinik ibiliaren seinale guztiak aldean.
- *Neu izan naz* –aitortzera behaturik aurkitu nintzen, ikaraturik.
- *Hik egin dok hori?* –galdetu zidan, amorrutik beste norabait aldatzeko tonuan bezala.
- *Lapurragaitik* –zehaztu nuen burumakur, aurpegira begiratzeko beldurra abarka puntara garai txarrean hurbildu zen xomorro gorri baten gainean mendekatuz, *lehertu hai hi be!*
- *Ondo eginda! Altza buru hori!*

Transfigurazioaren irudi errealagorik ez nuen aurkituko, gerora, ezta ebangelioetan ere, pasarte horretara iristean, beti aitaren letxada kontuaz oroitzen bainintzen, berau ere zuri-zuria, hain zuzen. Bere inguruan, denek jaramon egiten zioten edonora nindoanean, *mutiko hori semea dok?* galdetzen zionari –eta ez zionari– bigarren barbarako esana izango zion: *Bai! Hau inbentorea izango dok.* Eta letxadarena kontaktzen hasten zen, geroz bertsio imposibleagoetan. Izarrei baino tomate landarei gehiago begiratzeko zien amak hots egingo zuen: *Gurean dagoen beste inbentoregaz, nik ez jakiat oraindino zelan ez jakun hegorik egin, urtean txarri zoitor bat loditu ezinik ibili beharrean.* Bistan, muturkera muzintia agertzeko jenio kasik innatoa zeukan amarentzat ere apenas dena ernegua izaten zen, behin baino gehiagotan erreparatu bainion, *gure amari ez ete jeutsak ezerk graziarik egin behar?* kezka gelditu ondoren, buelta erdi eman eta ostean barretxoak ezkututzen. Gure etxeko teatroa bizigarriagoa zen, funtsean, auzoak hilerritzen (inoiz elkar-hiltzen) zituen bista oneko ikusiezina baino. Hil aurreko astean, Basortuko ospitalean, gibel zaharra zatika botatzeari berria egiten aritzearen seinale zeritzon aitak, egun batetik bestera azken berriaren zain geundela, honela hasten zuen gaztelaniaz –beharko!– kartzelara nola-hala eta zekien moduan idatzi zidan azken gutun laburra: “Oye Javi me encuentro mejor que antes el departamento este no parese Ospital parese un teatro todos salen riendo”.

Inbentzioek, hutsetik harakoak zein lehendikoen aplikazioak izan, bakardade osoa eta dedikazio eskusiboa eskatzen zuten. Ez zen baldintzarik errazena, gurea bezalako bizimodu menditarrean ere. Behizain nindoanean, amak ahalegin guztiak egingo zituen tiragomarik edo txirringolarik eraman ez nezan, ziurtzat baitzeukan, haiekin, behiak galduko nituena.

- *Orduan, zertan emon behar dot denpora?*
- *Behizain ez al hoa?*
- *Behizaintza ez da denpora.*
- *Ekiok pentsaketari, hi horretan trebea haz eta.*
- *Ba, pentsakizun zantarrei ekingo deutset.*
- *Heuk gura doanari, behiak bistatik ez galtzekotan.*

Azkenean, txirringola edo tiragoma edo biak eramango nituen, amaren ez-ikusi neuk uste aproposkoan, debeku burlatuaren kezka behizaintzaren obligazio nagusia zorrotzago gogoratuko zidan itxaropenez. Balde edo upel zaharrei (eta ez hain zaharrei) uztai burdinazkoak kendurik (sarritan a zelako aberiak!), alambre lodizko manila bategaz osatzen zen txirringolari, gora eta behera, biribilean, sigi-sagan, asealdi bat eman ondoren, haragoko aplikazioen esplorazioa zetorren. Nire haurtzaroaren distortsio nagusietariko bat ziren aldatsetan (beherantzkoak berehala amaikor, gorantzkoak betikor), aldasgorak aldasbeherekin neutralizatzeke moduren bat aurkitzea zen obsesioa. Banekusen izadiak gorak eta beherak berdintasun osoan banatzen zituela, ez zer beraren kontrako jarraipen gisan bakarrik –*aldasbehera orok aldasgora dakar*–, baizik, inklinazio bat berak bi norantzkoak dituelako. Igotze orok neurri berdineko jaitea. Aldasbehera batek, jarraian, bere antzeko aldasgora zeukan uneen bila ibiltzen nintzen, pentsatuz: *Goitik beherantz dakardan abiadagaz, gorantzkoa bape kosta barik egingo joat.* Hankei euren kontura joaten utzirik, oster,

sekula ez nuen lortzen jaisten hasi izan nintzen kotaraino igotzerik, neure indarra erantsi ezik. *Holan ez joagu ezer aurreratzen.* Laster konturatu nintzen gakoa non zegoen: jausteko beldurrak ez zidan uzten gorputzari osoan jaregiten, hala eginik, hankak jarraitu ezinik geratzen baitziren, eta, horrela, muturrak jakina da non amaitu behar zuen. Laster utzi nion esperimentu horri. Txirringolagaz ez zegoen beldurraren atzerakizunik. Jaurtitzen nuen, ziztuzko abiadura hartzen zuen, baina hau ere, beste aldeko goran, inoiz ez zen kota bereraino iristen, abiakeran sakadarik handiena emanda ere.

– *Joño! Hau zelan dok?* –burua apurtzen nuen–. *Aldasbeherak zergaitik eduki behar jok gorak baino indar txikiagoa?* –Horrela enuntziatuta, ezin nuen formulazioa ondo ulertu.

– *Ez, ba!* –tematzen nintzen–. *Gauzak neuk ulertzeko moduan adierazteko gauza ez banaz, alperrik ari nok.*

– *Horrela, bai!* –lasaitu nintzen, azkenean–. *Igoteak zergaitik izan behar jok gatxagoa, jaistea erraza den baino?*

Harritzen naiz bigarren formulazio horri nola iritzi nion ulergarriago, gaurtik begiratuta, subtilago iruditzen baitzait, tontotzen ari ez banaiz. Zena zela, bistan zegoen zeozer txarto egiten nuela, harik eta, dezente geroago, gora-beheren ez-korrespondentzia hura (orain ez gara grabitatea, marruskadurak eta abar esplikatzeko hasiko, ezta?) fenomenoaren izaieran sartzen zela ikasi nuen arte.

Dena ez zen buru-apurtze antzua, bitartean txakurrak ere aurkikuntza miragarriak egiten baitzituen. Txirringolan egiteko irrikaz oldartzen ginen zelai leun batean, bazen urki gerri-zuri bat, zeinari txiza egiteko amorratzen iristen zen txakurra. Begira egoten nintzen, nola hankatxoa jaso eta buelta guztia zirriztatzen zion, debozio handiz. Atzea jasotzean, baibenak aurrerantz bitxiro bultz egiten ziola uste nuen, ohartu nintzen arte beti une berberean gelditzen zela, handik aurreranzko zirriztadak egoera estatikoan eginez. Misterioa luzaz obserbatu ondoren, ikusi nuen zirriztadaren zirkulua osatzeko unean amaitzen zela beti mugimendua, eta hara non aurkitua zen, ez zirkulua bera, naturan betidanik bistan dena, baizik zirkuluaren kontzientzia, haren marrazketa, alegia, txakur baten buruan.

Tiragomagaz problema nahasiagoa aurkeztu zitzaidan. Zorionez, ez daukat gogoan txoririk inoiz azartatzerik lortu nuenik, txoria, hegoekin bazen ere, bizirik maiteago nuelako edo. Ulertzen ez dudana da zergatik hainbestetan saiaturen nintzen, topatzea kostatzen zen harririk politenak alferrik galduz. Harrien kasuan, politek ere berdin min egin zezaketen, antza. Ez neukan hain apunteria txarra. Zuhaitz-gerririk meheenak aisa jotzen nituen, adarrak lodienak, osterak, nekez. Argindarraren alanbre pareak ere, gure etxeraino luzatu nahi ez zituztelako mendekuz-edo, askoz errazago jotzen nituen euren norabidean, trabesean baino. Halaber, txerri eskegiak. Gabon inguruan, edozein atartetan, han zeuden tripa-zabal, *hau hustualdia hartu dodana!* esanez. Haiak ere, hala bertikalean, errazago azartzen nituen, bizirik etzanda baino.

– *Barrabana! Hi hintzen gure txarriari harrika egin eutsana? Bere ondoan dingiliz egoteko inbidiagaitik ala?*

– *Hilek ez dabela minik hartzen esaten dabe eta.* –Zeozer esan behar bainuen.

– *Ezetz?*

– *Bai, bai!*

– *Ah!*

Belarrien bihurketak gezurra berehala bihurtzen zuen egia. Esperimentua ganora konkludentean egitea pentsatu nuen. Lurrean tente sarturiko makilari, hamarretik bostetan edo

gehiagotan jotzen nuenari, palutik palura horizontalean hain gutxitan ematen nion, ezen, baiezko kasuetan, apunteriari bainoago kasualitateari esleitu behar izaten nion arrakasta. *Zelan izan leitekek hori, makila berbera izanda?* Tenterik trabeska baino zergatik zen azartagarriago azaldu beharrik ez dut izango, ezta? Misterioa nabarmentzeko, aurritzia amaigabeki errepikatzen nuen, *makila ber-ber-ber-ber-ber...bera*, argitasunik ez bazen, soinu-joko bat asmatzeko, behintzat, ez baitzegoen *ber-ber-ber* horretan luzaro jarraitzerik, mihi-trabaren bat sortu gabe. Hormara apuntatzen banuen ere, emaitza beti zen puntu jo bat. Ezinezkoa zen, inola ere, puntu bat jotzetik apartatzea, begiak itxita jaurtirik ere. Puntua aurretiaz hautatzen banuen, ostera, inoiz ez zen azartatua gertatzen. *Hau zelan dok? Puntu aurreikusia eta puntu erresultantea zergaitik dozak inkonpatibleak?*

Hitz arruntagoekin, horrelakoxe buru-korapiloetan korritzen zidan denbora sorginak, behi galduen gomutak beste paralelo batera saltarazi arte. *Hemen zagoze? Barrabanok!* Haiiek eta denok, bakoitzak ahal zuena egiten genuen, erarik intuitiboenean, hots, premia primario batzuen arabera. Hauek guztiak prolegomeno sarritan frustratuak besterik ez ziren, ondoren zetozen garaipenei bide emaile. Futbolarien eta txirrindularien albuma noizbait ere bete ondoren (kromoak pilatzeko, jeneroak erosi behar ziren, eta hori ez zen eguneroko ogia), haien balentriak heroikoki gaudituko nituen, jenio sadikoak eman zidala pentsatzeko moduan, tximeleta bat orratzean josirik, espezie osoa akabatzen duela pentsa lezakeenak bezala. Kromo bakoitza fetitxe bat zen, kirolari haren egintzak lotsagarri uztera kinatzen ninduen. Ez nintzen konformatzen orduan ere lasterketarik garrantzitsuena zen Frantziako Tourra erarik espektakularrean irabazteagaz. Nire ahalmenen neurriko zerbait antolatu behar zelarik, Mundu Itzulia abiatu zuten, talde guztiak neure kontra jaurtiz. Nik bakarrean korrituko nuen, aszeta bakarti gisan (espiritua ere komeni zen sartzea, Jainkoak bere kontrako desafiotzat har ez zezan), ezein talderen babes gabe. Are gutxiago orduko ekipo 'nazionalik'. Abiatutako taldeetarik batek ere ez zuen probarik amaitzen, eta lehia-itxura bat izan zedin, bidean inkorporatzen ziren talde freskoak ere, azkenean, denak arrastaka iristen ziren Parke Eliseoetara, nik, zapuzturik, galdetzeko:

– *Itzuli bakarrera al zen?*

– *Mundua zer dela uste dok? Lortu dok bazterrak txunditzea. Ez jak komeni denak ezereztea, hurrengoan ere, balentriak egin ahal daiazen.*

Hartarako fletaturiko tren berezi eta amaibako batean iristen nintzen Zornotzara, beti Durango aldetik. Bilbotik etortzea baino gurago nuen Bilbo bertara etor zedin, mundua bera zela uste bazuen ere. Trena astiro-astiro zetorren, bidean bi aldeetako jendetzek, zapi astinka eta goraka, trenbidea jan behar zutela. Batzuetan, distantzia behar nuen, arnasa hartuz batera, zurrumbilo erogarri hartaz osotasunean jabetu ahal izateko. Gure jaiotetxe aurreko landatik, haran sakona zeharkatzen ikusten ohituta nengoen tren txikien ibilbideak (gure etxetik, munduan mugitzen zen guztia zen txikia) abalantxa eskatologikoa zirudien, oraindik hitz beldurgarri hori zer zen ez nekiela.

Behin trenean harreragai, behin menditik ikusle nintzela, unerik apoteosikoena azken geltokiko jaitsiera izango zen. Une horien laburtasun fatidikoak, ohargabetasun haluzinatuak, ez zuen niretzat axola, nahi adina bider berrituko bainuen apoteosia, komeni zen unetik hasita. Kirol edo balentria kolektiboak ez zitzaizkidan hainbeste interesatzen. Garaipen indibiduala, eskusiboa behar nuen. Futbola ez nekien nola egokitu neu irabazle bakar izateko modalitatara, harik eta atezain jartzea deskubritu nuen arte, errealitatean sufrimendurik gehien ekarri ohi zidan postua bera. *Nora begira hago, buruhaundi hori? Ez dok ikusten baloia nondik datorren ala? Hurrengo golean, kaka moltzoa iruntsi beharko dok.* Oraingoan, ostera, bi taldeek erotu behar zuten nire atea zulatu ezinik, Zornotzako Urritxe zelai gainezkatuaren zoramenerako. Eskolatik etxerako edo, geroago apaizgai, eguneroko mezatik itzulerako aldasgora madarikatuak airean igotzen nituen, pentsakizun

triumfal horien gainean, zeintzuk ez uste ume edo nerabe fantasietan amaitu zirenik, gaztaroa ere dominatu baitzuten, txupetearen bizioak, moztu ezik, urteetan jarraituko lukeen moduan. Bakarorduek berdin zerraiteno, ez neukan bizioaz gabetu beharrik, harik eta errealtatea bera hasi zen arte pentsaketagaz bat egitera ukatzen.

Ez nintzen batere harritu, apur bat bekaizten banintzen ere, hamazortzi urte nituela, ikaskide batek esan zuenean berak uraren edakerari nahi zuen zaporea hartzen ziola, garagardo, txokolate, limonada, esne, paitar...

– *Paitarra be bai?*

– *Baita.*

– *Ez haz mozkortzen?*

– *Mentalki bakarrik, ez fisikoki.*

– *Hori dok subertea!* –esaten nion sinesgogor plantan–, *handiagoak eginda najagok ni* –pentsatuz.

Espiritutasunean esperientzia mistikoa, edo metafisikan ‘izatearen esperientzia’ (neu ere sentitzera iritsia nintzen sentazio absurdoa) bezalakoak aipatzen zituztenean, nik banuen, neure baitan, erreferentzia sakonago eta emankorrerago bat, non pentsatua gertatua bezain egiazkoa zen, abantailagaz ezen errealtate distrahitzailan baino askoz kontzentrazio eta, beraz, gozamen handiagoa lortzen zela, emozio, dardara, malko eta errealtatearen alde sentigarri guztiekin. Meritua ez zen, noski, neurea, bakardadearena baizik, zeinak, pentsamenari korritzen uzteko mugarik ezagaz (horixe izan zitekeen nire meritua) eta gose-puntu etengabe baten zolitasunagaz (hau ez dakit noren meritua zen), pentsatze-gertatzeen konbinapen guztiak moldatzen zituen, inbertsioak barne. Ez dakit pentsaketak errealtatea benetan ekoizten zuen, baina sentipena hain zen erreala, ezen kasik hobe zen errealtaterik ez existitzea, nondik ateratzen baita pentsamena errealtatea baino efektiboago izan daitekeela, hura ordezteko ergelkerian jausten ez deno.

.....

Oizen hamalagarren eguna. Jaikiera arrunta, egoera berria guztiz kantzelatze modukoa, baldin, etxetik irteeran, ostrukak atartea betean aurkitu ez banitu, txakurra, euren zango artetik, eskiatzailea seinaleak saihestuz bezala, gerrira saltatzera datorrela. *Egun on, lagunak. Horrela dela uste al dozue?* Ostruken buruek eta txakurraren mihi-belarriek *zelan izan behar dau, ba?* galdetuz begiratzen didate. Ez dute *zelan da, ba?* galdetu, azalpena hartzeko prest, *zelan izan behar dau?* baizik, beste posibilitate guztiak errealtatea bortxatzea bailiran. Ni, egia esan, ostrukek sukalderraino sartzeko darakusten prestasunaz eta txakurrari hori permititzeko ageri zaion alegrantziaz ari nintzen, munduko jaunbakartasun bestela ere nahikoa kontzibiezin hau territorioaren galtze osoaren paradoxak erremata ez dezan. *Horrela bada, horrelaxe egingo joagu.* Ostruka bati gainera igo eta artean ezein kixoteri bururatu ez zaion moduan abiatu naiz mundu berri bila, beste ostruka guztiak inguruan. Zelai barrenetik buruak ezin gorago begiratzen zuen behoraldra alertatua ere segiziora dator, irteera definitiboa begiztatu balute bezala, ez dakit hemendik irtetea zertarako interesa litekeen baina. Txakurraren lasterketa zoroki eragabeek, mundu elektrizatura aska berri batenak diruditenek, ez dute orotasunaren ordena kasik hipnotikoa hausterik lortzen, izerdi haritxoek Herkulesen paparra baino gehiago. *Goazen mendi gailurrera.*

Bide zatitik zatira, ostruka aldatzen dut, ez hainbeste naramana nekatu delako, besteek txanda nahi dutelako baizik. Benetan ere, ostrukekin, gizakien gomuta gabe bizi daitekeela ematen du. Bidean sakabanaturik aurkitzen ditugun beste animaliak, larrabehiak, ardiak, zaldiak, astoak, zalantza-une tentel batzuen ondoren, segiziora batzen dira (ahuntzen prestasunak harritu nau gehien), euren Jesusen Bihotza naizelakoan edo. San Kristobalen baselizara iristean, azkenengo

ostrukatik jaitzi eta, zelaia beteko faunari sermoia egin beharrean, agindu soil batzuk aldarrikatzen ditut.

– *Hemendik gora, bakarrik joan behar joat, gailurrean ez baikara denok kabituko. Bata-besteari bultzaka ekiteko, leku arriskutsua jagok han. Hobe izango dok neu bakarrik igotea, eta nobedaderik balitz, bueltan neuk ekartzea. Ez, ez! Ez nok beste aldetik jaitziko, handik be harriak ez dozak azukrezkoak izango eta.*

Uste dut denek ulertu dutela dena, mezutik ez bazen keinuetatik, batzuek azukrea baino gatza gurago izango zuten baina, euren asabek Maumako mirarian ondo erakutsi zuten. Hala ere, animaliak lasai gelda daitezten, gauzak ondo azalduta uztea bezain garrantzitsua da ihes egin gura duzula eurek ez pentsatzeko moduan joatea. Orduan sen poliziala piz dakieke, era inteligenteagoan bada ere. Motxila bizkarrean eta makila eskuan, azkenengoz *egon hortxe!* hots eginda abiatu naizenean, begirada masal eta apur bat lastimaberan gelditu dira. *Zeren bila joan leitekek gizona zeru hutsa besterik ez dagoen lekura?* Animaliek zerua beti hutsik dakuste. Horrexegatik begiratzen dute hain gutxi bertara, eguraldi aldaketa usnatzeko ez bada. Haraxe noa, ba. Beharbada, neure sentipen txarto osatu bat baizik ez da izango, umetan aldasgorari hartu nion abertsioagatik. Aginduen ulermenik oraindik garatzeke dirudien ahume txilibrin bat txakurrari jarraitzen saiatu da, zeinak ere (txakurrak) denentzat emandako aginduak era ez alusiboan hartzen dituen beti, bere burua giza espeziean integraturik kontsideratzen duelako edo.

Oizko gailurrean, gandor luzagura baina apurka beherakorrean, parke eolikoko errota lerroaren gurutzeek biraka darraite, obrak gizakiaz harago bizirauten duen seinale gisan baino gehiago, *hemen ez da ezer gertatu* aldarrikatuz. Sinetsi egin diet, komeni zaidalako bainoago egia ederra dirudielako, hori ere baliteke komenentziaren modalitate bat izatea baina. Iparretik Kantauri, hegoatik arabar eta nafar mendiak, ekialdetik Frantzia urruneko itsasertzak, mendebaldetik Kantabriako gailurrak. Euskal Herri osoa abarkatzeko, Erribera bakarrik falta zela berriz hunkituki konstatatzen ari nintzela, pentsakizun batek ez dit golkoa zartatu, bihotzak amortiguatzen joateko jenialitatea izan duelako, taup, ta-up, ta-u-p. t-a-u-p... *Zer zentzun jaukak orain 'Euskal Herria' deiturak?* Bizi guztia Euskal Herriak euskaldun gabe gelditzeko arriskua zeramala aldarrikapen minean eman ondoren, hona, orain, banaizela euskaldun, eta ez dagoela Euskal Herririk.

– *Espainiarik eta Frantziarik ere ez, notejode!*

– *Ah! Horrek okerra dezente biguntzen jok.*

Ez daukat premiarik berriro sentimendu kontradiktorioen borrokan korapilatzeke. Bira guztiko ikuspegi-maparen eta neurek ere tarteko behar duten mendi-mezuen postontziaren kontrara eserita, solomo gorria zahato beltzaren ondotik askatu dut, ahora turrusta inbertituan oldartu den txistuketak berriro non hobeto elkartuko diren dudarik uzten ez duela. Lehenengo zatia txakurrari, eskutik lotsa gabe kentzera arriskatu gabe, partea izango duela ikusteak lasai dezan. *Ederra jagok dena. Eztok, Ernai? Dena esan joat, eztok? Ba, dena! Orain, habil hortik, beste nor bategaz berba egin behar joat eta.* Erabaki horrek zahatoaren goraldi luzea eskatzen du, ez kuraia hartzeko, normalean bereiz ibiltzen diren ideiak elkarrengana hurreratzeko baizik. Zurrutak ideiak nahasten dituela, baina bai pilatu ere. Pilakuntza hori gustatzen zait, gero bereizten gozatzeko, bai baitakit hortxe daudela. Izorrantea bestea da, eremu okzipitala hutsik aurkitzea. Nire ideiak hortxe biltzen dira, argi baitago, bekokia ukabilkatzen dudanean, bertara erakartzeko barik (ez litzateke modu atraktiboa), atzerantz botatzeko izan behar duela. Ideiaren bat gogoratu edo osatu ezinik nenbilenean, zerbaitegatik ekiten nion garondoari hazka, azala ez urratzeko, atzazalak janik. Erremedioa gaitza baino okerragoa zela ikusirik, adatsari luzatzen utzi nion, eta orain, mototsari tiraka harrapatzen dut eskua (beste eskuagaz, jakina), eta ideiei on egiten diela sumatzen dut. Beraz, inguru horretantxe daude nonbait.

Dedukzio arin samarra eman lezake, baina argudio makalagoekin ateratako hamaika egiak gobernatu izan ditu pentsamenduaren mende luzeak.

Zeugaz berba egin behar dot, Jainko orolekuko, biok buruz buru geratu garenez gero. Mendi tontorrak lehen be sarri hautatu izan dozuz, gizateria gaixoari zeure presentzia durdigarria sentiarazteko, altutik jaitsi arren, altueran gelditzea maite dozun horrek. Aurrerantzean, ezer adierazo gura badozu, neuri errebelatu beharko deustazu. Ez nator zure gogo ahalguztiduna presionatu guran. Lehen, nik zuri zuzenean hainbeste bider berba egin arren, gurago zenduen nigaz bitartekoekin tratatu. Gaur be ez daukazu nigaz ezelako zorrik, zeure isiltasun esentzialean jarraitu gura badozu. Neu naz berbalaguna behar dodana, berbetan ahaztu ez dakidan. Baneban gogo zuri gauza batzuk astiz eta adeiz esateko, zure aldetik ezelako epai obligazino barik. Badakizu neuri be ez jatala zu epaitzerik gustatzen, besteek zugaitik esandako ganorabakokerien haritik.

Joera hori (Jainkoa maiseatzea) antiapologia ugerra edo literatura txotxoloa begitandu izan zait beti, bere ez-existentziaren arrazoiak existentziarenak bezain inkonsistenteak zirela konturatzen hasi nintzenetik, diferentzia bategaz ezen, existentziaren kasuan, abantaila infinitu baten alderantz jokatzeko bitartean, ez-existentziaren frogak ez zen ikusten zertarako balio zezaketen.

Hori guztia, jakina, ez zegotzun zuri, gure espekulazinoetatik harago zengozen Jainko definizioz horri. Ulertzekoa da zuk eztabaida hareetan sartu gura ez izatea. Edo ezin izatea, ezagueraz beste guztia paralizatu jakonaren moduan, zeinak, bisitari errukiorren istripu-bertsinoak zelan geldiezinki deformatzen doazen entzun arren, ezin dauen gertaeraren izate txit sinplea azaldu. Izaki kontingente bategan, zeure infinitutasuna zuzenean ulertarazteko hizkuntzarik ezin zenduenez txertatu (ahalguztiak be sorkuntza kontradiktiorik ezin daueka burutu esaten genduen), bitarteko bidez eta, beti be, seinale-sistemaz komunikatzen saiatu zinen, gerra modernoetan legez. Kontradikzioak, ostera, bardin zerraien, bitartekoak be kontingenteak baitziren, azkenean, misterioa misterioari gehituz, hots, misterioak misterio handiagoekin esplikatuz, denak bitartekoen eraikuntza emoteraino. Ez zen isilik egotea erabagi zenduela, zure uhin frekuentzia gure harmenetik esentzialki at zegoela baino. Infinitua zinela bakarrik genkien, infinitua zer zen ez genkiela. Zuk badakizu ni, umetan eta nerabetan, sasoiaren berezko irudimenaz baliaturik, benetan ahalegindu nintzela infinitua irudikatzen, gero zu harexen arabera maitatzen ahalegintzeko.

Hamaika urtegar komentura sartu nintzenetik, eguneko ordurik gehienak isilik egin behar baitziren, ez zen zaila pentsaketa transzendentean nabigatzea, non internetean baino hobeto orientatzen nintzen. Jainkoa neurrigabea zenez, neurri gabeko zerbitzua eskaini behar zitzaion, baina hori esentzialki ezinezkoa zenez, geure neurritasuna toperaino luzatzen ahalegindu behar ginen, beti ere, koska bat harago iristen tematuz, lorpena infinitua ez bazen, presioa, behintzat, mugagabea izan zedin.

Eta zuk, ene Jainko, badakizu horretan benetan saiatu nintzena, zure onarpenaren seinaleztat lebitazinoa sentizeraino, grabitazinoaren etenak ez dakit grabitazinoak berak baino duinago zergaitik izan behar dauen baina.

Infernu eta halako betiraun makabroekin ere izutzen gintuzten, baina neuk, egia esan, lantzean irudimenezko dardara batzuez harago, ez nuen beldurrik barneratu, segurrenik, neure burua sekula ez nuelako infernugai ikusi, nahiz eta oporretan aitari sutsuki jarkitzen nintzaion, infernua dibertsiotzat hartzen zuela igartzean.

– *Ikusiko dozu, zeu bertara zoazenean, betiko!*

– *Horixe gura joat, ba. Betiko izan!*

- *Kondenatuta?*
- *Ezebeza baino hobea izango dok horixe be.*
- *Asko dakizu zuk ezebeza zer den!*
- *Jakingo ez joat, ba? Heuk be bai, seminarioan indezinoa hartuta ez bahentor. Lokartzetik itzartzera, zeren gainean ailegatzzen haz?*
- *Ezeren gainean be ez.*
- *Haor, ba! Horixe dok ezebeza.*
- *Ez dozu esango ezebeza zeozer dela, ezta?*
- *Orduan, zelan itzartzen haz?*
- *Orduan, zergaitik dinozu inpernua gurago dozula ezebeza baino?*
- *Inpernuan lokartzerik ez dagoelako.*
- *Irabazi zerua! Ala Jaungoikoagaz ez dozu egon gura?*
- *Jaungoikoari utziok bere lekuan.*
- *Haren lekua sukalde hauxe be bada.*
- *Esneak alde egiten dauenean be bai?*
- *Baita esne errea bera be.*
- *Esne erreak sugea zorabiltzen jok. Jaungoiko kapritxosoa ikasi dozue gero!*
- *Jaungoikoa ez da ikasten.*
- *Ikusi be ez dok egiten!*
- *Nabaritu bai.*
- *Badakik zer nabari dodan oraintxe? Porru-patata usaina. Hemen beti jagok afari bardina, Jaungoikoa bera lakoa.*
- *Zu, azkenean, joan egingo zara inpernura.*
- *Eta dena teatro ipiniko joat.*

Neure eginahal guztian, ez nuen lortu aita inoiz Jainkoaz benetan mintza zedin. Edo solasa aldatzen, edo gaia fantasiara lerratzen zuen.

Eta zuk, ene Jainko, badakizu benetan nenbilena, hamalau urtegaz mortura alde egin neban opor hareetan bezala.

Aspalditik nerabilen buruera, Jainkoagaz aurrez aurreko bakardadean aurkitzekoa, egin niezaiokeen neure buruaren eskaintzarik gorenean. San Joan Bataiatzailea matxinsaltoekin elikatu ei zen mortuan. Jaki hura dastatzen saiatua nintzen, arrakastaz behin edo behin, ezen ez gozamenetz, neure aurpegi-zinu desfiguratuarekin txakurra izutzeraino; hain uzkuriturik urruntzen zen gizarajoa, isatsa hanka artean zeramala. Hemengo matxinsaltoak txikiak ziren mortukoaren aldean. Beraz, marisorginak eta sugandilak ere jan beharko ziren, erbirik ehizatzeke gauza ez banintzen. Dena zehazki prebenitu gura izatea, oster, Jainkoaren probidentziagazko mesfidantza iraingarria izango zatekeen. Ni zergatik babestu behar ninduen gutxiago, ezer erein gabeko txoriak baino? Amaren gogoia ere, apurka-apurka, preparatzen joan nintzen, soro-lan gogaikarrietan esaten niola:

- *Ni laster Bizkargira noa.*
- *Bizkargira zertara?*
- *Bakarrik bizitzera.*
- *Beharrari eskapatzearren, edozer asmatuko heunke hik.*
- *Ez da beharrari eskapatzearren!*
- *Zer dok, ba?*
- *Laster ikusiko dozue.*
- *Han zer janda bizi behar dok?*
- *Topatuko dot.*

– *Ez haz urrun joango.*

Bizkargi, neure jatorri mendia. Amaren burlaizeak eta, batez ere, sinesgogorkeriak ernegua ematen zidan, eta jada urguilu-kontua ere bazen Jainkoaganako entregu-gogoa adina, bi motibazioen artean eguna atzeratuz zeraman beldurra gainditu zuten arte. Askari-afaritzat otarteko doblea egina nuen arratsalde batez, behi eskuina jada loturik, eusten ari nintzen uztarrarian amak behi ezkerria sartu zuenean, berau erdi solte utzita ezingo zidala jarraitu jakinik, esan nion:

– *Oraintxe banoa, ba, ez dozu sinistu gura izan baina.*

– *Etorriko haz hona, asmuontzi zirin hori?*

– *Jakingo dozue nire barri.*

Jarraitzen saiatu zen txakurrari atzerantzko agindu solemneak eta amak beretzat ulertzeko moduko mehatxu eskatologikoak jaurtirik (*ni jazartzen ahalegintzen denari damutuko jako betiraun guztian*, eta halakoak), pinadian behera ezkutatu nintzen, Autzagane mendatearen ifar aldearen kontrako lamia-osinerantz. Bidaldi bat eginik, eguzkiaren jausiera bihozberagarria hautematen zen pinadi gazteko bizkarrune batean, hamabost misterioako arrosarioa, bizi guztiko intentsoena, belauniko errezatu nuen, harkosko eta sustraien mina penitenteki pairatuz. Eguzkia ostendu zenean, bihotza ikara guran zebilen.

– *Hauxe da benetako ordua! Hona, Jauna, zure zerbitzari apala –esanez eusten nion.*

Gautu zuenean, bihotzak ez zuen obeditu nahi. Bere ikara-dardarak gorputz osora zabaltzen hasi ziren. Zeruko biziliar guztien azpian, beste hamabost misterioako arrosario bati ekin nion, zeinaren azkenean, gauerdian aldean (uda zenez, berandu iluntzen zuen), izua bere kabuz jaiki eta bere kabuz abiatu zen etxerantz, ezarian baiarian, paparrerainoko irak ez igartzeko moduan bidea zabaltzen zuela. Jarraitu egin behar izan nion, ilargiak atzean uzten zituen argi-tarte burlosoei lantzean begirada iheskor bat ('derrotatua' krudelegia litzateke) bidaliz.

Ez dago esan beharrik zer burumakur sartu nintzen aita-amak, afaldurik, zain zeuden sukaldean, aitaren mehatxuari: *Barriri holakorik egiten badok, Bizkargira baino harago joan beharko dok*, amak eransten ziola: *Jaungoikorik ez al dok topatu?* Beti alderantziz ohiturik, aitak serio eta amak tentalari hartzen ninduten uneei sekula ez nuen ikasi zer interpretazio eman. Seguruena isiltasuna zen, burua ia mahaipetan, muturra hankartetik altzora zeukan txakur eskertsuari azkura eginez. Tentatzeko bainoago apalarazteko, amak jarraitu zuen:

– *Afalduta etorriko hintzen!*

– *Nik ez dot afaririk behar.*

– *Dena ez dok galtzea izan, orduan.*

Ez zen izan, ez. Eraman nuen otarteko doblea osorik zegoen golkoan, hartaz ez bainintzen gogoratu ere egin. Baina amak puntada hori bota zidanez gero, ezer probatzeke oheratu nintzen, beldurti bezain urguilos. Goizaldean, nahigabeak edo goseak iratzarrik, balkoira isil-isilik irtenda, maukaldi errukibakoa egingo nuen lukainka pare usaintsuagaz (*amak igartzen dauenean!*), gaineko ilargiaren eta azpiko txakur (*egongo haz isilik!*) bekaiztuaren erdian.

Badakit sinistu zeunstana, ene Jainko, eta, seguruenik, zeuk bialdu ninduzun etxera, nire izango errukarriaz aurrepenaturik.

Gero, Jainko txit urrun, ulertezin eta, batez ere, inprebisible haren gainera, Jainko pertsonala, hurbila, ia geutarra etorri zen. Aita eta lagun.

Orduan, Jainko laztan hori, apur bat abusatu egin neban zutaz. Pekatuzkoak ei ziren pentsakizunei laster emon neutsen askatasuna, banekien zu halakoen konturik hartzeko bezain txotxoloa ez zinena izango eta. Zeuk emoniko pentsamena zertan erabili neikeen, osterantzean, barbarik egiten be uzten ez baeuskuen? Badakizu, errezuak eta behar ziren guztiak mukuruz betetzen nituen arren, denpora piloa sobratzen zela. Itauntzen neutsun: “Zelan dabil urlia neskaxoa, zeuk hain polit egin zenduena?”. Zure irribarreak eta nire kili-dardarak bat egiten eben, erregutzen neutsunean: “Baina ez esan inori!”. Banekien zu horretan isilkide inkondizionala zinena, seminarioko sekretuak eurekin partekatzen nituen lagun txit bakanak baino areago.

Abusua gehitzen joango zen, ezaguera ere nagusitu ahala, Jainkoaren sentiera pertsonal haregazko alderantzizko inkongruentziak agertu zirenean. Jainko infinituki aseegin batengana eskusiba absolutuan makurtzen saiatzea arrazoizko izan bazen, zer zentzu zeukan orain, aita eta lagun bati, halako dependentzia obsesiboa eskaintzeak? Jarrera hori irain sakrilegoa zatekeen haren pertsonatasunarentzat. Behin gogo-zuzendariari esan nion:

– *Aita! Niri ez deust urteten Jainkoari aita-aita-aita, edo Ama Birjinari ama-ama-ama hainbeste bider esaten ekiteak, arrosarioak eskatzen dauen moduan. Konparazino mundutar samar bat parkatzen badeust, zer leritzoke berorrek ni lako mutil batek bere neska-lagunari maitezaitut-maitezaitut-maitezaitut berrogeita hamar bider jarraian esateari? Oraindino, ‘pater noster’ esatea, tira, azken batez, berba arrotz eta guretzat inespresiboak dira eta. Baina ‘aita’ edo ‘ama’, behin edo birritan, benetan sentiturik esanez gero... Nik uste dot Ama Birjinak higuinduta egon behar dauela. Gure amagaz holan hasiko banintz, belarrondokoa seguru letorke, eta aitagaz, zer esanik be ez.*

– *Baina, seme! Jainkoa eta izaki zerutarrak ezin doguz literalki geure modukotzat hartu!*

– *Orduan zer dira? Gu baino eskasagoak?*

Jainkoa sentikortzen, maitagarritzen, hitz batez, pertsonatzen saiatzen zen aita konfesorea argumentu gabe aurkitzen zen, ez baitzen kontua, altuera hartan eta berak beti ostentatzen zuen jarrera ulerkorrean, *neuk agintzen dodalako!* bezalako arrazoietara itzultzea. Nik, arrosario denboran, irakurketa espiritualerako askatasuna gura nuen, batez ere, biblia, salmoak, San Agustinen *Aitorkizunak* eta abar euskaraz eskuratzen hasi ginenetik. Azkenean, diskrezio zorrotzeko eskariz eta halako konturik inori ez aipatzeko tratuz amaitu genuen ‘harreraldia’ esaten zitzaiona.

Beharbada, ene Jainko, lartxo baliatu nintzen zutaz, baina pozik eta loriaturik sumatzen zindudan, Adanen eta Ebaren, hots, zeure lehenengo hizkuntza izan zen euskaran elkar ulertu geinkeelako. Komuntasun horretan oinarriturik, laster heldu ginen hizkuntza bera irakurketa espiritual bihurtzera, euskaraz ez baitzegoen, egon be, aukera profano handiegirik. Horretan ez dot uste hainbeste abusatu neutsunik, zeuk be gozatu egiten baitzenduen euskaraz irakurtzen. Beste kontu bat zen permititzen zeunstan barne askatasun kasik zeu baizen mugabakoa kanporantz be ahalik gehien gauzatzen ahaleginduko ete nintzen, neure segurantz eta zure ohorea larriki konprometituz. Gogoan daukat zelan agiraka egiten zeunstan: “Ezin al haz kuriosoago ibili, karrera amaitu arte, behintzat?”. Horretan uste dot apur bat baino gehiago be tiratu neutsula, esaterako, indiziplina handiegietatik onez urteten lagundu eragiten neutsunean, gaixo-planta eginez, ohean geratu eta komuninorik eskatu ez neban Eguen Santu haretan legez. Badakizu nire gogoia, ohetik jagitzerakoan, benetan gaixotzen zela, eta omisino haren larritasuna (noiz eta Eukaristia sortu zen egunean, komuninorik eskatu ez!) neurtzeko gauza be ez nintzela. Oraindino ez dot ulertzen zer mirari egin zenduen, etxera bialdu ez nengien.

Kontradikzio eta, batez ere, arbitrariedade handiei bide ematen zien Jainkoaren ulerkerak pertsonalista hura laster hasi zen indar orokor eta zehaztezin baterantz lerratzen: izaki orozgain-orozarneko bat, unibertsoaren printzipioagaz, esentziagaz identifikatza zehazteko. Zer zen printzipio hori, esentzia hori? Erabile ororabakidun hori? Halako zer hain atxikiezin, hain ulertezin, hain izendaezinari ipini genizkion izenak, ezen ez baitzuten ezer adierazten. Unibertsoaren ‘printzipioa’ edo ‘esentzia’ izendatu genuena berdin dei zitezkeen hutsune, putzune, surtauts, morokil zein telepizza. Ulertezina ez da hitzak aldatuz ulergarritzen, izarrak ugalduz espazioa betetzen ez den bezala; edo, konparakizuna bezain konparatzaile misterioitsuak saihestuz, ilargia harrapatzerik errazten ez den bezala, haurraren eskutxoak multiplikatu. Egia da, bitarte abismal horixe zubitzeke, hain zuzen, Jainkoen Semeak edo Hautatuak inkarnatu izan direla, Nazaretheko Jesus, esaterako. Baina izaki absolututik izaki kontingentera dagoen kontradikzio kognitiboa ez da argituko bera baino bitarteko ulertezinagoak ezarriz. Azken batez, ezintasun bat, bere hartan, mirakulu baketsua da. Auzia konplikatzen duena bestea da: esplikaezina esplikatzen nahia, ez, berez esplikaziorik ez daukalako (beharbada bai, beharbada ez), adimena ezgai delako baizik. Ulertzeko moduan esanda, misterioa azaltzea baino gauza errazagorik ez dago. Nola badakizun denek badakitela ulertezina dela, ez daukazu ezer ulertarazi beharrik. Zaindu beharreko bakarria duzu, norbaitek ulertu duela aldarrika baleza (denean izaten dira argiontzia inpekableak), erratuta dagoela ohartaraztea. Baietean tematzen bada, Jainkoari barkaezinen zaion superbia intelektualaz sala dezakezu. Hala ere, bereari atxikitzen segi baleza, gizalegeak artean kostata eutsarazi dizun argudiora jotzea besterik ez duzu. Popatik!

Honeguz guztiagaz ez ditut, noski, Jesus nazaretharra bezalakoak arbuiatzen. Beharbada, ilusotzat bai, baina farsantetzat jo ezin ditugun haiek ahalegin jatorra egin zutela dirudi. Gutxienez, mitologia deigarria eta literatura txit ederra sortu zuten, ‘negarrezko haran hau’ eramangarriago egiten askori lagunduko ziona. Ez zaizkit gustatzen ahalegin zintzoen isekan edo minimizazioan oinarritzen diren literaturak, ez, noski, arrazoirik edo eskubiderik ukatzen diedalako, baizik literatura agian ez txarrak, baina bai txotxoloak direlako, hortik dabiltzan ebangelio moderno batzuk bezala. Gurutzearen edo Jainkoaren izenean burututako krimenek ez dute itua huts egiterik justifikatzen. Ezpatak, gurutzea ez bada koroa, fedea ez bada legea, Jainkoa ez bada demokrazia, beti aurkituko du lepoak mozteko arrazoia. Gizakia da salatu behar dena, kasuan kasukoa. Hari jarki behar zaio zuzen, hainbatago zenbat kontzeptu gurenagoak exhibitzen dituen.

Existentzia ukatzen eutsuenak be obsesionatuta zebilzen zugaz. Ridikulu samarrak gara, ezta? Ergel samarrak, orduan? Oh! Motzak soilik. Barrena lurrez harturiko ganbelan utzi dozun satorra legez. Beharantz zulatu ezinik akabatu da gizajoa, goi guztia libre zeukala konturatzeke argitasun faltan. Argia goitik sartzen jakon, ba! Gizaki artean, horrelakoxe zerbait egon behar dau. Elkarri berba dagiogu, baina frekuentzia inkompatibletan. Beharbada, Jainko ahaltsu hori, ez zara izango zinoeen bezain isila. Beharbada, gauza guztietan diharduzu berbetan. Ez naz nor hori ukatzeko. Bakarrik dinot nire tinpano zintzoak ez dauela ezer jasotzen. Bardin deutso. Niri ez deust ardura bazaren ala ez zaren, baten bategaz berbetan nabilela sentitzen dodan bitartean. Zeuk be beharko dozu nonor, kontzientzia izan daizun, ze, Jainkotzat adoratu zaituenik ez bada, zertarako balio deustu jainkotasunak? Neu be hasi naz zentzumbakokerietan, ezta? Zer egin behar dot? Isilik egon, zutaz ezer ulergarrikerik esateko gauza ez nazelako?

Jainkoaren ideia unibertsoaren espiriturantz hurreratu ahala, ohartzen zara ez dagoela zer pentsatu handirik, berdin ulertezin baita unibertsoa eternala zein tenporala, hasieraduna zein hasieragabea. Berdin pentsaezin baitzaigu espazio mugatua zein mugagabea. Izorranteena ez da berdin ebidenteak izatea Jainkoaren existentzia zein ez-existentzia, baizik, baterako zein besterako, argumentu berberak balio izatea. Jainkoak mundua hutsetik egin zuela? *Hankak non arrimatuta ibili*

ete zoan, ba! Ez zuela hutsetik egin? *Orduan, zer jeukaan egin beharrik?* Diogun Jainkoak egin zuela eta kito.

- *Baina Jainkoak zer egin eban jakiteko, norberak be apur bat jainko izan beharko jok, eztok?*
- *Apur bat? Ba al dago Jainkoaren apur bat izaterik, osoa izan barik?*
- *Badakik zer? Ez adiorik, eta bizi ernegatu barik.*

Konklusio horretatik ez dugu ezer aurreratu, tximinoa zuhaitzetik lurrera jaisten edo lurretik zuhaitzera igotzen hasi zenetik.

Ai, gure Jainko, bat eta bera nahiko! Espezie ridikulu samarra gara benetan.

Hutsuneak betekuntza, insatisfakzioak aseuntza, gabeziak hornikuntza nahitaezko duela pentsatzea alderantzizkoen derrigortasuna bezain gratuitoa litzateke. Izaki absolutuaren eta kontingenteen koexistentzia suposaturik, ezen ez ulerturik, izakien iraupen eternala bezain bidezkoa da izakien errelebo eternala, kontzientzia barne. Edo espezie kontzienteen estintzioa. Zergatik legoke Jainkoa obligaturik, izaki batzuei, adimendunak direla-eta, betirauna zor izatera? Horixe baita gakoa. Ezin dugu irentsi hasiera bat izan zuela ukatu ezin dugun nitasunak –oroimena abiatu zitzaigunetik burua galdu arteko edo hil arteko berberatasun gardena, totala, dudagabea sentiaratzen digun kontzientzia horrek– azken bat izan dezan. Funts-funtsean, hitz fatidiko bat dago: heriotza. Horrexek damaigu larritasuna, baita pena paradoxala ere, sarritan hain suizidagarri iruditzen zaigun bizitza hau amaituko delako. Zer izango ote litzateke hizkera utopikoan hainbeste bider inbokatzen dugun zorionera hurreraterik lortuko bagenu? Horra, ostera, alderantziz indartsuago izan litekeela: zenbat eta bizitza dohakabeago izan, hainbat irriks handiagoa dago hilondo dohatsua postulatzeko. Zoratzekoa da, izan ere, behin jaioko erremedio gabeki, eta berean mundualdi miserablea egokitzea. Edo, absurdoago, aukera irrepitiblea erdibidean moztea, edo abiakeran bertan, heriotzaren sadismo goiztiarrez. Pila itzazu alde tragiko guztiak, denak egiazkoak, arbitrario edo zentzugabe diruditenak barne. Eta zer?

Zu zaitugu gure biziraun segur, gure zorion hilezkor, gure inpernu honen ordainezko zeru.

Ez litzateke itxaropen makala, nahiak bere baitan balerama egia bihurtzeko derrigorra, zeren, Jainkoagan sinetsirik ere, zergatik dauka haren existentziak izaki kontingenteen hilezkortasunari lotuta egon beharrik? Jainkoaren borondate atzemanezina zergatik ez daiteke konpatiblea izan gizakiaren denbora mugatuagaz? Hasiera bat izan zuenak zergatik ez dezake amaiera bat izan? Edo, haraindi bat badela emanik, zergatik izan behar du eternala? Ez da ideia txarra espirituari propietate hilezkorak esleitzea, baina nork egin zuen bera? Guk ala Jainkoak? Bestalde, litekeena al da izaki bat, hasieraduna bai, baina amaigabea izatea, hots, eternitate norabide baterantz bakarrik izatea? Hara! Ulertezina ez da ulerterrazten galderak multiplikatuz. Ez dezagun buru koxkor hau alferrik oinazetu. Jainkoa ahalguztiduna bazen, nahi zuena egin zezakeen, baina zer nahi izan zuen garbi azaltzeko egokitasunik ez dakusen bitartean, igartzeko ahalmenik ez eskatu adimentxo honi, kontradikzioak erresolbitzen ikasten ez dueno.

Zer dinozu mendietan agertzea horren gogoko zenduen Orojakintsu horrek? Ez nabil total txarto be, ezta? Zuk badakizu nik badakidala zer diren bihozkadak, haluzinazioak, malenkoniak, beroaldiak, delirioak, hondorapen deusezleak, transformazio extatikoak, eta kontzientzia ahul baten alterazio guztiak. Badakizu badakidala sentsazio horreek guztiak ondo bereizten adimenaren egintzatik beretik, zozergaitik bainaz animalia arrazionala eta ez soilki instintiboa.

Sentsazioek, nahikariek, sentimenduek, bizitzeko balio dute. Ondo edo txarto, horiexen gorabeheran bizi naiz. Hilezkortasunaren ondorioak ateratzeko, ordea, ezin naiz horietaz fidatzeko bezain infantila izan.

- *Hago apur batean. Neuk be berba egin behar joat, dena heuk esan barik, heure eta inoren.*
- *Ave atque vale! Horixe ez neban itxaroten. Bakarrik geratzea lakorik ez dago, antza, bakarrik berbetan hasteko.*
- *Nik betiraun guztia jaroat berbetan, zuek ulertu nahi ez dozuen hizkuntzan.*
- *Ulertu ala nahi?*
- *Vale atque salve! Oraintxe jarri haz ulertzeko bidean.*
- *Ez dakit zelan.*
- *Hik ez al heuen entzun harako ‘nahi baduk, sinets dezakek’ ha?*
- *Salve atque satis! Hori esateko eten dozu isiltasun eternala?*

Badakit misterioaren enuntziazioa, gutxi gorabehera. Fedea, aldi berean, librea eta Jainkoaren dohaina da. Honek, baldintzatzat, subjektuaren nahimena behar du, halako eran, non, Jainkoaren nagusitasun graziatsua ez bigarrentzeko, nahikuntza bera ere dohainean inkluditzen den. Garbi esanda, fedea Jainkoaren dohaina duzu, baina dohainak zure nahimena behar du, sinesten baduzu, Jainkoaren meritu izan dadin, eta ez baduzu, zeure erru. Garbiago esanda, beste ulertezin bat gehiago, bat ere kezkatzen ez ninduen, neure adimenaren mugatasunaz jabeturik eta gustaturik bainengoen. Okerrena, ordea, neure nahimenaz ere ezin nintzela segur egon. Benetan nahi banuen, Jainkoak erantzungo zuen, eta hala ez bazen, seinalea ez nuela benetan nahi izan. Beraz, ezin nuen jakin nahi nuenetz ere. Horrek kontzientziaren beraren opziorik gabe uzten ninduen, zeren, misterio bat ez ulertzea nire adimenaren mugetan sartzen zen bitartean, benetan nahi nuen ere segurta ez banezakeen, zer oinarri fidagarri geratzen zitzaidan, nortasunaren deusespena besterik? Nire adimenaren mugatasuna ezin zen deskonposatu, nahimenaren segurantza ere ukatzeraino. Erra ninteke nahiaren ahalaz, baina ez nahi izatearen egintzaz. Nahikizuna lortzea esperientzia txakurrak salbuespentzat ematen bazidan ere, ‘benetan nahi dut’ esatean, erabat ziur nengoen sentipen horretaz. Gaixotasun mentalen bat tarteko izan ezik, ‘zer nahi dudan ez jakitea’ baliteke, baina nahi dudala ez jakitea, hainbestearaino ezin naiz muskildu.

Zeure infinitasun inkuestionablea salbatzearen, ene Jainko, izakirik kontingenteenari be ezin deutzazu horrenbesteko deusezpenik proposatu. Nik eginahalak egin nituen zure izen ona salbatzen, gatx guztiak haretatik ei datozen jatorrizko pekatuan legez. Berez, izaera pekatariidun bagara, alperrik da pekatari ez egiten saiatzeta, hots, lasai egin geinkeela atera behar da, ze bataioak errua garbitu leike, baina izaera? Berak egin bako desobedientzia atabiko batek haurtxo xumea linbora kondena bazeikeen, geuk egindako makurrak zelan ordaindu behar genduzen? Zantarra, arbitrarioa, astakirtena izan behar da gero! Laster erabagi neban zuk horrelakoa izatea baino gurago izan izango zendukeela ez-izatea bera be. Baina abadea nintzen, eta arrapaladan zekarrezen jaiobarriak bataiatzen jarraitu behar neban. Zu salbatzearen, ezin neban kristauen bildurra braust desegin. Badakit, barrero be, kontingentziatik ezin dodala zure infinitasunik ulertu, baina zer egin behar dot, ezer ezin ulertzeko adimenez hornitu banozu?

Beste kontu bat da ez ote den ezinezkoa bi terminoak (infinitutasuna eta kontingentzia) elkarlotzea, bata edo bestea ez deusezteko paradoxatik libratzeko.

- *Ez hadi izan harroa. Misterioak bajagozak.*
- *Begoz! Nik ez dinot egon behar ez dabenik, neuk be egon behar dodala baino.*

Eta lasaiago egon ere misterioz inguratutik, lanaren ondoan etzateari beldurrik ez diona baino. Txakurrak gogaitzen hasia dirudi; beheranzko abialdiak egiten ditu, ea animatzen naizen berari jarraitzen. Horri apenas ezer diotsan gailurren mitikotasunak, non onenek ere, iristearen ondorio gorentzat, jaistea besterik aurkitzen ez duten. Jainkoagaz berbetan egon eta gero, esku hutsean erretiratzea ez da itxura (aukera hau Bizkargira ihes egin nuenean harrapatu izan banu!), baina orain zertarako hasiko naiz ezer eskaingarriren bila, behean inor ez badago?

– *Gauza bat egingo dogu, Jainko Hodeipeko. Oizko antenetan eta haize-errotetan, graffitiak utziko deutsudaz, beste ezertarako gogorik ez dozuneko entretenigarri. Marrazten ez naz lar trebea eta idazten be hortxe nonbait, baina zure talentu infinituak asmatuko ahal dau deszifratzen.*

– *Eskertzen deuat borondatea, baina gurago neukek, lantzean behin, heu etorriko bahintz.*

– *Etorriko naz, ego te promitto. Bitartean, nire oroigarri bat izan daizun, hots, hurrengo natorrenean, neure aztarnak aurkitu daidazen, hasi egingo naz idazten, Oizko hare-harria ez da lar iraunkorra baina. Ni bizi nazeno badirau, honek be egin daiela gero berak gura dauena.*

Esaterako, niaren jarraitasuna hain sentipen bizian existitzen da, ezen ia segurrago senti baitezaket, ‘ni oraingo hau naiz’ baino, ‘ni orduko hura naiz’. Berriro Oizera etorriarik, hori irakur dezadanean (*hemen izan nintzen, barrero izango naz, noizbait azkena izango da*), zirrara kolpea segurtatua da. Zergatik ez den on baten atsegina haren galeraren mina adina sentitzen? Beharbada, existitzen ez dela dioten denboraren misterioa izango da, zeren, inoiz, ‘hauxe naiz’ delakoan kolokan gelditzen banaiz (erratzeko beldurragatik, segurrenik), ‘hura naiz’ horretan ez zait zalantza izpirik pasatzen, botila bat ardo afaritan edanik, bi aukeraren artean bezala. Bata: *Orain hasiko ete nok harrikoa egiten, bihar goizerako utzi ahal izanda? Bia: Oraintxe baino alegreago sekula ez joat egingo.* Zer egingo dut? Hainbeste gogapen dabilkit buruan, ezen zorabiatu egin naiz.

Eskerrik asko, ene Jainko! Zer ulertezinek, zure hirutasunaren misterioak, esaterako, adimena biziki garatzeko balio izan deuste, konparazinerik pentsagatxenak sortarazoz. Ez da abantaila egoista bakarrik. Nik uste dot zure ez-existentziaren suposamenak ni, eta nire ezerezaren konstatazinoak zu, aurrerantzean, hartu-emon askeago eta emonkorragora eroango gaituela. Nik zu atsegindu beharrik eta zuk ni salbatu beharrik barik, nasaiago berba egin geinke, gogoia daukagunaz eta daukagunean. Zuri ondo etorriko jatzu absolutuaren inbariazinotik apur bat jaregitea, eta niri be ez txarto, edertasunak edertasunarren, eta ez bestelako inherentzietarren, gozatu ahal izatea. Lehen be esan deutsut, niri zugaz beste, zeuri be komeni jatzula nigaz ondo konpontzea, ahalik luzaroen. Bizi arrazionala planeta honetantxe bakarrik bazegoen, eta planetako bizidun arrazionala bakarra ni banaz, kasik merezi leuke hilezkor egin naizun, ze, bestela, kondenatuta zagoz oroahaltasun autistara itzultzen. Zerbaiterako zarela hirukotxa esango dozu, baina zeure antz eta irudira sortu ginduzunon sentierak balio baleutsu, nortasunaren desdoblamentuak seinale kezkarritzat hartzen genduzen.

Fedeetatik askatzeak (bat baino gehiago profesatzen nituela uste dut) ekarri zidan abantailarik ez txikiena arte erligiosoaren gozamen susmagabea izan zen, gozamen horren ustezko galeraz aurretik hainbeste penatu izanak berretua. Edukiz edo motibazioz husturik, hainbeste musika zirrarragarritz, pintura zoragarritz, eskultura harrigarritz, arkitektura durdigarritz gabetu beharko nuela tamal handiz usterik, sinesmenari eusten tematu nintzen, edertasun horien guztien sentiera ez galtzarren. Ezin izan zen. Sinesmena bera joan zen, ez ‘banoa’ ez ‘agur’, hartz polarra ezer aurkitu ez duen etxe abandonatutik aldentzen den bezala. Baina etxea ez zen, nonbait, hutsik gelditu, entzuten eta ikusten bainerraien, harriturik neurekiko, gozamina, zimeldu beharrean, hanpatuz zihoala. Jada ez neukan arteari lehen zatxekon makurtasun erreberentzialik, deribazio moralik. Libre nintzen ahalegin transzendentetatik, emozio obligatuetatik. Edertasun soilaren aurrez aurre

gelditu nintzen. Hartz polarrak mesede handia egin zidan, bera hain isil eta bakez erretiraturik, handiostasun zuriaren atsegin bitarteko gabea utzi ninduenean.

Bizitzaren ezaugarri nagusitzat nola ez dut, ba, amaikortasuna sentituko, sekula amaituko ez zirelako sentipenean bizi izaniko bi aoren amaia neure haragian nabaritu eta gero? Seminarioa eta espetxea amaitu baziren, gainerakoa nola ez? Ezin dut denbora gelditzea bezalako topiko tentelik sentitu. Aurrerantz ez denean, atzerantz edo alborantz joaten da. Denbora luzeagoak txarra ontzea ez da segurua; seguruago, txarra txarragotzea. Asperdura, logura, larria... Behar dut denboraren amaia desiatu, amaitzen ari delako pena ekiditearren. Urteek eman didaten esperientzia da esplikaezina naizela. Baina ‘esplikaezina’ diotenak ere oker daude. Sentimenduak esplikagarri dira, dena da esplikagarri, kontua ez baita esplikaezinak izatea, esplikazioak amaigabeak direla baizik. Eta denak abarkatu aurretik, joan egin behar. Eta hurrengoek hutsetik hasi behar. Joan ziren, eta begira zertan naizen.

Leku batzuetan, adimen literarioari adimen erligioso esaten diote. Alderantziz ez luke okerrago emango. Orain etxera noa. *Ah, ba, etxera heltzean, arropak eskegi, gogoratzen bazara.* Eta gogoratzen ez banaz, zer egin behar dut? Ateak beti zabalik utzi. Lasaitasun atsegina da lapurren arrisku gabe sentitzea, tarteka osten badizute ere. Nork ostu behar dit ezer, lehorte gogorrean bakar-bakarrik geratu den belar kankailua naizen honetan? Konparazioa ez da exaktoa, belarra ez baita inoiz bat bakar gelditzen, baina nire kasua horixe da, txakurra ere konparazioan sartu ezik. Ez zait gustatzen inor nahastean sartzerik, ardura ez diona bada ere. Aurrera egin behar ei da. Zergatik? Amorraturik, etsirik, sumindurik, derrotaturik, oheranzkoan komunean eseri eta... eltxoa hegan! Behar genuena, Dios! Videtera igo eta zain, eguna justifikatzeko. Eskuan akabatu gura, hormarik ez orbaintzeko. Txahala bezalako eltxo amorratua. Zapla, barru, Dios! *Hor daukak merezia, zantar horrek!* Intsektu ezteus bat mendeku ikaragarri baten objektu izatearen handitasunean hil da. Ezin dut ekidin neure txakurtxo politari dingoan antza hartzeko beldurrik, zeintzuk dromedariokumea harrapatzen imaginatzeak mintzen nauen, zeina, halaber, bere dromkide gazteekin batera, ama taldean bortxatzen ikusteak aurreko pena kentzen didan. Hau ez da, Sanjoanetan, “auzo guztietan sua egingo dute” berria jasorik, “auzo guztiei sua emango diete” iragartzea bezala.

– *Beno, nire eritzia bestea dok.*

– *Eritzia ala ignorantzia?*

Konforme bizi izateko, ez bereizten jakitea bezalakorik ez dago. Eztul egin eta barrabilak gora, baina beti bat bakarrik.

– *Txandaka izango dok.*

– *Ez, ez! Beti bera.*

– *Seinale txarra dok hori.*

– *Ez ona, ez txarra.*

– *Orduan, prostata izango dok.*

– *Ezin al da bakarria izan, txarra izan barik?*

Gailurrik gorenaren nagusitasuna bezala: beste gailurrekiko solas parekoa gutxietsiz, beherantz ez zegoena gorantz aurkitu nahiak bakardade irremediablera kondenatu zuen. Eustea dauka bere maldizioari, konkistariak iritsiz batera jaitzarazten dituenari, neure neurrira egina den, bere neurrira egina naizen, Oiz honek ez bezala. Inguru berriak ezagutzeko, nahikoa dut astoz ibilitako lekuetatik zaldiz pasatzea, edo autoz ibilietatik, autobusez. Oraindik ez naiz aurkitu abionetarik osteko premian. Behin honezkero, nahikoa dut oinez. Ekile, gerakaitz, aktibo, aktibista... Sakon-sakonean, kontenplatiboa naiz. Denbora aurrera joateaz maizegi hitz egiten

bagenuen, ez zen hainbeste ardura zigulako, denok bat gentozen gaia zelako baizik, eguraldiarena bezalatsu. Edo sentimendu handi horiena bezala (maitasuna da... duintasuna da... askatasuna da...), zeintzuek ez duten bizitzeko balio arteak balio duen baino gehiago, zera ere ez den gauza handia, baina bai ederra, hor konpon.

Mitin sutsu batetik bueltan, gorantz zoazen mendateko bihurgunean, horizonte gainera saltatzen dizu ilargi beteak, zeinak, gainera datorkizulakoan saihestu gura izan duzunean, egunetan hartaz oroitzeke bizi izanik, bat-batean jabearazten zaituen zer alienaturik zenbiltzan. Horixe dateke gaurko nire kasua, lehenengo partea kenduta. Txakurra badoa berriro, ehun eta zazpigarren hurbilkuntza egin eta gero. Ez dizkiot kontatu, baina behin egiteko kapritxoia izan nuen, eta ehun eta sei izan ziren. Garai hartan egia bazen aurrera gindoazela, gaur ez daitezke gutxiago izan. *Era berean, afalondoan, kaliza guren hau bere esku santu eta agurgarrietan harturik...* Ez. Afal aurrean, gauez, behiak jezteko kantin hotsa zentzutenekeo, katuak, errapea garbitzeko lehen esne zirriztaden pozean, ukuilurantz abiatzen ziren, isatsak tente eta santua bistan, Txit Santuaren aurrelari lihoazen ziriolak irudi. Azken sakramentuak emanik, abadeak:

– *Orain trankil hiltzeko moduan zagoz, Bentur.*

– *Bai, jauna, gariak ereinda baneukaz.*

Honen goian, honen urtsua nola izan zitekeen beti harritu ninduen Oizko iturrira heldu naizenean, gehiago harritzen nau ikusteak nola gure txakurrak neurri binarioan edaten duen ura, ternarioan ohi zuena. Auzia ez da, kalean bila zoazela ('Fotos en una hora'... *eta nik mestizoak ordu laurdenean, notejode!*), autoa zein kaletan utzi duzun, kalea non dagoen baizik. Errodamentuetan almondigak eta barrabiletan kroketak.

– *Aita!* –biologikoa barik bestea–. *Uste dot homosexuala nazela.*

– *Neskak gustatuko jazak baina!*

– *Bai, ze lesbianoa be banaz.*

– *Zeeer?*

– *Lesbia!*

– *Zer dok hori?*

– *Mutilene.*

– *Ah! Besterik?*

– *Heterosexuala be bai, aita.*

– *Joño! Besterik?*

– *(H)alterofiloa.*

– *Hatxez ala hatxe barik?*

– *Eguraldiaren arabera.*

– *Ondo. Besterik?*

– *Bestiala.*

– *Hori be bai? Hirutasunaren misterioa txiki utzi behar dok hik!*

Abade ohientzat arriskua handia da. Lehen edozer galdetzeko eskubidea adeitasuntzat hartzen zizutena gero inpertinentzia garbitzat har zitekeen, non bizi zara, nongoa zara, ezkondata?, umerik?, zeintzuen erantzunak, bestalde, ez zaizkizun askorik axola. Idaztea gutxiago kostatzen zait kopiatzeta baino, atzamar potolookin disketea atera ezinez. Gustatzen zait mezu piloa jasotzea, e-maileko barra urdina, astiro, luzatuz, noiz osatuko gozatzen, denak, supr-supr-supr, zaborrera botatzeko, banan-banan, hori ere gozamen xehatua, luzatua izan dadin. Batzuetan, erakutsi beharra daukat balientea naizela, hots, balientea izan naitekeela.

- *Zelan?*
- *Zenbat berbatan erantzutea gura dok?*
- *Ba, esaterako, hirutan.*
- *Ondo esan beharko.*
- *Bitan?*
- *Halan-holan.*
- *Bakarrean?*
- *Txarto.*
- *Eta zergaitik ez ondo?*
- *Hori beste itaun bat dok.* –Bitartean, autorik ezin arrankatu goizean–. *Motorra hotz, jagok, antza.*
- *Zelan berotzea gura dok, ate biak zabalik direla deusok eta?*

Maite dut elurra abiatzetik zuritu bitarteko berdexka berunkara hori, kolorgetasuna bainoago koloreen logura bezalako. Parke eolikoan, dorreak lerroan daude. Hegal handiak, bare-bare itzulka, horizontea jotzean, badoazela dirudi, baina beti leku berean dihardute. Gurpilak plano batean, ibilbidea bestean, horrela ezin abantzatu. Belea nola izutuko da, ba, txorimaloa bere ama dela uste badu? Jarriozu barby bat! Maite dut munduari begiratzea, ezer ulertzeko asmo gabe, ostrukak, lepoa luze-luze, aditu planta nabarian, buruaren luzeraz baliaturik, tresna elektrikoen katalogoa begizatzen duen moduan. Txakur-zaunka gabe, gauak erorkor dirudi. Kotxeko retrovisorea (atetik etor litezkeenak ez zaizkit interesatzen) albokoaren loa obserbatzeko moduan orientatu dut. Maitale, plankide, stopgile susmagarri... ez dakizu gauak nondik erasoko dizun.

Iritsi gara parke eolikora, non txakurrak dorre bakoitza altuera jakinean bedeinkatuko duen, eta nik, beste batean, motiboa inskribatuko dudana.

1. Enbor Eolikoa. Eleberririk gehienak jenialtasun zailetik aise libratzen dira, halako eran laburtuak izanik, non onena egilearentzat moztu eta txarrena utzi duten, irakurlea hobeto izorratzeko, honek asko gehiagorik ez duela bilatzen baliatuz.
2. Enbor Eolikoa. Eskerrak urruntasun ezabatzailetik begiratzea ere badagoen, mundua barbaritate inexistente bat bezala sentitzeko. Ea egia izaten darraien.
3. Enbor Eolikoa. Autoan, ispilutik ikusi arren, ez nintzen fidatzen neuk zuzenean ikusi ezik, begiko kornea ere ispilua zela jakin arte.
4. Enbor Eolikoa. Itsutasun osoak, beldur estremoak eta furtibotasun errefinak pausakera antzantzekoa daukate.
5. Enbor Eolikoa. Ez zarela inor herrian, gizartean, munduan? Egia. Indibudua ez da ezer, baina indibidualki bakarrik senti dezakegu. Handiena bazara ere, ez zara inor. Oteiza gabe, Shakespeare gabe, Galileo gabe, mundua berdin legoke. Horiek bezalakoak milaka, milioika falta ditugu, eta ez da ezer gertatzen.
6. Enbor Eolikoa. Kaktusak baino katuak gurago ditut logelan. Hauek, behintzat, norbera erratzagaz sartzean, alde egiten dute, ez ukitzen ahalegin guztia eginez.
7. Enbor Eolikoa. Mendian Jainkoa, dutxan pitilina. Hizketarako gogoia dagoenean, beti aurkitzen da norbait.

8. Enbor Eolikoa. Neure Herri maitea! Neurea zarelako maite zaitut, ez merezi duzulako. Laster, neurea zarelako ere ez.
9. Enbor Eolikoa. Olatuak, hondartzan eurt egitean, “erratu egin gara, goazen hemendik bizkor-bizkor” esaten entzun dituenak zer idatz lezake hondar gainean?
10. Enbor Eolikoa. Niri ez zait kostatzen gizon, emakume ala biak izatea, gizaki izatea baizik.
11. Enbor Eolikoa. Jainkoa badela sinesteko adina arrazoi dago Jainkoa naizela esateko, baina hauek gailurreko kontuak dira.
12. Enbor Eolikoa. Bai zortea, ia jan barik eder egotea!
13. Enbor Eolikoa. Eliza gotikoa. Zer den ez dakit, baina adjektiboa gustatzen zait.
14. Enbor Eolikoa. Batek kalean atzerantz sarri begiratzen badu, izan daiteke pertsekuzio-mania daukalako, edo indabak jan dituelako.
15. Enbor Eolikoa. Maitasunak zerrikeria handi samarra izan behar du, musua ahoan gustatzeko, simaurtegi baten tximini-zulo horretan.
16. Enbor Eolikoa. Garapen iraungarria, musu iraungarria, orgasmo iraungarria.
17. Enbor Eolikoa. Betaurrekoak erantzi eta gauzak zehaztu beharrik gabe ikustearen atsedena.
18. Enbor Eolikoa. Etxean beti dago zeregina, inurriei jaten eman eta abar.
19. Enbor Eolikoa. Bai lasaitasuna, etxean lapurrak dabiltzalakoan itzarturik, esteen zarata izan dela konturatzea!
20. Enbor Eolikoa. Zain dagoenari, azkura guztiak batzen zaizkio.
21. Enbor Eolikoa. Lirio ikusgarri horiek bezala: hamabost egunean ezin ederrago, eta urtean zehar, ahaztutako porru zaharrak irudi.
22. Enbor Eolikoa. Heriotzaren ideiaaren soluzioa heriotza da, beronen pentsakizunik ezin jasanik suizidatu zenak frogatu zuen bezala.
23. Espazioan neu bakarrik banengo, neu nintzateke horizonte guztia. Terriblea!
24. Enbor Eolikoa. Ez zait komeni arteaz hainbeste zaletzea, hartan barneratu ahala, errealitatearen interesa galtzen baitzait.
25. Enbor Eolikoa. Euskal idazleak izen atzerritarrez zaletu ziren, potenziaren batekoak zirela simulatzeko inozentziagatik, edo potentzia bat zirelako engainuaren premiagatik.

.....

Hogeita hamargarren haize-errotatik beherantz abiatu garenean, txakurraren poz menperaezinak (harrigarria da, batzuetan iraingarri izateraino, animalia hauen pozkortasuna,

itxuraz, ezerezagatik) bidaiaren definitiboa ospatzen du, *nora goazela uste dok, ba?* Nik, berriz, pozteko, deribazio handiagoak behar ditudanez, neure herri-eskola dakust, distantziak kutunkiro txikitua, pinuzko mendi-barren batean inkrustaturik, etxe multzo baten eta hilerri txiki baten artean. Nire jaioterri Etxanoko elizaldea, dozena erdi etxek osatzen zuena, mende erdik ez du dozenatik pasarazi, eskola, hilerri eta eliza barne. Hizketarik entzun ezik (orduaz gaztelania Bilbotik etortzen zen maistraren kontua zen; gero nahiago izaten nuen ez konprobatu), oso erraz egiten zait hamaika urtegaz handik erauzia izan nintzen aurreko biziaren intentsoan barneratzea. Izatez, auzoa bera ez dakust zuzen, haranaz beste aldeko Mugarraren esfera-erdi haitzezkoan islaturik baizik. Zuzenago esanda, neure izatearen bikoizte txit emankorraren bitartez. Mugarran neure burua dakust, distantziak ukitu gabeko tamaina naturalean, eta honek zuzen dakus, pinu-gona hedatsu baten barrenean, Etxanoko elizalde batua. Eliza bat, alegia, distantziak berriro samurturik, xumeturik, umaldi koxkortu bat elikatze mantsoan dirudiena. Kasu honetan, hilerriak ere edoskitzen du eliza. Gona berdeak gorantz egiten duen toles baten soilun altuan, neure jaiotetxe ñimiñoa doi-doi begizatzen dut, baina hori Oiztik ere badakust, tamaina ukigarriagoan.

Mugarratik dakusdan eguteradun elizaldeko eskolan, goiz erdiko jolasordua dugu, sarrerako bandera espainolaren jasoera tutian kantatuari jarraituz (“cara al sol, con la camisa nueva... Viva Franco! Viva! Arriba España! Arriba!”), beste gaiak ere uluketa berdinean ikasten edo apurtzen saiatu ondoren. Boste urtetik hamabostera bitarteko neska-mutilak gela misto bakarrean gabiltza, gero arabiar azoken ikuspenak berrituko didan irudi berdintsuan. Mutil nagusiak elizperantz oldartu dira, hezur gordeen bila askatu dituzten txakurren antzera. Neskak lasaiago doaz, berbetan, sokasaltoan, marrazki kalkaberriei begira; edo, soil-soilik, batzuk eskola aurreko lorategian gelditu dira, binan, hirunan, launan zaintzen dituzten lur-laukietara begira. Partzela txiki-txikiak dira, non bakoitzak, gehienez, dozena erdi bana lore zaintzen dituen. Bi neskato, Gotzone eta Maribel, lorategian gelditu dira, euren patata-loreak, geranioak, arrosak, horma kontrari nire begien lilura diren pentsamenduak txukuntzen. Eta arratsaldeko sorta garrantzitsura joatekoak mimatuki, urduriki hautatzen.

Nik Gotzoneri laguntzea distantziatik begiratzea da, gehienbat, laukiak hain txikiak eta hurbilak izanik, oso bitarte estuak baitaude atzera-aurrera ibiltzeko. Hurreratzen banaiz, *alde!* agintzen dit, eta txakurtxo bekaiztia bezala gelditzen naiz bazterretik begira. *Ekar atxur txikia.* Atxur txikia daramaiot. *Ekar artaziak.* Artaziak dakarzkiot. *Neuk jorratuko dinat* badiotsat, *ez!* – darantzuke–. *Hik bedarrak kendu.* Pozik dagiket. Niri berdin zait lore-inauste delikatua zein belar-erazte zikina. Nik nahi dudana Gotzoneren inguruan ibiltzea da, haren ederra irabaztea, agintzen duena agindu. Gehienean, ura ekartzea izango da. Nik ekarri, berak ura egin. Loreek ez uste askorik ardura didatenik. Gurean, badira geranio erdi gorrindu batzuk balkoian eta etxe kantoiko horma gainean, lapiko zaharrak ontzi dituztela; katuen azkuraz beste mimorik apenas iristen zaienak. Gure amak ez dauka loreei begira egoteko astirik. Eskolan, lorategi inguruan ibiltzea maite badut, bertan neskak dabilzalako da. Hauek ez dute jotzen, ez dute praktarik jaitsiarazten, lan politak agintzen dituzte, eurak ere politak dira. Neska handiagoez mutilengandik babesten zaituzte, eta sarritan, lantxo bat, huskeria bat egiteko agindu ondoren, diotsute: *Ederto egin dok! Ez horreek beste mutil zaskarrok legez, dena zapaltzen baino ez dakieenak.*

Baina mutil zaharragoak mendekatiak dira. Nesken lorategian ibiltzea maritxukeria da, eta erreparatzen badizute, has zintezke belarrondokoentzat larrua atezatzen. Ez nesken aurrean, baina harrapatuko zaituzte bazterren batean, harrobitik pasaeran edo.

- *Zer? Mutilekin ibiltzeko baino txuloagoa haz ala?*
- *Zer egingo dot, ba, gauzak agintzen badeustez?*
- *Ez euren gonapean ibiliko ez bahintz, katu epelaren moduan.*

Honela hasitako epaibideen azkenik bigunena samatik heldutako mehatxua dukezu: *Hurrengoan badakik zer daukaan, eh!* Itoarazte plantan estutuko zaituzte, zeuk belarrondokoak hobesteraino. Neskak direla, gola sartu dizutela, agindu dizuten adina sagar ez duzula ostu, traban zaudela, kromo bat galdu duzula, pilota sasitzara joan zaizula... hemen belarrondokoak konpontzen du dena. Biziraupenak, batzuetan, errealitate bigundua edo saihestua baino gainditze bikainagoak eragiten ditu: neskato baten lagun egin naiz, eta ez dut uste bere auzoko mutilen erasotik defendatzen nauelako bakarrik denik. Ez naiz bakarra. Hamarna urteko bi mutil gara, bion artean lagun-lagunak, bederatzina urteko bi neskagaz zertuta gabiltzanak, hauek ere euren artean lagun-lagunak, Gotzone eta Maribel. Ez dugu egoera izendatzen, baina laurok susmatzen dugu eskola-lagun arruntak baino gehiago garela, elkarregaz jolasteko bitarte guztiak baliatzen baititugu, batez ere arratsaldeetan, eskolatik lauretan irten eta jolasaldi batzuk elizpe inguruan eginik, denak etxera joandakoan, disimuluan azken gelditzen garenean. Gehienetan, elizaldea ez da guk nahi bezain bizkor husten. Orduan, sokasaltoan edo harrapaka edo iturrika jolastuko gara, gero auzo berekoak diren neskatoei bide-zati batean laguntzeko.

Beste mutila elizondokoa eta neskak ez hain urrungoak izanik, neu naiz beti berandu etxeratzen dena. *Bostetako etxean gero!*, izango zen amaren goizeroko agindua, mehatxu tonu eta guzti, baina seiak eta zazpiak sarritan entzungo ditut bidean. Orain ahalik gehien lasterturik ere, ordu laurden besterik ezin berreskuratu, arnasa itotzearen truke. Badakit mehatxua ez dela honakotik pasatuko: *Hori dok bostetan etortzea? Hartu txokolatea eta ogia, eta ekarri bizkarkada bi egur, eta gero behiekin Handigaldeko basora.* ‘Handigalde’ hori nire haurtzaroko izen liluragarrietariko bat izan zen, gero, seminarioko euskara-lantze klandestinoetan (adjektibo hau ez da esageratua), ‘handiko alde’ soil bat zela deskubritu arte. Handiko aldeko basoa, etxetik urrunen zegoena. Deskubrimenduak jakite harrogarri bat ekarri zuen (ez nintzen alferrik ari klandestinitatean arriskatzen), eta, zorionez, ez zion ukitu lilurari. Toponimo bigundu horren ahozkatzeak –Handigalde–, oraintxe ere, garunak hezeteraino zirraratzen nau.

Eskola basati samarra izan arren, eta guretzat, hiru-lau urte gehiagoko mutilak ogroak izan arren, dena ez da menpetasuna; geuk ere badauzkagu geure posizioak indarren korrelazioan. Badakigu defentsa-sistema sen basatien arabera antolatzen. Katxin eta biok monagiloak gara. Horrek, abade kasik ahalguztidunen inguruan pribilegiozko hurbiltasuna segurtatuz gainera, asteko herriko ekitaldirik gorenean, igandeko hamarretako meza nagusian, gailentasun nabaria damaigu; batez ere, diru batzen pasatzean, eskolan jauntxo ibiltzen diren mutil astakumeok, txakur handi bat edo txiki bat botatzeko ez daukatelako, edo gorde nahi dutelako, gure azpil txilinka eta txintxinka astinduaren eta guk apropos erretenuaren aurrean, *botaik, kapaz bahaz* esanez bezala, burumakur apaldu behar izaten dutenean; edo, jaunartzera datozenean, Katxinek patenagaz gorgoilean sakatu eta nik kandela belarrira hurreratzen diedanean. Jaunartzeko mihia kanpoan, zehar-begirada torturatuak dio:

– *Ikusiko dok bihar eskolan, komunean buruz behera sartu haidanean!* –Izan ere, lurreko komuntzulo haiek espezialak izan horretarako.

– *Corpus Christi!* –abadeak.

– *Lehen be egin izan deustak hori* –darantzut mentalki–, *baina hurrengo jaunartze egunean, belarria erreko deuat.*

Kasulla sorbaldatsu eta alba beso-zabalaren alboetara goiko erreberentziak arinduxe iritsi arren, jaunartzaileak ezin zuen zirkinik egin, Corpus Christi, abadearen begi-begian.

– *Bihar aurpegia apurtuko deuat.*

– *Berotu egiten jok, eh!* –kandela hur-hurrean, jaunartze-ilada bikoitz eta hertsiki arautuan.

Bi mila urteko immobilitateak jarraipen aldaezina bermatzen zuen hartan, inork gutxi susmatuko zukeen, handik mende erdira, mutikoak patinetan hurreratuko zirenik jaunartzera, eskiatzera bezala; gezitxo bat hatz birekin apuntatuz, begizta saridun bat abiadan azartatzera bezala, abade etsiak kristau koxkor hura bataiatu ote zegoen pentsatzeko adoregabe.

– *Zer egingo dok, ba? ‘Nora hator lotsabako hori’ esanda, nortzuk diren be ez dakian gurasoei detektibe kanonikoa bialdu?*

Neskak datozenean, osterara, bai zaindua gure duintasuna! Barrutik gazura baino beratuago gaude, batez ere, belaunaultik zutitzean, irribarre-gogo bat utzita joan direla begitandu zaigunean. Patenagaz tokatu zaiona hain delikazia enbolbentez saiatzen da, ezen neskatoaren ahotik (Corpus Christi) bular puntatxoak jausiko direla dirudi; kandeladunak hain artatsu argitzen du haren ahosapaia, ezen handik hizki maitagarriren batzuk islatzea itxaroten du Ostia Santuaren gainean.

– *Halantxe izan don, ezton?*

– *Halantxe zer?*

– *Iribarre egin gura izan deustan?*

– *Grazia emon jeustak eta!*

– *Grazia zerk?*

– *Kandelak zelan azpitik gora burua handitzen heuan.*

– *Egin hik burla, baina ni ez najabilen jolasean!*

– *Nork esan deua ni jolasean nabilenik?*

– *Orduan, hau ez don jolasa bakarrik?*

– *Ez dok.*

Horixe da entzun gura nuena, hots, entzun nezakeen gorena, gure adierazpen bakarra, summunara, jolasaren bai ala ez horretaraxe biltzen baitzen.

Egunak eta asteak aurrera, inork ez genuen, geure artean, nobio-nobia izen kilimagarri hori aipatzen, baina niri, lantzean behin (eskola inguruetatik oso urrun, jakina), eskapatzen zitzaidan nobia neukala, denen harridura-plantak obserbatu eta inork ez zuela sinesten ikusteaz gozatzeko. *Izorratuko zarie, ba, egia dok eta!* Badakit neskak ere deskuidatzen direla lantzean leku batean. Nik uste dut txakurrak zerbait igarri duela, egunotan tristeago iruditzen baitzait, behizain goazenean, etxera ihes egiteraino, inoiz egin ez didan moduan. *Ez, Ruby! Hi beti izango haz nire lehenengo laguna. Heuk be, batzuetan, majo alde egiten dok laguntxoan bila, bueltan, inoiz, errukarri etortzeko. Niri ez jatak horrelakorik gertatuko.* Eskolan, adin eta maila bereko garenez, maistrak nire laguntxoari lanik edo zigorrik agintzen badio, hutsikgabe eskainiko natzaio, batzuetan, onbehar inpertinenteraino, pentsatzen dut beranduegi, gutxitan onartzen baitu, abusatu egiten didala pentsa ez dezadan edo, pentsatzen saiatzen naiz. Eta nik horixe gura, neure koskortxoak abusatua izatea, kankailu nagusiagoen zigor gorrotagarriak egiten ibili beharrean.

– *¡Kanuto! Cien veces para mañana, “no orinaré más contra el mástil de la bandera”.*

– *¡Señorita! ¿No puede ser ‘no mearé’, para abreviar un poco?*

– *He dicho ‘no orinaré’.*

– *Entonces, “no orinaré contra el mástil”.*

– *¿Y el ‘más’ qué?*

– *Bueno, “no orinaré más contra el mástil”.*

– *¿Y qué hay de la bandera?*

- *Ya la hemos bajado.*
- *¡Ni bajado ni subido! Ahora vas a copiar cien veces “no orinaré más contra el mástil de la bandera española”.*
- *¿Con acentos y todo?*
- *Con acentos bien claros.*
- *¡Señorita! ¿Cómo voy a copiar todo eso cien veces?*
- *¡Cien veces y en letras mayúsculas!*
- *¡Menos mal! Las mayúsculas no llevan acento.*
- *¡Esto es un castigo, Kanuto! Así que vas escribir en mayúsculas y con acentos.*
- *Heure potxonan idatziko jonat!*
- *¿Qué has dicho?*
- *Que por txonta me pasa todo.*
- *¿Qué es chonta?*
- *Un pájaro.*
- *¡Ah, bueno!*

Kanutori berdin dio Kixote osoa ehun bider kopiatzeko aginduta ere, bai baitaki gero neuk egingo diodana, belarri gabe utz nazan beldurratik. Belarriak gauza estimatuak dira, antza, mehatxu guztiek horraxa jotzen baitute. Gotzonek ere eskatu izan dit, ez neuk gura bezain sarri, bere zigor-lanak egiteko, horrela bi zigor jasaten ditudala, haiek idazteko joranean, behiak galtzen baitzaizkit basoan, gero etxean beste zigor bat jasotzeko, animaliek auzoko soroetan egindako kalteen araberakoa. Baina dena da uraren gaineko bitsa, biharamunean berriro bi bikoteok hilerri osterantz ezabatuko garen pentsamenduan. Eta ez gutxiago, pentsakizunei lantzean toki estrategiko batean jaregiten diedanean, batez ere, fraile noala zabaldu denetik (nik ez diot ezetzik), amamagaz izaten ditudan tentaketa xarmagarrietan.

- *Ez dakit, ba, azkenean, joango nazen be fraile.*
- *Zer dinok, arrea prestatzen hasita najagok eta?*
- *Lehenengo, nobia topatu behar dot.*
- *Nobia, fraile joateko? Jesus, Jesus! Handiagorik asmatuko dok hik.*
- *Asmazinoa baino gehiago izan leiteke, ze, fraile banoa, gehiago ez dot aukerarik sekula izango.*
- *Ezta behar be! Komentuan ez dok neskarik ametitzen.*
- *Etorriko naz behin edo behin, oporretan.*
- *Holako demoninorik! Suge-begiak jan dozak ala?*
- *Baina, amama! Neska batek badinost ea jolas-lagun baino gehiago izan gaithekezen, zer egingo deustat? Sugea kolkoan sartu?*
- *Neska batek hori esan deua?*
- *Ez deust esan, baina igarri egiten deustat esan guran dabilena.*
- *Kenduko al dozak pentsakizun zorook burutik? Hori deabrua dok, hire fraile joatea zazpuztu guran dabilena.*
- *Baina ez da txarra, ezta?*
- *Txarra ez, baina ezinezkoa. Hamar urteko mutiko zoztorra, gainera!*
- *Fraile joateko ez naz, ba, mutiko zoztorra!*
- *Baina, laztana! Frailetza eta nobia ezkontezinak dozak.*
- *Orduan, barriro pentsatu beharko dot.*
- *Pentsatu zer? Joan egin behar dok, gizon handi egiteko.*

Bera sutondoaren alde batean oinak berotzen eta ni bestean, ahurrak gar xumeari erakutsiz, igurtziz, atsegin multiplikatuan, hain gogoko nuen gaiari nahi adina ekinez, efektu sekundario zoragarriak sortzen ziren amamaren berbetan eta, batez ere, arretaz obserbatzen nizkion keinu

inkonexoetan. Egia dakizunean, gezur guztiekin joka dezakezu, eta gure amama perfektuki txikituak, bere hainbeste ume hazi eta inoren hainbat inudeturik, ia bakarrik gelditua zenak, beharren zuena berba-laguna zenez gero (beragaz bizi zen osaba Peron mutilzaharrak arrosarioari ere bakan eta ahapeka erantzuten zion, errezuana ala maldizioan zebilen dudatzeko moduan), premiek eta atseginek, harengan, naturalki elkar elikatzen zuten, gaizkoaren ala ongoaren ondorio zen ez igartzeko moduko ugalden miragarrian.

Amama nire nobia kontuekin ikaratu egiten da, baina uste dot ikara hori beharrezko duela, atsegingarri zaiolako, bai nire maleziak norainokoak diren tentatzeko, bai berak ere, nire afanari jarraituz, oinetatik berotu ezinik pasatzen zaion odola (sua ere halakoxea, egurra aurreztearren) fantasia apur bategaz oxigenatzeko. Ia iluntzeroko kapitulu amaigabea, nork nor engainatzen duen ez dakigu. Batzuetan pena damait, nik berari zorabioa bezala. Bateko fraile noala, besteko nobia dudala, bigirako gatzontzi izan naitekeela susmatzen dudana ezein aukerari ezin izaten diot pasatzen utzi, jendearen sinesgogortasuna zenbat eta espantuzkoago izan, hainbestean handitzen baita nire lilura, hartaraino non, neure ziurtasun sekretuan punpaturik, egia bera baino bere posibilitate egiazkoa ia kitzikagarriago gertatzeraino, zeren, inguru zentzudun guztiak hain inberosimiltzat, gehienez ere, graziosotzat, hartzen duen asmoa bihar bertan burutzeko zorian banintz, ez al nuke, pozaren pozez, neure onetik gainezkatu behar? Ba, gutxi gorabehera, horrelaxe nabil, lau lagunotariko batek duela hamabost egun jaulki zuenetik:

– *Jolas-lagun baino gehiago garela erakusteko, zergaitik ez gara ezkontzen?*
– *Baaai!??*

Nire erantzuna baiezkoa bainoago desio txunditua izan zen. Ezkonkera bakarra eliza da gure buruetan, ‘udaletxe lapurretxe’ entzun baitugu, eta epaitegiak kalabozoen gainean imaginatzen baititugu. Elizan eta elizkizunetan adituenak monagiloak direnez gero, eguna eta gainerako estrategia guztia mutilon esku geratu da. Nire aldetik ez da hutsik izango, bietarik zahartxoagoa naizen aldetik. Urduri nabil goizeko jolasorduan, Gotzoneri lorategian laguntzen, atzera-aurrera inkoherentean, beste mutil guztiek elizpean arrapaladan diharduten bitartean. Loreak hautatu behar dira, baina ez orain moztu, inork ez baitu susmatu behar gaur arratsaldean ezkontzea erabakita daukagunik.

– *Sorta handiegirik ezingo jonagu egin, hutsunerik igarri ez daiten.*
– *Hi arduratu hadi elizako zereginekin, eta lorena utzidak neuri.*
– *Benetan gura al don ezkondu? Ni gabiltzen moduan be pozik najabilen, eh! – Eta gero fraile baha?*
– *Hori ipuina don, baina hau ez don ipuina.*
– *Emoidazak artaziak.*
– *Ez deustan erantzun.*
– *Ez al dok ikusten lorak prestatzen nabilena?*

‘Gabiltzan moduan pozik’ esan dut, ez, hartara iristeko garenaren entusiasmo faltagatik, daukaguna galtzeko ikaragatik baizik. Eztei eguna abadearen kanporatze egunak erabaki behar du, hura herrian dela, ez baitago eliza okupatzera menturatzerik. Monagiloentzat, abadearen ausentzia kontrolatzea errazago da, preso ihesgurentzat kartzeleroen presentzia saihestea baino. Gaur arratsaldeko hiru eta erdietan, biago gizenetik hara, lepagoratik gorako kokota fresko-freskorik, Don Aurelio Etxanon behera Zornotzarantz abiatuko da oinez, afalorduan taxian itzultzeko, ez hainbeste, aldaparen nekosoagatik, karga erantsia osorik ekartzearren baizik. Bada beste abade bat ere, Don Blas zaharra, parrokoa, eguerdiko dotrinan, apur bat gorra denez, hamar aginduak Moises ‘Raku’ ikasle ohi deabruaren erara kantatzen dizkioguna:

- *Lehenengoa, janikoa maite izatea. Bigarrena, janikoaren azala alperrik ahotan ez hartzea. Hirugarrena, astegunak jai egitea. Laugarrena, aitamei dedu eta lotsa galtzea. Bosgarrena, inor hil barik ez uztea. Seigarrena, haragikerian arin hastea. Zazpigarrena, ez ostutzea (hau ez dakit nola utzi zuen horrela, disimulatzearen edo). Zortzigarrena, testigantza zuzenik ez emon eta guzur txikirik ez esatea. Bederatzigarrena, inoren andreari bakean ez uztea. Eta hamargarrena, hamaikagarrenari popatik emotea.*
- *Ederto, ederto! Orain, Eliza Ama Santuaren aginduak* –darrai Don Blasek, maitagarriago, gorreria nabarmendu zitzaionetik.

Aginduak, otoitzak eta bibliako pasarteak nola denok batera oihukatzen ditugun (kanpotik entzunda, ziento bat txerrikume hiltzen ari direla emango luke), bakoitzak nahi duena kanta dezakeela esaten ei zuen Rakuk; niretzat ez dago ezer asmatu beharrik, den moduan ere edozer da eta. Edozer hori ez dateke txarra, parroko zaharraren dotrinara joateko desiatzen egoten garenez gero. Arratsaldeetan, Don Blas ez da etxetik irtengo, mahasparradun balkoira izan ezik, eguzkiari aurre edo oste eginez, umeak plazan olgetan edo ganadua askan ura edaten ikusteko. Abade gaztearen arratsaldeko dotrinarik izango ez denez, eskolaumeek laster alde egingo dute elizaldetik, non, zorionez, gure adin inguruko mutiko bakarra bizi den orain, beste ezkongai, hain zuzen. Dena kontrolaturik daukagu, sentimenduak izan ezik, baina, hauek ikustezinak direnez gero, inork ez luke esango, bueltan etxe lantsura iritsi ezinik, bazterretan katigatzen diren ume kostunbristak ez garenik. Bi neskek euren aldetik dabilta, mutilok geuretik, begirada zehar-urrunak igorritz, *laster joango dozak – ez don kosta bakoa – izango joagu era, gaurkoa okertuko balitz – ez horixe! gaur edo inoiz be ez!* Mutilona erraza da, ni bidelari bakarti, mendian gora, eta bestea eliza ondoan bizi baita. Bi neskek zailago daukate disimulatzen, eskolarik erdi bertatik datorren auzokoak baitira.

- *Ala, goazen etxera!* –diote hango neska nagusiek.
- *Gu gerotxoago joango gozan.*
- *Zergaitik ez oraintxe, beti legez, denok batera?*
- *Zuek segi. Guk ez jaukanagu presarik.*
- *Zeozar egitea pentsatzen ez zari ibiliko, ezton?*
- *Eeez!! Nork esan deusue horrelakorik?*

Ezezkoa ezer ez susmatzeko baino indartsuagoa izan da, egiazko susmagaia pentsaezina ez balitz. Eliza zabalik egoten denez, kandela-negarra baino elizkoiago den maistrak inkulkaturiko bisitak Txit Santuari egitea kasik eskola-lan bat gehiago da. Mutilen artean, dozilitate mota hori maritxukeriatzat jotzen da, baina neskek sarritan sartzen dira, banan, binan, taldean, aitagurea, agurmaria, kredoa eta salbea errezatzera, hiru-lau minutuko txakadan. Aldi bakar luzea baino labur sarriak hobetsi dagoz, Txit Santuari gogaitzen ez uztea komeni balitz bezala. Elizak zoko ugari eta argitasun urria daukanez, inoiz debozioa jolasera lerratzen da, pulpitu, koru, konfesaleku, sakristia eta kanpandorre, dena kuika usnatzeko. Ez dago eliza baino leku aiutuagorik, galduta sentitzeko. Eskolakideak euren auzoetarantz, edo norabide bereko etxe bakarretarantz, taldeka edo taldetxoka aldendu ondoren, mendiranzko bakar-bidean gehienetan azken erretiratu ohi den mutikoa hondar gorritzko estarta sakonaren bihurtunean ostendu deneko, elizpearen alde banatatik bi bikoteok elizako atean bat egin dugu (*barrura! arin! itxi atea giltzaz!*), bosgarrenak aurea hartu digula ikusiz. Azkeneko bankuan bazterretik eserita dago bera, aspalditik zain, susmo guztietarik libre baina partaide, konplimen osoz, gure ezkontzaren lekuko egin zezan proposatu genionetik. Gu baino zertxobait zaharrago eta eskolan baztertu samarra, ikasteko sobratzen ez zaion argitasuna, bere bihotzontasunaz ez jabetzerainokoa, iristen da, gutxienez, ohorearen apartaz harrotzera, artean imaginatzeko ere okasiorik izan ez duen distintzio arruntagoen artean. Abadeagaz kontatzea ezinezko zela jakinik, infernu osoa bizkarrera zekigun nahi ez bagenuen, ezkontzaren benetasuna

egiazta zezan lekuko zintzo bat behar genuen, bihar-etzi inork ez dezan atzera egin, jolasa izan zela esanez. Gutxienez, gure ezkontzak hain sendoa izan behar du, nola gure lekuko Sebasek bere eginkizuna benetan hartua duen.

– *Bazatoze? Ordua zoon!*

– *Isi! Hi jarri altara nagusian, epistola aldeko tronu-aulkian.*

Ezkontza askotan monagilo jardunak izanik, badakigu egitekoen berri, meza gabe izango den arren. Hori ere bagenekike, eta egitekotan ginen, denbora luzatzea arriskua zela pentsatu ez bagenu. Zeremonia bizkor amaitzea komeni da, eliza ixteaz arduratzen den sakristaua edo norbait halabeharrez agertu eta, atea giltzaturik aurkitzean, eskandaluren bat arma ez diezagun. Tamalgarri bada ere, arrazoi beragatik, argiztapen gabeko ezkontza izan beharko du. Belaunaulki luzea, ohiki jaunartzeko erabiltzen dena, aldare-mailen barrenera erdiratu dugu. Beste hirurak hortxe belauniko, nik, sakristiatik, ezkonberriei uztarri-seinaletzat bizkarreratzen zaien humerala dakart. Neskak erdian, mutilok alboetan, estutu beharra dugu, birentzat izan ohi den oihalak laurok estal gaitzan. Zirrarez nahasturiko lotsa larria sentitzen dut, Gotzonek nire gorputzaren dardara nabarituko ote duen. Dardara ez bada, taupada hauek ez daitezke oharkabean igaro. Inoiz ez gara honen arrimaturik egon; belaunaulkia ere dardar nabari dut; dena ez daiteke neurea izan. Lau harmaila gorago, aldare nagusiaren paretik begiratzen digun lekuko Sebas goi-izaki begitandu zait, zerbaiten zain bainoago dominatzaile. Une batez, zeremonia antsios honetako figura nagusia bera ez ote den bururatu zait, berehalaxe zirrartzeko pentsatuz zer ez ote den egintza honen handitasuna, horrelako gorentasuna zerbitzari eduki dezagun.

– *Hasiko gozak?*

– *Hasi!* –darantzu Sebas lekukoak, berari galdetu bagenio bezala. Hasi egin gara, berari obedituz bezala.

– *Aita gurea, zeruetan zagozена... Emoiguzu gure eguneroko ogia... Agur, Maria, graziaz betea... Santa Maria, Jaungoikoaren ama... Gloria patri eta filio... sicut erat in principio... Amen. Sinisten dot Jaungoiko Aita ahalguztiduna... Salve Regina, mater misericordiae...* Ezkon formularioa gidatzeko abaderik ez denez, geuk zuzenean galde-erantzun beharko. Ene ama! Izango ote naiz gauza?

– *Heuk hasi behar dok.*

– *Bai, bai... Izan gura al don, Gotzone, nire...*

– *To! Lelotuta hago ala? Ezkontza zelan egingo joagu, ba, hitanoan?*

– *Zergaitik ez? Beno, ondo jagon. Barrero hasiko non. Izan gura al dozu, Gotzone, nire emazte, onean eta txarrean, heriotzak banandu gaizen arte?*

– *Gura dot, bai. Heriotzak banandu gaizen arte, eta gero zeruan, betiko.*

– *Orain heuk.*

– *Bajakiat! Izan gura al dozu, Xabier, nire senar, onean eta txarrean, heriotzak banandu gaizen arte, eta gero zeruan, betiko?*

– *Gurako ez dot, ba?*

– *Horrela ez, lelo hori! 'Gura dot, bai' esan behar dok.*

– *Ah, bai! Gura dot, bai.*

– *Bai zer?*

– *Dena! Azkenean, berton harrapatu behar gaitue!*

– *Barrero itaunduko deuat. Izan gura al dozu, Xabier, nire senar, onean eta txarrean, heriotzak banandu gaizen arte, eta gero zeruan, betiko?*

– *Gura dot, bai. Heriotzak banandu gaizen arte, eta gero zeruan edo inpernuan, betiko.*

– *Inpernuan?*

– *Izan leiteken bata zerura eta bestea inpernura joatea.*

- *Eta hi inpernuan hazela, nik zerutik fidelotasuna gorde?*
- *Zer egingo don, ba? Zeruan beste bat pretenditu eta heu be inpernura etorri?*
- *Amaituko al dozue?* –Katzinek.
- *Bai! Hasi beste biok.*
- *Izan gura al dozu, Maribel...?*
- *Izan gura al dozu, Katxin...?*

‘Izan gura al dozu? Gura dot, bai’. *Une hau zergatik ez ete dok eternala* –pentsatzen dut–, *batez be, ‘bai’ llabur hori?* Handik mende erdira pensatzen dut une hark, oraingo, behintzat, eternal dirauela, lerro sebastar hauek lekuko:

– *Jaungoikoak zuen gogoan onartzen dauen seinale, emiozue elkarri loratxo maite bana.*

Eraztunik eta dirurik ekartzerik ez genuenez (gurean, egon ere ez dago horrelakorik, eta besteetan ere, nekez), oraintxe da unea, Gotzonek eta Maribelek goizean hautatu eta arratsaldean, denek alde egindakoan, moztu dituzten arrosak bikoteka elkarri emateko, neskak mutilari zuria, mutilak neskari gorria, nagusiek egingo luketen alderantziz.

- *Ezkonduta gagozela egiaztatzeke lain egin dogula uste al dok, Sebas?*
- *Nire aldetik, nahikoa dok!*
- *Horrek be zuka ez al jonan egin behar?*
- *Lekukoena bardin dok. Goazen lehenbailehen, baten bat ate joka hasi aurretik.*
- *Amaitu da!* –errematatzen du Sebasek, oraingoan zuka, bere gain sentituz, eskertzekoa denez, ezkonberriez gainerako partaide hipotetiko guztien autoritatea, sakramentuaren grazia barne.

Beste hirurek eta lekukoak belaunulkia bankuen parera alboratzen duten bitartean, nik humerala sakristiara daroat, aurre-horma beteko altuera erdiko armairuan, hiru ilarako launa kaxoi txit astunetariko batean, beste arropa gurenen artean ahalik kuriosoan gordetzera, nahiz eta ez dudan uste inork igartzeko arrisku handirik legokeen, parroko zaharra bistaz baino gehiago haztamuka aritzen baita, eta lagunkide gaztea kaxoietara baino adiago armairuaren luzera guztiko ispilu erdi azal-altxatura, bere burua, osorik edo zatika, ondo ikusteko unada sanoen bila. Bueltan, lagunak irtenak direla, elizan bakarrik aurkitu naizenean, zeremonia eranskin intentsoki pertsonal bategaz bermatu guran, ezin dut ekidin, beheengo harmailan belauniko, neure bizi guztiko aitagurerik sentituena errezatzea, *‘danak ondo urten daijen’*. Hamar urteko mutiko batengan, intentzioaren argitasun horrek benetasunaren adierazle inekibokoa izan behar du. Aldaretik ateranzko bidean, dena ondo irtengo den euforia txit segurua nabari dut, beharreko guztia hain ondo eta zintzo egin dugunez gero. Jada elizpean, amets betearen poz gainezkoari larribide esterno barik burutu izanaren sentipen triunfala gehitzen zaio. Mutilok bakoitza bere neska defendatzera jolasten gara, eta hauek bestearen mutilagana hurbiltze-plantekin probatzen gaituzte. Ni horrek mindu egiten nau, gero jelostu esango dutena, baina dena mukuruz konpentsatzen da, hurrengo bueltan nire neskak defenda dezadan uzten duela ikustean, arriskura eskapaturiko gepardokumeek berriro amaganatzeango txerak estimatzen dituzten bezala. Kasu honetan, neskak gu baino zoliagoak direla esango nuke, ni baino, behintzat.

Defentsa lana geu lauron artean denean, badakigu dena jolasa dela, hots, maniobra sentimentalak, gure izate berriaz gehiago jabetzeko eta gozatzeko balio dutenak. Beldur naiz, oster, ziur ere bai, garbi esanda, hurrengo egunetan, beste eskola-lagunen artean, benetako defendatu-beharrak sortuko ez ote diren. Orduan ez dakit zein izango den handiagoa, defentsa efektiboa garatzeko gai naizen kasuetako gailentasuna, batere zale ez naizen borroken bitartez bada ere, ala handiagoen kontra ezer egin ezinaren larrimina, nahiz eta orduan ere, gatazka-zelaitik at, ezin

zoriongarriago izango den norbere andretxo malkotua kontsolatu ahal izatea. Kontua da, artean, mendian behera esku-galga emanda bezala jaisten nintzena, orain eskolarako noiz jaikiko egoten naizela, *gaurkoagaitik etxean gelditu beharko dok* esango ote didaten beldurrez, itaurre gogaikarria egiteko. Edo anaia txikia zaintzeko, zeraren kasuan, bizkar nekagarriaren ordeiz, eskorgan erabiltzeko trikimaina sekretua asmatua dudana. Ama, ez hain berehala deskubritu ninduenan, ikaratu zen umea nola ez nuen toki arriskutsuren batean irauli. Dotore moldatzen nintzela ikusirik (*jauste-arriskua bizkarretik altuagoa da eskorgatik baino*, esan zion behin kargu hartzera etorri zen amama halaber ikaratuari), orain ‘haur-kotxea’, mantar eta guzti, alboak burkoz babesturik, berak preparatzen dit, berak jakin aurretik ere praktikatzen nuena irteera bakoitzean agindu gabe ezin utziz: *Zoru suabeetan ibili gero! Ahal dela, bedarrean.*

Niretzat, lana bainoago asmaketa etengabea da, ia jolasik deigarriena, haurra bera ere abenturan ezin pozago barnatzen baita, krin-krin krin-krin, inoiz kron ere bai, burdinazko gurrpil uhartuaren gainean. Lantzean behin, txakurrak albotik aurpegia garbitzen edo platano-mutur adurtua mihizkatzen dio, eramana eta haurra garrasika uzten ez duenean, nik, txirringolan, delineazio fantastikoetan dihardudan bitartean. Halaxe ere, uneka, penak jotzen nau, eskolara huts egiteagatik. Edo, tristeki eta beldurgarriro okerrago dena, amama zaintzera joan beharragatik, ondoegi ulertu gabe zergatik egon litekeen bere etxekoen eraso arriskuan, nahiz eta, noski, odol-haserreen hotsak ezaguera beretik jasoan naizen. Ez dakit, gainera, amama zaintzen egoten naizeneko dardara baino handiagoa ez ote den izaten erasotzaileak (bere semea edo erraina, edo euron ahaideak, ez dakit garbi) ager daitezen irrika, lazgarrikeria bat norbere begiz ikustearen intentsitatea sentitzeko.

Nire eztei ondoko joranean, bestela ere halakotzat naukan baino finago eta argiago nabilela dakusen maistra gajoak fraile joateko erabakiari esleitu diola sumatzen dut nire bikaintze miragarria, ia astero eskolatik pasatzen den Aita Luzio arrosariogile trebeari (uste dut harexen alikate txiki zilar-kolore punta-zorrotzen xarmaz baietz esan nuela) diotsanean: *Uste dot, aita, Jainkoak apropos beretzat eginiko mutikoa eroango dauela berorrek*. Hitz eztigarri horiek kanpai-dandak bezala entzuten ditut, kanpaia bera gainera jausiko zaidanik pentsatu gabe.

Ezkontza onez amaituak, elizpean atzera-aurrera erdi erritual batzuk egin ondoren –nagusien ezteietako argazkialdien antzeko zerbait–, badakigu bidaia duela bidezko jarraipen, eta hor abiatu gara, bata bestea gabe kontzibitu ezin ditudan eskola eta hilerri artetik, Goirienaren harrobi zaharretara. Eguzkia nahi baino lehenago joango denez gauaren bila, badakigu bidaiak hurbila eta laburra izan beharko duela, izentazio bat nolabait; bizitza berriko potentzialitateen seinale-uzte bat bezala, nahiz eta ez askoz mugatuagoa orduko guraso askok, nireek behintzat, Donostiara egin zutena baino, egunsentian abiatu eta iluntzean itzultzeko. Geltokirako oinezaldi luzea eta trenean bereango joanetorri amaigabea joz gero, bidaiaren objektua ez zen santuari muin eta eurtetik luze joango. Deskuidatzen bazara, Kontxa non dagoen galdetu izango zuten, eta: *Handixek ezker eta aurrera zuzen eta azkenean berriz ezker eta hantxe bertan aurre-aurrean* entzunik, trenera itzuli izango ziren, esanez: *Orain badakigu Donostia non dagoen, eta hurrengoan etorriko gara astitsuago*. Eztei-bidaia gero ‘ezti-bidaia’ bihurtu zutenak nekez inspiratu izango ziren gure gurasoengan.

Ez daukagu bazterrak ikusmiratzeko astirik, nahiz eta dena ikuspegi berriz ageri zaigun. Sagasti erripean trabes, aspaldi abandonaturiko harrobi gorrira doan pistak belar fin-finezko alfonbra bizikor baten energiaren hartzen gaitu. Sagastiak harrobiaren ebakidura hartzen duen marratik harantz, bazter ezkutak bai, baina inklinazio zaskarrak eta leize arriskutsuak daude. Zoratuta ere ez nintzateke ausartuko neskei hain paraje zikin eta badaezpadakorik iradokitzen. Ertzean gelditu gara, zertara etorri garen ideia agian ezberdinen tentsioa gainditzeko lotsaz bainoago beldurrez, bakoitza bere lagunaren ondoan geldi, edo hara-hona txit motzean, bidaiaren

xedea ez daitekeela itzulera soila izan jakinik, baina bitartean jakintzaz bainoago jakin-minez. Eskua ematerik ez zaigu bururaten, inon ikusi ez dugulako. Ondoan (gura bada, ondo-ondoan) egotea edo paseatzea intimitate ageriaren summuna da guretzat, zirrara posible ororen transmisore ia gehiegizkoa. (Handik urteetara, oso ondo ulertuko nuen amama batek lurrera tu egitea, kale kantoiko horma kontrari zintzurra libratzen ziharduen bikote gazteagaz topo egitean. Ez du mesprexuz egin, ez erreminez, ez moralismoz. Soil-soilik, higuina eman dio, sugearen triapak edo bare zapal-berria ikustean bezala). Hori bai, kontzientzia osoz saiatzen gara neska-mutil helduen arrimu ohiki (taktikoki, agian?) inprezisoa ontzen, gure kasuon, argiz eta agerian, gaueko neska-laguntzen izaera hizki-mizki ostuetatik baizik ez baitakigu. Sebas zintzoak, eserita dagoen muna gaineko sagarrondoaren kontratik, ez du, nonbait, itxaroten zuen lekukotza berrirako martxarik sumatzen eta, bere toteltasun handitik, agintzen du:

– *E-e-e-eeeizue, ba!!*

Nik uste dut denok dakigula zer den egitekoa, baina neskek ere badakitela pentsatzeak urduri ipini nau. Jakingo ez dugu, ba, neuk behintzat, animaliena hainbeste bider ikusirik, lehenengotan hain arretaz obserbatzen nuenari orain ez baitiot jaramonik ere egiten, astoen kasuan izan ezik? Hauena beti da ikuskizuna, hain apartua eta eskandalosoa, ezen, asteme ielik inon aurkitzen badut, ez dut bakerik izaten astarren bategazko inkontrua bideratu arte, beldur bainaiz halako okasio espektakularrak (astoenak) bakan samar eskaintzen dituen natura ez ote den bat galtzen utzi izanaz mendekatzeko itxarote amorratuan egongo. Harritzen naiz zezenak zer denbora laburrean amaitzen duen egitekoa –aurrekulariak mahai gainekoa baino bizkorrago–, askak eta ukuilu guztia erauzteko putzak askatu ondoren. Oilarrarenak aipatzerik ere ez du merezi, kasik ez baitakizu oiloa estaltzen ala gainsaltatzen ari den. Basapiztiak gutxiago degradatuak izango zirelakoan, lehoi mitikoa lehenengoz jardunean ikusi nuenean, marikita garbia iruditu zitzaidan. Bere buru eta papar inpresionanteak jiraturuz, atze-estu toreroan tremulatzen zen, lehoieme lurreraino makurtuaren gainean atsedean dominikala hartzen bezala. Azkenean, nork eta eulia bezalako izaki zirtzil batek eman behar nik amodioaren idealaz neukan konkreziorik desiagarriena, elkarren gainean platerera jausten direna ez da grazioso izaten baina. Kopulatu eta halaxe egon, egon, egon, nahi adina denboran, atsegin samur eta uniformean, horixe zela uste nuen amodioa, harrobi-bidaia hartatik sagar batzuk osteaz beste atrebentzia gabe itzuli ginenean, pozik eta dohatsu, hurrengo egun amaigabeei fidaturik (zorionez, ezkontza hausteazina zen) eginkizun ororen kulminazioa. Banekien, baina ez nekien. Banekien, animalietatik (eta ‘medikuka’ jolastetik), kanpo-egintzaren berri zehazki, baina ez nekien barruan zer gertatzen zen, eta halaxe jarraituko nuen urte luzeetako inozentzian, zorionean, harik eta deskubritu arte giza egintza ditxosoaren gailurra ere, arraren aldetik, behintzat, oilar erakoa gehiago zela nik fabulatua nuena baino. Dezepzioa hain handia izan zen, ezen irudimenak antzinako engainuari heldu behar izan zion, amodioaren zaputz radikaletik salba zedin. Horixe esker jarraitu zuen desioak, baita edertasunak ere, okasioa bera *Arrabako landea balego Gorbeien* baldintza bezain zaila baitzen, sarritan.

.....

Oizko pistetan behera, pentsakizun zahartezin haueetan nentorrela, ez naiz konturatu txakurra etengabe ari zitzaidanik gerrira saltatzen, *alde!*, *ken hortik!* agintzen niola makinalki. Berak ere nire barne bidaian parte-hartze zuzena erreklamatzeko bide du, hartatik abstrahiturik sumatzen nauen zerbait garrantzitsuaz ohartarazi gura ez banau. *Zer behar dok, Ernai? Oh, bajakiat! Pasatu egin gozak, ez tok?* Behin-behineko etxetzat hartua dugun Etxebarrietarako bidegurutzea aspaldi atzean utzirik, Garaiko errepideraino iristear gaude, lehen ere hamaika bider egina naizen jaitsiera suabe eta ikuspegitsuan. Buelta erdi eginez konpontzen den distrakzio dohatsua besterik ez litzateke, txakurraren mutur urdurian mezu astingarri bat hauteman ez banu. Kiratsik ez dago! Oizera

konfinatu ninduen motiboa ezabatua ote da? Beherantz darrait, oraingoan arreta osoz eta pentsakizun finkoz. Amaitu ote da ustelmena? Garbitu ote da ustelondoa? Garaiko plazaraino iritsi gara eta, abandonoaren seinaleek nabarmenduz badirudite ere, arnasara ez dator ezer higuinarririk. Gehienez ere, haize leunak goroldio usain hezea dakar, kolore eta guztikoa, haranaz aurreko haitz-kateatik, Urkiolako San Antonioren erroskila usainez nahastua. Badakit erroskilen usain egiazkorik ez daitekeela izan, baina, usain oroituak nagusitzen hasten direnean, presenteko motibo indartsurik ez dagoela atera behar da.

Bazterrei begiratzea zahartze seinale dela? Aurrerako beldurrak daragien alboetara atxiki beharra? Inbentzioak balioko luke, bazterrek eurek ihes egingo ez balute, ezarian baina joanean, batel solteari urertzak bezala. Badut itxaropena bizitzan zeharreko depresio askotariko bat, ahalik sakonena, azken unerako gera dakidan, heriotza desioz errezipitzeko. Depresioak ezin balu errezipitzea bezalako egintza aktiborik antolatu, aski duket ezaxola sentitzea, gehienez diodala: Giltzatu atea, hotza sartzen da eta! Bizitza, une bakoitza, berez ezer izan behar ez lukeena, heriotzaren kontzientziak egiten du handi. Hori horrela bada, azken uneak ederra izan behar du.

– *Ama! Aitari burua joan jako.*

– *Nora?*

Azkenean, bihotzekoaz beste, osasun betean hil zen, eta halaxe darraike betiraunean. Hainbeste hili kantatu diot, ezen pentsatzeko arriskuan izan bainaiz biziaren edukia heriotza ez ote zen. Denboraren misterio guztiak denbora amaitzen delako ebidentziatik datoz. Bizi-nahia egintza heroikotzat jo behar al dugu? Izan liteke baietz, izan liteke ezetz. Bota beste tragotxo bat.

Lorerik ederrenak inork miretsi gabe zimeltzen dira, Oizko troketan barnaturik, ustekabeen aurkitu ohi ditudan, hobeto esanda, agertu ohi zaizkidan, basalandare txundigarriro loratuak bezala, belaunikatzeraino emozionatzen nautenak. Oi mirari bat-bateko! Norentzat horrenbeste edertasun, kasualitateak zugana ekarri ez banindu?

Handik ebakuatu beharra izan nuen etxea altuago dago behinolako *Garaiko plazan otea loran* baino. Hark ere liberaturik behar luke, beraz. Badaezpada, segurantza-tarte osoz jokatzeko, Garaitik Abadiñoranzko aldaparen erdiraino jaitsi naiz. Ezer ere ez susmagarririk. Haran barrenean, kaleetako denda eta biltegi inguruetan, baliteke hondarrak geratzea, baina ehun bat metrotik gora garbi egonez gero, bada mundua geurea dela esateko adina leku. *Eztok, Ernai?* Hala ere, airea garbi eta otzan, arte-hostoekin bibrazio irribarretsuan edo isla-jolasean diharduen ‘ifartxo dultzeak’ dezepzioz ganduturiko hustasuna zabaldu dit izate guztira. Oizen gora, zeruaren kontra sarraskituko ote ninduen beldurra neraman ustelmenak ez-oharmen osoan alde egin du, otzoitzapenekin txopinka niharduela, esate batean. Nola daiteke norbere azkenik tragikoena –superlatiboan, noski, ezin baitut imaginatu higuinez akabatzea zer besterik izan daitekeen– agintzen zuen mehatxua horren ezarian joatea, norbere beldurra ere konturatu gabe, ez noiz, ez nola, ez noiz arte? Ezabatze orokorraren fenomeno ere halaxe gauzatu zen, hain supitu neurrigabea izan, eta ezer gertatu ez balitz bezala. Hain ezer ez, non adimenaren ahalmena muturreraino estutu behar izan nuen, egia berriaren frogetara errenditzeko. Ez zen inondiko seinalerik, atzerrira biagora gonbidaturik, inork molestatu nahi ez banindu bezala. Baina itzarrik nago, eta neure bakartasun sinestezinean gelditu ez banintz, inor ez zatekeen ohartuko ezer gertatua zenik, iruditu ere ez baitirudi ezer gertatu denik. Inork ez dit erasotzen, eguzkiak badarrai nire itzala egiten, haize leunak badarrai nire bekokia laztantzen, Anbotoko haitzak ez dirudi nire gainera oldartu behar duenik, Ibaizabal ibaiak badarrai bere bokalerantz, hegaletan inolako nobedaderik ez balego bezala. Naturaren obstinazio, kasik autismo horrek, batzuetan beragandik at ikusarazten nau, hain deslotura estremoan, ezen ikaraz beste heldulekurik ez duen eskegitasun bat sentitzen bainaiz.

Gauza harrigarriak, ikaragarriak gertatzen ari dira, neu ezer ez banintz bezala; existitzen ere ez banintz bezala. Goizean jaiki eta balkoira irtenik, etxea hutsune totalaren suspentsioan aurkitzea bezala. Nola gertatu da ezabatze hori guztia neuk ezer sumatu gabe, ametsen atzera-nahian, aurrerago gertaturiko zerbait ustez atseginaren bilaketa inposible baina atxikiorrean, mesanotxeari Mironen diskoboloaren forma eman nahi nion bitartean? Etxea airean eta dena ezabatua. Espazio osoa hustu bada, ez nago airean. Handiena, ez naizela ezertaz ohartu. Beharbada, horrelaxe dateke ondoen, lehen ere askotan ibilia bainaiz, ez ingururik ez izatea desiatuz, horrek inguruaren kontzientzia suposatuko bailuke, baizik ingururik ez bailitzan; batzuek abstrakzio, beste batzuek kontzentrazio, nik egoismo soil esango nukeen horretan. Geroz joera biziago eta laketagoan, gainera, hainbestearino, ezen oraintxe ere inoiz zalantza sortzen zait egoera hau ez ote den lehengo neure baitaratzeen luzapen amaitua: denek alde egitearen itxurapean, neu denei alde egina naizena. Horrela bada, desinguratzeraino ninderaman kontzientzian, edo berdintsua izan litekeen inguruaren deskontzientzian, trebaturik iritsi naiz helburura. Hori abantaila handia izan nezake aurrerako, baina ezin dut ukatu honen eskala handiko desinguratzea, alienazioa ere esan daitekeena, apur bat larrigarria ez denik. Batera zein bestera dela, segi beza gertaeren suzesioak ni gabeko berebaitasun sakonean, nigan ezertarako ez arretatzekotan. *Gu konponduko gozak, eztok, Ernai?*

Berriro gorantz, Oizko Etxebarrietara heldu garenerako, eguerdia gainditua da. Solomo onduz eta ardo onduagoz, bazkari bizkorra bezain energikoa eginik, martxa-usainak berari ere muturra alaitu dion kamioia bueltarako prestatzen daroat arratsaldea, seminarioko maletagintza exultantea gogoan. Eguzki ostendua ilunabarrari tiratzen hasi denerako, banator goian behera, gron-gron-gron, txakur emozionatua kopilotu dela.

Beste izakitxo batek gure itzuleran pozkide nahi duela dirudi. Jaitsiera suabe baina luzearen erdi inguruan, eskuineko ezponda otatsutik txantxangorri bat irten da. Hogeita metro aurrerago, biderantz okerturiko haritz landara batean kokaturik, *hemendik! hemendik!* indikatzen du, adar gaineko tentaketa bizkorrekin. Kamioia hurbildu zaionean, beste hogeita metroko hegada bat egin du, berriz ere biderantz okerturiko landare baten adarrean kokatzeko. Kopilotu eserita datorren txakurak niri begiratzen dit, nik txantxangorriari, honek kamioiari, bidetik irten ez dadin. Kamioia bigarrenez hurbildu zaionean, bistatik galdu da, hurrengo metroak bihurgunean baitatoz. *Zozo, bele, miru, sai, arrano eta hegazti gailen guztien artean, ostrukak barne, bizi izan naizelarik, huskeria batek, segurrenik, neure predisposizioak hunkigarritua bera, gelditu behar izateraino begiak malkotu badizkit, zer izan behar du etxea aurrez aurre ager dadinean, beraganako oroimin luze eta etengabeak bere antz handiagoa harrarazi izango zidan aurpegiagaz? Bihurgunetik ehun metrora, beste txantxangorri bat agertu da, portaera berdinean. Ikusten, Ernai? Hemen pozik jagozek, antza, bagoazelako.* Hurbildu garenean, hegada bat egin du aurrerantz, lehengoaren berdin-berdin. Aurreko bera ote da, ba? Lehenago, Oiztik oinez nenbilela, maiz gertatu zitzaidan txoritxo lagunzale hauek bide zati batean jarraitzea, harrapatuko nituela sinestearino hurbiltzen utzi ondoren, ni baino abilagoak zirela erakusteko.

Ez daiteke izan! Hogeika-hogeika metroz, neur-zintaren doitasunez, txoriak aurrera darrai, adar egokirik aurkitzen ez duenean, bidezoruaren erdira jaitsi eta, txan-txan-txan, aurrerantz saltakatu. Egunaren beroa gordetzen duen hormigoizko zuriskari, zaldi eta behi gorotzez nabartuari, gustua hartu bide dio, orain zorutik zorura baitoaz hegadak. Astirotasun uniformeaz, katu erraldoi bihurtutako kamioiaren runrunik suabeenaren gainean, pare bat kilometroko bidaldi serenoki ondulantean, bagoaz errepide nagusirantz hurbilduz, eta txantxangorri urduria hor doa aurrelari, manifestazio konfliktibo bat irekitzera irten den tontotxo afantsua bezala. Oihana amaiturik, belardi artean sigi-sagatzen den errepidera irten garenean ere, berdin darrai gure aurretik, tarteka hegotxoak astinduz, asfaltoak kilikili balegio bezala. *Ernai! Hau ez dok normala.* Naturaren liraintasun baten

xarmatik hasi naizena, ikararantz lerratuz noa, neure arrazoimen guztiaren apalduraz, ezin baitut horren ñimiñotasun xotil bat ezein ondorio terrorifikogaz asoziatu. Zenbat eta arrazoigabeago, hainbat gehiago ikaratzen naizela, neure izaera kontradiktorio jakinaren baieztapenak lasaitzen nau apur bat. Kamioiaren oldarraldi biolento bategaz txoriñoa aise uxa zitekeela ere bururatu zait, bat-batean, pentsatze soilak ikara bizkarrezur guztira banatu ez balit, oinaztua enborrean behera bezala. Hain ezer egiteko ezgai, ezin dut eurt egin. Gelditzen ere ez naiz ausartzen, txoriaren erreakzioa ikusteko, zeren, zerbaitez alertaturik, geuganantz abia baledi, nork diost gauza izango naizen atzera-martxari lemaioken kamioi izutua amiltzetik libratzeko? Pentsakizun mota guztiek, lagun, kontrako eta gurutzatuek, hormigoi-ontzian iraulka, jada masa bakar bihurtuak izan behar dute, ideia argi bat bereizi ezinik iritsi bainaiz Garaiko plazara, baina burmuina bera ere zer da masa likin bat besterik, hezur-ontzitik aterata, plateran tente egoteko ere ez dena, zeraren konpentsazio maximoa bere deformitate aldagarria den?

Txantxangorria, jadetxe bateko eta besteko leiho banatan pausatu eta ihartutako geranioen lorontzi gorrietan hauts zuriska batzuk astindurik, kristaletik barruan inor ba ote zen begirada labur baina harrigarriro geldit bat jaurti ondoren, etxe artean desagertu da, eltxoren baten atzetik, segurrenik. Tardatuko ahal du harrapatzen. Lore iharrena eta beste detaile ziztrin batzuen salbu (goranzkoan erreparatu nion postontzi batek hortxe darrai aldizkari doblatu bat, aho forman irekia berau ere, ez dakit irentsi ezinik ala okatu guran), Garain berdin pentsa liteke, dakidana ez baneki, mundu guztia lo dagoela, gehienez ere, hilda.

– *Zelan ikusten dok zera, Ernai? Aurrera?*

– *Apur batean itxaron egingo neuke, badaezpada.*

– *Joño! Hi be txoriaren aldetik orain?*

– *Ez dakigu zerbait fatalera amildu gaitezen engainu bat izan den be.*

– *Joder! Presentzia txatxar batek atxiki gaituena orain ausentziak egin behar al gaitu?*

– *Presentzia txikia zen, baina ausentzia totala da.*

– *Nork emon deua ugazaba arrazoietan gaintzeko baimenik?*

– *Txiza egiteko atea zabalduko bazeunst, zokomira bat atoan egingo neuke.*

– *Zokoak utzi hurrengorako. Egik txiza ekitaldi bakarrean, eta bilaik txoria, ea zer mugimendu darabilen.*

Ahalik kontuzen, kamioia bere kabuz balihoa bezala, aurrerantz abiatu naiz etxe ilara bien artetik, aldasbeherarantz. Ñimiñotasun xotilak eta pitokeriak! Gauden tamainuko egoeran egonda, txori uger baten mende egon behar al dugu? Garaiko herribarrutik at, hilerri azpiko bihurguneak Durangaldeko haran maiestosoaren aurre zuzenean jarri gaituenean, errepide albo paraleloan daraman itxiturako hesol batean... txantxangorria berriro! Kopilotuaren aldeko atea ireki dut, eta txakurra altzoraino saltatu zait, abandonatu nahi nuela ulertu bailuen. *Gauza gitxi behar dok ikartzeko gero! Edo pozteko! Ikusten dok hori?* Ez zaio pitorik ardura. Neure aurpegia mihizkatzea besterik ez du pentsatzen. *Jesarri heure lekuan, hori be badok hiretzat nahikoa kategoria eta!* Txakurrak jasez obeditu du, eta txoria dozena bat haragoko hesolera saltatu da. Lehengo bera ala beste bat ote da? Beharbada, bigarrena ere ez da lehenengoa izan, hirugarrena ez da bigarrena, eta oraintxe ez dakit zer desiatu behar den, bat bera ala ezberdinak izatea, txori ziztrinok, segurrenik, espezie gisan bakarrik funtzionatzen jakingo baitute. Ez da gizaterian bezala, non banako batek espezie osoa honda dezakeen, ondo egina, bestalde, neuk ez dut ezertan parterik izan baina. Alde guztietatik harrapatuta banago, segi dezadan aurrera, zeren, ihes asmorik suma balezate, nork jakin nola lerantzuketen. Nago, gainera, txantxangorria mundu guztian hedatua dela. Beharbada, horrexegatik prezeditu nahi nau, nahi naute, planeta osoko giza hondar bakartzat nakuselako, nakustelako, hots, bidea seinalatuz, *hemendik! hemendik!*, joan zirenen atzetik gidatu nahi nautelako, edo haien bideari jarraitzen deskuidatzetik salbatu nahi nautelako.

Nola ez zitzaidan bururatu, naturaren ahorik irekienerantz nindoala, National Geographiceko bilduma guztia kargatzea (“Txantxangorria: muszikapidoen familiako hegazti paseriformea...”). *Jode! ez deua gitxi eskatzen heure txikitasun arrunt horrek!*), espezie bakoitzaren intentzio basikoak, behintzat, antzemateko? Beheranzko zuzengunearen barrenerantz, traba handi bat hauteman dut bidean. *Dios, Ernai! Hasi jakuzek urtenbideak ixten. Hemen ez jagok eurta maniobratzeko tokirik. Orain zelan egin behar joagu atzera, beti ‘aurrera!’ eta ‘aurrera!’ besterik ikasi ez bagenduen?* Pinu handi batek bidea mozten digu. Alderik errazenera jausi behar horrek ere. Zorionez, aizkoraz horniturik nator, pare batez. *Geldi, Man! Egon hi hementxe!* –diotsat kamioiari, bolantea gozo-gozo igurtziz, ametsetan agertu zaizun ipurdi borobila bezala, zeinari, badaezpada, ez diozun bueltarik ematen, behar ez den generoa ager dadin beldurrez. Atea itxi dudanean, txakurrak zoratu behar du barruan. *Heuk be kolaboratu nahi dok?* Uste baino pinu lodiagoa da. Oraindik fresko dagoen enborrari mozketak bat ematea ez litzateke lantegi handia, baina, lehengo alferkeria konbatibotik oraingo alfertasun soberanora aldatu naizenean, ez litzateke itxura lanera degradatzea, txakurraren aurrean. Umetan, estimatu izan nukeen honelako aukera bat honelako bitartekoekin, sen asmatzailea praktikatzeko, zeina, bestalde, beharrezkoen izango dudan, planeta osoaren pisuak abrumatuko ez banau.

Zorionez, pinua beste aldeko palatu ertzean kraskaturik dago. Kable bat puntu horretara lotu eta kamioiak atzerantz tiraturik, pinutzarrak, karraskada amorratuen artean, etortzea besterik ez dauka; ez, oster, behar bezain bazterrera, alde bateko adar kankailuak bidea betean trabestu baitira. Kablea bere aldeko beste pinu barruragoko baten ostetik angeluan pasaturik, oraingoan, irrintzien amorrua kamioiari dagokio, txakurra izutzeraino –txerriak horzka egin zionaz gogoratu bide da–, tiratzeko bi halako indar egin behar baitu, edo hiru, zer dakit nik errai horietan zer erreboluzio dabilen. Angelu egitea egokitu zaion pinua ez dabil gustura, kableari orpoa ebakitzen utzi baino alde egitea nahiago baitu, baina sustraiek ez diote barkatzen, neure burutik ere ondotoxo dakidanez, noranahigai gelditu naizenean. Beti izan dut susmoa gizakiaren jatorri urruna sugea barik zuhaitza izan zela. Adakeraren alderik lodiena nahikoa baztertutzat emanik, kamioia gustura doa adar punten gainetik, kris-kras, kris-kras, pasaeran min meditatua banatuz plazertzen zen aingerua bezala.

Garaiko errepide barrena Markinaranzko nagusiagaz batzeko unean, sarrera-irteerak banatzen dituen zuhaizka multzoaren erpinean, itxarotekoa zenak, baina bere pentsamendutik guztiz at nentorrenak, errealitate subliminalera itzuli gaitu. Hor da berriz ere txantxangorria, banakoa edo espeziea. Ez diot jaramonik egin. Errepide nagusian hartu dugun abiadurari ezin dio jarraitu, eta ea zer asmatzeko gauza den. Berrizko herriaren gainetik pasatzean, dena fenomenoaren aurretik bezain berdin ageri da. Dakidana ez baneki, naturalena litzateke pentsatzea mundu guztia etxean dagoela. Laster ohartu naiz, dakidana dakidalako, eguneko detaileak falta direla: arropak kakoetan, lore freskoak leihoetan, kea tximinietan... Trabakuko mendatean gorantz, Andikoako auzobidea hartu dudanean, lasaitasun samurrak jo nau ezen neure neurriko munduan sartu naizela. Pentsatzeko hain exzitagarri zaidan mugagabetasunak ez dit hainbeste balio bertan pausatzeko, are gutxiago, lo egiteko.

Inor ez dudala aurkituko jakinik, zurtzen naiz nola sentimendu zaharrak berdin berritzen zaizkidan etxerantz hurbildu ahala, izena ere Solozar berak. Txakurrak ere igarri bide dio, baina honegaz ez dago gehiegi fidatzerik, edonon aurkitzen baititu emozionatzeko motiboak. Erreka zeharkatzeko trokan, etxetik berrehun metrora, kamioia zubian utzi eta oinez jarraitzea pentsatu dut. Aldapatxo batean goranzko hurbilkuntza, eta azken bihurguneak paratuko didan etxearen agerpena, oinkatu, xehatu, xurgatu nahi ditut. Txakurra ziztuan alden du da, segurrenik, etxera jaisteko arrapala markatzen duen pago lerdenari buelta guztia zirristatzeko. Ibilian daitekeen astiroen noa,

oinkada bakoitza baitaratuz, birpentsatuz, helmuga baino iritsiera, sarritan, zoriongarriago delako esperientzia berrituz, berriro egiaztatuz.

Noizbait, hor agertu da, bide azpian, etxearen teilatu gorri-iluna, zabala, lehengo-lehengoa, aurreko belaunaldi guztiak magaltzeko segurantzaren jarrera identikoan. Biziak ala hilak izan, etxearentzat xehetasun txikia da. Gailurraren aurreko ertza apaintzen duen teilatxo tentean, hor da txantxangorria, betikoa, etxearen osakina, terrazako nire atzera-aurrerak kontaktzen aspertzen ez zena. Etxe alboan behera, aurea ikustear, ingurua bitan banatzen duen ataka maitea irekitzen ari naizela, izate guztia golkoan gora datorkit, presentituz, atarian eupada egitean, inor irten ez baledi, atek erantzungo duela.